

Jakintza-arloa: Antropologia

# Boterea, diskurtsoa eta subjektibotasuna

Nikaraguarren migrazio esperientzia  
Nafarroan

Egilea: ZURIA OLLO GORRITI  
Urtea: 2012  
Zuzendaria: KEPA FERNANDEZ DE LARRINOA  
Unibertsitatea: UPNA/NUP  
ISBN: 978-84-8438-456-4

## Hitzaurrea

Herrialde igorlearen eta hartzailearen ikuspuntutik abiatuz, ikerketa honek mugikortasunaren egiturazko arazoak erakusten ditu. Elkarri lotua den eta elkarren menpean bizi den mundu globalizatu honetako migrazio-gertaerak aztertzen dira. Antzina emigranteen igorle ziren herrialdeek gaur egun immigrazioa kudeatzeko eta tratatzeko duten modua ulertzen saiatzen da, erakundeek helburu utilitaristekin, politika murriztaileak nola aplikatzen dituzten azaleratuz. Baztertzeko eta barnean hartzeko mekanismoen funtzionamenduan murgiltzen da, alderdi sozialetan sakonduz, Antropologia Soziokulturala deritzogun diziplinaren arloan. Osagai sozialak eta migrazio-errealitateari laguntzen dioten aldaketa sozialeko prozesuak azpimarratuz. Ikerlan hau 2011kako irailean bukatu zen eta tesi aurkezpena Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2012ko otsailaren bukaeran egin zen.

Analisisa botereari buruzko Foucaulten teoretan oinarritzen da, pertsona migratuak balio gabetuak eta eskubiderik gabekoak bezala agertzeko jarduten duten mekanismoak azaltzeko, eta kritika kulturalaren teoretan. Baztertze eta marjinazio-prozesuetara hurbiltze teorikoa egiten du, "normaltasun sozialaren" kontrakoak bezala kategori baztertzaila hauek mantentzeko erabiltzen diren mekanismoetan arakatzuz.

Lana lau ataletan banatuta dago. Lehenengoan lan-metodologia eta marko teorikoa azaltzen dira, botere harremanak eta egiturak ardatz zentralak izanik. Geroago, azken garaioetako Europako migrazio-mugimenduen ibilbide historikoa azaltzen da; begirada prozesu ekonomiko eta politikoetan jarriz, gaur egungo Espainiako estatuko migrazio-politiketan amaitzeko. Atal honekin amaitzeko, «beste»ak «gu»re aurrean jartzearen Mendebaldeko eraikuntza eta errepresentazio kulturalari heltzen zaio.

Bigarren atalean, Europako migrazio-politiken azterketa xehatuagoan jartzen da arreta. Ondoren, Nafarroan politika hauek nola gauzatzen diren agertzen da. Aurrerago, Nikaraguako testuinguruan sartzen da, bertakoak baitira ikerlan honetako protagonista nagusiak. Ikuspuntu historiko-estrukturala erabiliko da bertako egoera agertzeko eta populazioaren portzentaje handi baten migrazio-prozesuetan murgiltzeko arazoak ikuskatzeko. Hirugarren atala amaitzeko landanaren emaitzen analisisa eta interpretazioa aurkezten da.

Horrela laugarren eta azken zatira iristen da, azken gogoetak burutuz eta ikerkuntzatik ondorioztatzen diren ideiak laburbilduz. Bertan azaltzen da iritsierako jendarteko gizarteratze prozesuan migratuen identitatea aldatzen doala. Pertsona horiek, mugatuak izan arren beren asmoak beste leku batzuetan jaio izateagatik, eta, horretaz gainera, jendarte berrian integrazio eta bazterketa prozesuei aurre egin behar izan, ikertua izan den taldearen migrazio-esperientziak, oro har, balantze positiboa du, nahiz eta ez egon gatazka eta bidegabekerietatik libre. Alde batetik ongizate-estatuarekiko sentitzen duten nolabaiteko "miresmena" dago eta ematen diren hobekuntza azkarrak lanaren ondorioz, bestaldetik aurkituko ditugu familiarengandik urruti egotearen atsekabea eta arrazakeriak sortzen dituen erresuminak.

# **Boterea, diskurtsoa eta subjektibotasuna**

**(Nikaraguarren migrazio esperientzia Nafarroan)**

**Antropologian Doktorego titulua lortzeko aurkeztutako tesia**

**Aurkezlea:** Txuri Olo Gorriti

**Zuzendaria:** Dr. Kepa Fernández de Larrinoa

Iruña 2011

**AURKIBIDEA**

AURKEZPENA .....	7
ESKERRONAK .....	16
SARRERA OROKORRA .....	17

**I. ATALA**

METODOLOGIA .....	34
1. Hipotesia .....	34
2. Helburu orokorra .....	34
3. Helburu espezifikokoak .....	34
4. Ikergaia .....	34
5. Metodologia eta aurreikusitako lanak .....	35
6. Ikerketa-teknikak .....	37
7. Ikerketaren ardatzak .....	46
8. Ikerketaren muina .....	46
9. Lagina .....	46
10. Azterketa unitateak .....	47

**MARKO TEORIKOA**

1. Foucault eta botere-harremanak .....	50
2. Migrazio-mugimenduen ekonomia politikoa .....	57
2.1 Migrazio mugimenduak Europan .....	59
2.2 Migrazio-fluxuak Espainiako estatuan .....	64
2.3 Migrazio-mugimendua Euskal Herrian .....	65
2.4 Atzerritarren Legea .....	70
2.5 Paperik gabekoak .....	74
2.6 Kriminalizazio-mekanismoak .....	78
3. Alteritatearen kultura eraikuntza .....	81

**II. ATALA**

MARKO POLITIKO-KULTURALEKO SARRERA .....	92
IMMIGRAZIOA POLITIKA GISA ETA IMMIGRAZIO-POLITIKAK .....	102
1. Immigrazioa, langile-klasearen berrantolaketa-politika gisa .....	103
2. Migrazioaileen helburuei jarritako murrizketak .....	113

3. Paperik gabekoen erresistentzia .....	121
<b>BOTEREA-HARREMANAK AGERIAN JARTZEA .....</b>	<b>127</b>
1. Babesgabetasunari dagozkion lan-baldintzak .....	132
2. Immigrazioaren devaluazioa .....	143
<b>HERRITARTASUNA, GIZA ESKUBIDEAK ETA EKINTZA POLITIKO- KULTURALA .....</b>	<b>150</b>
1. Asoziazionismoa .....	167
2. Ereku publikoen eskuratzea .....	172
<b>LABURBILTZEA .....</b>	<b>177</b>
 <b>III. ATALA</b>	
<b>SARRERA .....</b>	<b>186</b>
<b>IMMIGRAZIOA NAFARROAN .....</b>	<b>189</b>
1. Nafarroan atzeritartzat hartzen den biztanleria .....	189
2. Jatorria .....	190
3. Banaketa, lurraldean zehar .....	193
4. Enplegua .....	194
5. Ekonomia-krisiaren eragina .....	195
6. Paperik gabeko egoeran diren atzeritarrak .....	196
7. Zerbitzu publikoen eta gizarte-erakundeen sarea .....	197
8. Hezkuntza .....	201
<b>NIKARAGUARI BURUZKO HURBILPEN BAT .....</b>	<b>203</b>
1. Kafea Nikaraguan .....	207
2. Kapitalismoa eta globalizazioa .....	208
3. Nikaraguako emakumearen egoera .....	211
4. Nikaraguarrak Espainiako estatuan .....	213
5. Nikaraguarrak Nafarroan .....	215
<b>EMAITZEN ANALISIA ETA AURKIKUNTZAK .....</b>	<b>216</b>
1. Migrazio-prozesua	
1.1 Emigratzeko erabakia .....	217
1.2 Laguntza-sareak iritsierako lekuan .....	229
1.3 Banatzearen kostu afektiboak .....	231
1.4 Europan sartzea .....	232


2.	Identitate kulturantzuna	
2.1	Iritsiera-lekuko erreferente historikoak	236
2.2	Emigratzen duenaren herrimina	238
2.3	Identitatea berreraikitzea	241
2.4	Asoziazionismoa	245
2.5	Kultura-antzasuna, parte-hartzea, integrazioa	253
3.	Tentsio pertsonala	
3.1	Ilusioa / desilusioa	260
3.2	Egokitzapena	263
3.3	Aurreikusitako planak eta epeak	265
3.4	Balio-gabetze soziala eta laborala	268
4.	Jokabide arrazistak	
4.1	Hautemandako diskriminazioa	269
4.2	Diferentziatik desberdintasunera	278
4.3	Bikotea konbentzionala ez denean	280
4.4	Tolerantzia	282
4.5	Immigranteen arteko arrazismoa	284
5.	Botere-harremanak	
5.1	Mugak	285
5.2	Eta muga gehiago	288
5.3	Menderatze-estrategiak	291
5.4	Immigrazioaren funtzio ekonomikoa: demokraziaren erabilerak eta erabilerarik ezak	298
5.5	Generoa eta zaintzak, emakumeen eskualdatzea	299
5.6	Genero-indarkeria	304
5.7	Paperen ametsa eta errealitatea	307
5.8	Immigrante-kategoria	308
5.9	Garapen pertsonala oztopatzea	312
6.	Dimentsio soziala	
6.1	Erakundeen diskurtsoak	313
6.2	Demokrazia hautematea	317
6.3	Eremu publikoak	323
7.	Transnazionalismoa	326
8.	Esperientziaren balioespena	
8.1	Bertako biztanleekiko interakzioa	332
8.2	Zerbitzu publiko eta gizarte-zerbitzuetarako sarbidea eta haien erabilera	335
8.3	Euskararengana hurbiltzea	340
8.4	Itxaropenak betetzea	342
9.	Itzulera	347

#### IV. ATALA

<b>AZKEN GOGOETAK</b> .....	351
<b>ARGUMENTUAREN LABURBILTZEA</b> .....	361
<b>AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK</b> .....	369
<b>ERANSKINAK</b> .....	389

## Ivaniaren oroitzapenez





Betidanik tximeleta eta flamenkoak  
eta baleak eta izokinak  
milaka legoa ibiltzen dituzte  
aire eta ur bide askeetatik.  
Ez dira askeak arren gizaki exodoaren bideak.  
Izugarrizko ilarak dabilta munduan  
ezinezko bizitzaren iheslari ilarak  
gudetatik ihes dabiltzanak  
baina gehienbat triskatutako soldatetandik ihes egiten dutenak  
eta zoru birrinduetatik.  
(Eduardo Galeano)

## AURKEZPENA

Gaur egun, ikerketa ugari ari dira egiten migrazioari buruz, askotariko ikuspegi edo ikuspuntutatik. Orekaren ikuspuntutik aztertzen dira herrialdeen arteko diferentzia demografiko eta ekonomikoak; ikuspuntu historiko-kulturalak, berriz, ekoizpen-sistemetan eta gizarte-harremanetan oinarritutako esplotaziozko egitura-harremanetan jartzen du arreta. Azken ikuspegi horrek desberdintasunaren, esplotazioaren eta gatazkaren ikuspuntutik aztertzen du errealitatea, baina arreta gutxi jartzen du gizarte-prozesuetan. Soziologia ekonomikotik abiatzen diren ikerketak ere aipatu behar genituzke; ikerketa horietan informazio historikoa, datu estatistikoak eta behaketa etnografikoa bateratzen dira, eta migrazioan zerikusia duten herrialdeen arteko lotura historikoen azterketan jartzen dute arreta.

Ikerketa honek mugikortasunaren egiturazko arrazoiak erakusten ditu, herrialde igorlearen eta hartzailearen ikuspuntutik. Elkarriz lotua den eta elkarren mende bizi den mundu globalizatu honetako migrazio-gertaerak aztertu nahi ditugu, hobeto ulertzeko antzina emigranteen igorle ziren herrialdeek zer modu duten gaur egun immigrazioa kudeatzeko eta tratatzeko; beren indarra mugatzen dute, eta politika murriztaileak aplikatzen dituzte, helburu guztiz utilitarista duten beren behar eta onuren arabera. Baztertzeko eta barnean hartzeko mekanismoen funtzionamendua ulertzen saiatu naiz. Alderdi sozialetan sakondu nahi izan dut, Antropologia Soziokulturala deritzogun diziplina honen ikuspuntutik. Aztertutako gertaeren edo datuen azalpena eta interpretazioa Nikaraguako gizarte-talde bati buruzkoa da, Nafarroako testuinguru soziopolitiko eta historiko jakin batean kokatzen delarik. Nire helburua ez da izan konstante unibertsalak eta garrantzi handiko teoriak aurkitzea. Aitzitik, migrazioaren errealitateari laguntzen dioten gizarte-osagaiak eta gizarte-aldaketarako prozesuak azpimarratu nahi izan ditut.

Ez natzaio atxiki migrazioari buruzko ikerketa-ikuspegi jakin bati, baizik askotariko interpretazio-arloak erabili ditut. Botereari buruzko Foucaulten teorian oinarritu naiz, migratzaileak balioa galdutako eta eskubiderik gabeko subjektu gisa ager daitezen eragiten duten mekanismoak azaltzeko, eta baita kritika kulturalaren teorian ere. Teoria hori analisi diskurtsiboan oinarritu da; izan ere, Mendebaldeko edo Iparraldeko herrialdeek diskurtso ideologiko bat landu dutela jotzen dut Hegoaldeko herrialdeekiko. Eta diskurtso adierazpena Foucaultek erabilitako zentzuan hartu dut; hain zuzen, errealitatearen irudi eta irudikapen jakin batzuk —beste batzuen kalterako— legitimatzen dituzten hizkuntza modu egokiak eta baimenduak sortzeko giza gaitasuna. Faktore instituzionalez eta/edo botereari buruzko ez interesatu naiz; esate baterako, nazioarteko migrazio-fluxuek botere-jarraibide batzuk nola adierazten dituzten aztertu dut, zeinetan garrantzitsuak baitira, adibidez, antzinako kolonien eta herrialde hartzaileen arteko loturak. Kanporatze- eta marjinazio-prozesuetarako hurbilpen teorikoa egin dut; horretarako, kategoria baztertzailerik horiek «gizarte-normaltasun»aren kontrakotzat izateko gizarteak erabiltzen dituen mekanismoetan ikertuz.

Lana lau ataletan banatu dut. Lehenengo atalean, lan-metodologia eta marko teorikoa azaldu ditut. Ikerketak metodologia kualitatiboa izan du ardatz, eta bizitzaren kontaketak, elkarrizketa sakonak, behaketa parte-hartzaileak, eztabaida-taldeak, hainbat dokumenturen irakurketa, eta teoriari eta praktikari buruzko gogoeta erabili ditut horretarako; gainera, ikertutako komunitatearen lekuko ezagutzaz baliatu naiz, Nikaraguan 1985 eta 1992 urteen artean egon izanak bide eman baitzidan herrialde hartako errealitatera eta bertako jendearengana gerturatzeko. Jarraian, marko teorikoa zehaztu dut, eta, horretarako, Michael Foucaulten ikerketa eta teorizazioetatik abiatu naiz, ardatz nagusi gisa botere-harremanak eta -egiturak hartuta. Hori da ikerketaren gai nagusia: gizarte-sare guztian gertatzen diren desberdintasun-harremanak egiaztatzea eta interpretatzea, eta baita boterearen jarduerak instituzio-egiturak eta bizikidetzako eremu ezkutukoena zeharkatzen dituela egiaztatzea ere. Geroago, azken garaiotako Europako migrazio-mugimenduen ibilbide historikoa egin dut; begirada prozesu ekonomiko eta politikoetan jarritz, gaur egungo Espainiako estatuko migrazio-politiketan amaitzeko; eta azaldu dut migrazio-politika horiek Euskal Herrian eta, zehazki, Nafarroan igarotzen direla eta eragiten dutela, gaur egun migrazio-fluxuen hartzaile baitira. Atal honekin amaitzeko, «beste»ak «gu»re aurrean jartzearen Mendebaldeko eraikuntza eta errepresentazio kulturalari heldu diot; gutxi-asko asmatutako errepresentazioak dira, diferentziak naturalizatzean.

Bigarren atalean, Europako migrazio-politiken azterketa xehatuagoan jarri dut arreta, hala iraganekoak nola gaur egunekoak. Lan-merkatuak eskulana erakarri nahi du kostu ekonomiko ahalik baxuenean, eta, horretarako, migratzaileen irrikak murrizteko askotariko mekanismoak erabiltzen dituzte, Atzerritarren Legearen lanketa eta haren araudiak lagun hartuta. Jarraian, hainbat autoreren gogoetak aurkeztu ditut; autore horiek migrazio-testuingurua markatzen duten hainbat faktore adierazten dituzte, eta immigrazioaren debaluazioari (eta, beraz, kategoria horretan sailkatutako pertsonen) zuzenean eragiten dioten elementuak identifikatzen dituzte. Atal horrekin amaitzeko, muga politikoei buruzko egungo hausnarketak bildu ditut; muga horiek bertako biztanleria geografia-eremu jakin batean definitzen eta sailkatzen dute, eskubide osoko kide gisara; eta beste biztanle batzuei, berriz, herritar-eskubideak ukatu egiten dizkie; modu horretan, egungo sistema demokratikoen gabeziak azaleratzen dituzte.

Hirugarren atalean, auzia Nafarroan zertan den aurkeztu dut, non nazioarteko politikak, nazionalak eta tokikoak biltzen baitira. Autonomia-erkidego honetako immigrazioari buruzko datuak ditugu bertan. Aurrerago, Nikaraguako testuinguruan sartu naiz, doktorego-tesi honetan sakonean ikertutako biztanleak jatorriz hangoak baitira. Mendetasunaren eta munduko sistemen teorietan oinarritzen den ikuspegi historiko egiturazkoa erabili dut, gaur egungo egoera eta migrazio-prozesuei ekiteko biztanle batzuek dituzten arazoak aztertzeko. Hirugarren atal horrekin amaitzeko, lekuan lekuko lanaren emaitzen analisisa eta interpretazioa aurkeztu dut, eta, horretarako, ikerketan zehar bizikidetzaren, behaketaren eta gogoetaren bidez aurkitu ditudan azalduz.

Eta horrela iritsiko gara laugarren eta azken atalera. Atal horretan, azken gogoeta bat egin dut, eta ikerketatik ondorioztatutako ideiak laburbildu.

Testuan zehar, hainbat grafiko eta taula txertatu ditut; azalpena ilustratzeko eta zabaltzeko, argazkiren batzuk ere agertuko dira. Lanean zehar zalantza ugari sortu zaizkit. Nikaraguarrak ez diren pertsonen lekukotasunak sartu ala ez sartu, hori zen zalantza bat, kontuan hartuta ikerketa nikaraguarrengana mugatzen zela. Sartzea erabaki nuen; izan ere, nikaraguarren komunitatea ez da ghetto bakartu bat, eta etengabe dituzte beste lekuetako jendearekin harremanak, kultura askotako jendearekin. Seguru aski, mota horretako harremanak bertako jendeak baino gehiago izango dituzte, etorkinak baitira eta, beraz, gure hirietan eta herrietan bizi diren beste talde batzuekin partekatzen baitituzte eremuak, interesak, eta antzeko arazoak. Beste zalantza bat aipuek euskaraz edo irakurritako bertsioan (gazteleraz) uztea zen. Euskaraz azaltzearen erabakia hartu nuen jarraipen linguistiko bat egon zedin. Amaitzeko, marko teorikoa lantzeko eta datuen interpretaziorako erabili dudana bibliografia sartu dut; baita kontsultatutako web-orriak ere, teknologia berri horrek informazio ugari eskura izateko aukera ematen baitigu.

Bizitza aldaketa da; une oro, izan ginenaren zerbaitek desberdinak izaten ari gara, inoiz ez dugu izatea ixten. Gure gizarteak etengabe aldatzen ari dira. Bizitza *continuum* bat da. Eta gaur gertatu denak eta ikusi denak, bihar beste elementu batzuk izango ditu, beste ezaugarri batzuk. Lan honekin gure ingurunearen irakurketa bat egin dut, immigrazioa gaur egun gertaera soziala bezala ikusiz; dena den, historiara ere joan dut, egungo politikak nola joan diren garatuz ikusteko. Nire begiradan, nire argazkian, nire hautematean eta nire interpretazioan, beste ikertzaile batzuen teorizazioak eragin dit, eta horietatik abiatu naiz ondoren, nire esperientziari eta bizipenei buruz teorizatzen. Sailkapenak eta deskribapenak ez dira neutroak. Metodo zientifiko batetik abiatu banaiz ere, badakit subjektibotasun handia dagoela begiradan, gainerako begiradan dagoen gisa berean. Talde jakin baten bizipenaren ekarpen txiki bat da hau, beste talde batzuetara estrapola daitekeena (ala ez).

Egungo nazioarteko egoera mundu-mailako ekonomia-krisiak definitzen du, ekonomiaren mundializazioak, herrialde aberatsen eta pobretuen arteko distantzia ekonomikoak areagotzeak, komunikabideen globalizazioak eta horrek ekarritako migrazio-mugimenduak areagotzeak, kolonizazio neokolonialaren modu berriek, suntsitze ekologikoak eta herri osoen genozidioak, Estatu Batuek Afganistan inbaditzeak dorre bikietako atentatuaren ondorioz, eta Irak inbaditzeak herrialde horrek suntsipen masiboko armak edukitzearen aitzakiarekin, edo Libian esku hartzeak, duela gutxira arte EBren aliatua zena suntsitzeko. Horrek guztiak lekuz aldarazten ditu bonba-jasa horrengandik ihesean dabiltzan milaka pertsona, suziriak jaurtitzen dituzten horien ateetara deika.

Immigrazioak, gaur egun, dimentsio eta forma berriak bereganatu ditu. Mugikortasun geografikoak, mundu guztian, historian inoiz ez bezala areagotu dira. Gaur egungo migrazio-ereduak ezin ditugu bereizi estatu-nazioaren modu espezifikoak birformulatzen dituzten merkatu-esparruak eratzeko dinamikatik eta ekonomiaren globalizazioaren dinamikatik. Egiturazko arazoak daude herrialde pobre edo pobretuen eta herrialde aberatsen arteko desoreken oinarrian; eta hori da migrazioaren faktore eragiletariko bat, bakarra ez bada ere.

Immigrazioak gure gizartearen arreta pizten du, neurri politiko eta administratiboetan, komunikabideetan, neurri akademikoetan, eta, batez ere, gure kaleetan. Modu batera edo bestera, gizarte-arlo guztietara iristen dela esan dezakegu. Gertatzen ari diren aldaketa horiei guztiei buruz gogoeta egiteko gonbit egiten digute, besteak beste, ikastaroek, hitzaldiek, erakusketek, behatokiek, mahai inguruek, liburuen argitalpenek edo kulturarteko jarduerak.

Azken hamarkadetan, emigranteen igorle izatetik hartzaile izatera igaro da Europa. Europako migrazioa, neurri handi batean, prozesu kolonizatzaileei lotua egon zen; gaur egungo immigranteak, ordea, kolonizatu zituzten herrialde edo eskualde horietatik datoz eta, nolabait, oraindik ere aurrekoak baino egoera txarragoan daude. Migrazio moderno horiek ondore konplexuak dituzte gizartean, ekonomian eta politikan; emigratzaileari eragiteaz gainera, haren familiari eta jatorriko nahiz iritsierako herrialdeei ere eragiten diete; iritsierako herrialdean, hain zuzen, neurriak ezartzen dira merkatuaren beharren arabera. Carmen Gregoriok, migrazio-fenomenoa hainbat argitalpenetan aztertzen duenak, honela azaltzen digu: «Europak behar ekonomiko bilakatu du immigrazioa eta, aldi berean, arazo soziopolitiko» (Gregorio, 2000: 372).

Espainiako estatuan ekonomia-hazkunde garrantzitsua gertatu zen 1986-1991 bosturtekoan. Iparraldeko afrikarrak iristen hasi ziren; izan ere, Mendebaldearen menpekotasun handia duten herrialde askok, ezin izan bai dute biztanle-hazkunde handia xurgatu beren ekonomia defizitarioekin. Lehenengo marokorak iritsi ziren lan bila; ondoren, latinoamerikarrak eta asiarrak; eta, azkenik, Ekialdeko Europatik zetorren immigrazioa. 1991-1993 tartea izan zen immigrazio gehiena iritsi ze garaia, eta, handik aurrera, ez zion hazteari utzi etorkin deituriko biztanleria horrek. Irtsiera horrek ezustean harrapatu zuen Espainiako estatuaren azpiegitura administratiboa; izan ere, sartuago zegoen planetako beste leku batzuetara joandako emigranteen eta frankismoaren amaierarekin itzuli zirenen eskubideak babesteko programekin.

1985etik aurrera, egunkarien lehen lerroetan agertzen dira emigrante kontzeptua, immigrazioaren gaia eta atzerritarren presentzia; eta hori bat dator Atzerritarren Legea ateratzearekin, nahiz eta Estatuan atzerritar gutxi egon momentu horretan. 1989 eta 1994 urteen artean, Euskal Herriak, beste eskualde askoren antzera, Estaturik kanpoko immigrante gutxi zuen, Europako gainerako herrialdeekin alderatuta. Bat-batean, ordea, nazioarteko migrazio-sistemetan gertatutako posizio-aldaketaren barnean ikusi zuen bere burua. Emigrante herrialde izatetik, penintsulako gainerakoan antzera, kontinente askotako immigranteen hartzaile izatera igaro zen.

Politikariek eta komunikabideek iristen ari ziren horien kultura-diferentziak nabarmendu zituzten. Existitzeko beharrik ez zuten kontzeptuak eta kategoriak sortu zituzten. Immigranteen presentzia hutsak, urrunekoaren eta ezohikoaren sinbolo zenak, hemengo ohiko paisaia aldatzen hasteaz gainera, aldaketa bat sinbolizatzen eta iragartzen zuen, bere mugimenduen bidez. Sozialki, immigrazioa «gizarte-arazo»tzat identifikatzen hasi ziren; funtsean, ordea, dimentsio eta ondorio ugaridun beste prozesu sozial eta ekonomiko bat besterik ez zen. Immigrante hori salatu egin zen, gonbidatua izan ez zelako, herrialde hartzaileak aurrez eskatu gabe iritsi zelako; neurri batean, ez baitzen horrelakorik gertatu Euskal Herriko eta penintsulako emigrazioarekin.

María Jesús Criadok *emigrazio* terminoaren egokitasunaz hitz egiten du, gure garaiotan abiarazi diren bizitza modu edo fluxu transnationalei buruz ari denean; haren ustez, zehatzagoa da *mugikortasunaz* hitz egitea, izendatu nahi den errealitatearekin lotuago dagoen eta zabalagoa den nozioa delako. Honela adierazten du:

Immigrante kontzeptua proposatu dugu eta, batez ere, «immigrante ekonomiko» nozio nahasgarri eta nabarmen ideologikoa. Termino hori bi aldiz murriztailea da eta, gertaera eraginkor bat izendatzeko balio izatetik urrun, oso adierazgarria ez den kategoria bati dagokio, balio-iritzi bat erabakitzen duen eta atxikitze negatibo bat babesten duen kategoria bati, hain zuzen. Modu horretan, zerbitzatzen duen helburua burutzen du. Hau da, itxurak, estali egiten du errealitatea, eta baztertu —ezkutatu— egiten ditu gertaeran parte hartzen eta eragiten duten gainerako elementuak. Horren bidez, legezkatu egiten da emigrantearen «objektibatzea» —ekoizpenerako faktore soila dena— eta eskubideen subjektu gisa haren ezezko sistematikoa (Criado, 2001: 421).

Gaur egun, urte batzuen ondoren, masa publiko eta pribatuen komunikabideek arazotzat erakusten dute oraindik ere immigrazioa, eta immigranteak modu honetako delituzko gertaerekin eta izenburuekin etiketatzen dituzte: «Afrikako immigranteek Espainia eta Italia inbaditu dute»<sup>1</sup>, «Jende-oldea Melillan: Afrikaz hegoaldeko Saharako 70eko talde bat Espainian sartzen saiatu da, makilaz eta harriz armatuta»<sup>2</sup>, «Melillako muga sendotu dute, immigrante-olde gehiago saihesteko»<sup>3</sup>, «Espainiak 655.000 € eman dizkio Mauritaniari, immigrazioaren kontra borroka egiteko»<sup>4</sup>, «Gora egin du, nabarmen, Espainiako kostaldera iritsi diren immigranteen kopuruak»<sup>5</sup>, «Bidean atzeman dira Andaluziara iritsi nahi zuten 43 immigrante, eta Ceutan beste 36. Melillako Gobernuak salatu du Maroko “ez dela bere konpromisoak betetzen ari”»<sup>6</sup>. Mezu horiek bertako biztanleen artean sortzen ari den ideian sartzen dira, eta, ondorioz, biztanle horiek

<sup>1</sup> Efe/Madrid. *Visión Mundial*. 2007-05-15. web.

<sup>2</sup> *ADN Navarra*, 2008ko ekainaren 23a, 15. or.

<sup>3</sup> *Diario de Noticias de Álava*. 2008-06-24.

<sup>4</sup> EP/Madrid. *Diario Hoy*. 2007-02-10.

<sup>5</sup> *ABC*, 2011-07-25.

<sup>6</sup> *El País*, 2011-07-25.

nagusikeriazko jarrerak hartzen dituzte «beste»aren aurrean. Gertaera hori behatu ahal izango dugu ikerketa honetarako heldu dugun ikusmoldean.

Migrazioak errealitate historikoak izan dira; baina gaur egun gertatzen ari direnak orokorragoak eta gizarte- eta politika-mailan ezegonkortasun handiagoa piztu dutenak dira. Aurretik, gobernuek ez zioten sekula hainbesteko garrantzirik eman fenomeno horri; eta ez ziren modu horretan uztartu kaosarekin, segurtasun ezarekin eta gatazkarekin, nazio-mailan eta mundu-mailan. Gero eta nabarmenagoa da gertakari horren presentzia komunikabideetan eta askotariko foro eta agertoki publikoetan; horrek agerian jartzen du ematen zaion garrantzia eta norainokoa, baita eragiten dituen askotariko dilemak eta erantzunak ere.

Amerika konkistatzeak eta «beste»arekin topo egiteak edo «talka egiteak» markatu egin du Mendebaldeko pentsamoldea eta kultura. Kolonialismoak gutxiagotasun-egoera batera murriztu zuen «bestea», «gu»re tutoretzaren beharra zuen menpeko izaki izatera. «Gu» sendotzeko «beste»ei izen ona kendu zien. Diferentetzat izendatu zuen bestea, eta horrek mugak ezarri zizkion hari, zer ez zen argi adieraziz: erregerik gabe, legerik gabe eta federik gabe. Ondorioz, falta zuen hura eman behar zitzaion, eta horretarako erabilitako bideak hura «garatzeko» zirela justifikatu zuten.

Diferente kontzeptuak eraman gaitu normaltasun kontzeptua anomaliaren aurrean jartzera. Eta premisa okerretatik abiatzen bagara, aurkikuntza okerretara iritsiko gara. Ondorioz, diferentziaren erabilera negatibotik abiatuta, desberdintasun-harremanak mantenduz eraiki dugu gure oraina. Honela adierazten du Fernández de Larrinoa:

«Gu» nozioak kultura-errepresentazio bati erantzuten dio, zeinaren kideak historian aktiboak, eragileak eta subjektuak baitira; «besteak» nozioak, berriz, kideak historiaren elementu pasibo eta bizigabe gisa azaltzen dituen kultura-errepresentazioa eratzen du. Ikusmolde horrek Iparretik Hegoranzko ikusmolde paternalista bat legezkatzen du, eta Hegoan esku-hartze ekonomiko, politiko eta kulturalak diseinatzea ahalbidetzen du (Fdez. de Larrinoa, 2000: 9).

Iraganean landutako eta orainera arte iraun duen diskurtso hori erabiltzen da gaur egun beste herrialde batzuetatik *gurekin* eta *gure* artean bizitzera iritsi diren *beste* pertsona horietaz ari garenean.

Europako Erkidegoan, estatus gaindiko eremu berri hori osatzen duten estatu askotakoak barne hartzen dituen herritartasun dimentsio bat sortzarekin batera, atzerritarren maila desberdinak agertzen dira: Erkidegokoak, Erkidegoz kanpokoak, legezkoak eta legez kanpokoak edo dokumenturik gabeak, eta oinarrizko herritartasun eskubiderik ez dutenak. Fenomeno hori herritartasunaren errepresentazioak eta estatutuak eraikitzeko eta deseraikitzeko prozesu konplexuaren zati da.

Hori guztia aldatzen ari bada ere, gure gizarteak logika sedentarioa pribilegiatu du bitzta ordenatuaren eta koherentearen jarraibide gisa; ondorioz, mugikortasuna *ezohikotzat* hartu du, eta fenomeno berezi eta arrarotzat aztertu du. Baina errealitateak uko egiten dio muga estuegietan itxi nahi duten hipotesi haiek berresteari.

Integrazio-politikarentzat ez dira marko egokiak Europako estatuen atzerritarren legeak aplikatzea dakarten eskubide murrizketak, eta ezta migrazio-politikak herritarren segurtasun ezari lotzeak ere. Alderantziz, politika horiek eraiki eta legezkotu egiten dute bazterketa politikoa, gizarte-segregazioa eta atzerritarren aurkako biolentzia sinbolikoa. Ez gara globalizazio-prozesuak beren jatorriko lekuetatik eta beren bizimoduetatik erauzi dituen milaka pertsonaren etorkizuna jokoan jartzen ari —askotan, modu atzeraezin batean, gainera—, baizik geure gizarte-eredua ere jokoan jartzen ari gara.

Immigranteak ahultasunerantz eta gizarte-bazterketarantz bultzatzen dituzten egoerek ordena moral, juridiko eta politiko mailako auzi garrantzitsuak mahaigaineratzen dizkiete gizarte «demokratiko»ei. Generoari eta etnizitateari dagozkien gogoetak, klaseari dagozkionez gainera, gai nagusi bilakatu dira herritartasunari dagokion eztabaidan, migrazioak emakumetzen ari diren aldi berean. Gaur egun, emakumeak dira migratzaile guztien ia erdia. Euskal Herriak du Europar Batasuneko emakumeen immigrazioaren ehunekorik altuenetakoa, % 48, hain zuzen. Immigrazioak latinizatze joera ere hartu du. Etxeko lanak egiteari dagokionez, emakume immigranteak ordeztu du bertako emakumea. Latinoamerikatik datorren «neskamea» nahiago izatea garbi islatu da ikerketa askotan, hizkuntzaren eta kultura-gertutasunaren ondorioz, eta baita haien ustezko otzantasunagatik ere.

Azken urteotan Espainiako estatuan onartu diren Atzerritarren Legearen hainbat araudik Europar Batasunekoak ez diren immigrante langileen eskubideak murriztu dituzte, eta haienganako lan-diskriminazioa instituzionalizatu dute: eskainitako lanpostuak —alegia, gogorrenak eta bertakoek gutxien nahi dituztenak— betetzen dituzten pertsonak soilik dute legez bizitzeko eskubidea; lanpostu horiek dira: nekazaritza, abeltzaintza, eraikuntza, etxeko lanak, garbitasun-enpresak, ostalaritza, eta sexu-zerbitzuak. Gainera, migrazio-fenomenoaz dugun ikusmoldea legeak berak nahasarazten du; bertakoen eta atzerritarren arteko diferentziak sakontzeko balio du legeria horrek, bizitza-baldintzak ezegonkor bihurtzen ditu, eta immigrazioa antolatutako delinkuentziarekin lotzen duen iritzi hedatu bat sortzen du. Mendebaldeko demokrazia deritzenentzat porrot izan dira, gainera; ez baitira gai izan berdintasun-, justizia- eta elkartasun-baldintza batzuk finkatzeko, eta, aldi berean, legeria horrek arras txikiagotzen baitu immigrazioak Europako utopiara iristeko ahaleginean uzten dituen ehunka urperatze eta gorpurengan lege horiek duten erantzukizuna. Ondorioz, mugitzen den pertsonaren bizitza-proiektua gizarte hartzaileak inposatzen dituen baldintzen menpe dago: haren immigrazio- edo atzerritartasun-legeen, lan-merkatuaren, etnia-arrazari dagozkion estereotipo eta aurreiritzien menpe. Ez dago, beraz, pertsona gisa bere ahalmenen baitan baldintza berdinetan, garatzeko aukerarik.



Immigrazioari buruzko eztabaida eta diskurtso askotan immigranteak integratzeko beharraz hitz egiten da. Kontuan hartu behar dugu, ordea, benetako integrazioak eragina jasan duten bi aldeak barne hartu behar dituela, eta horiek elkar eragin behar dutela. Integrazioak ondo funtziona dezan, beharrezkoak dira kanpoko berdintzat aitortuko duten baldintza legal, sozial eta ekonomiko batzuk; ezinbestekoa da haren eskubideak eta askatasunak bermatzea, haren oinarritzko beharrak asetzea, eta hark parte har dezan ahalbidetzea erabakiak hartzeko prozesuetan eta bizitza publikoan. Honela dio Begoña Zabalak, emakumeen aldarrikapenak azaltzerakoan:

Nola da posible diskurtso ofizialak, ahoa *berdintasun* hitzarekin betetzen duen horrek —zeina nahitaezko paradigma bilakatu baitu—, eskubiderik gabeko eta bigarren mailako herritarrak sortzea! Nola daiteke, mugarik gabeko Europa eraikitzeaz ari diren honetan —«nazionalista» estuak garen gutariko askoren iritziaren kontra, gainera, gure herriaren subiranotasuna nahi izateagatik—, milaka pertsonari harresiak jartzea, zehazki, mugaz bestaldekoak izateagatik! (Zabala, 2008: 187).

Emigranteak sozialki integratu nahi badu, baina ez kulturalki, berraztertu egin behar dira talde-identitate nazionalaren terminoak. Emigrazioaren «arazo» handienetako bat Mendebaldeko gizarte garaikideek gaizki ebatzitako arazoak «beste»ari jaurtitzetik dator; arazo hori, batetik, gizarteratzearekin eta ongizate-estatuarekin du zerikusia, eta, bestetik, talde-identitateekin eta estatu-nazioaren definizioarekin.

Nabarmentzekoa da immigranteak, oro har, ez direla libreki atera beren herrialdeetatik edo ez dutela erabaki hori libreki hartu; prozesu kolonialetan eta neokolonialetan errotutako egiturazko elementuek baldintzatu dute erabaki hori, beren aberastasunak eta ametsak lapurtu dizkietelako kanporatuak izan baitira beren herrialdeetik. Iparraldeko herrialdeetan gozatu dezaketen ongizate-estatuarenganako sentitzen duten «miresmen»arekiko kontraesankorrak diren erresuminek —kontzientek izan edo ez— oztopatu egiten dute integrazio beteko prozesu oro; hori horrela izango da, baldin eta gizarte hartzaileak egoera horren erantzukizun historikoak eta gaur egungoak aitortzen ez baditu.

Bestalde, globalizazio-prozesuak estatu-nazioak birformulatzea dakar berekin, eta transnazionalismoaren fenomenoaren ondorioz identitateak zatikatzea; horregatik, beste garai batzuetan immigranteen gain nagusi izan ziren asimilazio-politikak ezin dira aplikatu gaur egun, mundu garaikidean ez baitute emaitzarik eman. Migratzaile horiek loturak mantentzen dituzte bi herrialdeekin, eta bi herrialdeen edo gehiagoren artean bizi dira; eta, ondorioz, nazio bakarrak ez baizik eta beren bizitza transnasionaleko egoerek definitzen duten identitate bat garatu dute.

Kudeatzeko zailak baina ikertzeko interesgarriak diren erronka berrien aurrean gaude ba. ikertzeko elementu guztiak eskura ditugun moduan eta berdintasun unibertsalistaren ikusmoldea pribilegioen aurrean, pertsonen eta taldeen autonomia-egoera eta askatasun handiagoa lortu ahal izango dute, eta boterearen jardura mugatu.

Horrek guztiak ez du autoritatea ukatzerik esan nahi; autoritate hori, ordea, justifikatu egin beharko da, bestearen autonomia-printzipioa aitortzen duen mailan.

## ESKERRONAK

Aurkezten den lan hau ez da bakarkako lan huts bat besterik, baizik jende askoren artean osatutako mosaiko bat bezala ikus dezakegu, beraz nire eskerrik beroenak azaldu nahi dizkiet nolabait sare honetako eragile guztiei eta bereziki:

Kepa Fdez. de Larrinoa Doktorea, tesi honen zuzendariari, bere baldintzarik gabeko laguntza eskaintzeagatik, nigan sinesteagatik eta konfiantza osoa ipintzeagatik, Ekuadorko ikerketa lanerako nirekin kontatzeagatik eta goi mailako irakaskuntzara bultzatzeagatik, honek eragin bai zuen lehendik hasitako antropologiaren bidean berriro murgiltzea.

Soniari, doktoretzako ikasketetan hasteko sua piztu ondoren, hausnarketa eta paseoetan bakarrik utzi bai gintuen, bizitza honetatik aldenduz.

Euskal Herriko Unibertsitateko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailako (2002-2004) urteetako doktoretza programako irakasleei, nire formakuntzari egindako ekarpen garrantzizkoek, Teresa del Valleri, Ikasketa Aurreratuetan zuzendari izan nuelako, M<sup>a</sup> Luz Estebani, gorputza beste era batean pentsarazi ninduelako, nire larruan sentitu eta susmatutakoak ulertzeraz, sakontzeraz eta teorizatzeraz bultzatuz, Txemi Apaolazari eta beste hainbati.

Amayari bizitzaren opari bat izan zelakoz EHU<sup>n</sup> aurkitu izana, Foucaultetaz maintemindu arazi ninduelako eta bide guzti honetan oinarritzko zutabea izan denelako.

Koldo eta Matiri, nire idatziak berrikusi dituztelako, Karlos eta Peiori lagun eta adiskide izateagatik mundu antropologiko honetan, Lutxori bere irudi eta ametsengatik. Eugeniri bide guztietako lagun izateagatik. Larrantzi hitz guzti hauen atzean egoteagatik. Amañiri bere argazki eta gauzakin beste munduetarako begirada zabaltzeagatik. Beste hainbat lagun eta adiskideei, osotasuna lortzeko osagai izan direlako.

Eta nola ez Nikaraguar herriari, justiziaren eta borrokaren hazia niregan ereiteagatik. Eta Nafarroan orain daudenei nire begiradak eta milaka galderak onartzeagatik, beren etxeak eta bihotzak irekitzeagatik, maitasuna eta laguntza emanaz. Beraiei ere zor diet pauso akademiko hau.

Eskerrik anitz guztiei

Iruñan, 2011ko irailean

## SARRERA OROKORRA

Gaur egungo gizarte mendebaldarren ezaugarrietako bat mugak gero eta lausoagoak suertatzea da, bai errealitate geografiko enpirikotzat bai buru ikuskeratzat hartuta. Hori dela eta, haiek gainditzeko bideragarritasuna handiagoa da. Orain dela zenbait urte gehiengo handi baten mugikortasun esparrua erlatiboki txikia zen eta egun, berriz, espektra zabalduta egiten da. Ematen du bide guztiak zabalik daudela, urrunekoa hurbildu egiten du garraio eta komunikazio mota guztien merkatzeak. Horrela, denborak eta espazioak bestelako dimentsioak hartzen dituzte. Beste herrialde batean bizitzea ez da inolako salbuespena, aukera gauzagarria eta biztanleriaren sektore batentzat are mirezgarria da. Horretarako ez da kideotasunari uko egin beharra. Iragankortasuna eta mugikortasuna ohiko bihurtzen dira. Iparreko bidaiariak lan edo turismo arrazoiengatik mugitzen dira planetan zehar.

Baina, mendebaldeko jendearentzat hori horrela den bitartean, Hegoko biztanleriaren gehiengoari, eskubideak izateko eskubideaz jabeturik eta aukera berberak izateko ametsa izanik, gero eta oztopo gehiago jartzen zaio mugikortasun horretan, gaitasun proba balitz bezala gainditu beharko duen zailtasun kopurua. Jatorriak, harresiak ireki edo ixten eta herrialdeen arteko desoreka harremanak erakusten ditu.

Aspaldian ozeanoaz bestaldeko migratzaileen itzaropenek lekualdaketak aktiboki, beren harreman kolonialetarako sustatuz edo, ezkutuki, onartuz, laguntzen zituzten agintarien babesa aurkitu zuten. Industrializazio prozesuekin, mendebaldeko Europak makina bat langile eskatu zuen eta hori Europako beste herrialdeetatik edo haien kolonietatik iritsi zen.

Gaur egun migrazio bideen noranzkoa alderantzizkoa da. Orainsu arte populazio migratzailearen igorle ziren herrialdeak hartzaile bihurtzen dira. Beren populazioaren mugikortasun eskubideari uko egin gabe, geratzeko iritsi eta sartu nahi dutenei eragozpenak jartzen dizkiete.

Kapitalismoaren hedapenaren eta munduko bere hegemoniaren emaitza den globalizazioak, kontsumoaren kultura unifikatu eta planeta kapitalarentzat eremu bakarra eta mugarik gabeko bihurtu nahi duenak, hainbat eratan eta maila ezberdinetan eragiten du munduko eskualdeetan eta gizarte-taldeetan, eta aurrekaririk gabeko aberastasuna eta aldi berean sektore handi batzuen pobretzea sortzen ditu. Kontraste handiko mundua marrazten du. Potentzia handien aldean beren baliabideak xurgaturik dituzten eta horietaz negoziatzeko indarririk ez duten herrialdeak geratzen dira. Desorekak areagotu egiten dira, herrialde batzuen eta besteen arteko arrailak handitu egiten diren bitartean.

Estatu-nazioaren esparruak gertatzen dena interpretatzeko, problematikekiko erantzun eraginkorrak eratzeko eta bere populazioen beharrak kudeatzeko tresna baliagarria izateari uzten dio. Estatu-nazioaren autonomia -hala nola ekonomia, politika

eta gizarte burujabetasuna- zatitu duen globalizazio horrek migrazio mugimenduen gehikuntza eragin du; aurreko nortasun, kidesun eta komunitate kontzeptuei erronka egin dien progresioa, eta, hortaz, transnazionalismoak kudeaketa mota guztien aurreko erak hausten ditu, ezberdintasunen berrindartze eta aldarrikatzeak kultura abiapuntutik aztertzen diren bitartean.

Kolonizatuak izan ziren eta beren mugak gainditzen dituzten erabakien uztarpean egoten jarraitzen duten populazioek, jada beren herrialdeen barnekoaren aurkako borrokek desiraturiko fruituak ematen ez dituztela jakinki, bakarkako edo ez horren bakarkako erabakiak hartzen dituzte nahiz eta baldintzapena beren eskutik kanpo egon. Lotura historiko berriak edo zaharxeagoak dituzten herrialdeetarantz emigratzen dutelarik.

Sistema kapitalistak, zeinek mugarik ez baitu eta ez ditu errespetatzen ere, merkatuaren eskaerei erantzuten dieten langileen mugikortasun transnazional hori eragiten du eta etekina ateratzen dio. Langileak ahalik eta merkeen erakartzen saiatzen da irabazirik handienak ahalik eta denbora txikienean lortzen jarraitzeko. Eta, kolonoek kolonizazioaren mesedetan jardun zuten bezala, egungo migrazioak prozesuan sarturik dauden bi aldeek edo gehiagoren arteko kolonizazio ondokoaren mesedetan egiten du.

Europa (edo EBko herrialdeak kasu honetan), XX. mendean zehar bezalaxe, migrazio lekualdaketak kontrolatzen saiatzen da egun, mugimendua bere barnealderantz bultzatuz eta kontinente arteko langileak bere ekonomia eta politika beharren arabera erakarriz. *Birpopulazte politika* berri baten aurrean gaude, Dalla Costak deitzen duen bezala, zeinek immigrazioa integrazio europarraren “tresna bultzatzailea” dela esaten baitu (Dalla Costa, 2009: 88), edo Europaren eraikuntza horren osagai garrantzitsua da behintzat.

Migrazioak, beraz, kapital mugimendu ikaragarria dira; garraio eta komunikazio bideek, baita bankuek ere, etekin handiak lortzen dituzte, bizi eta kontsumo moduak homogeneizatzen diren aldi berean. Herrialde igorle eta hartzaileetako komunitate eta nortasunak etengabeko interpretazio eta berrinterpretazioa behar duten aldatze prozesuetan sarturik ikusten dira.

Egungo ekonomia eta finantza krisiak eraginiko langabezia tasak egon arren, bertako biztanleriak betetzen ez dituen lan zokoak ugariak dira, hala nola gutxien erakartzen duten sektoreak edo lanposturik prekarioenak, populazio immigranteak bere behin-behinekotasuna eta ahuldade egoera direla-eta onartzen dituen lanak, baina krisi honek luzatuz joan ahala bertako biztanleria ere hartuko du barnean eta horrek lan baldintza orokorrak okertzea ekarriko du. Sistema kapitalistaren mekanismoak, populazio osoa ukitzen duten baina egoerarik okerrean dagoen aldea, migrazioa kasu honetan, jotzen duten botere mekanismoak ditugu.

Testuinguru horretan eta gizarte demokratikoago baten bila, non berdintasuna eta zuzentasuna banderak izanen baitira, egunerokoaren sektoreen artean egiten diren

harremanetan jartzen dut begirada eta Michel Foucault-en teoriei eta boterea baliatzeaz egiten duen azterketari erreparatzen diet. Foucaultek boterea edonolako harremanetan immanentea dela dio, boterea baliatzeko erdigune bakar bat ez dagoela, indar erlazio anitz baizik, botere erlazio sare bat. Gizarte fenomeno orotan den indar erlazioa. Ez da estatu aparatuen, erakundeen, enpresen, ondare eskusiboa, horiek intentsitate handiagoko gunean dira, baina gizarte egitura osoan dago.

Batzuk besteei nagusitu eta menderatzea helburu gauzatzen diren botere baliatze horren mekanismoetan barneratzen da filosofo frantziarra. Panoptikoaren ideiatik, gailu anitzeko zelatatze eredutik (kamerak, pantailak, zelatariak eta beste) abiaturik, erakunde eta enpresek, menderatze elementuen normalizazioa gure egunerokoaren txoko bakoitzera eramaten dute, barneratuz eta gorputzuz joaten delarik, boterea baliatzearen bidez kotasuna onartzea lortuz

Zelatatzeak, zaintzeak, gorputz diziplinatuak sortzen ditu. Botere diziplinarioak jokaerak automatizatu eta homogeneizatzea du helburu. Hainbat tresna erabiliz egiten du: ordutegiak, ariketak, gaikuntzak, arauak, erregelamenduak, legeak, azterketak, zigorrak, norgehiagokak, sailkapenak, bereizkuntzak, alderaketak, ordainsariak, eraginkortasuna trebakuntzaz areagotuz, zuzenketaz gorputza menderatzea lortuz, autokontrola bultzatuz azken finean. Eredu berari otzantasunez erantzunez, esanekotasunez, errepresioa zuzenean erabili gabe, menderatuz. Hori kuantitatiboki neurtzen da, gaitasunak balioetan hierarkizatzen dira eta baztertu eta normalizatu egiten da azken batean. Horrela, normalizazioaren botereak homogeneotasunera behartzen du, baina kopuru zehatz baten desbideraketak onartu eta kontuan hartzen ditu, salbuespenak egiten duelako araua. Ezberdintasunak eta bazterketak erabilgarri egiten ditu. Bat indartzeko, bestea gutxitu egiten da.

Hori da mendebaldeko gizakiaren eraikuntza gaur egun, zeinetan botere diziplinario eta normalizatzaileak gizarte harreman guztiak bete baititu, zeinetan diziplina guk orain ez ikusteko moduan barneratu baita. Foucaultek bere azterketaz erakusten digu boterea baliatzea baino materialagorik, korporalagorik, ez dagoela. Boterearen mikrofisikaz hitz egiten digu, nola boterea gorputzetan sartzen den, inbaditzen dituen, haietatik eta haietan zehar igarotzen den eta haietan bermatzen den. Ez da dena edo ezer ez, ez da betiko erdiesten, norberak esparru batean eta denbora batean du eta baliatzen du.

Foucaulti jarraituz, zigorrak, presondegia esaterako, arau urratzeak bereiztera eta ez ezabatzerara bideraturik daudela ikusten dugu; hori ilegalismoak administratzeko era dela, zein toleratu eta zein ez erabakitzea. Ilegalismo mota bat da, kontrolatua eta arrisku txikikoa, komenigarria, behategi politiko gisa funtzionatzen duena, biztanleriaren gaineko kontrol mekanismo anitz legitimatzen duena. Horrela, legez kotasunik eza, Foucaultek hizpide duen delinkuentzia bezala, boterearen makinerietako bat bihurtzen da. Oro har biztanleriaren gaineko kontrol etengabea legitimatzen du, ustez babesteko. Delitugilea izaki arrarotzat agertzen du, baina delitugile hori ez dago legetik kanpo eta ez da gizartearen marjinetako produktua, baizik

eta haren sorkaria. Ilegalismoen politika, batzuek besteak menderatzeko bide bat da. Ilegaltasuna nahiz ezberdintasuna estatu sorkariak dira eta kanpoko nahasmendu gisa eraikitzen dira. “Delinkuentzia onuragarria” dugu aurrean.

Egun boterea ez da, aspaldian bezala, baliatu eta ezartzen hainbeste indarra edo zigor fisikoa erabiliz, baizik eta jakintza eta egia produzituz, diskurtsoak antolatuz. Debekatu baino gehiago botereak gobernatu egiten du, gizabanakoari ekintzarako alternatiba baliagarriak agertzen dizkio, eragiten du, haren portaerak norabide batera bideratzen ditu. Errealitatearen azterketa, dio Foucaultek, ez da zuzenbide terminoetan egin behar, teknologia, taktika eta estrategia terminoetan baizik, jakintza boterea da eta erakundeek norbanakoaren pentsaera zapaltzen dute eta gorputzaren forma bere konbentzioen neurri zizelkatzen dute.

Boterea mantentzeko eta onartua izanarazten duena da, ez dela indarra ezetz esaten duen potentzia gisa bakarrik, egiatan barne-barneraino sartzen dela baizik, gauzak produzitzen dituela, plazera eragiten duela, jakintza eratu, diskurtsoak ekoiztu; gizarte gorputz osoan zehar igarotzen den produkzio saretzat jo behar da, erreprimitea eginkizun duen instantzia negatibotzat jo ordez (Foucault, 1981:137).

Jakintza produktu soziala da eta, hortaz, produzitzen dutenen egoerak eta interesek baldintzatzen dute. Diskurtso praktikak libreak direla eman dezake, baina ezagutza guztiek oso mugaturik daude. Egia boterearekin estuki loturik dago. Botere mekanismoak, kanporaketak, menderatze sistemak, identifikatu eta desmozorrotzea harreman zuzenagoak egiteko bidea izanzen da, boterea bai baina mendekotasunik izanzen ez duen gizartearekin.

Beste egile batzuek aztertu egin dituzte botere mekanismo horiek eta mendebaldeko gizarteetan populazio immigratuarekin zehazki nola baliatzen den. Alain Moriceren kasua da hori, hark “paperik gabekoen” mugimendua estatu frantziararen aztertzen du eta *migrazio utilitarismo* kategoria proposatzen du bai kapitalak bai estatu-nazioak migrazio lekualdaketekin egiten duten harreman mota definitzeko. Haren lanean argi geratzen da prekarietatea estatuaren tresna dela, iragankortasunari eutsiz mantendua. Sarekadak, atxilotetak, irregularki egoteagatik kanporatzeko mehatxuak... beldurra eta ziurgabetasuna barneratzera eramaten duten jardunak dira eta etxean sarturik egotera, hirietako kaleetatik, errepideetatik eta autobus geltokietatik libreki ez ibiltzera eta beren enplegataileen abusuak ez salatzea gonbidatzen dute. Muga agerikoekin batera pertsonen mugikortasun eskubidea oztopatzen duten *muga ikusezinen* sorrera da.

Schengen eremurako sarbidea muga postuz prestatua dago, non une bakoitzean han diren funtzionario polizialek ausazko irizpideak aplikatzen dituzten. Eremu horren parte diren herrialdeetako edozeinek ukatzen ahal die kanpotik iristen direnei hango mugetatik pasatzea nahiz eta hirugarren herrialde batera joatekoak izan. Beste alde batetik, mugak blindatzeak nahiz horiek externalizatzeko heriotza eta desagerpen franko eragiten du Europako itsasertzetara iristen saiatzen diren pertsonen artean. 2000 eta

2007 urteen artean 10.000 lagun hildako konta daitezke EBk berretsiriko datuen arabera (SOS Arrazakeria, 2008), heriotza horiek bere gain inork hartu gabe.

Itzarotea da botere eta hierarkizazio mekanismoetako beste bat. Hiru urtez paperik gabe egon behar izatea, sustraitzea gaur egun bizitzeko baimena lortzeko bide bakarra izatea, ohizkanpoko ohiko bihurtzea, itzarote urte horietako segurtasun falta, enplegutzailereenganako mendetasun osoz, eta kontratua egiteko haren borondate onaren mende -hura gabe denbora luzean lanean aritu ondoren-, migraturiko pertsonen portaeran sartuz joaten diren gutxiagotze elementuak dira argiki. Laneko esplotazio baldintzak, Gizarte Segurantzaz kotizatu gabe, bertako biztanleriak erdeinatzen dituen lan zokoak betetzen. Eskubide politiko eta sozialik gabe, esklabutza berria da. Irregularitasuna luzatzeko arrazoia, subjektua devaluatzeko asmoa da ba.

Zelatari publiko edo pribatuak, finantza eta merkataritza establezimenduetan, kale eta plazetan jarririko kamerak eta pantailak, populazioari segurtasuna emateko ustez, egungo panoptikoak, kontrol makinak, gorputz diziplinatu eta esanekoak fabrikatzekoak, guri arau eta erregelak gogorarazteko, norabide berean enfokatzen duten beste gailu batzuk dira.

Zigorrek, “delitugile onuragarriak” delitu txikiengatik jartzeko zehapenek, immigrantei aplikatu eta hainbat komunikabidek eta zenbait politikaririk hedatuak izanik boto onuragarri gisa itzultzen diren horiek, horri berberari erantzuten diote. Migrazioa diskurtso alarmisten bitartez, helburu elektoralistak edo nazionalistak izanik, kontrol gailuak eta “segurtasunera” bideraturiko aurrekontuak justifikatzeko, kriminal bihurtzea bezala.

Eta panoptikoa produkzioarako, gehiago eta gehiago produzi dezaten gorputz diziplinatuen produkzioarako, erabili bazen eta erabiltzen bada, sinoptikoa, berriz, kontsumoaren gailua da. Anitz, gutxi batzuei begira, garaile eredutzat aurkezten dute beren burua gutxi batzuek, liluratuz eta berehalako desira eta plazera eraginez, ezer argudiatzen ez duten eta ezertaz hausnartzen ez duten telebista, oraingo garaiotako “ogi eta zirku” ikuskizuna beti ere beste botere mekanismo bat izanik.

Botere harremanetako kontrol eta devaluazio gailuekin jarraituz, beldurraren erabilera aurkitzen dugu<sup>7</sup>, benetako edo alegiazko arrisku bat hautemateak eraginiko sentimendu ezatsegin batek ezaugarritzen duen emozioa da beldurra: nahiz eta biologia ikuspuntutik, defenditu eta bizirauteko mekanismoa izan, kultur eraikuntza ere bada. Beldurraren arrazoia ezagutza faltan dago, beldurra eragiten duen objektuaz edo beldurrari aurre egiteko moduez. Ezarritako boterea edo botere gehiago duten horiek, interes politiko edo eta ekonomikoekin loturik daudenek, batzuetan arriskuak, haien arrazoiak eta haien ondorioak, puztu egiten dituzte komunikabideen ahalmen areagotzailearekin bat eginez. Elkarrekin benetako mamuak eraikitzen dituzte, gogoetara eta azterketara gonbidatu gabe, eta litezkeen efektuak maximizatzean

<sup>7</sup> RAEren arabera: 1. Gogoaren asaldura larrigarria, benetako edo alegiazko arrisku edo kalte batek sortua. 2. Norbaitek nahi duenaren aurkako zerbait gertatuko ote zaion duen susmo edo irudipena.



inpotentzia sentimenduak sortzen. Kanporatzearen, kartzelatzearen, porrotaren, bazterkeriaren, pobreziaren, lana galtzearen, “bestearen”, ezezagunaren, beldurra. Ezagutza faltak mesfidantza eta segurtasunik eza sortzen ditu, ahuldadeak eraginiko geldiketara edo oldarrez aurka egitera eramaten du, era berean gutxiagotasun sentimenduaren edo horren aurkako nagusitasun sentimenduaren produkzioa izanik. Hortaz, beldurra eta indarkeria ardatz berean daude. Baina beldurra zabaltzen dutenek mekanismo horren funtzionamendua ezagutzen dute eta haren efektuak eta faseak kontrolatzen dituzte. Horrela erabiltzen da gizartea menderatu eta kontrolatzeko tresnatzat, bai bertako biztanleriarentzat bai immigraturikoarentzat.

Mendebaldeko gizarteetan immigranteaz egin den eraikuntza diskurtso utilitarista batean dago oinarriturik. Hainbat politikarik, erakundek eta komunikabidek beharrezko gaiztat aurkeztu dute, mende honen hasierako goranzko ekonomiarako beharrezkotzat, immigrazioa bertako populazioak errefusatzeko zuten lan zokoak betetzera eta demografia defizitak konpontzera zetoze. Izenburu engainatzaile edo puztuak, “etorkin uholdea”, “kosten inbasioa” eta holako beste termino batzuk erabiliz, iristen direnak gehiegi direla eta, horregatik, kontrolatu eta are kanporatu behar direla ulertarazteko. Horrela haren paperik gabeko egonaldia, irregularra, “ilegala”, justifikatu eta naturalizatu egiten da. Arazotzat agertu izan da, errealitatean estrategia ekonomikoa eta politikoa dena.

Immigrazioa, delinkuentzia bezala, eraikuntza soziala da eta behategi politiko batek bezala funtzionatzen du, biztanleriaren gaineko kontrol gailu anitz legitimatuz eta boterearen egitura bihurtzen diren aurreiritzi eta beldurrak sortuz. Kanpotarrei ateak itxi edo estutzeak, barnean direnak diziplinatzeari, errebelamenduak eragozteari, zatiketak egiteari eta aldaketak atzeratzeari erantzuten dio.

Erdeinuzko hitzak herritartu dira, hala nola “sudakak”, “txikilikueteak” eta “mairuak”, eta guri lana kentzera edo “gure” laguntza sozialak erabiltzera etortzen direla eta holako esanak. Txirotzat estigmatizatzen dira, eta beraz, ez nahigarritzat. Kulturen hizkuntzak hizkuntza arrazista biologizista ordezkatzeko du, kultur ezberdintasunak nabarmenduz eta konnotazio klasistak ezkutatzeko. Manuel Delgadok esaten duen bezala, “sailkapen gailu menderatzaile horiek guztiak bestea alterizatu eta gutxitzeaz arduratu dira” (Delgado, 2007: 215). Horrela, subjektua objektu bihurtu da, beharrezko objektu, baina beharbada, ez ezinbesteko lanik egoten ez denean, bera behar ez denean. Debaluatuz eta eskubiderik gabe, desorekak legitimatuz, mendeko egoera batera eta etengabeko segurtasun ezera konfinatuz, zelatatze jarraituaren eta mesfidantza iraunkorraren pean.

Mendebaldeak “bestea” eraiki duen modua kolonizatze eta menderatze prozesuekin loturik dago, baita ukatze prozesuekin ere. Harreman asimetrikoetan kulturalki gutxiturik, karga etnozentrkoa izanik eta gaitz erdi gisa, paternalista, irudikari kolektibo eta historikoak ezarpen harremanak naturalizatzen ditu, orain garapen eta demokraziaren izenean, desoreka sistema kapitalistaren berezkoa bihurtzen

den bitartean. Hizkuntzak eraikitzen dituen egiak irudipenezkoak dira, zioen Edward Said-ek, hola direla ahantzi dugu eta haien jatorria ahaztean naturalizatzen dira.

Migrazio prozesuetan, herrialde igorleek eta hartzaileek botere hierarkiaren barnean duten tokia erabakigarria da. Naziotasuna eta pasaporte boterez gainezka edo gabeturik daude, botere historikoz eta egungo botereaz, eta horren arabera izanen du etorkinak kokapena herrialde hartzailean. Iraganean, migratzaileak igortzen zituzten herrialdeak boteretsuenak izan ziren, kolonizazio helburuak zituzten, gaur egun migrazio mugimendua alderantzikatu egiten da, baina migratzaileak jotzen ez den mugimendua jarraitzen du: enpresaburuak, enpresa-teknikariak, profesional kualifikatuak, boluntarioak... neurri handian neokolonialismoa deitutakoari iraurarazteko lekualdatzen dira.

Herrialdeen arteko bi aldeko harremanetan afektatuak izaten direnen parte-hartzerik gabe egiten diren legeak agintzen dute. Mendebaldearen neurrian eginiko legeak dira, “gure kostea mediterraneoan inbasioaz” hitz egiten duten bitartean beren indar militarrek “zibilizatzen”, “demokratizatzen”, “askatzen” eta Iparraren interesak babesten jarraitzeko hedatzen dituzten demokraziak. Barneraino sartzen diren diskurtsoak, eragiten dutenak, baldintza diskriminatzaileetan lan egitera etortzen dena debalutzen dutenak. “Gu” eta “besteak” bereizten dituen marra aurreiritzietan, ezjakintasunean, aztertu ez ditugun injustizia historikoetan edo xede horrekin egiten diren ekintza administratibo soiletan oinarritzen da hortaz.

Etnozentrismoak, sexismoak bezala, gizarte ustez “ongi prestatu eta informatuei” kalte egiten die. Kultur ezberdintasunak nabarmentzeak, botere harremanetatik eta desoreka ekonomikoetatik kanpo zurrunduriko entitatetzat irudikaturik, “besteak” eta haren kultur jardunak arauarekiko -kultura hegemonikoak bere erregelak gainerakoei ezarri finkatzen duen arauarekiko- desbideratetzat ikusarazten ditu. Desoreka sozioekonomikoak aldaezin agertzen direnean, “mugimendu etniko batzuek kultur ezberdintasunetan biltzeko joera izaten dute” (García Canclini, 2004: 47). Eta hor eusten diete beren espezifikotasunei etengabeko eraso eta bereizketetatik babesteko mekanismo gisa. Edozein gizabanakok edo kolektibok bere ezberdintasunak aitortu eta errespetatzea nahi duela egia bada ere, hori bezain egiazkoa da baldintza ez horren ezberdinetan bizi nahi izaten duela. Orduan ezberdintasunak nabarmentzea nortasunak aldarrikatzearen sinonimoa da.

Kultura zerbait soziala da eta hola agertzen da leku publikoetan batez ere. Leku publikoa, definizioz, aniztasunaren mundua da, harremanaren, sozializazioaren, adierazpenaren eta identifikazioaren tokia. Baina leku hori ez da neutroa, hierarkizaturik dago. Itxuraz jende guztiari irekita dago baina haren erabilera eta jabetzea kontrolaturik daude, bertan diren eraikinek, kale, plaza eta parkeak identifikatzen dituzten izenek, karga politiko eta ideologiko handia dute, sinbologia garrantzitsua. Delgadok, hiria sakontasunez aztertuta, hartan jende guztia immigrantea dela dio, guztiak noizbait kanpotik etorriak direla (Delgado, 2008).

Leku publiko hori hiriaren eta herritarren funtsezko oinarria da, hor du pertsonak herritar jarduna, baina paradoxikoa da hirian bizi diren lagun guztiak herritarrak ez izatea. Herritartasunaz mintzatzea estatuaz, demokrazia, eskubide eta eginbeharrez, portaerez eta eremu publikoaz mintzatzea da. Pertsonak, eremu publikoan jardutean, herritar gisa jarduten du eta lekuaren konkista eskubideen konkistaren sinbolo garrantzitsua da. Leku publiko hori botere harremanak gauzatzen diren leku sinbolikoa da.

Herritartasunaz mintzatzea mendebaldeko gizarteaz mintzatzea ere bada, non herritartasuna naziotasunaren baliokidea baita. Herritartasuna aplikatzeko orduan ez dago adostasunik. Batzuk *ius soli*-an, lurraldetasunean, jaioterrian alegia, oinarritzen dira. Beste batzuk *ius sanguini* edo odol, herentzia, eskubidean. Baina, ez nazionalengandik ez nazio lurraldean *jai*o ez den atzerritarra agertzen denean, inkongruentzia gertatzen da. Gizakia den aldetik, eskubide guztiak beharko lituzke, baina, atzerritarra den aldetik, ez zaizkio eskubide horiek guztiak aitortzen.

Bestetasunaren aurrean gaude, gu/besteak, barnean/kanpoan, sartzet/baztertze, dualismoaren aurrean, non barnekoek kanpokoak beren legeak obeditzera behartu baititzaizkete. Batzuentzat pribilegioak, besteentzat diskriminazioa. Gaur egun, estatu-nazioa gai ekonomikoak, politikoak, militarrek eta sozialak kudeatzeko txikiegi bihurturik, globalizazioak batzuen eta besteen elkar mendetasuna eta lotura agerian utzirik, unibertsalak deituriko eskubideak Mendebaldea inguratzen duten harresietan geratzen dira.

Europako Batasunak argi bereizten ditu erkidegoko pertsonak eta erkidegotik kanpokoak. Non herritartasun europarra ez baitago langile izaerari, ezta naziotasunari ere, loturik, Atzerritartasun Legea, berriz, bai. Eta, beraz, erkidegotik kanpoko pertsonen -immigranteak deiturikoen- eskubideek, politikoez batik bat, jatorri nazionaleri eta lan merkatuari loturik jarraitzen dute. EB horrek politika komunak ditu migrazio gaitan, baina etorkinentzako lege eta erakunde baldintzak oso ezberdinak dira estatu kideen artean. Atzerritartasun Legeak, esan den bezala, erregularizazioa, funtsean, lanari loturik hartzen du kontuan, lana era murriztailean kontzeptualizatuz, emakume immigranteek egiten dituzten jarduerak gehienak kontuan hartu gabe, etxeko lana, zaintza eta prostituzioa esaterako. Hemen beste paradoxa bat topatzen dugu: familia barneko zaintzak ez dira lantzat jotzen ordainduak ez direlako eta, munduko jarduerarik irabazizkoenetakoa izanik, prostituzioa ere ez da lantzat jotzen dituen konnotazio moralengatik.

Globalizazioaz estatu-nazioek ahalmenak galtzen dituzte eta ordena militar, politiko, sozial eta ekonomiko berria agertzen da. Enpresak lurraldetik ateratzearen kasua da, eta aldaketa garrantzitsuak izaten dira leku, ekonomia eta kulturaren arteko erlazioan. Enpresa horiek erakundearen babesaz bestelako lan erak errazten dituzte eta nazioz gairik mugimendu gero eta handiagoak eragiten. Eremu horretan herritartasuna naziotasunarekin elkartzeko zentzua galtzen du. Teorialari batzuek egungo herritartasuna aldatzeko beharra planteatzen dute, herritartasun unibertsala

onartuz, lurraldetik kanpoko herritartasuna, baita eszena politikotik justiziaren eszenara pasatzea ere, justizia munduko, nazioarteko, eszena jarrita, erakunde horretarako egokiak, benetako -eta beti neurri bera erabiltzen duen- demokrazia eta egitura politiko globalizatu berriak izanik.

Horrek ondasunen, baliabideen eta zerbitzuen banaketa zuzenera eramanez gintuzke, zeinetan pertsonen oinarritzko beharrak aserik egonen bailirateke inork immigranteak ongizate estatuko eskubideak kentzera etortzen direla edo lehenik “hemengoak” esaterik izan gabe. Planetaren parte baten kalterako parte batentzako pribilegiozko eskubiderik gabeko mundua.

Demokratikoa dela dioen sistema batentzat onartezina da bere baitan herritartasun estatus ezberdina duten pertsonak izatea, edo erabat herritartasunik gabeak, irregularren kasua alegia, egungo ekonomiaren euskarri garrantzitsu bat izanik eta, aldi berean, okerren ordainduriko eta sustapen aukera txikieneko lanetara behartuak izanik. Lan merkatuak herritartasun eskubide osoak, nahiz eta txikituz joan, dituzten bertako biztanleriaren eta bazterkeria bazterketa maila ezberdinak dituzten biztanleria ez nazionalen artean polarizatzea klase sozialen bereizketaren eta herritartasunaren atzean ezkututzen den hipokresiaren ageriko froga da.

Eskubideak izateko eskubidea, Hannah Arendt-ek defendatu zuen bezala, edozein gizaki ilegal ez den aitortza edo “paper eta eskubideak guztiontzat” herritartasun baztertzailerik baten eraikuntzaren aurkako bindikazioak dira. Mugak zeharkatzeko eskubideen aitortza, giza askatasunaren adierazpen gisa eta bere baitan gero eta elkarrekiko mendetasun handiagoa duen mundu honetan hobekuntza bilatzeko, begi bistakoa egiten da.

Gaur egungo eztabaidagaietako bat giza eskubideena da. Unibertsalak izatea nahi den eskubide horiek izaera etnozentrikoa eta androzentrikoa dute eta hori berraztertu behar da. Boaventura de Sousa Santos-en proposamenak bezala, kulturez gaindiko elkarriketei eta adostasunei buruzkoak, eskubide kolektiboak, kultur eskubideak edo naturaren eskubideak kontuan hartzeko proposamenak, mendebaldeko demokraziei eginiko kritikak beren mugaz haraindi betetzen ez dituzten legeak, edo migrazioaren kudeaketaren kritikak, gero eta hedatuagoak daude. Halaber, pentsalari feminista batzuek genero ikuspegitik birplanteatzen dute globalizazioarekin loturiko ezaugarrietako zenbait, hala nola denboraren eta lekuaren berrantolaketa, eredu ekonomiko neoliberalak zalantzan jartzen duten aldi berean, lan harremanen erregulazioaren protagonismoa merkatuaren esku uzten baitu, enplegu sistema malgua ezarriz, zeinek, oro har, prestakuntza txikiagoko populazioarentzat eta bereziki emakume gazte eta immigranteentzat lan baldintzen okerragoak sorrarazten baitu. Ez dago, beraz, giza eskubide unibertsalez hitz egiterik populazioaren parte handi bat bazterturik izanik.

Bazterketa horri aurre egiteko, immigraturiko biztanleriak estrategiak bilatzen ditu. Horietako bat kolektiboaren eraketa da, azterlan honetan ikusia izan dena. Indibidualki biztanleria hori anonimatura, ikusezintasunera eta langile merkeak soilik

izatera zokoratzen bada, haien nortasunak estigmatizatuak badira, taldea izanen da haien kidesun beharrak, kezkek eta malenkoniak konpartitzeko, aisialdi lekuak bilatzeko edo interes komunen alde egiteko beharrak asetzeko alternatiba. Behar horiek nola lehenesten diren, horren arabera anitzak izan daitezke kolektiboak edo elkarteak: kirol, erlijio, kultura, nazio, gizarte, politika alorretakoak eta beste. Gobernu erakundeek, behar horien jakitun, asoziazionismo etnikoa, kultura anitzeko beren politiketan oinarrituz sustatzen dute, beste erakunde senide batzuek bultzatu duten diskriminazioaren ondorioak kontrolatu eta arintzeko helburuaz egiten badute ere. Publikoak izateagatik onargarriak eta babesgarriak izanik eta haien zabalkuntza bilatu behar delarik, diru-laguntza publikoekiko mendekotasunak, exijitzen duten burokratismoak eta eragiten dieten politiken prestaketan eta erabakiak hartzean parterik ez hartzeak abegikoa dela agertu nahi duen gizarte honen defizit demokratikoa erakusten dute.

Nahiz eta hori horrela izan, populazio immigrantearen parte bat biltzen da eta botere harremanen zirrikituak bilatzen ditu, botere kuota txikiak ateratzeko beren buruak kultur lekuetan eta leku publikoetan ikusgai eginez, oraingoz debeku duten leku politikoak lortzeko eta gizarte harremanen aldaketan eragitea helburu izanik.

Kulturaniztasuna, estatu-nazioak ezkutatu eta desagerrarazten saiatu badira ere, ia toki guztietan gertaera historikoa izan da eta egun globalizazioa eta horren populazio handiaren lekualdatzea direla-eta agerikoagoa eta ezkututzen zailagoa egiten da. Teoria eta jarrera ezberdinak sortzen dira errealitate horren kudeaketan. Kultur aniztasunaren aldeko jarrerak, asimilazio aldeko joeren aurkakoez, kultur ezberdintasunak azpimarratu eta antzekotasunak saihesten dituzte, ondo-ondoko taldeen alde egiten dute, ia-ia isolamenduaren eta maiz segregazioaren alde. Elkartze itxiak babesten dituzte beren ondare bereziak defendatzeko. Kontrajarrira, kulturartekotasunaren aldeko jarrerak daude, zeinek, heterogeneotasunaren aitorpenetik abiatu eta bakoitzaren berezitasunak errespetatuz, taldeen arteko harremanak babesten baitituzte eta menpetasunik gabeko negoziazio gisako integrazioa bilatzen baitute, elkarbizitzan funtsatuz. Hori ez da, horregatik, gatazkarik gabeko elkarbizitza, denboretan zehar gertatu den bezala. Fredrik Barth-ek esan zuen moduan, bereizketa etnikoak ez dira interakzio ezetik etortzen; aitzitik, hartatik abiatuz daude eraikita (Barth, 1976). Hau dugu abiapuntu: nortasun mugak ez dira estatikoak baina ez dira inoiz ezarpenen gainean eraikiak izan behar.

Kultur artekotasunak integrazio gaira eramaten gaitu. Integrazioak ez du ondorioz inongo uniformetasunik, dio Agustín Basave mexikarrak; hark jatorrizko herrien gaiari heldu dio eta bere herrialdean gauzatu ziren mestizaje politikak kritikatzeko: hori kultura hegemonikoa ezartzeko bidea izatera pasatu zen antzinako kulturen kaltetan. Horregatik, gutxiengoaren nortasuna defendatzearen alde egiten du, baina oinarri diskriminatzaileak gutxituz. (Basave, 2010).<sup>8</sup>

<sup>8</sup>Agustín Basave. “Globalización y multiculturalidad: el dilema entre universalismo y particularismo”. NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoko udako ikastaroa, 2010eko uztaila.

Ezinezkoa da integrazioaz hitz egitea erabateko herritartasunera jo ez daitekeen bitartean, bazterketa kategoriak eraikitzen dituen Atzerritartasun Legea dagoen bitartean, debaluazio mekanismo guztiak abian dauden bitartean eta bertako biztanleriak horretan duen erantzukizuna bere gain hartzen ez duen bitartean.

Emakume immigranteei esleituriko zeregin bat gizoni eustea eta kohesio soziala bermatzea izan da, etxeko unitatea kideei egonkortasuna ematen dien eta gizarte hartzailean integrazioa errazten duen familia nukleartzat jota. Helburu horiekin erraztu da familia berriz elkartzea, baina irizpide etnozentrikoak izanik betiere, bestelako familiak onartu nahi izan gabe, hala nola Saharaz hegoaldeko familia zabalak, zeinek poligamia beren jatorrizko herrialdeetan praktikatzen duten, baina helmugako gizarteetan horretarako betoa jartzen zaie, edo izatezko elkartzeak, populazio latinoamerikanoan ohikoak direnak, Atzerritartasun Legearen azken Erregelamenduan kontuan hartzen hasi badira ere -zailtasun anitzekin, dena den-.

Estatu espainoleranzko emakumezko immigrazioak sozialki gutxien baloratzen diren ugalketa zerbitzuen gero eta etnizazio handiagoko prozesu bati erantzun dio. Etxeko langile atzerritarren eskaera, barne neskametzara bideraturik batez ere, menderatze handiagoko harremanen pean egoteko prest dauden emakumeak, beste zenbait herrialdeetakoak, erakartzen ditu. Ugalketa lanaren segmentazio etnikoak, horrela, sozialki prestigio txikiena duten zereginak (aspaldian etxean egindakoak) kanpora ateratzeari eta gauzatzeko “zerbitzari armada” bat sortzeari erantzuten die.

Giza beharrak asetzeko, lan produktiboaren eta ugalketa lanaren artean osagarritasuna behar da. Industrializazio eta kolonizazio prozesuak, gaur egun globalizazioa bezala, oinarri materialetan funtsatu dira eta, hortaz, ugalketa lanaren kaltetan egin den produkzio lana lehenetsi dute mendetasun hori aitortu gabe, baloratu eta kuantifikatu gabe. Cristina Carrascok lanaren azterketa berri bat eta kontzeptualizazio berri bat proposatzen ditu, ugalketa sozialaren prozesuak ikusgai egiteko. Denbora luzea eta energia handia eskatzen dituzten zaintzen eginkizuna aitortzea. Afektuak, emozioak, segurtasuna, elikadura, garbitasuna, osasuna, heziketa, pertsona osotasunean gara dadin ezinbestekoak dira. Beraz, zaintzaren ekonomiak egitura sozialari eusten dio eta eraikin ekonomikoaren oinarria da Carrascok dioen bezala. Zaintza horiek emakumei utzi zaizkie mendebaldeko gizarteetan azken mendeetan, balioa eta prestigioa kenduz, produkzio lana goستن zen bitartean. Beste alde batetik, Fátima Mernissi idazle marokozarrak prozesu horiek pairatu zituzten herrialdeetan kolonizazioak hierarkizazio profesionalean izaniko eginkizuna azpimarratzen du:

Zalantzarik gabe kolonizazioak bertako sistema patriarkalek baino gehiago baliogutxitu zuen emakumeen lana: alde batetik, eskulanaren prestigioaren galeragatik, jakintza teknikoak iristean orokorrean eta mundu kapitalistan etxeko lanaren debaluazioagatik bereziki, horrek produkzio lantzat jo ez eta balantze nazionaletan sartu ere egiten ez baitu (Mernissi, 1995: 45).

Estatu espainiarrean, azken berrogeita hamar urtean emakumeak nabarmenki sartu dira lan merkatuan, beren kideekin ugalketa lana banatzearekin bat etorri gabe, haiek zainduak izateko pribilegioak galtzeari eusten baitiote. Horrela, merkatuak etxeko lanarekin duen mendetasuna agerian geratu da baina hori emakumezkoen jardueratzat batez ere jotzen da oraindik, baliogutxiturik eta lantzat jo gabe, eta horregatik jarraitzen du gizartearen mendeko talde batzuen esku, adineko emakumeen eta, orain, emakume immigranteen esku.

Egoera horretan erakunde publikoek ez dituzte egoera berrirako beharrezko zerbitzu sozialen gastuak bere gain hartzen, paraleluki ugalketa sozialean aritzen diren irabazi asmoko erakunde pribatuak sortu dira, mendetasuna duten pertsonentzako zaintza zentro espezializatuekin nahiz etxeko laguntzarekin, zaintzen emakumetzeari eutsiz, orain etxeak oso merkantilizatuta. Baina haien prezio handiek errentagarriago egiten dute mirabe immigrante bat izatea, etxean bizitzen askotan, bertako langileek berentzat pentsatu ere egiten ez dituzten lan baldintzak jasateko prest.

Sozialki gutxien baloraturik dauden ugalketa zerbitzuen etnizazioa gizarte babeserako eskubide osorik gabe egiten da, etxeko enplegua Etxeko Langileen Erregimen Bereziak (REEH) arautzen baitu, ez langileen Erregimen Orokorrak. Ekonomia ezkutua, ekonomia ez aitortua, gizarte ongizatearen eta kohesio sozialaren oinarria izanik, gaur egun neurri handi batean paperik gabeko emakume immigranteen gain erortzen delarik.

Bestalde, ugalketa lanetan sexu-langileen zeregina sar daiteke. Dolores Julianok genero diskriminazioko mekanismoak aztertzen ditu eta sektore baztertuen egoera ikertzen, emakume prostitutena esate baterako. Emakumeei eragiten dieten estigmatizazio sozialak genero rolen eraikuntzarekin batik bat loturik daudela dio, mesfidantza eta oldarkortasun soziala emakumezkoen sexualitaterantz bideratuz estigmatizatu gabeko emakumeen portaera sozial eta sexualaren kontrolatzaile gisa funtzionatzen dutela. Delinkuentzia onuragarriak edo ilegaltasun eraikiak bezala, balio dute, gainerakoei arauak jartzeko, emakumeak arauetatik ez ateratzera behartzeko. Horrela, estigmek prostituta ez direnen jardun askatasuna mugatzeko balio dute, pertsona ez delitugileak kontrolatzeko. Beharrezko egiten da prostituzioa lantzat hartzea eta, hortaz, sexu-langileak, menpetasun handiagoko harremanen pean daudela ikusaraztea, eta egungo despenalizaziotik legalizaziora pasatzea. Prostituzioak, lan jarduera denez, jarrera ez estigmatizatzaileetatik erabakiriko lan baldintzak behar ditu, abusuak eragotzi eta langileen autonomia babesteko (Juliano, 2006). Bazterrean izanarazten zaien bitartean esplotazio baldintzak inoiz salatu ezin izanen dituztelako.

Zaintzak, gizarte androzentriko hauetan emakumeei eta alor pribatuari esleituriko dimentsio guztietan -afektiboak, heziketakoak, sozialak eta are sexualak-, emakumeen ardura izateari utzi gabe etxe kanpotiko eta nazioartetiko jarduera edo eta jarduera transnazionala izatera pasatu dira. Emakume migratzaileak langile transnazional bihurtzen dira, beren jatorrizko herrialdeetan zaintzen ardurari eutsiz herrialde hartzaileetan ardura hori hartzen duten aldi berean. Horrela familia

transnazionalak eratzten dituzte, lurralderik gabeko amatasun praktikak eginez, beste emakume batzuetan ordezkioak edo laguntza bilatuz, beren kideek eta seme-alaben aitek ugalketa zereginak beren gain hartzen ez dituztelako nahiz eta beren herrialdeetan geratu eta emakumeek egiten dituzten bidalketatik bizi. Hori hola izanik ere eta immigrazioari oro har eta emakume immigraanteei bereziki lan eskuaren merkantilizazioaz balioa kendu arren, esan daiteke migrazioak emakumeak ahalduntzen dituela (lan etnografikoan ikusiko den bezala) haien autoestimua handituz independentzia ekonomikoaren bitartez.

Lan etnografikoak Erdialdeko Amerikako Nikaraguara eramaten gaitu, migrazio indize handia duen herrialde txiki horretara. Ameriketako ehunekorik handienetakoa da, biztanleriaren %22,64 du atzerrian. Arrazoiek, azterlan honen hirugarren zatian erakutsiko den bezala, nazioartean politika neoliberalen ezarpenera eramaten gaituzte eta, testuinguru latinoamerikarrean ALBA Ameriketarako Alternatiba Bolivarianoko herrialdeentzat itxaropen txikiak hasten badira ere, gaur gaurkoz ez dago aldaketa nabarmenik eta, hortaz, Costa Ricaranzko eta Estatu Batuetaranzko migrazio mugimendua beste zenbait lekutarantz zabalduz doa. Estatu espainiarra, eta Nafarroako Komunitatera zehatzago, aipa daitezke.

Nabarmenezkoa da Nikaraguatiko migrazioa neurri handi batean emakumezkoa izatea, ezen herrialde horretatik aterata estatu espainiarrean diren etorkinen %66 eta Nafarroan den kolektiboaren %77 emakumezkoa da. Kolektibo osoaren %88 etxeko lanetan eta zaintzetan aritzen da, irregulartasun indize handiak izanik, azterlan honek errealitate horiek azpimarratzeko arrazoia izanik.

Nafarroan 77.273 dira atzerritartzat jotako pertsonak (hau da, bertan naziotasun espainiarrik gabe bizi direnak)<sup>9</sup>, 641.293 biztanleko populazio nafarraren %12,04 alegia. 120 herrialde baino gehiagotik etorri dira, marokoarrak kopuru handiena izanik, Ekuador, Errumania, Bulgaria eta Portugalen aurretik. Lurralde banaketari begiratzen badiogu, Tuteran aldeak eta Erriberagoienak hartzen dute ehunekorik handiena, Iruñea eta inguruaren aurretik, Pirinioen aldea ehunekorik txikiena izanik. Horrek, dudarik gabe, lan merkatuko okupazio bereizketaz mintzarazten gaitu, zeren hegoaldean gehienbat nekazaritzan ariko dira eta Iruñerrian zerbitzu sektorea eta etxeko lana esleituko zaizkio populazio horri.

Ez dago zalantzarik krisi ekonomikoak populazio immigraantean eragin handia izan duela, gehien ukituriko lan sektorea, gizonak betetzen zuten lan zokoa izanik. Emakumezkoek esleituriko sektoreak ez dira egoera horretan horren ahul izan, nahiz eta lan baldintzak nahasiak eta ardurak gehituak izan.

Erroldako datuen eta immigrantetzat jotako biztanleriak bertan bizitzeko duen baimenen arteko ezberdintasunek agertzen dutenez, Nafarroan 8.800 lagun gutxienez dago egoera irregularrean. Gainerakoan erdia baino gehiagok errotze bidetik jo du

---

<sup>9</sup> 2011ko urtarrilaren leko datuak.



erregulartasunera, ezohiko bide batetik alegia, ustezko muga blindatuen “malgutasuna” erakusten duena.

Autonomia erkidego honetako politika sozialek doako osasun laguntzarako eskubideen unibertsalizazioa agertzen dute. Prestazio sozialetarako eta oinarrizko errentarako residente guztiak sartzen dira, zerbitzua egoera irregularrean dauden pertsona batzuei salbuespen klausularekin zabalduz. Etxebizitza lortzean zailtasun handiak agertzen zaizkigu. Biztanleria atzerritarrari babeseko etxebizitzak emateko ehunekoa 6,5 da, biztanleria atzerritarraren eta etxebizitza mota hori eskuratzeko erraztasunaren artean aldea dagoen seinale. Jendeak duen pertzepzioa, hala ere, errealitate horretatik urrun dago, gizarte ongizaterako berrikiago iritsi direnek baino eskubide gehiago duela uste baitu.

Hezkuntza publikorako sarbidea ere badago erakundeek bermaturik, baina ikastetxeen arteko banaketak administrazioak duen arduragabetasuna erakusten du, zenbait ikastetxetan metatzea onartu edo bultzatuz. Halaber, hizkuntza ereduen aukeraketak bertako populazioarekiko ezberdintasunak agertzen ditu, aurrekoa bezala jatorri atzerritarreko ikasleei informaziorik ez ematearen eta integrazio politika onargarririk ez egotearen seinale.

Landa lanean bilduriko informazio guztia aztertu eta interpretatzeko, alde metodologikoan agertzen diren azterketa unitateetan oinarritu naiz. Azalpena migrazio ibilbidean ikus daitezkeen sekuentzia eta alderdien inguruan egituratua gelditu da. Lehenik, proiektuaren aurreko etapan sakondu dut. “Nikaraguarako hurbilpena” atalean zerrendatu diren arrazoiak direla eta, herrialde horretan hamarkada batzuk baino denbora gehiago eramaten dute *emigratio kultural*an sarturik. Migrazioa, ez bakarrik hobetzeko estrategia gisa, “galduriko duintasuna berreskuratzeko baizik”, Torrabadellak esan zuen bezala (Torrabadella, 2001, Juliano 2004), herrialdearen barnean funtsezko aldaketak egongo diren konfiantza faltaren aurrean, nahiz eta gizarte justizia handiago baten bilan, borroka armatuan sartu izan aurretikan.

Gero proiektuaren gauzapenean sartu naiz, jada gizarte hartzailean beste pentsalari-ikertzaile batzuen teoriak eta azterketak etnografian bilduriko informazioekin gurutzatzen saiatuz. Azterlanaren nukleoa, orain arte esan den bezala, botere harremanak dira, inmigrazioarekin erlacionatutako diskurtsoen eraikuntza gehituz. Arestian zerrendaturiko botere mekanismo horiek guztiek globalenetik lokaleneraino, makrotik mikroraino, nola funtzionatzen duten ikustea. Ikerketaren motorea abiapuntuko hipotesiak bilatzea izan da. Nire jatorrizko herrialdean (Euskal Herrian) eta nire herrialde hartzailean (Nikaraguan), edo ikerlan honek hartu duen kolektiboaren jatorrizko herrialdean eta iritsierako herrialdean, lorturiko esperientzian oinarrituriko hipotesiak. Nire migrazio esperientzia “internazionalista” deiturakoaren eta bisita itzultzen digutenen esperientziaren artean ikusiriko kontrasteak eraman ninduen arakatzera mendebaldean “bestea” ez ezberdin baizik eta beste maila bateko gisa eginiko eraikuntzan, prozedura ideologiko bat eratzen duten desoreka horiek naturalizatuz, beren “gutxiagotasunaren” errua biktimei berei egotziz.

Verena Stolcke-k generoak, arrazak eta klaseak, sakonki desorekatua eta kontraesankorra den gizarte batean, klase gizartea eratzen eta iraunarazten funtsezko eta erlasionaturiko eginkizun bat betetzen duela inmigrazioak dio (Stolcke, 1992). Antropologo horrek zera gehitzen du: Ipar eta Hegoaren arteko desoreka gero eta handiagoak eta ipar aberatsean immigrazioa dela-eta pizturiko alarma frogatzeko daudela eta hobetze sozioekonomikoa borondate onaren eta norbanakoen ahaleginaren mende soilik dagoelako ilusio neoliberala desorekaren benetako arrazoiak -hots, oparotasunean bizi den gutxiengo batek gehiengo gabetua esplotatzea- ezkututzen dituen tranpa ideologikoa dela.

Santiago Albak azaltzen du nola egun “zibilizazio talka” agertzen zaigun, arazoa gu ez garela uste izaten jarraitzeko, eta nola lege, propaganda eta polizia mekanismo guztiez hornitzen garen, pentsaera justifikatzeko. Zera adierazten du:

Immigrazioa mendebaldeko gertakaria da, planetaren mendebaldetxe armatuaren ondorioa, eta Mendebaldeko egia (kapitalismoaren egia, zehazkiago) gure hirietan agerian sartzea dela esan daiteke: etengabe gure begien aurrean munduarekin egin duguna izatea esan nahi du, munduari egin dioguna; eredu kolonial kapitalistaren porrota agerian, geure harresien barnean, gure gain hartzea esan nahi du. Porrot horren aurka, neurosi kolonialak ezin du erreakzionatu bere burua zalantzan jarriz, baizik eta bere biktimei aurre eginez, errudun bihurtuz, erantzukizuna porrota jasaten dutenengan freudianoki proiektatuz (Alba, 2006: 259).

Emaitzen azterketaren hurrengo sekuentzietan migrazio prozesuaren inplikazioei eta eratorririko ondorioei begiratzen zaie. Mendebaldeko kulturaren eta horren eredu zko garapen ereduaren nagusitasunean funtsaturiko egungo ideiak egunerokoan senti daitezke. Horrekin batera joaten da pentsaera hau, hots, “besteek” “guregandik” ikasi eta beren jatorrizko herrialdeetan, eredu zko “aurrerapena”, “garapena”, lortzeko irakatsi behar dutela. Basavek dioen bezala: “Errail bakarreko aurrerakoitasuna mendebaldeko pentsamenduaren joerarik iraunkorrenetakoa da” (Basave, 2010). Eta bide horretatik doaz kultur praktikak eta mass-mediaren irizpideak. Beste alde batetik, praktika horiei praktika paternalistak gehitzen zaizkie, gutxi emantzipatzen dutenak, beti “bestearen” gutxiagotasunaren ideian oinarriturik, horri laguntza eman behar zaio, arima karitatetsuek beren elkartasun balioak gauzatzen dituzten bitartean. Horrela, bertako populazioarekiko interakzioak desoreka eta ezjakintasun harremanek markatuko dituzte. Elkar onartu eta baloratzeko lekuak bilatu ahala, harreman berdina goak, berdintasunezkoagoak eta sarturiko aldeentzako aberasgarriagoak ehunduz joaten eta joanen dira.

Gizarte-sareak ezinbesteko suertatzen dira migrazio prozesu osoan. Jatorrizko herrialdeetik ateratzeko erabakia hartu baino lehen, helmugaren erreferentziak izaten dira, bai lehenago joan ziren senide edo lagunengandik bai herrialde hartzaileko jendearekiko aurretiko loturetatik, eta horrek bi herrialdeak elkartzen dituzten lotura historikoak erakusten ditu.

Nikaragua koroa espainiarrak kolonizatu izanak egun ageriko aztarnak ditu hizkuntzan, erlijioan, arkitekturan eta beste zenbait elementutan. Orduz geroztik, ozeanoaz bestalde honetako jendeak jarraitu zuen arrazoi batzuegatik edo besteengatik hara joaten. 80ko urteetako iraultza prozesuan areagotu zen joate hori, brigadistak, boluntarioak, eta teknikariak gehitu zirenean eta 90eko urteetan, parte bat itzuli bazen ere, beste bat GKEetan lanean geratu zen. Badira ere euskal eta espainiar kapitaleko enpresa batzuk, AECIDen<sup>10</sup> programak eta autonomia erkidegoek garapenerako dituzten laguntzako programak, GKEen bitartez iritsiak. Erakunde horiek herrialde aberatsekiko mendetasun estuak sortzen dituzte, horiek baitira “emaileak”, oro har beren lankidetzan, alde bateko onurak ematen ohi dituen baldintzapean oinarrituz eta beren iritziko garapen ereduak bultzatuz.

Immigranteak herrialde hartzaileran iristeko eta han sartzeko euskarriztat balio duten harreman horien eta bestelako aztarnak erakutsiko ditu etnografiak.

Transnazionalismoa landa lanean ikusten diren gertakarietako beste bat da, azterlan honetan gainera ikusten dena, perspektiba horretan sakontzeko azterketa espezifikokoak beharko baitira. Distantzia fisikoak laburtzeak aurreko garaian baino maizago iragatea ahalbidetzen du. Familiarekiko eta lagunerekiko loturei eta harreman jarraitu, egonkor eta sarri eustea bideragarriagoa egiten da, baita inguru hartako gertaeretara hurbiltzea ere. Gainera, kontuan hartu behar da, Cristina Blancok dioen bezala, jendeen eta tokien arteko harreman praktikoei hartzen duten dimentsio sinbolikoa, haien artean nortasun, afektu, ezagutza eta elkartasun loturak eginez (Blanco, 2007).

Azterketa bukatzeko, epe motzeko edo ertaineko asmoak bildu dira. Gehienetan migrazioak hasieran aldi baterakoak izaten dira. Helburuak jatorrizko tokian daude erroturik eta helmugako tokia helburu bat lortzeko bidea izaten da. Beti ez da horrela, zeren badira aukera guztietara irekita dauden pertsonak, beren bizi proiektuak norantz bideratuko diren ikusteko denbora gehiago behar dutenak, proiektu horiek hemen dituzten baldintzek eta Nikaraguako baldintzaturik egonik. Era berean, hasierako ideiak aldatuz joaten dira eta helburu bat lortzean beste bat jartzen da eta horregatik ezberdinak izaten dira erantzunak eta posibilitateak, asmoak eta aukerak.

---

<sup>10</sup>Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentzia, Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioari atxikiriko erakundea

## I.ATALA

---

Lehenengo atal hau bi sailez osatuko da. Hasteko, antropologia-ikerketan honen euskarri izan den metodologia garatuko dut. Ondoren Marko Teorikoan sartuko naiz. Hain zuzen, marko horretatik abiatuko bai naiz immigranteen eta erakundeen artean finkatzen diren botere-harremanak aztertzeke, eta baita, oro har, biztanleriarekin izandako harremanak aztertzeke ere.

Marko teoriko honetarako, Michael Foucault-ek botere-harremanak eratzeari buruz egindako ikerketetan oinarrituko naiz, eta horrek argibideak emango dizkit gaur egungo gure inguruko errealitatea aztertzeke. Jarraian, migrazio-mugimenduen ekonomia politikoaren bideetan ibiliko naiz. XX. mendean Europan arlo horretan izan zen esperientziatik abiatuko naiz, eta, ondoren, Espainiako estatuan jarriko dut arreta, gai hauen inguruan: beste herrialde batzuetarako migrazio-prozesuak eta immigranteak hartzen dituen herrialde bihurtzean sortzen diren aldaketak (Atzerritarren Legea, Atzerritarrentzako Zentro Itxiak eta migrazioari ematen zaion tratamendua). Azkenik, Mendebaldeko herrialdeotan alteritatearen kultura-eraikuntza nolakoa den aztertuko dut.

## **METODOLOGIA**

### **1. Hipotesiak**

- Ideologiek eragiten dituzte, kulturek baino gehiago, jarrera aldaezinak eta zurrinak; eta zaildu egiten dituzte berdintasunean eta zuzentasunean oinarritzen diren harremanak.
- Gaur egungo demokrazian kultura nagusi bat iraunarazteak asimetria soziala dakar.
- Emigratu duten pertsonak integratzea oztopatzen duten arazoak ez dira jatorrizko kultura-formen ondorio; baizik eta pertsona horiek iristen diren gizarteetan sortzen diren baldintzen eta erabakitzen eta ezartzen den bereizkeriaren ondorio.

### **2. Helburu orokorra**

Gizarteratze demokratikoaren prozesuaren autogestioan eragiten duten immigranteen identitate- eta kultura-sentsibilitateak ulertzea.

### **3. Helburu espezifikoak**

- Emigrazio-prozesua ikertzea.
- Immigrantearen identitate multikulturala nola eratzen den aztertzea.
- Norberaren pertzepzioa, jatorria eta adierazpenak hautematean migrazioak sortzen duen barne-gatazka identifikatzea.
- Pertsonen arteko botere-harremanak aztertzea, generoaren, klasearen eta nazionalitatearen arabera.
- Alderdi xenofobikoak eta haietatik eratortzen diren portaerak identifikatzea erakunde politiko eta sozialen diskurtsoan eta legaltasun formalean.

### **4. Ikergaia**

Metodo etnografikoa erabilia, Nikaraguan jaio eta gaur egun Nafarroan bizi diren gizon-emakume immigranteek bizi duten errealitatea aztertuko dut. Gizarte-talde

horrekin neronek izan nituen eragin-trukeak bultzatuta aukeratu dut, hain zuzen, ikergeraia. Planteamendu honen funtsa ikerketaren garrantzi soziala ziurtatzearen beharrea sustraitzen da.

## 5. Metodologia eta aurreikusitako lanak

Ikerketaren metodologia ikuspuntu kualitatibotik gauzatu dut, eta, horretarako, nagusiki, honako hauek erabili ditut: behaketa parte-hartzailea, bizitzari buruzko kontaktak, elkarrizketa sakonak, eztabaida-taldeak, intereseko gaiari buruz dagoen material bibliografikoaren irakurketa, eta gaiari buruzko legee eta txostenei dagozkien bigarren mailako iturrien azterketa.

Prozesua ikerketa hau egitea pentsatu eta erabaki nuen unean hasi zen; gogoetaren ondorioz ideiak kateatu eta horrela hartu zuen itxura, testuak irakurriz, behaketa eginez eta informazioa erregistratuz. Gogoeta horretan, honako galdera hauei erantzun nahi izan diet, ikerketaren hasieratik amaierara arte: Zer? Nola? Zergatik? Zertarako? Non? Nori?

Kontzeptuk deskribatzeko estrategiak eta giltzarri diren kontzeptu teorikoak bilatu ditut, eta galdera honetatik abiatuta aztertu ditut: zer ekarpen egin diezadakete nire ikerketaren helburuak lortzeko? Norbanakoa-taldea harremanari buruzko informazioan jarri dut arreta, sexua-generoa sistemak baldintzatzen duen kulturaren testuinguruan.

Interesa izan dut talde horretako subjektuek zer ezaugarri dituzten ikertzeko, zer antzekotasun eta desberdintasun dituzten bertako pertsonekin, nola adierazten diren kultura horretan balio positiboak eta negatiboak; hori guztia, testuinguru ideologiko menderatzaile eta hierarkizatu batean kokatuta.

Kritika kulturaletik eta diskurtsibitatek abiatu naiz, eta Foucaultek emandako zentzuan erabili dut diskurtsoaren adierazpena; hain zuzen ere, errealitatearen irudikapen eta irudi jakin batzuk beste batzuen kalterako legitimatzen dituzten hizkuntzaren modu egoki eta baimenduak sortzeko giza gaitasun gisa. Gure gizartean, diskurtso nagusia da «gu» eta «besteak» modu hierarkizatuan sailkatzen dituen diskurtso ideologikoa. Modu horretan legitimatzen da Iparraldekoek Hegoaldekoekiko duten ikuspegi paternalista; alegia, Hegoaldeko herrialdeetatik datorren jendearekikoa, edo Mendebaldeko izan ez eta gure artean eta gurekin bizi direnekikoa.

Etengabe aldatzen ari den mundu batean bizi gara; boterearen sare lokaletan bilakaera ideologiko, politiko eta ekonomikoak, identitateak eraikitze prozesuak, eta hainbat gizarte-talderen aldarrikapenak dituen mundu batean, hain zuzen. Ere horretan, Etnografiak aukera eman dit teoriaren eta praktikaren arteko harremana aztertzeko, batetik, ezagutzak eskuratzeko prozesuaren eta teoria sozialen

formulazioaren artean eta, bestetik, prozesu horretan inplikaturako elementu politikoen artean. Kontuan hartu ditut Ikerketa-Ekintzaren zenbait alderdi; izan ere, Montes del Castillok ohartarazten duen moduan:

Ikerketa-Ekintzak ikerketa guztietan izaten diren arazo epistemologikoak (nola sortzen den ezagutza gizarte-zientzietan), teorikoak (zer azalpen ematen diren gertaera sozialei buruz) eta politikoak (zer interes sozial eta klaseari dagozkionak dituen) planteatzen ditu, eta arazo horiek konpontzen saiatzen da aldi berean (Montes del Castillo, 2000: 186).

Ikerketa-Ekintzak teoria eta praxia modu espezifikoan antolatzea du ezaugarri. Harreman hori zentzu eta norabide bikoitzean uler dezakegu. Alde batetik, ikerketak gidatzen du ekintza; hau da, errealitate soziala ezagutzeak bide ematen du gizarte-ekintza modu koherenteak garatzeko. Beste aldetik, ekintzatik dator teoria; ondorioz, ikerketak praktika sozialak bultzatzen ditu, ekintza sozialak bide ematen baitu ikerketa gidatzen duten hipotesiak egiaztatzeko.

Ezagutzak praxi sozialean du jatorria. Eraldaketa sozialen bidez ekoizten dira ezagutzak. Ikerketa-prozesuan zehar sustatutako gizarte-ekintzak baieztatu edo ezeztatu egin ditzake ikerketa bideratu duten hipotesiak, eta horrek azaltzen du teoria/praxia harremana ulertzeko bigarren modu hori. Praxia teoriaren saiakuntza-banku gisa agertzen da (Montes del Castillo, 2000: 188).

Ekintzatik teoria sortzea da, beraz, helburua; horretarako, ikerketa bihurtuko da eskaintza sozialaren bitarteko teoriko, ekintzatik ezagupenak aterako dituen; eta ekintzaren gainean gogoeta eginez eskuratzen diren ezagupen horiek gidatuko dute hurrengo ekintza. Kontua ez da soilik ikertu den gizarte-taldearen beharrei erantzuteko alternatibak proposatzea, baizik eta giza taldeen arteko bizikidetzari eragiten dioten arazoak azaltzea; horretarako, gizarte honen kritika kulturala egitetik abiatuko naiz, hain zuzen ere, boterea hein handi batean irudiaren eta komunikazioaren eremuan gauzatzen eta bideratzen den gizarte honen kritika kulturala.

Montes del Castilloren antzera, nik ere fase etnografikoa, etnologikoa eta politikoa barne hartzen dituen ikerketa-prozesutzat hartzen dut lekuan lekuko lana. Hiru fase horiek ez dira desberdinak kronologikoki, eta ez dira bata bestearengandik aparte eta bereiz gertatzen. Aitzitik, harremana dute elkarren artean; etengabe tarteka daitezke. Elkarren artean trukutzen eta osatzen diren ezagutza- eta ekintza-elementuez edo prozesuez osatuta dago. Aipaturako idazleak honela dio:

Fase etnografikoa barne hartzen ditu ikertu behar den arazoa edo gaia hautematea, gertaeren aurreko hipotesiak edo erantzun esplikatzaileak planteatzea, eta datuak biltzea Gizarte Antropologiaren berariazko prozedurak erabilita. Fase etnologikoa interpretazioari, azalpenak eta proposamenak bilatzeari, eta garrantzi desberdineko teoriak lantzeari dagokio, ikertutako gaiaren, bildutako datuen eta ikerketaren helburuen arabera. Eta, azkenik, fase politikoak barne hartzen du gizarte-ekintzak proposatzearekin eta gauzatzearekin

zerikusia duen oro, ikerketa-prozesuan zehar edo haren ondorio gisa, ikertutako gaiari dagokionez (Montes del Castillo, 2000: 190).

Lekuan lekuko lana proposatu dut ikerketa-prozesuaren berezko lekutzat, eta ez ikerketaren aldi bat bailitzan. Batasuna eta eragin-trukea dago datu-bilketaren, lanketa teorikoaren eta ekintza soziopolitikoaren artean. Ikerketa antropologiko hau ekintza sozialerako diskurtso bat izan da eta da, nolabait, batasunaren eta aniztasunaren ikuspuntutik, eta ikuspuntu holistiko, konparatibo, kulturarteko eta kritikotik. *Etic* eta *emic* begiradek elkar sendotu dute etengabe, eta sinergia sortu dute ikerketaren helburua eskuratu ahal izateko, gogoetari eta ekintzari dagokion prozesu jarraitu batean. Eztabaida-taldeetan emaitzak sozializatu dira, beti ere zainduz elkarrizketetan konporatutako barne sentimendu eta alde kutunak.

Subjektibotasuna egozten zaie gizarte-zientziei; eta nik diot, Montes del Castillok dion bezalaxe, ikerketetan ez dela existitzen objektibotasun eta neutraltasun ideologikorik, batez ere ikerketa sozialetan (eta, ziur asko, ezta besteetan ere). Ezagutzak klase-interesen kutsua izaten du beti. Ideologia islatzen dute ikerketan aukeratutako gaiak, datuen aukeraketak eta manipulazioak, hipotesi eta teoria esplikatzaileak, eta baita metodoek eta teknikek ere. «Izan ere, datuak ez dira modu itsuan eta inozoan aukeratzeko, baizik eta alde zuzeneko hipotesi teorikoak izanda. Datuak ez dira existitzen, eraiki egiten dira» (Montes del Castillo, 2000: 187).

Ikerketa guztiak errealitateari buruzko diskurtso bat dira, eta ikerketa antropologiko guztiak gizarte-harremanei buruzko diskurtso mota bat dira. Bai hizkuntzalaritzak bai semiotikak erakusten digute mezu oro politikoa dela, botereak etengabe sortzen baititu diskurtsoak. Ikerketa honek bere gain hartzen ditu ekintza ideologiko jakin batzuk, eta helburu zientifikoak eta politikoak ditu xede. Helburu zientifiko bidez, ikerketaren zientifikotasuna ziurtatu nahi da; gizarteei buruzko ezagutzan aurrera egin, eta gizarte horietako bizi-baldintzak hobetzeko ezagutza baliagarriak sortu nahi dira. Helburu politiko bidez, berriz, aldaketa soziala bultzatu nahi da. Kasu honetan, ikertu den gizarte-taldea bere ezaugarrien subjektu ikertzaile izan da, nolabait ere, eta, era berean, emaitzen hartzaile. Taldea aldaketa sozialen hausnarketa kritikoan inplikatu egon da, kolektiboaren arazoaren ebazpenetan parte-hartze sutsua izanez.

## 6. Ikerketa-teknikak

Honako ikerketa-teknika hauek erabili ditut: bizitzari buruzko kontaktak, elkarrizketa sakon libre eta etengabekoak, elkarrizketa erdi-egituratuak eta eztabaida-taldeak. Horrez gainera, behaketa parte-hartzailea eta bigarren mailako iturrien azterketa ere egin dut.



- Bizitzaren kontaktak eta/edo elkarrizketa sakonak. Beren familien eta etxeen taldeen eguneroko bizitzako dinamikei buruz informazioa eman diguten pertsonak izan dira. Elkarrizketak bai etxean bai espazio publikoetan egin ditut.
- Gizon eta emakumeentzako rol-aukerei buruzko elkarrizketa erdi-egituratuak, gaur egungo jarduna bideratzen dutenak, eredu eta portaera maskulinoa eta femeninoa izan beharko lukeenaren pertzepzio ideala deskribatuz. Elkarrizketa mota hori elkarrizketatua narrazioaren bilakaeran bideratuko duten oinarriko galderetan oinarritu da.
- Elkarrizketa egituratua, kontakizunari lagunduko dioten bizipen, gertaera eta nozioak salatuko dituzten biografia-zirriborro batzuk bilatu nahirik. Bizi izan zutena eta bizi dutena. Eguneroko bizitzako gorabeherak deskribatzen saiatuz, eta elkarrizketatuaren bizitzako gertaerak, haren portaerak, eta hark gainerako taldekideekin dituen harremanek eta gertaerek eragindako diskurtsoak kontatzen saiatuz. Bizi izandako emozioak, besteek emozio horiek hartzeko moduak eta isildutako emozioak ere ikertu nahi izan ditut.
- Behaketa parte-hartzailea jarduera kulturalak, kulturantzunak edo kulturarteak antolatzen diren espazio publikoetan; immigranteek betetzen dituzten espazio publikoetan; festa pribatuetan; eta taldeekin eta pertsonekin egindako aldi behingo kontaktuetan.
- Talde-eztabaida da lekuan lekuko lanaren beste teknika bat. Kasu horretan, gizarte-talde batek ohartuki parte hartzen du bere egoerari buruzko ikerketa-proiektu batean, horretarako, ikerketa horren hainbat alditan sartuz.
- Ikertutako komunitatearen lekuko ezagutza da ikerketa honetan erabilitako beste teknika bat. Horrek aukera ematen du talde-dinamikak ezagutzeko, eta ikertutako taldearen pentsatzeko eta ekiteko logikarekin trebatzeko.
- Intereseko gaiei buruz dagoen material bibliografikoaren irakurketa eta azterketa: etnografiak, hurbiltze teorikoak, gobernuaren informazio ofiziala.

10 bizitzaren kontaktak, 14 elkarrizketa sakon eta 6 elkarrizketa erdi-egituratu egin ditut. Hainbat eztabaida-taldetan ere parte hartu dut (batzuk formalak, beste batzuk ez hainbeste), talde-bilkurak baliatuz. ASNINA (Asociación Nicaragüense de Navarra) elkartearen bidez jo dut pertsona horiengana; elkarteak 2007an sortu zen, eta 200 kide ditu egun; kide horiek maiz elkartzen dira eta jarduerak antolatzen dituzte, bai barrurakoak bai izaera publikoagoa dutenak, eta, bazkideez gain, nazionalitate askotako lagunek ere parte hartzen dute jarduera horietan. Grabaketak 2009ko ekainetik 2011kako uztaila bitartean egin dira, baina kontaktua eten gabea izan da lanaren

bukaera arte. Haien etxeetan, nirean edo beraiekin adostutako beste leku batzuetan topatu garelarik.

Ikerketan, bateratu egin ditut, batetik, abstrakzioa eta orokortzea eta, bestetik, errealitate soziala deskribatzeko, ulertzeko eta azaltzeko helburua. Metodo biografikoak aukera ematen digu bateratze-puntu erabakigarri honetan kokatzeko: batetik, norbanakoaren lekukotasun subjektiboa, haren bizitza-ibilbidearen, esperientzien eta ikuskeraren partikularraren argitan; eta, bestetik, garai, eremu, arau sozial eta norbanakoa kide den komunitatearekin funtsean partekatutako balioen isla den bizitza baten irudikatzea. Sakonean sartzen gaitu gizarte-, familia- eta lan-harremanen unibertsoan.

Gizarte-aldaketari dagozkion ikerketetan, kontakizun biografikoa da norberaren eta ingurune sozialaren eraldaketen eragina ezagutzeko eta ebaluatzeko material motarik balioetsuena. Era berean, *etic* eta *macro* ikuspegiak egiaztatze balio digu, *emic* eta *micro* ikuspegien kontrapuntua eskaintzen baitugu. Horrez gainera, unibertsal partikularrak ere azaltzen dizkigu. Gai horri dagokionez, honela idazten du J.J. Pujadas-ek:

Kontakizun biografikoak egokiak dira desoreka- eta krisi-prozesuak (banakakoak edo taldekoak) aztertze; prozesu horiek aldaketa garrantzitsuak dakartzate tartean diren talde sozialen bai portaeran bai balio-sistemetan. Migrazio-prozesuetan gizarte-maila batetik bestera, gizarte-esparru batetik bestera igarotzen ari diren herritarrak eta banakoak aztertzea da kontua; desoreka garrantzitsuak dira horiek. «Atzerritarra» arrotza da, eta gizarte hartzaileak estandarizatutako gizarte-jokabideen ereduez jabetzeko prozesu mantso baten bidez soilik lortuko du «bertakotzea» (Pujadas, 1992: 63).

### **Bizitzari buruzko kontaketa**

Metodo egokia da errealitate sozial historikoaren pasarte jakin bat ikertzeko, errealitate horrek nola funtzionatzen duen eta nola eraldatzen den ulertzeko. Errealitateak bere-bereak dituen harreman sozialen formak, mekanismoak, ekintzen prozesuak eta logika behatzean datza.

Bizitzaren kontaketa bidez, partikularretik orokorrera jauzi egin nahi da; izan ere, antzeko testuinguru askotan ager daitezke behatutako eremuan aurkitutako forma sozialak eta prozesu errepikariak. Koexistentzia aztertu nahi da, bakoitzak bere azpikultura garatzen duen gizartearen beraren baitan. Daniel Bertaux-en hitzetan:

Bizitzari buruzko kontaketa joteak bereziki eraginkorra izatea erakusten du; izan ere, datu enpirikoak biltzeko modu hori egokia da ibilbideak eratzeko. Horrek aukera ematen du ulertzeko zer mekanismo eta prozesuren bidez iritsi

diren hainbat banako egoera jakin batera eta nola saiatu diren egoera horretara egokitzen (Bertaux, 2005: 19).

Ikerketa mota horrek erakusten du nola funtzionatzen duen mundu sozialak edo gizarte-egoera batek. Kontuan hartzen ditu harreman sozialen baitako forma, botere-harremana, tirabirak, etengabe erreproduzitzeko prozesuak eta eraldatzeko dinamika.

Botere-harremanek gure gizarteetan duten nonahikotasuna kontuan hartuta, uste izatekoa da ulertu nahi den gizartea araututako jardueren eta maila ezberdinetan kokatuta dauden eragile/aktore sail baten eragin-trukeen emaitza dela. Araudi formalek edo informalek, rolek, interesek, ekintzarako baliabideek, batasuneko eta kontrakotasuneko subjektuarten harremanek, eta mugimendurako aukerek bereizten dituzte maila horiek; eta ezaugarri horiek guztiak nabarmen aldatzen dira hartzen den maila motaren arabera (Bertaux 2005: 27).

Norbanakoaren eta gizartearen arteko eragin-trukeak elkarrekikoak dira: gizarte-aldaketa ez da bakarrik gertatzen, ez dator goitik. Berezkoak baina masenak diren fenomeno guztiek nabarmen eraldatzen dute herrialde baten morfologia soziala. Bizitzaren kontaketa bat denbora historiko kolektiboan kokatu gabe ulertu ezin den gisa berean, gizarte-aldaketen fenomenoak ere ezin dira ulertu kultura-ereduen, pentsamoldeen eta jokaera pribatuen eraldaketak aipatu gabe; horiek, izan ere, kopuruz gutxi eta metatuak izateagatik, parte hartzen dute fenomeno horien eraketan.

Gizarte garaikideek mugimendu bikoitz kontraesankor bat dute ezaugarri; hain zuzen ere, homogeneizatzea eta bereizkuntza. Homogeneizatzea agerikoa da, ez soilik kontsumo moduetan edo kultura-erreferente komunetan, baizik eta baita, esaterako, gizarte-eskubideak herritar guztiengana hedatzeko joeran ere. Aldi berean, ordea, bereizkuntza funtzionalean izandako aurrerapenak ugaltu egiten dituzte gero eta ugariagoak eta espezializatuagoak diren jarduera-sektoreak edo «mundu sozialak».

Subjektibotasunaren garrantzia onartzen denean, zenbait gogoetatan, galdu egiten da haren osaeraren azpian datzan ikuspegi soziala eta kulturala. Horregatik, prozesu historikoak berriz aztertzeak aukera ematen du ikusteko garapenaren bidez aldatzen ari direla balioak, ideiak eta pentsatzeko modua, eta egoera horrek beste gertaleku batzuk sortzen ditu subjektibotasunarentzat. Horrenbestez, hori da alderdi indibidualaren (subjektuaren historiari eta haren bizipenei loturikoa) eta alderdi historiko-sozialaren arteko gurutzaketa konplexu baten emaitza, non kateatzen baita banakotasuna.

Bizitzari buruzko kontaketa osoa subjektu baten historia osoari buruzko kontaketa da. Jaiotzatik hasi, jatorri sozialetatik, eta subjektuaren bizitzaren historia osora hedatzen da. Historia horren aldi bakoitzean, kontaketa, subjektuaren barne-bizitza eta haren ekintzak deskribatzeaz gainera, pertsonarteko testuinguruak eta testuinguru sozialak ere azaltzen ditu. Bizitzaren kontaketa, berriemaileak, gertaeraz gain, haietatik eratorritako egoeren berri ematen dio ikertzaileari, bere ekintzen eta ingurukoekin dituen harremanen berri; bizitako esperientziaren edukia aztertzen du,

baina, batez ere, berak edo ikertzaileak sakondu nahi dituen (eta aurrez berriemaileari jakinarazi dizkion) alderdi haietan jartzen du arreta.

### **Elkarrizketa sakonak**

Elkarrizketa pertsonal sakonak aukera ematen digu argitzeko norbanakoak nola erazten duen «bere» errealitatea edo munduaren pertzepzioa. Estrategia bat da jendeak dakienaz, pentsatzen duenaz, sinesten duenaz eta sentitzen duenaz hitz egin dezan. Kazetari-elkarrizketa baten aldean, elkarrizketa antropologikoan galdera irekiagoetara jotzen da, diskurtsoan «elkartze libre» antzeko bat sor dadin nahi baita. Elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren artean «enpatia» moduko zerbait eratuta lortzen da hori. Kazetariak ez bezala, berriemaileekin harreman luzeagoa du antropologiako ikertzaileak, eta horrek aukera ematen du egoera berezi bat bizi duen subjektu bakoitzak dituen ideiak, sentimenduak eta balioespenak adierazteko. Elkarrizketaren bidez, enuntziatuak eta hitzezko adierazpenak lortzen dira behaketa zuzenaren eta parte-hartzailearen bitartez. Elkarrizketa sakonak ikertzailearen eta berriemailearen aurrez aurreko behin eta berrizko topaketetan oinarritzen dira; beren bizitzari, esperientziari edota egoerari buruz dituzten ikuspegiak ulertzea da helburua.

Elkarrizketaren bidez elkarrizketatuaren buruan garrantzitsua eta esanguratsua dena aurkitu nahi da, horren esanahiak eta intepretazioak, eta mundua ikusteko, sailkatzeko eta esperimintatzeko duen modua. Izan ere, esperientzia zerbait intimoa da, berezia, eskuarki errealtzat hartzen diren ekintzen multzotik haratago doana; eta, elkarrizketari esker, eskuarki intimotzat eta ia iritsiezintzat hartzen diren elementu horietan sar gaitezke. Elkarrizketaren bidez, subjektuak oinarritzko elementu sail bat eskaintzen du ikerketaren objektua ulertzeko, eta bide ematen du bizitako prozesuari buruz egiten diren balioespenetarako ere

Teknika horretan, 50etik 100era arteko galdera irekien bidez osatutako gida erdi-egituratu bat erabiltzen da, orokorretik partikularrera doana, aktore sozialen ikuspegiak aztertzeko; hain zuzen ere, haiek beren bizitzaz eta esperientziez duten ikuspegia, emandako egoera baten aurrean zabal mintzatzera eramango dituen. Kontua ez da lehenengo erantzunarekin geratzea, baizik eta sakontzen saiatu behar dugu, elkarrizketatuarengan loturak eta ekoizpenak eragiten, hark bere formulazioak eta galderak garatu eta ezezta ditzan, luze eta zabal azal ditzan, pentsatzeko eta gogoeta egiteko aukera eman diezaioten, eta baita libreki elkartzeko modua ere. Harremanaren hasieran, ikerketarako orokorrak diren interesetatik sortutako galderak egiten dira. Beste ikerketa-testuinguru batzuetan ez bezala, ordea, galdera horiek birformulatu egiten dira lanean zehar. Malgutasun-maila handia eskatzen du; galderak aurkitzeko estrategietan eta testuinguruak identifikatzean adierazten da hori, eta estrategia eta testuinguru horiei esker erantzunek zentzua hartzen dute.

Elkarrizketa mota horiek pertsona bakoitzak bere esperientziak berriz adierazten dituela pentsatuz egiten dira, bere eskema erreferentziala egokitu den moduaren arabera; hau da, berriemailearen ezagutza, pertzepzioa eta balioespenak inguratzen duen horretara egokitzeko moduaren arabera; azkenik, bere historia pertsonala gaur egungo egoeran antolatzeko duen moduaren arabera. Horrek ulertarazten digu egoera bera zergatik ulertzen duen modu batean egoera horretan dagoen bakoitzak.



Esperientzia bat bizi izan dutenek, bizitakoaren esanahi eta zentzu multzo bat hartzen dute. Esanahi eta zentzu horiek bakoitzaren bizipen pertsonalek baldintzatzen dituzte, baina dimentsio zabalagoa hartzen dute beste zentzu batean: dimentsio soziala. Elkarrizketa sakonaren bidez, bi esanahi horietara iristen saiatzen gara: norberarena eta soziala. Biek ere intimitatearen eremuan dute sorburua, eta eskuarki pertsonaltzat hartzen denak baino zentzu zabalagoa dute.

Elkarrizketa sakonaren bilakaerak aukera ematen du, zalantzarik gabe, elkarrizketatuak bere esperientzia birmolda dezan, beretzat zentzua duen diskurtso bat sor dezan. Gainera, birmoldatze horren bidez, modu partikular batean adierazten ditu gertaera sozial bati dagokionez izan dituen esperientziak.

Elkarrizketa sakonaren bidez, giro lasaia eta eroso sor dezakegu bi aldean artean; izan ere, elkarrizketaren malgutasunari esker, ikertzaileak bigarren mailako rola har dezake. Antropologia-teknika gehienetan bezala, honetan ere, ikertzaileak kontuan hartu behar du elkarrizketatuarengan duen eragina; horregatik, garrantzitsua da harremana modu naturalean eta erraz gauzatzea, emaitzek ahalik eta interferentziarik gutxien izan dezaten. Elkarrizketetan jorratzen diren gai gehienak berriemaileek egunerokoan darabiltzaten gaiak izaten dira; baina ez modu gogoetatsuan, baizik eta modu praktikoan, beren bizitzaren jardunean, testuinguru espezifikoetan.

Hori dela eta, elkarrizketa sakonean, garrantzia ematen zaio subjektuaren adierazpenari, haren hitza zentzumen askoren adierazgarritzat hartzen baita, eta haietatik bakar batzuetara soilik iritsiko da elkarrizketatzailea. Aldi berean, zentzumen horiek adierazteko, beharrezkoa da haien garrantzia azalduko duten galdera batzuk

prestatzea, eta baita aurkeztutako material horretan arazo-guneak identifikatuko dituen erregistro, analisi eta interpretazio moduak antolatzea ere.

Elkarrizketa sakon bat egiteak, besteak beste, ikerketarako helburu bat zabal eraikitzea dakar; hau da, hainbat kontzeptu teoriko lotuko dituen eraikuntza bat: politikoak, soziologikoak, ekonomikoak, psikologikoak, eta abar. Elkarrizketa horren bilakaerak erakunde-dinamika bat irudikatzeko aukera ematen du, elementu makrosozialak eta mikrosozialak elkartu nahi diren aldetik.

Elkarrizketa sakona elementu pribilegiatu bat da molde kualitatibodun ikerketa sozialerako. Zalantzarik gabe, elkarrizketa sakona prestatzeak, egiteak eta lortzeak prestakuntza kontzeptuala eskatzen du; eta ezinbestekoa da ikerketaren helburua eratzeko bide emango duen eta argitu beharreko galderen gidoia egituratzeko aukera eskainiko duen planteamendu teoriko batetik abiatzea. Berriemaileengana hurbiltzeko oinarritzko metodoa kontaktu pertsonala izan da, nire kasuan.

Elkarrizketa mota horren bitartez, emigrazioaren aurreko esperientzia eta egitura-maila jakin bat (bereziki, kapital ekonomiko, kultural eta sozialaren hierarkietan betetzen diren mailak) emigrazio-immigrazio bihurtzen deneko prozesua jaso nahi izan dut, eta baita jatorriko gizartean eta iristen den gizartean garatutako baliabideen erabilera jakin bat ere.

### **Behaketa parte-hartzailea**

Behaketa parte-hartzailea modu honetan defini daiteke: ikertutako pertsona edo egoeren errealitatea ulertzea, ohiko jarduerak ikertzeko ikertzailea tartean sartuz eta neurri batean parte hartuz. Behaketa mota horren bitartez, talde-dinamikak ezagutu ditzazkegu, eta ikertutako pertsonen pentsamenduaren eta ekintzaren logikarekin treba gaitezke. Antropologiak garatu duen teknirik garrantzitsuenetakoa da gertaera sozialen zuzeneko behaketa (hau da, giza portaeraren behaketa bere testuinguruan) eta behatzaileak parte hartzea gertaera horien bilakaeran.

Behaketa parte-hartzailearen bidez aurkitzen ditugu, besteak beste, gertaerak, giza ekintzak eta eragin-truke sozialak; eta haiek agerrarazten dituzte praktika diskurtsiboetan ikusten ditugun alderdi asko. Bizitako egoeraren irudi zehatzagoa eta osoagoa lortzeko aukera ematen digu.

Komunikazioa autoerabilerarako teknologia bihurtzen da eta, neurri handi batean, hizkuntzan eta emozioen erabilera egokian oinarritzen da, emozio barneko eta arteko koordinazioa sortzeko helburuarekin. Bestearen lekuan jartzea eta bestearen ikuspuntuarekin eta sentimenduekin identifikatzea trebetasun emozionala eta sinbolikoa da; izan ere, enpatia sortzeko baldintza da beste pertsonen jokaeraren seinale

konplexuak deszifratzea, aldi berean pertsonalitatea ezkutatu eta agerrarazten duten zantzuak, hain zuzen.

Entzuketa aktiboaren bidez emozioak adierazi eta tentsioak askatzen dira. Sentimenduak onartzeak eta gertaerak ulertzeak aitoren sozialera daramate berriemailea, norberaren baitako gogoetara eta autoestimu handiagoa izatera.

Hiru urte iraun duen ikerketa honetan, askotan ikerketa honen helburu den taldearekin bizi izan naiz egoera desberdinetan; bai taldeko jardueretan bai bilera pertsonaletan, pozak eta zailtasunak partekatuz; beren etxeetara gonbidatu edo neurera etortzen ziren, behin baino gehiagotan; elkarrekin parte hartu genuen dantza-saioetan edo janaria prestatzen; eta haiekin egon naiz bai ospitaleetan, bai komisarian, bai epaitegi, bai diskoteketan. Harreman estu horien bidez elkarri eragin diogu eta informazioa trukatu dugu, hainbat alderditan mesedegarria ez den errealitate bat eraldatzeko helburuarekin. Ikertu den taldearen jardueretan eta bileretan izan dudak presentziak ez du aldaketa esanguratsurik ekarri talde-harremanetara, baizik eta eragin-truke adierazgarri bat sortzen lagundu du. Esan daiteke, beraz, behaketa parte-hartzailea parte-hartze behatzaile bihurtu dela, uneoro behatzeko parte hartzen baita eta parte hartzeko behatzen; izan ere, nire ustez, tartean sartzea eta ikertzea ez dira elkarren aurkako, baizik eta ezagutza-prozesu beraren parte dira biak ere. Azken batean, elkarrenganako eragin jarraitua dago.

Nire behaketak eta harremanak ez dira mugatu Nikaraguako pertsonengana; izan ere, pertsona horiek ere, nik bezala, gure gizartean diren beste herrialde batzuetako jendearekin ere badute harremana. Beraz, lehentasuna nikaraguarren lekukotasunei eta iritziei eman badiet ere, beste pertsona batzuen lekukotasunak ere sartu ditut, haien ñabardura baliotsuengatik. Aldi berean ikerketa prozesu honetan, bertakoen zenbait iritzi, balorapen eta jarrera ere jaso ditut.

## **Eztabaida-taldea**

Eztabaida-taldea edo batzar parte-hartzailea (Montes del Castillok esaten dion gisan) bi hipotesitatik abiatzen da. Lehenengoaren arabera, ezagutza zientifikoa ezagutza sozialaren parte da gizarte-zientzietan; beste hitz batzuetan esanda, gizarte-zientzietan, ezagutza produktu soziala da eta, beraz, gertaera sozialen gainean ikertzen duen pertsonaren arrazionaltasunarekin batera, ikertu den talde sozialaren arrazionaltasuna dugu. Bigarren hipotesiaren arabera, taldeak ikerketan parte hartzeak batasuna ematen dio ikerketa-prozesuaren aldi etnografiko, etnologiko eta politikoari; era berean, aukera ematen du subjektu/objektu, *etic/emic*, teoria/praktika dikotomiak gainditzeko. Ikertu den taldeak batzar parte-hartzailean parte hartu izanak eragin-truke sozialerako beste espazio bat sortu du datuak biltzeko (hainbat datu nekez aterako lirarteke argitara eragin-

trukerako espazio hori izan gabe), datuak interpretatzeko eta, beraz, diskurtso berri bat sortzeko baldintza sozialak eraldatzeko ekintza politikora begira.

Teknika horrek, azken batean, aukera ematen du behatzaile/behatu harreman indibiduala gainditzeko, horrek dituen subjektibismorako eta datuen distortsio interesaturako arriskuak barne hartuta, eta testuinguru sozial bat eskaintzen dio deskripzio etnografikoari, datuen azterketari eta ondoriozko ekintza soziopolitikoen gainean erabakiak hartzeari. Ez du beti itxura formala izan beharrik edo ezagutza sortzeko helburua eduki beharrik; baizik eta, dituen beharren arabera, talde-dinamika bera behatuko da, eta bai datuak biltzeko bai talde barneko gogoetarako/ekintzarako (aldi berean, ikertzailearentzat ere hala izango da) balioko du. Modu horretan eragiten diote elkarri giza taldeek, harreman politiko, ekonomiko eta ideologikoen sistema baten barruan.

## Lekuko ezagutza

Ikertu den komunitatearen lekuko ezagutza da ikerketa honetan erabili dudan beste tekniketako bat. Izan ere, Nikaraguan sei urtez bizi izanak eta ikerketa honetan parte hartu dutenekin eskuarki harremana izaten jarraitzeak aukera eman dit behaketa parte-hartzaile jarraiturako; eta horrek erraztu egin du gizarte-talde jakin bat kokatzen den lurraldeaz gaindiko espazioak hartzen dituen harreman-sareak ikertzea. Rosana Guber-ek zera dio horri buruz:

Gertakari soziokulturalak ezin dira kanpotik aztertu; izan ere, ekintza bakoitzak, keinu bakoitzak, aktoreek ematen dien esanahian hartzen du zentzua, itxura fisikotik haratago. Subjektuek negoziatzen eta trukutzen dituzten esanahi horietara iristeko bide bakarra bizipena da, zentzu horiek nor bere azalean izateko aukera, gizarteratzean gertatu ohi den gisara. Eta, jolas bat jolasean arituz ikasten den moduan, kultura bat hura biziz ikasten da. Horregatik, parte-hartzea da ezagutza soziokulturalaren *sine qua non* baldintza. Zuzeneko esperientzia, zentzumen-organoak eta afektibitatea dira erremintak, lausotu ez, baizik eta gerturatu egiten baitute ikerketaren helburua. Ikertzaileak murgiltze subjektibora jotzen du orduan, barrutik soilik uler baitezake (Guber, 2001: 60).

Era berean, Nafarroan immigrazioaren aurrean dauden jarrerak eta portaerak hauteman ditut hainbat urtean, eta hala egiten jarraitzen dut. Ezagutza hori ikertutako pertsonen edo egoeren errealitatea ulertzea dela esan daiteke, ikertzailea eguneroko jardueretan sartzearen eta hein batean parte hartzearen ondorioz. Horretarako, oharrak hartu ditut nikaraguarrek eta eskuarki haiekin harremana duten beste herrialde batzuetako pertsonen (besteak beste, Kamerun, Ukraina, Errusia, Ekuador, Bolivia, Brasil, Kolonia, Honduras, Irak, Senegal, Maroko, Nigeria edo Ginea Konakry herrialdeetako jendeak) parte hartzen duten jarduera sozial, kultural eta kulturartekoetan.



## **7. Ikerketaren ardatzak**

Honako hauek dira ikerketa honen ardatz nagusiak:

- Identitatea eratzea. Identitatea eratzea, horren ondorengo eraldaketak eta hainbat ingurunetara egokitzea, kontuan hartuta hizkuntza, erlijioa, elikadura eta leku horretako ohiturak.

- Harreman sozialak. Emigranteen eta bertako jendearen arteko harremana; integrazio- edo asimilazio-mailak; jatorriko herrialdearekin mantentzen dituzten loturak; gelditzeko edo itzultzeko erabakia; itzulera eta berregokitzea; esperientzia balioestea maila pertsonalean, politikoan eta sozialean; immigranteek iritsiera-lekuarekin mantentzen dituzten loturak.

- Immigrazioa. Gaur egungo migrazioaren balioespena, migrazio-gaiaren legeria ezagutzea eta hari buruzko iritzia.

## **8. Ikerketaren muina**

Nafarroako Foru Erkidegoan bizi diren nikaraguar gizon-emakumeak. Haien migrazio-esperientzia eta Nafarroan kokatzea ikertu dut, hemen eta orain. Errealitate sozialaren atal berezi bat ikertzea, helburu sozial baten bidez: immigrantea. Errealitate sozial horrek nola funtzionatzen duen eta nola eraldatzen den ulertzea, honako hauek nabarmenduz: harreman sozialen konfigurazioa, mekanismoak, prozesuak eta ekintzarako logika.

Lan honetarako aukeratu dudak ikuspegia kontuan hartuta, harremanen ikerketak eta egiturazko prozesu sozialek dute lehentasuna, eta lege unibertsalak ezarri nahi ditut gertaera bereziak azaltzeko; izan ere, maila lokalean nabaritzen eta behatzen ditugun gauza asko garrantzi orokorreko mikroingurune izango dira.

## **9. Lagina**

Ikerketarako lagina osatzeko, nikaraguar pertsonak aukeratu ditut, adina, sexua eta lanbidea kontuan hartuta. Honako hauek osatu dute lagina: 24 urtetik 54 urtera bitarteko 14 emakumek eta 12 gizonek, Mota askotako elkarrizketak eta bizitzaren kontaktak gauzatu ditut haiekin. Eztabaida-taldeetan, hauez gain beste batzuk ere parte hartu dute.

Elkarrizketatuen profilak honako ezaugarri hauek agertzen ditu: Gehiengoaren adina 35 eta 45 urte tartean dago, 25 eta 35 tartean daudenak jarraituz. Laurden batek ez du seme-alabarik, besteek bi, bat, hiru, lau edo bost dituztelarik porzentaiei arabera hurrenez hurren. Nafarroara gehienak 2006 eta 2007 urtean iritxi ziren. %53 paperik gabe daude oraindik. Ikasketa maila honako hau da: %32ak goi mailakoak, %24ak batxilergoa eta besteak, bigarren hezkuntza, lehen hezkuntza edo lanbide heziketa. %48a neskame lanetan dihardu, hauetatik gehienak etxe barruan geldituz. Beste lan motak hostalaritza, konponketa eta abeltzantza lanak direlarik.

## 10. Azterketa-unitateak

Ikerketaren helburuen inguruko gogoetaren ondorioz, aztertzea gehien interesatzen zaidan alderdi espezifiko bakoitza definitu dut. Azterketaren alderdi edo unitate hauetan jarri dut arreta:

### *a. Migrazio-prozesua*

Migratzailea erabakia hartzera bultzatzen duten arrisku ekonomiko, politiko, sozial edo familiarreko egoerak. Kezka guztien irtenbide gisa, atzerrirako mitoa sortzea. Bizitza-aukerak eta erreferentzia-puntu berriak bilatzea etorkizun zabal eta urrutikoetan. Migrazioarekin ohitzea eta sare sozialen laguntza. Banantzearen ordain psiko-afektiboak. Herrialde berrirako sarrera.

### *b. Identitate kulturariztuna*

Erreferentzi historikoak etorrera lekuan. Emigratzen duenaren herrimina, oroimenen idealizazioa. Jatorrizko lekuarekin mantentzen diren loturak. Lurrealdeko komunitate bateko kide izatearen sentimendua. Identitatea eratzea, haren aldaketak eta eraginak. Migrazio-esperientziak nolako eragina duen identitatea berreraikitzekeo prozesuan. Talde barnerako harremanak. Asoziazionizmoa eta antolatzen diren jarduerak helburu sozial edo pertsonalei erantzunez. Ereku publikoetan parte-hartzea eta etorrera lurrealdeetan ikuskatzea. Kulturantzitasuna, kulturartekotasuna eta integrazioa.

### *c. Tentsio pertsonala*

Migrazio-prozesuan lortu beharreko helburu zehatzak; gizon-emakumeen itzaropenak, beharrak eta nahiak identifikatzea. Hasieran aurreikusitako epeak, aldeztu aurretik pentsatutako ideiak, eta hori errealitatearekin kontrastatzea. Gizarte hartzailea egokitzeko erronka. Migrazioak sortzen dituen ondorio sozialak, eta prozesu horretan agertzen den tentsio-maila. Jatorriko gizartearekiko etenak eta harremanak. Gizarte- eta lan-alienazioak eragindako balio-galera eta nahasmendu-sentimendua. Bertako biztanleekin harremanak izateko zailtasunak. Bertako biztanlegoarekin dituzten harreman motak.

*d. Botere-harremanak*

Nazioarteko harremanen hierarkizazioa. Menderatze historikoa, arrazoi kolonialistak direla medio. Jatorriko herrialdeko pisu edo indar ekonomikoa eta politikoa, eta horrek zein eragin duen iritsierako herrialdean bertakoen eta immigranteen artean sortzen diren harremanetan. Azken hamarkadetan gure gizartea gotortzea, izapideak, burokraziak, erregularizazioak, diziplina-mekanismoak eta -teknikak, debaluazioak eta babesgabetasuna. Poliziaren eta beste autoritate batzuen portaera. Atzerritarren Legearen ondorioak. Egonaldi ezegonkorreko aldiak sortzen duen segurtasunik eza. Legeak ezagutzea. Hierarkiak lan-munduan eta herritartasunarekin, etnia edo fenotipoarekin, gizarte-mailarekin eta generoarekin zerikusia duten espazio sozialetan; hierarkia horiek adierazten dira jarreretan, portaeretan, elkarrizketetan eta erabakiak hartzean. Eskulan selektiboaren eskaera. Prestigio gehiago edo gutxiago duten lan-jarduerak. Lan-baldintzak. Laneko egoerak. Langileen Erregimen Orokorra eta Erregimen Berezia. Laneko sexu-bereizketa.

*d. Portaera arrazistak*

Bestelakotasunak gutxiatea, kultura nagusiak ezarritako arauetatik desbideratze gisa hartzen baitira. Balio-berdintasuna ukatzea. Portaerak, pentsamenduak, gorputzak eta jarrerak homogeneizatzeko saiakerak; ez, ordea, aukerak, ongizatea, ekonomia eta boterea. Zuzeneko edo zeharkako bazterketa. Iritsierako gizarteak inposatzen dituen joko-arauak.

*f. Diskurtso instituzionalak*

Botere politiko, administratibo eta informatiboetatik talde-imaginarioan eraikitako eta sustatutako estereotipoak, migrazio-politiken alde edo kontra. Talde etniko edo sozial bereko pertsona guztiak negatiboki balioetsitako ezaugarri berdinen arabera biltzen dituzten eraikuntzak. Iritsierako gizarteak erakusten dituen erraztasunak edo zailtasunak bere migrazio-politiken bidez immigranteak gizarteratzeko. Kultura-desberdintasunak ikusaraztea bazterketa justifikatzeko eta desberdintasunak sortzeko. Jarrera aldaezin eta zurruntara daramaten ideologiak, berdintasunezko eta zuzentasunezko harremanak zailtzen dituztenak.

*g. Demokrazia*

Iritsierako herrialdean den demokrazia-maila edo -sakontasuna, immigranteen taldearekin izaten diren harremanei dagokienez. Beste lurralde batzuetan bizi diren gizakien eskubideak aitortzeko neurriak ezartzea. Gure gizartean dauden sineste sendoak. Harrera-gizartearen barnean immigranteak integratzeko erronka, Estatuari eta herritartasunari dagokienez. Gizon-emakumeen legezketasuna, herritarren eskubideak gauzatzean. Diskriminazio positiboa, negatiboa edo diskriminaziorik eza immigranteen eta bertako biztanleen artean. Eskubideak izateko eskubidea. Eskubide eta eginbehar sozial pribatuak eta publikoak.

*h. Espazio sozial publikoak*

Talde-barneko harremanak simetrikoak edo horizontalak diren ikustea eta horrek ondorioz zer dakarren eremu publikoetara. Taldeak zer jardueraren inguruan antolatzen diren eta zer helburu sozial betetzen dituzten ikustea.

*i.Aldaketak emakumeengan*

Emakumeengan indartze prozesua ematen den edo ez ikustea, kudeaketa ekonomikoaren eta familia barruko negoziaketan gaitasuna igotzean.

## MARKO TEORIKOA

### 1.Foucault eta botere-harremanak

Frantziar pentsalaria gizartearen baitako botere-mekanismoetan aditua izan zen, eta boterea pertsonarekin nola lotzen den ikertu zuen. Ikerketa honetarako, autoreak *Vigilar y castigar* (1975) eta *Un diálogo sobre el poder y otras conversaciones* (1985) liburuetan adierazten dituen teoretan eta gogoetetan oinarritu naiz; liburu horietan aztertzen dira boterearen eta jakituriaren arteko harremanak, eta botereak gorputzengan jarduten duela, askotariko mekanismoak eta erakundeak erabiliz.

Autore honek panoptikoaren teoria edo ideia garatu zuen zelatatzeko eredu gisa, eta horren bidez gizarte-eredu bat irudikatu zuen. Hasieran, hitz hori presoak oharu gabe behatzen zituzten espetxe mota izendatzeko erabili zen. Foucaultek mekanismo horren ondorioak, nonahiko begiradarenak, aztertu zituen eta baita taktika hori teknologia berrien bidez nola zabaldu zen ere.

Gizarte modernoetan zelatatzeko sistemen orokortzea gertatu dela ikusten dugu, erabilera teknologiko desberdinekin eta aurrekaririk izan ez duen giza ekintzaren kontrola dakarrena. Agerian eta ez hain agerian dauden kamerek (errepideetan, kaleetan, erakundeetan, lantokietan, merkataritza-guneetan, eta beste hainbat lekutan) denbora eta leku guztietan zelatatuak egotearen sentimendua erabat normalizatzen eta barneratzen dute, ondorio iraunkorrekin.

Zelaketa hierarkizatuak —zioen Foucaultek— kontrolatzaileak ere kontrolatzen ditu, betiere zelatutako zelatariak, zuhurki, isilean. Horrela, botere-sare oso bat eraikitzen da, elkarri lotutako ondorioak dituena. Zelatatzeko teknika horiei esker, optikari eta mekanikari dagozkien legeekin bat etorritik gauzatzen da gorputzaren gaineko boterea; espazio, lerro, pantaila eta gradu multzoarekin bat etorritik, eta indarkeriara eta biolentziara jo gabe. «Boterea zenbat eta itxuraz ez hain *gorputzarena* izan, orduan eta zuhurki *fisikoagoa* izanen da» (Foucault, 1975: 182).

Zelatatzeko modu horrek botere-harreman bat sortu eta mantentzen du, erabiltzen duenarengandik at dagoena, eta zelatutua sentitzen denarengan, etengabe behatua denarengan, diziplina sortzen du. Horrela, boterea deszentralizatu egiten da. Foucaultek dio ez dagoela botere-gune bakarra, boterea ez dela erakunde bat, egitura bat; ez dagoela indar-gune bat, elementu askotariko sare anitza baizik: harresiak, erakundeak, arauak, diskurtsoak. Boterea ez du ulertzen elementu batek edo talde batek bestearengan erabiltzen duen dominazio-sistema gisa, katean funtzionatzen duen zerbait bezala baizik. Haren esanetan, edonon, harreman guztietan, boterea dago, baina botere hori ez *dauka* inork, «boterea norabide jakin batean erabiltzen da, batzuk alde batean eta besteak bestean daudela; ez dakigu zehazki inork duen, baina badakigu inork ez duen»

(Foucault, 1985: 31). Boterea ez dela jabetza esaten du, estrategia bat dela, jokoan dagoen zerbait, eta bere ondorioak ezin zaizkiola jabetze bati egotzi, funtzionamendu gailuei baizik.



Zelatzeari zigorra gehitzen zaio, botereak heziketarako duen beste aplikazio bat. Horren bidez pertsonak hezitzen dira arauak, legeak eta ariketak bete ditzaten, betiere boterea bidegabeki duen eta erabiltzen duenaren borondatearen arabera. Zelaketa pertsona behatzeko modu bat da, bere eginbehar guztiak betetzen ari ote den ikusteko; norbanakoaren gorputzean, keinuetan, diskurtsoetan, ekintzetan, ikasketan, bere eguneroko bizimoduan eragiten duen boterea da. Zaintzaren funtzioa da boterearen kontrako deus ez gertatzea, eta pertsonen bizia arautzea bilatzen du beren ekintzak gauza ditzaten. Zigorra, berriz, botereak aurkitutako bidea da boterearen arauak hausten dituzten pertsonak zuzentzen saiatzeko eta, baita ere, pertsona horien jokaera zigorgarriak saihesteko bidea da, autokontrolaren bidez.

Zelatzearen eta zigortzearen arteko lotura honetan datza: aurrenekoarekin pertsonak beren ekintzak hiritar zintzo gisa gauzatzeko «trebatzea» posible izango litzateke, eta, horrela, ahalik eta gehien saihestuko litzateke pertsonak boterearen arauak haustea, eta baita zigorrak ere, haiekiko beldurragatik. Modu horretan, ez da beharrezkoa indarra erabiltzea behatutakoa ongi portatzera behartzeko; liskar fisikoak saihesten dira. Zigorraren helburua zuzentzea da, eta subjektua ordena egokira makurtzera behartzen da. Banakoaren eraldatze osoa bilatzen da, haren gorputzarena eta ohiturena, haren animarena eta borondatearena. Hertsadura-tekniken bidez, gorputza ohiturekin menderatzen da, gorputz menderatua. Zigorrak gorputzean ez duela eragiten dirudi, ez dela fisikoa; baina sakonagoa da, zorrotzagoa, eta gizartearen onarpena lortzen du, zigorraren boterea legitimatzen duen gizarte batena.

Panoptikoa esperimenduak egiteko erabil daiteke, jokaerak/portaerak aldatzeko edo bideratzeko helburuarekin, estimulu bakoitzari emandako erantzunak aztertzeko eta egin daitezkeen eraldaketak behatzeko. Presoekin erabiltzeko asmatutako mekanismo hori orokortu eta, gaur egun, erakundeen bidez gizarte osora zabaldu da. Eskolak, elizak, komisaldegia, epaitegia, osasun-zentroek, banketxeek, enpresek, besteak beste, mekanismo hori erabiliko dute biztanleak eta beren jokaerak kontrolatzeko.

«Gizabanako-aniztasuna dagoen guztietan, eskema panoptikoa erabili ahal izango da» (Foucault, 1975: 209). Ikastetxeetan ikasleak «gainekoen» begiradapean daude. Hiriko lekuak aldiro behatuagoak dira, kaleak, supermerkatuak, eraikinak, errepideak, dena kontrolatua dago guztia grabatzen duten, dena dakiten kameren begiradapean.

Panoptismoa eta diziiplina elkarri estu lotuta daude. Panoptikoa diziiplina-gizartearen zerbitzura dago; egunero behatzen gaituzten gizartea, non botereak eta mikrobotereak aurrez aurre jartzen baititugu, eta haien aurka egiten badugu, epaituak eta, akaso, giltzapetuak izanen garen, gu heitzeko eta zuzentzeko.

Panoptikoaren helburua diziiplina da, boterearen mekanismoetako bat. Edozein lekutan aplikatzen da, gimnasioan, lanean edo etxean. Zelaketaren eta zigorraren moduan, diziplinak ere gorputzean eragiten du, eta indar erabilgarrien heziketa zorrotz eta zehatza bilatzen du, gorputz trebatuak eta menderatuak eraikitzen ditu, eta jokaeran barneratzen da, gorputza eta gorputzak boterearen osagai bihurtuz. Gorputza boterearen dinamikan sartzen da horrela, «boterearen mikrofisika» barruko botere txiki gisa. Diziiplina boterea gauzatzeko modu bat da.

Diziiplina ezin da erakunde edota tresna batekin identifikatu. Botere mota bat da, erabiltzeko moralitasun bat, eta instrumentu, teknika, prozedura, aplikazio-maila, helburu multzo oso bat dakar berekin. Boterearen «fisika» bat da edo boterearen «anatomia», teknologia bat (Foucault, 1975: 218).

Funtzio nagusitzat gizarte-mailan diziiplina bermatzea duten erakunde espezializatuek edo estatu-mailako tresnek barneratzen dute diziiplina. Gizarte diziplinatua eraikitzen dute, eta beren helburua biziaren arlo guztietara iristea da. Diziiplina gizarte-estamentu guztietan barneratzen da, bitarteko izanez,

(...) boterearen eraginak elementu zorrotz eta urrunetaraino eramatea onartzen du. Botere-harremanen banaketa infinitesimala bermatzen du (Foucault, 1975: 219).

Erakundeek zelaketa, zigorra, azterketa eta antzeko teknika zehatzak erabiltzen dituzte, eta horrek berekin dakar norbanakoak nola jokatu behar duen erakusten duten diskurtso multzo oso bat. Giza gorputza une oro diziiplina-sistema batean sartua dago, etengabe islatzen dena, etxean, unibertsitatean, lanean edo boterearen eta kontrol-sistemen arteko erlazioa dagoen edozein lekutan. Bere bizitzan zehar boterearen laborategi moduko batera makurtzen da, formatu eta hezi egiten duena, eta horrek etengabe ebaluatu eta gizarteko arauekin aurrez aurre jartzen du.

Gorputzaren gainean egiten da lan; bere elementuen, keinuen, jokaeren manipulazio kalkulatuak da. Diziplinak gorputz menderatuak eta trebatuak sortzen ditu, gorputz «otzanak». Diziplinak gorputzaren indarrak gehitzen ditu (baliagarritasunaren termino ekonomikoetan) eta indar horiek berak gutxitzen ditu (obedientziaren termino politikoetan) (Foucault, 1975: 142).

Hitz batean esateko: boterea gorputzetik bereizten du; alde batetik, botere hori «gaitasun» bihurtzen du, gehitzen saiatzen den «ahalmen» eta, bestetik, energia aldatzen du, hortik atera zitekeen potentzia, eta lotura hertsiko erlazio bihurtzen du. Gizarteak pertsonen gainean duen kontrolak ez du bakarrik kontzientziaren edo ideologiaren bidez lan egiten, baizik eta, gorputzean eta gorputzaren bidez gauzatzen da.

Gorputzean erabilitako diziplinaren bidez, tekniken eta erakundeen bidez inposatzen da norbanakoaren eraldaketa, haren gorputzaren eta haren eguneroko lanaren ohituretan gauzatuz, haren animaren eta zainketa espiritualekiko borondateaz. Gorputz menderatua bilatzen da, esaneko pertsona, ohitura, arau edo aginduetara makurtua, haren inguruan eta gainean etengabe dagoen eta automatikoki funtzionatzen utzi behar dion autoritateari errenditua. Ekintza mota guztiak, diziplina mota guztiak gorputzaren gainera doaz, beti gorputzaren gainera; eta denboran zehar mendebaldeko kulturaren pentsatzeko modua aldatzen joan bada ere, burua eta gorputza bereizi nahi izanez, eta batengan edo bestearengan eraginez, ezin ditugu banandu. Dena gorputzean tinko sartzen da, denak gorputzean eragiten du, gorputza blaitzen du. Beti ari gara gorputzaz eta haren indarrak, haren erabilgarritasunaz, haren otzantasunaz, haren mendetasunaz. Armak edota beldurra erabili gabe egin daiteke eta, hala ere, ordena fisikoaren barruan mantendu, botere gutxiagodun eta gehiagodun gorputzak sortuz.

Diziplinaren bidez, beharrezkoa da bakoitzak leku finko bat izatea, kokapen bat, helbide bat, bizileku bikain edo oso txar bat, ez du axola. Beharrezkoa da lanbide bat izatea, ezagutu daitekeen identitate bat, beti berbera izango den banakotasuna, gizarteko ordena bat, etorkizunerako asmoak; alperkeriak nazka eta asaldura eragiten du. «Beharrezkoa da jabe bat edukitzea, hierarkia baten barruan eta kokatua egotea; ez gara existitzen ez bada mendekotasunak definitutako erlazioetan» (Foucault, 1975: 77). Ez bazara jabea beharrezkoa da zerbitzari izatea, baldintzak edozein izanda ere. Mantendu beharreko ordenaz ari gara.

Subjektuak mugikortasun mugatua du, etengabe zelatatua izateagatik askatasuna galdu baitu; murriztua du, zentzu batean, libreki sentitzeko eta pentsatzeko beharra. Bere idealak adierazten baditu, etiketatu egingo dute eta bere eskubideak galdu. Pertsona hesitu edo giltzapetu egingo dute presondegi material edo sinboliko batean, hau da, espexera edo ospitale psikiatrikora joan daiteke edo, besterik gabe, etengabe behatzen duen gizarteak isolatu eta zentsuratuko du. Baina beharrezkoa da argitzea gizartea eta boterea ezin direla kanpotik ikusten jarraitu eta, alde horretatik, zentsuratua den gorputz horrek autozentsura moduko zerbait jasaten duela, gorputzari diziplina-gizarteak zentsuratutako horrek eragiten diolako. Orain gu geu garela esan dezakegu geure burua etengabe behatzen dugunak, barne-barneraino begiratzuz.

Botereak errepresio eta ideologia-mekanismoen bidez ere jarduten du, normalizazioaren edo normatizazioaren bidez. Presio iraunkor bat egiten da eredu berera makurtzeko, berdintzeko. Konparatu egiten da, bereizi, hierarkizatu, baztertu; hitz batean, normalizatu. Arauaren boterea da. Homogeneotasunera behatzen duen normalizazioa. Arauaren botereak erraz funtzionatzen berdintasun formala duen



sistemaren barruan. Denboraren erabilera, atzerapenak, ez-egoteak, desobedientziak zigortu egiten dira, homogeen bihurtzeko. Zigorrek denak berdintzea bilatzen du, presioa egiten da eredu berera makurtzeko. Eta makurtzen ez dena baztertu egiten da. Foucaultek legearen eta arauaren arteko ezberdintasunak aztertzen ditu. Haren esanetan, legeak arau-hauste bat dagoenean bakarrik esku hartzen du, eta arauak, berriz, bizi guztian eragiten du; horrela, legea gizarteko pertsona guztiek ezagutu behar dute, araua jakituria jakin batetik abiatzen direnak ezartzen eta ezagutzen duten bitartean.

Errepresioa aztertzean boterea ari gara ikertzen, hain zuzen. Diziplinaren eta zigorraren bidez erreprimitzen duen botere hori. Ez dago erresistentziarik gabeko botere-harremanik, eta erresistentzia horiek erreagoak eta eraginkorrak dira mota horretako erlazioak gauzatzen diren lekuan sortzen badira; boterearekiko erresistentzia barrutik heldu da. Erresistentzia boterea dagoen leku berean dago eta, boterea bera bezalakoa da, anitza eta beste estrategia globaletan integra daitekeena. Horregatik da beharrezkoa botere-harremanak antzematea, botere-guneak izendatzea, aztertzea, aldatu ahal izateko:

(...) haien salatzea, haietaz publikoki hitz egitea, borroka bat da, ez inork oraindik ez duelako horren kontzientziarik, baizik eta gai horri buruz hitz egitea, erakundearen informazio-sarea behartzea, izendatzea, nork zer egin duen esatea, jomuga aukeratzea, boterearen lehen inbertsioa delako, boterearen aurkako beste borroketzat lehen pausoa delako (Foucault, 1985: 32).

Azterketak, probak, agiriak, hierarkiaren teknikak (zelatatzea) eta zigorrarenak (normalizazioa) konbinatzen ditu. Begirada normalizatzailea da, kalifikatzea, sailkatzea eta zigortzea onartzen duen zelaketa. Indarraren erakustaldia eta egiaren ezarketa dago. Boterearen eta jakinduriaren arteko harremana. «Boterearen begiradak soilik adierazten duen boterea» (Foucault, 1975: 192).

Azterketak dokumentuen arloan ere sartzen du norbanakotasuna. Dokumentu horiekin norbanako bakoitza «kasu» bihurtzen da: aldi berean ezagutzarako objektua eta boterearentzako harrapakina den kasua. Pertsona deskribatu, epaitu, neurtu, konparatu egin daiteke, eta hau da bere banakotasuna; eta norbanakoa da zeinen jokaera bideratu edo zuzendu behar dena eta sailkatu behar dena. Deskribapen hori kontrol-bide eta menderatzeko metodo bihurtzen dute. Umea, gaixoa, eroa, zigortua norbanakoaren erabakien objektu bihurtuko dira. Azterketak, norbanakoaren ezberdintasunen finkatze erritual eta «zientifikoak», botere mota berri bat adierazten du.

Mendebaldeko arrazionaltasuna bazterketa multzo batekin eratua, definitua eta pentsatua dago («besteak»: eroak, gaixoak, drogazaleak, gaizkileak, etorkinak, prostitutak). Alteritatea «beste»aren aurrean eraikitzen da. Barruan dagoena indartzeko norbaitek kanpoan egon behar du.

Foucaultek uste du erregimen guztiek, gizarte-taldeek, klaseek, kastek, bakoitzak baduela bere ilegaltasuna. Beraz, ez da inperfekzio saihestezina, gizartearen

funtzionamendurako elementua baizik, gizartearen estrategia orokorrean aurreikusia dagoena. Horretaz gainera, lege gailu orok lege-haustea, legearen ezezagutza edo zigorra aurreikusten duela dio. Horrela, ikus dezakegu legea ez dagoela jokaera mota bat eragozteko egina, legea urratzeko dauden modu desberdinak bereizteko baizik. Aztertzeko hipotesi gisa, Foucaultek honako hau proposatzen du botere-harremani buruz:

-Bestelako harreman, ekoizpen, itun, familia, sexualitate motekiko intrintsekoak dira, eta bertan jokatzen duten papera aldi berean baldintzatzailea eta baldintzatua da.

-Ez diote debekuaren eta zigorraren forma bakarrari men egiten, forma asko baitituzte.

-Elkarren arteko loturak mendekotasun-ekintza orokorrak erakusten ditu, eta mendekotasun hori estrategia nahiko koherente eta batu gisa antolatzen da; boterearen tokiko prozedura sakabanatu eta heteromorfoak indartu eta eraldatu egiten dituzte estrategia globalak, egokitu, guztia, inertzia, desfase eta erresistentzia askorekin; mendekotasuna ez da nahitaezko baldintza (biko egitura bat, alde batean «menderatzaileak» eta bestean «menderatuak» dituena), forma askotako mendekotasun-harremanen ekoizpena baizik, talde-estrategietan integra daitezkeenak neurri batean (Foucault, 1985: 97-98).

Beste alde batetik, pentsalari hori saiatzen da legearen eta Estatuaren arteko konplizitatea hausten eta, alde horretatik, legea beste modu batean ulertzeaz hitz egiten du: legaltasun-ilegaltasun eremuak mugatzen dituen zerbait bezala ulertu ordez, ilegaltasunak sortzen dituen prozedura gisa ulertu, legeak klase-pribilegiotzat onartzen, baimentzen edo asmatzen dituena. Edo bestela, debekatu eta isolatzen duten eta mendekotasun-bitarteko izendatzen diren ilegaltasunak dira, non batzuek legeak egin baitituzte besteei gailentzeko. Badirudi lege horiek hiritar guztientzat direla, baina benetan klase zehatz bati zuzenduak daude, laguntza gutxien duenari, izen ona galarazi dioten gutxiengoari. Haren erabilera ez da denentzat berdina.

Foucaulten pentsaeran oinarrituta, gaur egun biztanleriaren zati baten «ilegaltasuna» nola osatzen den ikus dezakegu. Judizial bihurtzen den kategoria administratiboa sortzen da, boterea batzuen artean mantentzeko justiziaren injustizia bat. «Ilegaltasuna» edo irregulartasuna ez da istripu bat, kontrol-mekanismoek aurreikusten duten zerbait da. Gizarte-funtzionamendurako elementu guztiz onuragarria da, eta haren egitekoa legeak aurreikusia du. Kontrol-mekanismoen eta zelatatze bidezko segurtasun-politika baten beharra frogatzeko, zenbait norbanakotasun eta talde baztertuak edukitzea beharrezkoa da.

Zigorren helburua ez da arau-haustea ezabatzea, baizik eta arau-haustea bereiztea, antolatzea, erabiltzea; ez dute bereziki bilatzen legeak hausteko prest daudenen otzantasuna, baizik eta joera dute lege-urraketak antolatzea menderatze taktika orokor batean. Penalitatea ilegaltasunak administratzeko

modua litzateke, beraz, tolerantzia-mugak ezartzeko modua, batzuei askatasun gehixeago emateko eta beste batzuegan presio egiteko, batzuk baztertzeke eta beste batzuk baliagarri egiteko; batzuk neutralizatzeko eta beste haiengandik onura lortzeko. Azken batean, penaltateak ez lituzke ilegaltasunak, besterik gabe, «erreprimikuko»; «bereizi» eginen lituzke, bere «ekonomia» orokorra ziurtatuko luke (Foucault, 1975: 277).

Horrela bada, arma-, droga- edo jende-trafikoak frogatzen du ilegaltasunen funtzionamendu hori. Lege-debekuak bere inguruan legez kanpoko praktiken arloa eratzen du eta, bertan, kontrola erabili eta legez kontrako etekina lortzen du. Helburua ez da, beraz, ilegaltasunak ezabatzea, xede batekin kontrolatzea, kudeatzea baizik.

Autore hau, botere-harremanetan arakatzearaz gainera, gizabanakoaren eta taldearen botere-forma berriak bilatzen ahalegindu zen, eta jakindurian sakondu zuen; historiaren une bakoitzean adierazpenak egiazkotzat edo gezurtzat hartzeko agintzen duten arauak ikertu zituen, eta jendearen oinarrizko ideiak, gizakiaren naturari eta gizarteari buruzko egia iraunkorrak, historian zehar nola aldatzen diren. Egia ez da existitzen, fikzioa da, gizarteak elkarrekin sortu duen eraikina da. Gizarte-harremanen barruan sortu ohi da, eta harreman horiek indarra, boterea, eta desberdintasunean oinarritzen dira.

Egia ez dago boteretik kanpo, ezta botererik gabe ere. (...) Egia mundu honetakoa da, hemen sortu da, inposaketa ugari sortu dute, boterearen ondorio arautuak ditu hemen. Gizarte bakoitzak, sistema bakoitzak, bere egiaren erregimena du, hau da, onartzen dituen diskurtso motak eta egiazko edo faltsu gisa erabiltzen dituenak, batzuk eta besteak zigortzeko dituen moduak; egia eskuratzeko onetsita dauden teknika eta prozedurak; egia gisa zerk funtzionatzen duen esateko ardura dutenen estatutua (Foucault, 1985: 154).

Indar-harremanean jarrera bat hartzea ekartzen du. Jakintza objektibo eta neutroak ez dauka lekurik. Egia lotua dago berau sortzen eta mantentzen duten botere-sistemataraz, egia lortzeko prestatuak dauden teknika eta prozeduren bidez. Egiaren erregimen hori ez da soilik ideologikoa edo egituraz gairikoa; premisa bat izan da gure gizarteetan nagusi den kapitalismoaren eraketan eta garapenean. Egia ez da enuntziatuek berez duten balioa, instituzionalizazio-prozesu baten emaitza baizik; eta instituzionalizazio hori enuntziatuak errepikatzearen garrantzi erabakigarriaren bidez lortzen da. Egia gure gizarteetan sortzen da, hau da, joko-arau batzuk jartzen eta finkatzen dira, eta horietan oinarrituta ateratzen dira subjektibitate forma zehatzak, jakintza mota zehatzak. Gaur egun, komunikabideak dira botereak iradokitako egiak sortzen dituztenak.

Gure ezagutza eta gure jakituria, boterea dena, hizkuntzak mugatzen digu; beraz, «pentsatugabea pentsatu behar da» diosku Foucaultek, jakituriaren eta boterearen objektuak nola eratzen diren erakusteko. Botereak guztia nahasi, mimetizatu, murriztu egiten du, baita zientzia bera ere; paradigma gisako zerbait bihurtzen da, dena irensten

duena eta interesatzen ez diren jakituriak isiltzeko estalki bat zabaltzeko arduraren hartzen duena. Ezagutza boterea da, baieztatzen digu berak. Pentsamendua zuzenean erakunde bihurtzen da edo, alderantziz, erakundeek gizabanakoaren pentsamendua zapaltzen dute, eta gorputzaren forma beren konbentzioen neurrira zizelkatzen dute.

Diskurtsoetan eta horien atzean boterea jardunean ari da. Beharrezkoa da, beraz, begirada lekuz aldatzea diskurtsoetara eta gizakiak gizakiarengan dituen nagusitzeko moduetara, egia, jakituria eta boterea estuki lotuta daudela adieraziz. Ezinbestekoa izanen da zenbait diskurtso mota aztertzea, diskurtso horiek ezartzen eta erabiltzen diren gizarteetan presente dauden botere-harremanak aztertzeko; argi ikustea nor diren diskurtsoaren benetako sortzaileak, zein asmo dituzten eta zer gordetzen duten. Diskurtsoak dira gizartean finkatzen direnak eta desberdintasuna adierazten dutenak; kontuan hartzen den eta oharkabean pasatzen ez den azalpena.

Gizarte guztietan diskurtsoaren sorrera aldi berean kontrolatu, aukeratu eta banatu egiten dute prozedura batzuek. Prozedura horien egitekoa da ideien eta egiazko gertaeren ezagutzan edo, hobe esan, ezezagutzan esku hartzea; beste batzuetan, manipulazioa eta atentzioa beste norabait bideratzea, egia ezkutatzearen bidez jokoeretan eraginez. Ondorioz, beharrezkoa da diskurtso-formazioek aipatzen dituzten objektuak sortzeko erabiltzen diren mekanismoak behatzea.

## **2.Migrazio-mugimenduen ekonomia politikoa**

Mugitzeko gaitasuna da giza existentziaren duen gaitasunetako bat. Nomadismoa eta batetik bestera ibiltzea faktore unibertsalak eta garai guztietakoak izan dira. Herriak eta biztanleak jarri ditu harremanetan, eta batzuetan gatazkak sortu eta beste batzuetan jakituriak aberastu. Historiaren orrialdeek fede ematen diote, behin eta berriz, nor bere mugak gainditzeko duen joerari. Arrazoiak eta helburuak askotarikoak izan dira, eta migrazioa ere ez da beti borondatezkoa izan, ezta bide begikoenana ere. Lekualdatzeak ekarri dituzte, besteak beste, lurralde berriak esploratzeak eta okupatzeak, gerrak, erlijio-gatazkak eta gatazka politikoak, nekazaritzako krisik, teknologia aldaketak, ondasunen merkataritzak edo beste leku batzuk ezagutzeko eta hobeto bizitzeko giza gogoak.

Garai batetik bestera aldatu egin dira prozesu horiek, pertsonen ibilian gauzatu den gero eta kontrol handiagoa dela eta. Gaur egun ez da pareko nazioen artean gertatzen den fenomeno bat, baizik eta historia eta garapen-prozesu desberdinak eta bereziak dituzten gizartearen artean gertatzen dena, beren artean lotura espezifikoak ezarrita. Globalizazioaren aroa migrazio areagotuen aroa da. Nazioarteko migrazioak eta agertzen ari diren bizitza-estilo transnazionalak, ordea, oso bestelako adierazpenak

dituzte. Lehen emigratzaile izandako Europako herrialdeek, gaur, lehen kolonizatu zituzten herrialdeetako jendea hartzen dute. Migrazio-fluxuaren alderantzizkatze horrek (periferiatik zentrorra) kontraesan ugari sortu ditu estatu liberal modernoek baita; izan ere, talka egiten dute estatuaren subiranotasunak eta herritar berri horien eskubideek.

Globalizazioaren kontzeptuak definitzen ditu 60ko hamarkadaren erditik aurrera mundu guztian gertatutako eraldaketa ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak, eta, horren bidez, sistema ekonomiko kapitalista hedatzen da; garai bertsuan sortu zen neoliberalismoa, berriz, Estatuaren esku-hartzea ahalik eta gehien murriztera jotzen duen teoria politikoa da hau, egitekoa enpresa multinazionalen esku utziz eta lurralde-antolaketa eta antolaketa politikoa aldatuz. De Sousa adierazten du gizarte-harremanek eratzen dutela globalizazioa, eta, gizarte-harreman multzo horiek aldatzen diren heinean, globalizazioa ere aldatu egiten dela. Honela definitzen du globalizazioa:

Bertako erakunde edo egoera batek bere ekintzarako maila mundu guztian hedatzen arrakasta izateko bide ematen duen prozesua, hala jakatuz, erakunde edo egoera aurkari bat bertakotzat izendatzeko gaitasuna garatzen duena (De Sousa, 2002: 62).

Autore horrek dio, maiz, globalizazioaren diskurtsoa irabazleen historia izaten dela, irabazleek berek kontatuta; eta, hain zuzen, garaipena itxuraz hain erabatekoa izaten dela, zeren garaitua izan dena erabat desagertzen baita. Globalizazioari eskuarki lotutako eraldaketa bat da espazioa-denboraren erabilera; hau da, munduan zehar gertakariak bizkorrazten eta sakabanatzen dituen prozesu soziala.

Nazioen arteko mugak irekitzeak eta azken hogeitako merkataritzaren liberalizazioak agerian utzi zuten globalizazioak, arau neoliberalen pean, areagotu egiten duela herrialde indartsuen eta ahulen artea, edo garatuen eta garapen bidean diren edo azpigaratu deritzen artean, aurrez den desberdintasuna.

Nazioarteko lehiarik handienak ia inoiz ez du sortzen merkatu zabalagoetara bidezko modu batean iristeko aukerarik, ez nekazaritza-ekoizpenean, ez industria-ekoizpenean, eta are gutxiago puntako teknologiei loturiko zerbitzuetan. Hasierako desberdintasuna amildegi bilakatzen da truke horietan (García Canclini 2004: 196).

Zenbaitek biztanle gehiegi izatearekin lotu izan du pobrezia; gaur egun, ordea, badakigu ez dagoela lotura zuzenik demografiaren eta pobrezia-artearen artean, herrialde garatuak baitituzte biztanleria-indize altuenak, oro har. XIX. menderako, Karl Marxek adierazi zuen langileen gehiegizko populatzea dela «produktzio-eremu kapitalista existitzeko baldintza» (Marx, 1872: 786). Izan ere, langileen erreserba horiek existitzeak soilik berma dezake produktio kapitalista hedatzea. Lan-indar erabilgarriaren eskaintza areagotzeko, hainbat mekanismo erabiltzen dira: garapen teknologikoa da bat, eskulan gutxiago behar izanda langabezia gehiago sortzen baitu; beste bat biztanleria hazteko akuilua da, baina gaur egun gero eta jende gehiagok hautatzen du ume gutxiago izatea;

beste mekanismo bat da soldatapeko lana ematea lan-merkatutik kanpora dauden sektoreei; edo dauden langileei lan gehiago eginaraztea; edo, azkenik, migrazio-mugimenduak bultzatzea.

## 2.1 Migrazio-mugimenduak Europan

XIX. mendean zehar eta XX. mendearen lehen zatian, Europan demografia-hazkunde garrantzitsua gertatu zen; industrializazio indartsu hark ezin izan zuen jende hori guztia bereganatu, eta konkistatutako lurretara emigratu beharra izan zuen. Europan bertan ere biztanleriaren mugimendu ugari gertatu ziren, herrialde bakoitzean desberdina izan baitzen industria-garapena; esate baterako, Frantziak, Alemaniak, Suitzak eta Britainia Handiak langile ugari jaso zituzten inguruko herrialdeetatik. Nabarmentzekoa da, ordea, pertsona migratzaileek oso baldintza desberdinak izan zituztela itsasoz bestaldeko lurretan eta Europan iparraldeko herrialdeetan; itsasoz bestaldean, sistema kapitalistak oso demokratikoak ez ziren neurriak inposatu bai zizkien langileei.

Migrazio horiek agentzia pribatuak sustatu zituzten, gobernuen oniritziarekin: etekin azkarrak lortzeko, immigranteak esplotatu eta haien lege-egoera ahula zela-eta iritsi ziren herrialdean indarrean ziren lan-baldintzak ezagutzen ez zituztenez, hortaz baliatu zuten.

Frantziak, Lehen Mundu Gerra amaitu ondorengo urteetan, bi milioi langile inguru bildu zituen herrialde mugakideetan edo bere kolonietan, metalurgian, meatzeetan edo automobilgintzan lan egiteko. Beste batzuk «legez kanpo» iritsi ziren. Urteetan eskubide politikorik gabe iraun zuten eta, aldi jakin batzuetan, milaka immigrante beren aberrietara itzularazi zituzten, eskulan nazionala babesteko edo immigranteak lotuago edukitzeko helburuarekin. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, herrialdeak atzerriko eskulana behar izaten jarraitu zuen. 1968ra arte italiarrak, espainiarrak eta portugaldarrak izan ziren iritxitako gehienak. Ez zuten lortu legaltasun osoa eta, ondorioz, askotan, trafikatzaileen eta nagusien mende geratu ziren immigrante horiek, gizarte-zergetatik eta soldata-obligazioetatik aske geldituz aldi batez nagusi horiek (*Le Monde Diplomatique*, 2010: 131). Hirurogeiko hamarkadan zehar, Frantziako Gobernuak neurri sail bat onartu zuen (hogeita hamarreko hamarkadan gertatu zen moduan), immigranteak beren lurtean sartzea galaraziz eta bertan zeudenei, gehienbat “legezkanpokoak” presio eginez, prestigio gutxieneko lanpostuak bete zituzten. Aldi berean, nabarmen egin zuen gora lan ez-egonkorak eta aldi baterakoak.

Alemanian, Lehen Mundu Gerra baino lehen, poloniarak eta italiarrak bildu zituzten meatze-lanetarako. Hogeita hamarreko hamarkadan, industria eta herri-lanak bultzatu zituzten, eta, ondorioz, lehen herrialdea izan zen 1929ko krisitik eta ondorengo Depresio Handitik ateratzen. 1939an, atzerriko 525.000 langile inguru zeuden. Bigarren Mundu Gerraren hasieran, hamaika milioi alemaniar eskatu zituzten soldadutza egiteko

eta, ondorioz, immigranteen lan-indarra behar-beharrezkoa izan zen gerra-industriari eta, oro har, Alemaniako ekonomiari eusteko. Batzuk herrialde aliatuetatik hartu zituzten; beste batzuk, gehienak, okupatutako guneeetan bildu zituzten, indarrez; eta 1,8 milioi gerrako presoak ziren. Zortzi milioi langile eta errefuxiatu iritsi ziren Espainia, Grezia, Turkia, Portugal, Jugoslavia eta Pakistanekin egindako akordioen bidez (Romero, 2010). Alemaniako estatuaren agentziek bilatzen zituzten hautagaiak. Hautagai horiek mediku-kontrola, prestakuntza-probak eta aurrekari penalik ez zutela egiaztatzeko probak pasatu behar zituzten. Aldi baterako kontratuak sinatzen zituzten, eta epea amaitzean beren herrialdeetara itzuliko zirela agintzen zuten. «Ez jaio, ez hazi, ez zahartu egiten ez ziren langile idealak ziren. Lan egitea zen haien betekizun bakarra; bizitzako gainerako betekizunak jatorriko herrialdeari zegozkion» (Berger, 2002: 76).

Suitzak, non 1910ean atzerriko langileak herritarren ia % 15 baitziren, ondoko herrialdeetako eskulana biltzen jarraitu zuen XX. mendearen lehen zati guztian, eta baita aurrerago ere. 1948an hasi ziren iristen lehenengo sasoikako langileak, Italiarekin sinatutako errekrutatze-hitzarmen baten baitan; haietako asko eraikuntza-sektoreko langileak ziren, eta urtean bederatziz hilabeterako soilik kontratatzen zituzten, negua lana mantsotzeko aldia baitzen eguraldi txarra zelako; baina, langile horiek antolatzen eta beren eskubideak aldarrikatzen hasi zirenean, beste langile batzuekin ordezkatu zituzten, eta modu horretan sustatu zuten poloniar eskulana lehenik, eta espainiarra eta jugoslaviarra ondoren.

Britainia Handia izan zen XIX. mendean migrazio-fluxu garrantzitsuen helmuga bihurtu zen Mendebaldeko Europako lehen herrialdea, bere industrializazio-prozesua zela-eta. Zazpiehun mila irlandar baino gehiago zeuden herrialde horretan mendearen amaieran. Gosegatik zebiltzan ihesean, eta miseriazko soldatak onartu behar izaten zituzten nahitaez. Britainiako langileek arbuiatu egin zituzten, beren soldata jaistearen errudunak zirela ikusten baitzuten. 1946 eta 1951 urteen artean ere atzeritar ugari iritsi zen; haiek urtero berriro behar izaten zituzten beren agiriak, britainiarrek bete nahi ez zituzten lanpostuak onartzen zituztela egiaztatu ondoren. 1966an, immigranteen lan-indar gehiago behar zela-eta, Commonwealtheko ia milioi bat pertsona eta beste jatorri batzuetako ia bederatziehun mila gehitu zitzaizkien irlandarrei. Bakarrik migratu zuten gizon-emakumeak ziren gehienak. Hiru urterako lotzen ziren lanpostu jakin batera, Estatu Batuetan bezala, eta lanetik bota zitzaizketen jarrera txarragatik, istripuengatik edo gaixotasunengatik. Hiru urte igaro ondoren, beren jatorrizko herrialdera itzultzen ziren, edo beste lan bat bilatzen saiatzen ziren. Urte dezente igaro beharko zituzten baimen iraunkor bat lortu ahal izateko.

Norbaitek uste izan bazuen 30eko edo 70eko hamarkadetako krisiari emandako erantzunaren ondoren ez zela beharko immigranterik European, oker zegoen, Manuel Romerok azaltzen duen gisan:

Europako kapitalismoak miseriazko baldintzetan lan egiteko prest zeuden biztanleak eskatzen jarraitu zuen, European bihotzean. (...) Europako kapitalak soldatapeko biztanleriak —eta haien esplotazio-mailak— areagotzen jarrai zezan

behar zuen, eta ezin ziren uko egin bereziki ahulak ziren immigranteei (Romero, 2010: 65).

1973ko petrolio-krisiaren ondorioz, Ipar Europako herrialdeek (aurreko hamarkadetan immigranteen eskulana sustatu zutenek, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Europa berreraikitzeke) bertan behera utzi zituzten ordura arteko immigrazio-politikak, eta gero eta murriztaileagoa zen immigrazio-politika bat inposatu zuten; murrizketa horiek ez zuten immigrazioa geldiarazi, baizik eta aldaketa kualitatibo garrantzitsua eman zen, immigrante berri asko «legez kanpokoak» eta «ezkutukoak» izan baitziren. Egia esan — adierazten du Romerok—, 1972-1974 urteetako neurrien lehen arrazoia, zalantzarik gabe, immigranteen borrokarako grina piztea izan zen; eta atzerriko langileak ikusezintasun eta otzantasun batean sartuta zeuden, lurraldean beren presentzia bermatze aldera. Autore horren arabera, Frantziari:

Langile-populazio horren bizitza eta lan-baldintzek, bereziki ikasle-mugimenduaren eta 1968ko maiatzeko greba orokorraren ondoren, askotariko erresistentziak eta borroka eragin zituzten (Romero, 2010: 50). (...) Kanporatze ugari izan ziren —haietako asko immigranteen eskubideen alde sutsuki borrokan ari zirenei aplikatu zitzaizkien—, egoitza kentzea baliabiderik ezagatik, *borondatezko* itzultzeko programak, familia berrelkartzeko murrizketak, *Centres de Rétention Administrative* delakoak eta identitate-kontrol arrazistak legeztatzea (Romero, 2010: 66).

1977an, «krisi» batean, Frantziak abian jarri zuen «borondatez itzultzeko laguntza»; baina, frogatu izan zen gisara, immigranteak ez ziren masiboki itzuli jatorrizko herrialdeetara, ordurako kokatuta baitzeuden eta Europako potentzia kapitalista nagusien lan-merkatuak immigranteen eskulana behar baitzuen oraindik ere, langabezia-tasak gora egin arren. Krisiak lan-indarraren esplotazioa eta produkzioa malgutzea eskatzen zuen. Langile immigranteek betetzen zituzten eskulan merkearen, mugikorraren eta lan luze eta neketsuak jasateko prest izatearen eskakizunak.<sup>11</sup>

Bestalde, XX. mendearen bigarren erdian, Europako herrialdeetan inoiz ez bezala jaitsi zen jaiotza kopurua; hein handi batean, emakumea pixkanaka lan-munduan sartu izanaren ondorioz. Maila ekonomikoa igo egin zen. Aldi berean, bizkor egin zuen gora bizitza-esperantzak. Biztanleria zahartu egin zen. Europatik kanpoko eskulanak beharrezkoa izaten jarraitu zuen aurrez aipaturiko herrialdeetan. Pertsona gehiago iritsi ziren kolonietatik edo kolonia ohietatik.

Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) sortu zen, ondoren Europar Batasuna (EB) izango zena, eta azken urteotan herrialde asko beretu dituen. 1985ean, Schengeneko Hitzarmena onartu zuten; hitzarmen horren bidez, kontrolak murriztu ahal izan zituzten estatu sinatzaileen arteko barruko mugetan, eta kanpoko muga bakar bat sortu zen, «Schengen eremua» delakoan sartzeko kontrolak egin ahal izateko. Eremu

<sup>11</sup> 1981-1982 urteetan ezkerre boterera iristea arnasaldi labor bat izan zen immigranteentzat: 130.000 atzerriar erregulatu zituzten, atzerriko elkarteen zuzenbide komunaren estatutua aitortu zuten eta beste hobeak batzuk lortu zituzten.



horrek hartzen ditu Europar Batasuneko estatu kide gehienak, eta baita beste herrialderen batzuk ere; hala nola, Norvegia, Suitza eta Islandia.

Schengen eremuaren barruan zirkulazio librea izateak polizia-zerbitzuaren eta epaileen arteko lankidetzaren eta koordinazio-neurriak dakartza berekin, estatu kideen barneko segurtasuna babesteko. Lankidetzaren horretan parte hartzen dute eremu horretatik kanpo daudenek ere. Hitzarmen horri esker, «Europako politikak militarizazioa eta mugak zabaltzea izan du ezaugarri, barruko mugak ugaritzea eta areagotzea, eta errefuxiatu politikoentzako bermeak desagitea» (ZZ.AA, 2008a: 70).

Immigrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunak, EBko 27 herrialdeek onartu zutenak 2008ko bigarren seihilekoan EBren presidentetza frantsesaren pean (Nicolás Sarkozy zen lehen ministro), Europako herrialdeek duten atzerriko eskulanaren beharra aitortzen du, baina zera ohartarazten du: «(herrialde horiek) ez dute baliabiderik hemen bizitza hobea aurkitzea espero duten immigrante guztiak prestutasunez hartzeko». Itun hori lau ezaugarriren inguruan egituratzen da: legezko immigrazioa antolatzea lan-merkatuaren beharren arabera; legez kanpoko immigrazioaren aurka borroka egitea; kanporatzeak antolatzea, eta babes-politika europar komun baten oinarriak ezartzea. Gainera, EBren kanpoko muga sendotzeko eta militarizatzeko beste modu bat da, immigranteen jatorrizko eta iragaitzako herrialdeen arteko lankidetzaren eskatzen duena, eta onartzen duena immigrazio-politikak abiaraztea estatu kide bakoitzari dagokiola eta lan-merkatuaren beharren arabera lurralde bakoitzari dagokiola zenbat pertsona onartu nahi dituen erabakitzea.

2006an, Langileen Mugikortasunaren Europako Urtea ospatu zen, Europako langileek, kontinentean gertatzen diren aldaketa ekonomikoen aurrean, egokitzeak duten gaitasuna sustatzeko. Pertsona langileen zirkulazio librea eragin zuen, mugikortasun geografikoa erraztuz eta gaitasun profesionalak garatuz. 2007an, Europako Batzordeak abian jarri zuen Lan Mugikortasunaren Garapenerako Ekintza Plana; 2009an, Bologna Plana edo Unibertsitate Erreforma gehitu zuen, titulazioak eta hezkuntza-gaitasunak bateratzeko eta, modu horretan, lan-mugikortasuna errazteko (Romero, 2010).

EBren barnean langileen mugikortasuna sustatzen den bitartean, amesten dugun Europa hori eraikitzeak, aldi baterako migrazioa da, oraindik ere, lan-mugikortasunaren adierazle nagusi; hain zuzen ere, aurrez erabakitako aldi bat igaro ondoren jatorriko herrialdera itzultzea eragiten duen migrazioa. *Migrazio* terminoa erkidegoaz kanpoko jendearentzat soilik erabiltzen da, eta hierarkia-mailak sortzen dira langileen artean. 2010eko apirilko Zaragozako Goi-bileran, EBko immigrazio-ministroek aditzera eman zuten Europako zuzentarau bat onartu izana, gehienez sei hilabeteko kontratuak dituzten immigranteen aldi baterako lana arautzeko.

Egungo krisi ekonomikoaren izaerak lan-indarra *debaluatzea* eskatzen du berriro ere; langabezia-tasak igo egin dira, «behar baino immigrante gehiago» dagoela dirudi eta, «borondatez itzultzea» sustatzen bada ere, itzulera-mugimenduaren aurrean baino areago, oro har langile-klasearen eta bereziki Europar bizi diren atzeritarren bizibaldintzen okerragotze orokor baten aurrean gaude. Hogeita hamarreko hamarkadako

krisia zela-eta, Eric Hobsbawm-ek adierazi zuen milioika pertsonak lortu zutela «ekaitzetik onik ateratzea», iraupeneko nekazaritzan aurkitutako babesari esker (Hobsbawm, 2000: 99). Garai hauetan dagoeneko ez da posible babes hori; suntsitu egin dute azken laurogei urteotan. Eta *zentroko* herrialdeetarako nazioarteko migrazioen alde egin dutenek ikusi dute mundu-mailako krisiak gogorrago astintzen dituela gaur beren familiak jatorriko herrialdeetan; eta, ondorioz, «immigrante askorentzat, *hemen* irautea da aukera bakarra» (Romero, 2010: 72).

Immigranteek hainbat estrategia erabiltzen dituzte jaioterrira itzultzea saihesteko. Hirurogeiko hamarkadan, gaur bezala, krisiak gogor astindu zituen hainbat herrialde, baina Europako immigrante gehienek eutsi egin zioten, haien egoerak okerrera egin bazuen ere.

Immigrazioaren kudeaketak, hein handi batean, legez kanpoko immigrazio bat sortzeko baldintzak egitea izan du oinarri<sup>12</sup>, batez ere Italian edo Espainian, non ezkutuko ekonomiak beren barne-produktu gordinaren % 20 baino gehiagori laguntzen baitio. Europako *Iparreko eta Hegoko* herrialdeen arteko interes-desberdintasunetatik haratago (zeinak Italiari eta Espainiako estatuari egindako presioetan agertu izan baitira, *hegoaldeko mugan* kontrolak sendotzeko eta ohiz kanpoko erregularizazioak mugatzeko edo ezabatuzeko), kontua da azken urteotan European sartu diren milioika immigranteetako asko ezkutuan sartu direla, edo ezkutuan geratu direla bertan beren «turismo-aldia» amaitzean. Italiak azken urteotan neurri ugari bultzatu ditu legez kanpoko immigrazioa eta paperik gabeko immigranteei laguntzen dietenak kriminalizatzeko, eta baita larrialdi-egoerak aditzera emateko ere, armadak esku har dezan hiriko *segurtasunik ezaren* aurka; era berean, azken urteotan, erregularizazio ugari gauzatu ditu Italiak; bereziki, neskametzan ari ziren emakumeei dagokienez. Beraz, Estatuak, beharrezko deritzon, arauzko nahiz arauz kanpoko lan-indarraren gain esku hartzen du.

Gaur egun, krisi ekonomikoa izanda ere, Europako kapitalismoak eskulan ahulduaren beharra izaten jarraitzen du, lan-, gizarte- eta politika-eskubideak defendatzeko garaian. Gora egin dute esplotazio gogorreko egoerara iritsi diren lan-eskubideen urraketa-kasuek; esate baterako, enpresaburuek eskakizunak areagotzea, lanetik kaleratzeko xantaia eginez; edo erreklamaziorik onartu ez dietelako lanpostua utzi behar izan dutenen lekua betetzeko prest dauden langabe ugari; modu horretan, diskriminazio-kasu arrazistak edo xenofoboak gora egiten dutela egiaztatzen da.

<sup>12</sup> Estatu Batuetan, 7 milioi inguru dira paperik gabeko pertsona immigranteak.

## 2.2 Migrazio-fluxuak espainiako Estatuan

Kolonia-garaitik, Amerika izan zen Espainiako estatuko emigrazioaren lehentasunezko helburua. XX. mendean zehar, Iparraldeko Afrika eta Iparraldeko Europa ere etorkizun hobe bat bilatzeko helmuga bihurtu ziren.

Emigrazioa, oro har, gutxituz joan bazen ere, mantendu egin zen 1975era arte, Amerika, Ozeania eta Europa aldera ere. 1973-1985 urteen artean, jaitsiera handiago gertatu zen, baina hala ere uste da berrehun mila baino irteera gehiago izan zirela Europarantz, eta itzulerak, berriz, milioi erdi bat baino gehiago.

Handik aurrera, Espainiako estatua, emigratzaileak esportatzeaz gainera, itzulera zetozen espainiar herritarrak jasotzen hasi zen; hain zuzen ere, hein handi batean hedapen kolonial eta neokolonialak indarrez ebatsitako lurretatik zetozen herritarrak. Aldi hartan, ugalkortasunak jaitsiera nabarmena izan zuen, eta biztanleriaren hazkundearen abiadura moteltzen hasi zen.

1990etik aurrera, Espainiako estatuaren ekonomiak gora egin zuen bat-batean. Biztanleria ez aurrera ez atzera gelditu zen eta, higiezinaren sektoreak hazkunde neurrigabea izan zuen. Nekazaritzarekin batera, hori izan zen eskulan gehien behar izan zuen sektorea; baina baita zerbitzuen sektorea ere, aurreko horiek gora egitearen ondorioz igo zena. Eremu hori, hein handi batean, soldatapeko lanean hasi ziren emakumeek bete zuten, eta baita pixkanaka iritsi ziren immigranteek ere.

2007. urtean, nazioarte-mailan krisi ekonomikoa hasi zen, «higiezinaren burbuila» delako horrek eraginda; hazkundera ezin eutsizkoa zen, eta finantza-espekulazioen ondorioak langile-klaseak ordaindu behar izan zituen. 2007-2009 artean, enpleguaren hondamendi itzela gertatu zen, immigranteen langabezia-tasa % 30 baino altuagoa delarik (bertako biztanleena baino hiru aldiz altuagoa); horrek berretsi egiten du behar izan zituztenean, beste herrialde batzuetatik iritsi zirenek bete zuten funtzioa, hazkunde-aldia amaitzean alde batera utzi badituzten ere.

Hirurogeiko hamarkadan Frantzian, Alemanian eta Mendebaldeko Europako beste herrialde batzuetan gertatu zen moduan, krisi ekonomikoak honako diskurtso hau sustatu du: immigranteek gure ekonomiarentzat beharrezko izateari uzten diotenean, garaia da sobera den populazioaren itzulera bultzatzeko edo behartzeko. Baina, aurrez azaldu dudana moduan, lan-baldintzak ahultzea izan da metaketa kapitalistaren krisiari emandako erantzun nagusietako bat, lan-indarraren kostuak are gehiago beheratuz. Horretarako, ezinbesteko da, oraindik ere, soldata baxuak eta baldintza gogorrak onartzeko prest dagoen jendearen lan-merkatuari beteta eustea. Egia da, baita ere, lan-eskaintza *gehiegizko* horrek ez duela *amaigabea* izan behar; horregatik, soldatapeko lanetik kaleratutako pertsona pila horren aurrean —Espainiako estatuan lau milioi eta seihun mila pertsona langabe 2010eko apirilean; eta horri gehitu beharko litzaizkioke ezkutuko ekonomian lanik aurkitzen ez duten paperik gabeko pertsonak—,

«borondatezko» itzulera sustatzeko edo kanporatze bidez behartzeko bitartekoak sendotuko dira. Kopuruak, ordea, irrigarriak dira: Immigranteen Itzulera Planean<sup>13</sup> ez zegoen hamar mila pertsona baino gehiago, abian jarri eta lehen hamalau hilabeteetan.

### 2.3 Migrazio-mugimendua Euskal Herrian

Euskal Herria bi estaturen artean banatuta dago: Espainiako eta Frantziako Estaturen artean, hain zuzen. Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparraldea hartzen ditu bere baitan. Probintzia hauek osatzen dute herrialdea: Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroa Behereak, Nafarroak eta Zuberoak. 20.950,3 km<sup>2</sup>-ko hedadura du eta hiru milioi biztanle baino zertxobait gehiago.

Amerikaren konkistan, Euskal Herriko<sup>14</sup> jendeak paper garrantzitsua izan zuen Espainiako enpresa kolonialean, eta alderdi militar, politiko, sozial, ekonomiko, erlijioso eta kultura-mailakoetan parte hartu zuen.

Aro Berri osoan zehar, euskaldun askok beren lurra utzi zuten Espainiako Inperioaren jabetzetan kokatzeko. Bakarkea edo talde txikitan, nonahi zeuden Espainiako koloniaren luze-zabalean. Napoleonen inbasioaren garaian penintsulan izandako krisi politikoak mesede egin zion Amerikako lurraldeen zatirik handienaren emantzipazioari; eta, hasiera batean, aurreko migrazio-prozesu elitista geldiarazi bazuen ere, zorte bila abiatu ziren nekazari eta eskulangileen exodo bilakatu zen azkenean. Latinoamerikak jarraitzen zuen euskal emigrazioaren norako gogokoena izaten (nahiz eta beste kontinente batzuetarako migrazioa ere egon; bereziki, Ozeaniarakoa).

Euskal Herrian, 1839 eta 1876 urteen artean, gerra karlisten ondorioz alde egin zuten bertako biztanle askok, baina, batez ere, galtzaile izan zirelako. Haietako gehienak Frantziara joan ziren bizitza berri bati ekiteko asmoz; baina izan ziren amerikar errepublika sortu berrietara alde egin zutenak ere. Gaiari dagokionez, honela idatzi zuen Carlos Larrinagak:

Jende askok, irabazleek inposatzen zien bizitza politikoarekin deseroso sentiturik —herri euskaldun eta nafar asko karlisten aldeko baitziren—, alde egitea erabaki zuten (Larrinaga, 2002).

Bestalde, 1839ko Bergarako Hitzarmenetik —Lehen Gerra Karlistari amaiera ematen ziona— 1856ra arte nabarmen egin zuten gora industria-jarduerek, eta, horren ondorioz, emigrazioak bere bidea egiten jarraitu zuen (Azcona, 1992). Paradoxikoa irudi lezake, Bizkaian bertan eta baita Gipuzkoako gunen batzuetan ere lan-eskaintza handia zegoen

<sup>13</sup> 2008ko azaroan sartu zen indarrean. Plan horretan hartzeko baldintza da Espainiarekin gizarte-segurantzako gaietan aldebiko hitzarmena sinatua duten erkidegoaz kanpoko hogeit hamar herrialdeetako batekoa izatea. Plan horretan hartu dituzte, batez ere, Latinoamerikatik datozen immigranteak: Ekuador, Argentina, Kolonia, Brasil, Peru, Txile eta Uruguai.

<sup>14</sup> Euskal Herriaz ari naizenean, Nafarroa ere bertan sartzen dut, oro har.

garaian, euskaldun askok Hego Amerikara joateko erabakia hartzeak. Nagusi izaten eta eremu irekietan ohituta zeuden nekazarietzat ez zen oso erakargarria izango industriako lana; ondorioz, landa eremu jakin batzuetan, gustokoago izan zuten itsasoz bestalde abeltzain lanetan aritu ahal izateko itzaropena, edo baita bitartekariak edo *harrapariak*<sup>15</sup> egin zizkieten promesek ere, Amerikako lurretan diru gehiago irabazteko, eta, han zuten senide edo lagunen bati esker, merkataritza-negozio jakin batzuetan lanean hasteko. Izan ere, aipatu beharrekoa da aurrez Hego Amerikako errepubliketan senideak edo auzokoak finkatuta izateak garrantzi handia izan zuela; errepublika horietako immigrazioaren aldeko politikek edo ahalbide ekonomikoek adina edo gehiago, hain zuzen. Haiak izan ziren okasio askotan euskaldunen Mundu Berrirako irteerari bide eman ziotenak edo bultzatu zutenak. Familia- edo adiskidetasun-loturek, beraz, funtzio garrantzitsua izan zuten emigratzaile talde batentzat.

1854 inguruan, mendialdeko lurretatik atera zen jende gehien emigrazioarako. Zentzu horretan, karlismoa indar handiz iraun zuen eremua izateaz gainera, pentsatzekoa da eremu hori jarraitu zela atzerapen handieneko egoera ekonomikoa izaten; ondorioz, arrazoi soilki politikoak ez ezik, kontuan hartu beharko lirateke garrantzi gutxiagokoak ez diren motibazio ekonomikoak ere. Pentsa liteke, oro har, ez zela arrazoi bakar bat izango ozeanoa zeharkatzeko, baizik eta arrazoi askok baldintzatuko zutela hainbesteko garrantzia zuen erabaki bat hartzea.

Artzain-nekazari gizarte batetik gizarte industrializatu baterako eraldaketa sozioekonomiko erradikala euskal burdin-mineralean oinarrituta antolatu zen; horrek ekarri zituen berekin, neurri handi batean, Euskal Herria suntsitu zuten gerra karlistak, eta baita euskal tradizio sozioekonomikoaren alde egitea ere, industrializazioaren eskutik zetorren liberalismoaren aurrean. Ideologia horrek zera proposatzen zuen: desamortizazioa, Elizak boterea galtzea, foruak aldatzea, pentsamoldea aldatzea, derrigorrezko zerbitzu militarra, eta bigarren eta hirugarren sektoreen nagusitasuna lehen sektorearen aurrean. Askok nahiago izan zuten Amerikara joan, han nekazari lurjabe izan baitzitezkeen, fabriketan lanik egin gabe —gutziz bazterten zituzten liberalak izan ohi ziren, eskuarki, fabrika horietako nagusi—.

Amerikarako emigrazioa aukera erakargarriagozat ikus daiteke Euskal Herriko industrializatutako eremuetan lan egitea baino; izan ere, Amerikan aukera gehiago zeuden mugikortasun ekonomiko eta sozialerako (Medina, 1997: 17).

Hego Amerikarako euskal emigrazioa azaltzen duen beste arrazoi bat da biztanleria haztea, Industria Iraultzaren babesean izandako osasun-hobekuntzen ondorioz. Horrek, aldi berean, arazoak eragin zituen baserriak banatzeko orduan, eta oinordeko ez zirenek Amerikara emigratzearen edo erlijio-zerbitzuen alde egiten zuten.

Hasiera batean, gutxi ziren emakume euskaldunak migrazio-taldeetan (% 16, 1832tik 1840ra); 1856tik 1864ra % 38ra iritsi ziren, eta % 30era jaitsi 1875ean

<sup>15</sup> Eskaera egiten zuen herrialdetik (Amerika, Australia, eta beste) Europara joaten ziren pertsonak, langileak errekrutatzen.

(Larrinaga, 2002). Batez ere familia-planaren barruan egin zuten, 16 urtez beherakoen antzera. Kantitatez gutxiago izan direla badirudi ere, emakume horiek ikusezin bihurtu dira emigrazioari buruzko ikerketetan eta, oro har, migrazio-gertaeretan; hala esan zigun Teresa del Vallek Douglassen liburuaren sarreran: «Gizonen irteera abestu eta idealizatu egin da, eta bertso eta eleberrietan jasota geratu da; emakumeen irteera, berriz, isiltasunera baztertu da» (Del Valle in Douglas, 1986: 15).

Isiltze hori garrantzitsua da emakumeen protagonismoa ahazteko, beren boterea ukatzeko; izan ere, euskal nekazari-gizartean aldaketa garrantzitsuak eta egiturazko eteteak ekarri zituzten pertsonatzat hartzen dira.

1865etik 1877ra, emigranteen % 40k 10 eta 20 urteen artean zituen. Batez besteko adina 21 urte izan zen gizonezkoei zegokionez, eta 16 urte baino ez askoz gehiago emakumezkoei zegokienez; horrek agerian uzten du oso gazte emigratzen zutela.

Komisiolari edo *harrapari* ugari izan ziren, itsasoz haraindi joateko prest zeuden pertsonak errekrutatzen zituztenak. Beste kontinente batera eramateko konpromisoa hartzen zuten haiek diru-kantitate baten truke; denbora bat igarotakoan ordainduko zieten diru hori, helmuga-herrian.

XIX. mendearen 30eko hamarkadaz geroztik, immigrazioaren aldeko jarrera sumatu daiteke Hego Amerikako hainbat herrialdetan; bereziki Argentinan, zeinak 1852an atak ireki baitzituen zabal eta, ondorioz, ondorengo urteetan Europako emigrazioaren emanak ordura arte ez bezalako bolumena hartu zuen. Badirudi bitartekarien jarduerak baliabide eskaseko edo gutxiko emigranteengan jartzen zuela arreta. Soldata oso errespetagarriak hitzematzen zituzten, urte gutxiren buruan dirutza handiak ekarriko zituena.

1880 eta 1914 urteen artean, bizkortu egin zen nekazarien mugimendua Latinoamerikan, lau milioi pertsona iristearen ondorioz. Ondoren, nekazaritza-hedapenaren prozesuak behera egin zuen, eskulana murriztea —eta ondorioz, baita immigrazioa ere— ekarriz. 1875-1925 urteen artean, urrutiko Mendebaldeko Amerikara zihoazen emigranteak erraz sar zitezkeen Estatu Batuetan, eta lana aurkitu artzain gisa. AEBko gobernuak, ordea, murrizketa sail bat ezarri zuen, emigrazioari kuota-sistema inposatuz, jatorriko nazionalitatearen arabera.

1824ko immigrazio-aktak kuotarik baxuenetako bat esleitu zion Espainiari, eta, ondorioz, urteko 131 espainiar besterik ez zuten uzten sartzen. 1924 eta 1950 urteen artean, penintsulako euskaldunen lekualdatzeak ez zuen izan garrantzi handirik; ondorengo urteetan, ordea, Amerikako artzaintza-industriako lan-egoera larriak, neurri bereziak aldarrikatzera bultzatu zuen Kongresua, penintsulako euskal artzainen sarrera baimentzeko. 1950 urtearen amaiera aldera, euskal artzain horiek AEBn sar zitezkeen, hiru urterako lan-kontratua zutela; lan-jarduera gisa artzaintza inposatzen zitzaienten, eta kontratu hori amaitzean herrialdea uztera behartzen zituzten (Douglass, 1977: 32).

XX. mende hasieran Euskal Herrian gertatzen ari zen industrializazio-prozesuaz gainera, baziren hirira joatearen ordeaz itsasoz haraindi joatea erabaki zutenak; eta Gipuzkoa eta Bizkaia, berriz, Espainiako beste probintzietako jendez bete ziren. «Amerikarako emigrazioak tradizioak kulturalki ezarritako irteera bat izaten jarraitzen zuten» (Pérez-Agote, 1996: 36).

1929ko munduko krisi ekonomikoak amaiera jarri zion, progresiboki, Amerikara zihoazen euskaldunen irteerari. Baina, 1936an, Espainiako Gerra Zibilak eragin zuen berriz ere hainbat herrialdetara erbestera zitezen; izan ere, frankisten garaipenaren ondorioz, errepublikar idealekin konprometitutako pertsonak atzerrira irten zirela nabarmendu dezakegu, eta «euskaldun-argentinarrak kopurua, gutxi gorabehera, milioi bat da, 1960an lurralde barruko biztanleria osoaren ehuneko bosta» (Douglass, 1986: 173).

Lehen Mundu Gerrak amaiera jarri zion Latinoamerikarako euskal emigrazio masiboari. Gerrak eten zuen “Mundu Berri”rako itsas trafikoa, eta, herrialde askotan, immigrazioa murrizteko politikaren aldeko hitzak entzun ziren. Espainiak neutral iraun zuen gerran eta, ondorioz, gatazkan nahasi gabeko eta kontrako ondorioz jasan gabeko nazio baten onura ekonomikoez gozatu zuen, borrokalariei merkantziak saltzen zizkien aldi berean. Gerrak euskal-espainiar industria bultzatu zuen, nekazaritza-produktuen balioa goratu zuen, eta mugako herriei aukera ekonomiko handiak eman zizkion garrantzia hartzen ari zen kontrabandoko trafikoaren bitartez.

XX. mendean zehar migrazioak jarraitu egin zuen, baina murrizketa asko izan zituen. Euskal kostaren industrializazioak immigrante ugari erakarri zituen probintzia mugakideetatik eta penintsularen hegoaldeetik; 1951-1971 urteen artean, bereziki, immigrazio garrantzitsua gertatu zen. Ondorioz, 1970ean, Euskal Herrian bizi zen biztanleriaren % 34 Espainiako estatuko beste leku batzuetan jaiotakoa zen. Eta 2001ean, Euskal Herrikan kanpo jaioa zen % 25<sup>16</sup>. Aipagarria da, kasu honetan, Euskal Herriaren ikuspegia erabiltzeko zailtasuna, lurraldearen banaketa administratiboa dela eta, eta Euskal Herria unitate politiko gisa ez aitortzearen ondorioz; eta horrek erabat zailtzen du datu orokorrak lortzea. Zaila da Euskal Herrian immigrazioaren argazki bakar bat egitea, ez baitago Euskal Herria subjektutzat aitortuko duen ikerketa sakonik.

Aipatzekoa da, baita ere, frankismo garaian Europarantz izan zen emigrazioa. Frantzia, Alemania edo Suitza izan ziren euskal gizon-emakumeen helburu-lekuetako batzuk. Migrazio hori, kopuruz behera bazihoan ere, 1975era arte mantendu zen.

Orduetik aurrera aldaketa garrantzitsua gertatu zen Euskal Herrian. Euskal Herria, penintsulako beste eskualdeak bezala, Afrikatik eta Latinoamerikatik lehenik eta Ekialdeko Europatik ondoren datorren jendearen harrera-leku izatera igaro da.

1976 eta 1980 urteen artean, emigratzaileen itzulera garrantzitsua gertatu zen. Aldi berean, ugalkortasunak nabarmen egin zuen behera, Espainiako estatuko gainerako lekuetan baino nabarmenago, biztanleriaren hazkundearen abiadura motelduz. Munduko

---

<sup>16</sup> Iturria: Aztiker. Eusko Jaurlaritza (Soziolinguistikazko Inkesta, 2001).

jaiotza-tasarik baxuenetakoa izan zuen; emakumeko 1,2 jaiotzako batez bestekoa, hain zuzen. Euskal biztanleria aktiboaren oinarria (19-20 urte) murrizten hasi zen. Herrialdea zahartzen ari zen. Biztanleria ez zen hazten. Euskal Herria aldaketa demografikoa izaten ari zen; sexuak berdintzeko prozesuaren zuzeneko eta zeharkako emaitza da hori, bizitza-esperantza luzatzearena, eta goranzko joera duen ongizate-egoera batena. Lanean hasten diren belaunaldiekin egiten den ordezkapena defizitarioa izaten hasi zen. Honela baieztatzen du Mariarosa Dalla Costak:

Herrialde aurreratueta emakumeek gero eta seme-alaba gutxiago dituzte. Herrialde aurreratueta gizadiak ugaltzeko gero eta gogo gutxiago dauka (Dalla Costa, 2009: 311).

Garai horietatik aurrera, eta Espainiako estatuan hasitako hazkunde ekonomikoarekin eta Iparraldeko Europako herrialdeetako mugak ixtearekin batera, Euskal Herrira iristen hasi ziren penintsulatik kanpoko migrazio-fluxuak; horren inguruan, Dalla Costak esaten du abian dela «birpopulatzeko politika». Politika hori ez dela hartu behar biztanleriaren «berrezartze kuantitatibo» hustzat dio berak, baizik eta Estatuaren estrategia modura, emakumeen autonomia-prozesuek garapen-ereduarengan eragiten dituzten ondorioei erantzuteko. «Birpopulatzeko politika» baino gehiago «langile-klasea berrezartzeko» politika dela dio, immigranteak beren seme-alabak ekartzen ari baitira eta seme-alaba gehiago sortzen baitituzte langile izateko. Gainera, lan-indarra etengabe berregite hori ez dela hain segurua gaineratzen du, eta, horregatik, XIX. mende amaieraz geroztik:

Ekonomia politikoak arazo bat dakar: ugalkortasun- eta jaiotza-indizeen gainean Estatuak duen nagusitasuna, lan-merkatua zabaltzeko edo uzurtzeko (Dalla Costa, 2009: 57).

Eta behin eta berriz dio harreman hori ez dela matematika-terminoetan interpretatu behar, baizik eta politika-terminoetan.

(...) aspalditik dator, alde batetik, aurkako eboluzio demografikoaren (zeinari konponbidea eman nahi baitiote jaiotzarako «sustapen»-neurriek eta emakumeak soldatako lanetik kanporatzeak —edo geroko bazterketak—) eta, bestetik, emigrazio-politikaren arteko lotura, nahiz eta politikoek gutxitan utzi duten agerian (Dalla Costa, 2009: 77).

Gaur egun, oraindik ezin esan daiteke euskal gizartea immigrazio garbiko herrialde bat denik, argi eta garbi; izan ere, alde egiten duen eta iristen den jende kopurua oso antzekoak dira. 3 milioi lagun inguruko biztanleria du Euskal Herriak, zazpi herrialdeak kontuan hartuta; 2003. urtean 80.000 lagun inguruk alde egin zuten gure herriko zazpi herrialdeetatik, hainbat arrazoi medio.

Aldi berean, gaur egun Euskal Herrian bizi den populazioaren laurdena baino gehiago immigrantea da. Haietako gehienak, 600.000 inguru (euskal biztanleria



guztiaren % 20 inguru), Espainiako eta Frantziako estatuetan jaiok dira. Gainerakoak, estatutik kanpo jaiok, eta gehienak Nafarroan kokatzen dira (Suarez eta Albite, 2005).

## 2.4 Atzerritarren Legea

Laurogeiko hamarkadaren erdialdera, artean ez zen beharrezkoa atzerriko pertsonak biltzea Espainiako estatuan lan-merkatua *betetzeko*. Migrazio-fluxuak oso baxuak ziren, Alemania, Frantzia edo Belgikakoekin alderatuz gero. 1985ean egin eta onartu zen, ordea, lehen aldiz, lehen Atzerritarren Legea; langabezia-tasa % 22koa zen orduan, eta ia milioi bat pertsona langabe zegoen. Lege horren gogortasuna, Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE) sartu aurretik onartu ziren immigranteak kokatzeko baldintza oso murriztaileak zituena, ez zetorren bat migrazio-fluxuak kudeatzeko benetako beharrek, Espainiako lurretan dozenaka mila immigrante besterik ez baitzen izango. Kontua *Europar sartzeara* zen, EEEren hegoaldeko muga izate horretan irmotasuna erakutsiz, igarobideko herrialde bihurtu zitekeelako. Lege horrek ia lortu ezinezko sarrera-irizpideak ezarri zituen; lan- eta bizileku-baimenak iraupen laburrekoak eta hutsalak ziren; familia berrelkartzerik ez zuten aurreikusten; oinarritzko eskubide batzuk murriztu egiten ziren, eta, zenbaitetan, immigranteei ukatu egiten zitzaizkien beren kotizazioagatik zegozkien gizarte-zerbitzuak. Beraz, Espainiako estatuak ez zion erantzun ez bere migrazio-egoerari ez EEEk inposatutako murriztapenei ere. Lehen lege horretatik, Hegoaldetik zetozen migrazio-fluxuak kontrolatzera bideratu zen atzerritarren erregulazioa. Ondorioz, «Erkidegoaz kanpoko herrialdeetako immigrante ekonomiko gehienak ezkutuan sartu dira, edo epea laster amaitzen zitzaion turista-bisa batekin» (Suárez-Navaz, 2007: 185).

80ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoaren hasieran hasi ziren Espainiako estatuan atzerritarrak neurri handiagoan sartzen. 1991n, Gobernuak neurriak hartu zituen 20/03/91 Legez besteko Proposamenaren bidez atzerriko langileak ohi ez bezala erregularizatzeko. Immigrazioarekin lotutako erakunde publiko asko sortu ziren (hala nola, Migrazioen Zuzendaritza Nagusia, atzerritarren bulegoak, Atzerriko Ministerioarteko Batzordea), eta baita atzerritarrez arduratzen diren eta migrazioaren gaiarekin lan egiten duten hainbat GKE ere. 1993an, Maastrichteko Ituna sinatu zenean, beste maila batzuk sortu ziren migratzaileen artean: erkidegokoa eta erkidegoz kanpokoa. Bertako herritarrez gainera, Europako herritarrak izendatu zituzten. Aldi horretan ezarri zituzten erkidegoz kanpoko atzerritarrentzako urteroko baimen-kuotak ere.

1999an, Amsterdameko Ituna indarrean sartu zenean, migrazioari eta asiloari zegozkien gaiek gobernuarteko lankidetzaren eremuko parte izateari utzi zioten, eta EBko politika bateratuaren gai izatera igaro ziren; bi gai horien inguruan legeak egiterakoan, estatu kideen burujabetza mugatzea zekarren horrek. Aldaketa garrantzitsu hori gorabehera, eta 1999an Tampereko Goi Bileran integrazio-politikak ezartzeko

beharrak aipamena egin bazen ere, erkidegoko araudiak immigrazioaz eskaintzen zuen irudia honako hau zen: segurtasun-kontu bat, eta Europako ongizate-sistementzako mehatxua; modu horretan, mesede egiten zitzaion mugen kontrolarekin, atzerritarren oinarritzko eskubideak murriztearekin eta legez kanpo zeuden immigranteak kanporatzearekin zerikusia zuten aldeak lehenetsiz atzerritarren legeak diseinatzean.

2000. urtearen hasieran, Europako legerik aurrerakoienetako bat onartu zuten. Lege horren bidez, ordurako finkatuta zeuden immigranteak legeztatzen saiatu ziren, legez kanpo zeuden pertsonen oinarritzko eskubideak eta osasun-laguntza unibertsala aitortzen ahalegindu ziren, eta kanporatzea desagerrarazten, legez kanpoko egoeran zeudenentzako zigor gisara.

4/2000 Legea Alderdi Popularrak aldatu zuen handik gutxira: 8/2000 Legea onartu, eta 1985eko egoera kontserbadore berera itzuli ziren. Legez kanpo zeuden pertsonen ukatu egin zieten, berriz ere, oinarritzko eskubide jakin batzuez baliatzea, eta «paperik gabekoen» egonaldiak zigortu egin zituzten: kanporatu, edo bi urtetik bost urtera luzatu zieten sustraitzeagatik bizileku-baimena lortzeko beharrezko aldia.

Lege horrekin, migrazio-fluxuen kontrola areagotzeaz gainera, zalantzan jarri ziren atzerritarren eskubide eta askatasun nagusietako asko, ordurako finkatuta zeudenak. Herritarren eskubideak (eskubide zibilak, politikoak eta sozialak) izateko aukera murriztu egin zen. Lege horri esker, *ius-sanguinis* delakoan oinarritutako herritarren sistemara itzuli ziren. Erregimen berriak eragotzi egiten ziren atzerritarrei lanerako sarbidea (gainerako eskubide sozial eta politikoak eskuratzeko oinarria zena); horrek bizileku-baimena baldintzatuko zuen, eta alderantziz. Gainera, desberdintasun argiak ezarri zituen legezko immigranteen eta legez kanpokoaren artean, eta talde bakoitzari aitortzen zitzaizkion eskubideen erregimenaren artean (bilera, elkarte, greba, sindikatzea, etab.), eta eten egin zuen bertakoen eta atzerritarren arteko eskubideen parekatze osoa.

2001ean, Greco Plana abiarazi zuten, martxoan onartua zutena Barne Ministerioaren edo poliziaren agintaritzapean. Plan hori mugetan polizia-kontrola sendotzera bideratuta zegoen: miaketarako teknologia sofistikatuak abiarazi zituzten, eta giza baliabideak espezializatu, atxiloketak eta immigranteak kanporatzea modu eraginkorrean egiteko asmoz. Eragiketa haiek hedabideetan inpaktu handia zutenez, ez-herritarren identitatea eraikitzeke mekanismoen parte zen, paperik gabeko immigrantea, kriminalizazioaren bidez.

Foucaultiar ikuspuntu batetik begiratuta, Espainiako legegileek legezketasunik eza edo beste delitu bat sortzea (kasu honetan, dokumenturik ez izatea) boterea banatzeko ekintza asimetriko bat da, gizarte-talde handi bat baztertzeko duena gutxieneko gizarte-eskubideetara eta askatasun zibiletara iristeko aukeratik. Mundua modu jakin batera eratu nahi duten legeak dira. «Legez kanpokoak» beharrezkoak dira sistemarentzat, zigortzen dituzten banku handiaren edo auzitegien antzera. Erbesterratu lan-merkatua, legezketasunik eza esplotazio gisara. Batzuentzat aukerak direna, esplotazio dira besteentzat.

Alain Morice-k azaltzen dizkigu kontuan hartu behar diren eta paperik gabekoen egoeraren osagai diren hiru elementuak: *mendekotasuna*, *zorra* eta *itxialdia* —bai errealitatean bai irudizko munduan kokatzen garela ere—. Paperik gabeko pertsonaren mendekotasuna forma askotakoa da. Askotan, migrazio-prozesuarekin berarekin hasten da (pasaportea edo bisa ematen dion funtzionarioarenganako mendekotasuna, edo ezkutuko pasatzailearenganakoa), eta migrazioa hazteari balioa kentzen dio, infantilizatu egiten du, eta oinarriak ezartzen dizkio. Bizirik irauteko, bere egoera arautzeko, ezkutatzeko eta oreka psikikoari eusteko, instantzia sail baten mende dago paperik gabekoa: administrazioak, abokatuak, elkarteak eta GKE, enplegu-emaileak, beren etnia-sareko kideak eta beste. Gizarte zibilarekin oinarri horren gainean ezartzen den harreman motak erabat laguntzen du eskubidearen logika mesedeen eta indarren harremanaren logikaren orde; zehazkiago esanda, mesedeak eta indarren harremana intelektualki eskubide bihur daitezela laguntzen du. Zenbaitetan, konpromisoaren espiritua, eta baita morrontza ere, mendetasun-logika horren jomugan daude (Morice, 2007: 58).

*Zorra*, Moriceren ustez, zor moral bat edo finantza-zor bat izan daiteke. Izan ere, badakigu immigrante askok zorrak egin dituztela urrutiko lurretatik etorri ahal izateko eta, ondorioz, bidaiaren prezioa ordaintzeko lan egin behar izaten dute denboraldi batez. *Itxialdiaz* hitz egitea, berriz, kaleetan, geltokietan edo beste edozein toki publikotan atzematearen beldurraz hitz egitea da; horretarako, ukatzen zaizkien agiri horiek aurkezteko eskatzen diete, eta etengabe segurtasunik gabeko egoeran edukitzen dituzte; modu horretan sortzen dituzte Foucaultek aipatzen dizkigun menderatutako gorputz horiek.

Atzerritarren Legearen hurrengo erreforma 2003koa izan zen, azaroaren 20ko 14/2003 Legea, legez kanpoko immigranteak kanporatzeko bidea errazten duena. Esan daiteke kanporatze-agindua nahiko maiz ematen dela; baina, gehienetan, ez da egikaritzen: beste estrategia bat da paperik gabeko pertsona eta haren ingurua lotzeko. Gainera, ez da hain erraza latinoamerikarrak kanporatzea, besteak beste, bidaiak-kostuak handiak direlako.

Paperik ez dutenek denbora luzean biziraun behar dute, jasan egin behar dela esanez, soil-soilik ezkutuko ekonomian oinarrituta. Gune publikoetan ahalik eta oharkabeen pasatzen saiatzen dira, atzerritarren kontrolen batekin topo egin ez dezaten. Kanporatzeko prozedurei dagokionez zenbaitetan burututako politikak —501 euroko isuna jarrita ordezkatzeko, edo kanporatzea irmo bilakatzea—, isun hori ordaindu beharra izan dutenak beren oinarritzko bizitzeko beharrei erantzun gabe irauten ari zirenentzat asko da eta etxean geratzea erabakitzen dute, ahalik eta ezkutuen, beste polizia-kontrol bat jasateko beldurrez. Denbora igaro eta, iritsiera lekuan hiru urte bizi ondoren, bertan sustraitzera iristeko esperantza gelditzen da.

Administrazio Zentralak udalerrian errolatzea sustatu du, gizarte-zerbitzueterako sarrera izateko, eta Estatuan diren immigranteen kopuru erreala hobeto

ezagutzeko. Gainera, erroldatze hori da egonaldia egiaztatzeko froga bakarra legezko bizilekua errotuta lortzeko; datuak poliziari ematean, ordea, poliziak paperik gabe bizi direnak aurkitu eta beren herrialdeetara bidal ditzake. Neurri hori, beraz, bortxazko neurri bihurtzen da immigrantearentzat; izan ere, immigrantea, bere bizilekua topatu eta herrialdetik kanporatuko duten beldurrez, erroldatu gabe geratuko da agian, eta horrek ondorio kaltegarriak ekarriko dizkio errotze bidezko paperak lortzeko.

2005ean egin zen ohiz kanpoko azken erregularizazioa, 2004ko abenduaren 30ean onartu zen Atzerritarren Araudi berria (2393/2004 Araudia) oinarrituta. 700.000 immigrante inguru ahalegindu ziren prozesu horretan babes hartzen. Hauetatik 577.000 pertsonak lortu zituzten paperak.

Ohiz kanpoko erregularizazio-prozesu horrek agerian jartzen du ezkutuan sartzera behartzen duen eta gerora irregulartasunak sortzen dituen migrazio-politika baten porrota, lan-kontratu bat lortzeko baimenak berritzea baldintzatzen duenean; ondorioz, arazoaren jatorriari aurre egiten ez dien aldian behingo «irteera-balbulen» beharra du. Aurreko prozesuetan baino jende gehiago legez zuten 2005ean, baina hala ere pertsona asko geratu zen legez kanpo. Prozesuaren muga nagusia enpresaburuaren borondatearekiko mendekotasuna izan zen, hark kudeatu baitzituen igarobideak. Nola 2001ean hala 2005ean egindako erregularizazio horiek, ezkutuko eta legezko lanaren eskaintzaren neurria egokitzeaz gainera, langile immigranteek enpresaburuekin zituzten mendekotasun-harremanak eratu zituzten. Azken erregularizazioan, milioi erdi pertsonak baino gehiagok lortu zituzten paperak *enpresaburu horiei esker*, enpresaburu horiek lan-kontratu bat aurkeztu beharra baitzeukaten legez zuten pertsonaren izenean, gutxienez sei hilabete gehiago edukitzeko konpromisoa hartuz. Modu horretan, ehunka mila pertsonak lortu zuten aldi baterako baimena, beren nagusien mesedeei «esker». Enpresaburua aliatu instrumental bihurtu zen, migrazio-fluxuak legez bideratzeko helburua zuena, gizarte-eragile boteretsu eta ezinbestekoa.

Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren arabera, 2005ean Gobernuak legez zuten atzerritar langileen % 15ek ez zuen lortu bere baimenak berritzerik 2006an, eta paperik gabeko immigranteen ilarak gizentzera itzuli ziren (SOS Arrazakeria, 2007). 2009aren amaieran, beste herrialde batzuetatik etorritako 900.000 pertsona inguru zeuden legez kanpo Espainiako estatuan, EINek eskainitako behin-behineko erroldatuen arabera.

2006an, Gobernuak Afrika Plana onartu zuen; bertan, garapenaren alde egiteko politikekin uztartu zituzten lehen aldiz migrazio-politikak, fluxuen kontrola eta deportatuak berriz onartzeko jatorriko herrialdearekin sinatutako hitzarmenak. Plan hori azken hamar urteotan EBk proposatutako jarduera-lerroen eremuan Espainian onartutako lehen instrumentuetakotzat har daiteke, mugen kontrola zabaltzeari edo migrazio-kontrola deskokatzeari dagokionez. Jardute horiek dira EBko kanpo-mugen kontrola erkidegoaz kanpoko herrialdeen esku uztea, zeinetan bai immigranteak bai

asiloa eskatzen dutenak igarotzen baitira Europaranzko igarobidean; horretarako, EBk berak finantzatuta, asilo-eskatzaileak atxikitzeko zentroak sortu zituzten estatu horien lurretan, edo asilo-prozeduren hobekuntza irauli egin zen Aljerian, Marokon, Libian, Tunisian, Senegalen edo Mauritanian, asilo eskatzaileak Europa ez iristea helburu. Horrek zalantza handiak sortzen ditu hirugarren herrialdeei agintzen zaien mugako kontrol horien helburu izango direnen giza eskubideen bermeen inguruan.

Atzerritarren Legearen laugarren erreformak, Diputatuen Kongresuak 2009ko azaroan onartu zuenak, krisi ekonomiko barruan, honako helburu hauek zituen: «immigrazio legekoa eta ordenatua lortzea, legez kanpoko immigrazioaren kontra borrokatzea, eta legezko immigranteen integrazioaren alde egitea, eskubideen eta betebeharren arteko orekaren bidez». Migrazio-fluxuak legezkatzea eta bideratzea, Legearen hitzaurrearen arabera, egokitu egin behar zen «gure harrera-gaitasunera eta gure lan-merkatuko behar errealetera».

Indarrean den Atzerritarren Legearen lehenengo erreformatik, 2000ko abenduan hasi zena J.M. Aznarren bigarren agintaldiaren hasieran, lege-esparrua gogortu egin da progresiboki eta, hala ere, espainiako Estatura atzerritar gehien iritsi diren urteak izan dira. Joan den abenduaren 16an Eurostatek argitaratutako datuen arabera, immigrante kopuruari dagokionez, Espainiako estatua bigarren herrialdea da Europar Batasuneko hogeita zazpi herrialdeen artean, (5,3 milioi) (Alemaniak soilik hartzen dio aurre; 7,3 milioi), eta seigarrena da ehunekoei dagokienez (% 12) (Valiente, 2010).

Atzerritarren Legearen azken Araudia, 2011ko ekainan martxan jarritakoak, betekizun berriak txertatzen ditu errotzearen bitartez paperak lortzeko eskakizunetan, bolondresko itzulera bizkortzen du, paperik gabe daudenen artean eta genero indarkeriaren biktima izan direnei babes gehiago ematen die, immigranteen aldebakarreko integrazioa eskatzen du, etxebizitzaren baldintzak gogoan hartzen ditu, pertsonen oinarritzko eskubideak murrizten ditu berriro ere eta immigranteen egoera ahuldu eta babesgabetzen du.

Langileaz, lan- eta soldata-baldintza ezin txarragoak onartzeaz gainera, erabateko erabilgarritasuna eskaintzea espero da. Nagusientzat balio handiko diziplina-tresna dira, besteak beste, kanporatzeko mehatxua, erresidentzi baimena galtzea, immigrante-egoeraren egonkortasunik eza, lan-baimena galtzeko beldurra, eta herrikideen presioa familiakoak eta lagunak dauden lekura etortzeko duten gogoia dela-eta.

## **2.5 Paperik gabekoak**

1980ko hamarkadaren amaieratik aurrera, pateren eta kayukoen ikonoak bildu du Espainiako estatuan immigranteek duten ordezkartza; badirudi pobreziatik ihes egiteko

etsiak hartutako afrikarren patu hauskorra ontzi txiki horiek bideratzen dutela, nora ezean. Horrek eta immigranteen beste adierazpide batzuek eraginkortasunez jarduten dute gure imajinario kolektiboan, bakoitza «dagokion lekuan» kokatuz. Ezkutuan eta pilakatuak iristen direnak biktima behartsutzat hartzen dira. Eta, ispilu baten gisara, beren irudiak geure patuaren kontrola duen «gu» bat proiektatzen du, librea eta arriskuak saihesteko gai dena.

*Immigrante* kontzeptuak subjektu ekonomiko, langile, ekoizle eta kontsumitzaile gisara definitzen du izaki hori. Immigrantea aktore politiko gisara azaltzea arraroa edo ia ezinezkoa da. Mundu imajinarioan, immigrantea elementu exogenotzat hartzen da, kanpotik datorrena, gure gizartean pertsona ezeukia dena; eta horrela justifikatzen da hura baztertzea, haren ikusezintasuna eta, azken batean, ekintzarako eta harremanak izateko haren ukoa. Gainera, *immigrante* kontzeptuari «paperik gabea», «legez kanpoko», «ezkutukoa», «irregularra» ezaugarriak eransten badizkiogu, guztia areagotu egiten da, larriagotu. Ikonografia biktimista horretaz gainera, eta dikotomia moral askaezinen oinordeko den hitzez hitzeko logika jakin baten parte den heinean, ezeukiaren ondoan beti aurkituko dugu kriminala edo gaizkilea. Ona eta txarra: logika nagusian, alde batetik, erruki eta solidaritatezko sentimendu «naturalak» pizten dituen eta, bestetik, kontrol- eta errepresio-politiken gaitzespena eta justifikazioa.

Irregularitasuna ezin saihestuzko immigrazio bati barneko mugak altxatzeko helburuarekin sortu da juridikoki, egiazki beharrezkoa baita eta, hein handi batean, herrialde honetako elite ekonomikoek nahi dutena baita. Legea bete gabe utzi edo hautsi egin daiteke, baina, nola egon daiteke legetik kanpo? Gertakari horrek nortasuna kentzen dio immigranteari; eskubidedun subjektu gisa, baliogabetu egiten du. Immigranteen irregularitasuna edo «legezkotasunik eza» estrukturalki lotuta dago, gainera, Europako ezkutuko ekonomiaren tasarik garrantzitsuenetako batekin. Honela azaltzen du Liliana Suárez-Navazek:

«Legezkotasunik eza» eta «bestelakotasuna» kanpoko «asaldura» gisa eta herritartasuna baino lehenagoko zerbait balitz bezala eratzten dira, benetan, estatuaren sorkuntza baino ez direnean. «Legez kanpoko» kategoria 1973ko petrolio-krisi handiaren ondorenetik sortutako migrazio-politikak aldatu zirenetik erabiltzen da. Wihtol de Wenden-ek<sup>17</sup> erakutsi duen gisara, «ilegala» «kontrolatu gabeko migratzaile» bat besterik ez zen lehen. Testuinguru postfordistak sortu zuen «legez kanpoko», «paperik gabeko» edo «irregularren» «ez-kategoria» juridikoa, gizarte liberalean direnen artean beste bat gehiago dena. Estatuak beren izaterik aitortzen ez dien pertsonak. Bien bitartean, estatuak etengabe sortzen ditu ohiz kanpoko instrumentuak; atzerritarrentzat identitate-agiri ofizialak lortzeko moduak ezartzen ditu, estatuaren beraren ukoaren ondorioak konpontzeko. Kontrolari eta autoritateari eustearen izenean, sakratua sakramentu zibilen eta igarotze-errituen bidez

<sup>17</sup> Nazioarteko migrazioetan espezializatutako frantziar politologoa.

zaintzen da; eta tresna horien bidez onartzen dira —ustez— immigranteak gizarte honetako kide gisa (Suárez-Navaz, 2007: 23).

Erritu sail hori, Suárezek «paperen fetitxismo» fenomeno deritzona, Estatu burokratikoaren menderatze-mekanismoak dira, eta ilaren, itxaronaldien, ezinezko agiriak eskatzearen edo irregulartasunera bideratzen duten berritze-irizpide izugarri murriztaileen bidez azaltzen dira. «Paperen fetitxismo horrek —gaineratzen du Suárez-Navazek— paperak lortuz gero bertakoen baldintza beretan herritar-eskubideak izango dituzten sineskizuna sortzen du» (Suárez-Navaz, 1999 *in* Terrades).

Paperik gabekoak egoteak kontraesanak sortzen ditu gizartean; atenasko herritartasunaren mugarik lotsagarrienetako batzuek, giza eskubideen aroan indarrean jarraitzen dutela aitortzera garamatza, hau da subjektu politiko gisan dauden gabeziak. Beste hitz batzuetan esanda, bizi daitezkeela gure artean bigarren mailako langileak, beren izate hutsaren legeko aitorenpenik gabe. Antz handiegia du horrek Aristoteles filosofo handiak defendatzen zuen esklabotasun-erregimenarekin. Legeak sortzen du irregulartasuna, barrukoa eta kanpokoaren arteko banatze lerroa marraztean. «Legezkotasunik eza» ez da legerik ez izate hutsa; legea ezeztatzean, etetean eta baztertzean sortzen da. Legearen unibertsaltasuna lortzen saiatzeak ez luke zentzurik izango, baldin eta ez balitz legeak kanpoan utzitakoa barnean hartzen duelako, bere ezeztatzeari jarraikiz. Legeak ez luke inoiz unibertsaltasunik lortuko ez balu eskubiderik muga bat marrazteko legea bera aplikatzean: era berean sortzen ditu bai salbuetsitakoaren/baztertutakoaren kategoria unibertsala, bai «debekatutako eremua» mugatzeko eskubidea, eta modu horretan bazterketa eragiten du.

Paperik gabekoak ahultasun nabaria dute aktore sozial gisara: pobrezia, lan-ezegonkortasuna, larritasuna eta kanporatuak izateari edo polizia-errepresioari beldurra; legeko agiririk ez duten immigranteen gaitzetarik batzuk besterik ez dira horiek. Ez dute gidabaimena lortzeko eskubiderik, ez bankuko kontu bat irekitzeko, ez telefono-kontratu bat izateko ere.

Komunitate bateko kide izateko eskubidea bi kategoria zabalen artean dago: batetik, giza eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak; eta, bestetik, ez izatea atzerritar iraunkorra (gutxienez hiru edo lau urte) lan egiten duen lurraldean. Hain zuzen, lan egitea delitu balitz bezala; bidezko soldatarik, oporrik, ordutegi duinik, gizarte-segurantzarik edo langabezia-saririk aitortzen ez duen enpresaburu batentzat lan egiteagatik, denbora luzeegian egoteko eskubiderik ez izatearen zigorra jaso beharko balitz bezala.

Gorabehera politiko horren arazoa honetan datza: bertako herritarren eta gizarte liberalek aldarrikatutako giza eskubideen unibertsaltasun moralaren mugak aldi berean izatea. Paperik gabekoak madarikazioa dira sistemarentzat. Irregulartasun demokratikoak ezin dira konpondu bazterketaren bidez, eskulan merkea eta malgua etengabe sartzeari eskatzen baitu Lehenengo Munduko demokraziak koipeztatzen dituen hazkunde ekonomikoak. Legez kanpoko migrazioa, neurri txikiagoan edo handiagoan herrialde demokratiko gehienetan onartu dena, ez da bateragarria giza eskubideekin.

Hannah Arendt-ek bere *Los orígenes del Totalitarismo* liburuan zioen moduan, «eskubideak izateko eskubidea» da oinarrikoena eta ezin uko eginezkoa (Arendt, 1951). «Paperik gabekoen» kategoriarik ezin da egon gizarte-kontratuaren logika liberalean. Logika politiko horretan, gizabanako guztiak beren askatasun «natural»etik eta hari dagozkion eskubideetatik abiatzen dira, ezinbestean.

Modu horretan, aitorpenik gabeko kategoria juridiko gisa sortutakoak «paperen fetitxismoa» sortzen du, eta horrek eragina du bai migrazio-prozesuei loturiko gizarte zibilean, bai migratzaileengan berengan. Fetitxismo horrek, beraz, badu Estatuaren gustuko ez den ondorio sail bat. Haietako bat oso garrantzitsua da paperik gabekoen borroka aintzat hartzeko. Pertsona horiek legez kanpoko izateari uzteko egiten duten esfortzuaz eta erabiltzen duten energia agorrezinaz ari gara, hain zuzen.

Prozesu horretan, arauz ez egotearen eta susmagarriak izatearen erru-sentimendua gorpuzten da migratu duten pertsonengan; logika horretan, baldintza duinak eskatzeko eskubiderik ez duten langile gisa agertzen dira, buru eta bihotz saiatzen direnak subjektu juridiko izateko agiriak lortzen. Barnean sartzeko burokrazia-errituek markatutako aginduak jarraitzen dituzte, identitateak asmatzen dituzte, herrialdean daudelako lekukotasuna eman dezakeen edozein paper biltzen dute; enpresaburu batekin lotura dutela, edo GKE batekin harremana, gela baten azpikontratazioa, bankuak igorritako dirua, edo beren existentzia frogatzen duen edozein «legezko» zantzu erakusten duen dokumentazioa lortzen, erosten, edo tratua egiten saiatzen dira. Haiak subjektu juridiko bilakatzeko magiazkoa dirudi askotan; bereziki, Espainiako estatuan izan diren egoeretan eta antzekoetan, non ez baitzegoen modurik «paperak egiteko», milaka pertsonarentzat erregimen orokorra itxita eta gerta zitekeena mugatuta zegoelako.

Joan den mendean European hegotik iparrera izandako migrazioaren antzera, gaur egun legea Damoclesen ezpata baten gisara dabil. Lege horren funtzioa ez da ezkutuan sartu den migratzailea kanporatzea, baizik eta hari etengabe gogoraraztea bere egoeraren egonkortasunik eza; eta horrek ekarriko dio ordena ekonomikoari eta sozialari men egitea. Poliziak ondo ezagutzen dituen bideetatik igarotzeko «ezkutuan» antolatutako eszenaratzea proba moduko bat da, mendekotasun-onespenaren ikastaldi bat, migratu duen pertsonak herritartasun osoa lortzeko duen nahia eragotziz (Morice, 2007: 46).

Bizi-baldintza penagarriak dituzte: hainbat egunetako bidaia, itsas zabaleko itsasontzi hauskor batean; hiru urteko ezkutuko egonaldia, ezkutuko ekonomian biziraunez, kanporatuak izateko etengabeko mehatxupean; bizitzeko eta lanerako baimena lortzeko zailtasunak, besteak beste. Ondorioz, pertsonarik indartsuenek, sendoenek eta saiatuenek soilik lortuko dituzte beren helburuak. Australiar medikuek italiar eta euskaldun migratzailegaiei egiten zizkitenak baino askoz proba gogorrakoak dira. Ezkutuko lanean hiru urteko infernua jasatea lortzen badute, beldurra eta polizia-kontrolak gainditzen badituzte, aldi baterako bizileku-baimena lortu eta urte batzuen ondoren bizileku-baimen iraunkorra lortzen badute, eta langabezia igotzen ari den



garaiotan lanean eta kotizatzen ari direla egiaztatzen badute, orduan erakutsiko dute gai direla men egiteko, lan-diziplinarako, bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak betetzeko; eta paperak berritzen jarraitu ahalko dute.

Migratzaileek, oro har, lanposturik okerrenak izatea, edo beren burua lan-indar ahul, malgu eta mugikorrena balitz bezala aurkeztea, berez ez dago migratzaile izateari loturik; baizik eta zerikusia du produkzioarako sistema kapitalistaren sare politiko eta ekonomikoarekin, aparatu juridikoaren alderdi murriztaile eta zapaltzaileenarekin, soilik kezkatzen diren nagusi eta botere publiko utilitaristarekin. Izan ere, aldagai ekonomikotzat hartzen dituzte horiek, langileen gaitasuna, prestakuntza, jarrera edo interesa aintzat hartu gabe.

«Ezkutuko» egoera behin-behinekoa da norbanako batentzat, baina egiturazkoa da, hala definitu den taldearentzat. Jean-Marcel Jeannenay frantziar lan-ministroak honela adierazi zuen beste garai batean: «Ezkutuko immigrazioa ez da, berez, alferrikakoa; izan ere, araudiak eta nazioarteko akordioak zorrotz aplikatzen hasiz gero, eskulana faltako litzaiguke seguroenera».<sup>18</sup>

Bestalde, immigrante langileek bizileku-baimena izanda ere jasaten duten etengabeko gutxiespenaren ondorioz, eta, horretaz gainera, «paper» guztiz santuak ez berritzeko duten beldur kontzientea, «bertakotu» gisa hartua izateko duten nahia, eta «immigrante = gaizkile» ekuazio herrikoa kontuan hartuta, horrek guztiak eragiten du paperak dituzten immigranteek ere «paperik gabekoak» kategoria edo maila baxuagokotzat hartzea eta, ondorioz, haiek bi aldiz baztertuak izatea.

## 2.6 Kriminalizazio-mekanismoak

Beste herrialde batzuetatik datorren jendearen atxiloketa gehienak kalean gertatzen dira, autobus-geltokietan eta garraiobideetan. *Kartzela-hiria* deiturikoaz hitz egin dezakegu, eguneroko bizitzan barne-mugen biolentzia bizi duten pertsonen ari garenean, etxean geratzen baitira atzerritarren kontrolen baten beldur, edo poliziaren presentziari adi baitabiltza beti; «gizalegea inposatzeak *merkataritza-gune hiri bat* edo *korridore-hiri bat* sortzea dakar, eta han zehar libreki ibil daiteke soilik ekoizteko eta, batez ere, kontsumitzeko» (Romero, 2010: 110).

Modu horretan, urratu egiten da Manuel Delgadok defendatzen duen «kalean ibiltzeko guztiek duten eskubide osoa», espazio publikora erraz eta libreki iristeko

---

<sup>18</sup> Jean-Marcel Jeannenay frantziar lan-ministroaren adierazpena, *Les Echos* egunkarian, 1966ko martxoaren 29an.

eskubidea, herritarren eskubide unibertsalaren adierazpen gailena dena. Lekueta iristeko erraztasun hori ez da soilik leku batek eta beste leku batzuek elkarri eragiteko duten gaitasuna —hori bera esango lukete arkitekturaren eta hiri-diseinuaren ikuspegitik—, baizik eta gizarte hiritar baten demokrazia-maila ebaluatzeko aukera ematen duen gunea. Gaur egun, ordea, espazio publikaren erabiltzaile batzuei ukatu egiten zaie herritartasuna.

Migrazioa kriminalizatzeko erabiltzen diren taktikak dira, besteak beste, kontrolak, atxiloketak, sarekadak, kanporatzeak, nahitaez itzuli beharra, *manteroak*<sup>19</sup> zapaltzea, mugak kanporago jartzea, atzerritarrak barneratzeko CIE zentroak, edo mugak blindatzea.



Osasun-etxe edo ikastetxeen inguruan sarekadak egiteak urratu egiten ditu Atzerritarren Legean bertan aitortutako oinarriko eskubideak; hala nola, osasunerako eta heziketarako eskubidea, immigrantei baliabide publiko horiek izateko oztupoak jartzen zaizkienean, eta haien artean beldur-giroa sustatzen dutenean.

Atzerritarrak barneratzeko CIE zentroak Estatuaren egoitzak dira; beren helburua da zaintzapean edukitzea Espainiako estatuan egoteko legezko agiririk ez duten beste herrialde batzuetako pertsonak, edo kanporatzeko espediente bat ireki zaien pertsonak. Epailearen aginduz sartuko dira beti zentroan. Zenbait kasutan, kanporatzeko espediente bat duten eta gauzatzeko izapideen zain dauden pertsonak dira; beste zenbaitetan, epailearen erabakiaren zain dauden pertsonak (CEAR txostena, 2009: 39).

Dokumentaziorik ez izatea administrazio-huts bat denez, formalki ez dira «atxiloketa-zentro»tzat hartzen, baizik eta pertsona horiek atxilotuta edukitzeko «zentro itxi»tzat, haien legezko egoera konpondu arte. Dena dela, sasikartzelak dira, eta giza

<sup>19</sup> «Manteroak» edo «top-manta» deritzenak, oro har, paperik gabeko jendea dira; ezin dute legez salmentarik egin, eta kalez kale CDak saltzen aritzen dira.

eskubideen defendatzaile diren gizarte-erakundeek «Europako Guantanamo»<sup>20</sup> ere deitzen diete. Askatasuna kentzen dute eta deliturik egin ez duen jendea giltzaperatzen dute. Barneko beste muga horiek barneratzeko zigor-tresnak dira ilunzaletasunean babestutako pilaketa- eta gizagabetze-baldintzak.

Kanporatutakoen kopuruak —Espainiako estatuan legez kanpoko instantzien ondoriozko administrazio-espeditenteen bidez sorterriratutako pertsonak soilik hartzen dituzte— ez dira hain esanguratsuak: 55.930 pertsona kanporatu zituzten 2005 eta 2009 artean, urteko hamaika mila, batez beste; 2008an, berriz, 70.000 kanporatze-prozedura baino gehiago izan ziren. Guztira, CIE horietan direnen % 30 kanporatzen da; Europako Erkidegoaz kanpoko biztanleen % 0,3 da hori, eta paperik gabeko biztanleen % 1,2. 900.000 inguru paperik gabe egongo lirateke guztira Romeroren ustetan (Romero, 2010: 99). 2009an, ea krisi betean, kanporatze kopuru horiek zertxobait gora egin zuten; 13.278 kasu izan ziren. Kanporatzeko mehatxuek, ordea, nabarmen egin zuten gora; esan daiteke, beraz, Espainiako migrazio-politikak, funtsean, «kanporatzearekin mehatxatutako immigranteak» sortu dituela, eta ez «kanporatutako immigranteak».

2009an kanporatzeak ehuneko hogeita bost areagotu badira ere, urteko hamahiru mila izatera iritsi arte ez da kopuru esanguratsua, Espainiako estatuan bizi diren immigrante guztiak kontuan hartuta (Romero, 2010: 95).

Giza eskubideak urratzea da Espainiako estatuan erregularitasunez ikusezin bihurtzen den beste drama bat; eta atzerritarrak biktima dira, askotan, jatorrizko herrialdera bidaltzen dituztenetan.

Espainiako estatuak 1995ean hasi zuen mugak blindatzeko politika, eta heriotza ugari ekarri du. Ceutako eta Melillako mugan, Afrikaren eta Europaren arteko amildegia ekonomiko izugarriaren bi aldeak banatzen dituzten hesien gainetik jauzi egiteko saiakerak, poliziaren basakeria, edo Aljeriako eta Mauritaniako mugan basamortu erdian jendea uztea izan ziren, segur aski 2005ean zehar izandako arrazakeriaren adierazpenik gordinenak; horren ondorioz, hamalau pertsona hil ziren, gutxienez (SOS Arrazakeria, 2006). Tenerifeko hilerrian eta Lampedusakoan (Italia) ehundaka gorpu anonimo dautza. Migratzaileenak dira; itsasotik berreskuratu dituzte gorpuak. Izenik gabeko hildako horiek emigratzailearen gizagabetasuna erakusten dute, eta baita iritsierako herrialdeetako biztanleena ere. Kontrol-gailuen eta migrazio-politiken ankerkeria argitara ateratzen duten eragozpena dira.

Urte horietan zehar, komunikabideek eta politikak immigrazioari buruzko ikuspegi hau zabaldu dute: «arazo» dira gizartearentzat, eta «muga» batzuk jarri egin beharko dira (alegia, atzerritarren sarrera «mugatzea»). Migrazioa delinkuentziarekin eta mikrokriminaltasunarekin zuzenean lotuta aurkeztu dute eta, aldi berean, gizartegatazkak eragiten dituen fenomeno gisa. Krisi-garai hauetan, arazo ekonomiko eta sozialtzat hartzen da immigrazioa, lanaren edo lanpostuen jabe bertako biztanleak balira

<sup>20</sup> Kuban dagoen Ipar Amerikako baseari erreferentzia eginez.

bezala. Santiago Albak gogoeta egin du beste leku batzuetatik datorren jendearen helmuga bihurtu garenetik nagusi diren diskurtsoei buruz, eta honela dio:

Gure immigrazio-politikek gizagabetu egiten ditu afrikarrak eta latinoamerikarrak —aurretik pobrezia gaitza sartu diegunak— eta, kulturatik kanpo, merkataritza-gizarteko amesgaizto guztien fronte menderaezin bilakatzen ditu: *gorpu gordinen* «uholde» edo «olatu-kolpe» bat —metafora biologiko elokuentzia— (Alba, 2006: 357).

Arrazismoa kasu ugarian hauteman daiteke bai kaleetan, bai harremanetan, bai erakundeetan. Kirol-arloan ere ikus daitezke jarrera arrazistak eta botere-harremanak. Gizarteak eta kirolak gero eta interakzio handiagoa izaten ari dira kulturen artean, munduan dabilen jendearen mugimendu laster eta askotarikoaren ondorioz. Lehendabizi, herrialde *garatuak* pobretutako herrialdeengan aplikatzen duten esplotazioa legoke, kirol-talentuak ehizatzean eta kirol-produktu berriak saltzeko merkatuak bilatzean datzana; bigarrenik, kirol-jardueretako arrazismoa; hirugarrenik, kirolaren espektakulua kontsumitzen dutenen jarrera eta irain arrazistak; eta, azkenik, komunikabideetako kirol-kazetarien hizkuntza xenofobo eta nagusikeriazkoa.

### 3. Alteritatearen kultura-eraikuntza

*Alteritate* terminoa «ni»ak «beste»az egiten duen aurkikuntza adierazteko erabiltzen da. Alteritatea da «beste»az egiten dugun ikerketa, «beste»tzat hartzen dugun horren ikerketa. Mendebaldean sortutako termino bat da, arrotz eta arrarotzat hartzen batitugu gureekin bat ez datozen eta ezagutzen ez ditugun portaera guztiak. Ezagutzen ez ditugun talde eta pertsonen errepresentazio edo irudi asmatuak dira, gutxi gorabehera. Mendebaldeko herritarrek konkista-garaian aurkitu zuten «bestea» eta, beraz, lotuta dago mendekotasun-, inposaketa- eta ukazio-harremanei. Jarrera eta ondorio horien fede ematen du historia modernoak eta Europako eta inguruko inperioen iragan kolonialak. Konkistatzaileen despotismoak eta bidegabekeriek diskurtso bat sorrarazi dute haien gehiegikerien inguruan; unibertsalismo kristauetik edaten duen diskurtso horri, aldi berean, karga etnozentriko batek eragin dio, harreman asimetrikoak dakartzan paternalismo ukitua nabarmen duelarik. Edward Said-ek beharrezko ikusi zuen kritika garaikidean indarrean diren kultura-esentziak deseraikitzea, eta honela argudiatu zuen:

Hein handi batean hemeretzigarren mendeko inperialismoaren garaia amaitu bada ere, iragan inperial horren zentzua harengan dago, eta horrez gainera, ehunka milioi pertsonaren errealitatean barruraino sartu da. Memoria partekatu eta kultura-, ideologia- eta politika-sare oso gatazkatsu gisa, indar izugarria du oraindik. Haiek ez dira gu bezalakoak eta, beraz, menderatuak izatea merezi dute (Said, 1993: 47).

Hainbat kolonizazio-prozesutan kulturalki baztertu diren taldeak gutxiestea da alteritatea. Saidek dio erakunde, hiztegi, irakaskuntza, irudi, doktrina, burokrazia eta estilo kolonialetan oinarrituta eraiki dela «bestea». Beharrezkoa da, beraz, atzerriaren eta bestetasunaren irudiak hartzen dituen formak ikertzea.

Asia, Latinoamerika eta Afrika garaikideko nazio asko, gaur egun politikoki independentetzat hartzen badira ere, zentzu askotan, zuzenean Europako botereak gobernatzen zituenean bezain mendekoak eta menderatuak dira oraindik ere. Mendebalaren eta ekonomikoki eta kulturalki menderatutako haren «beste»en arteko harremana desberdinen arteko harremana da; Iparraldeko diru- eta finantza-erakundeetan dago boterea eta erabakitze eskumena. Haien ezartzen dituzte garapen ekonomikoaren arauak, eta beren neurri sortutako demokraziaren izenean hedatzen dituzte beren indar militarrik. Legeari jarraitzen diote, hori bai, hartutako neurriek eragiten dieten herrialdeen parte-hartzerik eta onespenik gabe sortutako legeari; eta, ondorioz, ikaragarri ari da areagotzen, azken mendeetan, herrialde aberatsen eta pobretutakoen arteko distantzia eta desberdintasuna.

Iparra-Hegoa, Mendebala-Ekialdea, erdigunea-kanpoaldea, barrua-kanpoa, gubesteak, gizona-emakumea; praktika gogoetagile konplexuak dira, eta, haien bidez, lehenengoak bigarrena eraikitzen du, eta bien arteko aldeak azpimarratzen ditu. Bigarrena lehenengo baino apalagozat kategorizatzen da, primitibo, atzeratu, basati, muturreko, fundamentalista, eta naturari loturikotzat; eta horrela justifikatzen da «misio zibilizatzailea» edo kolonizatzailea. Mendebaldartasuna, beraz, Fanon-ek dialektika kolonialaren ondorio psikologikoak deskribatzean aipatzen zuen nagusitasun-konplexuaren ondorioa da. Panafrikar pentsalari horrek honela zioen: «Kolonizatua izatea fisikoki menderatua izatea baino gehiago da, kulturalki menderatua izatea ere bai baita. Kolonizatua izatea hizkuntza bat galtzea da, eta beste bat hartzea». Haren hitzetan: «(hizkuntza bat) hitz egiteak... kultura bat nork bere egitea esan nahi du, batez ere, zibilizazio baten edukia hartzea» (Fanon, 1952).

Erakundeek eta iritzi publikoak berezkozat eta eraginkortzat hartzen duten imaginario hori nagusitzeak adierazten du gizakien arteko mendekotasun-harremanak sistematikoki bertakotzea eta gizarte-hierarkia eta -asimetriak gauza bihurtzea, modu eztabaiaezin batean.

«Giza aniztasuna» hiru ordenatan adierazten dela esan liteke: ordena biologikoa, ordena psikologikoa eta ordena soziokulturala. Giza aniztasun biologikoa aldagai naturalen bidez adierazten da; giza aniztasun psikologikoa, aldagai sasinaturalen bidez (pixkanaka publiko osoak bere egin dituen sustrai naturalen konstruktoen emaitza baita naturaltasun hori); giza aniztasun soziokulturala, berriz, interakzio sozialaren bidez.

Aniztasun hori aztertzeke, lau kontzeptu bereiz ditzakegu: aniztasuna, diferentzia, desberdintasuna eta diskriminazioa. «Giza aniztasuna» deritzoguna gertakari objektiboa da. «Diferentzia» aniztasunaren errepresentazio kognitiboa da, aniztasunaren inguruko eraikuntza bat; bereiztea aniztasuna hautematean, aitortzean eta izendatzean datza. «Desberdintasuna» diferentziaren bertsio afektiboa eta

balioespenezkoa da. Eta «diskriminazioa», desberdintasunean oinarritutako adierazpen diskurtsibo edo jarrerazkoa. Diferentziak desberdintasun bihurtzean sortzen da arazoa.

Gizartean ez da soilik ikasten bestea desberdina dela, baizik eta okerragoa dela. Clifford Geertz-ek zioen: «balio jakin batzuei leial izateak jendea erabat edo hein batean sorgor bihurtzen du beste balio batzuen aurrean, ezinbestean» (Geertz, 1992). Desberdintzea ez da guztiz gaitzesgarria, baina inolako desberdintasunek ez du diskriminaziorik legitimatzen.

Historian zehar eraikitako aldagaiak dira, noski, aniztasun soziokulturean mamitzen diren aldagaiak. Finkatutako diskriminazioen gertaleku bilakatutako mundu batean jaio da pertsona bakoitza; eta diskriminazio horiek bizitza osoan zehar lagun izango ditugu, konturatu gabe hasieran, baina konturatu nahi ezta, ondoren. Hizkuntzak irudipen diren egiak eraikitzen ditu, hala direla ahaztu egiten bagara ere, eta, beraz, hizkuntza gai da jatorria ahaztu eta bertakotzen diren egiak sortzeko; hala esaten zuen Edward Saidek.

Alteritatea da «beste»aren lekuan jartzea; jarrera edo irudimena erabilia egiten den zerbait da. Gizakia ikertzeko, ikuspegi zabala izaten eta diferentziak behatzen ikasi behar da. Baina Mendebaldearentzat, «bestea» desberdina da, ez soilik diferentea. Arazoa ez da konpontzen «bestea» onartuz; aitzitik, harremanei dagokien arazo etiko-politiko bat sortzen da. Beraz, Mendebaldeko kultura-pluraltasunaren arazoa, funtsean, arazo etiko-politiko bat da. J.A. Jordán-ek honela dio:

Ingurune jakin eta errepikaezin batera egokitzeko mekanismoen emaitza da kultura. Kultura bakoitzaren elementuek (sinesmenek, jarrerek, trebetasunek eta abarrek) harremana dute beren artean barne-koherentzia baten baitan, eta esanahi bereziko izate sozial bihurtzen dute kultura; zaila da beste kultura baten ezaugarri jakinak ulertu ahal izatea, eta pentsaezina haiek epaitzea, noiz eta «gure» kulturean sortutako hipotesi mentaletatik abiatzen garenean. Portaera horren ondorioz argiena da kultura desberdinei buruzko konparaketari eta iritzi baloratzaileei egindako kritika. Azken finean, pentsamendu-lerro horren arabera, kulturak «motak» dira soil-soilik, eta inoiz ez «desberdinak» (Jordán, 1996: 22).

Beraz, arazoa ez da diferentziak izatea, baizik eta diferentzia horiek hierarkizatzea eta erdeinuz hartzea, kultura hegemonikoak ezarritako arautik desbideratzen direlako, beren arauak gainerakoei inposatuz. Talde menderatzaileak bere ezaugarri idealak inposatzen ditu arau definitzailetzat, eta desbideratutzat hartzen ditu bestelakoak diren guztiak. Buru den taldeak zapaldu egiten ditu, eta haien kulturetako balio- eta sinbolo-berdintasuna —edo baliokidetasuna— ukatzen die. Foucaultek deskribatu zuen gisan, normalizazioa edo normatizazioa da gure gizarteetako antolaketa sozial nagusia; hark esan zuen, ordea, antolaketa hori krisian zegoela, desagertzeko zorian, eta *kontrol-* (edo *autokontrol-*)gizarteak ordezkaturako zuela (Foucault, 1976: 85).

García Canclini-k indigenen eremutik egiten du gogoeta diferentziaz eta desberdintasunaz, baina oso ongi aplika daiteke beste talde batzuetara ere:

Desberdintasunaren arazo bat dago, batez ere, desberdintasun sozioekonomiko gisa adierazten dena. Eta diferentziaren arazo bat ere badago, nagusiki kultura-jardueretan ikus daitekeena. Mugimendu indigenetako aktoreek badakite desberdintasunak kultura-dimentsioa duela; eta diferentziak sortzeaz informazio gehien dutenek badakite diferentzia hori konfigurazio sozialeko prozesu historikoetan datzala, funtsezko bihurtutako ezaugarri genetiko edo kulturaletan baino gehiago (hizkuntza, edo oinordetzan hartutako ohitura aldaezinak). Desberdintasun sozioekonomikoa aldaezin agertzen zaien heinean, ordea, zenbait mugimendu etnikok diferentzia kulturaletan, edo baita genetikoetan ere, biltzera jotzen dute. Modu horretan, diferentzia kulturelek galdu egiten dute izaera soziohistorikoa; utzi egiten diote desberdintasunak hainbat modutan eragin zuen etapatan eratutako ezaugarri gisa agertzeari eta, beraz, baita etorkizuneko prozesuetan aldatzeko gai izateari ere. Sendotasunik handiena diferentzia kulturaletan dutela uste dutenek diferentzia horiek erabateko bihurtzera jotzen dute (García Canclini, 2004: 47).

Gizarte bateko taldeek beren diferentziak aitortzea nahi izaten dute, diferentzia horiek errespetatzea, eta baita baldintza ez hain desberdinetan bizitzea ere. Diferentziak aitortze eta babeste horrek garrantzia du kultura-mailan eta, batez ere, politika-mailan; izan ere, errespetu faltak eta aintzat ez hartzeak erresistentzia politiko gogorak sortzen ditu. Garapen-politikaren teorien oinarrian, diferentziak ezabatuz desberdintasunak gainditu ahalko zituztelako ustea zegoen, eta horretan oinarritu ziren arauak emateko, eta kulturak, pentsamenduak eta ohiturak homogeneousatzeko. Hori guztia barneratu egin da indigenen, immigranteen, gutxiengoan edo gutxietsitako taldeen sentimenean; ondorioz, talde horiek, askotan, beren diferentziak ezkututzen saiatzen dira, diskriminazioak saihesteko, edo, alderantziz, diferentzia horiek nabarmentzen dituzte, beren identitateak aldarrikatzeko eta desberdintasunak salatzeke. Pertsona horiek ez dira diferenteak beren izaera etnikoagatik soilik, baizik eta merkatuetako berregituraketa neoliberalak desberdintasunean eta bazterketan oinarritua egoteagatik. Albak honela dio:

«Zibilizazioen arteko gerra» izango da, beste behin ere, azalpen teologikorik sinpleena arazoa «konpontzeko»; alegia, gu geu ez garela arazo sinesten jarraitzeko; azalpen hori da arazo guztien konponbide neurotikoa den autosugestia. Beste behin ere, ordea, neurosi horrek propaganda-, polizia- eta lege-mekanismoak ditu inposatzeko; eta herritarren babesa bermatzen duen egitura enpiriko moduko bat ere bai —langabeziari, delinkuentziari eta, orain, terrorismoari loturiko immigranteen presentzia—. Aldi berean, neurosi armatu horrek immigrantearen defentsa-paranoia aktibatzen du (eta arrisku orokorra areagotzen), eta azken horrek, bere aldetik, bere kontra hartutako neurri guztiak errepikatu eta legezkotzat jotzen ditu (Alba, 2006: 259).

Hiztegiatan, *migratzaile* terminoa modu honetan definitzen dute: «bere herrialdea edo herria utzi eta, aldi baterako, beste batean finkatzen edo bizitzen jartzen dena». Hau da, aldi baterakoa eta espazioari dagokiona izatea dira beharrezko baldintzak. Termino hori, ordea, ez da beti modu horretan erabiltzen. Gaur egun, diferentzien eramaile izateak edo

«gutarra» ez izateak definitzen du immigrantea. Mendebalekoak ez diren pobreei eta beste leku batzuetako jatorria dutenei ematen zaie, ia beti, izen hori; eta horrela, Frantzia batez ere, bigarren edo hirugarren belaunaldiko immigrantea terminoa erabiltzen da. Gu eta zu, gu eta haiek bereizten dituen lerroa, askotan, aztertu gabeko aurreiritzietan oinarritzen da: antzinako guduak, bidegabekeria historikoak eta administrazio-egintza soilak. Delgadok honela idazten du:

Begi-bistakoa da: ez «immigrantea» ez «gutxiengo kulturala» ez dira kategorია objektiboak; estigmatizazioaren zerbitzura dauden etiketak dira, «bestea» edo «diferentea» den horren presentzia azaltzeko helburuz erabiltzen diren ukapenezko ezaugarriak, non eta mundu guztia diferente eta *beste* den testuinguru horretan. «Etniko», «immigrante» edo «beste» deitu zaien pertsona horiek sistematikoki behartu egiten dituzte azalpenak ematera, eta zer egiten duten, zer pentsatzen duten, zer erritu dituzten, zer jaten duten, nolako sexualitatea duten, zer erlijio-sentimendu dituzten edo unibertsoaz zer ikuskera duten justifikatzera; guk, «normalak» garenok, erabat ukatuko genuke oso hurbilekoa ez dugun norbaiti datu edo informazio horiek ematea. Etnikoki edo kulturalki «beste» den horrek eta «immigrante» izeneko horrek, ordea, ez du horrelako eskubiderik. Haiek berek bilatu behar dute modu bat «ulertuak», «onartuak» eta «integratuak» izan daitezen. Haiek berekin bizi den jendearen erruki morala behar dute, eta antiarrazistek eta antropologoek frogaz dezatela «ez dutela kalterik egiten», edo «berez onberak» direla tradizio bitxi eta primitibo baten baitan. Hori guztia egin behar dute besteak bezalako ez izatea barkarazteko eta, batez ere, gainerakook desberdinak ez bagina bezala, heterogeneoak, exotikoak eta ohiturarik nabarmenenak adieraztekoak. Borondate oneko antiarrazistek eta «kultura gutxiengoetan» edo «immigrazioan» espezializatutako antropologoek, azken finean, poliziak kalean «legez kanpoko» eta «paperik gabeko» atzerritar izatearen susmopean erasoan hartutakoekin egindako gauza bera egiten dute: haren identitateaz interes handia dute, kosta ahala kosta zein den jakin nahi dute, aurrez bazekitena baieztatu ahal izateko: ez dela eta ez dela inoiz izango gu bezalakoa (Delgado, 2002).

Batzuentzat norberaren eta gizartearen garapenerako aberastasuna eta sostengua dakarren pluraltasuna edo aniztasuna dena arazo bihurtzen da beste herritar batzuentzat. Sailkapenek, estereotipoek, aurreiritziek edo etnozentrismoak kalte handia egiten diete ustez «ondo eratutako eta informatutako» gure gizarteetako pentsamoldeei. Ryszard Kapuscinski-k honela dio: «Planetako biztanle guztiok “Beste” gara “Beste”en aurrean»; eta gizakia bere antzekoarekin —«beste»arekin— elkartzeak honako hau sortuko du:

Geure espeziearen esperientzia oinarrizko eta unibertsala, eta XXI. mendean ezin saihestuzko erronka bat. Harekin topo egiten dugunerako, hiru aukera daude: aurre egitea, harresi baten atzean bakartzea, edo elkarriketa bat hastea. (...) Aurre egiteak agerian uzten du gizakiaren porrota; besteekin ulertzera



iristeko gaitasunik eza azaltzen du, eta zalantzan jartzen du gizakiaren ontasuna eta inteligentzia (Kapuscinski, 2006: 15).

Autore horrek ispiluaren teoria garatu du: «bestea» niaren isla da; neure burua ezagutzeko bidea. Berdinak izateaz gainera —gaineratzen du—, bata bestearen arduradun gara, gu elkartzearen baitan baitago Ongia lortzea.

Europako hainbat herrialdetan polemika handia pizten ari da islamdar beloaren gaia (edo fularrarena, Seyla Benhabib-ek esaten dion gisan —Benhabib, 2005—), kultura-diferentziak agerian jarritz, «beste» horietan eremu pribaturako utzi nahi diren sinboloak erabiliz; haiek utzi zituzten, ordea, sinbolo horiek, aktore publiko bihurtzeko, herritarrei eta Estatuari aurre eginez espazio publiko zibil batean. Islamdar beloaren gai hori zapalkuntza-adierazle gisa sinplifika daiteke. Ez al dira ba gorputza eta sinboloak erabiltzen, eskubide kulturalak eta pertsonalak agerian jartzeko eta aldarrikatzeko? Irakurketak anitzak izan beharko lirarteke, ekintzen antzera.

Gure gizarteak askotarikoak eta guztiz desberdinak dira. Hainbat prozesu historikoren emaitza diren desberdintasun horietan nahitaez egon behar dute berdintasunari edo diferentziei dagozkien programak eta politikak, askotariko diskriminazioei aurre egiten dieten hainbat talderentzat.

«Berdintasuna eskatzeko eskubidea daukagu, desberdintasuna barnera sartzen baitzaigu; diferentziak aldarrikatzeko eskubidea daukagu, berdintasunak ezaugarritzen ez gaituenean, estaltzen edo ez ezagutzen gaituenean» (CEPAL, 2004).

Desberdintasunaren oinarriak eraikitzen diren gizarte-banaketa posibleen artean daude emakumeei eta gizonei dagozkien ezarritako banaketak. Genero-harremanak deritzegu. Generoaz hitz egitea «maskulino»aren eta «femenino»aren gizarte- eta kultura-eraikuntzaz aritzea da, gizarte eta une historiko jakin batean. Generoa da gizarte guztietan den gizarte-banaketarik handienetako bat; lan-munduan islatzen da, bereziki, modu zuzenean, oinarri horren gainean eratzen baita, besteak beste, laneko sexu-banaketa. Desberdintasun horiek beste desberdintasun eta hierarkia sozial batzuk eratzeko prozesu orokorraren baitan ulertzen eta oinarritzen dira; eta desberdintasun horietako asko diferentzia biologikoen gainean mantentzen dira.

Cristina Carrasco ekonomialariak kontzeptuzko haustura bat eta ikuspegi-aldaketa bat proposatzen du, lana aztertzeko ohiko formei dagokienez, lana eta enplegua berdintzat jotzea gainditze aldera. Emakumeek eta gizonek lanari dagokionez historikoki bizi izan duten esperientzia erabat desberdina izan dela azaltzen digu; batzuen eta besteen bizi-zikloak bide oso desberdinetatik igaro dira, eta jarduera eta ardura desberdinak hartu dituzte beren gain. Hori dela eta, lanari buruz eskuarki erabiltzen den kontzeptualizazioa kultura patriarkal baten ikuspuntutik landu izan da; hain zuzen ere, emakumeek egindako jarduerak ezkutatu dituen eta sozialki gizonei esleitu izan zaien jarduera bat (alegia, merkatu-lana) soilik balioetsi duen kultura bat. Horren ondorio izan da lana eta enplegua berdintzat jotzea.

Ikerketaren arreta migrazioetan jarrita, beharrezkoa da gertaera horrek bai iritsiera-herrialdeetako egituran bai jatorriko herrialdeen egituran duen eragina aztertzea. Kontuan izan behar dira, halaber, gizarte hartzailearen erantzunak eta migrazio-taldeetan horrek izandako ondorioak edo eraginak. Generoari, klaseari, etniari eta mundu-mailako tokiari dagozkien bereizketak desberdintasuneko gizarte-harremanen eremuan eraikitako diferentziak dira, eta estratifikazio- eta bazterketa-kategoria bihurtzen dira.

Generoak «femenino»tzat eta «maskulino»tzat definitzen ditu hainbat lanpostu (hau da, enpleguen sexu-estereotipoan esku hartzen du), eta, beraz, boterearekin ere badu zerikusia: gizonen menderatzea eta emakumeen mendekotasuna, hain zuzen, lan-prozesuan eta gizarte kapitalistako beste esparru batzuetan errepikatzen dena.

«Etnia» terminoa kulturari buruz ari da. Talde etniko jakin batek, eskuarki, partekatu egiten ditu ohiturak, hizkuntza eta erakundeak. «Etnizitate» terminoa «arraza» terminoa ordezkatzeko hartu zen, azken hori biologikoari buruz ari baitzen. Baina, gaur egun, politikoki edo ekonomikoki handiagoa den talde etniko batek estereotipoak ezar diezazkioke beste bati, eta ezaugarri fisiko bereiztaileekin bat etorri. Horrek gizarte berean gutxiengo bihurtzeko dezake, edo ekonomikoki eta politikoki mendeko izatera eramanez. Etnia *baztertzeko / barnean hartze* ikuspegitik hartu izan da. Beraz, garapenean eta gizarte-desberdintasunetan arreta jarri duten ikerketek material asko ekarri dute, gai horri dagokionez.

Nabarmentzekoa da gizarte-bereizkeria kontzeptua ere. Kontzeptu horrek etnia- eta «arraza»-gutxiengoak kokatzera jotzen duten ekintzen eta arautzeen eremuan kokatzen gaitu. Bigarren mailako kokagune horiek eragin okerrak dituzte gutxiengo horientzat; modu horretan agertzen da diskriminazioa, eta gutxiengo horiei aukera, eskubide eta askatasun gutxiago ematen zaizkie. Kontzeptu bera erabil liteke sexu-diferentzian finkatutako asimetria dakarten genero-harremanetarako ere. Eta, alde horretatik, berriz ere, ageriko nahiz ezkutuko gertakariak nabarmendu daitezke, edo zuzeneko edo zeharkako diskriminazio deritzona.

Inperio kolonialetako sistema politikoa, zentzu hertsian, iraganean finkatuta geratu bazen ere, haren ondorioak agerian daude inperialismo ekonomikoaren eta politikoaren molde berrietan; eta kapitalista neoliberalak dira molde horien buru, munduko bazter guztietan. Neoliberalismoak azken bi hamarkadetan eraiki dituen gizarteak okerragoak dira haren aurrekoak baino, zatituagoak, polarizatuagoak eta bidegabeagoak. Munduko gizon-emakumeak etengabeko gerra-, ekonomia-, lan-, gizarte- eta ekologia-mehatxupean bizi dira gaur egun. Globalizazio neoliberal ezagunak ondorio makurrak ditu, oro har, herritarrentzat, eta, bereziki, emakumeentzat. Pobrezia handiagoa dago, erantzukizun gehiago, beste migrazio modu batzuk, beste kontrol modu batzuk, eta biolentzia gehiago. Alde horretatik, Egiptoko Samir Amin ekonomialariak honela ohartarazten du:

Kapitalismoa hedatzeak ez dakar garapenarekin bat egin dezakeen inolako emaitzarik. Esate baterako, inola ere ez dakar enplegu osorik, edo aurrez zehaztutako berdintasun-mailarik errentaren banaketan (Amin, 1999: 30).

Idea kolonialistak, gaur egun, garapenaren eta «azpigarapenaren», edo garapen bidean diren herrialdeen izenean dirau. Desberdintasuna gure sistema kapitalistatik ezin bereizizko zerbait bilakatu da. Etengabe parekatzen, sailkatzen eta hierarkizatzen da garapenaren datuekin, eta badakigu edozein sailkapen motak erredukzionismoa dakarrela. Norabide bakarreko urrerakoitasuna Mendebaldeko pentsamenduaren korronte iraunkorrenetako bat da. Hainbat aurkezpenetan eta askotariko helburuekin, tesia berbera izan da funtsean: gizadiak lerro zuzenean eta gorantz aurreratzen du gizalegerik ezean, iruzurkerian eta pobrezian, zibilizazioari, zientziari eta ongizateari dagokion beste gizadi baterantz. Funtsean, garapenaren ideia eboluzionistari eta aurrerapenaren Mendebaldeko ereduari eusten zaio.

Zaila da kultura-diferentziak aitortzea, ezaugarri iraunkor, itxi eta aldaezintzat jainkotu gabe, eta ulertzea noiz eta nola erabiltzen diren diferentzia horiek desberdintasuna legitimatzeko. Kultura-diferentzia gehiegi nabarmentzearen ondorioz integrazioari oztopo egiteak ez du uzten agerian jartzen gizarte-harreman desberdintzaileen eremuan sortutako diferentzietan dautzala gizartean bete-betean parte hartzeko zailtasun errealak; diferentzia horiek indarrean den legedian eta lan-merkatuan gauzatzen direlarik. Modu horretan, Carmen Gregoriok baieztatzen duen gisan, egiturazko diferentzien «kulturizazioa» gertatzen da eta, ondorioz, kulturak bere egin dezake desberdintasunen funtzio legitimatzaile bat. Kulturen ordezkaritza horiek — erakunde homogeen gisa eta zurrundutako ohituren bidez, botere-harremanak alde batera utzirik— kultura-fundamentalismoei bide ematen die, zeinak taldearen identitatearentzat mehatxutzat hartzen baitituzte emakumeek beren bizitzari lotutako jarduerak eraldatzeko egiten dituzten ahaleginak. Eta, emakumei komunitatearen ugaltzaile eta gizarte-ordenaren zaintzaile funtzioa ematen zaienez, gizarte- eta kultura-desintegrazioaren erantzuletzat hartzen dituzte.

Komeni da gogoan izatea kultura baliabide bat dela gizarte-aktoreentzat. Bizirauteko baliabide bat da, eta baita botere-harremanek zeharkatutako indar-eremu batean hegemonia lortzeko baliabide bat ere. Ildo horretan, gizarte hartzaileak, gero eta immigrante gehiago dagoenez, bere kultura-osotasuna eta -kohesioa galtzearen beldurrean oinarritutako diskurtsoak eta sentimenduak eragiten ditu.

Kultura-diferentziak gudu-zaldi dira «integrazio» multikulturalari dagozkion jardueretan; askotan, kultura-erlatibismo harrigarri bat eragiten dute, zeinak kolonia garaiaren ondoko imajinario herrikoien oinarritik eraikitako diferentziaren barnean kaiolatu nahi baititu emakume horiek (Suárez-Navaz, 2008: 32).

Jarrera horiek kolonia-garai ondoko boterearen korapilo partikularraren isla dira; genero- eta identitate-etnokulturalen arteko artikulazio konplexuan dituzten ondorioen isla; eta «diferentzi»en sailkapen- eta hierarkizazio-teknikek egungo testuinguru neoliberean presente irauteko moduaren isla.

Betidanik, kulturak aldakorak eta malguak izan dira, eta hala dira gaur egun ere; kultura-osotasunak ezin du ardatz gisa inolako erritu edo praktika izan; bereziki, emakumeei kalte egiten badie, moduren batean. Kultura-jarduerak faktore geografiko, ekonomiko, politiko eta ingurumen-faktoreen emaitza gisa sortzen eta gotortzen dira; baina moldatu edo desegin ere egin daitezke. Jarduera horiek botere politiko eta ekonomiko asko baliatu badute, aldaketaren aurrean erresistentzia handiagoa eta prestasun txikiagoa ager dezakete. Sustapen-egiturak aldatzen badira, identitate, praktika, jarraibide eta esanahi kulturalak modu malguago eta irekiago batean eraldatu eta berrasmatu daitezke. Ideologia askotako ahots kontserbatzaileek aniztasuna errespetatzeko eskatzen dute, ordena bidegabe hori begiratzeko; izan ere, kulturantzutasunak emakumeak beren ohitura eta usadioen fosil bizidun bihurtzen ditu, eta haien gizon adoretuek, berriz, borroka egiten dute, elkartu egiten dira, negoziatu egiten dute, birrindu eta aldatu egiten dira, eta birrindu egiten gaituzte.

Menderatze patriarkalak erakunde guztiak zeharkatu eta biolentziak eta bazterketak sortu ditu, milaka urteren buruan, gizon-emakumeen desberdintasunen erantzule gisara, eta menderatze politiko, kultural, sozial eta ekonomikoki instituzionalizatutako gisara; bai eremu politiko, juridiko edo legegilean, bai aberastasunerako, hezkuntzarako, osasunerako, enplegurako edo teknologiarako sarbidean. Generoa botere-harremanek erabakitako prozesu bat da. Berregituratze orokorreko prozesuetan generoa eta boterea ikusgarri bihurtzeak honako honetara behartzen du: balioa galdutako langile emakumeak klasearen eta etniaren arabera begiratzea, izendatzea eta ikustea.

Onartu eta ezarri diren Atzerritarren hainbat Araudiri esker, bazterkerian oinarritutako esparru juridiko bat sortu da, zeinak lehenengo eta bigarren mailako herritarrekin osatutako gizarte-eredu bat zehazten baitu. Europan immigrazioaren aurrean eta beste kultura batzuen inguruan kokatzeko modua, hasiera-hasieratik, tolerantziarik ezak, bidegabekeriak (arauak inposatuz), arrazismoak (nagusitasun biologikoa finkatuz) eta etnozentrismoak (kultura-nagusitasuna baieztatuz) markatu dute.

Izan ere, herrialdeen arteko prozesuetan, ezin da saihestu herrialde horien boterea, erabakigarria izango baita herrialde igorleek eta hartzaileek boterearen hierarkiaren barruan betetzen duten lekua. Aurretik, biztanleria igortzen zuten herrialdeak zirela boteretsuenak esaten zen. Orain, ordea, aldatu egin da fluxuen noranzkoa, eta Europako herriek (tradizioz migrantzaileak) “gutxiago garatutako” herrialdeetako taldeak jasotzen dituzte; zeinek, bere garaian mendekotzat hartuak izan ziren.

Eskulanaren etnizazioa areagotu egin da, Mendebaldeko «periferia»ko herrialdeetako immigranteei esker; haiek osatu dute «immigrante» kategoria, eguneroko bizitzan balioa galdu eta bertakotu dutena. Kulturen hizkuntzak abantaila ugari gehitzen dizkio arrazismo biologizistan oinarrituriko eta izen ona galdutako hizkuntzari; termino horrek bere baitan hartzen ditu irizpide etnikoak eta klasistak ere. Ez da kasualitate hutsa termino hori erabiltzen denetik «maila soziala» terminoa desagertuz joan izana, gatazkak sektoreen artean eta kontrako interesekin aztertzeke eta hitz egiteko orduan.

Gizarte-dualtasuna eskandaluzko mailetara iritsi da; berdintasun demokratikoari edozein unetan ken diezaiokete mozerroa, fikzioa balitz bezala; arrazismoa inoiz baino gehiago ari da laguntza ematen lan-indarra egituratzeko...; eta, horren guztiaren aurrean, sailkatzeko gailu nagusiak aldatzen eta gutxitzen saiatu diren beste gutxiengo horrekiko, ez da justizia gehiago eskatzen, baizik eta ulermena eta nolabaiteko kidesun estetiko pixka bat (Delgado 2007: 215).

Ustezko homogeneousuna eta bere egokitasuna barneratzeak —gizarte-konstruktio garbiak— uko egiten dio aniztasunak eta nahasketak menderatutako programa bat onartzeari; nahasketa horrek arazoak besterik ez dakar ez-mendebaldekoari dagokionez, eta, hierarkia-arazo batez ari garenez, baita gizartean menpeko mailak betetzen dituzten haienganako ere. Ez da, ordea, atzo goizeko kontua; izan ere, historiari erreparatzen badiogu, immigrazioa onuragarritzat hartzen duten herrialde askotan, estatu-nazio gisa eratzeko prozesuan, emigranteak iritsi eta kokatzearekin batera (nagusiki gizon europarrak), bertako biztanleak eta haien bizitzeko moduak sustatzeko politika ezarri zuten; edo, bestenaz, existitzen ziren herrien segregazioa, betiere europar eredu antropologikotik urruti zeudenena.

Gizarteak pertsonak eta haien ezaugarri arruntak eta naturalak kategoriatan sailkatzeko bitartekoak ezartzen ditu. Litekeena da, arrotz baten aurrean gaudenean, hasierako itxurek bide ematea zer kategoriatan dagoen eta haren ezaugarriak zein diren aurreikustea; hau da, haren «gizarte-identitatea» hautemateko. Goffman-ek zion bezala:

Arrotzak besteengandik bereizten duen eta hain gustagarri bihurtzen ez duen ezaugarri baten jabe dela erakuts dezake. Hura pertsona oso eta arrunt gisara ikusteari utziko diogu ordutik aurrera, eta kutsatutako eta gutxietsitako izaki modura hartuko dugu. Modu horretako ezaugarri bat estigma da, batez ere, besteengan izen-galtze zabala eragiten badu (Goffman, 1963: 11).

Arrotzak —ezezaguna eta guk ezagutzen dugunaz bestelakoak—, maiz, produkzio zientifikoa erakarri izan du eta, aldi berean, bestea edo diferentea dena ulertzeko (kolonizatzeke) parametro gisa balio izan du. Arazoa dator diferentzia desberdintasun bihurtzen denean, biak izanik (hala diferentzia nola desberdintasuna) gizarte-erakuntzak.

Gure aurrean dugun norbanakoaren gaineko hipotesi zehatzak sortzen ditugu etengabe. (...) Norbanako horri egozten diogun izaera karakterizazio gisa hartu

behar genuke «funtsean», gizarte-identitate birtual gisara. Froga daitekeenez, hari dagozkion kategoria eta ezaugarri horiek haren gizarte-identitate errealtzat hartuko dira. Ezaugarri desiraezin guztiak ez dira eztabaidagai, baizik eta norbanako horiek izan behar dutenaz guk dugun estereotipoarekin bat ez datozenak soilik. Modu horretan, izena erabat galarazteko ezaugarri bati erreferentzia egiteko erabiliko da estigma terminoa (Goffman, 1963: 12).

XX. mendearen bigarren erdialdean, munduko biztanleen bi heren kolonien uztarritik askatu eta estatu independenteetako herritar libre bihurtu ziren, ikuspuntu formal batetik behintzat. Ordutik aurrera, pertsona horiek beren iragana aurkitzen eta aldarrikatzen hasi ziren, beren mitoak, kondairak, sustraiak eta identitatea; eta, azken hori aurkitu eta onartzean, harro sentitu ziren. Pertsona horiek beren etorkizunaren jabe zirela sinesten hasi ziren, eta bidegabetzat jo zuten objektu, extra eta antzinako besteren menpeko biktima pasibo izatea. Europak, bere eurozentrismoan itsututa eta tematuta, aurre egiten dio pribilegioak galtzeari; nahiago du ez ikusi gure planetan izan direla eta badirela beste zibilizazio garrantzitsu, aktibo eta dinamiko batzuk, munduko mahaietan leku bat egiteko lehian ari direnak. Kapuscinskik azaltzen duen bezala:

Erronka handiko aroa da Europarentzat, beste leku bat aurkitu behar baitu mahai horretan. Mahai horretan ez da lehen bezala gehiago eseriko, eskusibotasunaren printzipioari jarraituz, lehen bezain xahutugabe eta ahalguztidun (Kapuscinski, 2006: 61).

Mendebaldeak badaki Hegoa-Iparra migrazio-fluxuak bere horretan jarraituko duela datozen urteetan; ez dela nahi izatekoa bertako biztanleen gainbehera demografikoan ere etetea; eta soilik immigrazioari esker ari dela gainbehera hori gainditzen. Badaki, horretaz gainera, kokatu diren «beste» horiekin bizi beharko duela; baina, Sophie Bessis-ek adierazten duen gisara: «ikusezin izateko eskatzen zaie, egunero beren alteritatea gogora ekartzen dien gehiengo batean oinarrituta» (Bessis, 2002: 189). Eta ez da ezer egiten Hegoaldeko biztanleak beren herrialdeak uztera bultzatzen dituzten mundu-mailako arazoak konpontzeko. Migrazioa ez da giza garapenari dagokion estrategia bat jatorriko herrialdeentzat. Herrialde batzuekin (Ekuadorrekin edo Marokorekin, esate baterako) gauzatu diren aldeko akordioak iritsierako herrialdearentzat soilik dira onuragarriak, eta desberdintasunak areagotu besterik ez dituzte egiten.

## I. ATALA

---

### MARKO POLITIKO-KULTURALAREN SARRERA

Kapitulu honek azken mendeotan Europa-mailan izandako migrazio-politiken ikusmoldea eskaintzen digu; immigrazio horrek hainbat herrialdetako industrializazio-prozesuaren eta sistema kapitalistaren beharrei erantzuten diela azalduko zaigu, langile-klasearen berrantolaketa aurrera eramanez, kontrol-mekanismoen bidez eta gaur egun hainbat legek babestutako debaluazioaren bidez. Horren jarraian, Espainiako estatuan Atzerritarren Legeak duen aplikazioaren deskribapena eta analisisia datoz. Segidan, lege horren eraginaren azterketa bat eskaintzen zaigu; immigratutako pertsonen helburuak murrizten dituzte, baina pertsona horiek aurre egiten diete politika diskriminatzaile eta segregazionista horiei. Kapituluak aukera ematen du, gero, immigranteak menpean hartzen dituzten kontrol- eta normalizazio-gailuei heltzeko, autore hauen interpretazioetan oinarrituta: Michael Foucault, Zygmunt Bauman, Liliana Suárez, Carmen Gregorio, Manuel Delgado eta migrazio-ikerketek ekarpen baliotsuak egin dizkieten beste hainbat ikertzaile. Kapituluaren amaieran, hiritartasuna eta giza eskubideak migrazio-markoan gaiari buruzko egungo debateetako alderdi batzuk bildu dira, eta baita horiek marko demokratikoan agertzen dituzten gabeziak ere.

Nomadismo tradizionala, eta tradizioz ijitoek egin izan dutena, arazo sozial bilakatu da, eta sedentarizazio-politika zabaldu da biztanleria gehiago kontrolatu ahal izateko; aldi berean, beste sektore batzuen mugikortasuna sustatu da, eta «hiritar nomada»<sup>21</sup> (Pérez-Díaz, 2011) gehiago eskatu dira, beste leku batzuetara aldatu eta han bizitzeko gai direnak.

Fenomeno hori gertatzearekin batera, beste sektore bati ateak ixten zaizkiola dirudi, mugak ixten zaizkiola, eta Afrikatik datorren edo irits daitekeen jendearen aurrean hitzaldi asaldatzaileak sortzen dira. Bizitzaren paradoxak, edo ez hainbeste, guztiek erantzuten baitiote kapitalaren helburu orokor bati: hain zuzen ere, langile-klasea berrantolatzea, sistemak ahalik eta onura gehien lortzen jarrai dezan; eta bitartean herritarrak matxinadarik gabe edukitzen saiatuko dira, haietako zati garrantzitsu bati lan-baldintzak txartu bazaizkio ere.

Gaur egun milioi eta erdi espainiar bizi da atzerrian, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera (1.471.691 emigratzaile, 2009ko urtarrilaren 1ean). Gehienak Argentinan, Venezuelan, Alemanian, Suitzan eta Brasilen kokatzen dira. % 60 Amerikako kontinentean eta % 38 Europan. Horri gehitu behar zaizkio urtero aldi baterako ateratzen diren hamar milioi pertsona, ikasketengatik, negozioengatik, GKE-etan edo hainbat enpresetan lan egitera, familia-kontuengatik, edo beste arrazoiren bat

---

<sup>21</sup> Víctor Pérez-Díazek erabilitako terminoa.

tarteko, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak jasotzen duenaren arabera. Iraganaren eta orainaren argazki bat eskaintzen diguten datuak dira. Etenik gabeko mugikortasunaz hitz egiten diguten datuak, zeina batzuentzat mugikortasun baxuegia baita, Europako beste herrialde batzuekin edo AEBekin alderatzen badugu; izan ere, azken horiek erreferentzia-puntu ekonomikoak dira, gure buruzagi askorentzat.

Europak kolonizatutako lurraldeetara bidali zuen bere jendea, hango proiektuetan lagundu zezaten urte luzeetan zehar. Gero, Europan edo nazio-mailan mugitzeko garaia iritsi zen, herrialde batzuetan eta besteetan gertatu ziren industrializazio-prozesu bereziak kontuan hartuta. Beraz, mugimendu horien ezaugarri nagusia Hegotik Iparrera izango da, han izan baitzen industria-garapenik handiena. Frantzia, Alemania, Suitza eta Ingalaterra dira garai hartan migrazio-gehien jaso zuten herrialdeak, kanpoko eskulana iristea nahi izan baitzuten, bertako eskasia erremediatzeko. Guztiek kontrol-mekanismoak ezarri zituzten herrialdearen sarreran eta egonleketan; eta kategoria ezberdineko herritarrak sortu zituzten, maila ekonomikoan, sozialean eta politikoan.

XX. mendearen erdialdetik aurrera, Mendebaldearen hazkunde ekonomikoarekin eta deskolonizazio-prozesuekin batera, migrazio-uholde indartsu bat gertatu zen herrialde kolonizatzaileetara, komunikabideen aurrerapenetan oinarrituta, haiek areagotu baitzituzten pizgarriak beren jatorrizko herrialdeetan ez zituzten aukera ekonomikoak bilatzeko, hauek beren baliabide naturaletatik espoliatuak izan bai ziren. Garraio-gaietako eraldaketek mugikortasuna erraztu, azkartu eta merkatu egin zuten. Eraldaketa horiek garrantzi orokorra hartu zuten, eta migrazio-mugimenduetan eragin nabarmena izan zuten. Ekonomia nazioartekotu egin zen, XX. mendearen azken hamarkadetakoa zeinu nagusi bihurtuz. Baina hazkunde ekonomikoa desoreka izugarri batekin gertatu zen. Hegoaldeko herrialdeek garapen ez oso handi bat izan bazuten ere, gutxi gorabehera prestatuta zeuden langilez husten hasi ziren. Hain polemikoa den Samuel Huntington-ek ere honela adierazi zuen:

Mendebaldearen hazkunde ekonomikoak eragin zuen immigrazioa XIX. mendean, eta Mendebaldekoak ez diren gizarteetako garapen ekonomikoak eragin du emigrazioa XX. mendean (Huntington, 1996: 237).

Azken hamarkadetan orokortu egin dira jarduera ekonomikoen nazioartekotzea eta kapitalaren mugikortasuna. Herritarren mugikortasuna, ordea, eskatu egiten badute ere, Mendebaldeko herrialdeetako migrazio-politikek mugatu egin dute. Horrek azaltzen du nazioarteko migrazioa, garrantzi politikoa duen gertaera bada ere, kontrolatu nahi izatea, irabazi handiko kudeaketa ekonomiko baterako.

Mendebaldeko herrialdeetan jaiotza-tasa murrizteak, emakumea, ordaindutako lan-munduan sartzeak, higiezinaren eta nekazaritzaren sektoreari lotutako goraldi ekonomikoak, eta erakunde publikoko inbertsio-urritasunak gizarte-zerbitzuetan emakumeek utzitako hutsune eta gizonen bete edo partekatu nahi izan ez dituztenak, horrek guztiak beste herrialde batzuetako gizon-emakumeen eskulanaren beharra sortu du; horrek, nazioarteko politikek eragindako desoreka handiekin batera, inoiz ez



bezalako nazioarteko migrazio-mugimendua sortu du. Munduko herrialde industrializatuetera migratutako pertsonak ehun milioi baino gehiago dira, biztanleriaren ia % 9 izanik. Mendebaldeko European, immigranteak % 10 baino gehiago dira. Suitzan, biztanleriaren laurdenak jatorri atzerritarra du.

Migrazio-politiken kudeaketa langile-klase egoki diziplinatu bat sortzera bideratu da, biztanleria hori kategorietan sailkatzeko eta desberdintzeko mekanismoen bidez. Europako Erkidegoko eta Erkidegoz kanpoko, dokumentatu eta dokumentatu gabeko, guztiek partekatzen dute bertako biztanleekin ekonomiaren gorakada sektore askotan, baina bidezkoa ez den ondasunen banaketarekin. Immigrazioa izan da hazkunde ekonomikoaren osagai garrantzitsuenetako bat, eta oztoporik gutxiena jarri duena lan-hobietara lekualdatzeko. Aldi berean, ezaugarri oso baliotsuak azaldu ditu kapitalismoaren interesetarako.

Kontrol-gailu eta biztanle immigratuei eskubideak ukatzeko taktika ugari jarri dira abian oparoaldi ekonomikoaren garai guzti horretan. Horren erakusgarri dira 1985ean onartutako Atzerritarren Legea (ondorengo aldaketak, araudiak eta dekretuak kontuan hartuta), immigranteen gizarte-integratiorako planak, horrekin loturiko hainbat erakunde publiko sortzea, hitzarmenak eta nazioarteko konferentziak.

Immigrazio irregularren ustezko borrokak, kanporatzeko aginduak —bete edo ez bete—, barneratze zentroen sorrera, ohiz kanpoko legezkatzeak, errotzeagatiko erregularizazioak, mugetako polizia-kontrola sendotzeak, harresiak eraikitzeak, mugak kanporago ateratzeak Afrika Plana onartuz, Mediterraneo hegoaldeko herrialdeetan atxikitzeak zentroak eraikitzeak, ixun ekonomikoak, prozeduraren emaitzenkin zerikusirik gabeko zerga administratiboak, tituluak homologatzeko zailtasunak, aldi baterako edo luzerako txartelak, inbasio-arriskua erakusten duten diskurtso eta irudiak, eta beste hainbat mekanismo ezarridira. Guztiak ez dira, itxura den bezala, migrazio-fluxuak murrizteko erabilitako taktikak, baizik eta helburu jakin batzuk dituzten kontrol bideak.

Segurtasuneko gorputz publikoek edo zaintza pribatuko agenteek egindako gehiegikeriak, delinkuentziaren goraldia immigrazioarekin lotzeko manikeismoa, edo akatsen bat egin duenaren jatorria azpimarratzeak dira diferentziak nabarmentzeko erabilitako beste elementu batzuk.

Aldi berean, Atzerritarren Legearen eta jarduera administratiboaren arteko desadostasunak, edo horiek aplikatzeko permisibitateak edo malgutasunak bide ematen dute paperik gabeko immigrante talde batek irauteko, biztanleria zertxobait ahaltsuagoak bete nahi ez dituen lan-zokoak bete ditzan. Burokraziak eta paperak lortzeko itxaron beharraren, edo bete gabeko lan-kontratuetako promesen ondorioz, kasu askotan, immigranteek beste adiskide batzuen elkartasunari esker bizirauten dute, nahiz eta haiek ere ez egon egoera arrakastatsuan. Immigrante askok hirietan ugaritzen ari diren jantoki sozialetara jotzen dute, egonaldia zenbait gauek mugatzen duten

aterpetxeetan lo egiten dute, etorkizun gertu batean guztia aldatuko dela amesten dute, aukera baten itxaropena dute; beren erresistentzia, ordea, ahultzen joaten da, eta gero eta gizarte-laguntza murrizagoetan harraskatzen dute. Azken finean, botere-harremanen diziplina-elementuak dira.

Paperdunak edo paperik gabeko eskulan immigrante horrek, elikatu du, egoera ezegonkorrean diren emakume eta gazteenekin batera enpresaburuaren, espekulatuzaileen eta bankuen esplotazio-gurpila; horiek izanik gaur egun bizitzen ari garen atzeraldira eta finantza- eta ekonomia-krisialdira eraman gaituztenak.

Legez kanpoko immigrazioaren aurkako ustezko borrokaren diskurtsoaren bidez, immigratzaileen debaluaziorako hainbat mekanismo erabiltzen dira; alteritatea edo «beste» «gutxiago»tzat edo «atzeratu»tzat hartzean oinarritzen dira, edo mespretxuzko terminoetan, jarrera baztertzailak barneratuz. Modu berean, Mendebaldeko herrialdeen eta immigratzaileak datozen kanpoaldeko herrialdeen arteko prozesu kolonial eta postkolonialen ondorioz mantentzen diren menpetasun ekonomiko eta politikoen «beste» horrekiko desberdintasunak justifikatzen dituzte, etnia- edo nazionalitate-arrazoiak direla-eta kondenatuz.

Gure gizartean nagusi den diskurtsoak, maiz, migrazio-fenomenoaren ikusmolde negatiboa transmititzen du. Testuinguru gatazkatsuak azpimarratzen ditu. Diskurtso hori, eta bereziki diskurtso politikoa, ez da errugabea. Alderantziz, errealitatea modulatu du. Subjektua objektu bihurtu nahi du; pertsonak beren konplexutasunaz eta subjektibotasunaz desjabetu (sentimenduak, nahiak, desirak), eta gizartearen ustezko beharren mende jarri behar diren makina-izaki bihurtu nahi ditu. Beharrezko denean eta behar den lekuan lan egin, eta alde egin behar ez dituztenean. Diskurtso simple eta jaurtitzaila da. Askotan, immigrazioa kontrolatzeko beharra azpimarratzen du; immigrazioaren irudi estereotipatuak proiektatzen ditu, bizikidetzari buruzko albiste positibo gutxirekin. Talde ezberdinak homogeen bihurtzera jotzen du. Immigratzaile eta atzerritar terminoak erabiltzen dira «beste»ek «gure» artean duten presentzia deskribatzeko. Arrazakeria zolia dago, ezkutukoa. Hitzek sortzen dute mundua eta, batez ere, hura hautemateko modua baldintzatzen dute. Ahaztu egin da Espainiako estatuko jendeak beste leku eta beste herrialde batzuetara emigratu zueneko duela gutxi historia. Modu horretan, historiaren ezkutaketa boterearen diskurtso bilakatu da; inmobilizatzen, izutzen, menderatzen eta ordena bermatzen duen boterea, hain zuzen. Eta aldi berean liluratu eta erakarri egiten duen diskurtsoa.

Migrazio-fluxuen zelaketa eta kudeaketarako sistema politikoak eskulan ezegonkorragoa erabilia izateko aukera sortzen du. Langilegoaren diziplinaren eta erregulaziorako hainbat elementuren bidez gertatzen da hori, eta ez soilik mugako kontrolaren (eta kontrolik ezaren), eta aldi baterako migrazioarako errekrutatzeak nazioarteko akordioaren bidez.

Emakume immigratzaileek zailtasun handiak izaten dituzte legezatasunean irauteko eta, beraz, eskubideak izateko. Bazterketa bikoitz bati egin behar diote aurre; izan ere, egiten dituzten lanetako asko ez dira lantzat hartzen, gizarte honetan egin den kontzeptualizazioa dela-eta. Sektore hori arautzen duen Etxeko Langileen Erregimen Berezia (REEH) da bazterketaren erakusgarri argia: ez dago Gizarte Segurantzaren kotizatze beharrik, ez langabezia-saririk, ez bazarako eskubiderik hogeita bederatziregun igaro arte. Ezegonkortasunean eta bazterkerian egindako lanak dira eta, beraz, ez dira ausartzen salaketarik jartzera. Askok lan egiten dute emakumeei esleitu zaizkien ofizio eta sektoreetan, baina bertakoek dagoeneko egin ezin edo egin nahi ez dituztenetan.

Emakumeen lana, ordaindua edo ordaindu gabea izan, ezinbestekoa da, beste asko bezala, masa sozial horrek martxan jarrai dezan; eta beste kontzeptualizazio bat behar du modu horretan aitortu dezaten. Zaintzak, hitzaren zentzurik zabalenean, gizarte-sare honen oinarri ikusezinak dira, energia, denbora eta erantzukizun izugarria eskatzen dutenak. Gizarte-balioespena eta -babesa merezi dute, eskubide guztiekin.

Bertako emakumeak lan-mundura sartzeak hemengo familia-egitura tradizionala aldatu egin du; baina errealitate berri horrek ez du ordain gisa etxeko lanak birbanatzerik eta gizonen parte-hartzerik ekarri; gizon gehienak zaintzako lan eta arduetatik urrun sentitzen dira eta, ondorioz, emakume immigranteek bete dute gizartearen eskaera eta behar hori.

Emakume immigranteen ehuneko handi bat etxeko lanetan aritzen da; beraz, sektorearen etnizazioaz gainera —latinoamerikarrek betetzen dituzte lanpostu gehien—, generizazioaz hitz egin dezakegu. Emakume horien maila akademikoa, estatistiken arabera, nahiko altua da; gehienek bigarren hezkuntza edo goi-mailakoa egingo dute eta, beraz, ez lirateke kualifikatu gabeko lanetan aritu behar. Paperak lortzeko, ordea, hortxe izaten dituzte eskaera eta betebeharrak.

Herrialdetik bakarrik ateratzen diren bertako emakumeen migrazioa ez da dagoeneko, gertakari berezia; proiektu propioa izaten dute haiek, familia-berrelkartzeari lotu gabea, eta jatorrizko herrialdean uzten dituzte familiakoak, menpekoak. Familia-egituretan askotariko eraginak sortzen dituzten etxe transnazionalak eratzea bultzatu du horrek. Lehen, ohikoagoa zen aitak emigratzea eta ekonomikoki familia mantentzea; orain, ordea, emakume asko hornitzaile ekonomiko nagusi bihurtu dira, eta emakume immigranteen paper nagusia nabarmendu da. Etxe horietan, bertako kideak ez daude jada elkarrekin.

Fenomeno horrek bide ematen digu migrazioa noranzko biko mugimendu gida ikertzeko, ikuspuntu transnazionaletik; ondorioz, emakume horiek (eta batzuetan gizonak) mugikortasun-egoeran dauden emakumeak direla esan dezakegu, bi gizarteetan baitituzte ardurak, jatorrizkoan eta iritsierakoan. Mugen artean dabilzan

pertsonak dira, non aldi baterakoa etengabearekin lotzen baita; beraz, dinamika transnacionalei buruz hitz egin dezakegu.

Alde batetik, emakumeak ikusezintasunean edukitzen dira, etxeko lanetan, eta familia-berrekartzearekin lotzen dira edo migrazioari buruzko ikerketa akademikoetan ahazten dira. Bestetik, neurri kanpo ikustatuak dira sexu-industrian lan egiteagatik, beloa eramateagatik eta, beraz, kontserbatzaile, atzeratu, pobre, ezjakin edo ablazio eta antzeko arbasoen praktiken biktima izateagatik, edo seme-alaba ugariren ama izateagatik. Estigmatizatuak eta mugiezina dirudien kultura batean sartuak dira, zeinak emakumearen gaineko zapalketa modu berri bat ezkututzen baitu, emakumeak gizarte-egituran betetzen duen rolean eta lekuan modu esentzialistan finkatuz, eta erabakitze ahalmena ukatuz. Honela dio Dolores Julianok: «Emakume behartsuak ez dira emakume gaixoak».

Immigrantea debalutua eta eskubiderik gabe ager dadin erabilitako mekanismoak aztertzean, eta migrazioaren gizarte-eraikuntzarako arazoari fenomeno kaltegarri gisa agertzerakoan —zeinetan desberdintasunak legitimatzen baitira eta migrantea menpeko egoera batean sartzen baita—, diskurtso sail batekin topo egiten dugu; diskurtso horietan, migrazioari buruzko irakurketa ez hain positiboa egiten dute bai komunikabideek bai hainbat politikari eta funtzionariok.

2007ko hauteskunde orokorretan, SOS Arrazakeriak salatu egin zuen migrazioaren erabilera elektoralista. 2008ko urteko bere txostenean argitaratu zuen Alderdi Popularrak integrazio-kontratu bat aurkeztu zuela eta kanpaina erabat xenofoboa gauzatu zuela. Era berean, baieztatu zuen Convergencia i Unió-k mezu alarmista eta xenofoboak erabiltzearen alde egin zuela, «migranteen inbasioa eta jasa» topikoa sustatuz. 2009ko azaroan, Espainiako Parlamentuan, Coalición Canaria-ko Ana Oramas diputatuak zera aipatu zuen: 2006ko udan Kanariak jasan zuen «izugarritzko jende-oldea». Vic-eko Udalean (Bartzelona) 2010eko udan piztutako polemika izan zen bestea, paperik gabeko pertsonak ez erroldatzeagatik, Atzerritarren Lege berriak atzerritarrei Espainiako estatuan sartzeko eskakizunak goratuz, argudio nagusi gisa. Josep María Vila d'Abadal (CiU) alkateak neurriaren alde egin zuen, guztiz legezkoa zela segurtatuz. CiU, ERC eta PSC taldeek osatutako udal-gobernu osoaren babesa izan zuen ekimen horrek. Celestino Corbacho Lan eta Migrazio ministroak «legez kanpokotzat» jo zituen Udal horrek adierazitako neurriak; onartu zuen, hala ere, «erroldatze-legeak arazoak» dituela, eta beharrezkoa dela, adibidez, neurriak hartzea etxebizitza batean errolda daitekeen pertsona kopurua mugatzeko, «patera-etxebizitzak» saiheste aldera (Corbacho, 2010).

Immigranteak bertako biztanleengandik, Europako Erkidegokoak Erkidegoz kanpokoengandik eta legezkoak legez kanpokoengandik bereizten dituen irudizko marra hori guztiz hautazkoa da; maila sozialean, dualizazioa gauzatzen duen haren interesen arabera mugi daiteke, Manuel Delgadok dioen moduan. Gizartea barrutik eta kanpotik banatzen duten espazioak, hemengoak eta hangoak, une batetik bestera edo garai batetik bestera alda daitezkeen mugak dira; ondorioz, irizpide politikoen arabera baztertuen edo

gutziz esplotatuen talde bat eratzeak desoreka handiko gizarte batera garamatza, egitura gaixoak izango dituen, eta lehenago edo beranduago tratamendu sendagarri gogorrak beharko dituen, baldin eta gure inguru hurbileko bidegabekeria handien aurrean begiak ixten jarraitzen badugu.

Azken hamarkadetako aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko handiekin eta oinarritzko eskubideen ustezko unibertsaltasunaren aurrean, herritartasun kontzeptua eztabaidarako termino bilakatu da Mendebaldeko herrialdeetako estatu-nazioen barruan, batez ere, sistema judizialak aldatzen edo zalantzan jartzen ari diren migrazio-prozesuen ondorioz. Mundu-mailako migrazioen errealitateak ia herrialde guztiak behartu ditu immigrantei dagokienez beren onarpen-politiken inguruan berriz hausnartzera. Ustez unibertsalak ziren giza eskubideei mugak jarri zaizkie «beste»ei dagokienean; hain zuzen ere, beste leku edo familia batzuetan jaio izanagatik eskubide politiko, zibil eta sozialak murriztuta ikusten dituzte.

Giza eskubideak emaitza historikoa dira, giza ekintzaren ondorio eta, beraz, aldakorak eta amaitu gabeak; eta mundu ezegonkor honetan, beharrezkoa da horiek aldatzea, errealitate berrietara egokitze aldera. Herritartasuna nazionalitateari lotzeak eta azken hori estatu bati lotzeak, ekonomiak eta herritarrengana itzultzen diren politika ekonomikoen ondorioak kudeatzeko estatuak txiki geratu diren garaiotan, leku eta betebeharrak berdintzen dituzten klase desberdinak sortzea dakar; modu horretan sortuko dira desberdintasunak, diskriminazioak eta kohesio sozialaren ahultzea bultzatuko da.

Ahots askok aldarrikatzen dute, gaur egun, herritartasunaren demokratizazioa, herritartasunaren berreraikitzea, lurraldeari atxikia ez dagoena, hain zuzen ere, kulturak, mugak eta generoak gaingaitzen dituen herritartasun unibertsal bat. Herritartasunean biltzen dira (eta haietatik eratortzen) teoria politikoaren gai nagusiak: demokrazia, parte-hartzea, identitatea, askatasuna, berdintasuna eta ongizatea. Herritartasunak ez dakar berekin identitateari uko egitea. Amina Mamak adierazten du, gaur egun, identitateak historikoak eta politikoak izaten jarraitzen dutela, nahiz eta akademikoek nabarmendu modatik pasatako argudio biologizistak, kulturalki determinista diren argudioekin ordezkatzeko. Badakigu, gainera, identitateak eta herritartasunak generoa dutela; autore horrek, Afrikako testuinguruan aplikatutako identitate eta genero kontzeptuak aztertzerakoan honela adierazten du:

Identitatearen erronka intelektuala honetan datza: generoa gaineratzea identitateari buruz pentsatzeko behar den erreminta analitiko pilari, halako moldez boterea ulertzeko dugun gaitasunean sakondu dezagun, eta botereak duen suntsitzeko edo eraikitzeko gaitasunari aurre egiteko edo hura zalantzan jartzeko gure gaitasun estrategikoa areagotu dezagun (Mama, 2008: 239).

Haren ustez, identitatea da botereari eta erresistentziari, loturari eta herritartasunari, eta akzio eta erreakzioari dagokion guztia. Autoreak iradokitzen du beharrezkoa dela identitateari buruz sakon berriz pentsatzea boterearen esanahia ulertu ere egingo ez bagenu bezala, eta ez identitateaz berriz pentsatzea botereari buruz birpentsatzeko

helburuarekin. Mamak gehitzen du teoria feministak boterea ulertzeko modu oso artikulatua garatu duela, eta hori oso erabilgarria izan daitekeela identitatea kontuan hartzeko; generoa, bere adierazpen guztietan, printzipio antolatzaile nagusietakoa izan dela iraganeko eta gaur egungo gizarteetarako; generoak identitatea itxuratze duen modua alderdi eta esanahi politikoen tartean dagoela eta, ondorioz, emakumeak ohituraren eta komunitatearen esanetara egon direla; eta emakumeek gaitasun gutxiago dutela herritarrei oro har lege zibilen bidez aitortutako eskubideak gauzatzeko. Modu horretan, dio Mamak, jurisprudenzia politiko feministaren estrategietako bat genero-berdintasun handiagoa bilatzea izan da, legeetara iritsi ahal izateko. Edonola ere, zera dio: «Gutako askorentzat, identitateak bilatzen ari garen zerbait izaten jarraitzen du, oraindik bidean den zerbait» (Mama, 2008: 224).

Identitate hitza estuki lotua ageri da beti «beste»ei; egia da gizarte guztiak hainbat komunitateren arteko harremanetatik abiatuta eratu izan direla, eta kultura-heterogeneotasuna ugaritu egin dela gaur egun, migrazio-korronteen kariatz. Biztanleen kultura-dibertsifikatzeak, nazio-estatu baten barnean, etengabeko egokitze-prozesuak islatzen ditu, ingurune natural eta sozialean aldakorrek diren egoeren arabera.

Sorleku edo jaioterriarekin eta ahaidetasunarekin edo odolarekin loturiko tradiziozko identitateen balio legitimatzailea komunitate politikoaren ideia estuaren gainean dago eraikita, «beste»en aurreko «gu»re gainean, eta oinordetzan hartutako nazio-mugak ditu. Eskubideak aitortzea nazio-identitate jakin bat aitortzeari, egokitzeari edo leial izateari loturik (edota baldintzaturik) datorren herritartasun-idea bati eustea bazterketa-faktore eta gizarte-haustura bilakatzen da, eta ez alderantziz.

Pertsona batek, bizi den, lan egiten duen, kontsumitzen duen eta zergak ordaintzen dituen herrialdean politikoki ezin parte hartu ahal izatea, ez eta jatorrizko herrialdean ere, herritartasunaren gabezia bat da, oinarritzko eskubideen gabezia. Nazionalitateak eskubideekin duen loturak bazterketa- eta diskriminazio-iturri bihurtzen ditu eskubide horiek, lurralde barrukoak ez direnekiko (García Inda, 2003: 94).

Nahiz eta immigrazioari eusteko egungo politikak zabaldu, inork ez du zalantzarik, alde batetik, hainbat herrialderen arteko desoreka demografiko eta ekonomikoek, eta, bestetik, Europan zeharreko herritarren joan-etorri askeak gero eta populazioaren osaera heterogeneoagoa eratzen lagunduko dutenik. Gizarte kulturantzun edo kulturarteko batera eramango gaituena, heterogeneotasun horren inguruan egiten dugun kudeaketaren arabera.

Kulturantzitasuna eta kulturartekotasuna kontzeptuak, hirurogeiko hamarkadatik aurrera, diziplina askoren diskurtsora gehituz joan dira. Kontzeptu horiek orain dela gutxi finkatu badira ere, aspaldikoak dira nozio horien azpian dauden gertaera sozialak. Errepikatzen den gertaera sozial historikoa da espazio berean eta aldi berean dauden giza talde desberdinen arteko nahasketa. Kulturantzitasuna zentzurik mugatuenean, pluri-etnizitate gisa ulertzen da.

«Kulturantzun» kontzeptuak egoera sozial bat ezaugarritzeko balio du, edo espazio erreal, mediatiko edo birtual berean hainbat kultura koexistitzeko, monokultura bakartu gisa. Kulturartekotasunak kulturen arteko harreman bat deskribatzen du, haien arteko interakzio komunikatiboa, eta askotariko kulturekin identifikatutako pertsonen bizikidetzaren espazio sozial berean. Harreman horrek forma simetrikoa izan behar du, alde askoren integrazioaren eta bizikidetzaren alde eginez uneoro; aniztasunarekiko eta elkarren artean aberastearrekiko errespetuan oinarrituriko harremana izan behar du. Bere zuzeneko asmoa da kulturen arteko elkarriketa sustatzea, eta ez soilik gizartean aitorpen bat lortzea (edo gizartean ikusgarri izatea).

Kulturantzutasunak gizarte bateko kulturen ugartasuna aipatzen du. Multikulturalismoa da kulturantzutasunari, pluraltasunari edo aniztasunari heltzeko doktrina zehatza; baina ez da ikuspunturik onena demokraziek immigrazio kulturantzutunaren dilemak konpondu ahal izateko.

Interesak, beharrak eta arazoak partekatzeke nahiarekin, etorkinek, bertakoen antzera, talde sozialak eratzen dituzte, afektuzko edo ideologiazko kidetasuna kontuan hartuta. Kide izatearen sentimendua garatzen da, elkarrekiko babesa bilatuz nolabaiteko ezegonkortasun-egoeretan.

Erakundeek migratutako pertsonen asoziazionismo moduko bat sustatu dute, diotenez harrera-gizarteetan integrazio sozialeko prozesuak bultzatzeko, eta laguntza ekonomikoak ematen dituzte prestakuntza eta sentsibilizazioaren garapenerako. Era berean, eskaintzen dituzten baliabideak kudeatzeko aholkularitza motaren bat ere ematen dute. Ez dute ematen, ordea, bilerak edo jarduerak gauzatzeko lokal publikorik; izan ere, nagusiki asteburuetan gauzatuko liratekeenez, kudeaketa publikorako ordutegiak ez datoz bat elkarrekin beharrekin. Gauza bera gertatzen da sindikatuen lokalekin, GKE edo bizilagunen elkarteekin ere.

Ez da sustatzen kulturartekotasunik edo gizartearen arteko harremanik ere; izan ere, bakoitzak bere bitartekoak, biltzeko bere lokalak bilatu behar dituzenez, espazio fisiko horiek ez dira bat etortzen, eskuarki, interakzio hori samurtzeko. Gauzatzen den programazioan, aisialdiko jardueri edo jolasei ematen zaie lehentasuna, eta zenbaitetan baita kultura- edo formazio-jarduerak batzuei ere. Jolas-jardueri esker, elkartzeko, komunikatzeko, informatzeko eta elkarri laguntzeko espazioak eta denbora izaten dituzte. Kultura-jardueri esker, berriz, identitatea aldarrikatzeko nahia eta publikoaren aurrean ikusia izateko beharra, askatasuna bilatzeko (askatasun baldintzatu hori) eta onartzeko irrika; beste hitz batzuetan esanda, gizarte barruan nolabaiteko parte hartzea bilatzen da, asko eta askorentzat murriztua baidago.

Hori dela eta, garrantzia hartzen du espazio publikoa erabiltzeak eta hartaz jabetzeak, identitateak adierazten eta botere-harremanak gauzaten diren espazio hori, hain zuzen Espazio sinboliko horretan, talde politiko-sozial ugari agertzen dira askotariko jarduerekin, ikusiak eta onartuak izan daitezkeen. Erakundeek kontrolatu eta mugatu egin nahi dute espazio hori, norbanakoa bezalaxe. Espazio horretan eskubideen konkista adierazten da, eta herritarrek existitzeko, aurpegi bat izateko, boto-eskubidea

izateko eta kalean egoteko eskubidea aldarrikatzen dute, ez soilik bertatik pasatzen ari direnen gisa, baizik eta boteredunei justizia eta parte-hartzea exijituz.

Immigrañteei ezartzen zaien presioa eta kontrolaren gain, bidegabekerien aurrean erresistentziak sortzen dira. Mota askotako erresistentziak, zenbaitetan ez oso agerikoak, baina nabarmentzekoa da «paperik gabeko»en borroka. Mugimendu hori Frantziañ sortu eta Espainiako estatura inportatu zen 2000. urtean. Itxialdiek, batzarrek, gose-grebeek eta mobilizazioek agerian jarri zuten haien gaineko esplotazioa, eta handik aurrera justiziaren bidegabekeria horren aurka borroka egin zuten talde asko sentsibilizatu zituzten. Handik aurrera, erakundeei arrankatu zitzaieñ osasunerako eta heziketarako eskubidea, eta ateak irekitzen hasi zireñ immigrante askori oraindik ukatutako eskubide politikoei.



## IMMIGRAZIOA POLITIKA GISA ETA IMMIGRAZIO-POLITIKAK

Mugikortasuna eta lekualdatzea animalien erreinu osoarekin partekatzen ditugun giza ezaugarriak dira. Garai eta leku guztietan izan den gertaera bat da. Aldi bateko ezaugarri bereziak islatzen dituzten irudi sail bat sortu da eragileren, interesen edo iritsierako tokian betetako lekuaren arabera, eta horiek bihurtzen dira garai horren identifikatzaile. Merkatari, erromes, soldadu, mertzenario, konkistatzaile, inbaditzaile, okupatzaile, ebanjelizatzaile edo misiolari, kolono, esklabu, erbestera, errefuxiatu, abenturazale, kooperante, bolondres, internazionalista, «langile gonbidatu» eta, oraintsuago, «immigrante ekonomiko» edo «legez kanpoko», izen horiek eta beste hainbat eman zaizkie, horietako bakoitzari nabarmentzen den izaera eta egoera ezarri.

Biztanleriaren mugimenduek, bai barnekoek bai transnazionalak, eratzten dute gizarte-zientzietako azterlarien arreta gehien erakarri duen auzietako bat. Haien jatorriak, ondorioek eta haiek eragindakoen ikerketa-eremu emankorra ekarri dute, eta hainbat diziplinatan pilatutako jakintzari lagundu diote. Migrazioaren anbiguotasunak eta konplexutasunak, ordea, zaildu egiten ditu kontzeptualizazio-, neurketa- eta analisi-zereginak.

Bizitza etengabeko aldaketa da, eta une bakoitza aurrekoaren ezberdina da. Ez dago ezer egonkorrik eta betirakorik. Lekuz aldatzearen ideia edozein bizitza-proiekturen oinarritzko ardatz izan daiteke. Mugak higikorak, dinamikoak eta aldakorak izan ohi dira. Inoiz ez dira amaitu giza lekualdatze jendetsuak, zeinak zenbaitetan zibilizazioak eta taldeak suntsitu baitituzte eta, beste zenbaitetan, forma berriak eraiki eta gizadiaren aurrerabidea ahalbidetu baitute. Bizitza ulertzeko eta antolatzeko modu desberdinen arteko kontaktua eta trukea funtsezko motorra izan da gizakiaren eta gizartearen garapenean. Gizakia ez dago leku jakin batean finkatua, ez da izatez sedentarioa; hau da, ingurunera egokitzerakoan, izaki bizidunok gure beharrei erantzuteko lekurik egokiena bilatzen dugu. Mugikortasuna eta berritasuna etengabe gehitzen dira, aldagai gisa, norbanakoen imaginarioa.

Edozein lekutara lehen aldiz iristea, zenbaitetan, esperientzia asaldatzailea da, pertsona asko beldurtzen dituen esperientzia. Izan ere, berritasunari aurre egiteak, askotan, ahultasun-, ezjakintasun-, babesgabetasun- eta segurtasunik ezaren sententzia dakar. Beste zenbaitetan, ordea, zerbait berriari aurre egitean, jendeak gozatu egiten du inoiz imajinatuko ez lituzkeen aurkikuntza eta ikaskuntza horiekin; izatearen eta egotearen pertzepzioa areagotu egiten da gauza berrietara iragaitean, bizipen berriek denboraren bilakaera sendotzen dutenean. Aldi berean, ordea, ziurtasunetik ziurgabetasunera igarotzen gara, zentzua eta arauak ezagutzetik nahasmendura eta harridurara. Hori dela eta, bertan dagoenaren jarrera solidarioak garrantzi handia du norabide-aldaketari dagozkion zailtasunak saihesteko orduan.

## 1. Immigrazioa, langile-klasearen berrantolaketa-politika gisa

XIX. mendeak eta XX. mendearen lehen hamarkadetek Europako historian inoiz ez bezalako bizitasun berri bat eta baserrien exodoa izan zituzten ezaugarri. Mendebaldeko Europako industria-garapena ez zen gai izan sortu zuen soberako biztanleria guztia bereganatzeko, eta mundu berriek hartu behar izan zituzten milioika europar, mende batean zehar. Estatu Batuetan, Irlandako eta Ingalaterrako milioika herritarren iritsierak, bereziki, herrialdearen industrializaziorako langilez hornitutako lan-merkatu bat sortzea ahalbidetu zuen. Sophie Bessis tunisiarrak honela idatzi zuen:

1830etik 1920ra, 35 milioi europar baino gehiago ontziratu ziren Estatu Batuetarutz; britainiarrak, irlandarrak, eskandinaviarrak, alemaniarrak, poloniarrek, errusiarrak eta italiarrak ziren. Zortzi milioi pertsona iritsi ziren Kanadara XX. mendean zehar. Bi milioi eta erdik Australiara jo zuten, eta hamabi milioi italiar, portugaldar eta alemaniar Hego Amerikarantz abiatu ziren. Ehunka mila batzuek nahiago izan zituzten Afrikako koloniak. Guztira, hirurogei milioi europarrek baino gehiagok utzi zuten kontinentea mende batean zehar; 1914ko Europako biztanleriaren % 14ren baliokidea zen hori (Bessis, 2001: 54-55).

Europaren barnean ere izan ziren migrazio-mugimenduak. Frantzian, migrazio-uholdeak bat etorri ziren, estuki, industria hedatzeko beharrekin, nagusiki gerren ondorengo berreraikitze-aldietan zehar. Atzerriko langileen iritsiera sistematikoak —besteak beste, kolonietatik zetorren eskulana— mende eta erdi atzerago du jatorria. Alain Morice-ren arabera, Frantzia izan zen, denbora askoan zehar, urteko atzerritarren sarrera orokorreki zegokienez bigarrena (biztanle kopuruarekin proportzioan), Estatu Batuen ondoren (Morice, 2007: 39). Horrela, 1886an, atzerritarra zen Frantziako biztanleen ehuneko hirua, alegia, milioi bat pertsona. Nagusiek berek antolatzen zuten atzerriko langileen errekrutatze sistematikoa, lan-indarraren eskaintza zabala eduki ahal izateko. Baina kontrol-mekanismo ugari ezarri zitzaizkien biztanle horiei, bai herrialde hartan eta beste hainbatetan, bigarren mailako edo bertako biztanleak baino maila baxuagoko herritartzat hartuak izan zitezten. Neurri horien artean dugu, esate baterako, poloniarren kanporatze kolektiboa 1907an; poloniar gehienak herrialdetik kanporarazi zituzten zenbait asteetan zehar —Eguberrietako oporrekin bat etorriz—, bizileku iraunkorra lor zezaten saihesteko.

Lehen Mundu Gerraren ondorengo urteetan, Frantziak, bere industria-planerako demografia-eskasia izanik, bi milioi pertsona inguru iritsaraztea ahalbidetu zuen 1921 eta 1935 urteen artean. Enpresaburuek frantses kolonietan eta herrialde mugakideetan hautatzen zituzten beren langileak. Beste zati bat Poloniarekin, Txekosloveniarekin edo Italiarekin egindako akordioen ondorioz iritsi zen Frantziara. Pertsona asko legez kanpo ere sartu ziren herrialdean. 1931n 808.000 italiar zeuden; ondoren poloniarrek ziren gehienak (507.000), gero espainiarrak (351.000) eta, azkenik, belgikarrak (254.000).

Horiek funtsezko garrantzia zuten ekonomian, hazkunde handiko sektore guztiek baitzuten, aldi berean, atzerriko eskulana berenganatzeko indarra: 1931n immigranteek osatzen zuten metalurgia astuneko kideen % 38; meatzaritzakoen % 42 (baita Lorenako burdina-meatzeetako meatzari ia guztiak ere); Vénissieux-ko automobilgintzakoen % 50 baino gehiago, etab. (Noiriel, *in* Suárez-Navaz, 1986: 41). XX. mendearen hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan Frantziako herritarrek zituzten bizi-baldintzek, beren eskubide-politikoak —sindikatzera, elkartzera eta botoa— zapalduta izanik, eta lanez edo bizilekuz aldatzen baziren agintariei horren berri eman beharrak gaur egungo egoera ekartzen digu gogora. Urte batzuk geroago, Frantziako agintariek itxi egin zituzten beren mugak, eta milaka lagun erbesteratu edo aberriratu; bertako eskulana babesteko zela argudiatu zuten, baina, egiaz, migratzaileak lotuago edukitzeko zen.

Bigarren Mundu Gerran Suitzak izandako neutraltasunaren ondorioz, 1945ean herrialde horrek ekonomia eta azpiegitura ukigabeak zituen, eta gorantz zihoan industrializazioa, atzerriko eskulanean sotengatuta. Suitzan Italiako langileek zuten antolabideak zera ekarri zuen ondorio gisa: enplegatzaileek poloniar immigrazioa edo beste herrialde batzuetakoa sustatzea, italiar adoretzuak ordezkatzeko. 1961ean errekrutatze-hitzarmena egin zuten Espainiarekin. Hitzarmenek beren baitan zituzten lan- eta gizarte-eskubideen bermeak, gutxieneko soldatari buruzko arautzeak, etxebizitza egokiak ematea eta bidaia-baldintza bidezkoak. Sasoikako langile askok hogeitau urtean jarraian ere lan egin zuten, bizitzeko baimen iraunkorrik lortu gabe edukiz beren araudia. Hirurogeiko hamarkadan zehar, Jugoslaviarrak izan ziren, apurka-apurka, Italiako eta Espainiako sasoikako langileak ordezkatu zituztenak. Suitzako immigrazio-eredua lan-merkatuaren beharren alternatibaren —zeinak ezin baitzuen bazter utzi atzerriko lan-indarra errekrutatzea — eta «atzeritartze» izeneko kontzeptu ideologikoan adierazitako jarrera xenofoboaren artean mugitu zen. Atzerriko biztanleriaren ehunekoa igoz joan zen, 1970ean % 17,2 izatera iritsi arte, eta, 2000. urtean % 20,09 izatera heldu zen.

Europako migrazio-mugimenduek Bigarren Mundu Gerraren ondoren jarraitu zuten. Alemaniak, Frantziak eta Suitzak Mediterraneoko herrialdeetatik eta kolonietatik etorritako immigrante langileak hartzen jarraitu zuten. Frantzian, 1954. urtean, jatorriz Aljeriako 240.000 pertsona zeuden, eta gehituz joan ziren, 1962an herrialde horrek independentzia lortu arren; horrela, 1962. urtearen amaieran 608.000 izatera iritsi ziren. Haietako batzuk ezkutuan sartu ziren, eta herrialde hartan iraun zuten denbora luzez, beren administrazio-egoera arautu gabe. Eskulanaren premiak garrantzitsuak ziren. Eraikuntza-lanean edo industria handietan (esate baterako, automobilgintzan) espezializatutako langileak erakarri zituzten samaldaka. 1968ra arte, italiarrak izan ziren talderik jendetsuena, eta gero espainiarrek gainditu zuten kopuru hori. 1954 eta 1975 urteen artean portugaldarrak ere iritsi ziren; azken urte horretan, 760.000 pertsona gehitu zirelarik.

Michael Piore-k «*Hegazti migratzaile*» en mitoa izendatu zuen menderatzaileek (Estatuak eta enplegatzaileek) eta menderatuek partekatutako itzulerari buruzko sinesmena, Frantzian, 1945 eta 1974 urteen artean. Adostasun handiz, immigranteak

kapital bat bilduko zuela uste zuten, eta gero bere herrialdera itzuliko zela, han negozio txiki bat irekitzeko. Hemengo eta hango diru-sarreraren diferentzial nabarmenak elikatzen zuten, bistan denez, mitoa. Moricek, ordea, Lochad-i aipu eginez, honako hau aipatzen du:

Immigranteak premia ekonomiko bati erantzuteko zeuden han —eskulanaren erreserba—; eta zenbat eta asimilaezinagotzat hartuak izan, hainbat eta nabarmenago zirudien egun batean edo bestean beren etxeetara itzuli beharko zutela pentsatzeak (Lochad, 1985 *in* Morice, 2007: 48).

Bigarren Mundu Gerraren hasieran alemaniar gizonak errekrutatu zituztenean zerbitzu militarerako, eskulan immigrantea ezinbesteko bihurtu zen ekonomiari eta, batez ere, alemaniar gerra-industriari eusteko. 1944an, zazpi milioi eta erdi immigrantek egiten zuten lan Reicharentzat. Zati txiki bat herrialde adiskide edo neutralekin egindako akordioen bidez kontratatu zuten (Italia, Eslovakia, Bulgaria, Hungaria, Errumania, Kroazia eta Espainia).

50eko hamarkadan, Alemaniak, Frantziak eta Suitzak ekonomia-hazkunde garrantzitsua bizi izan zuten industria garatzeko prozesu baten bidez; prozesu hori landatik hirirako barne-migrazioetan eta langile immigranteen iritsieran bermatu zen. Alemaniak Ekialdeko Europako zortzi milioi errefuxiatu hartu zituen Bigarren Mundu Gerraren ondorengo hurbileneko urteetan, eta hiru milioi gehiago berrogeita hamarreko hamarkadan. Geroago hitzarmenak sinatu zituen Espainiarekin eta Greziarekin 1960an, Turkiarekin 1961ean, Portugalekin 1964an, eta Jugoslaviarekin 1968an.

Suedia izan zen beste immigrazio-herrialde<sup>22</sup> bat 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, industrializazio-prozesu azkar bat eta urbanizazio jendetsua bizi izan zuenean. Estatuak eskatutako lan-immigrazioa izan zen, eta guztiz arautua. Hamarkada horiei Suediako gizartearen «urrezko urteak» esaten zaie: baikortasun eta oparotasun garaia izan zen, zeinetan Keynes-en ekonomia-printzipioetan<sup>23</sup> oinarritutako ongizate-estatu bat eraiki baitzen; sindikatu indartsuen eta enplegatzaileen elkarten arteko elkarrizketak eta akordioak izan zituen ezaugarri, eta, hirurogeiko hamarkadaz geroztik, baita lan-merkatuan emakumea kopuru handitan sartu izana ere, seme-alabak zituzten familiei bideratutako gizarte-zerbitzuen eskaintza zabalari esker. Kontratazio-agentziak eta sarrerako kontrolak ezarri arren, orain gertatzen den gisara, beste milaka immigrante ezkutuan sartu ziren herrialdean, eta haietako batzuek legeztatzea lortu zuten lan-kontratu bat aurkeztu eta gero. Modu berean egiten ziren familia elkartzeko bideratzeak ere.

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, Frantziak Espainiako jatorria zuten immigranteak nagusitu egin zitzaizkien italiarrei, berrogeita hamarreko hamarkadan gehiengo izan zirenei. Jugoslaviako etorkinen kopurua ere adierazgarria zen, eta

<sup>22</sup> Hau da, Eskandinaviako herrialdeetatik kanpoko immigrazioa; esate baterako, hamarkadak ziren jada Finlandiatik funtsezko immigrazioa gertatzen ari zela (Schierup, Carl-Ulrik *et al.*, 2006).

<sup>23</sup> Kapitalismo arautuan oinarritutako ekonomia politikoa, industriaren eta Estatuaren arteko gertuko lankidetzak, eta ekonomia-birbanatze zabaleko politika.

«1963an Frantziak hitzarmenak sinatu zituen Marokorekin eta Tunisiarekin, bi herrialde horietako immigranteak kontratatzeko» (Romero, 2010: 56). Horrela, 1969an hiru milioi immigrante baino gehiago izatera iritsi zen Frantzia. Gogoan izan, baita ere, portugaldar migrazioak gainditu egin zuela espainiarra (kopuruz), 1970etik aurrera. Gogoan dugu, baita ere, Pirinioetako mugarekin dugun gertutasunagatik, «gidari» askok bazterrean uzten zituztela migratzaileak mendian, 350 dolar kobratu ondoren (Pereira, 2007).

Immigrazioaren lehen urteetan, baxu samarra izan zen emakumeen proportzioa, baina nabarmen hazi zen 60ko hamarkadaren amaieraz geroztik. Europako herrialde askotan, emakumeen autonomia-prozesuek ugaltzearen gaineko kontrol moduko baten konkista ahalbidetu zuten, eta, ondorioz, kapitala eta Estatua beren kontrolaren zati bat galtzen ari ziren lan-indarra ugaltzearen gainean. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, gobernuak hazkunde demografikoa bultzatzeko zuten asmoak ez zuten oihartzunik izan emakumeengan; hala azaltzen digu Mariarosa Dalla Costak:

(...) ukatu egiten dira garapen-planetako gehigarri gisa funtzionatzera, seme-alaba ugariaren bermatzaile gisa, lanaldi luzeetara lotuta etxean eta landan, lantokian eta bulegoan, eta menpekotasun pertsonaleko egoeretara lotuta eta ghetto bihurtuta (Dalla Costa, 2009: 87).

Gobernu-sistemen demokratizazioak eta hezkuntzarako sarbideak emakumeen enpoderatzea eragin zuen familia-harremanetan. Era berean, landatik hirirako migrazioak erraztu egin zuen autonomia handiagoa lortzea eta hezkuntzarako sarbidea, eta horrek guztiak aldaketak ekarri zituen. Alemanian, Frantzian eta Suitzan lortu zituen langile-klaseak soldata altuenak, eta hardunaldi kopurua murriztu egin zuten emakumeek. Ondorioz, berriz ere migrazioak bete beharke zuen herrialde horietako eskulan-beharra; emakume etorkinen etorrera ere bultzatu zuten, eta, modu horretan, kopuruari erantzuteaz gainera, klase sozialari zegokion beharrari ere erantzun zioten, Dalla Costak azaltzen digun moduan:

Aljeriako emakumeak senarrarekin eta seme-alabekin iristen ziren, eta seme-alabak izaten jarraitzen zuten, funtsean fabrikarako. (...) Harreman hori termino politikoetan interpretatu behar da, eta ez matematikoetan. (...) Izan ere, batetik, demografia-garapenaren jaitsiera (zeinari jaiotza-tasaren «sustapen»-neurriek eman nahi baitiote erremedioa) eta, bestetik, emakumeek soldatapeko lanetik kanporatzea —edo baztertzea— eta emigrazio-politiken arteko lotura aspalditik dator, politikoek gutxitan jarri badute ere agerian (Dalla Costa, 2009: 87).

Modu horretan ikusiko da migrazio-politiken bidez arazo demografikoari eta era egokian diziplinatutako klase baten berrezarpenari immigrazioan eman zaion alternatiba. Alde horretatik, Frantzian Aljeriako immigrazioa izango da konponbidea. Aljeriako emigrazioa «birpopulatze-politika» gisa interpretatze hori ez da hartu behar populazioaren berrezartze kuantitatibo hustzat, baizik eta Estatuaren estrategiatzat, emakumeen autonomia-prozesuek garapen-ereduan eragiten dituzten ondorioei erantzun ahal izateko.

Alemaniak beti sustatu izan zuen aldi baterako immigrazioa; baina hirurogeiko hamarkadaren bigarren erditik aurrera, bertako biztanleriarengan langabeziak gora egin arren eta nahiz eta krisi egoera pairatu, enpresaburuek eskulana gehiago egonkortzera behartu zuten, nahiago baitzuten jende prestatua eta esperientziaduna. Gainera, «familia askok Mendebaldeko Europako herrialdeetan elkartzeko estrategiak garatu zituzten aurreko urteetan, eta, ondorioz, berrelkartzea bizkortu egin zen hirurogeiko eta laurogeiko hamarkadetan» (Romero, 2010: 67). Berrehun mila turkiar, pakistandar, jugoslaviar eta greziar etorkinek Alemaniako eraikuntza-sailean lan egiten zuten garai hartan.

Egiazki, krisiari erantzuteko ezarritako *metatze malguko ereduak* eraldaketa garrantzitsuak ekarri zituen lan-merkatura, eta azpikontratazioa eta behin-behinekotasuna hedatzea, soldatak izoztea eta *Ongizate Estatua* deiturikoaren gastu soziala murriztea eragin zituen. Baina ez dugu erori behar *giza aurpegidun kapitalismoa kapitalismo harrapari* bati kontrajartzeko tentaldian. Kapitalismoak krisitik ateratzeko sortutako ikaragarriko hondamendiaren ondorio dira gerra ondorengo European sortu ziren baldintza bereziak; eta ez dira oztopo, Europako potentzia kapitalista nagusietako milioika immigranteren esplotazio masiboarentzat. Langabezia-tasa oso baxuko eta herritarren zati bat goratuz zihoan masa-kontsumora gehitzen ari zen testuinguru batean, herritarren sektore garrantzitsu batzuk —batez ere emakumeak eta bi sexuetao immigranteak— baztertu egin zituzten lan- eta kontsumo-baldintza *pribilegiatu* horietatik (Romero, 2010: 63-64).

Laurogeita hamarreko hamarkadan, Europako migrazio-fluxuak suspertu egin ziren. Ekialdeko Europako eta Sobietar Batasuneko herrialde sozialistek behea jotzeko baliabideen mugimendu indartsua eragin zuen, eta haietako asko oso kualifikatuak ziren. EB handitzeak eta herrialde kideen arteko mugikortasun-akordioek Italia eta Espainiako estatua hartzaile garrantzitsu bihurtu zituen laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erditik aurrera eta XXI. mendearen lehen hamarkadan, batez ere, nekazaritza- eta eraikuntza-sektoreen eskaria zela-eta.

XIX. mendean zehar, munduko biztanleria 1.600 milioi izatetik 5.300 milioi izatera iritsi zen; hau da, hirukoiztu egin zen, eta migrazioak, berriz, sei aldiz gehitu ziren. Erritmo hori bizkortuz joan da azken hamarkadetan. 1970etik legezko eta legez kanpoko immigrazioa hamar aldiz areagotuz joan dela zenbatzen da mundu-mailan. Beraz, migrazio-mugimenduak fenomeno berri ez diren arren, globalizazioak gehikuntza ekarri du populazio-mugimendu horietan eta, bereziki, mugimendu transnasionaletan. Horrek geografia-mugimenduaren birbanatze masiboa sortu du, eta aurrez kolonizatua, balioa galdua eta ahuldua izan zen jendea metropoli-herrialdeetara oldarka sartu da, aukera bila.

1989tik, immigrazioa da EBko hazkunde demografikoaren osagai nagusia. Inork ez du zalantzan jartzen atzerriko biztanleriak nahitaezko papera betetzen duenik Europako ekonomiaren zenbait sektoretan; eta EB, berriz, biztanleria galtzen ari da,

batez ere biztanleria aktiboa. 2010eko apirileko Zaragozako Adierazpenak<sup>24</sup> zera baieztatzen du: «EBren lehiakortasunerako, funtsezko faktorea da immigrazio ekonomikoaren kudeaketa egokia».

EBk gero eta gehiago sustatzen du bere biztanleriaren mugikortasuna; etorkinek dira mugitzeko orduan arazo gutxien azaltzen dutenak, helmugako herrialdera iristeko beren etxeetatik joan beharra izan baitute dagoeneko; beren familietatik aldendu beharra izan dute, kasu askotan, gizon-emakume horiek, eta zain dituzte haiek jatorrizko herrialdean. Deserrotzea eta derrigortzen eta mehatxatzen dituzten legeak eragingarri indartsuak dira etorkinak Europako herrialde baten barnean edo EBn zehar mugitzeko. Beraz, kapitalaren interesetarako ezaugarri oso baliotsuak dituzten lan-indarra dira: zahartzea geldiarazten dute, gazteak baitira eta bertako biztanleek baino seme-alaba gehiago baitituzte; aurretik hamarkadaka urte aktibo dituztela etortzen dira (eta horrek *betiereko eta hilezko* direla esan nahi du kapitalaren *epe motzetarako*); lanik neketsuenetan aritzeko prest daude, eta baita lanez, sektorez, herriz edo herrialdez aldatzeko ere; jatorriko herrialdearen kontu egon zen beren prestakuntza; bertako biztanleek kobratzen dutenaren erdia baino gutxi gehiago kobratzen dute. Xirmi-xarmaz bailitzan, «milioika etorkin Europako lurretan agertzen dira bat-batean, bertan ez den biztanle aktiboaren lekua betetzera, kapitalarentzat askoz etekintsuagoa den modu batean» (Romero, 2010: 78).

### *Espainiar Estatuan*

Espainiako estatuan sortutako migrazio-fluxuei dagokienez, nabarmentzekoa da garai kolonialetatik aurrera espainiarren presentzia ugaria dagoela Latinoamerika guztian. Bakarka edo talde txikitik, nonahi agertzen ziren mundu kolonialaren luze-zabaletan.

Argentinak, esate baterako, aurrez «europarren bisita» jaso zuenak, zabal ireki zituen ateak 1852an, ondorengo urteetan Europako emigrazioaren joera ordura artekoa ez bezalako bolumena hartzen joateko moduan. Itsasoaz haraindi joateko prest ziren pertsonak errekrutatzen zituzten komisiolari edo *katigatzaile* ugari zeuden. Beste kontinente batera eramateko konpromisoa hartzen zuten haiek diru-kantitate baten truke; eta diru hori iritsiera-lekuan ordainduko zieten, denbora-tarte bat igaro ondoren. Bitartekari horien jarduerak baliabide eskaseko edo gutxiko emigranteengan jartzen zuen arreta. Soldata oso errespetagarriak hitzematen zituzten, urte gutxiren buruan dirutza handiak ekarriko zituenak. 1880 eta 1914 urteen artean, bizkortu egin zen nekazarien mugimendua Latinoamerikan, lau milioi pertsona iristearen ondorioz. Migrazioek eta konkistek aldizkako papera bete zuten herriak birbanatzean eta beren harremanak eraldatzean.

Ez ziren, ordea, Amerikara soilik joan; XX. mendean zehar, Afrikako iparraldera ere mugimendu garrantzitsua gertatu zen, eta baita Europa aldera ere.

<sup>24</sup> Integrazioari buruzko Europako Ministerioaren Konferentzia.

1830az geroztik, Frantziak Aljeria hartu zuenean, herrialde hori Espainiako emigrazioaren norako nagusi bilakatu zen 1870. urtearen amaiera aldera arte, eta garrantzi handia izaten jarraitu zuen 1914ra arte. Urte horietan zehar milioi erdi espainiar iritsi zirela jotzen da, eta erdiak baino gehiago Oran-go departamenduan ezarri ziren. Gerra Zibileko erbesteratuak gehitu zitzaizkien horiei 1939an, eta, ondorioz, europarren talderik handiena izatera iritsi zen 1962an independentzia lortu arte. Bigarren helburu-herrialdea, alde handiz, Maroko izan zen, frantziar-espainiar protektoratua ezartzeari lotua zegoena 1912an. 1928an 70.000 espainiar inguru zeuden, gehienak Tetuanen (Protektoratuaren hiriburuan), Larachen eta Tangerren. 1956an, Marokok independentzia lortu zuenean, gehienak penintsulara itzuli ziren (Monde Diplomatique, 2010: 190).

1929ko munduko krisi ekonomikoak amaiera jarri zien, progresiboki, Amerika aldera zihoazen espainiarrei; baina 1936ko Gerra Zibilaren eraginez, berriz ere erbesterako bidea hartuko dute askok. Frankisten garaipenaren ondoren etorri zen pobrezia eta errepresioak milaka pertsonak atzerrirako bidea hartzea eragin zuten; haietako askok konpromisoa zuten errepublikarren kausarekin. Erbestera arrazoi politikoengatik joan zirenen artean zeuden Errepublikako Gobernuko kideak, katalanen eta euskaldunen gobernu autonomoetako kideak, eta Errepublikako administrazio-aparatuaren zati bat.

Erbesteratuak herrialde askotan sakabanatu ziren. Gehienak Frantziar eta Mexikon ezarri ziren, eta gutxiago Sobietar Batasunean eta Aljerian. 1939. urteko urtarrilaren amaieraren eta otsailaren hasieraren artean, milioi erdi errepublikar inguruk Frantziako muga igaro zuten. Herrialde horretan izan zuten harrera txarrak, ordea, erbesteratu asko Espainiako estatura itzultzera edo beste herrialde batera abiatzera behartu zituen. Bigarren Mundu Gerra hastarekin batera, mobilizatu egin ziren Frantziako eta Aljeriako eremu itxietan zeuden errepublikarrak. Aliatuekin batera egin zuten borroka fronte askotan, eta modu aktiboan parte hartu zuten Erresistentzian (Le Monde Diplomatique, 2010: 193).

50eko hamarkadaz geroztik, joan-etorri ugari izan ziren Europa aldera aukera hobek bilatzera. 1959-1973 aldian —Eduardo Romeroren datuen arabera— milioi bat pertsonak baino gehiagok emigratu zuten Europako beste herrialde batzuetara, nagusiki Frantziara, Suitzara eta Alemaniara; baita, ordea, Belgikara, Erresuma Batura eta Holandara ere. Beste kalkulu batzuen arabera, bi milioi pertsona irten ziren, hor barruan izanik sasoiakako langileak ere. Erregimen frankistak bultzatu eta sustatu egin zuen mugimendu hori, Espainiako ekonomiari jendea baitzekarkion, eta, batez ere, nekazari-eremuetatik ateratzen ziren lan-indarraren soberakin ugariaren zati bat hartzen baitzuen. Nekazari-exodoaren beste zatia biztanleriaren barneko mugimendu bat zen, proportzio are handiagoetan: hiru milioi pertsonak emigratu zuten baseritik hirira soilik hirurogeiko hamarkadan; nekazaritzako ustiategi txikiak kopuru handitan ixtea eragin zuten nekazari-ereldaketek bultzatu zuten hori, eta oinarrizko industrian, turismoan edo eraikuntzan lan egiteko aukerak erakarri zituzten.



Urte horietan emigrazioak izan zuen beherakada, hein batean, Erdialdeko Europako herrialdeek migrazio-politikak gogortu izanaren berehalako ondorio izan zen; 70eko hamarkadako petrolioaren krisiak eragin zuelarik.

Hamarkada beraren erdialdera, europar ugari iritsi ziren Espainiako estatua; enpresa multinazionalak industria-teknikariak ziren, eta horiek ez ziren inoiz immigrantetzat hartu. Enpresak beren lurraldetik atera ziren eta haiei loturiko teknikariak transnacionalizatu. Gobernu-sistema demokratikoagoa zertxobait finkatu zen garaia; kanporako ekonomia zabaldu egin zen eta, geroxeago, Europar Batasunean sartu zen. Europako teknikari horiek ekonomia-hazkundearekin eta horri eustearekin izan zuten harremana; geroxeago iritsi ziren latinoamerikar eta afrikar etorkinak berriz, —beren herrialdeetako ekonomien ezintasunak eraginda— immigrante-titulua jaso zuten. Diktaduretatik ihesi zebiltzan Latinoamerikako Hego Konotik ere iritsi zen jendea, diktaduretatik ihesi, errefuxiatu estatusa jaso zutelarik.

1973 eta 1985 urteen artean, eutsi egin zitzaion Europaranzko emigrazioari, eta iparraldera berrehun bat mila irteera izan ziren; baina, ordurako, milioi erdi baino itzulera gehiago gertatu ziren garai horretan bertan.

Orduantxe alderantzikatu ziren paperak; Espainiako estatua migratzaile izatetik Afrikako iparraldeko eta Latinoamerikako jendea hartuko zuen etorkinen herrialde izatera igaro zen. 1960 eta 1990 urteen artean, erdira baino gehiago murriztu zen jaiotza-tasa, 21,7 jaiotzetatik 10,2 jaiotzetara mila biztanleko; baxuenetakoa zen Europa-mailan, eta baita mundu-mailan ere. 2008an 9,87 jaiotzakoa zen indizea mila biztanleko (altuena Nigerrri zegokion, 51,6 jaiotzekin; baxuena, berriz, Japoniari, 7,64rekin). Populazio aktiboaren oinarria murrizten hasi zen. Herrialdea zahartzen ari zen. Populazioa ez zen hazten. Espainiako estatua aldaketa demografiko bat jasaten ari zen, sexuak berdintzeko prozesuaren, bizitza-esperantza luzatzearen eta ongizate-estatuaren zuzeneko edo zeharkako ondorio zena. Lanean hasten ziren belaunaldien ordezkapena defizitarioa izatera iritsi zen.

Azkenaldian asko idatzi eta hitz egin da immigrazioaz defizit demografikoak, pentsio-sistemaren defizitak eta Europan diren lan-merkatuko hutsuneak konpontzeko aukera gisa. Alegia, immigrazioa behar gisa aurkeztu da askotan, gaitz erdi gisa. Beharrezkoa da lantoki ezegonkorak betetzeko. Beharrezkoa ekonomiarentzat, lehiakortasunarentzat, ongizate-estatuak betetzen ez dituen lanentzat, gorantz ari diren sektoreentzat. Manuel Delgadoren ustez, oso eredu utilitarista eta arriskutsuan oinarrituta dagoen diskurtsoa da hori:

Zer gertatuko da jaiotza-tasa igotzen bada, edo langabeziak gora egiten badu — gertatzen ari den gisara—? Alde batera uzten ditu pertsonenganako errespetua eta askatasunaren jardura, gizarte demokratiko bateko oinarritzko elementu gisara (Delgado, 2002b).<sup>25</sup>

---

<sup>25</sup> 2002ko ekaina-iraila. 18. zk. *Otras palabras sobre la inmigración*. Kataluniako Parlamentuko Jauregian emandako hitzaldia, 2001eko ekainaren 8an.

Espainiako estatuak 1994 eta 2001 urteen artean bizi izan zuen oparotasun ekonomikoa nabaritu daiteke Miguel Pajaresek ematen dituen datuetan; urte horietan, pertsona landunen kopurua hamabi milioitik ia hamazazpi milioira igaro zela baieztatzen digu. Soldatiko lanaren hazkunde ikusgarri hori posible izan zen, soilik, Espainiako kapitalismoaren behar berriak elikatu behar zituzten lan-indarraren erreserbak izateari esker. Non ezkutatu zen ordura arte soberan izan zen lan-indar hura? Zati batek langabeziako ilarak gizentzen zituen, baina soldatiko pertsona berrien beste zati handi bat ez zegoen langabezia izena emanda 1994an, eta ez zuten soldatarik ere, nahiz eta horrek ez duen esan nahi lanik gabe zeudenik: milioika emakume ziren, ordaindu gabeko eta aitortu gabeko *zainketa-lanak* egiten zituztenak eta dituztenak. 1994an % 31,4koa zen langabezia-tasa emakumeen artean. 2001ean gutxienez erdira murriztu zen tasa hori. Zazpi urte horietan, enplegu-tasa orokorra 38,4 izatetik 46,8 izatera igaro zen. Lan-indarraren jatorri horrek azaltzen du lau milioi *enplegatu berrien* ia ehuneko laurogeita hamarra bertako pertsonak izan zirela (Pajares, 2009: 26).

Baldintza horietan etorri ziren milioika immigrante *espainiar paradisura*. Horrela, 2001 eta 2008 urteen artean soldatiko lanean hasitako pertsonen erdia baino gehiago etorkinak ziren. Haien iritsierak konponbidea eman zion Pajaresek *lan-merkatuaren desoreka* deritzon horri: immigranteek konpondu dituzte desoreka horiek, bertako eskulanek nahi ez zituzten jarduera eta kategorietan kokatzen joan direlako nagusiki; eta hori egitean, mesede egin diote enpresa eta sektore osoen garapenari (Pajares, 2009: 25).

Eraikuntzaren sektorea erabakigarri bihurtu zen hazkunde ekonomiko horretarako: higiezinaren merkatuko inbertsio espekulatiboek gora egin zuten; etxebizitzetan zorduntzera behartu zuten, hipoteka-kredituen bidez etxebizitza bat eskuratzeko; eta diru publikoa etxegileen eskuetara igaro zen, azpiegituretan egindako inbertsio handiaren bitartez. Enpleguak izugarritzko hazkundera izan zuen eraikuntzan; 1999an milioi eta erdi zeuden Gizarte Segurantzaren izena emanda, eta 2007an bi milioi eta zazpiehun mila izatera igaro ziren; eta horri isilpeko lanaren zati garrantzitsua erantsi beharko litzaioke (Romero, 2010).

Emakumeak lan-merkatu sartzeko zerikusia du aurreko horrekin. Ez da soilik hezkuntzaren eta autonomiaren konkistaren ikuspuntutik azaltzen, baizik eta nolabait «behartuta» hasten dira lanean, oinarritzko beharrei —bakarkakoei edo familiakoei— erantzuteko diru-sarrerak lortu behar zituztelako, edo zor pribatuaren mailaren igoerari aurre egiteko (batez ere etxebizitza propioa lortu ahal izateko).

Immigrazioaren fenomenoak garapenerako motor garrantzitsua izan da Espainiako estatuarentzat, eta krisiaren aurreko urteetako hazkunde-erritmoa ahalbidetu du. Immigranteen taldeak, batez ere, eraikuntzaren sektoreko eskulanaren beharrari

erantzun zion<sup>26</sup>, higiezinaren apar-urteetan, eta baita nekazaritzaren sektorekoari eta familia-laguntzako zerbitzuen sektorekoari ere.

Argi dago atzerriko herritar guztiak ez direla immigrantetzat hartzen (gogoan izan Europako Erkidegoko herrialdeetako biztanleak); baina estatistikek erakusten dute benetako «dei-efektua» eskulan masibo eta merkearen eskaera izan dela, gaur egun behea jo duen produkzio-eredu batentzat; lan-merkatu dual batean gertatzen den eskaera da, non immigranteek, Espainiako estatuko emakume eta gazteekin batera, egoera ezegonkor bati eusten baitiote, eskubide gutxiagorekin eta beren lan-baldintzak hobetzeko presio-gaitasun oso gutxirekin. Hainbat herrialdeetako nazio-biztanleek mundu-mailako globalizazioan dituzten itxaropenen eta bizitza-mailen arteko desberdintasunak enpresaburuen esanetara edukiarazten du langile-erreserba multzo nekaezin hori eta, modu horretan, esplotazioaren gurpila elikatu egiten da.

2007. urtera arte inoiz ez bezalako oparotasun- eta kontsumo-urteak bizi izan dira Espainiako estatuan. Baina urte horretan ekonomia- eta finantza-krisia hasi zen, eta sektore guztiei eragin zien. Orduetik aurrera igo egin ziren langabezia-tasak, eta eraikuntzaren arloa izan da kaltetuena.

Zehazki, 404.625 atzerritar zeuden Gizarte Segurantzaren izena emanda eraikuntzaren sektorean, 2007ko martxoan; bi urte geroago, ia erdira jaitsi dira eta 210.735 pertsona dira orain (Romero. 2010: 87).

Krisi ekonomikoaren intentsitatearen eta langabezia-tasak hain modu ikusgarrian haztearen aurrean, eraikuntzan murriztu egin dira immigranteak kontratatuzko programak, eta nekazari-kanpainetarako aldi baterako kontratuak sustatu dira. Marrubien patronalak, esaterako, aldeztatik kontratu bat izatea eskatzen du, eta, gainera, nahiago du esperientziadun pertsonak izan daitezen, aurreko denboraldietan parte hartzeagatik lana ezagutzen dutenak. Ondorioz, bertan biztanle langabetu asko badago ere, lehentasuna ematen diote nekazaritza-denboraldirako inportatzen den eskulanari. Gainera, behar den baino jende gehiago ekartzen da, erreserba bat izan eta etekinaren arabera parte-hartzea baldintzatzeko. Berriz ere, kapitalaren exigentzia datorkigu gogora; alegia, soldata negargarriak onartzeko prest dauden langile ugari eta gehiegi egotea eta, José Manuel Romero Freshuelva<sup>27</sup>-ko presidentek zioen moduan, langile horiek guk *gauzak egiteko dugun modura* egokitzeko prest egotea (Freshuelva, 2010).

Enplegua murriztearen egoeraren aurrean, erakundeak immigranteen borondatezko itzulera sustatzen ari dira; bidaia-gastuak ordaintzeko laguntza-programak dituzte, eta baita langabezia kobratzeko erraztasunak ere, baldin eta urte kopuru jakin

<sup>26</sup> Paradoxikoa da gure etxeak eraiki dituztenak beren jabetzako etxebizitzarik lortu gabe geratu izana, eta etxebizitza duin bat lortzeko hainbat arazo izaten jarraitzea.

<sup>27</sup> Freshuelva Huelvako probintziako marrubi-ekoizle eta -esportatzaileen % 95 biltzen duen elkarte da. Alberto Garrocho presidentek honela dio: «Immigrazioaren Hiruko Lan Batzordean eta Migrazio-fluxuak Arautzeko Esparru Hitzarmenerako Batzorde Zentralean gaude». Freshuelva da Espainiako estatuan denboraldiko lan-baimen gehien kudeatzen dituen erakundea.

batean itzultzen ez badira. Hala eta guztiz ere, udal-errolako datuek erakusten dute ez dela kopuru handitako itzulerarik gertatzen ari, baizik eta krisiak migrazio-fluxuak mantsotzea eragin duela. 2010eko urtarrilaren 1eko errolda-datuek adierazten dute Europako Erkidegoko atzerritar populazioak gora egin duela 73.000 bat pertsonako kopuruan, 2009ko urtarrilaren 1eko datuei dagokienez; guztira 2.346.515 pertsona izatera iritsi dira. Erkidegoaz kanpoko populazioa jaitsi egin zen 13.000 pertsona baino zertxobait gehiago, eta 3.362.425 biztanleetan geratu zen. (Espainiako estatuan bizi diren immigranteen kopuruan jaitsiera esanguratsuak nabari dira, soilik, Boliviako, Ekuadorko, Argentinako, Kolonbiako eta Brasilgo jatorria duten pertsonengan. Alderantziz, gora egin dute erroldatutako pertsona marokoarrek, senegaldarrek, txinatarrek, paraguaiatarrek eta dominikarrek). Guztira, beraz, 5,7 milioi immigrante daude Espainiako estatuan erroldatuta, biztanleriaren % 12,2.

### 1. Taula. Immigratutako populazioaren datuak 2009

Europako Erkidegokoak	2.200.000
Erkidegoaz kanpokoak, iraupen luzeko baimenarekin	1.100.000
Aldi baterako baimenarekin	1.500.000
Paperik gabeak	900.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.700.000</b>

Iturria: Romero, 2010

## 2. Migratzaileen helburuei jarritako murrizketak

Estatuek, merkatuaren kontrolean itxuraz ahuldutakoek, beren mugak sendotzen biltzen dituzte indarrak, ongizateari mehatxu egiten dion immigrazioaren imaginarioa sortuz, eta nazioz gairik ez ezarritako aliantzak ezarritako eskulan immigrantea soilik hori izan dadin kontrolatzeko, eskubide-estatuaren ondasun sozialik ez dagokion eskulana.

Migrazio-politikak aztertzen hasterakoan, kontuan izateko datu garrantzitsua da honako hau: Espainiako estatu guztian, migrazioari dagokion arloa —fluxuen eta mugen kontrola, eskubideak eta betebeharrak arautzea—Estatuak soilik erabiltzekoa da. Autonomia-erkidegoei dagokie, besterik ezean, integrazioari loturiko legeriaren garapena, integrazioari dagozkion helburu partikularrei begirako aurrekontu-sailak ezartzea (gizarte-gaiak), hezkuntza, osasuna, eta beste. Alegia, maila teoriko-administratiboa.

Espainiako estatuan 1985ean onartu zen lehen Atzerritarren Legea, Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE) sartu baino pixka bat lehenago. Horrek ez zien atzerritar

populazioa kudeatzeko behar errealei erantzun, baizik eta egokitu zitzaion hegoaldeko muga izatearen paperarengatik.

80ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoaren hasieran, «adreibila»ren goraldiaren eta nekazaritza intentsiboaren eraginez, ordura arte Iparraldeko Europarako iragaitzazko leku izan zen horretan beste herrialde batzuetako jendea finkatzen hasi zen kontuan hartzeko kantitateetan. Kaleetan, beste lurralde batzuetatik etorritako jendearen aurpegia ikusten hasi zen; immigrazioarekin lotutako askotariko erakunde publikoak sortu ziren, hala nola fenomeno horrekin zerikusia zuten GKEak.

1994an immigranteen Gizarte Integrazioarako Plana zehaztu zen (Gizarte Gaietarako Ministerioa), dagoeneko Espainiako estatuan arauzko egoeran bizi ziren etorkinentzat. Gobernuaren ekimenez sortutako plana izan arren, autonomia- eta udal-administrazioen laguntzaz gauzatzea nahi zen, baita gizarte-erakunde eta immigranteen elkarrean laguntzaz ere.

1995ean, Integrazio Planaren babes modura, beste bi erakunde publiko sortu ziren: Immigranteen Gizarte Integrazioarako Foroa eta Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra (bi horiek Migrazioen Zuzendaritza Nagusiari, Atzerritarren Bulegoari eta Atzerriko Ministerioarteko Batzordeari gehituz). 203/1995 Errege Dekretuak diferentziak seinalatzen zituen oro har atzerritarren eta, egoera berezi batzuegatik, hainbat pribilegio ematen zaizkien atzerritarren artean (hala nola, industria-teknikariak eta negozio-jendea). Diferentzia horrek mugak azpimarratzen zituen arrazoi politikoengatik immigrazioaren (asilari dagokionez) eta hertsiki ekonomikoa (baliabide baxukoa) den immigrazioaren artean.

Kritika sozialek 1985eko Atzerritarren Legea aldarazi zuten, eta, ondorioz, 1996ko 155 Errege Dekretua sortu zen; araudi berria onartu zen, eta haren bidez familia elkarketa erraztu zen, iraupen luzeko baimenak eman ziren, edo baita bizileku-baimen mugagabeak ere behin bizileku iraunkorrean sei urte igaro ondoren, nahiz eta baimenak berritzaile lanik ez eduki. Gainera, ezohiko erregularizazio berri bat aurreikusten zuen egoera ezegonkorrean zeudenentzat. Lan-baimenek gehienbat bi sektoreri egiten zieten mesede: etxeko langileei eta nekazaritzakoei.

1995ean indarrean sartu zen Schengen akordioa ezartzeko hitzarmena. Hitzarmen horrek EBko herritarren, Europako Esparru Ekonomikoko (Norvegia, Islandia eta Liechtenstein) eta Suitzako Biltzarrekoen zirkulazio librea bermatzen zuen. Immigranteen artean mailak sortzea eragin zuen horrek, atzerritartzat hartuz EBkoak ez zirenak, Atzerritarren Legea Erkidegoz kanpoko jendeari soilik aplikatuko zaiolarik.

Atzerritarren Legea Europako Erkidegoko esparruan ezarritako irizpideekin bat ez zetorrela onartu ondoren, eta, gainera, atzerriko langileen eskaera gero eta handiago izanik, fluxuen kontrolerako nahi ziren helburuak lortzen ez zituenez, Lege horren erreforma egitea erabaki zen. Modu horretan sortu zen urtarrilaren 11ko Lege Organikoa (LO 4/2000), Espainiako estatuan atzerritarrek dituzten eskubide eta

askatasunei buruzkoa, eta haien gizarte-integratioari dagokiona. Europako legerik aurrerakoienetakoa zen (parlamentuko oposizio guztiak Partidu Popularraren aurka egiteari esker). Lege berri horrek bira osoa eman zion 7/1985 Legeari, besteak beste, immigranteak lanean integratzea baitziun helburu. Finkatuta zeuden etorkinen erregularizatzea erraztu zuen, eta immigranteen urteko kuota batzuk ipini zituen, lan-merkatuan errazago sar zitezten. Lege horrek aurreikusten zuen oinarrizko eskubideak aitortzea legez kanpoko egonaldiko egoeran zeuden pertsoneri, osasun-laguntza unibertsala, legez kanpoko egonaldiko egoerarako zigor gisara kanporatzea desagertzea, eta sustraitze-arrazoiengatik bizileku-baimena onartzea; azken hori ihes-balbula iraunkor gisa aurkeztu zen, legez kanpoko egoeran zeuden etorkinen multzoak pilatzea saihesteko. 4/2000 Legea indarrean zen bitartean, beste egoera bat aurkeztu zen; langileak legez kanpoko egoeran zituzten enpresaburuei ezar zekiekeen zigorrak, erregularizazioa haiek bideratu bai zezaketen, langile migratzaileei berek neurritz kanpoko lan-baldintzak salatzea lagundu zien; izan ere, kanporatuak izateko aukeraren mehatxurik ez sentitzean, hauek izan bai ziren Laneko Ikuskaritzaren jarduera eskasa osatu zutenak. Horrek eragin zuen «dei-efektu» izena eman ziotena, baina, egiazki, garapen ekonomikoari eta eskulan merkearen eskaerari erantzuten zion. Gainera, Espainia eta Ekuador arteko hitzarmen bat ere egon zen migrazio-mugikortasuna errazteko (Icónos 14, 2002).

Lege horrek urtebete eskas iraun zuen, eta gero Partidu Popularrak aldatu egin zuen; izan ere, 2000. urteko hauteskunde orokorretan gehiengo osoa lortu ondoren, bere Lege Organikoa gainditu ahal izan zuen. Urte horren beraren amaieran, 8/2000 Legea onartu zen, eta 1985eko jarrera kontserbadore berdinetara itzuli ziren. Eskubide politikoetara iristea murriztu zuen: parte-hartze publikoa, bilerak, elkarteak, sindikatzea eta greba (6., 7., 8., eta 11. art.). Zirkulazio askerako eskubidea murriztu zuen (5. eta 38. art.), eta baita gizarte-eskubideetarako sarbidea ere: hezkuntza, lana, gizarte-segurantza, etxebizitza eta familiaren berrelkartzea (9., 10., 13., 17., eta 18. art.). Lege horrek behin-behinekotasuna eragozten zuen gurpil zoro edo zentzugabekeria juridiko bat ezarri zuen; izan ere, atzerritar batek lana lortzeko bizileku- edo egonaldi-baimena lortu beharra zeukala zehazten zuen (36. art.), eta baimen hori lan-baimenarekin soilik lor zitekeen (lege horren beraren arabera) (31.2 art.). Soilik etorkinen fluxuen kontrolean arreta jarri zuen legea izan zen, eta Estatuan paperik gabe bizi zirenen kanporatzeko bideen ezarpenean. Horrek erraztu egin zuen pertsona horiekin trafikatzeko zuten mafia ugari garatzea, zeinek etorkin askorentzat bide bakarrak bihurtu ziren sartzeko eta erregularizatzeke.

2002. urtean, Defentsa Ministerioak onartu egin zuen Espainiako armadaren lerroetan Hispanoamerikako eta Ekuatore Gineako immigranteak hartzeko aukera, lehen soil-soilik Estatuko herritarrentzat gordetako jarduketan bazen ere. Handik aurrera, ekuatoriar, kolonbiar eta dominikar ugari izan ziren armada horretako kide. Lehenik, kideen % 2, eta 2007. urtearen amaieran guztizkoaren % 6,87 (5.440 militar). Deigarria da ikustea Espainiako armadan nazioarteko gatazketan ari diren soldadu immigranteen portzentajea ez dela lehengoa, baizik hiru aldiz handiagoa (Utopía, 2008).

Atzerritarren Legearen hurrengo erreforma 2003ko azaroaren 20ko 14/2003 Legea izan zen. Migrazio-fluxuak gehiago kontrolatzeko helburuarekin egin zen erreforma hori. Nabarmentzekoa da Segurtasun Indar eta Kidegoek izan zuten gaikuntza administrazio publikoaren informazioa eskuratzeko, eta baita Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren alde udal-errolak eskaintako informazioa eskuratzeko ere; hori ere aldaketa bat izan zen norbanakoaren erregularizazio-aukeretan, sustraitzeko bidetik. Legez kanpoko immigranteen eskubideak oraindik gehiago murrizten zituen legea zen, eta ia erabat galerazten zuen legez iristeko modurik izan ez zutenak legeztatze aukera; alegia, aurrez lan-merkatuan sartzeko beharrezko lan-baimenik lortu ez eta, ondorioz, integrazio sozial osorik lortu ez zutenak. Kontua da Estatuan bizi diren etorkin gehienak udal-errolan izena ematen dutela, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetara iristeko modua izan dezaten. Lege horrek poliziari errolako-datuetarako sarbidea ematen dionez, legez kanpoko egoeran daudenak aurkitu ditzake poliziak, eta kanporatu, hala erabakitzen badu.

Aipatzekoa da kanporatzea (64. art.) —paperik gabe izatearen «delitu» berri hori eratzen zuenari eta zutenei ezar dakioken zigorra— kasurik gehienetan ez dela betetzen.<sup>28</sup> Aipatutako arauarekin bat, agiririk gabeko bat atxilotzen dutenean, Espainiako lurraldetik ateratzeko agintzen zaion kanporatze-jakinazpen bat jasotzen du. Errealitatean, zentro itxietan sartzen dituzten agiririk gabeko asko askatu egiten dituzte gero. Honela azaltzen du Romerok:

Atzerritarren Legeak eta harekin antolatutako errepresio-gailu askotarikoek ez dute, funtsean, *kanporatutako immigranterik* sortzen, baizik eta kanporatzera *mehatxatutako immigranteak* (neurri handiagoan edo txikiagoan). Hori dela eta, ezinbestekoa da harremanetan jartzea erakundeen biolentziaren ardatza — atzerriko legerian oinarriturikoa— eta lan-merkatuan betetzen den lekuaren bidez adierazten den biolentziaren ardatza (Romero, 2010: 131).

Kanporatze-txartelduna izateak ofizialdu egiten du beren marjinalitate-estatutua, eta azpimundu batean bizitzera behartzen ditu, lanaren merkatu beltza eta bazter sozialak elikatuz. Aipa daitezke, baita ere, egoera hori ustiatuz eta agiririk gabekoez baliatuz beren «abuztua» egiten duten zenbait abokatu, askotan itxaropen edo behar faltsuak sortuz.

Guztira, 2000-2004 denbora-tartean migrazio-politikarekin zerikusia duten neurrien artean nabarmentzen dira: Atzerritarren Legearen lau erreforma, ezohiko hainbat erregularizazio, eta migrazio-fluxuak antolatzeko alde biko hainbat akordio sinatzea; akordio horiek, nagusiki, Latinoamerikako herrialdeekin egiten dira, eta ordainetan Espainiatik erbesteratutako beren herritarrak berriz onartzea eskatzen dute.

<sup>28</sup> Horri dagokionez, hau dio 2002ko Espainiako estatuko arrazismoari buruzko urteko txostenak, SOS Arrazakeria erakundeak egindakoak: «Kalkulatzen da gauzatu gabeko kanporatze-espeditentak dituzten atzerritarren % 88 Espainiako lurraldean geratzen dela. Pertsona horiek marjinaziora kondenatuak daude: kanporatze-espeditentea zabalik izateak edozein erregularizazio-aukeratetik kanpo uzten ditu [...]»

2004tik aurrera sozialisten gobernuarekin hasitako aldian, nabarmentzekoa da mantendu egin zirela langile etorkinak kudeatzeko helburuak, lan-merkatu nazionalaren beharren eta legez kanpoko immigrazioaren aurkako borrokaren arabera. «Paperik gabeko langileen multzo» horien konponbidea segidako «ezohiko» erregularizazioak deitzea izan zen, ekonomia formalari milaka langile migrante agerrarazteko helburuarekin. Edozein kasutan, prozesu horiek ezin dira definitu erregularizazio masibo gisa, horietan guztietan lan-eskaintza finko bat aurkeztea eskatzen baitzen, eta baita enpresari edo enplegatzaile eskaintzaileari zegokion dokumentazioa. 2005. urtean egin zen ezohiko azken erregularizazioa, eta askok paperak lortu bazituzten ere, handik gutxira legez kanpoko egoerara itzuli ziren, berrituz lortu ez zutelako.

Aurrez aipatu dugun Greco Plana (2001ekoa) mugetako polizia-kontrola indartzera bideratu zen. 2006an Espainiako Gobernuak Afrika Plana onartu zuenean, Europako Mediterraneoko beste herrialde batzuek egin zutenaren antzera, Iparraldeko Afrikako gobernu ustel eta diktatorialen laguntzarekin, «mugak kanporantz zabaltzea» deritzon fenomeno gaiztatu zen; alegia, Europako kostaldera iristen diren biztanleak atxikitze zentroak sortzea, migrazio-fluxuak kontrolatzeko erantzukizuna Libia, Aljeria, Tunisia, Maroko eta beste hainbat herrialderen esku utziz.

Atzerritarren Legearen hurrengo erreforma 2009ko azaroan onartu zen; mugetako erregimena gogortu egin zen, eta familia berriz elkartzeko eskubidea murriztu (paperak lortzeko bide garrantzitsua zena), beste neurri batzuen artean. Erreformaren beste alderdi negatiboetako bat da genero-indarkeriaren paperik gabeko biktimak espediente zigortzaile baten mende jartzea denuntzia egiteko unean, eta horrek emakume askori burutik kenduarazten zien komisaldegietara hurbiltzea. Gainera, immigranteen gaineko kontrola gogortzean jartzen zuen arreta erreforma horrek. Horretarako, zigor daitezkeen jarrerak gehitu egiten ziren, eta % 60an baino gehiagoan areagotzen zen isunen zenbatekoa. Kanporatzeko prozedura isunagatik ordezkatzeko 301 eurotik 501 eurora igaro zen. Zigorra kuantitatiboki eta kualitatiboki aldatuz «ziklo ekonomiko»en arabera, edo horiek aitzakiatzat erabilia. Gainera, beren paperak bideratu nahi zituzten pertsonak —hasierako baimenaren edo berrituzko kasuan izan— aurrez ordaindu behar zituzten administrazio-tasak, prozeduraren emaitza edozein izanda ere. Hutsegite larriak bihurtu ziren honako kasu hauek: ezkontzea paperak lortzeko asmoekin, antzeko harreman afektibo baten itxurak egitea edo adingabeko baten legezko ordezkari bihurtzea, bizileku-eskubidea lortzeko helburuarekin; edo etxebizitzaren jabeak etorkin baten izena ematea udal-errolan, hori ez bada immigrantearen bizileku erreala eta 501 eta 10.000 euro bitarteko isunakin ordaintzera beharzen zen.

2011ko ekainaren 30ean Espainiako estatuan indarrean sartu zen Atzerritarren Legearen azken Araudiak, besteren artean, familia berriz elkartzeko eskubidea murrizten du. Ezegonkortasun juridiko-laboralak oztopatu egiten du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aitorturiko familia-bizitzarako eskubidea eskuratzea. Erreforma honek, eskubideen arloan ezarritako murrizteak mantentzeaz gainera, arauak larritu eta gogortu egiten ditu, Gobernuak iritzi publikari lege aurrerakoi gisa



«saltzeko» egindako ahalegin demagogikoak gorabehera. Atzerritarren gaian, arautzea urrun dago herritar guztientzat ezinbesteko baldintzak asebetetzetik. Are gehiago, legeak berak jartzen ditu premisak gure gizartea igarotzen ari den bazterketarako eta desberdintasun sozial eta politikorako.

Nahiz eta egunero helarazten diguten inbasio-arriskuaren irudi mehatxatzailea eta immigranteen aurkako errepresio-mekanismoak sendotzea argudioak, esan dezakegu migrazio-fluxuen arautze kuantitatiboa —horiek mugatzea ulertuta— ez dela izan Espainiako estatuaren migrazio-politikaren helburu nagusia. Izan balitz, gaur egunera arteko eraginkortasuna zalantzarikoa litzateke: bost urte eskasean, bizileku-baimena duten immigranteak 1.854.218 pertsona izatetik (2004ko iraila) 4.791.232 pertsona izatera (2010eko urtarrila) igaro dira; alegia, 2,5 aldiz gehiago dira. Bizileku-baimena duten ia 4,8 milioi etorkin horiei paperik gabeko biztanleak gehitu beharko litzazkieke: 2010eko urtarrilaren 1eko erroldak 5,7 milioi atzerritar azaltzen ditu.

Aldi baterako bizileku-txartelak eta iraupen luzekoak daude. Azken horiek ere ez dute bermatzen, ordea, paperak berrituz; izan ere, bere lanpostuari eusteko gai ez dena edo, horren ezean, Gizarte Segurantzaren kotizatzen jarraitzeko kontratuak lotzeko gai ez dena, halaber, bizileku-baimena galtzera bideratua ikusiko da bere txartela amaitzen den unean. Europako Erkidegoaz kanpoko biztanleriaren zati bat espainiar nazionalitatea lortzen ari da (451.249 pertsona 1995 eta 2010 urteen artean), nahiz eta hainbat salaketa egon izapideak egiteko zailtasunei dagokienez eta ohikoa baino denbora gehiago behar dela esanez (El Migrante, 2011:17). Egoera arautzeko, Espainiako nazionalitatea duen pertsona batekin ezkontzea ematen den arren ez da adierazgarria estatistika-terminoetan.

Jatorrizko herrialdearen arabera, diferentziak daude arauzko egoera administratiboan edo ez-arauzkoan. Esate baterako, 2010eko urtarrilean erroldatutako ia laurehun mila ekuatoriar legezko egoeran daude neurri handi batean, eta talderik mesedetuena dira 2005eko erregularizazioari eta alde biko akordioei esker. Boliviako migrazioak —2010eko urtarrilean erroldatutako berrehun mila pertsona baino gehiago—, aitzitik, irregulartasun-tasa altuagoa du, nagusiki 2005az geroztik gertatu zelako. Antzeko zerbait gertatzen da Paraguai, Honduras, Uruguai edo Nikaraguatik datorren migrazioarekin.

Sustraitze sozialagatiko erregularizazioak —alegia, Estatuan gutxienez hiru urte egotearen akreditazioa eta lan-kontratu bat izatea— atzerritarrak pixkanaka beren egoera legezztatzen joatea ahalbidetzen du, ezohiko erregularizazio-prozesu baten beharrik gabe, nahiz eta beste ezohiko erregularizazio-prozesu bat izan, paperik gabekoen multzo handi bat sortzea ekiditzeko. Atzerritarren Legeak «ezohiko egoeretan» ezartzeko neurritzat jotzen badu ere, sustraitze soziala paperik gabeko etorkinak legezartzeko bide nagusia bilakatu da Espainiako estatuan.

«Deklaratu gabeko» praktikek, esate baterako turistak Espainiako lurraldean sartzeko legez ezarritako baldintzen eskakizunen malgutasunak (gogoan izan hori dela immigrante ekonomikoak sartzeko bide nagusia) eta etengabeko erregularizaziorako

mekanismo malgurik ez izateak legez kanpoko egoeran dauden migratzaile langileen aldian behingo pilaketak eragin ditu 90eko hamarkadaren amaieraz geroztik; migratzaile horiek behartuta daude ezkutuko ekonomiaren % 23 horretan parte hartzera, zeinak, paradoxikoki, produkzio-sektore jakin batzuk mantentzeko (nekazaritza, eraikuntza, ostalaritza, etxeko lanak, mendeko pertsonen zaintza-lanak, edo sexu-industria) funtsezko pieza osatzen baitu. Legez kanpoko langile horiek betetzen dituzte bertako herritarrek neurri batean utzitako «lan-zokoak».

Espainiako Atzerritarren Legearen etengabeko izaera murriztailearen eta laneko migrazio-fluxuen kudeaketari dagokionean «deklaratu gabeko» administrazio-praktika permisiboen arteko desadostasuna estuki lotua dago barneko lan-merkatuan eragin handia izan duten hainbat gertaerarekin: eraikuntzaren sektorea zabaltzearen eta aldi berean garatutako «higiezinaren apar» izenekoa garatzearen eta baita nekazaritza intentsiboa garatzearen ondorio gisa ere, Espainiako estatuan bizi izandako oparoaldi ekonomikoa; 90eko hamarkadaz geroztik emakume ugari lan-merkatuan sartu izana; biztanleria progresiboki zahartzea eta, horren ondorioz, gutxi garatutako ongizate-estatuak eman ezin diren zaintza behar duten pertsona heldu mendekoen kopurua areagotzea.

Bai ekonomia formalak bai ezkutuko ekonomiak langile ez-kualifikatuen kopuru handia eskatu dute hamar bat urtean zehar. Esan daiteke botere publikoek modu «ez-ofizial»ean erraztu dutela eskulan horretaz hornitzea, nagusiki aurrez zerrendatutako sektoreetan.

Aldiro emakume gehiago ateratzen dira beren herrialdeetatik, bizitzeko estrategia berrien bila. 1998 eta 2008 urteen artean bizi izan zuen emakumezkoen immigrazioaren hazkunde garrantzitsua Espainiako estatuak; bi milioi pertsona baino gehiagoko kopuruan areagotu zen<sup>29</sup>. Emakume horien artean aitzindari kopuru garrantzitsua nabarmentzen da, nagusiki Latinoamerikako herrialdeetatik etorriak. Emakume langile horiek bete zituzten tradizioz emakumeek egindako lanak, eta bertakoek neurri batean utziak zituztenak, hobeto ordaindutako eta beren prestakuntza-mailarekin adosago zetozen lanbide batzuetara igarotzeko.

Dena dela, aukera horri betoa jartzen zaio Atzerritarren Legeriak aipatutako lan-zokoetan parte-hartzea inposatzen diren emakume migratzaileen kasuan, beti ere, enpleguaren egoera nazionalak hala aholkatzen badu. Hasierako «esleipen» horrek, lan ezegonkor eta gaizki ordaindutako balio-galera sozialarekin batera (esate baterako etxeko zainketak, oraindik ere eskaera handia izaten dutenak), etxeko lana eta antzeko sektoreak emakumeen —orain immigranteen— jarduera propio bilakatu ditu; ondorioz, kasu askotan beste enplegu batzuetara mugitu nahi badute ere, hori ez da gertatzen, emakume langileentzat zaila baita beste jarduera batzuetan lana aurkitzea, eta denbora gehiegi eta kostu handiegia izaten baitu tituluen homologazioa bideratzeak. Sartze espezializatu horretarako gogoia pizten duen beste elementu bat da lan mota horrek duen

<sup>29</sup> Kontseilu Ekonomiko eta Soziala (2009)

ordutegi-baliagarritasuna. Emakume etorkinek baliagarritasun hori dute, beren herrialdeetan utzi dituztelako bikoteak eta seme-alabak.

Lan-enplegua Etxeko Langileen Erregimen Bereziak (gaztelaniaz, REEH)<sup>30</sup> arautzen du, 1424/85 Errege Dekretuan jaso, eta gainerako lan-sektoreetatik ezberdina den erregulazioa ezartzen du. Erregimen Berezi hori, zalantzarik gabe, sexuagatiko zeharkako diskriminazio modu gisa defini daiteke.

Gainera, sektorean gizarte-babesik ez duen langile asko dago, bai REEHk kotizatu gabe lan egiteko aukera ematen duelako (hilean 72 ordu baino gutxiago lan egiten dutenen kasua da hori), bai administrazio-irregulartasuneko egoeran dauden migratzaileak direlako. Hau da, informaltasun-tasa oso altuko sektorea da, eta enplegatuak langabezia-saririk, bazarik eta gizarte-eskubiderik lortzeko aukerarik gabe uzten ditu. Sektore horretan sartzen diren ia pertsona guztiak desabantaila-egoeran dauden herrialdeetatik datoz, mundu-nagusigoari dagokion terminoetan. Alegia, sektoreak herrialdeen arteko desberdintasunak islatzen ditu, globalizazioaren testuinguruan.

Bestalde, immigranteen zati bati aukerak murrizten bazaizkio ere, aipatzekoa da Europako Parlamentuak abian jarri zuela Lan Mugikortasunaren Garapenerako Ekintza Plana. Europar identitatearen eraikuntzan, mugikortasuna erraztera bideratutako ekintzak gauzatzen dira, terminoa konnotazio positiboekin betez. EBko langileen ehuneko berrogeik lanpostu berean iraun izana hamar urtean baino gehiagoan, estatistika negatibotzat hartu dute Europako erakunde eta agintariak, lan-merkatuaren zurruntasuna islatzen duela-eta. Beste herrialde batera ikastera edo lanera joateko aukera askatasunaren adibidetzat erakusten da. Dalla Costak baieztatzen du immigrazioa dela Europako integrazioaren «tresna bultzatzailea» (Dalla Costa, 2009: 88). Eta Romerok honela adierazten du:

Ez gara ausartzen baieztatzerik migrazio-mugimenduak metatze kapitalistaren historiaren *elementu nagusi* direnik; baina gaur egungo *Kapitalaren Europa* eratzeke ezinbesteko osagai izan dira eta dira, zalantzarik gabe (Romero, 2010: 41).

Zalantzarik gabe, mugimendua funtsezko elementua da Europako kapitalismoaren interesak defendatzeko; alde batetik, kualifikazio profesional baxuko Europako Erkidegoz kanpoko langileen edo beren tituluak homologatu ezin dituztenen eskaintza nahikoa ziurtatu nahi dute, eta, bestetik, kualifikazio altuko Europako Erkidegoko langileak bilatzen dituzte —eta baita Erkidegoz kanpokoak ere—. Jatorrizko herrialdetik *buru argien ihesa* saihesteko garrantziaz egin diren adierazpen ofizialak gorabehera, errealitatea da gero eta handiagoa dela kapitalismoarteko lehia langile kualifikatuak erakartzeko, osasunaren sektorean, informazioaren teknologia berrietan eta antzeko sektoreetan. Esparru horretan, langile mota horrentzat bizi- eta lan-baldintza bereziak eskaintzen dituen *txartel urdina* izenekoa jartzen da abian EBren barnean.

<sup>30</sup> REEH Régimen Especial de Empleados del Hogar

### 3. Paperik gabekoen erresistentzia

«Legezkotasunik eza» edo irregulartasuna ez da istripu bat, kontrol-mekanismoetan kontuan hartutako zerbait da. Gizarte-funtzionamenduaren elementu guztiz positiboa, eta haren funtzioa migrazio-politikan aurreikusia dago. Legea ez dago eginda immigranteen zati baten legez kanpoko sarrera edo egonaldia eragozteko. Legez kanpoko immigrazioaren kontrako borrokan sendotasunari buruz egindako adierazpen politikoak ere ez dira berriak; izan ere, Europako herrialde batentzat immigrazio legezko eta ordenatuaren eredu bat aurkeztu den bakoitzean, merkatu kapitalistak ezkutuko taldeak iristeko bide eman du; talde horiek egoki diziplinatu dituzte igarotze-baldintzek, legeek eta Estatuaren beraren errepresiozko praktikek. Michael Foucaultek esango lukeen gisara, jende diziplinatua da, diziplinarekin ezagutzen baita gorputza objektu gisara eta boterearen jomuga gisara. Manipulatu eta hezten den gorputz bat, obeditzen duena, gorputz kalkulatu, bere zatietan lan egiten dena, menderatua, ohiturazko automatismoz erabilgarria, esanekoa. Ez da oinarritzen gorputzez jabetzen den harreman baten gainean. Helburu nagusitzat norberak bere gorputzarengan duen jabetza areagotzea du.

Gaur egun indarrean den Atzerritarren Legeak legez kanpoko legez-kotasuna bermatzen du, eta eskubiderik gabeko jende multzo bat egotea justifikatzen du. Ekonomia informalarri eusten diotenak dira, ekonomiaren funtsezko oinarrietako bat dena. Atzerritarren Legeak esplotazioa, eskulan merkea, eta langileen zaugarritasuna justifikatzen ditu. Gainera, legez kanpoko immigranteak «gaizkile baliagarriak» dira, guztiaren errudun izan baitaitezke. Ondorioz, immigrazioak behatoki politiko gisa funtzionatzen du; populazioaren gaineko kontrol-mekanismo ugari legezkatzen ditu, eta boterearen engranajeetako bat bihurtzen da. Kostu baxuko langile adeitsuak sortzen ditu sistema kapitalistari eusten jarraitzeko, kapitalaren interesei mendekotasuna bermatuz. Modu horretan, kolonizazioak diziplinatu ez zituen haiek homogeneizatu eta kulturizatu ditu, eta beste garai batzuetan itsasoz haraindi hasitako lana jarraitu du.

Atzerriko eskulanaren presentzia justifikatzeko etorkina beharrezko baliabidetzat hartu da, lan-sektore batzuetan sortzen diren arazoei konponbidea emateko, edo zahartutako gizarte honetan arazo demografikoa eta pentsioena konpontzeko; diskurtso nagusiak, ordea, immigrazioa pobreziarekin eta delinkuentziarekin lotu du hainbat estrategiaren bidez.

Migrazio-politika guztiek kanpotik etorritako pertsonen fluxu-kontrolaz hitz egiten dute. Kontrol hori ez da posible, eta ez da nahi ere, ehuneko ehunean. Gutxi gorabehera planifikatutako eta baimendutako migrazio-mugimendu bati ustez kontrolik gabeko immigrazioa gainezarri zaio beti eta, garaiaren arabera, «basati»tzat, «ezkutuko»tzat, «irregular»tzat edo «legez kontraktatzat» hartu izan da. 1996tik aurrera —Frantziar gogor baldintzatutako mobilizazio kolektibo baten data—, «paperik

gabeko» adierazpena orokortu egin da hiztegian, «kalifikazio gutxiesgarri horien guztien aurreko erreakzio gisara eta migrazio-prozesuen egiturazko izaeraren froga gisara».

Orain, lehen bezala, ezkutuan sartzen jarraitzen duen jendea dago, bizitza arriskuan jarritz, beren identitateak eta gorputzak jokoan jarritz, kanpoko mugei obeditu gabe, eta egunero «atzerritartasun iraunkorrek», Seyla Benhabib-ek deitzen dien bezala (2005), inposatzen dizkien barneko mugei aurre eginez eta jasanez; etnia- eta nazionalitate-arrazoiengatik kondenatzen direlarik. Subjektu poskolonial horiek funtsezko argibideak ematen dituzte, kosmopolitismo transkultural batetik, herriek edo komunitate politiko garaikideek nahi duten sistema politiko demokratikoak birplanteatzeko, birpentsatzeko, European ere.

«Paperik gabeko»en gizarte-mugimendu edo borrokek beren ekintza politikoa bideratzen dute mundu-mailako sistema baten aukeren artean, zeini aitortzea exijitzen zaion edozein pertsonak duen eskubidea non egon eta bizi nahi duen aukeratzeko eta «atzerritartasunak» berez zentzurik ez izatea. Immigrazioaren kudeaketa trafikistaren logikari kontra egiten diote. «Bertakoak ez diren» herritarrentzat mota guztietako lege bereziak desagertzeko proiektu politikoan kokatzen dira.

Nahiz eta «paperik gabeko» immigrazio hau hainbat presioa eta kontroletara makurtu behar izan, zenbait unetan matxinatu egin da Espainiako estatuan bai beste herrialde batzuetan. Frantzia indar handia izan du «Sanspapiers»en mugimenduak eta, 1996tik aurrera, protesta eta mobilizazio garrantzitsuak gauzatu dituzte.

2000. urtearen erdialdera, Espainiako estatuan paperik gabekoen mobilizazioen atarikoak hautematen hasi ziren. Legez kanpoko egoeran zeuden hirurehun pertsonak erabaki zuten Almerian, San Jose elizan, itxian sartzea, ezezkua emandako erregularizazio-eskaeren portzentaia altuaren aurka protesta egiteko; eta baita urte bereko otsailan El Ejidoko eraso arrazisten<sup>31</sup> ondoren izan zen administrazio-isiltasunaren aurrean antolatutako protesta, itxialdi eta mobilizazioei jarraipena emateko ere. Gertaera horiek agerian utzi zuten Almeriako miraria zer neurritako injustizia eta esplotazioaren gainean finkatuta zegoen (Majuelos, 2000).

2001eko urtarrilaren 3an, Lorca udalerrian (Murtzia) (*in* Suárez *et al*, 2007: 191), Ekuadorko hamalau langile aurrean eraman zituen aldiriko tren batek Murtzia-Águilas linean, hesirik gabeko trenbide batean; hamabi hil egin ziren. Haietako inork ez zuen lan-baimenik, nahiz eta gertaera izan zen lekutik gertuko lursail batean aritu lanean jornalari gisa. Nagusia atxilotu egin zuten eta isuna jarri zioten, eredu gisa balioko zuelakoan. Gertaera horrek alarma piztu zuen paperik gabekoak bizi ziren eta lan egiten

<sup>31</sup> 2000ko otsailaren 5, 6 eta 7an, El Ejido (Almeria) udalerrian, gertaera tamalgarria izan zen: buru-nahasmentuak zituen Magrebeko pertsona batek gazte bat hil zuen labankadaka. Horrek biolentzia arrazistadun uholde bat eragin zuen, eta ehunka biztanlek parte hartu zuten negutegietan lan egiten zuten edozein milaka langileren, bereziki magrebtarren, aurka, jazarpen irekian, antolatuan, denak batera; eta herriguneko komertzio, jabetza eta etxebizitzaren kontrako erasoak ere izan ziren.

zuten egoeraren larritasunaz. Estatuaren Lan Ikuskaritzako organoek hartutako zigorraren aurrean, inguruko nekazari-enpresaburuek bat-batean erantzun zuten, eta nekazari-lanetan normaltasunez sartuta zeuden legez kanpokoak kontratatzeari utzi zioten. Legez kanpoko eskulana kontratatzeagatik ezartzen zituzten isunen aurreko beldurrak kaleratze sail izugarria eragin zuen Estatuan. Aldi hartan, sakonki zaindu zuten legez kanpoko egoeran zeudenak lanean sartzea, eta okerrera jo zuten milaka langile atzerritarren baldintza ezegonkorrek herrialde guztian zehar.

Bi gertaera horien aurretik, baziren Espainiako estatuan zeuden, eta modu egonkorrean jarraitu nahi zuten, atzerritar guztiak erregularizatzea aldarrikatzen zuten zenbait ekimen antolatu. 1996eko irailean, Gobernuak aurkeztu berri zuen PPre migrazioaren kontrako politikari erantzuteko elkartu ziren hiru erakunde: Kataluniako Immigranteen Kolektiboaren Federazioa (FCIC), Bartzelonako Bizilagunen Elkartearen Federazioa, eta GKE-en Federazioa. Ekimen hori Madrilan sustatu zen ondoren, eta 1997ko urrian «Paperak Denontzat» Plataforma eratu zuten berrogeita bederatziz gizarte-erakundek.

2001eko urtarrilaren 8an batzar bat egin zen, eta Lorcatik Murtziarako Bizitzaren aldeko Ibilaldi bat; 1.500 immigrantek parte hartu zuten, eta enpresaburuek, sindikatuek, tokiko administrazioak, elkarteek eta kausaren alde zeuden askotariko pertsona ugarik ere bat egin zuten ibilaldiarekin.

Urtarrilaren 14an, herriko kirol-pistetan egindako batzar batean, Lorcako San Mateo elizan itxialdia egitea erabaki zen. Paperik gabeko laurogei eta ehun pertsona artean sartu ziren elizaren lokaletan. Erretoreak inposatu egin zituen itxialdiaren baldintzak: besteak beste, atek itxita izan behar zituztela, inor ezin zela barrutitik atera berriz sartzeko, eta lokaletik atera egin behar zutela politikoez eta protesta-ekintza hori abiatzea erabaki zuen taldekoa ez zen beste edozein pertsonak. Apaiz hark, protesta-ekintza hura itotzen laguntzeaz gainera, mobilizazioaren aurrean erakundek zuten alderdirik zinikoena erakutsi zuen: haren izaera politikoa saihestea.

2001eko urtarrilean, Bartzelonan, Erdialdeko eta Mendebaldeko Afrikatik etorritako dozenaka langile bildu ziren Catalunya plazan, eta kalean bizi izan ziren hainbat egunetan. Beren agiri bakarra kanporatze-agindua zen. «Argazki» hori egunero ikusten ohitzeak gainerako hiritarren aurrean ikusezin bihurtzea ekarri zuen, hiriko paisaiaren zati gisa integratuz, itxurazko normaltasun batean. Urtarrilaren 20an, paperik gabeko hirurehun pertsona sartu ziren Santa María del Pi elizan, bertako erretorearen onespenerari esker; apaiz hark bazuen ordurako protesta-ibilbide bat egina. Mossén Vidal Kataluniako CCOO eratu zen parroquia txiki batetik zetorren, eta frankismoaren aurkako erresistentziak babes hartu zuen parroquia batetik, hain zuzen. Parrokiako aretoetan edo bat-batean asmatutako eguzki-oihalen azpian hasi zuten itxialdia nagusiki pakistandarrek eta Bangladeshkoek, baina baita marokoarrek eta beste hainbat afrikarrek ere; eta, ondoren, beste zazpi elizetara zabaldu zen itxialdia. Guztira 350 pertsona izatera iritsi ziren. Pi-n hasi zen, ondoren, mobilizazioetako gose-grebarik

gogorrena. Aldi berean, milaka pertsona atera ziren kalera immigranteen eskubideen alde.

Madriken, 2001eko urtarrilaren 17an, Chaminade ikastetxe nagusiko itxialdiarekin hasi ziren mobilizazioak. Handik aurrera zabaldu egin ziren itxialdiak. Urtarrilaren 27an San Ambrosioren txanda izan zen. Kointzidentzia hutsez, Vallecasen aukeratutako parrokiak Parisko Saint Ambroise mitikoaren —1996an paperik gabekoei aterpea eman zienaren— izen bera du. Vallecas izan zen frankismoaren garaian tradizioz handienetakoa izan zuen langile-auzoa. Martxoaren 30ean Herriaren Defendatzailearen bulegoa hartu zuten, haren isiltasunaren adierazgarri, eta bulegoak aitortpena eta babes eman diezaiela eskatuz, aldarrikatzen ari ziren eskubideei zegokienez.

Otsailaren 19an, Almeriako Unibertsitate Campusean, immigrante talde bat unibertsitate-barrutian sartu zen han gelditzeko asmoz, beren eskubideen alde borroka eginez, beste probintzia eta autonomia-erkidego batzuetan gertatu ziren itxialdiekin batera. Andaluziako eskualdean, itxialdi hura bat etorri zen Huelvako marrubi-eremuan egin ziren antzeko beste batzuekin. Era berean, Valentzian ere itxialdiak izan ziren.

Okupatu zituzten bederatzi elizetako batek babes eman zion «emakumeen itxialdia»ri; besteen eskaera berdinak egiteaz gainera, erresidentzi baimena lortzeko emakumearen autonomia eskatzen zuten horiek; hau da, emakume baten egonaldi-eskubidea ez jartzea familia berrelkartzearen figura juridikoaren mendean.

Itxialdian zeudenek, gainera, prostituzioa lan gisa aitortzea eskatzen zuten, eta, ondorioz, sexu-langileak erregularizatzea juridikoa ez den egoeretan (Varela, 2007: 228).

Ezin dugu ahaztu gaur egun sexu-merkatuan lan egiten duten emakumerik gehienak, txosten eta ikerketa guztietan adierazten den gisara, Europako Erkidegoaz kanpoko atzerritarrak edo Erkidegoan orain dela gutxi sartutako herrialdetakoak direla; haiengan oraindik zirkulazio askearekin loturiko luzamenduak aplikatzen direlarik.

«Paperak Denontzat», «Inor ez da ilegala» eta «Atzerritarren Legearen aurka» izango dira funtsezko leloak mobilizazioetan eta herritarren balioak eta printzipioak aldarrikatu zituzten adierazpenetan. Modu horretan, «paperik gabekoek» lortu zuten Gobernu Zentralak erregularizazio-prozesu bat «abiaraztea», nahiz eta Atzerritarren Legea indargabetzerik ez lortu. Hau da, gizarte-mugimendu gisa, jakin zuten gatazkaren aurreko indar-korrelazioa eta konponbide errealak estrategikoki aitortzen. Egia da, baita ere, haietako zenbait Atzerritarrentzako Atxikitze Zentroetan<sup>32</sup> sartu zituztela eta, ondoren, beren herrialdeetara erbesteratu; protestak izan eta handik gutxira, Gobernuak 2001eko amnistia iragarri zuen eta, ondorioz, aurkeztutako erresidentzia baimenerako 615.377 eskaeretatik 334.882 onartu ziren (Zenia, *in* Suárez-Navaz *et al.*, 2007: 105).

<sup>32</sup> CIE Centros de Internamiento de Extranjeros



Gertaera positiboa izan zen talde-identitate politiko berri baten presentziaren inguruko irudikatze eta sensibilizazio soziala; alegia, «paperik gabekoak» honako hau esaten: aski du Estatuak legezotasunik eza ekoizteaz. Modu horretan hasi zen migratzeko eta gelditzeko eskubidearen alde, mugitzeko eta irautekoaren alde, eta pertsona guztiek eskubideak izateko duten eskubidearen alde borrokatzen zuen mugimendua. Bere alde erakarri zuen iritzi publikoaren arreta, eta zilegitasuna irabazi zuen. Garai hartan lortu zen «paperak denontzat» aldarrikapena gutxiengo batek goratutako kontsigna izatetik, ordura arte haren nahiko kontrakoak ziren eragile politiko askoren agendan leku bat izatera.

Beste gertaera positibo bat izan zen Gobernu bere hasierako amorerik ematen ez zuen posizio hartatik mugitzea lortzea. Zalantzarik gabe, paperik gabeko jendearen mobilizazioak ustekabean harrapatu zuen Gobernu. Ez zuen aurreikusten, gainera, iritzi publikoan zenbaterainoko oihartzuna izan zuen eta zenbat babes lortu zuen. Kanpoan uztea erabaki zuen haien zantzak, esku gogorra behar zela aditzera ematen zuen gobernu hura, agindu zuena ezin bete izanaren kontraesanek kokatu zuen errebolta.

Herritartasun nazionalaren ereduaren diren oinarrizko kontraesanaren zantzua da paperik gabekoen aldarrikapenaren arrakasta. Prentsan, askotan, paperik gabekoen irudiari kriminala ematen bazaio ere (bai diskurtso politiko nagusian, bai iritzi publikoan), egia da herri-mailan beren interesak modu konplexuan eta harrigarrian antolatzen dira kolektibo, erakunde eta zerbitzu publiko eta pribatuen interesekin.



Periferia poskolonial guztietatik etorritako pertsona migratzaile horiek subjektu politiko bihurtu ziren; immigrazioaren zorigaiztoko interpretazioak atxikitako biktimen lekutik mugitu, eta beren errealitatea eraldatzeko gai ziren eragile izatera igaro ziren, eta Europako Erkidegoari interpelatu zioten bere erregimen demokratiko-liberalak sustatzen zituen mendekotasun-harremanak.

Positiboa izan zen ordura arte printzipio bat izan zena zalantzan jartzea ere: herritartasun eskubideen zati handi bat loturik zegoela, modu bereizezin batean, nazionalitateari. Une horretatik aurrera, progresiboki, gure gizartean eskuarki bizi ziren pertsonen aitortzen hasi zitzairen, «paperak» izan hala ez kontuan hartu gabe, ordura arte bertakoentzat soilik ziren eskubide sail bat: osasunerako, hezkuntzarako, gizarteratzeko politiketarako, gizarte-sarreraren baliabideetarako, etxebizitzaren politika publikoetara iristeko eta beste hainbat eskubide. Are gehiago, eskubide politikoen eremuan, adostasun handia dago gaur egun Espainiako gizartean hauteskundeetan boto-eskubidea aldarrikatzeari buruz, gure artean modu egonkorrean bizi diren pertsonentzat. Immigranteak buru ziren borroka horien helburua izan zen muga nazionaletatik haratago doan herritartasun oso bat lortzea, herritartasun postnazionalaren eredu baterantz joaz; eta atzerriko politikan eragitera iritsi ez baziren ere, gutxienez gaur egungo hegemoniei aurre egiteko moduak eta gogoak agerian jarri zituzten, jarraitzeko bide bat irekiz, eta bertako biztanleak sentsibilizatuz.

PSOE gobernura sartzeak ondorio batzuk ekarri zituen, seguru asko, paperik gabekoen bilakaeran eragina izango zutenak. PP Moncloan ordezkatu eta handik gutxira ikusi ahal izan zen lehen adibidea. 2004ko ekainaren 5ean, 5.000 pertsonako manifestazio batek zeharkatu zituen Bartzelonako kaleak, «Paperak denontzat» eskatuz. Manifestazioaren amaieran, paperik gabeko 1.500 etekin baino gehiago katedralean itxi ziren. Beste ehunka Pí elizan gelditu ziren; kasu horretan, polizia katedralean sartu eta indarrez irtenarazi zituen itxialdian zeudenak; bere garaian, PP egitera ausartu ez zena. Kaleratzearen ondoren, eta Pí elizan berdin-berdin esku-hartzeko mehatxuaren aurrean, bertan zeudenek utzi egin zuten eliza. Artzapezpikuak berak eskatu zuen poliziaren esku-hartzea. Kataluniako klase politikoko talde handia mobilizazioaren kontra agertu zen argi eta garbi; ez zen hala gertatu hiru urte lehenago, berrogeita zazpi egunetan gauzatu zen itxialdiaren eta gose-grebaren arrazoiak. Pedro Aierbek nabarmentzen du, mugimendu horrek lortutakoa gain, «legezkotasunik eza»ren eraikuntzak ez dirudiela desagertuko denik oraingoz, ez baitio uzten migrazio-kontrolaren mekanismoetako bat izateari:

Baiezta daiteke Espainiako estatuan paperik gabekoen presentziak egiturazko faktore izaten jarraituko duela hurrengo urteetan. Gobernuak, bere aldetik, erregularizazioa maximoan zailtzeko politika egiten jarraituko du; eta, kaleratzeen kopuruak gora egin badu ere, zalantzarria da pentsatzea kaleratze masiboak egiteko gai izango denik; izan ere, kostu politikoa izan lezake iritzi publikoan giza eskubideak errespetatzearekin nekez batera daitezkeen irudiak aktibatzeak (Aierbe, 2007: 246).

## **BOTERE-HARREMANAK AGERIAN JARTZEA**

2009ko otsailaren 16an, astelehenean, Madrileko SOS Arrazakeriak, APDHEK, CEAR Madrilek, ENAREk eta FERINEk igorritako komunikatuak honela zion: «Gizarterakundeek immigranteen bereizkuntzarik gabeko atxilotetak berehala eteteko exijitzen dute, eta agintariei eskatzen diete beren adierazpenetan delinkuentzia eta immigrazioa elkarrengandik bereizteko». Atzerriko herritar askoren testigantzak jaso zituzten, zeinak poliziaren identitate-kontrol gehiegizkoak eta bereizkuntzarik gabeak jasaten baitzituzten. Kontrol horiek intentsitate eta maiztasun bereziarekin gertatzen dira atzerritar jatorriko pertsonen joera handia den leku eta uneetan, hala nola ikastetxeetako irteeretan, lokutorioetan, autobus-geltokietan, edo emigranteei edo atzerritarrei laguntza ematen dieten GKE-en bulegoen inguruetan. Ezin gezurtatuzko frogarik ez badago ere, badira mota horretako jarduerak egiteko segurtasun-indarrei emandako aginduen existentzian oinarritutako susmoak; asteko atxilotu beharreko immigrante kopurua zehazten duten aginduak dira, eta baita lehentasunezko nazionalitateak zein diren diotenak ere. Komunikabide batzuek esandakoaren arabera, «delinkuentzia-arazo»ei erantzuteko atxiloteta-kuotak ezarri ziren, Atzerritarren Legea aplikatuz delinkuentziari aurre egiteko tresna gisa, eta immigrazioa herritarren segurtasun ezarekin lotzeko akatsa behin eta berriz eginez.

Boterearen taktikak edo estrategiak, «boterearen mikrofisika», Michael Foucaultek garatutako kontzeptutik hartutako terminoa da, sistema hegemonikoak gizakiaren askatasuna mugatuz sustatzen eta inposatzen dituen botere-mekanismoei dagokiolarik.

Kontrolak, atxilotetak, sarekadak, kanporatzeak, itzultzera behartzea, mugak kanporago jartzea, Atxikitze Zentroak edo mugak blindatzea, aurrez aipatu dugun moduan, kontrolerako eta migrazioa kriminalizatzeko mekanismoak dira, eta Estatuaren erakundeen botere-jardueraren termometroa, besteak beste; horrek, aldi berean, jarrera xenofoboek lekua duten diskriminazio-gertalekuak sortzera bideratzen du, atzerriko biztanleenganako sentimendu negatiboa elikatuz.

Atzerritarren Legea aplikatzea aitzakia gisa erabil daiteke, ez baitzaio erantzuten atxilotuen egoera pertsonalak (esaterako, lan egiten duten gizartean sustraitzea) kontuan edukitzearen irizpideari. Alderantziz, kopuruak soilik axola du; atxilotuak dozenaka zenbatzen dira, pertsona atxilotu bakoitza inguratzen duten egoerak kontuan hartu gabe. Kezkatzekoa da, baita ere, segurtasun-indarrek atzerriko legerian aurreikusitako zigoren inguruan egiten duten oso zalantzazko interpretazioa, kanporatzeko agindua ematen baitu legeak berak aholkatzen duen isun ekonomikoaren truke.

(LO) 7/1985 Lehenengo Atzerritarren Legea ezarri zenetik sortutako Atzerritarrentzako Atxikitze Zentroak ez diote heltzen espetxeetako erregimen

orokorrari; ez daude, instituzionalki, Barne Ministerioaren Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiaren menpe, baizik eta Poliziaren Zuzendaritza Nagusiarenean. Beste hitz batzuetan esanda, Espainiako marko juridikoan Atxiki Zentroak ez dira hartuko atzerritarrentzako espetxe-erregimen berezidun erakundetzat, baizik, nolabait esatearren, polizia-ziega baten hedakuntzatzat. Baztertze-sistema baten parte dira, larderiazkoak, eta prozesu horri esker pertsonak Europako lan-merkatuaren beharren galbahetik iragazten dira. Prozesu horren bidez eskubideen hierarkia bat ezartzen da; ondorioz, kate-maila gakoa dira mundu-mailako apartheidaren sisteman. Sail guztiek (segurtasuna, medikuntza-gaiak edo elikadura, besteak beste) polizia-funtzionarioen ardurapean daude, eta egonaldi laburreko egiturak zentroen diseinua eta funtzionamendua menderatzen du. Modu horretan, bermerik gabeko salbuespen-erregimen baten menpean zuzendutako subjektuen kategoria bat sortzen da. Paperik gabeko pertsona multzo bat. Kanporatze-dekretu bat izan arren, legezko «atxikitze»aren gehieneko epea igarotzean aske utzi behar liratekeen pertsonak; baina kanporatzea gauzatu ezin dutenez, etorkon bezala geratzen dira *inoren lurraldean*. Gainera, *kanporatze-agindua* izateak beren egoera legezatzeko edozein eskaera baztertua izatea eragiten du, nahiz eta pertsona horrek sustraitze-baldintza guztiak bete. Zentro itxietan sartutako pertsonak gaizkiletzat hartzen dira praktikan; eta horrek, eskubideak urratzeaz gainera, inpaktu pertsonal eta emozional sakona eragiten die bai atxilotuei bai haien herrialdeetako biztanle eta agintariei.<sup>33</sup> Indarkeria erabiltzearen inguruan ez dago araudirik edo irizpiderik ezarrita; segurtasun-zuzendari eta -nagusiaren diskrezioaren baitan geratzen dira, epaileari lesio larriak ez izan ezkerro jakinarazteko beharrik gabe. CEARen<sup>34</sup> ikerketa batek erakusten du Atzerritarren Atxikitze Zentroak espetxe-funtzionamendua dutela, baina horietan sartzeko baldintzak espetxeetan baino okerragoak direla, ia zentzu guztietan, «bakartuta, inkomunikatuta eta lurrean lo eginez».<sup>35</sup>

Barne Ministerioak ez du ematen urtean atxikitze zentroetan sartutako en inguruko daturik<sup>36</sup>, baina esan daiteke kanporatutakoak baino askoz gehiago direla; Ferrocarril Clandestino-ren<sup>37</sup> datuen arabera, atxikitze zentroetan sartutako en % 30 soilik kanporatzen da eta, beraz, helburua askatasun gabezia da, errepresio-neurri bat berez, eta ez kanporatzea. Ordu luzez komisaldegietan atxilotutako eta giltzaperatutako beste batzuen antzera (gutxi batzuk besterik ez dira joango Atxikitze Zentro horietara),

<sup>33</sup> «Marokoar mutiko bat egurtu egin zuten, biluztu, pikotxean jarrarazi eta ostikoka hasi zitzaizkioten. Beste lagun bati telefono mugikor bat emateaz salatzen zuten. Bere amaren argazkia jarri zioten aurrean lurrean, eta zapaldu egin zuten». Atzerritarren Atxikitze Zentro batean gizarte-langile gisa aritu zen garaitik Pedrori gogoan geratu zaion irudietako bat da hori; Alberto Senantek jaso zuen (Senante, 2011).

<sup>34</sup> CEAR gaztelaniaz Comisión Española de Ayuda al Refugiado

<sup>35</sup> Senante, op. cit.

<sup>36</sup> 244 leku Aluche-n (Madrid), 110 Capuchinos-en (Malaga), 156 Zapadores-en (Valentzia), 60 Sangonera La Verde-n (Murztzia), 226 Zona Franca-n (Bartzelona), 250 La Piñera-n (Algeciras), 238 Hoya Fria-n (Tenerife), 168 Barranco Seco-n (Kanaria Handia) eta 1070 El Matorral-en (Fuerteventura). Horiei gehitu beharoko litzaieke Lanzaroteko aireportu-terminala, Immigranteen Behin-behineko bi Zentro (gaztelaniaz, CETI) Melillan eta Ceutan, eta batez ere Kanariar uharteetan, Lamerían dauden Atxikitze Zentro Informalak. Baita Hendaia-ko ere.

<sup>37</sup> Aluche-ko (eta toki gehiagotako) Atzerritarren Atxikitze Zentroen gaiaren inguruan lan egiten duen babeserako eta ekintza baturako sarea.

bakarrik sentitzen dira eta, askotan, ez dute ulertzen zergatik sartzen dituzten giltzapean, haien helburua beren jaioterritik urrun bizirautea soilik baldin bada. Gertaera horien bidez, zalantzarik gabe, beldurra eta ziurgabetasuna sortu nahi dira. Alain Morice-k esan zuen gisara, *giltzapetzea* da paperik gabekoen egoera eratzten duen kontuan eduki beharreko elementuetako bat (Morice, 2007). Aldi berean Martinezek aipatzen du:

Modu horretan, zure herria zure espetxe bihurtzen da. Etxetik ateratzeko beldur zara, eta nabarmendu gabe igaro nahi duzu, ia ikusezin izatera iritsi arte. Legez kanpoko egonaldia zigortzeko ezkutuko zigorra da, eta prebentziozko helburu orokorrak ditu, hala nola legez kanpoko atzerritarra bere herrialdera itzul dadin beldurtzea edo presionatzea, edo Espainiara etortzeko asmoa kentzea. Erabilera onartezin horren zantzuak dira kanporatuak ez diren atxilotutako pertsonen kopuru altua eta, behin zentro itxietan egoteko ezarritako egunak igaro ondoren libre uztea (Martínez, 2009: 23).

Nahiz eta Atxikitze Zentro horietan dauden pertsonen laurdenak Espainiako estatura iritsi berriak izan, gehienez itsasoz; ia erdiek lau urte baino gehiago daramatzate Espainiako estatuan bizitzen. Beren egoera legez tatu ezin izan duten etorkinak izan dira edo, denboraldi batean bizileku-txartela izanik ere, langabezian geratzean berri ezin izan dutenak. Haietako asko lehendik ere atxikitze zentroyen batean egonak dira (CEAR, 2009: 77). Nahiz eta Barne Ministerioak kanporatze-prozedurak delinkuentziaren jazarpenarekin lotzeko obsesioa duen, CEAREk elkarrizketatutako pertsonen ehuneko hamarretik hogeita bost bitartekoak soilik zituen aurrekari penalak (CEAR, 2009: 88). Espainiako estatuan dauden bederlatzi Atzerritarren Atxikitze Zentro ofizialetako plazak gehitzen baditugu, guztizko kopurua 2.522 da.

2007. urtean, Europako Ganberako Justizia Batzordeak zuzentarau-proposamen bat onartu zuen, zeinak agiririk gabeko etorkinak atxilotzeko eta kanporatzeko prozedura bat arautzen baitzuen. Atzerritarrak atxilotzeko eta kanporatzeko Zuzentaruak agiririk gabeko immigranteak gehienez ere hemezortzi hilabetean atxilotzeko baimena ematen du, baita bidaidedun gazte adingabeen kasuan ere. Ekimen horrek arriskua du espetxeratzeko politikaren orokortzea akuilatzeo, administrazio-akats bakarra egin duten pertsonen kasuan ere (SOS Arrazakeria, 2009).

Erabilera onartezin horren zantzuak dira kanporatuak ez diren pertsona atxilotuen kopuru altua, eta giltzapean edukitzeko ezarritako gehieneko hirurogei egunak igaro ondoren askatasuna ematen zaienena.

Espainiako migrazio-politikaren osagaiak dira immigranteen polizia-atxiloketak, Atzerritarren Atxikitze Zentroetan edukitzea edo giltzapetzea, *manteroekiko* (*top-manta*) ankerkeria, edo Afrikako kostaldetik esklaboen garraioa gogorarazten duten aberriratze-hegaldiak. Baina immigranteak sartzea ezinezkoa den *Espainia gotorleku* bat itxuratzetik urrun, gailu horiek bestelako errealitate bat sortu dute: klaseen, kategorien eta legez kotasunik ezaren errealitatea.

Aurrez aipatu dugun beste errepresio-prozedura bat da mugak kanporago jartzea. Europar Batasunak mugak kanporatzearen edo hegoalderantz mugitzearen politika gauzatu du, ez daitezen hainbeste errefuxiatu politiko eta immigrante ekonomiko iritsi Europako lurraldea zapaltzera; eta horretarako, etorkinak datozen herrialdeen edo Europara iristeko igarobide diren herrialdeen esku utzi dute kontrol hori. Mediterraneo iparraldeko herrialdeak Iparraldeko Afrikan zentro itxien eraikitzea finantzatzen dute. Aldi berean, mugak kanporatze hori gauzatzen dute aberriratze-hitzarmenetan eta laguntzak eta diplomazia-erraztasunak baldintzatzen dituzte, gai horretan ematen duten kolaborazioaren arabera. Horrela, 2008ko urrian, elkarte aurreratuaren estatutua eman zitzaion Marokori.

Espainiako Gobernuak mugak kanporatze horren buru jarri da Europa-mailan, eta, ondorioz, heriotzak eta desagertzeak eragin ditu. Immigrazioaren ikuspegi utilitarista inposatzen da eta krisiari uztartzen zaio, paperik gabeko etorkinak estigmatizatuz. Frontex-eko<sup>38</sup> inbertsioa areagotu egin zen mugak zelatatzeko; hain zuzen, 2006an 12 milioi euro izatetik 2008an 24 milioi euro izatera igaro zen (SOS Arrazakeria, 2009).

Gaur egun, immigranteen nahi gabeko irteera arautzen duten lau figura juridiko daude: aberriratzea, kanporatzea, itzulera (sarrera ukatzeagatik) eta itzultzea (sartutakoan). Aberriratzea: norbait bere aberrira bidaltzeari dagokio, eta beste hirurak barne hartzen ditu. Kanporatzea: aberriratuak diren pertsoneri aplikatzen zaie, administrazio-auzibidearen bidez, Atzerritarren Legean jasotako arrazoiren bategatik; horien artekoa da paperik gabe egotea. Itzulera: pertsona bati sarrera ukatzea edo atzera botatzea mugako postuetan, eskuarki portu eta aireportuetan. Itzultzea: pertsona bat muga gisa egokituta ez dauden lekuetatik Espainiara sartzen denean edo saiatzten denean erabiltzen da.

Egokitutako mugako postuetan, eskuarki portu eta aireportuetan, atzera botatako pertsonen kasua ez da garrantzi handikoa, azken bi urteotan nabarmen igo bada ere. Aberriratzeko ez da irizpiderik ezarri, edo dauden irizpideak ez zaizkie aplikatzen sartzen diren atzerritar gehienei; zoriak funtsezko papera betetzen du kasu horietan. Nabarmenezkoak dira Schengen eremuko mugak ere; horietan, Espainiako estaturako norakoa duten pertsonen itzulera aplikatzen da, baina beste herrialde batzuetan eskala egitean, handik beren jatorri-herrialdera itzularazten dituztelarik.

---

<sup>38</sup> Kanpo Mugetako Lankidetzaren Operatiboa Kudeatzeko Europako Agentzia edo Frontex (*Frontières extérieures*, frantsesez) Europar Batasuneko agentzia bat da, 2006an sortua; bere helburua da Europar Batasuneko estatu kideetako kanpo-mugen kudeaketa integratua. Frontex-eko diru-sarrerak EBtik datoz. EBtik kanpoko mugen kontrolerako programaren egoitza (Frontex) Varsovia dago, eta Espainiako estatuan, Las Palmas Kanaria Handikoan.

## 2. Taula. Mugen eta aberriratzeen kontrola

	2007	2008	2009	2010
Itzulerak edo ukatutako sarrerak	24.355	17.317	12.226	9.453
Kanporatzeak	9.467	10.616	18.377	13.413
Itzultzeak (paterak)	15.868	12.315	7.526	7.297
Aberriratzeak, guztira	49.690	40.248	38.129	30.163

*Iturria:* MIR (2010)

Espainiako estatuak 1995ean hasitako mugak blindatzeko politikak heriotza ugari eragin ditu. 2006an bakar-bakarrik, Afrikako uharteetara iristen saiatu ziren pertsonen 600 hilotz berreskuratu ziren Kanariako eta Afrikako kostaldeetan; baina Kanariako Gobernuaren arabera, Afrikako 6.000 etorkin inguru hil ziren Kanariako kostaldera iritsi nahian ari zirela (SOS Arrazakeria, 2007). 2007an zehar, Hegoaldeko Europako mugak heriotzarako muga izaten jarraitu zuen: guztira, 876 pertsonaren heriotza edo desagertze dokumentatu ahal izan ziren, Espainiako kostaldera iristea lortu nahi zutenean (SOS Arrazakeria, 2008). Europar Batasunak legez kanpoko 10.000 pertsonaren heriotza aitortu zuen, 2002 eta 2007 urteen artean, Espainiako kostaldera iristeko ahaleginean (SOS Arrazakeria, 2008).

Izan dira segurtasun-gorputz publikoak botere-gehiegikerian erori diren kasuak, baina poliziakide gehienek inpunitate eraginkorra dute. Faktore askoren baitan dago hori: bai salaketak aurkezteko oztopoak, bai zigor egokiak inposatzeko agintarien neurririk eza daude horien artean, besteak beste. Beste arrazoï batzuk dira ikerketa independente eta sakonik eza, mediku-txosten osatugabeak edo ez-zuzenak, ikerketetan inpartzialtasunik eza, eta prozedurak gehiegi atzeratzea (SOS Arrazakeria, 2008).

Bide publikoetako atxikitzei eta agirien eskaerari dagokionez, segurtasun-gorputzetako zenbait kide nabarmendu egiten dira gizarte-desabantailan dauden pertsonak gelditzeko duten joeragatik, eta immigranteen taldeak begirune gutxiagoz hartzen dituztelako Espainiako beste herritarrak baino (SOS Arrazakeria, 2007).

Segurtasun-agente pribatuek egindako gehiegikeriak ez dira aurreko horien metodo eta emaitza juridikoetatik desberdinak. Badirudi ez direla gutxiagotu egoitza pribatuetara «sartzeko aukeraketa» azalaren kolorearen, hitz egindako hizkuntzaren edo jantzitako arroparen arabera egitea, edo taberna, diskoteka, merkataritza-gune, aparkaleku, tren-, autobus- eta metro-geltokietako ateetako erasoak (SOS Arrazakeria, 2007).

Zelatariak portaera-teknikariak dira, Foucaultek deitu zien gisara «jarreraren ingeniariak, banakotasunaren ortopedialariak». Etengabe behatuz eta norbanakoaren gaineko informazio osoari esker, gorputz otzanak eraiki behar dituzte.

Gorputza moldatzeak norbanakoa ezagutzeko bide ematen du, teknikak ikasteak portaera moduak eragiten ditu, eta gaitasunak lortzea botere-harremanak

finkatzearekin gurutzatzen da; (...) menpeko norbanakoak eraikitzen dira, eta fidatzeko moduko jakituria bat osatzen da haiengan. Diziplina-teknika horrek efektu bikoitza du gorputzen gainean: ezagutzeko «arima» bat eta mantendu beharreko lotura bat (Foucault, 1976: 302).

Delitu txikiengatik zigorrak gogortzeko eskaera soziala dago. Hori agintzen duten agintariak boto gehiago lortzen dituzte espetxe-sistema malgutu behar dutela diotenean baino. Horrek botoak ematen ditu. Gizarte-arazo larria dela hori, baieztatzen du Dolores Julianok<sup>39</sup>; jendeak zigor gogorragoak eskatzearen arrazoietakoa bat zigor horiek batez ere immigrantei eragitea dela dio, eta jendea oso pozik jartzen dela funtsean immigrazioa kriminalizatzen ari garelako, jende hori kanporatu edo espetxeratu egin behar dela uste duen imaginario sozialari erantzunez. Politika horien bidez eta komunikabideetan ematen zaien tratamenduaren bidez eraikitzen da imaginario hori.

Espainiar bat beste herrialde batean zigortzen dutenean, politikoei eta komunikabideei ahalegin guztia egiten dute subjektu horren defentsan; eta argudiatzen dute Hirugarren Mundua deituriko herrialdeen administrazioak ez duela berme juridikorik bidezko zigorrak ezartzeko; horrela ematen diote prestigioa hemengo zuzenbide-sistemari, eta kendu, berriz, gainerakoei. Badira droga kantitate txikiak trafikatzegatik zigortuak; baina Espainiako estatuan jende asko (emakumeak batez ere) hamar urteko espetxe-zigorrak betetzen ari dira, kantitate berdinak trafikatzegatik (hilketengatik betetzen ari diren kopuru bera). Atzerriko emakumeak, ez zertan etorkinak, aireportuetan atzemandako pasatzen ari den jendea. Horrek ez dio erantzuten, egiaz, droga-trafikoaren kontrolari, baizik eta estatistika-datuen publikitatea egiten du, bide horietan dabilzan droga kantitateak ez baitira esanguratsuak.

## **1. Basbesgabetasunari dagozkion lan-baldintzak**

Aurrez egindako mediku-azterketak pasatu eta profil jakin batzuk bete ondoren (australiarrek, italiarrek, euskaldunek eta abarrek beste garai batzuetan egin zutenaren antzera), aukeratutakoek muga igaro eta enplegu bat lortu ahal izango zuten. Medikuek erabakiko zuten zeinek bidaiatu zezaketen, bere ustiaketarekin ekonomia kapitalistaren hazkundera laguntzeko. Gaur egun, Andaluziako nekazari-enpresaburuek langileak kontratatzen dituzte Marokon, Errumanian eta beste herrialde batzuetan. Nekazarien kanpainak irauten duten adina irauten duten kontratuak dira. Enpresaburu horiek aitortu dute, gainera, familia-karga duten langileak aukeratzeko dituztela prozesu horretan, denboraldia bukatzean beren herrialdera itzuliko direla ziurtatzeko.

Aldi baterako lanak dira sortutako lekuan egindako kontratuen bidez gauzatzen direnak; azken urteotan abiarazitako beste lan mota bat da, batez ere nekazaritza intentsiboan teknologia berrien bidez garatu dena, aurrez produkzio mota horretarako

---

<sup>39</sup> Zabaldin (Iruñea) emandako hitzaldia, 2011ko martxoaren 11n. «Delituak eta zigorrak».

hain egokiak ez ziren eremuetan. Eremu horietan kontratazio-prozesuak etnia, genero eta antzeko faktoreei lotuta daude, eta politika-, ekonomia- eta enpresari-aspektuek markatzen dituzte.

Behin-behineko kontratuek, nagusiki, etorkinen taldeari eragiten diote. Kontratu mota hori da, gaur egun, lan-merkatuko arazo nagusietako bat. Egoera horrek immigrantei eragiten die nagusiki, eta gehienek 30 eta 44 urte artean dituzte. José Ignacio García Pérezek eta David Troncoso Poncek egindako Centro de Estudios Andaluces-erako txosten baten arabera (2010eko ekaina), Andaluziako immigrante langileen % 80ak aldi baterako kontratua du. Bertako biztanleen artean ez dago hain zabaldua kontratu mota hori; behin-behinekotasuna % 50 inguru da gizonezkoen artean, eta emakumezkoen artean, berriz, zertxobait altuagoa, % 60, hain zuzen (Serenó, 2010).

Baina ez da hori bertako langileekin daukaten diferentzia bakarra. Soldatetan eta gizarte-segurantzaren kotizazio-erregimenean ere kontuan hartzeko moduko zuloak daude. 2005ean, Gizarte Segurantzaren alta emandako atzerritarren % 95 aldi baterako kontratuak izan ziren, eta soldatak Estatuko batez bestekoa baino % 16 baxuagoak (SOS Arrazakeria, 2006). Eta Centro de Estudios Andaluces-eko datuen arabera, Afrikako, Errumaniako eta Poloniako langileen % 40ak baino gehiagok nekazarien erregimenean kotizatzen du, eta handia da emakumeen presentzia: errumaniarren % 63,76k eta poloniarren % 75,09k nekazaritzan lan egiten dute (García y Troncoso, 2010).

Adibide asko jar daitezke, baina egoera honetan oso ondo islatzen da emakume etorkin askok emakume izateagatik, behartsu izateagatik eta atzerritar izateagatik bizi duten diskriminazio bikoitza edo hirukoitza:

Aldi baterako atzerritar langileek beren nagusien gehiegikeriak salatu dituzte Huelvako marrubi-bilketan. Landako sexu-esplotazioa ageriko sekretua da, baina orain arte inoiz ez dute aurrera egin jarduera lehiakor baten erantzuleen kontrako salaketek Europan. Nagusiak, gauez, marokoar emakume langileen etxola handietan sartzen ziren. Ohatzez betetako aurrefabrikatutako etxeak landaren erdian geratzen dira, gertueneko herritik kilometro askora. «Utzi egin behar duzu, bestela, lanik gabe geratuko zara» (Andreu y Jiménez, 2010).

Deigarria da Ekialdeko Europatik edo Iparraldeko Afrikatik datozen aldi baterako emakume langileak kontratatzeko egiten den ahalegina, nahiz eta gure herrialdean, eta bertako nekazari-eremu eskatzaileetan, etorkin ugari egon da tradizioz eskaera horri erantzuten diotenak, gehienak paperik gabeak. Talde edo kontratazio (behar baino gehiagoko) horiekin bazterreko biztanleria sortzen da, eta haien funtzioa langilea inposatzen zaizkion baldintzetara lotzea da: «Ondo portatzen ez bazara, ezingo duzu lanik egin». Lan egiteko aukera baztertuz, gainerako langileak lotzen dira, matxinatzeko eta antolatzeke ahalmena gutxienera murrizten da, eta huskeriazko soldatak jasotzen dituzte; horrek irabazi handiak ziurtatzen dizkie enplegatzaileei.



Mota horretako lehen kontratazioak Polonian egin zituzten 2003. urtean, emakumeekin, profil oso zehatz batzuetan oinarrituta (Gualda y Ruíz, 2004)<sup>40</sup>, eta handik urte batzuetara Marokoko emakumeekin gauza bera egin zuten; antolatzaileen arabera, legez kanpoko immigrazioa geldiarazteko talka-neurri gisa asmatu zen (Romero, 2010: 238). Klasearen, adinaren, etniaren eta/edo generoaren arabera banatutako lan-merkatuaren segmentazioaz ari gara. Eskulana aukeratzeko prozesu horietan, enpresaburuek etnia jakin baten alde egiten dute, genero-irizpidea kontuan hartuta. Bertako gizarteak estigmatizazio-prozesu gogor batera lotzen ditu talde horiek, eta lehiatik eratorritako etnien arteko gatazkak eragiten dituzte, bai lan-merkatuan bai gizartean.

Jende «gaitugabea eta atzerritarra» behar da eta erabiltzen da; izan ere, bertakoa eta gaitua denak soldata altuagoak eta lan-baldintza hobek eskatzen dituelako, bermatzen eta babesten duen gizarte-aterpe bat izateagatik. Lan-merkatuak emakumeak eskatzen baditu, ekoizpen-gastuak merkatzen dituen eskulana delako eta bere ezaugarriengatik da. Enpresaburuek «familia-zamak» dituzten emakume migratzaileak dituzte gogokoen naziarteko eskulana errekrutatzerakoan; izan ere, nagusien ordezkari baten arabera:

Espainiako estatuaren barruan errazagoa da gurekin lanean ari direnean kontrolatzea; eta errazagoa da, baita ere, beren familiarengana itzultzea onar dezaten, lan-denboraldiak hala eskatzen duenean (Suárez-Navaz, 2008: 60).<sup>41</sup>

Modu horretan, nabarmen hauteman daiteke batez ere nekazaritzan den laneko gizarte- eta sexu-banaketa; beraz, bilketako koordinazio-postuetan, langileburu, enkargatu edo antzeko lanpostuetan, funtsean, bertako biztanleria maskulinoa agertzen da, eta bilketan bertan, berriz, emakume atzerritarrak.

Zaugarritasuna areagotu egiten da legez kanpoko egoeran dauden pertsonengan, zeinak babesik gabe baitaude, irabaziak eskulanaren ezegonkortasunaren heinekoak dituzten enpresaburuen gehiegikerien aurrean. Paperen fetixismoak areagotu egiten ditu honako ideia hauek: araupetzeak paperik gabeko pertsonak onartzeko ildo bat ezartzen duela, eta paperak lortzea *sine qua non* baldintza dela gizaki ororen duintasuna aitortzeko; etorkin asko, ordea, desilusionatu egiten dira «paperak» lortu ondoren, lan-baldintzetan eta soldatari dagokionean eragin oso txikia dutela ikustean. Baina itxaronaldi, atzerapen eta ziurgabetasun hori «gutxiagotasun-estigma» bihurtzen dira, Zygmunt Bauman-ek zioen moduan:

Boterearen hierarkiaren drama egunero adierazten da (idazkari eta laguntzaile pertsonalekin, edo, maizago, segurtasun-zaindarekin, zuzendari eszenikoen paperean) ezin konta ahalako atari eta itxaron-geletan, zeinetan (menpeko) jende

<sup>40</sup> Ekialdeko emakume ezkonduak; izan ere, enpresaburuen arabera, arduratsuagoak, maneiagarriagoak, ez hain gatazkatiak, otzanagoak eta itzultzeko aukera gehiago dutenak dira, penintsulan denboraldi bat badaramaten magrehtar gizonezko ezkongabeak, eta beren eskubideak aldarrikatzen dituztenak, baino nahiago.

<sup>41</sup> Suarezek Katalunian egindako elkarrizketa, 2004.

bati «esertzeko» eta (goragoko) beste jende bat «haiek hartzeko libre» egon arte itxaroteko eskatzen baitzaio. Pribilegioaren bereizgarria (beharbada, estratifikazioaren faktoreen artean boteretsuena) bidezidorretarako sarbidea da, saria bat-batean hartzeko bideetarakoa. Hierarkiako postua nahia edo beharra atseginetik bereizten duen denbora-bitartea erabat murrizteko edo kentzeko trebetasunaren (edo trebetasunik ezaren) arabera neurtzen da. Batek nahi duena (edozer dela ere) *orain* (atzerapenik gabe) lortzeko gaitasunean izandako gehikuntzen arabera neurtzen da gizarte-hierarkiaren eskala (Bauman, 2005: 135).

Ikerketa askok Europako Erkidegoaz kanpoko atzerritar biztanleentzat dauden aukera urrien berri eman dute; aukera horiek atzerritartasun-gaietan den erregulazioak mugatu ditu, zeinaren bidez bertako biztanleek nahi ez dituzten sektoreetarako soilik ematen baitituzte lan-baimenak. Oro har etorkinek eta, bereziki, paperik gabeko egoeran daudenek betetzen dituzte, beraz, bertakoek hartzen ez dituzten gutxi kualifikatutako lanpostuak.

Espainiako estatuak eta immigrazioa hartzen duten herrialde gehienek ez dute NBEren Nazioarteko Hitzarmena sinatu, migratzaile langileen eta haien familien eskubideen babesari buruz; hura berrestek eskubide zibil eta politikoen aitortpena ekarriko luke herrialdean bizi diren milioika atzerritarrentzat (SOS Arrazakeria, 2006).

Lanaren bidez, komunitate bateko pertsonak aitortpen, estatus eta prestigio jakin bat lortzen dute, sozialki partekatzen denaren eremu horretan parte hartzen uzten zaie, eta beren nortasuna definitzen duten ezaugarri batzuk aitortzen zaizkie. Giza taldeek lanaren bidez definitzen dute beren nortasunaren zati bat; izan ere, egiten diren lanak instrumentalak edo inpersonalak izanda ere, langilearentzat esperientzia pertsonala da, bizi den errelitatearekin harremanetan jartzeko modu bat, identifikatzeko eta identifikatua izateko modua; eta lana bizitza sozialeko elementu nagusi bilakatzen da.

Badakigu gizakiaren premiak asetzeko lan mota desberdinak eskatzen direla; nabarmenenak etxeko lanak eta zaintza-lanak dira, etxean egiten dira ordainsaririk gabe, eta pertsonak zuzenean zaintzearekin dute zerikusia, funtsean. Pertsona gutxiko taldeen barruan egiten dira jarduera horiek, eta taldearen beharrak, biziraupena eta ugalketa asebetetzera bideratzen dira. Cristina Carrascok proposamenak egiten ditu lanaren azterketa berrietarako, mundu kapitalista honetako logikaren pean ikusezin bihurtu diren jarduera haiek errekuuperatzeko asmoarekin, eta honela adierazten du:

Industrializazio-prozesuetatik, gizarte industrialetako *ideologia produktibistak* bahitu du lanaren kontzeptua, lanaren eta enpleguaren arteko identifikazio bat ezarriz. (...) Ekonomia-eskola askok —beren artean diferentziak badiren arren— ezaugarri izan dute beti beren koadro analitikoetatik gizarte-erreproduktzioarako prozesuak eta giza bizitzari edo gizarte-kohesioari eusteko lan guttiz beharrezkoak baztertzea, eta soil-soilik merkatu-ekoizpenaren ikerketan arreta jartzea. Modu horretan, industria-gizarteen hastapenetatik, enplegua bizitzako

jarduera nagusitzat hartu da, eta horren arabera mugatu dira pertsonen bizitza, ordutegiak eta lanaldiak (Carrasco, 2010).

Carrascok lehentasuna ematen dio, ikuspuntu teoriko eta politiko batetik, giza ongizateak eta pertsonen beharrek (materialek eta ez-materialek) izan behar luketen garrantziari; izan ere, ondasunen eta zerbitzuen merkataritza-ekoizpena giza ongizatera iristeko elementu instrumentaletako bat besterik ez da. Beharraren eta ekoizpenaren arteko harremana, noski, ez da hain sinplea. Ekoizpenak berak giza behar berriak sortzen ditu prozesu dialektiko batean; eta prozesu horrek azaltzen du, hain zuzen, «beharrak» errealitate soziohistorikotik abiatuta definitu behar izatea.

Lanean, ordaindua izan ala ez, gizarte-harremanak finkatzen diren edozein giza interakzioko arloetan gertatzen den bezala, ideologia sortzen da. Ideologia horrek subjektuengan eragiten du, portaera-jarrerak eta -jarraibideak bideratuz eta argituz, eta, beraz, gizartearen funtzionamendua bera antolatuz. Feministen analisiek sistema kapitalistaren iraupenerako funtsezko prozesu bat ikusarazi dute: merkatu-ekoizpenak duen ordaindu gabeko lanaren premia. Azken hori elementu garrantzitsua da gizakiaren erreprodukzioan. Ekoizpen kapitalistak ez du gaitasunik ez aukerarik bere ekoizpen-harremanen pean beharrezko duen lan-indarra erreproduzitzeko. Eguneroko erreprodukzioak, eta batez ere belaunaldien artekoak, denbora eta energia kantitate handia eskatzen du, sistemak ordaindu ezingo lukeena. Baina, gainera, merkatuak ezin ditu ordezkatu afektua, emozioak, segurtasuna eta abar dakartzan eta pertsonak garatzea ahalbidetzen duten hazkuntza- eta sozializazio-prozesu konplexuak.

Gauzaten ari diren etxeko lan eta zaintza kopuru ugarietarako jarrai dezake martxan sistema ekonomikoak. Modu horretan, zaintzaren ekonomiak eutsi egiten dio gizarte-bizitzaren sareari, ekonomiaren hainbat sektoreren arteko tirabirak doitzen ditu eta, emaitza gisa, eraikuntza ekonomikoaren oinarrian eratzen da (Carrasco, 2010).

Zer indarra du zaintzei buruz hitzegiteak? Hori galdetzen du Amaia Pérez Orozcok eta, beste gauza askoren artean, zaintzetan gertatzen dela gure gizarteko arazorik «larri»enen eta egiturazkoenen eguneroko materializazioa adierazten du:

Azken batean, hor ezkututzen dira sistemaren aukera eta tranpa guztiak. Zaintzei buruz, konkretuari buruz, egunez eguneko bizitzari buruz eztabaidatzen dugunean, «feminismoaren dilema existentzial» handi horiei buruz ari gara (Pérez, 2009: 573).

Zaintzak edozein gizarte- eta ekonomia-sistemaren oinarri ikusezina dira, eta iparraldean, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera horrela ari dira emakume etorkin gehienak (% 60 inguru 2005. urtetik aurrera eta, gau eta egun daudenak ia % 100 Espainiako estatuan). Sozialki balioa galdu duten edo menpekotasun-harreman handiagoen pean izan diren zerbitzu emankorren etnizazioa gertatu da.

Biztanleria zahartzeak, emakumea lan-merkatuan sartzeak, hiri-hazkundearen ereduak eta lan-merkatu hori ezegonkor bihurtzeak —zeinak enpresa-beharrei erantzuten baitie sistematikoki—, eta onartzen edo zabaltzen ari diren kontziliazio-eskubide (urriak) lan-indarraren zati pribilegiatu batengana soilik iritsarazten ditu. Sare sozialak galtzeak, eta egunerokotasuna kudeatzeko eta bizi-aukerak eraikitzeke banan-banako eredu bat egonkortzeak «oso bakarrik uzten gaituzte emakumeak, bizitzako zailtasun txiki handiei heltzeko garaian» Pérez Orozcok idazten duenaren arabera. Izan ere, emakumeak jarraitzen baitu zaintza-kudeaketaren arduradun izaten. Eta, nola egiten du? Lanaldi bikoitz eta hirukoitzen bidez, familiakoen edo baliaibide pribatuen laguntzaz, edo zaintzak erosiz, orain emakume etorkinenak. Lan gisa aitortzen ez diren lan horiek gizarte-babeserako eskubide guztiak izan gabe geratzen dira, ezkutuko ekonomia izateagatik. Aitortu gabeko ekonomia, balioetsi gabekoa, baina gizarteak funtziona dezan ezinbesteko izaten jarraitzen duena. Horrela gaineratzen du Pérez-ek:

Zaintzen birbanaketa garrantzitsua sortzen ari gara, emakumeen arteko botere-ardatzen ondorioz: klase sozialak, etniak eta, hainbat adiskidek esan duten gisara, bizi eta iragaten den herrialdeak markatzen du (hau da, beste herrialde batetik etorri izanak eta estatus migratzailea izateak) (Pérez, 2009: 575).

Globalizazioak ekarri du eraldaketa-prozesu zabalena eta sakonena Industria Iraultzaz geroztik: laneko etika kontsumoaren etikarengatik ordezkatzeko; lan-merkatua malgutzea gizarte-eskubideak galduz; familia patriarkalaren krisia; ongizateko gizarte-ereduaren krisia; Estatuaren funtzioa ahultzea ekonomiaren birbanaketan, herritarren gizarte-baldintzen eta bizitzaren oreka lortzeko (alegia, berdintasuna lortu nahi izatea). Baina, egiazki, zer ari da gertatzen? Planeta espazio bakar eta kapitalarentzat mugarik gabeko bihurtu nahi duen prozesu bilakatu da globalizazioa; salgaiak eta zerbitzuak mugitzeko askatasuna ezaugarri duen merkatu handi bat, murrizketak soilik pertsonen zirkulaziorako dituen.

Globalizazioak eragin makurrak ditu emakumeentzat —dio Liliana Suárezek—, hiritarrak izan arren; dinamika horiek pobrezia handiagoa dakarkigute, erantzukizun gehiago, migrazio-modu berriak, kontrol eta biolentzia modu berriak (Suárez, 2008: 32).

Paradoxa baten aurrean aurkitzen gara: emakumeentzat, duintasunez eta errespetuz tratatuak izateko eskubide unibertsala bermatzeko aukera izan daiteke globalizazioa; baina, aldi berean, zaurgarritasun- eta bidegabekeria-egoerak ere sendotzen dira haientzat testuinguru horretan. Botere-harremanak mantendu edo areagotu egiten dira. Lan-merkatuak eta haren segmentazioak, gizarte-hierarkien arabera, agerian jartzen ditu generoaren, klasearen eta etniaren arteko harremanak. Metaketa kapitalista ez da soilik kapitala izate hutsean oinarritzen, baizik baita giza lanaren kontrolean eta erabileran ere, lan-merkatuaren estratifikazio antolatuen bidez. Dolores Comas-en arabera, hiru dira estratifikazio horren indar nagusiak: «1. Gizarteratzea eta prestakuntza profesionala. 2. Lan-merkatuaren ezaugarriak. 3. Generoan, arrazan edo etnien oinarrituriko banaketak» (Comas, 1995: 53-54).

Lehenengo alderdiak pertsonen arteko diferentziak markatzen ditu, gizarteratze-prozesuan eskuratzen diren prestakuntza-maila hierarkizatuak eta balio, helburu eta itxaropen okupazionalak ematerakoan. Lan-merkatuak, bere aldetik, herri edo eskualde jakin bateko lanbide-aukeren egitura eskaintzen du, lan-mugikortasuna erraztuz edo zailduz, eta emigrazioa edo immigrazioa sortuz. Genero- eta etnia-diferentziek banaketa-irizpide berriak gehitzen dituzte lan-indarrari dagokionez, izaera formaleko eta informaleko praktika diskriminatzaileak erabiltzen eta legezketzen baitira zatiketa horri esker. Modu horretan, batetik, lan-merkatuan funtsean gizonezko txuriek osatutako sektore pribilegiatua dugu, eta, bestetik, emakumeek, gazteek eta gizon immigranteek osatutako bigarren mailako sektore bat; azken sektore horretako biztanleei esleitzen zaizkie lanik ezegonkorrenak eta okerrago ordaindutakoak.

Espainiako estatuan gaur egun emakume etorkinak betetzen duen lanpostuetako bat zaintzak edo etxeko lanak dira; horretan, emakumearen presentzia % 94koa da, guztizkoari dagokionean. Emakume immigranteen % 14,6k arlo horretan lan egiten du. Latinoamerikako herrialdeetatik datozenak nahi dira batez ere, eta % 29,7 dira haiek; ondoren Asiakoak daude, % 16,99; eta segidan Europako gainerako herrialdeetakoak (% 14,93) eta afrikarrak (% 10,40). Ekuadortar emakume immigranteen artean % 21,7 enplegu mota horretan aritzen da, eta Boliviakoaren artean % 51,8 ere izan daitezke. Sektore horretan sartzen diren ia pertsona guztiak desabantaila-egoeran dauden herrialdeetatik datoz, mundu-mailako hegemoniari dagokion terminoetan. Hau da, sektoreak herrialdeen arteko desberdintasunak islatzen ditu globalizazioaren testuinguruan. Laneko sexu-banaketak mundu-mailako dimentsioak hartzen ditu, eta egunez egun premia-koago bilakatzen da zaintzen berrantolaketa soziala. Krisi horrek lotura argiak agertzen ditu genero-harremanekin, garapenarekin, laneko ezegonkortasunarekin, klasearekin, etniarekin eta pobreziaren feminizazioarekin.

Sexu eta genero kontzeptuen lotura politiko-ideologikoak, eta baita arrazaren eta etnizitatearen artekoak ere Mendebaldeko gizartean, herritarren zati bat modu askotara menpean hartu nahi duen gizarte-estratifikazioari erantzuten dio. Verena Stolcke-k honela adierazten du:

Sexu-diferentziak eta arraza-diferentziak «gertaera» biologiko esanguratsu gisa eraikitzen dira ideologikoki klaseen gizartean, eta horrela naturalizatzen eta errepikatzen dira klaseen arteko desberdintasunak. Hau da, gizarte- eta genero-desberdintasunak eratzen eta legezketzen dira, eta arraza- eta sexu-diferentzien ustezko «gertaera» biologikoei egozten zaizkie horiek. Horri dagokionez, klaseen gizartearen ezaugarri erabakigarria da gizarte-desberdintasuna naturalizatzeko joera orokorra. Gizarte-desberdintasunaren naturalizazio horrek, hain zuzen, klaseen gizarteak berezkoak dituen kontraesanak gainditzeko prozedura ideologiko bat osatzen du, eta bereziki ageriko bilakatzen da polarizazio politikoko garaiotan (Stolcke, 1992: 100).

Gizarte-egiturarekin eta harreman sozialekin zerikusia duen oro politikatzat hartzen dut, eta, Foucaulten antzera, giza harreman guztiak norbanakoen, taldeen edo gizarte-mailen arteko botere-harremantzat; hasi etxeko bizitzaren eremu gertuko eta murriztutik, eta borroka politiko alderdikarrietan urruneko eta zabalenera arte, tartean lan- eta elkartzere-eremuetatik igaroz.

Emakumea lan-merkatuan sartu izana Espainiako estatuko familia-egitura tradizionala aldatu duen errealitate bat da, eta agerian jartzen du merkatuak etxeko lanen eta zaintzen aurrean duen menpekotasuna. Zaintzek, funtsean, emakumezkoen jarduera izaten jarraitzen dute, balioa galtuta, izen ona galtuta, eta lan bezala hartu gabe gainera; horregatik, ez da ezer ordaintzen edo gutxi ordaintzen da, eta gizartean menpekoak diren taldeek, emakumeek, gauzatzen dituzte. Errealitate berri horrek ez du, ordain gisa, gizonetzkoak etxeko lanetan hasterik ekarri; zaintza-lanak ez dagozkiela sentitzen jarraitzen dute. Emakumeek estrategiak bilatu behar izan dituzte; ordezkioak amonak izan dira lehenik, eta beren alabekin bat eginik, biloben «ama» izatera igaro dira. Baina zer irtenbide eman pertsona helduen eta mendekoen gaiari, belaunaldi gazteagoak gutxiago arduratzen badira beren sorrarazleei kasu egiten? Eta orduan iritsi ziren emakume etorkinak; orain, ordea, ordaindu egin behar zaie. Eta gaizki ordainduak baino emakumeek jarraituko dute zaintzen eta erreprodukzio-lanen erantzukizuna eta kudeaketa izaten.

Zaintzatzat hartzen da bizitza eta osasuna egunero mantentzeko baliabideen kudeaketa eta sortze oro; ongizate fisiko eta emozionalaren eguneroko hornidura, zeinak pertsonen beharrak asetzen baititu bizitza-ziklo osoan zehar. Pertsonen elikatze, hezteko, osasuntsu egoteko eta habitat apropos batean bizitzeko bide ematen dieten ondasun, zerbitzu eta jardueren dagokie zaintza. Zaila da zaintzaren mugak zehaztea, zer egiten den, nori, non eta zenbat denboran zehar kontuan hartuta. Horregatik, hainbat zailtasun azaltzen dira bere tamainari neurria hartzerakoan. Beti abia gaitezke zaintzaile deituriko pertsonen presentzia eskatzen duten menpekotasun modu desberdinetatik. Zaintza horien informaltasunak, ordea, askotan, haien balioa gutxitzera eta ikusezin bihurtzera eramaten gaitu. Ezagutzen da jarduera horiek berekin duten alderdi afektuzkoa eta emozionala; familiakoa ez den beste pertsona batek egin ditzake, ordainduta edo ordaindu gabe, eta zerbitzu-harremana eta besteenganako kezka dituzte ezaugarri. Irma Arriagadaren arabera, zaintza bi motatakoa izan daiteke:

Zuzenekoa: prestaketa materiala eta behar fisiko eta biologikoekiko arreta dakar, eta, ondorioz, denboraren transferentzia eta zaintza ematen eta jasotzen duten pertsonen arteko aurrez aurreko interakzioa dago. Zeharkakoa: zaintza behar duen pertsona bat ikuskatzen da eta haren arduradun izan behar da, baina ez da zuzenean elkar eragiten; laguntza-zerbitzuak ere hor sartzen dira, hala nola garbitzea edo janaria prestatzea, eta horiek zaintzarik zuzenekoaren aurrealdintzak eskaintzen dituzte (Arriagada, 2009).

Zaintzea, batez ere, bestearen ongizatearen erantzukizuna hartzea da, ongizate materialarena eta afektiboarena. Ez du nahitaez presentzia fisikorik eskatzen, baizik eta

babes-sentimendua, bakarrik ez egotearena. Zaintzak beste bi multzo hauetan ere bana daitezke: batetik, ezinbestekoak eta, bestetik, sozialki sortutako haiek, generoagatik, laneko sexu-banaketagatik edo klasearengatik. Beren beharrak betetzeko gai ez diren gizonak topatuko ditugu, edo hori egiteari uko egiten diotenak, eta baita arreta berezituak eskatzen dituzten klase aberatsak ere, batez ere emakumeen sorbalda gainera erortzen direnak.

Etxeko lanen araudia diskriminatzailea da gainerako langileenarekin alderatuz gero. Etxeko enplegua, lehan aipatu bezala, Etxeko Langileen Erregimen Bereziak (REEH) arautzen du, eta ez Erregimen Orokorrak, gainerako kasuetan bezala. Erregimen berezi hori diskriminatzailea da, gizarte-eskubideak eta zerbitzuak oso modu desberdinean lortzen baitira. Diskriminazio hori nabarmen agertzen da, esate baterako, alderdi hauetan: gizarte-segurantzaren kotizatzea ez izatea nahitaezkoa, langabezia-saririk ez egotea, finkatutako ordutegiak, erabakitako soldata, baimenak... Guztia anbiguotasunez beterik dago.

Gainera, sektore horretako pertsona langile askok ezin du gizarte-babesik izan, bai REEHk kotizatu gabe lan egin dezaten onartzen duelako, bai irregulartasun administratiboko egoeran dauden migratzaileak direlako. Hau da, informaltasun-tasa altuko sektorea da; emakume langileek ezin dute langabezia-saririk, bazarrik eta gizarte-eskubiderik eskuratu.

Etxeko langileen kualifikazio-mailak ez du azaltzen, gaur egun, zergatik dituzten pertsona horiek lan-baldintza okerragoko enpleguak; izan ere, % 53,1ek Bigarren Hezkuntza edo Goi-mailakoa egina du. Bada sektore horretan sartu izana azaltzen duen faktore bat: atzerritarren arautzea; eta horrek sustatu du, modu oso aktiboan, lanean sartzeko modu hori. Hain zuzen, bizileku-baimena eskuratzeko lan-kontratu bat lortu behar dute, eta horrek behartzen ditu REEHk ezarritako lan-baldintzak onartzera.

Krisi ekonomikoaren aldi honetan bada nabarmentzeko beste gertaera bat: Espainiako estatuko gizonezkoak ez dira inoiz ordaindutako jarduera mota horretan hasi; atzerritar gizonezkoak, berriz, ari dira, nahiz eta kopuru baxuan eta erresistentzi handia agertuz zenbaitengandik. Gizonezko horietako gehienak pertsona helduen zaintzan hasi dira; izan ere, gizonezkoek baldintza fisiko positiboak izan ohi dituzte adinekoak mugitzeko, eta haiek zaintzeko samurtasun gutxixeago aski delakoaren pentsakeran arabera.

Atzerritarren legeriak eta administrazio-praktikak sentiberatasun urria du genero-gaiei dagokienean, eta horrek emakume emigrante langileen lan-ibilbideari eta haien familia-bizitza eta bizitza pertsonalari eragin die eta «antolatu» egin ditu (edo desantolatu); ondorioz, diskriminatzailetzat har daitezkeen neurriak aplikatuta, zaurgarritasun altuko egoeran jarri ditu emakume langile horiek. Etxeko emakume langileek lan- eta babes-eskubideen oinarritzko estandar bat lortzea galarazten dien legezko oztopo-sare bati egiten diote aurre; legezko oztopo-sare hori elkar sendotzen diren bi arau batera aplikatuz ondorioztatzen da, ezegonkortasun-egoera kezkarriak

sortuz: Atzerritarren Legea eta etxeko enplegatuen lan-harremana arautzen duen araubidea.

Etxeko enpleguak, gainera, zaintza-lan guztien gutxiespena eta ikusezintasuna islatzen ditu, ez ordainduarena, ez-lan gisa hartzen baita askotan (eta ez-lana denez, ez du gizarte-eskubiderik sortzen, talde-negoiaziorako mekanismorik ez du). Begoña Zabalak argudiatzen du etorri diren emakume asko orain arte bertako emakumeek betetzen zituzten zuloak betetzera etorri direla, baina ez soilik etxeko lanetan.

Gizonezkoen sexu-beharrak eta -nahiak, edo haien behar afektiboak, asetzera eta, zenbaitetan, baita haien aitatasunerako edo «ezkontza»rako nahiak ere. Arrazoi konplexu eta askotarikoengatik, gizonezkoen desirak asetzen dituen emakumearen eredia krisian sartu da gure gizartean, neurri batean. Rol-aldaketa hori elkarrekin gurutzatutako arrazoi askoren ondorio da; kontua da, modu errazean esanda, hemengo emakumeak ez direla jada prostituzio lanetan aritzen, ez etxeko langile, ez etxekoandre egun osoan, eta ezta familia ugariko (edo ez hain ugariko) ama eta emazte ere (Zabala, 2004: 7).

Eta aipatzen du hori esatean kontuan hartu behar direla ezagutzen diren salbuespen eta erreserba guztiak; izan ere, emakume etorkinak ari dira bertako emakumeen rola ordezkatzen, baina horrek ez du esan nahi bertako emakumeek estatus hobe bat lortu dutenik, eta «duin ez diren» edo apalagotzat hartzen diren lanak emakume etorkinek egiten dituztenik; ez dago balioespen moralik datu horietan, paper-aldaketen deskribapena besterik ez da. Sexu-lanak etxeko lanak dituen ezaugarri alienatzaile asko ditu; biak ere epe motzean diru kantitate handiagoa bildu nahi duten emakumeek gauzatzen dituzte, aldi berean.

Egungo egoeran, zerbitzu mota horietan eragin duten hainbat fenomeno gertatu dira. Erakunde publikoek dohainik edo merke eskaintzen zituzten gizarte-zerbitzuak nabarmen murriztu dira eta, paraleluki, areagotu egin dira zerbitzu horiek erakunde pribatuen kontura; gero eta garestiagoak dira ordea, eta, beraz, merkeagoa eta eramangarriagoa da etxeko langile bat izatea.

Eta, une honetan, emakume horiek jartzen diete petatxua laneko bizitzaren, gizarte-bizitzaren eta familia-bizitzaren arteko kontziliazio deitzen dioten horri (Zabala, 2004: 9).

Beste alde batetik, behatzekoa da emakume etorkinen jatorriko herrialdeetan ere gertatzen ari den ordezkapen-fenomenoa; zaintzen kate transnazionala deitu diote, eta etxe transnazionalen konfigurazioa; horietako asko emakumeen esku geratu dira, soil-soilik. Horrek esan nahi du hemengo amak ordezkatu eta zaintza-lanak egitera etortzen diren emakume askok, aldi berean, beren haurrak jatorriko herrialdean uzten dituztela, gehienez familiakoak diren beste emakume batzuen zaintzapean. Ondorioz, emakume-kate bat sortzen da, munduko mugen gainetik igaroz zaintza-sareak osatzen dituen eta sare horietan modu batera edo bestera parte hartzen duena (Huarte, 2002).



Lana dagoen tokira doazen emakume horiei «emakume transnazional» izena eman zaie. Hausten ari da arau tradizional multzo bat; familiak ez dira dagoeneko familia etxebizitza berean elkarrekin bizi direlako, familiaren zati bat herrialde batean baitago, beste bat beste alde batean, eta zenbaitetan txandakatu egiten dira; senarra itzuli eta emaztea joan, edo alderantziz. Familia bati eusteko joko-arau guztiak etengabe berrikusi behar dira; migratzaileek eta senideek elkarri lotuta jarraitu arren —telefono bidez, mezu afektibo eta bi norabidetako informazioaren bidez, edo lotura ekonomikoak eta antzeko frustrazio eta proiektuak direla-eta—, senar-emazteak elkarrekin eta seme-alabak haiekin ez bizitzeak eta, oro har, familia hedatuak eta disfuntzionalak izateak dibortzio asko eragiten ditu; epe luzeko banantze fisikoa eta elkarrekiko izan daitezkeen desleialtasunak izan ohi dira arrazoi. Urruntasunak higatu egiten ditu harreman afektiboak, eta beste familia batzuk eratzen dira.

Amatasunari dagozkion lotura afektiboak eta erantzukizunak mantenduz mugak igarotzen dituzten immigranteen praktika sozial horiek agerian uzten dute emakume migratzaile horiek kate, sare edo komunitateen sortzaile direla; funtsean, «bizitza transnazional»aren edo «amatasun transnazional»aren sortzaile, edo, jendeak dioten moduan, «lokutorio bidezko amak». Lurralde kanpoko amatasun- edo aitatasun-jarduteak dira. Horietatik abiatuta zehazten dira genero-identitateak eta -subjektibotasunak, ahaidetasuna eta sexualitatea, testuinguru transnazional berrian. Jatorrizko herrialdean seme-alaba biologikoak izan dituzten emakume inmigrante horiek guztiak ama/seme-alaba loturak bideratzen ditu beren jardueretan eta sentimenduetan, gertutasuna edo urruntasuna gorabehera.

Heike Wagner, ekuadortar emakumeei buruz Madrilen egindako bere ikerketan, saiatu da indargabetzen migrazioak «familia suntsitzen duela» dioten irudi estigmatizatua, seme-alabak jatorrizko herrialdean utzi dituzten emakume eta amen kasuan. Herrialde horretan gaur egun eta beste garai batzuetan ama izateko hainbat modu azaltzen ditu, eta erakusten du ama guztiak ez dutela paper nagusia izan beren seme-alaba biologikoen hazieran eta zaintzan. Amaren migrazioa ez dela beti atsekabearen sinonimo seme-alabentzat adierazten du, eta ez dela nahitaez suntsitzailea eta traumatikoa; badira hainbat alderditan bizitza hobetu zaien kasuak, gizarte-bazterkeriatik edo etxeko biolentziatik aldentuz, kasu askotan. Oharrarazten du hemengo eta hango arrazoibide zigortzaileak ez dituela kontuan hartzen aniztasuna eta konplexutasuna, eta estigmatizatu egiten dituela; eta, bestetik, Mendebaldeko familia nuklearraren eredu patriarkalari dagokion amatasun kontzeptuan oinarritzen dela, baina, oro har, ez dagokiola ez Ekuadorren ez Latinoamerikan arruntena den praktika bati (Wagner, 2007).

Autoreak kontatzen du, aztertutako familia askotan, migrazioaren aurretik ere partekatzen zela seme-alaben zaintza; nahiko ohikoa zela familiako beste kide batzuekin haztea, eta ez dela ama, maitasuna ematen eta seme-alabak zaintzen erreferentziatzko pertsona bakarra. Horregatik, amak emigratzean ez da maitasuna desagertzen, ez dira zaintza eta erantzukizuna desagertzen. Bere azterketa emakume horien genero-rolen birnegoziazioan zentratzen du, «besteentzako izate» eta «besteen bidez izate»aren

murrizketa zalantzan jartzeari dagokionez. Horrek, ordea, ez du esan nahi ama horiek ez dutenik nahi beren seme-alabekin lehenbailehen elkartzetik. Alderantziz, ama askok aldi baterako gisa planifikatzen dute bere seme-alabengandik banantzea. Baina egiturazko baldintzek murriztu egiten dituzte amatasuna aurrera eramateko moduak erabakitzeko aukerak. Ama migratzaileei eta beren seme-alabei buruzko solasak, beraz, estigmatizazioarako, zigorrerako eta negoziazioarako leku dira gaur egungo migrazioarekin sendotzen diren genero-rol eta -ideologiaren aldaketa horiei dagokienez; egungo migrazio hori batez ere emakumezkoena da, bikoterik eta seme-alabarik gabe migratzen duten amena, logika patriarkalarekin hautsiz; eta, hortaz, askoz zerikusi handiagoa dute generoarekin eta gizarte patriarkalarekin, seme-alaba eurekin baino.

Horrek ez du esan nahi ama horiek ez dutenik erru-sentimendurik beren seme-alabek izango duten «arreta ezagatik». Emakume horientzat, kanpora joateko motibazio handiena beren seme-alabak izan ziren, haien etorkizuna hobetzea; baina, zenbaitetan, konturatzen dira, hobekuntza materialaz haratago, seme-alabak harreman handia ari direla galtzen, eskola-errendimendu baxua dutela, edo gizarte-portaera desegokietarako joera dutela; horrelakoetan itzuli egiten dira, zenbaitetan denboraldi nahiko luze baterako.

Immigrazioak balioa kentzen die pertsoneri eskulana merkaturatzearen bidez; baina, aldi berean, emakumeei boterea ematen die migrazioak beren autoestimua eta independentzia ekonomikoa areagotuz. Gizonezko migrtzaileen ondoan, ordea, emakume eta neskato migratzaileak errazago erasotzen ditu diskriminazioak, kanporatzeak eta gehiegikeriak, herrialde hartzaileko emakumeak baino. Izan ere, arazoak areagotu egiten zaizkie emakume eta migratzaile biak izateagatik. Emakume eta neskato migratzaileek jasaten dituzten esperientzia arruntetako batzuk dira gehiegikeria, biolentzia, sexu-erasoa, bortxaketa, diskriminazioa eta erabakiak hartzeko gaitasun murriztua. Ikerketa batzuen arabera, etorrialdi horien ondorioz emakumeek dirua kudeatzeko gaitasun handiagoa dute, baina ez dute segurtatu botere eta negoziazioarako gaitasun hori familia barruan.

## 2. Immigrazioaren devaluazioa

Zentro itxietan sartzea, sarekadak, atxiloketak, aberriratzeak, tratu txarrak, mugak blindatzea, aldi baterako lanak, diskurtso alarmistak, arrazismoa... Horiek guztiak taktikak edo mekanismoak dira immigranteak —eskulan baliagarri eta erabilgarri hori— menpeko sentiarazteko, haur bihurtzeko, diziplinatzeko, araupetzeko edo kontrolatzeko. Botere-mekanismoak dira, eremu askotan gauzatutako botere-jarduerak, eta desberdintasunak sortzen dituzte soilik diferentziak zeuden tokietan. M. Foucaultek egin zuen antzera, beste hainbatek ere ikertu dituzte ikerketa hau egiteko garaian behatu ditudan botere-harreman horiek. María Jesús Criadok, emigranteen bizitzaren historiari buruzko doktorego-tesian, immigrantea balioa galtuta eta eskubiderik gabe ager dadin

eragiten duten mekanismoak eta immigrazioaren eraikuntza sozialean bitarteko diren arrazoiak aztertu ditu; gizarte arazo larrienetakotzat hartu ditu gainera:

Izaera ekonomiko, kultural, politiko eta kulturaleko arrazoiek fenomenoaren kontrako ikuspegi bat ematen dute emaitza gisa (...); desberdintasuna gertaera naturalizat legitimatzen da, eta immigrantea menpeko egoera batera eta segurtasun gabezia iraunkor batera baztertzen da. Erakundeen praktikak eta diskurtsoak, zeregin horren erantzule direnak, komunikabideei gehitzen zaizkie; izan ere, berezkoa duten logikaren arabera, eragin hori sendotu eta immigranteen eta bertakoen arteko desberdintasuna («naturala») areagotzen dute horiek. Elkarrekin migrazioaren irudi jakin bat lantzen eta zabaltzen dute, zeinetan emigrantearen giza dimentsioa —amankomun eta paritarioa— eta hark gizarteari egindako ekarpena ezkutatu egiten duten. Aldi berean azpimarratu egiten dituzte kezka arazten duten alderdiak (mugetan egindako «erasoak», «kultura-diferentziak», «mafiak», etab.). Immigrantearen irudia, modu horretan, honako nozio hauei loturik ageri da: legezketasunik eza eta arau-haustea, pobrezia, arkaismoa, behartasun gorria, etab. Ezaugarri oker eta kaltegarri horiek herritarren beldurra indartu eta jarrera negatiboak pizten dituzte (Criado, 2001: 426).

Komunikabide askotan immigrazioari buruz erabilitako diskurtsoa oso alarmista da, oro har. Nahikoa da egun batzuetan begiratzea, erabiltzen duten hizkeraz jabetzeko. «Immigrante-oldea», «cayuco mukuruz beteak», «etorkinen olatua» «immigranteen iritsiera masiboa» «izan daitekeen migrazioagatik izututa...», «nola jasan hainbeste etorkinen iritsiera», horiek dira, besteak beste, askotan entzun ditzakegun terminoak. Komunikabide horiek nahaste handia eragiten dute iritzi publikoan. Immigrante kontzeptua erabiltzen dute gizarte- eta lan-ezaugarri antzekoak dituzten hainbat talde homogeneo bihurtzeko. Publikoaren arreta erakartzeko, bazterreko immigrante batzuek sortutako arazoak nabarmentzen dituzte. Lagunarteko hizkeran mespretxuzko adierazpenak agertzen dira; hala nola, «sudaca», «chiquilicuate» eta «moro». Eskrupulurik gabeko politikariek eta komunikabide kolaboratzaileek egindako modu honetako baieztapenek atzerritarrenganako sentimendu negatiboa elikatzen dute: «atzerritarrek igo egiten dituzte delinkuentzia-indizeak», «gizarte-laguntzak kentzen dizkigute», «zerbitzu publikoek gehiegi baliatzen dira», «nortasuna galtzen dugu», «lana kentzen digute», «migratzaileek heziketa-maila jaisten dute», eta beste. Delgadok honela argudiatzen du, diskurtso horiek aztertzerakoan:

«Immigrante» deiturikoa edo «gutxiengo etniko»ren baten barruan etiketaturikoa kulturalki ahalmen urriko edo elbarri bihurtzen dute; hau da, beren hizkuntza-zailtasunak edo ohitura zehatzak alde batera utzita, erabat jartzen da zalantzan gizaki gisa, bere pertsonalitate osora zabaltzen baita migratzaile-egoera, gainerakoan gaindi daitekeen gabezia espezifikoa; zehatza, mugatua, eta ihes egin ezin dion (eta behar ez dion) baldintza «kultural» batek markatzen duena. Egozten dioten trakestasuna ez da zailtasun jakin baten ondorio, baizik eta bere gizarte-harreman guztiei eragiten die. Ez du aukera errealik, ez izan daitekeen

eskubide moralik, bere jarduerak garatzen diren tokiko inguruak eta pertzepzio-eremuak maneiatzeko; ez du testuinguruaren gainean eragiteko gaitasunik, herrestan baitarama, nolabait esatearren, bere «nortasunaren» pisu neketsua. Ez ditu eguneroko bizitzako gertaerak fokalizatzen, etengabeko salbuespen-egoera kultural batera mugatzen baitute. Harentzat, eguneroko bizitza erabateko ezarpena da, presondegi bat, erreformatorio bat, etengabe mota guztietako zelatatze panoptikoen menpe dagoen espazio bat (Delgado, 2002).

Erakundeek eta iritzi publikoak berezko eta eraginkor gisa aitortzen duten imaginarioaren nagusitasun horrek gizakien arteko nagusitasun-harremanen naturalizazio sistematikoa adierazten du, eta hierarkia eta asimetria sozialen eztabaidea ezintzat azaldutako gauza bihurtze bat.

Beharbada, beste garai eta leku batzuetan baino gehiago, gure artean agerikoa da errealitate esaten zaion hori zenbateraino den, batez ere, eraikuntza politiko eta sozial jakin bat, esanahien ekoizpenaz eta banaketaz arduratzen diren botereguneen eskutik; haren eraginkortasunera begira, ezinbestekoa da, beti, gizarte-gehiengoaren parte-hartzea, zeinaren ordezkari-tza-sistemetan presente eta aktibo bai baitzeuden bazterketaren eta bazterketarako logikak (Delgado 2007: 214).

Krisi-garaietan —errealak izan edo hala hautemandakoa izan—, errudunak bilatzeko joera izaten da, eta berdin-berdina ez den oro «beste» sinboliko bihurtzen da, exorzismo kolektiboetan hain erabilgarria dena. Honela dio Sophie Bessis-ek:

Jakina da xenofobia —sentimendu unibertsal bat bezala eraten dena— eta demagogia politikoa elkartzeak «beste» horren muturreko gutxiespen zorrigaitzokoenetara eramane dezakeela. Zibilizazio askotan, atzeritarra ez da *meteco* bat besterik izan, janankorra edo onartua komunitatearentzat ezinbesteko zerbitzuak gauzatzen zituenean, eta kanporatua azken honi erabilgarritasunik ez zuela iruditzen zitzaion unean (Bessis, 2002: 177).

Legeak, antzinakoek zekiten gisara, hiriaren harresiak dira; baina artea eta politika harresi horien barnean gertatzen dira eta, askotan, politikak hesi horiek errotarazten ditu, edo, behintzat, iragazkor bihurtzen ditu, edo, alderantziz, harresi ikusgarri edo ikusezin horiek sendoago eta iraunkoago bihurtzen ditu gizarte orok bilatzen dituzten aldaketan aurrean.

Desberdintasuna eraikuntza historiko bat da. Aniztasuna edo diferentzia desberdintasun bilakatu dira, haiek hierarkizatu direlako. Emakume immigranteengan beste «diferentzia» batzuk eraiki dira, beren «arroztutako» egoeratik eratorritzen direnak. Estereotipoak janzkeran, elikagai eta higiene ereduetan, erlijio-sinesmenetan edo hizkuntzan nabarmentzen dira; eta, askotan, halako exotismo bat betiketuz laguntzeaz gainera, tradizionalismoaren eta atzerapenaren irudia sendotzen dute, gizarte hartzaileko modernizazioari kontra egitearren.

Emakumeak, migrazioaren eragile eta protagonista gisa betiko ahaztuak, ikusiak izaten hasi dira (baita gehiegi ikusiak izaten ere) beren diferentzia dela eta, komunikabideetan eta diskurtso politikoan. Baina, zer gertaerei dagokienez lortzen dute ikusgarritasuna emakume immigranteek, diskurtso publikoaren objektu bihurtzeko? Hauen eta prostituzioaren, hainbat paraktika kulturalen (hala nola, belo), klitoriaren erauzketarekin, ohore-krimen deiturikoen edo ustezko jaiotza-tasa altuagoaren artean ezarritako loturari dagokien elementuekin uztartzen dituzte.

Legezko hiritartasunetik atzerritar gisa baztertutako etorkinei eta, aldi berean, ama eta emazte gisa hartutakoei dagokienez, arruntena da, itxurazko ikusgarritasun bat eragiten badute ere, emakume horiek beren gizarte patriarkalen «biktima pasibo» gisa hartzea, munduan emakumeengan orokortuta dagoen biolentziaren eta pobrezia biktima gisa, ez bada erakundeek familia eta sexu eredu baten bermatzailatzat eskatzen dituztelako, horri dagozkion balio nagusiekin bat etorri (Gregorio, 2009).

Desberdintasunak onartezinak eta demokraziaren aurkakoak dira. Guacira C. De Oliveirak demokrazia deseraikitzeaz hitz egiten badu ere, Gina Vargasek demokrazia erradikal deituriko antolakuntza politiko bat proposatzen du.

Demokrazia erradikalari buruzko diskurtsoak demokrazia ez dela soilik sistema politiko bat azaltzen du. Justizia sozialaren eta genero-berdintasunaren balioekin estuki lotuta dago. Gizarte-bizitza antolatzeke modu bat eta kontzientzia bat da, gizakiaren esperientzia bizi dugun dimentsio guztietan. Gaur egun ezagutzen ditugun sistema demokratiko guztiek (izan burgesak, liberalak, neoliberalak edo post-sozialistak) ez dituzte alderdi horiek (Vargas, 2007).

Mendebaldeko demokraziek gabezia asko dituzte, eta haien barnean bazterketa eta marjinazio ugari aurki ditzakegu. Demokratizazioak herritartasun nozioa berreraikitzea eskatzen du. Beharrezkoa da guztiontzat bidezkoagoa den eredu politiko baten barnean herritartasuna birmoldatzea. Herritartasuna beste batzuekiko kidesun-adierazpen gisa ulertu behar da, eta ez legezko identitate gisa soilik.

Logika kapitalistak produktuen kategorian kokatzen ditu ekintza, zerbitzua, harremana, eta baita gizakiak ere. Logika hori mugarik gabeko hazkunderaren eta kontsumismoaren gainean eraiki da, baldintza ezegonkorak dituen eskulan baten presentziaren gainean hartzen du atsedean nagusiki, eta emakumeek gizarte-erreproduktzioarako funtsezko lana dohainik egiten dute bertan.

Era berean, familiaren berrelkartzea arautu zenean (Atzerritarren Legean), zer familia mota (monogamia, nuklearra) babesteko prest zeuden zehaztu zen, eta familiaren barnean zer harreman mota sustatu nahi diren (mendekotasuna eta dependentzia). Modu horretan sortu zen etxeko unitatea gizonezko hornitzaileagan eta emakume etxekoandregan (seme-alaben sozializatzaile eta senarraren mendeko) oinarritutako familia nuklear gisa. Integrazioa, etorkin-komunitateen eta gizarte

hartzailearen arteko gatazka gabeziaren sinonimo gisa, eta iritsierako gizartearen portaera normalizatuen pixkanakako onarpen gisa.

Migrazio-proiektu propio bat duten eta subjektu aktibo diren emakume etorkin horiek, ezkontuta egon ala ez, gizonen gisara, ihes egiten dute pobreziaren edo aukera faltengatik. Legeek, ordea, modu bereizgarrian eragiten die batzuei eta besteei. Emakume haietako askok etxean eta sexuari dagokionean gauzatzen duten lan mota da desberdintasun-harreman hori adierazten duena.

Politika publikoetatik ez da begiesten emakume immigranteen egoeren eta ibilbideen aniztasuna; talde homogenezat hartzen dira, eta familia gizarte-testuinguru berrian egokitzeko eta integratzeko bitartekotzat. Emakumeek familien barnean duten funtzio egonkortzaile eta kohesio-eragilea azpimarratzen da, taldeak baztertzea saihesteko, oreka emozionalaren eta gizarte-normalizazioaren faktore gisa. Beraz, integratzearako politikaren kontzeptualizazioa familiaren eta etxeko unitatearen ikuspegi estereotipatu batetik abiatzen da, emakumei eta gizoni esleitutako paperen dikotomian oinarrituta. Honela baieztatu du Carmen Gregoriok:

Emakume immigranteak hain modu orokor eta abstraktuan bistaratzeak, baztertutako gisara eta gabezia handidun talde gisara, botere-mekanismoen oinarrian bertan dagoen estereotipo deskalifikatzaile bat sorraraz dezake. Edonola ere, bazterketa soziala zehaztu beharreko gizarte-harremanen eremuari dagokion prozesu bat da, sortutako irudia ez dadin bihurtu emaitza norbanakoaren eta taldeen barneko egoera batekin nahasten duen botere-kategoria (Gregorio, 2000: 380).

Gizarte-desberdintasuna naturalizatzen edo kulturizatzen saiatu dira, eta horrek prozedura ideologiko bat eratu du, gutxiagotasunaren «errua» biktimei berei egotziz. Generoak, klaseak edo etniak paper erabakigarria eta elkarrekin erlazionatua betetzen dute klaseen gizartea eratzerakoan eta betiketzerakoan; gizarte hori sakonki desberdina eta kontraesankorra da aldi berean. Horren erakusgarri dira Iparraren eta Hegoaren artean hazten ari diren desberdintasunak, eta Iparralde aberatsean sorturiko alarma immigrazioaren aurrean.

Sozioekonomia hobetzea borondate onaren eta norbanakoaren esfortzuaren baitan soilik dagoela dioen ilusio liberalak tranpa ideologiko bat eratzen du, eta ezkutatu egiten ditu desberdintasunaren benetako arrazoiak, hau da, oparotasunean bizi den gutxiengo batek desjabetutako gehiengoaren esplotazioa (Stolcke, 1992).

Oparotasunak eta beraz egiten den harrokeriak sinoptikoa deitu zaion eusteko gailuaren bidez, mendekotasun sinbolikoaren modu garrantzitsua eratzen du M. Foucaulten panoptikoaren aurrean. Gaur egungo gizartean, bizikide dira produkzioa eta kontsumizioa. Lehena diziplinaren bidez zabaltzen da, eta bigarrena kontrolaren bidez. Produkzioak zaintzan du bere botere-teknologia nagusia, panoptikoaren bidez;

kontsumitzaileen gizarteak, berriz, sedukzioari jarraitzen dio, sinoptikoaren bidez. Desira eta plazerra dira jarraitu beharreko helburuak. Sinoptikoa, zeinetan askok baitaukate aukera gutxi batzuen ikuskizunari begiratzeko —masa kontsumitzailearentzat portaera-arauak eskaintzen dituenenez—, botere-teknologia berri eta kontrol-mekanismo bilakatzen da; sedukzioaren bidez jarduten duen mekanismoa, hain zuzen.

Sinoptikoak zerikusia du desira berehalako plazer gisa hartzearekin; hori da, hain zuzen, kontsumo-gizarte batean libidoa bideratzeko gehien komeni den modua (Gil, 2005).

Sinoptikoa pertsona ospetsuen bizitza pribatua etengabe bistartzean oinarritzen da, masen komunikabideen bidez. Horren erakusgarri dira *Gran Hermano* edo *Operación Triunfo*, zeinetan esfortzua eta diziplina ezinbestekoak baitira zerbait lortzeko, eta nahi den oro eskuragarri agertzen baita. Itxuraz kontrakoak diren bi ikusmolde bizikide dira, modu horretan: plazerra bilatzea eta diziplina. Mekanismo batek ez du bestea ordezkatzeko, baizik eta gainjarri egiten dira. Narrazioa edo anekdoten pilaketa arrunta gailendu egiten zaio arazoaren arazoibideari; eta gertaeren erakustaldi laburra, haien trataera egiturazko eta luzarokoari. Horregatik, kontsumitzaile bihurtu nahi gaituzte, izaki gogoetazale eta autonomo baino gehiago. Argumentazio moduek eta kritikek leku egiten diote ikuskizunari.

Botere-harremanetan, beldurra da aurrez aipaturiko beste kontrol- eta debaluazio-mekanismo bat. Denboran zehar, menderatze eraginkor eta sendorako tresna gisa erabili den sentimenduetariko bat da hori. Beste pertsona batzuei beldurra eragiten dienak, eskuarki, bere borondatea inposatzea ahalbidetzen dion arma bat du eskuetan, erresistentziarik edo aurkakotasunik sortu gabe. Beldur den pertsonak otzan onartzen ditu besteek inposatzen dizkieten baldintzak, eta ez die kontrarik egiten bere partez agindu edo erabaki nahi duten haiei.

Modu asko daude herritarrei beldurra eragiteko, eta agintariek hartzen dituzten erabaki politikoak ez zalantzan jartzera edo haiekin bat etortzera eragiteko. Gizarte ikaratsua da, ez soilik politika gogorak edo errepresiozkoak inposatzen direnean, baizik baita publizitatea, informazioa eta antzeko elementuak manipulatzeko direnean ere.

Beldurrak larderia dakar, eta horiek biak politika ofizialen aurreko kontrakotasun- edo kritika-keinu orok aurrera egitea saihesteko tresna politiko bilakatzen dira. Modu horretan, beldur politikoak eragin inhibitzaile argia du: errebeldia- edo desadostasun-jarrera oro baliogabetzen ditu, pentsamendua uzkuratzen du eta gorputza geldiarazten du. Are gehiago: norbanakoaren eta gizartearen sormena suntsitu eta geldiarazi egiten du. Beldurrak sortzaileak zigortzen ditu, berritzaileak frustratzen ditu eta askatasuna murrizten du.

Beldurrak paralisia eragin dezake, menderatzera eraman, eta manipulatzeko, zentsuratzea edo zapaltzea bilatzen duten «beldur-kanpainak» harrapakin erraz bihurtu.

Dorre bikiak eraistek, Europako herrialdeetako atentatuek, hainbat izurriri buruzko kanpaina mediatikoez edo krisia gainbalioesteak beldurra eta ezintasuna gorpuztea dakar.

Beldurra eta etsipena. Beldurra eta erresumina. Baina beti beldurra. Krisia beldurraren garaia da: lana galtzeari, lanik ez bilatzeari, kanporatua izateari, bizilekua ez berritzeari, lapurtua izateari, besteei, mehatxu mugagabe edo ezin aitortuzkoei, ia guztiari (Observatorio Metropolitano, 2011: 107)

Beldurrak konfiantzarik eta segurtasunik eza sortzen ditu, eta erreakzio oldarkorrek, amorrua eta gorrotoa eragin ditzake, eta horiek eguneroko gizartekoitasunari barrena jaten amaitzen dute. Beldurraren azpian daude norbanakotze eta gizarte-desegituraketa ahalegin guztiak. Beldurra ezintasunaren isla da, eta ezintasuna alaitasuna galdu duen gorputz baten ahultasuna, benetako babesaren edo itxurazkoa eskaintzen dion harengan babes hartzeko prest dagoen ikaratutako gorputz batena. Beldurra nor bere baitara biltzen da eta urrutirago begiratzeko ezgaitasuna eragiten du.



## **HERRITARTASUNA, GIZA ESKUBIDEAK ETA EKINTZA POLITIKO KULTURALA**

1990eko hamarkadatik aurrera, herritartasun kontzeptua eztabaida politikorako termino gakoetako bilakatu da. Azken hamarkadetako aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko handiei esker bilakaera betean den kontzeptu bat izateari zor dio, neurri handi batean, garrantzi hori.

Herritartasuna estatus juridiko eta politiko gisa defini dezakegu, zeinaren bidez herritarrak eskubide batzuk lortzen baititu norbanako gisa, eta betebeharrak batzuk talde politiko bati dagokionez; edo gizarte jakin batean eskubideen jabegoa eta titulartasuna arautzen duten arau multzo gisa ere defini dezakegu. Herritartasuna giza ekintza baten emaitza da, eredu politiko eta filosofiko bat. Herritartasunak subjektu sozialaren protagonismoa mugatzen du, eta harreman estua du askatasunarekin eta boterearekin. Eskubideak Estatuaren konstituzio eta araudietan gauzatzen dira; eta demokratiko deritze, herritartasun kontzeptua nagusia baita demokrazian, gobernu-sisteman. Horri dagokionez, honela idatzi du G. Cabanellas-ek: «Herritartasunak herritarren eta Estatu modernoaren artean eskubideak eta betebeharrak biltzen eta zehazten dituen erakunde politiko-juridiko bat eratzen du» (Cabanellas, 1998: 153).

Zapata-Barreroren arabera, herritartasunaz hitz egitean kontuan hartu behar ditugu, gutxienez, hiru premisa. Lehenengoa da kategoria bitarteko bat aztertzen ari garela pertsonaren eta Estatuaren artean. Horrek esan nahi du harreman bertikala adierazten duela Estatuarekiko, eta harreman horizontala pertsonarekiko. Ezin du egon zuzeneko harremanik Estatuaren eta pertsonaren artean, zeharkakoa baizik, herritartasunaren bidez; eta Estatu herritartasunaren bidez soilik jar daiteke harremanetan pertsonarekin. Bigarren premisaren arabera, herritartasuna ez da bitarteko kategoria bat soilik, baizik eta «eremu publiko» deritzoguna ere osatzen du, Estatuak mugatzen duena. «Horrek esan nahi du pertsona, eremu publikoan ari denean, herritar gisa ari dela. Eremu publikoan onartua dago herritarren jardura. Eremu publikotik kanpo ez da aritzen herritarra, baizik eta pertsona» (Zapata-Barrero, 2003: 120). Hirugarren premisaren arabera, autoreak adierazten du herritartasunak portaera mota uniforme eskatzen duela, jokaera-jarraibide batzuk eta «herritarraren jokabide» arau batzuk, «herritar onaren eredu»renak; horrek, beraz, ilegaltasunean jardutea eskatzen du edo, behintzat, legerik gabe.

Herritartasunaren ikusmoldeak bilakaera izan du antzinate klasikotik (Grezia, Erroma) gaur egunera arte. Estatu-nazioa osatzearekin eta filosofia politiko-liberalarekin garatu da, XVII. eta XVIII. mendeetan Mendebaldean populazioa biltzen duen kolektibitate politiko gisa; beraz, Mendebaldeko gizartearen eraikuntza bat da. Ikusmolde hori XIX. eta XX. mendeetan zabaldu eta hobetu zen, talde eta mugimendu sozial askok aurrera eramanez zituzten borroka sozialen bidez, osatzen duten berme indibidual eta sozialak garatzeko eta instituzionalizatzeko asmoz. Herritartasun hori naziotasunaren baliokidea da. Frantses Iraultzarekin naziotasuna herritartasunari lotuta

geratu zen, eta historia eta kultura homogeen bat partekatzen zuen talde gisa ulertu zen nazioa; ondorioz:

(...) atzerritarra agertzen denean, bertakotzat hartzen ez dena bere genealogiagatik (*ius sanguinis*) edo/eta jaiolekuagatik (*ius soli*), paradoxa bat gertatzen da: gizaki gisa, eskubide guztietarako eskubidea du; baina, atzerritar gisa, ez du ez eskubide politiko ez sozialik, nahiz eta agian eskubide zibilak aitortzen zaizkion (Etxeberria, 2004: 115).

T.H. Marshall-ek herritartasunaren eraikuntza prozesu politiko baten emaitza gisa deskribatzen du. Prozesu hori XVIII. mendean hasi zen askatasun zibilak instituzionalizatuz, XIX. mendean eskubide politikoak eraikiz egin zuen aurrera, eta XX. mendean eskubide sozialekin jarraitu zuen. Marshallen herritartasunaren ikuspegi horrek bai eskubideak eta ondasunak bai betebeharrak ematen dizkio pertsona bakoitzari:

-Eskubide zibilak estatu absolutistarekin batera sortu ziren eta, beren formarik goiztiar eta oinarrizkoenean, norbanakoaren askatasunerako beharrezko eskubideak ekartzen dituzte: bizitza babestekoa, kontzientzia-askatasunerakoa, adieraztekoa, pentsatzeko, erlijiorako eta elkartzeko hainbat eskubide, jabetzarakoa, baliodun kontratuak ezartzekoa, eta justiziarako eskubidea.

-Eskubide politikoak: autodeterminaziorako eskubidea; botere politikoaren jardueran parte hartzeko eskubidea, karguak betez eta haietarako hautagai gisa proposatzuz; elkarte politikoak eta ez politikoak, prentsa librea, erakunde zientifiko eta kultural libreak finkatzeko eskubidea.

-Eskubide sozialak, historikoki, langile-mugimenduen, emakumeen eta beste gizarte-mugimendu batzuen bidez lortu ziren: sindikatuak eta beste elkarte profesional batzuk eratzeko eskubidea, segurtasunerako eta gutxieneko ekonomia-ongizaterako eskubidea, langabezia-ordainak, osasunerako eskubidea, adindunentzako pentsioa, haurtzararako zaintza, hezkuntza, etxebizitza lortzea. Eskubide horiek asko aldatzen dira herrialde batetik bestera (Marshall, 1998: 22-23).

Ez dago adostasun unibertsalik herritartasuna aplikatzerakoan. Eredu batzuek — hala nola, *ius soli* edo lurraldetasun-printzipioan oinarriturikoak— lurralde jakin horretan jaiotako pertsona orori aplikatzen diote. Ez da herentzian oinarritzen. Hori da Estatu Batuen, Frantziaren eta Latinoamerikako herrialde askoren kasua. Beste eredu batzuek —esaterako, *ius sanguini* edo odol-eskubidean oinarriturikoak— jabetzarako aukera murrizten diete eskubide osoa duten kideen oinordekoei; Espainiako estatuko eta Alemaniako kasua da, non, hitzez hitz, odolaren bidez herritartasuna helarazten baita. Bi ereduak gaur egungo legerietan bat egiten badute ere, neurri handi batean immigrazioaren ondorioz, Estatuak eskumen osoa du lurraldeko kide izateko eta bizitzeko arauak ezartzeko. Lurrarekin edo jaiolekuarekin eta ahaidetasunarekin edo odolarekin loturiko identitate tradizionalen balio legitimatzailea komunitate politikoaren

idea estu baten gainean eraiki da, «gu» «beste»en aurrean, oinordetzan hartutako muga nazionalekin.

Honako hauek dira termino horri datxezkion beste alderdi batzuk. Batetik, Mendebaldeko kulturaren termino horrenganako larrialdiak gainerako kulturetara zabaldu den eurozentrismoa markatu du; Mendebaldearen nagusitasunaren beste gertaera bat besterik ez da hori, egun naziotasunean oinarrituz. Bestetik, herritartasuna estuki loturik dago generoari, Mendebaldeko gizartearentzat maskulinitatearen esanahiaren adierazpena delako; eta «herritartasuna ez da termino neutrala, generoaren ikuspuntutik begiratuta» (Pérez, 2004: 4). Sortu zenetik XXI. mendearen hasierara arte, maskulinitateak ez du gogoko izan tradizioa aldatzea. Maila juridiko-formalean aldaketak izan badira ere (Amorós, 1987: 115), praktikan, herritartasunak maskulinoa eta elitekoa izaten jarraitzen du.

Azken urteotan emakumea eremu politikoan kokatzea esanguratsua izan bada ere, gutxiengo etnikoetatik datozen presidenteak aukeratzearen antzera —zeinak menpeko taldeak bistaratzea baitakar berekin—, hori ez da nahikoa, praktikan, herritartasuna herritar guztiontzat berdintasunezko baldintza dela jotzeko (Pavez, 2010: 49).

Herritartasuna mugatzea desberdintasun-harremanak sortzetik eratortzen da, genero, klase, jatorriko herrialde eta mundu-mailan betetzen duen lekuari dagozkien diferentzien oinarriaren gainean, eta baita kultura- eta fenotipo-diferentzien eraikuntzan, lan-merkatuak eta beste baliabide sozial eta juridiko-politikoetarako sarbidean ere. Marcela Lagardek honako gogoeta hauek egiten ditu demokraziaz eta generoaz:

Nola defini daiteke demokrazia, atzerritarrek, indigenek, edo gutxitutako genealogia erlijioso edo kulturaletako emakumeek ez dutenean herritartasun-eskubiderik edo gizarte-ordenaren bazterrean kokatzen badira, gauza bihurtutako gizarte-mailetan, Estatuaren erakundeetatik kanpo (Lagarde, 2006).

Herritarren eta ez-herritarren arteko bereizketa herritartasun kontzeptuaren osagai banaezina da: bazterketa espazio politikoko elementu eratzaile gisa agertzen da. Egungo markoa «herritartasuna = demos = naziotasuna» hipotesian oinarritzen da. Horrek esan nahi du estatu bateko populazio guztia ez dela herritarra, ez duela herritartasunik. Honela adierazten du Zapata-Barrenok:

Diferentzia nagusia da herritarrak badituela bertakoa ez denak edo biztanleak nahitaez eduki behar ez dituen eskubide politiko batzuk, eta herritarrak ez duela zertan biztanle izan (bai baitaude Estatutik kanpo bizi diren herritarrak). Zentzu hiritarrak erroldatzea darabil irizpide gisa; Estatuaren zentzuak, naziotasuna (Zapata-Barreno, 2003: 117).

Demosaren ustezko homogeneousutasuna, historikoki, gertaera hau legezkotzeko erabili izan da: haren barruan daudenek beren legeak eta erabakiak betetzera behartu ditzaketela kanpoan daudenak. Populazioaren zati diren baina demosa osatzen ez duten

beste horiek, historian zehar, askotariko izenak jaso dituzte; hala nola, esklaboak, emakumeak, txikiagoak, menpekoak, kanpotarrak, immigranteak. Balio eta ikusmolde arauemaileei loturiko nozio politikoak dira.

Gaur, estatu-nazioak munduko mapa politikoko elementu gakoa izaten jarraitzen badu ere, mota horretako erakunde politikoentzat erronka argia dakarten aldaketak gertatzen ari dira. Arjun Appadurai<sup>42</sup>-ren ustez, estatu-nazio horien heriotza konbentzionala ari da gertatzen, postnazio kontzeptu berri bati leku eginez. Kartografia berri bat eraikitzea sorrarariz, deslurraldetasunaren eta ordena sozial eta ekonomiko berri baten ideiarekin. Enpresek eta erakundeek bide ematen diete lan modu berriei. Bi eraldaketa handi zalantzan jartzen ari dira estatu-nazio garaikidea eta hari loturik datorren herritartasun kontzeptua:

Batetik, «globalizazioa» edo «mundializazioa», harremanak eta batez ere ekonomia nazio-mailako gai izatetik mundu-mailako gai izatera igaro baitira; mundializazio horretan, estatu-nazioak gero eta ezgauzago dira globalizazioen erronkei aurre egiteko eta horiek kontrolatzeko. Bestetik, gizarte gero eta kulturantzunagoak ageri dira, zeinetan estatu-nazioen homogeneotasun teorikoa zatikatzen baita. Eskualde- edo nazio-mailako aniztasuna eta hazten ari den immigraziotik eratorritako kulturantzitasuna edo multietnizitatea alderdi gakoak dira geroz eta handiagoa den gizartearen arteko bereizkuntzan.

Herritartasuna giza eskubideen jardute gisa ulertuz, Boaventura de Sousa Santos-ek proposatzen du herritartasunaren teoria berria garatu behar dela, gero eta ugariagoak diren menpeko mugimendu transnazionalen eta horiek giza eskubideen nazioarteko erregimenari ezartzen dizkioten erronken berri emateko helburuarekin. Ez da nahikoa enpresak eta ekonomia deslurraldetzea:

Herritartasuna deslurraldetu egin behar da (ez hain nazionala, eta berdintasunezkoagoa). Herritartasuna «deskanonizatu» egin behar da (ez hain sakratua, eta demokratikoagoa), pasaporteak eta bisak fetixe juridiko izateari uzteko moduan, horren bidez bizitza aldatuko baita eta pertsona askoren giza duintasuna horren baitan gelditzen baita. Herritartasuna modu sozialistan berreraiki behar da (sozialki kontsekuenteagoa eta ez hain bakarra), borondatezko elkartzearen printzipioa unibertsal bihurtu dadin. Azken buruan, izaera kosmopolitadun zuzenbidezko estatu bat, zeinetan herritartasuna aldatzea gaur egun bizilekuz edo lanbidez aldatzea edo senar-emazteak banantzea bezain erraza edo zaila izango bailitzateke (De Sousa, 1998: 148).

García Inda-k ere kosmopolitismo terminoa darabil herritartasunari buruzko bere azterketan; demokrazia eta giza eskubideak serio hartzeak herritartasunaren estatu-nazio eredu hori gainditu eta aldi berean berezia eta kosmopolita den herritartasun berri horretarantz jotzea eskatzen duela adierazten du; herritartasun unibertsala edo mundu-

<sup>42</sup> Arjun Appadurai-k abiapuntu gisa globalizazioa eta haren efektuak hartzen ditu, estuasunean jartzeko identitateak, lurraldetasunak, nazionalismoak eta antzeko sortze-kontzeptuak.

mailakoa, mugak gainditzea —izan geografikoak, sozialak, kulturalak edo mentalak— planteatzen den mundu-mailako testuinguru berri horretan. Justizia sozialari aurre egitea. Kosmopolitismoak, baiesten du autoreak, unibertsaltasun abstraktu moduko baterantz jotzen du; unibertsaltasun horrek, egiaz, berezitasun modu jakin batzuk gordetzen ditu, eta mundu-mailako herritartasun baten aldeko apustuak gizaki guztien duintasuna eta, era berean, komunitate bakar batekoa izatea azpimarratu beharra adierazten du. Kosmopolitismoak ez dakarrela, nahitaez, nortasuna baztertzea baieztatzen du, «nortasuna ez baita benetako gizatasuna ezkututzen duen ‘mozorro-jantzi’ bat, kasu bakoitzean nortasun horrek hartzen duen beharrezko modu bat baizik» (García Inda, 2003: 101).

Herritartasunak —García Indaren hitzetan— ezin du oinarritu kide izatearen antzeko nozioetan (nozio baztertzaila baita), baizik eta parte-hartzearen edo, gutxienez, kide izatearen ikusmolde plural baten antzeko ideietan. Cortina aipatuz, heziketa kosmopolita bat «herritartasun bikoitza» —nazionala eta unibertsala— bere gain hartzea litzatekeela adierazten du García Indak:

(...) *bereizkuntza*-mugimendu bikoitzaren emaitza da, herritarrak bai baitaki bere komunitateko kideei loturik dagoela, beste komunitate batzuetako kideengandik bereizten dituen nortasuna dela-eta; eta, aldiz, baita *identifikazio*aren emaitza ere, nazionalitate ezberdineko pertsona haien guztien artean (Cortina, 1995 in Inda, 2003: 101).

Idazle honen ustez, teoria kosmopolitek ahalegina egin behar dute ezinbestean aliteritatea eta diferentzia aitortzetik abiatzen den herritartasunaren ikusmoldea garatzeko. Gaur egun, teoria kosmopolitak garatzea abegi onaren etika garatzea izatera igaro da, eta zeregin iraultzaile bilakatu da Estatuak inposaturiko abegikortasunik ezaren aurrean (Atzerritarren Legeak zigorrak aurreikusten ditu legez kanpoko immigranteei laguntzen dieten haientzat).

Abegi on unibertsala, norberaren (eta besteren) kultura-identitatea mespretxatu eta baztertu gabe, nazioa, kultura eta hizkuntza sartu diren espazio estutik haratago elkartasuna zabaltzea zehazteko gai izango dena. Elkartasun egiazkoa, beraz; mugarik gabekoa (García Inda, 2003: 108).

Modu horretan, herritarren eskubideak zalantzan jartzeko beharra azaldu da, komunitate bateko kide diren norbanakoei dagokien giza eskubide gisa; horretarako, alde batera utzi da formalki zein estatu-naziori dagokion, gaur egun ia ez baitago globalizazioaren testuinguruan azken hamarkadetan abiatutako migrazio-fluxu gogorren adinako gizarte-arazorik —bai politikoak eta ekonomikoak, bai moralak eta kulturalak—, hain premiazko, geroraezin eta erabakigarririk. Presazkoa da herritartasunaren gaia ideal politikoaren agertokian berriz azaltzea eta justiziaren agertokira lekualdatzea. Kontraesana da ekonomiaren mundializazioa datu gisa baieztatzea, muga politikoetan justizia bahitzearekin batera.

Justizia mundu-mailako agertoki batean kokatu behar da, nazioarteko justiziara igaro, baina neurri bikoitzik edo anbiguotasunik gabe. Ezin dugu justizia giltzapetu estatu bakoitzaren barne-banaketaren erregulazioan, banatu beharreko ondasunek mugez haratago gertatzen denarekin zerikusirik ez balute bezala. Gaur, inoiz baino gehiago, justiziak mundua eskatzen du aplikatzeko unibertso egoki gisara, eta herritartasunak eskubide unibertsal izan behar du. Ikuspuntu globaletik begiratuta, eztabaidaren muina immigrazioaren, giza eskubideen eta mundu-mailako justizia banakarian dago. Immigrazioaren gaia justiziaren eta munduko aberastasunaren banaketari buruzko eztabaida gisa hartzea da kontua.

Baina mundu globalizatu honetan, nazio batzuek beste batzuen gain nagusitzen jarraitzen dute, eta herritartasuna da norbanakoak estatu jakin bateko herritarren eskubideetara sartzeko edo haietatik baztertzea arautzen duen tresna; horretarako, erdiguneko edo periferiako herrialdeetako nazionalen eta herritarren arteko diferentziak marraztuko dira, zati bati eskubideak eta pribilegioak emanaz beste zatiaren kalterako.

Bestalde, giza eskubideak unibertsaltzea da gaur egungo beste eztabaidetako bat, orain indarrean dauden giza eskubideak Mendebaldean pentsatutakoak eta landutakoak baitira. Kritikatuak eta zalantzan jarriak dira, eta beharrezkoa ikusten da nazioarteko parte-hartzea eta kulturantzuna izango duen eztabaida zabal bat, adostasun eta aplikazio zabal bat lortze aldera joan behar dela.

De Sousa baiezta du giza eskubideak giza eskubide unibertsal modura ulertzen badira eta globalizazio nagusi batek inposatzen baditu, ezingo dutela modu adostuan jardun, periferiako herrialdeetat hartutako horietan, eta, ondorioz, kulturantzun gisa kontzeptualizatu behar direla, kultura guztiek jotzen baitute beren balioak definitzerik. «Giza eskubideen unibertsaltasunaren gaiak traizionatu egiten du zalantzan jartzen duenaren unibertsaltasuna, zalantzan jartzen duen moduagatik» (De Sousa, 2002: 67).

Gizakiak gizarteak edo Estatuak defendatu behar duen duintasun absolutu edo murritezina du; norbanakoaren autonomiak modu ez-hierarkikoan, ez-bereizian antolatutako gizarte bat eskatzen du. Giza eskubideei buruzko diskurtso erakargarri eta nagusiak basakeria izugarriak onartu ditu eta onartzen ditu oraindik ere; moral bikoitz argi baten arabera maneiatzen dira basakeria horiek. Hagako Nazioarteko Zigor Gorteak Muamar el Gaddafiren aurka egingo duela esaten ari dira; ez da horrelakorik aipatzen, ordea, Iraken hildako milioika pertsonen edo Afganistanen hildako milaka horien erantzukizuna dutenen aurka gauza bera egiteaz. Nork ordainduko du Palestinako herriaren kontra etengabe egindako sarraskiengatik? Zergatik ez dira Nazioarteko Zigor Kodearen aurrera eramaten gerra-, genozidio- eta gizateriaren aurkako krimen horien errudunak eta egiletza aitortu dutenak? Irak indarrez hartzearen helburua «demokrazia ezartzea» izan bazen, non da demokrazia hori? «Unibertsalismoaren aurka, elkarrizketa transkulturalak proposatu behar ditugu» (De Sousa, 2002: 67). Beraz, giza eskubideen Mendebaldeko ikusmoldeetik ikusmolde transkultural batera igaro behar dugu. Santosek proposatzen du ezagutza sarean, taldean, modu interaktiboan eta subjektiboki gauzatzea,

eta hor barnean egotea eskubide kolektiboak, natura-eskubideak, etorkizuneko belaunaldienak, eta baita erakunde kolektiboen gaineko erantzukizunak ere. Bere mugen barnean demokrazia eta giza eskubideak babesten dituen Mendebaldeak ez du interes bera bere eskubideetatik haratago, eta oso anbibalentea da haren migrazio-kudeaketa.

Herritartasunak, horrela ikusita, konstituzio modernoetan dagoen berdintasun-printzipioan gauzatzen den dimentsio ideologikoaz gainera, harreman asimetrikoen eta desberdintasun-harremanen multzoa irudikatzen du, herritarrak mugatzeko erabilitako mekanismoen bidez antolatuta (diziplina atxikitze sistema penalak, hezkuntzari dagozkionak eta gizarte-laguntzari dagozkionak). Herritartasunak, gizarte-eremu batean baztertzeko edo barnean hartzeko sistematzat ulertuta, gizarte-biolentzia eratzearen parte gisa funtzionatzen du, taldeen indar-korrelazioa eta gizarte garaikidearen barneko ikusmolde nagusiak eta menderatzaileak kudeatzeko modu gisa. Biolentzia, berriz, eraikuntza sozial eta historikoa da, boterea legezkotzen duena; historiako une jakin batean, gizarte-taldeen arteko indar-korrelazioa da.

Kepa Fernández de Larrinoak, tokiko ideologia komunitarista aztertzean, gizakia besterenezin herritar eskubideen gordetzailatzat hartzen duen ideologia unibertsalistaren aurrean, herritartasun nozioa pixkanaka populazioarengan (kasu horretan, landatarrengan) sartzen ari dela erakusten du, bere eragozpen eta barneratze edo kanporatze mekanismoekin, liskarrak eta desadostasunak sortuz. Herritartasun nozioa norbanakoarengan datzala adierazten du, eta:

(...) bere burua arautzen duen gizarte zibil baten gainean atsedean hartzen du, asoziazionismo parte-hartzailea eta gizarte-harreman horizontalen sareak sustatuz eta administrazio-erakundeak aipaturiko elkarte horien ordezkartza-organo bilakatuz (Fdez. de Larrinoa, 2007: 21).

Antropologo horrek landa-ingurune horretan aztertutakoaren gisara, edozein komunitate sozialen harremanen artean bi jokatzeko modu bereiz ditzakegu: arau tradizional, historiko eta taldeari dagozkienek kudeatutakoak, eta «norbanakoa, demokrazia, parte-hartzea, zerbitzua, gardentasun publikoa eta antzeko nozio»ei (Fdez. de Larrinoa, 2007: 22) loturik dagoen herritartasun unibertsalari begira egiten dutenak; azken hauek besteak aztoratu egiten dituzte, ohiturei gogor heltzen dieten tokiko erreferente sinboliko eta komunitarioak pribilegiatzen dituztelako, biztanleengan kanporatze eta barneratze sozialen jarraibideak finkatuz.

Etengabeko aldaketa-prozesuan bizi gara eta, gaur egun, prozesu horiek bizkortu egin dira, biztanleriaren mugimenduetatik eta komunikabideetarako sarrera masiboa dela-eta. Esan dezakegu ia herrialde guztiak gizarte kulturantzunak eraikitze bidean ari garela. Beti izan diren migrazio-mugimenduak ugariagoak eta askotarikoagoak dira gaur egun, eta gizarte-aldaketa garrantzitsuak sortzen dituzte. Zapata-Barrerok adierazten du, ikuspuntu politikotik, gaur egun immigrazioa egiturazko aldaketaren faktore nagusizat hartu behar dela, garai guztiek izan dituztela beren gizarte-, politika-, eta kultura-eraldaketa handietarako motorrak. Gaur egun motor horrek immigrazio izena

duela eta aldaketa horiek onartzeko dauden zailtasunen lekuko gabela gehitzen du (Zapata-Barrero, 2003: 114).

Bai biztanleriak bai erakundeek uko egiten diote bizikidetzarako beste modu batzuk pentsatzeari, zenbait pribilegio galtzearen beldurrez. Latinoamerikak, migrazio-mugimendu bortitzen eremuetariko bat denak, nazioarteko harreman bidezkoagoen alde egiten du. «Lanean ari gara Nazio Batuak nazioarteko akordio batera irits dadin, herrialde bateko egoera soziala eta ekonomikoa hobetzen duten langileak ez daitezten legez kanpokotzat jo», hori baieztatu zuen Boliviako Evo Morales presidentek, Madrilén bizi diren milaka herrikideren aurrean; eta lanean ari diren eta paperik ez duten immigranteak araupetzeko presioa egingo zuela ziurtatu zuen. Gainera, honako hau gehitu zuen: «Espainiarrak eta europarrak Amerikara iritsi zirenean, gure aitona-monek inoiz ez zuten esan legez kanpoko zirenik. Legez kanpokotzat hartzea akats larria da» (Morales, 2009). Bestalde, soziologo politikoek eztabaida egiten dute atzerrian bizi diren migratzaileek Latinoamerikako herrialdeetan botoa emateko eskubidea izan behar ote duten. Aldi berean Estatu Batuetan edo beste herrialde batzuetan —zeinetan ehuneko altua ordezkaten duten— hispaniar biztanleen eskubideak defendatzen dituzte.

Immigrazioaren fenomenoarekin batera, bigarren mailako herritartasun bat benetan sendotzen ari da gure gizartean. Xabier Etxeberriak immigrante guztiei herritartasuna aitortzeko eskatzen du; alegia, bertakoek dauzkaten eskubide eta betebeharrak, herrialdeko gutxien talde etnokulturalak barne: «horiek talde immigratzaileentzat legezko izango diren eskubideen parekoak izan behar dituzte (kultura nagusiek badituztela ziurtzat joz)» (Etxeberria, 2004: 109). Gogoeta egiten du atzerriko immigranteen sarrera-kontrolari buruz eta, une honetan emigratzeko giza eskubidea onartzen bada ere, estatuak eskubide hori erabili egiten dutela dio eta, oro har, onartuta dagoela immigranteak beren herrialdeetara sartzeko kontrolatzea. Orduan, honako hau galdetzen du: «Legezkoa al da hori, edo eskubide arrunt bat aldarrikatu behar litzateke nahi den herrialdean sartzeko, eta ez soilik herrialdetik bertatik irteteko?» (Etxeberria, 2004: 110).

Badakigu pasaporteak bere pisua, boterea edo ahultasuna duela: bertan agertzen den nazionalitatea erabakigarria da administrazio- eta polizia-tratamendurako. Ipar Amerikako pertsona batek ez du inolako arazorik izango Europako gure herrialdeetan sartzeko edo egonaldiaren bideratzeak egiteko; Latinoamerikako, Saharaz hegoaldeko Afrikako edo Arabiako pertsonak, aldiz, xehe-xehe begiratu eta «susmagarri»tzat joko dituzte, eta horrek nortasunari dagokion diskriminazioa adierazten du.

Bestalde, liberaltzat hartzen diren, salgaien zirkulazio librea defendatzen duten eta norbanakoen eskubideen alde egiten duten estatu horiek berak kontraesan handi batean sartzeko dira mugak ixtean, edo jendea igarotzea saihesteko mugak harresiz inguratzean.

Herrialde batzuetako «legezko»ei udal-hauteskundeetan boto-eskubidea aitortzen hasi bazaizkie ere, eragozpen handia dago bereziki eskubide politiko guztiak



aitortzeko. «Legez kanpokoak» edo «paperik gabeak» batere babesik gabe badaude ere beren eskubideei dagokienez, «azken finean, atzerriko immigranteak dira eskubideen baztertze ofiziala duten azken kolektiboak» (Etxeberria, 2004: 117), eredu parte-hartzaile endogenoa edukitzeagatik. Espainiako estatuaren Gobernuak urrats txiki bat egin berri du sufragio unibertsala aitortze aldera, legezko bizilekua bost urte baino gehiagoan izan duten milaka pertsona etorkineri 2011ko udal-hauteskundeetan parte hartzeko aukera emanda; hori bai, herrialdeen arteko elkarrekikotasunari lotuta egin da, eta aurrez erroldan izena emanda. Elkarrekikotasun-akordio horiek diskriminatzaileak dira, ez baitute eskubiderik aitortzen bizilekuaren arabera, baizik eta nazio-jatorriaren arabera, modu horretan mugatuz pertsonen parte-hartzea.<sup>43</sup>

Immigrazioa, delinkuentziaren antzera, beste eraikuntza sozial bat da. Fenomeno horren bidez gizarte-eremu guztia kontrolatzea ahalbidetzen duen tresna bat. Immigrazioak behatoki politiko gisa funtzionatzen du; biztanleriaren gaineko askotariko kontrol-mekanismoak legezkatzen ditu, eta boterearen makineriatariko bat bilakatzen da.

Gaur, etorkinen trafikoak, droga-trafikoaren antzera, M. Foucaultek aipatzen zuen «delinkuentzia erabilgarria»ri emandako trataeraren antza du. Espetxeetara begiratu besterik ez dago, eta han aurkituko ditugu gehienak etorkinak, drogekin loturiko jendea edo ijitoak, klase marjinatu berriak. Esaten dutenez, delinkuentziak lurraren kolorea hartu du. Estatu Batuetan, presoek % 89 beltza da, eta % 11 txuria (hor sartu behar dira latinoamerikarrak ere). Han, gero eta gehiago lotzen da etorkina (batez ere «legez kanpokoak») delinkuentziarekin. Eta Foucaulten hitzei buruz gogoeta eginez, interesgarria litzateke delinkuentzia, eta kasu honetan immigrazioa, kontrolatzeko, esesteko, zigortzeko, hezteko, aldatzeko eta diziplinatzeko erabilitako mekanismo multzoa ezagutzea.

Legezko debeku bat egoteak legez kanpoko praktiken eremu bat sortzen du bere inguruan, eta horren gainean kontrol bat gauzatzera eta legez kontrako etekin bat lortzera iristen dira, legez kanpoko elementuak elkarrekin lotuz. Immigrazioa legez kanpoko elementuak kudeatzeko eta ustiatzeko tresna bat da, eta haren tresna izatera igarotzen da. Etengabeko kontrol bat legezkatzen da, langabezian diren herritarrak ustez babesteko.

Herritartasunaren eta oinarrizko eskubideen gabezia bat da pertsona batek politikoki ezin parte hartu ahal izatea bizi den, lan egiten duen, kontsumitzen duen eta bere zergak ordaintzen dituen herrialdean, edo jatorrizko herrialdean. Nazionalitateak eskubideekin duen loturak azken horiek bazterketa- eta diskriminazio-iturri bilakatzen ditu, nazionalak ez direnei dagokienez. Immigranteei herritartasuna aitortzea urrats

---

<sup>43</sup> Aurten lehen aldiz izan dira boto-emaile Ekuador, Bolivia, Kolonbia, Txile, Paraguai eta Peru, eta aukera izan zuten jatorriz Cabo Verdeko, Islandiako, Norvegiako eta Zeelanda Berriko direnek ere. Era berean, atzeritar pertsonen presentzia izan zen udalerrri batzuetako hautes-zerrendetan ere.

erabakiorra da, eskaini beharko litzaiekeen harrera motari dagokionez. Etxeberriaren hitzetan:

Integrazioaz kulturaztasunaren edo kulturartekotasunaren zentzuan hitz egin aurretik, oinarritzkoa *sartzea* da, eta hori eskubideak eta, noski, dagozkien betebeharrak aitortuz gauzatzea. Aldi berean, urrats horrek, lehenik, inmigrante izateagatik praktika diskriminatzaile guztiak baztertu egiten direla esan nahi du, bizitza sozioekonomikoaren hainbat alderditan; eta, bigarrenik, bereziki gizarte-eskubideetatik eta beharrezko denean ekintza positiboetatik, autonomia pribatua eta publikoa gauzatzeko bide ematen dieten beren gaitasunak garatzeko aukera («ahalduntzea») izan dezaten (Etxeberria, 2004: 118).

Kultura- edo nazio-diferentziek ez lukete diskriminaziorik eragin behar eskubideak eta eginbeharrak lortzeko unean. Immigrazio-politikak biztanleen arteko diferentzietatik abiatzen dira, Atzerritarren Legeak berak bazterketa-kategoriak sortuko ez balitu bezala, bere araudi, araubide eta aplikazioei esker; horiek, gainera, gizarte-desberdintasuneko baldintzak sortzearen alde egiten dute askotan, herritartasuna lortzeari begira. Muga politikoek kideztat hartzen dute zati bat, eta atzerritartzat bestea. Estatu-nazioen sistema horrek kide izatea arautu du, kategoria nagusitzat herritartasun nazionala hartuz, eta kanpoan utziz betebeharrak bai baina eskubiderik ez duten hainbat eta hainbat langile. Inmigrante izateak ez lioke pertsona bati oinarritzko eskubideak galtzea eragin behar. Legezko pertsona izatea, eta ezin besterenduzko eskubide jakin batzuk dituen, errealitate izatera iritsi behar da, edozein izanda ere bere egoera administratiboa. Urteetan zehar irregulartasuna luzatzea da subjektua balio-gutxitzeko saiakeraren arrazoia. Sheila Benhabib-ek honela idatzi zuen:

Etengabeko atzerritartasuna ez da soilik bateraezina giza komunitatea modu demokratikoan ulertzearekin; oinarritzko giza eskubideak bortxatzea ere bada (Benhabib, 2005: 15).

Atzerritarren Legearen azken Araudiak, 1985etik eraikitako ereduarekin lerro-lerroan, administrazio-kontrola nagusitzen den eta polizia-kontrola sendotzen den «atzerritarren» erregimena eraikitzeko joera sendotzen du, eta ez giza eskubideekin koherentea den immigrazioaren kudeaketa-eredu integral baten eta Espainiako estatuan sozialki integratzearen alde. Elkartzeko, sindikatuetan antolatzeko, biltzeko, manifestatzeko eta grebarako oinarritzko eskubideak aitortzen baditu ere, gogoan izan behar da hori 2000ko lehen erreformaren gainean Auzitegi Konstituzionalak emandako epaiaren ondorio behartua dela.

Atzerritarren Lege oro diskriminatzailea eta migratzaileen eskubideen kalterakoa dela esan daiteke; izan ere, herritarren kategoriak sortzen ditu gizarte bera partekatzen duten pertsonen artean, beren jatorriaren eta nazionalitatearen arabera, eta kroniko bihurtzen du populazio immigraentearen irregulartasuna, Espainiako estatuko gizartearen egiturazko ezaugarri bat eratuz.

Estatu-nazioa txikiegi bihurtu da ingurune berriak sorturiko arazo ekonomikoak, ekologikoak, immunologikoak eta informatiboak kudeatzeko; eta, aldi berean, handiegia da identitate-gaiek eragindako mugimendu sozial eta erregionalisten asmoei leku egiteko. Baldintza horien pean, lurraldetasuna funtzio materialen eta kultura-identitateen mugatze anakroniko bilakatu da. Estatuaren burujabetasuna eta nagusitasun ekonomikoa, militarra eta teknologikoa zabal gainbeheratua izan da; muga nazionalak, berriz, berretsi egin dituzte eta, porotsuago izan arren, iraun egiten dute atzerritarrak eta «arrotzak» kanpoan edukitzeko. Egitura politiko zaharrak gainbehera joan ahal izan dira, baina globalizazioaren forma politiko berriak ez daude oraindik agerian. Benhabibek adierazten duen gisara, ahultzen ari da giza eskubideen eta herritarren eskubideen arteko lerroa. «Deslurraldetutako herritar mota berriak agertzen ari dira» (Benhabib, 2005: 127). Bereziki Europar Batasunaren barnean, azkar ari dira nahasten nortasunak eta leialtasun nazionalak.

Mundu guztiko hiri handietako kokaleku kulturantzunek aurrez iragartzen dituzte herritartasunaren aurpegi berriak; hain zuzen ere, jada lurralde, historia eta tradizio berezi batenak baizik ez diren atxikimenduetan oinarritzen ez den herritartasunarenak (Benhabib, 2005: 127).

Europako Erkidegoko herrialde kideei «europar hiritartasuna» onartzea, 1993an Maastrichteko Ituna sinatu eta gero, ez dago jada langile izateari lotua, baizik eta Europar Batasuneko estatu bateko nazional izateari. EB barruan herritarrak banantzen ari dira. Eskubideen hartzekodun izatea edo ez izatea ez dago jada herritartasun-egoeraren baitan. Biztanle legezko diren atzerritarrak giza eskubideen erregimenen barruan sartu dituzte, eta nazioz gaindiko eta nazio barneko legeriek babesten dituzte. Bistakoa da erakunde bateko kide politiko direnen pribilegioen jatorri nazionalaren eta kulturalaren bereizketa. EBko herritar izateak aukera ematen du botoa emateko, hautagai gisa norbait proposatzeko eta tokiko hauteskundeetan eta Europar Batasun guztian karguak betetzeko, EBko herritar guztiei dagokienez. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, hirugarren herrialde bateko nazionalari dagokienez; beren eskubide politikoek loturik jarraitzen dute beren jatorri nazional eta kulturaletara.

Europar Batasunak diferentzia handiak sortu ditu Europako Erkidegoko pertsona diren eta ez direnen artean. Batasuneko herritar izatea gehitu egiten zaio herritartasun nazionalari, hura ordezkatu gabe. Zer pribilegio, erantzukizun, eskubide eta betebeharrak inposatzen ditu? EBko estatuetako herritarrak Europar Batasuneko edozein tokitan ezar daitezke, aukeratzen duten herrialdean bete ditzakete lanpostuak, eta Europako Parlamenturako hauteskundeetan botoa eman eta tokiko hauteskundeetan hautagai gisa aurkez dezakete beren burua. Atzerritar langile batek eskubide politikoak eta gizarte-onurak parteka ditzake, identitatea partekatu gabe; beste batzuek, ordea, ez. EBk ere baditu politika komunak immigrazioari, kanpo-mugei eta «paperik gabeko»en aberriratzeari dagokionez, gero eta informazio gehiago partekatzen dute eurogunekoan artean, eta hirugarren herrialde batzuekin lankidetzan ari dira gai horri dagokionez; asko aldatzen dira, ordea, etorkinentzako legezko baldintzak eta erakundeenak estatu kide batetik bestera. Arriskua «atzerritartasun iraunkorra» da (iraupen luzekoa, behintzat),

gizartean jabetza-eskubideak eta gizarte zibilarenak dituen talde bat sortzea, eskubide politikorik izan gabe. Paperik gabekoek ez dute eskubiderik eta onurarik izateko baimenik, nahiz eta «ezkutuan» lan egin dezaketen.

«Herritarren» eta «atzerritarren» arteko bereizketak, «gure» eta «haien» artekoak, arinagoak eta negoziagarriagoak izan daitezten saia gaitezke, interakzio demokratikoen bidez. «Erakunde bateko kide izateko irizpideak negoziatzea daitezke, baina inoiz ezin dira izan beste batzuk beren erakunde politikoko kide bihurtzea betiko galarazteko modukoak» (Benhabib, 2005: 26). Eskubideak aitortzea nazio-identitate jakin bat aitortzeari, haren kide izateari edo leial izateari lotuta (edo harek baldintzatuta) dagoen herritartasun ideia bati eustea kanporatzeko eta gizarte-hausturarako faktore bilakatzen da, kontrakoa izan beharrean. Kultura nagusiaren memoria eta morala partekatzen ez duten besteen presentziak unibertsalismo demokratikoaren esanahia berrantolatzeke erronka azaltzen die legegintzaldi demokratikoei. «Demokraziaren kultura desegitera eramatek urruti, erronka horiek demokraziaren kulturaren sakontasuna eta garrantzia jakinarazten dute» (Benhabib, 2005: 150).

Immigrazioak, oro har, politika diskriminatzaileei egin behar die aurre. Emakume immigranteei, berriz, ukatu egiten zaizkie beren eskubideak, eta horrek eramaten ditu esplotazio oso altuko baldintzetan lan egitera eta bizitzera. Beraz, lehenengo eginbeharrak emakume guztientzat eskubide guztiak eskatzea izan behar du, alde batera utzita beren jatorria, nazionalitatea edo lan mota. Eta eskatu beharreko lehenengo eskubidea da gizarte honetan eskubidedun pertsona gisa, eskubide-subjektu gisa egotea. Atzerritarren Legea lege bidegabea eta diskriminatzailea da, eta are gehiago emakumeentzat. Lege horren babesean, erakundeek, administrazioek eta gizarteak, oro har, era guztietako gehiegikeriak egin dituzte.

Emakume immigrantei deitu egiten zaie herrialde honetatik, eta horregatik etortzen dira, hemen behar direlako, haiek soilik egingo dituzten lanak badirelako, eta baita munduko ofiziorik zaharrenak direla esaten direnak ere, emakume horiek gauzatuko dituztenak. Hemen lana dago, eta hona datozen emakume gehienek aurkitzen dute lana. Beste kontu bat da zer baldintzatan lan egin beharko duten eta zer esplotazio jasan beharko duten, baina lana egon badago.

Bertako emakumeek utzitako lanpostu batzuk betetzen dituzte emakume horiek, eskuarki, bizitza- eta lan-baldintzetan eta eskubideetan hobekuntzak izan dituztelako haiek. Gizonezkoak nagusi diren sistemak eta sistema ekonomikoak berak emakumeentzat gorde dituzten lekuak, ofizioak eta lanak dira. Gaur egun, egoera aldatu egin da bertako emakumeentzat, lan ordaindu baterako aukera izan dutelako, prestakuntza akademiko eta profesional baterakoa, jada ez dutelako hartzen etxeko andre eta zaintzaile lanak egiten zituzten emakumeen paper tradizionala, etxeko lanak prestigioa galdu duelako edo dagoeneko ez dagoelako emakumerik prostituzioan aritzeko beharrik duenik. Eta lan horiek eskaintzen zaizkie beste leku batzuetatik

datozeneri. Esate baterako, Bartzelonan, sexu-langileen % 80 paperik gabeko immigrantea da (Juliano, 2011).<sup>44</sup>

Aitortu beharra dago maiz legezketasunaren ertzean dabiltzan lan horiek direla egokienak bazterrean eduki nahi dituzten emakumeek egiteko; izan ere, inoiz ez dituzte salatuko esplotazio-baldintza horiek, paperik gabeko egoeran, eskubiderik gabe edo egoera ezegonkorrean daudelako, bizitzeko eta lanerako aldi baterako baimenak direla-eta (Zabala, 2003: 230).

Esku etnikoetz bai baina generoz aldatu ez den lan hori erdi-esklabotasun baldintzetan, eta paperik eta eskubiderik gabe ari da gauzatzen. Ezin da onartu «Europako herritar» estatusa eskubide guztiekin eraikitzerik, europarrak ez diren emakumeen eskubide gabekiaren gainean. «Beste behin ere, eskubiderik gabeko emakumezko subjektua eraikitzen ari dira, balio gabetua, bigarren mailakoa, gutxietsia» (Zabala, 2001: 93). Ezin da onartu nagusiki sexu-lanetan eta etxeko lanetan aritzen diren emakume etorkinak (paperik gabekoak) dauden mailarik baxuenean batere eskubiderik ez izaterik. Ez eta, egoera hori arintzeko edo konpontzen saiatzeko, soilik zigor-neurriak eskaintzerik pertsona horiek kontratatzen dituztenentzat.

«Paperak eta eskubideak, denontzat», «Ez da gizakirik legez kanpokoa denik» izan dira «paperik gabeko» herritarren eta haien hurbileko elkartasun-erakundeen aldarrikapenak 2000. urtetik aurrera. Urte horretan erakutsi zuten, beren mobilizazioei esker, bazterreko (eta kanporatutako) herritarren aldarrikapena ez dela bakartzearen sinonimo, ezta herritarren printzipio eta balioekin bateraezina ere. Velia Bobes kubatar antropologoak honako hau dio, herritartasunaren beste teoriko askoren gisara:

(...) herritartasuna ez da baldintza ontologiko edo estatiko bat, baizik eta Estatuari herritarren eskubideak mantentzeko eta ahal bada zabaltzeko eskatzen dioten borroka eta gizarte-mugimenduen existentziarekin du zerikusia (Bobes, 2000: 50).

Mugimendu horiek gogoeta eginarazten digute oinarrizko eskubideei buruz, eskubideak izateko eskubideari buruz; ez dela gizakirik legez kanpokoa denik onarrazten digute, dagoen lekuan dagoela ere; eta zalantzan jarrarazten digute gaur egun naziotasunari lotuta dagoen herritartasuna. Hori gertatzen da Europaren barnean edo kanpoan jaiotako pertsona guztientzat eskubide-berdintasuna eskatzean, beren jatorri etnikoa, generoa edo klase soziala gorabehera; eta herri bateko nazionalen eta atzerritarren arteko diferentziak ezartzen dituzten mota guztietako lege bereziak desagertzea eskatzean. Izan ere, heriotza zibilaren modu bat da gizarte honetan paperak behar den bezala ez izatea.

Pertsonaren kategoria orokortu eta unibertsal bihurtu nahi bada, beharrezkoa da gure lurraldean bizi diren pertsona guztiei aplikatzea lortzea gutxieneko eskubideak, giza eskubide deritzogunak. Lan-baimenen edo sartzeko bisen arauzko betebeharrak falta izatea ez da aitzakia hemen bizi den norbaitek eskubiderik ez izateko, ez eta

---

<sup>44</sup> Zalbaldin (Iruñea) emandako hitzaldia, 2011-03-11.

Gobernuak planteatzen duen konponbide bakarra kanporatzea izateko, eta hori gauzatzen den bitartean pertsona gisa ez existitzeko eta, beraz, inolako eskubiderik ez izateko.

Mugimendu feministatik gogor kritikatu behar da eskubideak izatea nazionalitateari loturik egotea eta, kasu honetan, espainiar nazionalitatea duten pertsonak soilik izatea eskubide-mailarik altuena dutenak (Zabala, 2004: 10).

Atzerritarren Legea ia modu eksklusiboan aplikatzen da kontzeptu eta helburu bakarrari, lanari. Arlo juridikoan, eta baita beste arlo batzuetan ere, lanaz egin den kontzeptualizazioa eta konfigurazioa erabat maskulinoa eta sexista da. Azterritarren Legea alde askotatik kritika daiteke eta, nagusiki, migrazio-fluxuak lan-eskaintza egotearekin soilik arautzeagatik. Hori horrela, larriena da erabiltzen den lanaren kontzeptua oso zorrotza dela, eta ez dituela hartzen hona datozen emakumeak betetzen ari diren jarduera gehienak, haien jarduera ez baita lantzat hartzen. Etxeko lanak, zaintzak eta prostituzioa dira, neurri handi batean, jarduera horiek. Paradoxikoa da emazteek egiten dituzten etxeko lanak lantzat ez hartzea ordaintzen ez direlako, eta prostituzioa ere lantzat ez hartzea, etekin handiak lortzen badira ere; zenbait konnotazio moral eta etikoengatik.

Beharrezkoa da lanaren eta lan-eskubidearen terminoak berriz kontzeptualizatzea, gizarte honetan bizi garen pertsona guztiok eskubide berak izan ditzagun, eta eskubide horiek ez daitezen egon lana zer den eta zer ez den erabaki duen definizio baten gogoari lotuta. Beste jarduera askok, nagusiki emakumeek egindakoen, merezi duten balioa eta prestigioa berreskuratu behar dute, eta gizarte-funtzionamendu egoki baterako beharrezko lantzat hartu behar dira, haietan diren eskubideak ukatu gabe.

Herritartasuna berriz pentsatua izan behar du. Nabarmena da herritartasunak ez duela soilik eskubide klasikoekin zerikusia, baizik eta identitatea, kultura, teknologia (informazioa, komunikazioa, ezagutza) eta antzeko gaiekin ere bai, horregatik herritartasuna hobeki gauzatu daitekeen neurriak aurkitu behar dira, bizitza-proiektuen aniztasunarekiko errespetuz. Hau da, herritar izateak praktika sozialekin ere badu zerikusia, eta ez soilik Estatuaren aparatuek lurralde batean jaiotakoei aitortutako eskubideekin. Modu horretan, beharrezkoa da herritartasuna estrategia politiko gisa berriz planteatzea, zuzenbidezko ordenak konsagratu ez dituen azaleratzen ari diren praktikak sartu ahal izateko. Horrek berekin dakar bai sistema soziopolitikoko kide izateko eskubidea, bai sistema berregituratzen parte hartzeko eskubidea aldarrikatzea; hau da, bertako kide izan nahi dugun hori definitzea. Herritartasun politikoa eta soziala eraikitzea, garapena eta demokrazia ongizate-prozesuetan sor daitezten.

Beharrezkoa da herrien munduko mugimendua deskriminalizatzea, eta pertsona bakoitza —berdin dio zein den bere herritartasun politikoarekin bat datorren estatutua— pertsona moralari dagokion duintasunez tratatzea. Horrek berekin dakar mugak gainditzea eta erakunde politiko desberdinetan sartzeko ahalegintzea ez hartzea ekintza kriminalizat, baizik eta gizakiaren askatasun-adierazpentzat eta gizakiaren hobekuntza

bilatzeko nahitzat, partekatu behar dugun mundu honetan; izan ere, egungo krisi-egoeraren ondorioz, elkarren mendekotasuna inoiz baino nabarmenagoa da mundu honetan. Ez dago erreakziorik ez duen ekintzarik; kontzientzia demokratiko eta herritar handiagoa dago, ikusezina ikusgai bihurtu da, eta ez dago begirik ixterik; desberdintasunak eutsiezinak dira. «Herritartasunaren eredu bateratua azkenetara iristen ari den bilakaera politikoaren puntuan gaude; eredu horrek lurralde bakar batean bizitzea, erakunde kohesionatu gisa hautematen zen herri baten administrazio bakarrari lotzearekin elkartu zuen» (Benhabib, 2005: 130). Aldi berean Ruíz Soroak honela adierazi du:

Herritartasun demokratikoak eskatzen du botere publikoak, politika egokien bidez, ken ditzala guztiek askatasun berarekin jardutea eragozten duten oztopo materialak. Gobernuak neurri zehatzak ezarri behar ditu, gizartean kaltetuenak diren sektoreek berdinduta ikus ditzaten beren hasierako baldintzak hobeki dohatutakoak diren norbanakoekin; herentziaz, zoriaz edo biologiaz. Ezin da askatasunik izan, harekin jarduteko baldintza materialik ez dagoenean; ez eta ere herritartasuna ezin dute gauzatu faktore sozioekonomikoak direla-eta menpekotasun-baldintzetan daudenean. (Ruíz Soroa, 2007:36 *in* Fdez. de Larrinoa, 2007:113).

Bestalde, honela adierazten du Pavez-ek:

Herritartasuna giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen arabera balioestea, gizartean norbanakoen rol nagusia aitortzea da. Neurri batean, herritarrak berdinak dira komunitate bateko kide diren heinean eta komunitate horrek hainbat eskubide aitortzen dizkien heinean, zeinak, aldi berean, herritarrek komunitateari berari eska baitiezazkiokete. Eskubide horiek partekatu egiten dituzte, eta guztiek erreklama ditzakete, partekatzen duten berdintasunaren arabera. Dinamika horretan eskubide- eta betebeharraren bat ezartzen da. Gizakia eragile moral gisa jardunarazten duten balio, behar eta interes haietan oinarritzen da eskubidea; eta eginbeharrak botere gehiago eta, beraz, baliabide gehiago dituzten gizarte-istantzien erantzukizun dira, bereziki (Pavez, 2010: 55).

Kanpokoei, iritsi berriei, «beste»ei atea ixten saiatzeak zerikusia du barruan diziplinatzekeo behararekin, eta matxinada, berrikuntza, erreforma, desadostasuna eta eraldaketa saihestearekin tenpluaren beraren hormen barruan. Immigrazio-politika estuki lotzen zaio konformismoaren politikari eta tokiko oposizioa diziplinatzeari.

## 1. Asoziazionismoa

Jende guztia gara talde bateko edo hainbatetako kide (auzoa, ikasle-elkartea, kirol-taldea, aisialdi-taldea, kuadrila, lan-mundua, sindikatua, erlijio-komunitatea, eta beste).

Elkartzera jotzen dugu, hainbat jarduera eta kezka partekatzeke eta elkarrengan babes hartzeko.

Talde sozial horiek talde dinamiko gisa defini daitezke; interesak, helburuak, beharrak eta arazoak partekatzen dituzte espazio eta denbora jakin batzuetan, eta taldean identitate bat eta antolatzeke moduak sortzen dituzte, beren helburuak lortzeko baliabideak garatuz eta erabiliz. Baina, batez ere, kideen artean den talde-sentimenduak definitzen ditu. Kide izatearen sentimendua da, bata bestearentzat garrantzitsu izatearena, fede partekatu bat, eta sentimendu horretan, elkarrekin irautearen konpromisoaren bidez eta elkarrenganako babesaren bidez aseko dira taldeko kide izatearen beharrak eta lotura emozionalak.

Bestalde, taldea osatzen duten kideak afektiboki modu berezian batzen ditu elkarrekin egote horrek, egunerokotasuna eta liskarrak partekatzeak, «bakarrik ez zaudela» jakiteak, elkarrizketak, txisteak, algarak, eztabaidak, borrokak, abestiak, musika, janaria partekatzeak, antzeko bizitzen esperientziei egindako erreferentziek, edo partekatutako objektu eta lekuei egindakoek.



Taldeko kide izateak ez dakar berekin gatazken gabezia; izan ere, eztabaida izaten da, modu ezberdinean, jarduerak, harremanak eta gizakiaren presentzia dagoen leku orotan. Gatazkak ez dira oztopo elkarte bat edo talde bat hazi eta hobetu dadin. Taldean laguntasun-harremanak eta etsaitasunezkoak sortzen dira, eta baita negoziatu eta kontsentsuatu beharreko zenbait interes ere.



Taldea bera gaindi dezakeen eraikuntza bateko partaide sentitzen da taldea, bere esistentzia eta, beraz, taldekide bakoitzarena agerian jarritz. Taldearen bidez, taldekide bakoitzak bere burua ezagutzen du, bere interesen kontzientzia hartzen du, bere defentsan eta sustapenean jarduten du, arrazionaltasuna adierazten du eta bere nahitasunak bideratzen ditu. Antolatutako talde-ekintzak egin daitezkeen espazio sozialak sortzen ditu, gizarte-eraldaketaren bat eragite aldera.

Komunitate- edo talde-zentzua aldakorra da, eta zerikusia du sentitzearekin, hautematearekin eta irudikatzearekin, ez soilik harremanekin eta gorabeherekin. Komunitaterik ez dela existitzen esan daiteke alderdi sinbolikorik existitzen ez bada; komunitatea nekez eratuko da edo hautemango da soil-soilik egunerokoan.

Komunitatearen zentzua talde baten barneko diren eta beren burua horrela hartzen duten komunitate bateko kideak elkartzen dituen sentimenduei dagokie. Komunitate gisa partekatu dituzten bizipenen ondorio da. Komunitate bat da, sentimendu horrek komunitatea osatzen duten pertsonen artean loturak mantentzen dituen biartean (Montenegro, 2004: 49).

«Nonbaiteko kide izatea»ren sentimenduak talde-identitate bat sortzen du barnebarnean; identitate horrek, norbanakoaren identitatearen gisara, gainerakoen onarpena behar du eta bilatzen du. Sinbolo partekatuen sistema bat sortzen du aldi berean, erreferentzia historikoez edo berriago batzuek baliatuz.



Taldeak ekarpenen bat eskatzen dio kide bakoitzari, materiala edo immateriala izan daitekeena, bakoitzaren ahalbideen arabera; eta ezinbestekoa izango da elkartasunezko jarrera, hainbat harreman-alderditan.

Taldeak pertsonen gainean du eragina; pertsonak, berriz, taldearen gain eragiten dute, eta ingurune zabalagoan eragiten ere saiatzen dira, beste talde, sare, mugimendu edo erakundeetan parte hartuz; lehenik ikusgai jartzen dira, ondoren prestigioa bilatzen dute zenbait gizarte- eta harreman-aldaketa sustatzeko; azken finean, parte-hartze demokratiko publiko bat. Botere-estamentuak parte-hartze hori etengabe mozten eta gutxitzen saiatzen dira. Talde sozial batek, antolatutako gizarte-harremanak izaten ditu, gutxi gorabehera lotutakoak, eta horiek ekintzetatik edo parte-hartze sozialetik abiatuta eratzen dira.

Espainiako estatuan diren talde- eta gizarte-mugimenduei immigrazioaren inguruan sortzen diren mugimendu berriak erantsi behar zaizkie; horiek, askotan, erakundeen babesa izaten dute, eta batez ere mugimendu identitario izatea ezaugarri duten elkarte desberdinak sortzea sustatzen dute; hau da, identitateen eraikuntza sinbolikoaren inguruan sorturiko mugimenduak. Honela baieztatzen du Aquiles Chihuk:

Gizarte-mugimendu berrien oinarri soziala, klasearen gainean eraiki beharrean, arrazaren, generoaren, etnizitatearen edo nazionalitatearen gainean eraikitzen da; horri erantsi behar zaio talde-identitateek joera dutela identifikazio ideologikoaren bidez partekatutako balioen oinarriaren gainean eraikitzeko (Chihu, 1999: 62).

Identitate horiek estigmatizatuak eta balioa galduak dira, eta taldea bilatzen dute beren interesak defendatzeko eta kezkak partekatzeko. Bertako populazioak diferentzia fenotipikoak, hizkuntzarenak eta azentuarenak azpimarratzen ditu, nahiz eta ez den nabarmentzen jarduerarekin zerikusia duten diferentzia esanguratsurik. Pertsonak lanbide-jardueren arabera sailkatzen dira kategoriatan. Jardun ekonomikoak bizitza modu ezberdinak dakartza berekin; modu horiek kategoriaka sailkatuta daude, eta mendeko estatus soziala sortzen dute, harremanak oinarritzen eta mugatzen dituen, gure gizartean inposatutako merkatu-ekonomiari eman beharreko erantzuna izan eta gero.

«Talde etniko» terminoa erabiltzen da elkarte edo talde horiek izendatzeko, oinarrizko balio kulturalak partekatzen dituzten komunitateak baitira, eta horrela adierazten dute. Komunikazio- eta interakzio-taldea osatzen dute, beren burua identifikatzen duten kideen multzoa da, eta horrela identifikatzen dute kanpotik ere.

Baina migrazio-prozesuak etengabe aldatzen du esperientzia hori bizitzen ari den pertsonaren identitatea. Beste kultura batekin harremana izateak, eta bere euskarri ekonomiko eta sozialean oinarrituta gertatzen diren aldaketek gizakia eraldatu egiten dute, bertako biztanleek edo beste talde etniko batzuek (hala nola bere talde sozialak berak) ezarritako sailkapen ororen gainetik dagoen kategoria berri bat sortuz. Tarteko posizioetan kokatutako pertsonak izango dira, elkarri eragiten dioten kultura ezberdinei loturiko bereizgarriak dituztenak. Gunnar Haaland-ek «behin-behineko» kategoria deituriko horretaz hitz egin genezake (Haaland, 1976: 88).

Indarrean dirau, oraindik, beste herri batzuen kultura-geldieraren eta atzerapen sozial, politiko, ekonomiko eta mentalaren ideia sinplistik, Mendebaldeko herrialdeekin alderatuta. Mugek iraun egiten dute, nahiz eta haien gainetik igaro izan pertsonak, nahiz eta mugikortasuna, kontaktua eta informazioa eduki eta erabili. Kategoriak sailkatutako bereizketa etnikoak egiten jarraitzen da; bereizketa horiek ez daude aurretik esandako horren menpe, baizik eta kanporatzeko eta barnean hartzeko gizarte-prozesuen menpe. Bereizketa etnikoak —hala idazten du Fredrik Barth-ek— ez daude interakzio gabezia eta onarpen sozial baten menpe; alderantziz, arrunki bereizketa horiek dituzten sistema sozialen gainean eraikitako oinarria bera dira (Barth, 1976: 10).

Norvegiar gizarte-antropologo horrek gizarte-identitateak fenomeno arin eta etengabeko negoziatioari loturiko gisa hautematea ahalbidetzen duen eredu bat eskaintzen du. Identitateak beren mugetan daudela eta han negoziatzen dutela dio; eta, ondorioz, talde batek beste talde batzuekin duen interakzioaren eraginez eratutako mugaren bidez eraikitzen dela taldearen identitatea. Muga horiek, adierazten du, iragazkorak dirala, eta muga horietan gertatzen diren transakzioen bidez eratzen dela identitatea.



Mendebaldeko estatu-nazioek legez kanpoko elementuak sortu dituzte, beren botere-mekanismoak globalizatuz periferien gaineko mendekotasunari eusteko; eta askotariko diskriminazioak mantentzen dituzte, askatasunak murriztuz. Mendebaldekoak diren eta ez diren herriak antolatu egiten dira eta erresistentziak globalizatzea bilatzen du, beren interes komunak defentsan, gizarte-justizia handiago

baten alde, giza eskubide ez hain unibertsalisten eta transkulturalki kontsentsuatuagoen alde, edo herritartasun osoago eta demokratikoago baten alde borroka eginez; azken batean, «izan daitekeen beste mundu horren» alde. Erresistentzia horretan parte hartzen dute lanaren mundu-erakundeek, giza eskubideen erakundeek, emakume taldeen, feministen, indigenen eta gutxitutako taldeen munduko sareek, elkartasunezko mugimenduek, antiglobalizazio kapitalistaren erakundeek, erakunde altermundista<sup>45</sup> edo globalifobikoek, gutxitzearen aldeko mugimenduek, etnia eta immigranteen elkarteek, garapen alternatibo eta iraunkorraren aldeko taldeen sareek, munduko sistemaren periferiako literatur- eta arte-mugimenduek, poskolonialismoaren aurreko akademiko kritikoez eta ez-inperialistek. Testuinguru horretan koka dezakegu inmigrante taldeen asoziazionismoa, baina beharrezkoa da administrazioek edo erakundeek elkarte horiengan egindako sustapena eta elkarte horiek betetzen duten rola aztertzea.

Hautemandako diskriminazioaren, kanporatzearen eta bizitako ezegonkortasunaren aurrean, Espainiako estatuan errealitate bat da immigranteen asoziazionismoa, batez ere Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetakoena. Populazio horrek eztabaida ugari jartzen ditu mahai-gainean, immigranteek gure gizartean duten dimentsio publikoaren inguruan; errepikatzen den gai bat immigranteen parte-hartze aktibo eta gero eta handiagoa da, hobeto integratzen laguntzen dieten, herritar gisa duten eginbidea areagotzen dieten eta haiek sentitutako beharrei erantzuna ematen saiatzen diren elkarte-erakundeen bidez. Migrazioak sortzen dituen askotariko arazo espezifikoak bideratzeko moduak dira: familiaren elkarteak, bizileku duin bat izateko eskubidea, seme-alabak eskolatzea, emakumearen diskriminazioa, dokumentuak kudeatzea, prozeduretarako aholkularitza, biltzeko eta elkartzeko espazioak, erlijio-ospakizunak eta jaiak, enplegua bilatzea, produktu espezializatuen salmenta, eta ongizatea areagotzen duen beste edozer gauza bideratzeko moduak. Finkatze sozialeko fase horretan elkarteek paper erabakigarria betetzen dute, taldea biltzeko eta identifikatzeko bide gisa sortzen baitira —taldearen barneko harremanak sendotuz— eta baita etokinen kultura-eremua eta beharrak adierazteko eta aldarrikatzeko bitarteko egoki gisa ere.

Elkarteek paper oso garrantzitsua betetzen dute krisi- eta sakabanatze-testuinguruetan; hala nola, etorkinek buru eman behar dieten aurrez aurreko, deserrotze, eta kultura- eta familia-desegituratzeko egoeretan. Alde horretatik, elkarten bitartekotza-rolak tentsio- eta amorru-egoerak bideratzen lagun dezake. Gainera, bigarren mailako gizarteratze-eragile gisara, egokitze bide eta estrategia desberdinak eskaintzen ditu.

Etorkinen elkarteetan hiru dira erakunde horiek antolatzen eta elkartzten dituzten oinarriko elementuak: nazionalitatea, erlijiozaletasuna, eta ordezkartasuna. Nazionalitatea pertsona horien jatorriaz baliatzen da, kontuan hartuta hizkuntzaren, kulturaren, ohituen eta bizi zituzten —eta han dituzten familiek bizi dituzten— baldintza soziopolitikoaren bidez jatorriko herrialdeko elementu komun bereizgarriak

<sup>45</sup> Munduko Gizarte Foroaren inguruan sortu ziren, «Beste mundu bat posible da» lemapean.

partekatzen dituztela. Erljiozaletasuna da sare zabalak artikulatzen dituen kide izateko beste faktore bat. Ordezkaritasuna ere elementu gakoa da immigranteen elkarteetan; elkartean buru den pertsonaren edo haren inguruan biltzen den taldearen lidergoari obeditzen diolarik.

Elkarte horiek, oro har, zaletasun handi bat agertzen dute; heterogeneotasuna partekatzen dute beren helburuetan, eredu antolatzaileak, baliabideen ezegonkortasuna, kudeatzeko gaitasun urria, aurre egin behar dioten burokrazia administratiboa, eta ikusgaitasun gutxi komunikabideetan eta gizartean oro har. Erakunde horien oinarri soziala oso ahula da kasu batzuetan, beren kideen ezegonkortasuna dela-eta. Elkarte horietako askotan, arrakasta estuki lotua dago gerta daitezkeen lidergo-fenomenoekin eta baita kideen konpromiso pertsonalarekin ere.

Erakundeen politika kulturantzunek etorkinen elkarte horiek nazionalitateka eratzea bultzatu dute, eta gobernuen, udalen eta aurrezki kutxen diru-laguntzak jaso dituzte, kulturantzatasuna sustatzeko proiektu ofizialaren parte gisa. Oro har, izaera soziokulturaleko jarduerak laguntzen dituztela esan dezakegu, eta ez dutela inolako erakunde politikorik sustatzen; eta horrek immigranteen taldeak banatuta mantentzeko balio du, eta baita immigranteen interes kolektiboak defendatuko dituen erakunde bat — etniaz gaindikoa eta elkartze bidezkoa— saihesteko ere. Politika multikulturalista goitik etorri den antolaketa-proiektu bat da, existitzen den gizarte-ereduko kide bihurtzeko helburuarekin, eta, modu horretan, potentzialki mehatxuzkoa izan daitekeen indar politiko bihurtzea saihestuz. Etorkinen taldeek diru-laguntzekiko duten etengabeko menpekotasuna da emaitza, migrazio-politiken lanketan parte hartzeko aukerarik gabe, eta horrek defizit demokratikoa dakar berekin.



Zenbaitetan, Administrazioek sustatzen dituzte elkarte horiek, solaskide gutxi-asko otzanak bilatzeko helburuarekin, erakundeek iragarritako «elkarrizketa» eta

«harkortasun»aren parte gisa ager daitezke. Carlos Gómez Gil-ek azaltzen duen moduan, kontuan izan behar da honako hau:

Etorkinen asoziazionismoaren kontrol politikoa sentikorra dela hauteskunde-errentagarritasuna eragiteko. Europako Erkidegoko etorkinen asoziazionismoaren kasurako aspalditik oso ezaguna den hori gero eta nabarmenagoa da Europar Batasunean sartzen joan den Ekialdeko herrialdeetako immigrazioarentzat; udal-hauteskundeetan boto-eskubidea izan dute eta, ondorioz, desiragarri diren boto-emaile potentzial bihurtu dira. Modu horretan, immigrantetzat hartzetik boto-emailetzat hartzera igaro dira, beren herritartasuna aldatu gabe (Gómez, 2007).

Mundu soziolaboralean eta/edo politikoa ukatzen zaien ikusgarritasuna eta protagonismoa bilatzen dute elkarteek; protagonismo hori beharrezkoa du gizarte batean, nagusiki, eztabaidatzeko aukeraren bidez eta erabakietan parte hartzearen bidez jarduten duen gizakia orok. Eztabaida funtsezko zutabea da Amartya Sen-ek aipatzen zuen *garapena askatasun gisara* hori lortzeko; izan ere, giza eskubide ororen oinarritzko harria askatasuna da. Autorea beraren hitzak oso adierazgarriak dira:

Eztabaida publikoa eta parte-hartze soziala funtsezkoak dira politika ekonomikoa eta soziala lantzeko, sistema demokratiko batean. Askatasunean oinarrituriko ikuspuntu batean, parte hartzeko askatasunak funtsezkoa izan behar du politika ekonomiko eta sozialaren analisisian (Sen, 2000: 140-141).

Asoziazionismoa sustatzeak populazio migratuaren «jabetzea» nahi beharko luke, eta hark bizitza soziopolitikoan parte har dezan; baina etorkin taldeengan kontrola izatea ahalbidetzen duen estrategia bat besterik ez da. Izan ere, beren proiektuek irauteko eta horiek garatu ahal izateko diru-laguntzak eskatu behar dira, eta finantziario publikoari esker existitzen diren talde instituzionalizatu bilakatu. Elkarteek duten egoera horrek autolegitimatu egiten du immigrazioaren inguruan sortu diren erakunde publikoen funtzioa; baina, bestalde, beren proposamenen aurreko balizko kritika oro baliogabetzen du, horiek adostasun zabal baten emaitza izan beharko bailirateke. Beraz, demokrazia sasiparte-hartzaile baten aurrean gaude, elkarteek ez baitute rol nagusirik haiei dagozkien planen lanketan.

Nafarroan parte-hartze sozialerako teoriarik baliagarri izan litezkeen hainbat elkarte ditugu; baina, praktikan, estatistiken arabera, elkarte horietakoren bateko kide den pertsona kopurua gutxienekoa da, beste elkarte mota batzuetan gertatzen den gisara (erlijiozkoetan, sindikatuetan, kirol-elkarteetan...); izan ere, gehienek bizirautea dute kezka nagusi. Beraz, salbuespenak salbuespen, asoziazionismo immigranteak, oro har, bigarren mailako rola duela esan daiteke. Talde horiek hainbat forotan parte hartzen dute, baina erakundeek ez diete ematen beren ekintzen kudeaketarik ere.

Elkarteen arteko harremanak, oraingoz, ia ez dira garatu; bada immigranteen federazio eta koordinakunderen bat, baina elkarrekin erlazioa izateko zailtasun handiak dituzte. Azpimarratzekoa da etxeko langileek elkartzen hasteko egin duten ahalegina,

muga etnikoen gainetik; beren oinarriko eskubideak errespetatzeko eta lan hori Erregimen Orokorrean sartzeko eskatu dute; baina oraino, ez dirudi batere erraza.

Etorkinen elkarte horiek, beraz, bi beharri erantzuten diete: batetik, erakundeek beren segregazio-politiken bidez diskriminatzen dituzten biztanle horien gain izan nahi duten kontrolari; eta, bestetik, babesik gabeko egoera horretan, immigrazioak berak dituen eta sentitzen dituen beharrei.

## 2. Eremu publikoen eskuratzea

Herritartasunak, aurrez aipatu dugun gisara, «eremu publiko» deritzoguna osatzen du, eta hori Estatuak mugatua izaten da. Eremu edo espazio publiko horretan, pertsonak herritar gisa jokatzeko du.

Batzuentzat, espazio publikoa sozialki eratutako espazio fisikoa da, pertsona guztientzat eskuragarria eta hainbat erabileratarakoa delako. Beste batzuentzat, herritarren bizikidetzarako espazioa da, edo baita kultura-, politika- eta gizarte-kontrolerako eta menperatzeko eremua ere. Manuel Delgadorentzat eremu publikoa, definizioz, aniztasunaren erreinua da. Jende desberdinaren eta heterogeneoaren arteko komunikazioa ezartzen, bergiratzeko, sustatzen eta antolatzen duena. Diferentzien bidegurutze horretan, begiratzeko eta besteengan fidatzeko (edo ez fidatzeko) moduan oinarrituriko onarpen- edo gaitzespen-formak sortzen dira. Harremanen eta identifikazioen lekua da, adierazpen politikoena, kontaktuena, mugimenduarena, eta, zenbaitetan, komunitatearen adierazpenarena.



Eremu publikoak diferentzian sozializatzeko eta gertukoekin edo arrotzekin harremanak izateko eremu nagusietakoa eratzen du. Desberdinarekin izandako harremana da gizartekoitasun publikoaren muina. Eremu publikoetan aniztasuna adierazten da, trukea gertatzen da, eta tolerantzia ikasten da. Delgadok baieztatzen duenez, hiriko kultura:

Kronikoki ezegonkorrak diren harreman-sare trinko bat da, askotan ikusezinak diren gauza nagusien ugaritze amaigabea, han-hemenkako gizarte-adatsen trikimailu bat —zenbaitetan indartsua—, eta talde- edo banako-osagaien metaketa bat (Delgado, 1999: 45).

Alain Touraine-k, denboran zehar hiriak nola eraldatu diren aztertzean, industrializazioarekin herritarren eskubideen ideia gizarte-eskubide bilakatu dela oharrarazten du, eta orain aniztasuna, identitateak eta kultura-memoriak kontuan hartzen dituen etapa bat bizitzen ari garela, eta honela adierazten du:

Jendeak bere herritar-eskubideak mantendu edo bere gizarte-eskubideak zabaldu nahi dituela konturatzen gara; baina, horrez gainera, bere kultura-eskubideak defendatu edo lortu nahi ditu. Herriak zer funtzio du horretan? —*galdetzen du Touraine*— Herritartasuna ematearena? Eskubide-berdintasuna sortzea? *Eta hau dio*: bizitza-proiektu pertsonal edo kolektiboen arteko komunikazioa zabaltzea eta sustatzea da. (...) Herriaren funtzioa ez da herritarrak sortzea, baizik eta gutako bakoitzak bilatzen duen jendearekin komunikatzeko duen nahia eta gaitasuna maneiatzea eta babestea; modu desberdinean baina antzekoan, bere bizitza-proiektua eratzea, jarduera teknoekonomiko eta kultura-memoria baten arteko konbinazio itxuran (Touraine, 1998).

Herri horretan eta gainerakoen aurrean nor bere nortasuna, banakotasuna edo pertsonalitatea besteenaren desberdin gisa eraikitzen saiatzen da; eta hori, beharra, kezka eta helburu batzuetan oinarrituta egiten da. Delgadok adierazten duenez, eremu hori etengabeko krisian dago:

Eremu publikoa, eta hedaduraz hiria, bizi duen gatazka hori alde batera utzita existitu daitekeela uste izatea inozoa da. Gatazkak eta liskarrak ez dira ez salbuespen ez eragozpen herri batek hazi eta hobetu ahal izateko. Benetan, bere baldintza dira (Delgado, 2000).

Bestalde, David Harvey-k, *País* egunkarian argitaratutako elkarrizketa batean, honela erantzuten dio Iria Candelak egindako galdera bati:

Heraclitoren esaldi bikain batek iradokitzen du harmoniarik ederrena diferentzien arteko liskarretik sortzen dela. Uste dut ez duela zentzurik diferentzia kontuan hartzen ez duen adostasun-idea batek. Eremu publiko ideala da etengabe gatazkan dagoen eta horiek konpontzeko modu ugari dituen eremua, gatazka hori gero berriro ireki dadin (Harvey, 2007).



Eremu publikoa, fisikoki muga daitekeen lekua izateaz gainera —bai gauzatzen diren jarduerengatik, betetzen duen jendearengatik, dituen elementuengatik edo bai esleitzen zaizkion eduki sinbolikoengatik—, botere-harremanek maximoan jarduten duten eremu sinbolikoa da; guztiaren gainetik, eremu politikoa da. Publikoa politikoari dagokio eta, hala, eremu publikoa hartzaile neutro izatetik urruntzen duten esku-hartze politikoen (publikoen) subjektu-objektu bat da. Eremu horren sortze-prozesua eta kultura-jardueretarako bultzadarik baden edo ez den aztertuz, erakundeen boterea nabari daiteke. Eremua erabiltzean ezartzen diren genero-harremanak ere hauteman daitezke, eta baita talde mota desberdinak ere. Horri dagokionez, hala dio Virginia Maqueirak:

Genero-roleri dagokienez, prozesu historiko jakinek zehaztasunez landutako espazioaren konkrezioa sortu dute, bi esparru eratuz: publikoa eta pribatua, bien artean hesiak izanik eta arau-haustek zigortuz; eta horrek, ondorio gisa, emakumeen atzerritartzea ekarri du, beren herrialdean bertan (Maqueira, 2004: 414).

Hiriaren eta eremu publikoaren dimentsio sinbolikoa nabari daiteke publikoan hainbat talde agertzen direnean kultura-ekintzak eginez, eta helburutzat ezagutzera ematea, ikusaraztea, eta desberdintzat hartzen direnak marjinaziotik ateratzea duten ospakizun propioak eginez. Horren bidez, taldea nagusitzen ahaleginduko da, bere kultura-aberastasuna erakutsiz, gainerakoak gerturaten saiatuz, eta erakusten duten horren zerbait miretsiz eta balioetsiz. Baina espazioen eta denboren hierarkizazioa, eta horien erabilera mugatzea talde desberdinak boteretik aldentuta edukitzeko eta kontrolatzeko, etengabeak dira; izan ere, espazioaren konkistak eskubideen konkista sinbolizatzen du. Eremu publikoa zaintza politikoen eta gizarte-kontrolaren mende dago. Tokiko erakundeek folklore-jarduera sail bat finantzatzen dute; jarduera horietan, kultura-aukera handiaren zati txiki batzuk soilik erakusten dira, ahal den neurrian eduki politikorik gabe utziz.

Gainera, jarduera publikoek, manifestazioek edo errituek talde-identitatea sortu eta erakutsi nahi dute, herritartasun osoaren eskubideen alde eginez. Errepresentazioen bidez, dauden gizarte horri begira jartzen dira, eta irudi bat erakusten dute, zeinaren bidez ezagutuak eta onartuak izatea nahi baitute; sinboloak, beraz, ezinbestekoak dira botere-borroketan.

Erritualak historian zehar ideologiak produzitzeko jarduera eta jokabide funtsezko ditugu. Sahlins-en irudietan, ordea, kultura, historia eta jarduera praktikoak bata bestearen kopiak dira, elkarren errepikapenak, alegia. Elkar errepikatzearen prozesu praktikoan suertatzen dira aldaketak (Fdez. de Larrinoa, 1992: 147).

Erritu bat ekintza edo ekintza sail sinboliko bat da, guztiz arautua dagoena, eta errepikakorrek egoera jakinekin bat etorrira; horien arabera, parte-hartzaileek beharrezkotzat hautematen duten izaera lortzen du eta, hori gauzatuz, erabat edo zati batean ordena sinbolikoa duten ondorioak erartortzen dira. Kasu guztietan, sinbolikoa adierazkortzat hartzen da batez ere, eta ez esplizituki instrumental gisa.

Erritualak —beti ere, horri dagozkion teoria kanonikoen arabera— pertsonai, lekuei, barnean hartzen dituen une eta objektuei, eta balio berezi bat ematen dienei eragiten dien balioen hierarkia bat eratzen du. Energia eta denbora hori —neurririk gabeko iruditu daitezkeenak lortutako emaitza enpirikoaren arabera— zenbait sinbolo modu jakin batera, eta soilik modu jakin batera, erabiltzen dituzten ekintza konstanteetan eman daiteke. Noizbehinkakoa edo aldian behingoa izan, errituak batu egiten ditu ekintzak, sentimenduak, keinuak, hitzak eta uste osoak; eta errealitatearen protesi baten sarreraren zerbitzura jartzen ditu, okasiorako elkartutako pertsona kopuru aldakor baten jokaerak konbinatzetik eta koordinatzetik sortua dela erantsita (Delgado, 2007: 158).

Irudikatze-prozesua funtsezkoa da gizakien bizitzarako; hala dio Jack Goody-k, eta honako hau eranstean du:

Irudikatzea: aurrez ez zegoen zerbait orainaldira ekartzea. Abstrakzioa irudikatzea hartzen du aipatzen dugun baliozat. Nahitakotasunak funtsezko garrantzia du. Irudikatzeak berriz agertzea esan nahi du, bertan ez dagoen zerbait aurkeztea; horretarako, forma linguistikoa edo ikusizkoa har daitekeelarik (Goody, 1997: 47).

Irudikatzeak nortasunak eratzerakoan duen garrantziak irakurketa alternatiboak eskaintzen ditu, banaka edo taldean esperientziak zabaltzea. Hizkuntzaren bidez ezaugarri propioak ematen dira, hala nola indibiduazioa edo ezagutzea, eta, ondorioz, berdinen arteko hitzarmenak eskatzen dira. Anonimotasuna gainditu egiten da, eta horrek identitate-lekuak sortzen laguntzen du.

Aldarrikatutako bere izaera, irekia eta berdintasunezkoarez gain, eremu publikoak gizarte-diferentzia eta -desberdintasunak islatzen ditu. Iraganean eta gaur egunean, eremu publikoak asimetrikoak dira eta hierarkizatuta daude erabilera eta jabetzean. Kaleko erabilera aldatu egiten da estatus sozioekonomikoaren arabera. Goi-mailako klaseetako kideek hautatuko publikoa duten lekuetan biltzen dute beren gizartekoitasuna, eremu publikoa alde batetik bestera joateko bakarrik erabiliz. Antzeko zerbait baieztatu daiteke, azken urteotan, erdi-mailako klaseei eta bigarren bizilekua hedatzeari dagokienez. Alderantziz, parkeak, kaleak eta plazak dira klase herrikoien gizartekoitasunaren eremu pribilegiatuak. Eremu publikoak irekita daude guztientzat, baina haien erabilera zeharkakoa da. Eraikuntzek beren papera betetzen dute mendekotasun ekonomikoaren sisteman; baina mendekotasun sinboliko ere bihurtzen dira, desberdintasun-egoerak eraginez herritartasun-eskubideen jardunean.

Kolektibitate batek zerbait aldarrikatu nahi duenean hirigunean egin ohi du normalean; eta ez soilik goresteko dituen bertuteengatik, edo han daudelako interpelatutako instantzia politikoak, baizik eta —den neurrian— gizarte hiritar bati buruz hitz egiteko bide ematen duen hura guztia gertatzen den lurralde bati egozten zaion adierazgarritasunagatik (Delgado, 2007: 175).

Eremu publikoa da herria, hiria eta herritartasuna eraikitze oinarria; baina, aurrez esan dugun gisara, hirian bizi diren oro ez dira herritarrak. Batez ere beste leku batzuetako —gertuagoko edo urrunagoko, oraintsuko edo ez hain oraintsuko— jendez elikatu den hiri horrek, askotariko pertsona erabilgarri ugari elkartu ditu bata bestearekin, batez ere beren diferentziengatik, homogeen izateagatik baino gehiago. Horren ondorio da Delgadok aipatzen duen hau:

Hirian inor ez litzateke arrotzat hartu behar, funtsean, ez dagoelako inor hala denik. Mundu guztia immigrantea da, edo immigranteen seme-alaba edo biloba; guztiak etorri ziren noizbait kanpotik (Delgado, 2008).

Aditzera ematen den nahi izandako berdintasuna bere ilusio-pisuaren azpira erortzen da, sinpleki, janzteko dugun moduagatik, egoera jakin batzuetan izaten ditugun jokabideengatik, joan ohi garen lekuengatik, edo hainbat arrazoiengatik joaten ez garen haiengatik. Hirietako eremu publiko horiek (baita herrietakoek ere) migrazio-prozesuen agertokirik ikusgarrienetakoa eraten dute. Kontinente honetatik edo beste batetik berriki etorritako biztanleek eremu publikoak erabiltzen dituzte baliabide instrumental, gizartekoitasuneko eta zentzuzko gisara. Zenbait kolektibok eremu horiek elkartzeko, aisialdirako, bileretarako edo ospakizunetarako leku gisara erabiltzeko eta jabetzeko estrategia desberdinak gauzatzen dituzte; beste batzuek, berriz, lokal itxiagoetan, hala nola denda, mintzatoki (lokutorio), diskoteka eta taberna jakin batzuetan biltzen dute beren gizartekoitasuna. Hiriguneetan bizikide diren unitateek lankidetzarako forma automatikoak ezartzen dituzte, beste izaki bizidun batzuen antzera, lankidetzaloturak ekarriz beren kokalekuaren arabera.

Immigrante deituriko pertsona horiek, hirira iristeko unea baino askoz haratago, kategoria hori betiereko gordetzera xedatuak (eta herentziaz beren ondorengoei helaraztera ere bai, Frantzian bezala), azterketa honen helburu direnak, eraberritzearen eta irautearen berme direnak, eta bereziki ezaugarri (negatibo)ren batengatik ezagutzen direnak, «zergatik agertzen dira arazo gisa, egiazki, konponbidea direnean, konponbide bakar direnean —Delgadok dioen gisara— hirietako gizartearen biziraupena ziurtatzeko?» (Delgado, 2008).

## LABURBILTZEA

Hainbat garraibide eta komunikabidetan garapen teknologikoak bide emandako globalizazio neoliberalak espazio-denbora nozio berria sortu du, eta migrazio-mugimenduak areagotu ditu, nortasunaren, kide izatearen eta komunitatearen aurretiko nozioei buru eginez.

Goraldi kolonialista eta inperialistarekin sortu den Mendebaldearen kontzeptuak gainerakoak kategorietan sailkatu ditu, ikuspuntu eurozentriko batetik abiatuz; Mendebaldeko kulturaren ustezko nagusitasuna azpimarratu du, eta baita hark naturaren gainean duen ustezko lehentasuna ere. Aurrerapen eta modernotasunaren irudiak markatzen duen nagusitasunaren ikusmolde horrek Mendebaldekoa ez den «beste» ukapen gisa eta atzerapena irudikatzen duen talde homogeen gisa hartzen du, naturari, senari eta emozioei lotuta; zibilizatua, garatua eta arrazionala eratzen duen «Mendebalde»aren aurrean. Denboran zehar iraun duen irudikatze-sistema hori modu oso ahaltsuan sostengatu da imaginario kolektiboan, eta Mendebaldeko jarduerazutabeetako bat bilakatu da gainerakoen aurrean.

Nazioarteko harreman zuzenagoak eta bidezkoagoak ahalbidetuko dituen paradigma eurozentrikoa aldatzeko ahaleginek bide ematen diete bizitzeko, lanerako, kontsumitzeko eta beren jatorri-herrialdean mugatuta ikusten dituzten aukerak izateko eskubidea defendatzen duten talde edo banakoen mugimenduei. Errealitate sozial aldakorrek eta aitortu nahi ez diren elkarrekiko mendekotasunek zalantza jarrarazi dute eta berreratzen saiatu dira taldeen eta banakoen estratifikazio soziala, kultura- eta gizarte-ikuspegiak eraldatzeko eskatuz.

Kultura —Amaya Pavez-en gisara— norbanakoek eta taldeek partekatutako eremutat hartzen badugu, zeinetan portaera-jokabideek, antolaketak, hierarkiek, botere-harremanek, arauak, sinesmenek eta pertsonen bizitza zuzentzen duten balioek osatutako gizarte-ordena bat adierazten baita, emaitza izango da norbanako horiek kultura desberdina duten beste taldeengandik bereizten dituzten identitate bat partekatutako dutela proportzio eta dimentsioren batean (Pavez, 2010: 107).

Kulturak norbanakoak biltzen ditu bere inguruan, identitate partekatu bat sortuz. Kultura-identitate hori, norbanakoaren identitatearen antzera, «beste»arengandik edo «beste»engandik bereizteko eraiki da; baina eraikuntza hori bestea gutxietsi gabe egin daiteke, partekatzen ez diren kode horiek balio gutxitu gabe. Hori gertatzen denean, jarrera etnozentrakoak hitz egiten dugu, nagusitasun-ustez, kultura-elementu edo -alderdi desberdinak garatzeagatik. Horrek botere-harremanetara bideratzea dakar, etnozentrismo egiaz jabetzen baita. Hau nabarmena da besteren ondasunez gozatzera jotzen duen Mendebaldeko kulturari; besteak azpian hartzeko beharrean oinarritzen baita, gure biziraupena eta segurtasuna finkatzeko.

Kultura-praktikak azpimarratu eta horietan arreta jartzeak azterketatik kanpo utz ditzake horiek bezain garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk, talde desberdinetako pertsonak modu askotara moldatzen baitira beren eguneroko bizitzetan. Zygmunt Barman-ek (2006) ohartarazten digu identitate kultural eta etnikorako eskubideak, mundu global batean galtzeko beldurrak eraginda eta baita bertan zeudenek baztertuta sentitzen den talde baten biziraupen-logika propio batek, bere baitan itxita, nabarmen talka egiten duela Mendebaldeko herrialdeetako diskurtsoetan aldeztu diren integrazio-politikekin. Bestalde, Jesús Azconak kultura politikoen eta eguneroko kulturen kontzeptuak sartzen ditu, eta honela bereizten ditu:

Kultura politikotzat ulertzen dut askotariko taldeen existentzia ahalbidetzen duen unibertso sinbolikoa —sinesmenak, arauak eta balioak, batez ere—, gaur egun izendatzen dugun gisara. Eguneroko kulturatzat ulertzen ditut talde bereko kide diren norbanakoek garatzen dituzten unibertso sinbolikoak, beren gizarte-mailaren arabera eta baita beren sinesmen erlijiozko eta estetikoaren arabera ere, edo egoera profesionalen eraginez. (...) Homogeneizatzea kultura politikoen lana da. Horiek arau, etiketa, eta instituzionalizatutako ekintzen multzoa garatzen dute, eta, horien bidez, talde bat antolatu egiten da, modu horretan kohesioa eta batasuna ahalbidetuz. Kultura politikoez fikzioa sortzen dute, guztiek joko berean eta karta berdinekin jokatzeko dutela adieraziz (Azcona, 2004: 1-2).

Lehen uste zen talde etnikoen arteko identitate-mugak estatikoak zirela; baina Fredrik Barth-en ekarpenaren ondoren, talde desberdinen arteko mugak dinamikoak eta aldakorak direla onartzen da. Gaur egungo mundu-mailako testuinguruan, gero eta korapilatsuagoa da mugaz hitz egitea tradiziozko esanahiarekin. Horren erakusgarri da EB barruko hainbat estaturen arteko muga batzuk desagertzea, eta identitate berri bat sortzea errazten eta bultzatzen du, homogeneizazio handiagoa lortzen ahaleginduz. Identitateak barreiatu egiten direla dirudi, lauso bilakatzen direla.

Modernotasunak eta kapitalismoak sortutako lehenengo migrazio-mugimenduen herrialde hartzaileek iritsierako populazioaren asimilazio-mekanismoak sustatu zituzten; mekanismo horiek bateragarriak ziren marjinazio-prozesu jakin batzuekin eta kultura nagusia mantentzearekin. Gaur, politika nagusiak berdina izaten jarraitzen badu ere, denbora-espazioaren erabilera berriaren hertsatzeak ahalbidetzen du norbanakoak ihes egitea asimilatzekeko behar horretatik.

Beste testuinguru kultural batetik datorren iritsi berriak gizarte hartzailearen eskakizun arauemaileetara egokitu behar duen hipotesitik abiatzen da eredu asimilatzailea; desberdintasuna azpimarratzen du, diferentziaz gainera. Egoera horretan, segregazioa ez da kultura- eta klase-bereizkuntzaren ondorio.

Bereiztea edo diskriminatzea banatzea da. Diskriminazioaren lehen urratsa mugak jartzea da; «besteak» banatzen dira, diferentzetatik agertzeko. Ondoren, gutxiagotasun-etiketa erantzen zaio. Eta, azkenik, nabarmen identifika daitekeen bestetasun horren mespretxua justifikatuta, segregazio lotsagarria gauzatzen da.

Segregazio hori begiraden, keinuen, ahots-tonuen eedo zorioneko galdera honen bidez —nongoa zara?— adierazten da.

Hori da egungo arrazismoaren funtsezko ekintza —diosku Manuel Delgadok—, «diferente»tzat hartutako hainbat pertsonari nabarmendu gabe igarotzeko aukera ukatzea, azalpenik ez emateko eskubidea bat-batean kentzea, gainerakook ezkutuan izan dezakegun hori erakustera behartzea. Azken finean, isilean gordetzeko eskubidea. Anonimoa izatekoa (Delgado, 2002).

Integratzaileko eredutzat har dezakegun horri dagokionez, batez ere, etniarteko harremanek izan beharko luketen moduko eredu bat da, kulturarteko harremanen eredu erreal bat baino gehiago. Idealki, «bestea» ulertzean eta ezagutzean oinarritzen da, egon daitekeen estereotipo estigmatizatu horretatik ateratzeko.

Migrazio-fluxuen kontrol-politiken ondoan, Europar Batasuneko herrialdeek «immigranteen gizarte-integratzaileko politika» deiturikoak abiarazi dituzte. Administrazio publikoek garatutako planek azpimarratzen dute immigranteen gizarteratzea sustatzea dela beren helburua; aztertu ditugun praktiketako askok, ordea, paperaren gainean idatzitakoaren kontrakoa diote.

Erakunde publikoen aldetik asoziazionismo etnikoa sustatzen dela ikusten dugu, eta laguntza ekonomiko publikoak ematen dituztela kultura-jarduera eta folklore-jaialdietako kontsumorako; modu horretan, diferentzia salgai bihurtzen dute, hainbat immigrante talde txertatzea aldarrikatuz; baina arriskua dute beren artean bananduta mantentzeko, diferentzian berdintasunaren alde egingo duen diseinu politikorik izan gabe. Honela idatzi zuen José Manuel Bermudok:

Norbanakoak fisikoki onartu eta politikoki aitortu egin behar dira. Bi elementu horiek, fisikoki onartzeak eta politikoki aitortzeak, kide izatea eraten dute. Bi horiek dira, beraz, herritartasun-eskubidea jarduteko egiaztagiriak (Bermudo, 2001: 9).

Europako Erkidegokoek parte har dezakete hauteskundeetan, eta baita Erkidegoz kanpoko zati txiki batek ere, soilik udal-hauteskundeetan eta jatorriko herrialdeekin egindako elkarrekiko hitzarmenen baitan izan arren; beste jende askori, ordea, ukatu egiten zaio osoko herritartasun formala. Gainera, igaro behar izan dituzten epailetza-, debaluazio-, gutxiespen-, murrizte-, ez-ikuste, eta diskriminazio-prozesuak kontuan hartuta, ikusi egin beharko da herritar horiek ze jarduera-mailatan geratu diren, beren botere-eremuak murrizak baitira. Bestalde, badago eremu publikoan aktiboki parte hartzea eragozten duen gizarte-erresistentzia bat ere. Immigranteak askatasun eta indar gutxiagorekin egiten dio aurre gizarte-inguruneari, gertaera politiko eta sozialen gaineko erantzukizun gutxiagorekin, protagonismo eta autoritate formal eskasagorekin.

XXI. mendeko migrazioak gero eta mundu txikiagoan ari dira gertatzen. Garraio-bideen aurrerapenak gero eta azkarrago eta merkeago bihurtzen du urrutiko lekuen arteko lotura. Komunikabideen teknologiak kokapen birtuala ahalbidetzen du:

telefonoa —finkoa edo mugikorra— ez da objektu arrotza ia mundu osoan; telebistak, prentsak eta irratia oso urrutiko bazterretara eramaten gaituzte egunero; Internetek komunikazio jarraitua ahalbidetzen du, ia bat-batekoa, eta eduki askotarikoak dituena; nazioarteko transakzio ekonomikoak eta komertzialak ziztu bizian egiten dira. Orain ez da abitutako aberria lausotzen; baizik eta, estatu-nazioen mugak eta migrazioak giza armiarma sare erraldoi bat osatzen ari dira, eta dagoeneko ez da aldi behin eta norabide bakarrean doan fluxua. Horrela migrazioaz eta transnazionalismoaz hitz egiten hasiko gara. Transnazionalismoa ez da fenomeno berria, baizik eta prozesu berri bat ulertzeko kontzeptu berri bat.

Beren legezko egoera eta egoera ekonomikoa egonkortzea lortzen duten immigranteek maiz bidaiatzen dute beren jatorriko herrialdera eta, zenbaitetan, denboraldi luzea igarotzen dute han. Aldiz, iristen den gizartean legez kanpo bizi direnak, beren zuzeneko sendia berriz elkartu ezin dutenez, munduan barreiatuta dagoen familia baten barruan bizi dira, eta harreman eta familia paraleloak ere sor ditzazkete. Pertsonak eta taldeak migrazio-fluxuei inposatzen zaizkien murrizketetara egokitzen dira, eta migrazio-fluxuak antolatzen dituzten gizarte-sare transnazionalak sortzen dituzte.

Badirudi mugaz haraindiko mugimenduen olatu berri horrek zalantzan jarri dituela ez soilik identitateak, hau da, Nor den nor? Nork erabakitzen duen nor den nor? Nork inposatzen dituen izenak eta kontzeptuak? Beraz, geografia-mugen bazterrak, identitateak definitzeko eta inposatzeko mekanismo gisa, identitatea eta antzeko fenomenoak atzematen eta deskribatzen saiatzen den diskurtsoaren mugak zalantzan jartzeko hedatzen dira; fenomeno horiek bizitzan zehar aldatu egiten dira eta subjektibitate-maila altua dute.

Aldaketa horiek estatu-nazioaren estatistika-ikusmoldeak desagertzea bultzatzen dute, eta baita transnazionalismo deritzon fenomeno sortzea ere; fenomeno horrek, estatu-nazio proiektua desafiatu egiteaz gainera, aurre egiten dio herritartasuna, giza eskubideak eta antzeko kontzeptuen orainaldiko eta etorkizuneko garrantziari ere.

Globalizazioaren fenomenoak, munduko jende, eskualde eta herrialde desberdinen arteko interdependentzia areagotzetzat hartzen denak, zalantzan jartzen du mugimendu transnazionalen kudeaketa, bereziki migrazioarena. Globalizazio neoliberal horrek estatu-nazioa berriz gauzatzearen beharra agertzen du, bereziki, bere autonomia- eta subiranotasun-mailen arabera, erregulazio sozial, politiko eta ekonomikoaren eremuetan.

Inperio kolonialen sistema politikoa, zentzu hertsian, zorionez iraganean finkatuta geratu bazen ere, haren ondorioak agerian daude inperialismo ekonomiko eta politikoaren forma berrietan, munduko bazter guztietan kapitalista neoliberalak buru dituztela. Neoliberalismoak azken bi hamarkadetan eraiki dituen gizarteak bere aurrekoak baino okerragoak dira, zatikatuagoak, polarizatuagoak eta bidegabeagoak. Gaur egun, munduko gizon-emakumeak eraberritutako gerra-, ekonomia-, lan-, gizarte- eta ekologia-mehatxuen azpian bizi dira. Hainbeste entzundako globalizazio

neoliberalak eragin okerrak ditu, oro har, herritarrentzat eta, bereziki, emakumeentzat. Pobrezia handiagoa dago, erantzukizun gehiago, migrazio modu berriak, kontrol- eta biolentzia-forma berriak. Eta, alde horretatik, Samir Amin egiptoar ekonomialariak honako hau ohartarazten du:

Hedapen kapitalistak ez dakar berekin garapen-terminoetan pareka daitekeen inolako emaitzarik. Adibidez, inola ere ez dakar enplegu osorik, edo errentaren banaketan aurrez zehazturiko berdintasun-mailarik (Amin, 1999: 30).

Kolonialismoak, herentziazat esklaboen esplotazioa uzteaz gainera, kolonialisten gogoan giza bizitzaren erabilgarritasunaren naturalizazioa txertatu zuen; edozein salgairen pareko bihurtu zuen, bai erabiltzeko, bai behar ez duenean hartaz libratzeko. «Kolonialismoa ez da gainditu den aro historiko bat. Oraindik fruituak ematen ari den hazia da» (Amín, 1999: 31). Beraz, beharrezkoa da kolonialismoa edo neokolonialismoa desberdinen arteko egungo botere-harreman gisara hartzea, ez gertaera historiko gisara; beharrezkoa da, suaren eta metrailaren bidez eta baita pertsonen gorputzak kontrolatzeko ahaleginaren bidez, biolentzia arrazionalizatua darabilen inperialismo garaikidean pentsatzea. Mugaz gaindi lekualdatzen ari diren milioika emakumek kapitalismo poskolonialaren eztabaidak eta tentsioak bizi dituzte beren familian, komunitatean, herrialdean eta/edo harrera-herrialdean.

Hirurogeiko hamarkadaren erditik aurrera mundu guztian gertatu diren eraldaketa ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak definitzen ditu globalizazioak, sistema ekonomiko kapitalista hedatuz. Ia aldi berean sortutako neoliberalismoa Estatuaren parte-hartzea gutxienekora murriztu nahi duen teoria politikoa da; zeregin hori enpresa multinazionalen esku uzten du, antolaketa politikoa eta lurralde-antolaketa aldatuz.

Merkatu transnazionalaren logikak subjektu kontsumitzaileak sortzen ditu; denborak ez beste guztiak konparagarri dirudi: laguntza emozionala eta psikologikoa, sexua, babesa, eguneroko beharren aurreko arreta, aisia, komunikazioa, eta beste. Itxura batera merkatu-kontrollean ahuldutako estatuak beren mugak sendotzeko biltzen dituzte indarrak; ongizateari mehatxu egiten dion immigrazioaren imaginarioa sortzen dute, eta nazioz gaindiko itunak ezartzen dituzte langile immigrantea hori soilik izan dadin, zuzenbidezko estatuaren gizarte-ondasunetatik urrun dagoen eskulana. Mugak irekitzen eta atzeratzen diren testuinguru honetan, ugaritu egiten dira «beste»arenganako diskurtsoak, mehatxu gisa hartzen den immigrantearenganakoak; izan ere, «emakume etorkinaren»en kategoriaren azaleratzearen aurrean gaude.

Emakumea lan-merkatuan modu ofizialean eta kopuru handitan sartu bada ere, nazio-mailan eta nazioartekoan emakumearen lanaren balio-gutxitzea gertatu eta are larriagotu egin da, osagarri eta ez-produktibo gisa. Ildo horretan, honela adierazten du Suárez-Navazek:



Gobernu transnazionalak arrazismoaren eta sexismoaren aurkako eta lan-esplotazioaren eta bazterketa soziopolitikoaren aurkako borroken eta erresistentzien elkarguneetan duten jokamoldearen ondorioz, emakumeak konturatzen dira genero-harremanen sistema bidegabea ez dela desagertzen lehen gizonezkoei mugatzen zitzaizkien eremuetara iristeagatik (Suárez-Navaz, 2008: 61).

Egiturazko egoera desberdintasun-harremanak sortzetik eratoritzen da; generoari, klaseari, jatorriko herrialdeari eta horrek munduko ordenan betetzen duen lekuari dagozkion diferentzien oinarriaren gainean sortutako harremanak dira horiek, eta baita diferentzia kulturalak eta fenotipikoak eraikitzean sortutakoak ere. Kulturaren izenean, hau da, kultura-espezifikotasuna begiratzeko eta gordetzeko garrantzi gorenaren gaineko diskurtsoaren izenean indargabetzen dira, gaur egun, emakumeen eskabideak eta aldarrikapenak. Carmen Gregorioren hitzetan, «kulturalismo sexista» dei diezaiokegu gertaera horri; fundamentalismo kulturalaren aldaera gisa, genero-desberdintasuna legezkotzeko modu berri gisa gertatzen da. Komunitate jakin bateko kide guztien funts aldaezin eta adierazgarritzat hartutako kultura-diferentzia batzuek baliatuta justifikatzen da desberdintasun hori. Diskurtso horren bidez, botere-harremanak ikusezin bihurtzen dira eta ukatu egiten dira desberdintasun sozioekonomikoak, baita haren askotariko errealitateak ere; soilik bere «beste kulturalak» ezaugarriari begiratzen zaio, geure sustrai etnozentrako eta kolonizatzaileen babespean.

Kulturaren ikuspegi estatikoa baliogabetu behar dugu, eta hura garatu den testuinguruak historikoki ulertzearen garrantzia azpimarratu; eta arreta jarri behar dugu kultura hori definitzeko aukeratzen diren «etiketetan», kultura bat beste batetik banantzen duten diferentziak nabarmentzeko hainbat arrazoi dituzten askotariko proiektu politikoei lotuta dauden izendapen arbitrarioak baitira. Ezaugarri jakin batzuk, eta ez beste batzuk, aukeratzen direnez kultura baten adierazgarritzat edo identitate baten oinarritzotzat, deseraikitzeak aukera emango digu begietako estalkia kendu eta diferentziaren irudikapenaren atzean ezkututzen diren botere-sareak ikusteko. Identitateen ikuspegi historikoak bide ematen digu kultura baten bereizgarri jakin batzuk nola aldatzen diren hautemateko; inork ez du uste, ordea, horrek arriskuan jartzen duenik kulturaren osotasuna (esate baterako, autoak, nekazaritzako teknologiak, komunikabideak eta abar sartzerakoan); aldiz, beste aldaketa batzuek kultura-galera dakartela jotzen da, edo traizio kulturaltzat hartzen dira, modu selektiboan. Rosalva Aídak honako honen beharra adierazten du:

Genero-ikuspegitik, berriz pentsatu behar dira kultura-aitortzarako politikak; proposamen hori unibertso liberalaz haratago doa, eta horrek zuzentasun-eskubidea eta erlatibismo kulturala ukatzen ditu berdintasunaren izenean; eta diferentziarako eskubidearen izenean, emakumeen baztertzea eta marjinazioa justifikatzen ditu. (Aída, *in* Suárez 2008: 103)

Zalantzarik gabe, ez luke zentzurik emakumeen zapalkuntza kulturari egozteak, aurrez kulturak eta baldintza materialek elkarri zein modutan eragiten dioten aztertu gabe.

Duela milaka urteko menperatze patriarkalak, erakunde guztiak zeharkatzen ditu, emakume eta gizonen arteko desberdintasunen arduradun bezala, menperatze politiko, kulturala, soziala eta ekonomikoa instituzionalizatuz, bortizkeria eta bazterketa sortuz, bai eremu politiko, juridiko eta legegintzan, bai ondasunetara, heziketara, osasunera, lanera edo teknologiarara heltzeko ahalbideak gurutzatuz.

Generoa ere botere-harremanek erabakitako prozesua da, generotzat ulertzen badugu sozialki eraikitako diferentzia, eta diferentzia hori desberdintasun bilakatzen den egoera. Mundu-mailako berregituratze-prozesuetan generoa eta boterea ikusgai bihurtzeak eskatzen du gutxietsitako emakume langileak klase- eta etnia-terminoetan begiratzea, izendatzea eta ikustea.

Komeni da nabarmentzea gizarte-babeseko sistemaren eraginkortasunik eza, emakumeak lan-mundura sartzan direnean etxeko ekonomian uzten duten hutsuneari erantzuteko garaian; eta baita gizon-emakumeen artean etxeko lanak berdintasunez banatzearen falta ere. Ondorioz, azken urteotan etxe-zerbitzuen sektorea asko hazi da hiri handietan; emakumeen eta immigranteen lan gisa finkatu da, eta aitorpen sozial eta ekonomiko baxuenekoa duen lanbideetako bat da. Zenbait genero-rol kualifikatu gabeko jarduera izatearen ondorio da hori. Harrera gizarteko etxeetan nahiago da emakume bat kontratatzea etxeko lanak egiteko; nahiz eta emakume horren jatorriko gizartean kudeaketa hortan ohitura ezberdinak izan. Gerta liteke etxeko lanak ez bat etortzea funtsean janaria prestatzeko moduan, etxebizitza garbitzeko estilo eta teknikan, eta adingabeak eta adinekoak zaintzeko eta elikatzeko moduetan. Hizkuntzari dagozkion zailtasunak gehitu behar zaizkio horri. Onartu egiten da, ordea, emakume batek, bere kualifikazio profesionala gorabehera, lanbide «natural»tzat bere generoaren eraikuntza kulturalak zehazturiko hura ere baduela, hau da, etxeko langilea; eta sexu-langilea ere bai, gehitu genezaioke. Alderdi hori oso garrantzitsua da genero-desberdintasunen erreproduktzioa aztertzerakoan, lanaren nazioarteko banaketaren testuinguruan. Chandra Talpadek, honela adierazten du artikulu honetan: «‘Mendebaldearen begiradapera’ itzuliz, elkartasun feminista borroka antikapitalisten bidez» bere artikuluan:

Kasta/klase berezi bateko, arraza eta estatus ekonomiko jakin bateko emakume langileak beharrezkoak dira mundu-mailako ekonomia kapitalistak jarduteko. Emakumeak lan jakin batzuetarako hautagai gogokoenak izateaz gainera, lan-merkatu global, «malgu» eta aldi baterako horietan mota jakin bateko emakume langileak nahi dira: behartsuak, Hirugarren Mundukoak eta Munduaren bi herenetakoak<sup>46</sup>, langile-klasekoak eta immigranteak. Lan bila muga nazionalak

<sup>46</sup> Honela idazten du autoreak: «Elkartasuneko eredu feministan, zentzua hartzen du Heren bat/Bi heren paradigmak. Mendebaldea/Hirugarren Mundua, edo Iparra/Hegoa, edo bertako/mundu-mailako dikotomien ordez —kontrako kategoriak eta ezin neurtuzkoak sortzen dituztenak, hain zuzen—, Heren bat/Bi heren bereizkuntzak erakusteko eta ikasteko bide ematen du emakume marjinatu eta pribilegiatu

zeharkatzen dituzten munduko Heren bat/Bi herenetako emakume pobreen dokumentatutako migrazioa areagotzeak «zerbitzarien nazioarteko komertzioa» areagotzea ekarri du, eta baita nazioartean sexu-turismoa eta -trafikoa ugaritzea ere. Munduko hiri asko, gaur egun, emakume immigrante eta emigranteen etxeko lan eta zerbitzuen menpe daude erabat. Mundu guztian egiturazko egokitze politikoak ugaritzeak berriz pribatizatu du emakumeen lana Estatutik etxera lekualdatzean, eta hor dauden emakumeengana gizarte-ongizatearen erantzukizuna. (...) Hirugarren Munduko/Hegoaldeko emakume behartsu immigrante/emigranteen fabrikek eta lan-lekuek, Europako eta Estatu Batuetako espetxeen antzera, emakume kopuru izugarriak estekatzen dituzte, immigranteak eta ez-herritarrak, jatorriz afrikarrak, asiarrak eta latinoamerikarrak direlarik (Talpade *in* Suárez, 2008: 449-450).

Arlo guztietako zaintzek —afektiboek, materialek, sozialek eta baita sexuari dagozkienak<sup>47</sup> ere—, gure gizarte patriarkal hauetan emakumeei esleitzen zaizkienak, beste garai batzuk bizi dituzte egun; izan ere, emakumeen erantzukizun izaten jarraitzen badute ere, zaintza nazioartekotzera igaro gara, edo beste batzuek deitu dioten gisara, «zaintzen kate transnazional»era, emakume migratzaileak esplotatzeko beste modu bat dena. Neskamearen irudi zaharkitua itzuli da (orain etxe-langile izena du), bere bizitzarako denborarik ez duena, miseriazko soldatak dituena, behar bezalako babes eta aitortza sozialik jaso gabea, eta beste emakume batzuen beharra duena bere seme-alabak zaintzeko hemen edo bere jatorriko herrialdean. Iparraldera migratzen duten emakumeak dira, «emakumeen lanak egitera» edo Iparraldean emakumeen lantzat hartzen direnak egitera. Arautu gabeko lanak, ezegonkorrak, emakumeenak, «diferentziari eduki erreala ematen laguntzen dutenak —Ruth Mestre i Mestre-k dioen gisara—, desberdintasun terminoetan (*lanaren generizazioa*)» (Mestre *in* HH.AA. 2008b: 213).

Gizarte-erreprodukzioa pribatizatzeako prozesu bat dago, zeinetan gizarte-erreprodukzio horren erantzukizuna etxeetan hartzen baita berriz ere, pribatua-etxeokoren eta ikusezinaren erreinu horretan; eta gero eta zaintza gehiago erosten zaizkie enpresei, horiek irabazi-asmodun ekimen pribatuaren eremuan jarriz. Bestalde, etxeak merkaturatzeak, migrazioak feminizatzeako prozesuarekin batera, zaintzen mundu-mailako kate deiturikoak egituratzea ekarri du emaitza gisa.

Mundu-mailan lanaren sexu- eta etnia-berrestratifikazio baten lekuko gara: sistema ekonomiko hierarkikoan bakoitzaren kokapena baldintzatzen duen elementu erabakigarria izaten jarraitzen du generoak, baina sendotu egin dira emakumeen beren arteko diferentziak (Pérez Orozco, 2009: 575).

---

komunitate batzuen eta besteen arteko lotura- eta distantzia-puntuen inguruan, bertako eta mundu-mailako dimentsio askotan barrena» (*in* Suárez 2008: 444)

<sup>47</sup> Nazio Batuen arabera, sexu-trafikoa da munduko legez kanpoko jarduerarik etekintsuena, arma- eta droga-trafikorekin ondoren. Sexu-lana, lan-jardueratzat hartzen ez denez, ez da agertzen estatistika ofizialetan, eta zaila da datu zehatzak eskuratzea.

Emakume immigrante horiek migrazio-proiektu propioa duten subjektu aktiboak dira, ezkondata egon edo ez. Gizonezkoen antzera, ihes egiten dute pobrezia eta aukera faltan aurretik; haatik, modu bereizgarrian eragiten diete batzuei eta besteei. Egiten duten lan mota, batzuek etxeko lanak eta besteek sexuari dagozkionak, desberdintasun-harremanen adierazgarri da.

Politika publikoetatik, ez da begiesten emakume immigranteen egoera- eta ibilbide-aniztasunik; aitzitik, talde homogeneotzat hartzen dira eta familia gizarte-testuinguru berrira egokitzeko instrumentutzat. Familien barruan emakumeek duten funtzio egonkortzaile eta kohesionatzailea nabarmentzen da, taldearen marjinazioa saihesteko, oreka emozionalari eta gizarte-normalizazioari dagokion faktore gisa. Beraz, integrazio-politikaren kontzeptualizazioa familiaren edo etxeko unitatearen ikusmolde estereotipatu batetik abiatzen da, zeina emakumei eta gizonei esleitzen zaizkien paperen dikotomian oinarritzen baita. Modu horretan, etxeko unitatea ulertzen da gizon hornitzailea eta emakume etxekoandrea, seme-alaben sozializatzailea eta senarraren mendekoa dituen familia nuklear gisa. Integrazioa hartzen da immigrante-komunitateen eta gizarte hartzailearen arteko gatazkarik ezaren sinonimotzat, eta iritsierako gizartearen portaera normalizatuen pixkanakako onarpentzat. Carmen Gregoriok baiesten duenez:

Emakume immigranteak hain modu orokorrean eta abstraktuan bazterte-kategoriaren pean eta erabat gabeziadun-taldetzat bistaratzeak botere-mekanismoen oinarrian dagoen estereotipo deskalifikatzaile bat sortzea eragin dezake. Edonola ere, gizarte-bazterkeria zehaztu beharreko gizarte-harremanen eremu bati dagokion prozesu bat da, sortutako irudia ez dadin emaitza norbanakoena eta taldeena berezkoa den egoera batekin nahasten duen botere-kategoria bilakatu (Gregorio, 2000: 380).

Desberdintasuna eraikuntza historikoa da. Aniztasuna edo diferentzia desberdintasun bilakatu dira, haien hierarkizazioa dela-eta. Emakume immigranteengan, beren «atzerritar»-tutako izaeratik eratorritako beste «diferentzia» batzuk gehitu dira. Estereotipoak nabarmendu dira janzkeran, elikadura- eta higiene-jarraibideetan, erlijio-sinesmenetan edo hizkuntzan; elementu horiek, nolabaiteko exotismoaren betikotzeari laguntzeaz gainera, tradizionalismo- eta atzerapen-irudi bat sendotzen dute, gizarte hartzailearen modernizazioarekin kontrajarrit.

## III. ATALA

---

### SARRERA

Hirugarren atal honetan, mundu-mailakoa bertakora eraman nahi dut; makroa mikroraino nola iristen, islatzen den ikusi; nazioarteko migrazio-politikak denboran zehar nola errepikatzen diren, logika merkantilistei erantzunez; nola eraikitzen diren muga berriak, beste muga batzuk desagertu egiten diren arren; nola bihurtzen den atzoko urruti hura gaurko hurbileko; nola erlazionatzen diren fenomeno batzuk beste batzuekin, gero eta txikiago gertatzen zaigun mundu honetan; Hegoaldeko herrialdeetako oinarri ekonomikoak suntsitzeak nola sortzen duen eskulan merkea, immigrazioaren hartzaile diren herrialdeetako garapen ekonomikorako; herrialde kolonizatuetao aberastasunak eta lehengaiak arpilatu ondoren, nola ateratzen diren gaur egun giza baliabideak, planetako zati baten deskapitalizazioarekin jarraituz eta jada eutsiezina den desoreka areagotuz.

Lehenengo atalean, Nafarroako immigrazioari dagozkion datuak agertuko dira; datu horiek etengabe aldatzen ari badira ere, eta are gehiago aurre egiten diogun finantza-krisiaren prozesu honetan, migrazio-politikak eta horien eraginak ez dira aldatzen.

Hurrengo atalean, Nikaraguako egungo egoera deskribatzen da, eta baita gaur egun azaltzen duen egoera politiko-ekonomikora eraman duten arrazoiak ere. Ekonomia baten funtzionamendua ez da soilik adierazleen, produkzio-jomugen eta errendimendu-estatistiken emaitza; horretan eragiten dute, baita ere, beren mugetatik haratago garatzen diren nazioarteko prozesu historiko eta politikoei.

Hirugarren zati honen azken atalean, Nafarroan nikaraguarrek izandako migrazio-esperientziaren azterketa sakona egin da, hain zuzen, lan honen ikerketa-helburu izan dena. Berezitasun propioak izan arren, esperientzia hori beste immigrante talde batzuetara estrapola daiteke, guztientzat ere antzekoak baitira iritsiera-lekuan dituzten baldintzak.

Arjun Appadurai-k *identitate harrapatzaile* kontzeptua darabil bat-batean arriskuan agertzen diren gehiengo horiek aipatzeko —eta, beraz, arriskua dakarten gutxiengoek indarkeriaz ezabatzeko jarduten duten horiek— beste kolektibitatea desagertzea eskatzen duten identitateak, beren biziraupena ziurtatzeko.

Appaduraik aipatzen dituen gutxiengo horiek «beste»ak dira, erlijio-desbideratuak barne hartzen dituztenak, nomadak, okupak, legez kanpokoak, leialak eta desleialak, beharrezkoak baina desatseginak direnak. Ezinbestekoak dira sistemarentzat, klaseek irauteko, identitate eta muga berriak sortzeko. Nolakotasun bikoitz horrerri jarrikiz, gutxiengoek globalizazioaren beraren arazo nagusia irudikatzen dute; zerbait beharrezkoa da (edo, behintzat, ezin saihestuzkoa) eta, aldi berean, nekagarria. Haien

jabe izan gaitezke, haiek kontrolatu eta erabili egin ditzakegu, edo saihestu, baztertu, ukatu eta ezabatu. Gutxiengo horiek ez datoz zehaztuta, baizik egoera bakoitzaren nondik-norakoek sortzen dituzte. Eta globalizazioak, aurpegirik gabeko indar bat izanik, ezin du etnozidioaren objektu izan; bai, ordea, gutxiengoek (Appadurai, 2007).

Globalizazioak indarkeria sortzen du, gehiengoak eta gutxiengoak ekoiztuz modernizazio-prozesu horretan, bazterketen eta marjinazioen bidez, eta beste sektore batzuetako —soldata altuak eta eskubide gehiago dituztenak— araututako enpleguak mantentzen dituzten langile soldatadun zati handi baten deserregularizazioa areagotuz.

Globalizazio ekonomiko horrek bultzatzen du zerbitzu publikoen pribatizazioa, gastu sozialen eta lan-eskubideen murrizketa, enpresa txikien eta ertainen behea jotzea, enpleguaren ezegonkortasuna eta malgutasuna, langabezia eta pobrezia areagotzea, zorraren hazkundera, ekonomia-metatze handiagoa eta desberdintasunak sakontzea. Egoera horretan, iraupena bermatzeko gero eta garrantzitsuagoak diren forma gisa agertzen dira lan informala, legez kanpoko lana eta emigrazioa.

Iraganak eta orainak erakusten digute migrazio-prozesuak, neurri batean, geografikoki mugatutako gertaera multzo batzuei dagozkiela, hasiera eta amaiera bat dutela eta guztiak daudela iritsiera-herrialdeetako egitura ekonomiko, politiko eta sozialen funtzioen mende. Migrazioen arrazoi bakarrak ez dira jatorriko herrialdeei esleitutako ezaugarriak; baizik eta herrialde hartzaileen testuinguru ekonomiko eta sozialek finkatzen dituzte migrazio-fluxuentzat neurri zehatzak. Migrazio-fluxuek ez diote erantzuten beren lan-indarra saltzera beste leku batera joatea erabakitzen duten pertsonen aukera aske bati. Beraz, beharrezkoa da bi aldetako dinamikak eta migrazio-errealitateen erlazioa aztertzea.

Migrazioak ekoiztu egiten dira; eta ekoizpen horren motorrak harreman-sare konplexu baten emaitza dira, zeinetan izaera ekonomikoko dimentsioez gainera izaera soziokulturalekoek ere esku hartzen baitute. Europar Batasunaren eraikuntzari muga berrien barneko mugikortasunaren bultzadak laguntzen dio, identitate-aniztasuna onartuz; inongo «zibilizazioen arteko talkarik» edo kulturen arteko talkarik sortu gabe, haren kanpoko mugak blindatu eta «kanpoko»ekiko diferentziak azpimarratzen diren bitartean.

«Beste»en etnizazioa ahalegin handiz sortu eta naturalizatu da, garapenari, gerrari eta menpekotasunaren hezkuntza- eta hizkuntza-uniformetasuna lortzeko diziplinari buruzko erretorikaren bidez.

Gaur egun munduko eskualde askotan gertatzen ari diren berregituratze ekonomiko edo aldaketek izugarri eragiten dute lan-merkatuetan, babestutako ekonomia eta merkatuetatik hasi eta nazioarteko eraginkortasunean eta lehiakortasunean oinarrituriko industrializazio mota bateraino, esportazioak eta enpresa transnazionalak sustatuz.

Munduko ekonomiaren eraldaketa horrek jardura ekonomikoaren transnacionalizazio progresiboa dakar berekin, eta ezaugarri bereziak hartzen ditu tokiko-mailan. Beste garai batean ekoizpena soldata baxuko herrialdeetara eraman zen, lan- eta ekoizpen-erregulazio baxuagoa zutenetara, zenbait kasutan haur eskulangileak esplotatuz; gaur egun ere ezaugarri nagusia eskulan merkea eta malgua bilatzean datza, emakumezkoa edo immigrantea, modu azkarrean nazioarteko lehiakortasuna lortzea ahalbidetzen duena. Eraldaketa horiek esportazioa prozesatzen duten enpresetan emakumeen parte-hartzea areagotzen laguntzen dute; esate baterako, Nikaraguan *maquila*<sup>48</sup> deritzenetan, lanaren sexu-banaketa bortitza den horietan. Lan-indarra feminizatzeaz hitz egiten da, zirkuitu alternatiboetan dagoen emakumeen presentzia dela-eta. Zalantzarik gabe, herrialde gehienetan soldatapekoko lana feminizatu egin da, baina, egiazki, sektore batetik besterako eskualdatzea islatzen da; izan ere, emakumeek beti egin dute lan, eta eguneroko bizitzaren euskarri ekonomikoa izan dira eta izaten jarraitzen dute. Sektore informaletan emakume proportzio garrantzitsua izateak esan nahi du haietariko askok diru-sarrerara baxuak, Gizarte Segurantzarik ez eta laneko legeen aldetiko babesik ez duela.

Bestalde, mugimendu feministak eta emakumeen autonomia areagotzeak aldatu egin du, funtsean, haiek duten ikuspegia beren buruaz eta gizartean betetzen duten funtzioaz. Maila sozialean, herrialde askotan eraldatu da, funtsean, ikusmolde hori, nahiz eta oraindik mantentzen diren sexuari dagozkion genero-diskriminazio asko eta errotik nekez ken daitekeen androzentrismoa.

Berregituratzeak bai gizonezko bai emakumezko langileen soldata baxuko kontratazioa areagotzea dakar, aldi baterako edo lanaldi partzialeko enpleguetan, kontratu iraunkorrik gabe, eta lan-indar multzo osora zabalduz lehen emakumeen lanaren ezaugarri ziren aspektuak. Erreforma ekonomikoak lan-merkatuetan izandako aldaketekin batera iritsi dira, zeinak bi generoetako langileei eragin baitiete; hala eta guztiz ere, emakumeek kontzentratuta egoten jarraitzen dute, lan-indarraren kategoria babesgabeenetan.

Horrek adierazten du ezkutuko ekonomia edo ekonomia informala deiturikoa, eta baita legez kanpokoa ere, sistemaren egiturazko elementuak direla, haren desbideratzeak edo anomaliak baino gehiago.

---

<sup>48</sup> Industria mota batek jasotzen duen izena, neurri handi batean inportatutako sargaiak eta teknologia erabiltzea ezaugarri duena, zergarik ordaindu gabe, nagusiki tokiko emakumezko eskulana enplegatzen duena, bere produkzioa esportaziora bideratzen duena, eta ez finkatzen den herrialdean bertan merkaturatzera. Mexikon, Erdialdeko Amerikan eta beste herrialde batzuetan aski zabalduko fenomeno da. Jabeak, batez ere, Estatu Batuetako konpainiak dira, nahiz eta japoniarrak eta korearrak ere badauden.

## IMMIGRAZIOA NAFARROAN

XX. mendean zehar, Nafarroara iritsi ziren immigrazio-fluxuak Espainiako estatutukoak ziren. Mendearen amaieratik aurrera, Estatutik etorritakoei Europar Batasuneko edo Erkidegoko herrialdeetakoak, Erkidegoz kanpokoak eta beste kontinente batzuetakoak gehitu behar zaizkie. Nafarroa, Hego Euskal Herriaren eta gainerako Espainiako estatuaren gisara, 90eko hamarkadaren erdialdetik hasita krisia iritsi arte (2008), hazkunde ekonomiko jarraituaren testuinguruak markatu zuen, maila ikusgarriki altuetaraino iritsiz; zenbait sektoretan enplegua izugarri haziz, batez ere, eraikuntzan edo «adreiluarena» deituriko sektorean (Sindominio, 2010).

Egungo krisia gogor ari da zigortzen arlo askotan biztanleria oro har, baina, bereziki, immigrazioa gogorrago. Krisiak sorrarazitako arazo sozial eta ekonomiko guztiak, ordea, ez dira bere ondorio, baizik eta, krisiak agerian jartzen ditu eta sinplifikatu egiten ditu iritsierako gizartean gaudituz ez diren egiturazko arazoetako batzuk.

Foru Erkidego honetako pertsona atzerritarren bolumena ezagutzeaz gainera, haien jatorriari buruzko datuak eskainiko dira, biztanle horiek Nafarroako geografian nola banatzen diren, uneotan zer lanpostu betetzen ari diren, beren administrazio-egoera, krisia nola ari den eragiten beren bizi-baldintzetan, zer zailtasuni egiten dieten aurre, baita migrazio-politiken efektuek arintzen dituzten gizarte-sare eta zerbitzuei buruzko datuak ere.

### 1. Nafarroan atzerritartzat harturiko biztanleria

Atzerritartzat harturiko biztanleriaz ari naiz, estatistika ofizialek hala deitzen bai diete hemen bizi baina Espainiako nazionalitaterik ez duen biztanleei. Espainiako estatuan atzerritar proportziorik handiena duten erkidegoen artean dago Nafarroa. 2009an bederatzigarren lekuan zegoen. Haren gainetik agertzen ziren Balear Uharteak, Valentiako Erkidegoa, Madrilgo Erkidegoa, Murtzia, Katalunia, Kanariak, Errioxa eta Aragoi. Horietako eskualde askok. 2011ko urtarrilaren 1ean, Foru Erkidegoan 77.273 atzerritar zeuden finkatuta, Nafarroako biztanleriaren % 12,04, 641.293 biztanleetatik.<sup>49</sup> Ikerketek eta datu ofizialek erakusten digute itzulera-fluxua, oraingoz behintzat, murrizta dela, migratzaileen artean diren langabezia-indizeak ikusi arren. Ekuadorrek soilik du 246 pertsonako murrizte arina. Gainera atzerritarren sarrerak ez du etenik.

<sup>49</sup> Nafarroako Estatistika Institutua. 2010eko Erroldaren aurrerapena.



*1. Taula. Nafarroan erroldatutako biztanleriaren bilakaera. 1998-2011 aldia.*

	Biztanleria osoa	Biztanleria atzerritarra	%
1998	530.819	4.313	0,8
1999	538.009	5.971	1,1
2000	543.757	9.188	1,69
2001	556.263	19.497	3,50
2002	569.392	30.674	5,39
2003	578.210	38.741	6,70
2004	584.734	43.376	7,42
2005	593.472	49.880	8,41
2006	601.874	55.441	9,21
2007	605.876	55.921	9,23
2008	619.114	64.518	10,48
2009	630.578	70.627	11,20
2010	636.038	70.931	11,15
2011	641.293	77.273	12,04

*Iturria. Biztanleen errolda, Nafarroako Estatistika Institutua. Urtero, urtarrilaren leko datuak.*

Datu horiek baxuagoak dira Nafarroako Gobernuako Erakunde Harremanen Sailak emandakoak baino; azken horrek Osasun Txartel Indibidualaren (OTI) jaulkitzearen arabera eskaintzen baitu etorkinen kopurua.<sup>50</sup>

## 2. Jatorria

Nafarroan 120 nazionalitate baino gehiagotako pertsonak aurkitu ditzazkegu erroldatuta; 2001. urtetik, ordea, ekuadortarrak izan dira gehienago gure erkidegoan. 2005eko urtarrilean Nafarroan biztanle gehien zituzten lau herrialdeak Ekuador, Maroko,

<sup>50</sup> OTI kopurua zerbait altuagoa da erroldak erakusten duena baino; izan ere, OTIren estatistika-erregistroak ez ditu berehala biltzen espainiar nazionalitatearen lorpenak eta geografia-mugikortasuna.

Kolonbia eta Aljeria ziren; guztien artean atzerritarren % 50 baina zertxobait gehiago osatzen zutelarik (% 53,7). Bost urte geroago, Maroko zegoen lehen postuan, hura zen nazionalitate jendetsuena zuena. 2010eko urtarrilaren leian, aldatu egin da nazionalitateen ordena: Maroko, Ekuador, Errumania, Bulgaria eta Portugal dira herritar gehien dituzten herrialdeak orain.

Latinoamerikak osatzen du talderik jendetsuena, eta bera da azken sei urteotan gehien hazi dena. Ekialdeko Europatik etorritako biztanleria, berriz, asko ugaritu da; 2002an atzerritarren % 9,7 adieraztetik 2009an Nafarroan erroldaturiko atzerritarren multzoaren % 22 izatera. Nabarmentzekoa da aljeriarren erroldatzeen jaitsiera; marokoarrek, berriz, ez diote hazteari utzi azken hamar urteotan. Saharaz hegoaldeko Afrikak du ordezkariarik gutxien Nafarroan, eta hura da azken urteotan gutxien hazi dena ere.

2003. urtetik lehen aldiz, Ekuadorrek bigarren postua betetzen du. Horren arrazoiak da jende gutxiago iritsi izana eta itzulerak gertatu izana; baina, batez ere, Ekuadorren jaio eta Espainiako nazionalitatea lortu duten pertsona kopuruak nabarmen gora egiteari zor zaio; beraz, hala agertzen dira estatistiketan, eta legez espainiar izatera igarotzen dira.

*2. Taula. Nafarroan gaur egun ordezkariarik handiena duten herrialdeetako atzerritar kopuruaren bilakaera (1998-2010)*

	<b>1998</b>	<b>2000</b>	<b>2002</b>	<b>2004</b>	<b>2006</b>	<b>2008</b>	<b>2010</b>
Ekuador	18	643	8.273	13.562	13.810	12.003	9.394
Maroko	490	1.300	3.458	4.401	5.921	7.657	9.572
Bulgaria	8	82	1.203	2.206	3.415	5.436	6.485
Portugal	1.043	1.597	2.046	2.221	3.259	5.188	5.892
Errumania	33	193	632	1.410	2.551	5.078	6.585
Kolonbia	114	530	3.972	4.491	4.988	4.624	4.356
Bolivia	2	8	87	438	1.705	3.520	3.216
Aljeria	226	640	2.316	2.585	2.862	2.632	3.125
Besteak	2.379	4.195	8.687	12.062	18.380	18.380	22.306
<b>Atzerritar bizt.</b>	<b>4.313</b>	<b>9.188</b>	<b>30.674</b>	<b>43.376</b>	<b>55.441</b>	<b>64.518</b>	<b>70.931</b>
<b>Bizt. Guztira</b>	<b>530.819</b>	<b>543.757</b>	<b>569.392</b>	<b>584.734</b>	<b>601.874</b>	<b>619.114</b>	<b>636.038</b>

*Iturriak. Nafarroako Estatistika Institutu Nazionala. Biztanleen errolda, urtero, urtarrilaren leko datuekin.*

Ondorengo taulan, sexuaren arabeko migrazio-datuak ikus daitezke. Nabarmentzekoa da Latinoamerikatik, oro har, emakumeek izan direla Nafarroara emigratu duten gehiengoa; Aljeriak aurkezten du, berriz, feminitate-indizerik baxuena, ondoren Portugalak eta Marokok, eta baita Saharaz hegoaldeko Afrikak ere, beste datu batzuen arabera.

*3. Taula. Nazionalitate nagusiak Nafarroan, herrialdeka eta sexuaren arabera, %tan, 2010ean*

	Guztira, herrialdeka	% emakumeak	% gizonak
Maroko	9.572	37,7	62,3
Ekuador	9.394	46,4	53,6
Errumania	6.585	46,7	53,3
Bulgaria	6.485	46,0	54,0
Portugal	5.892	34,6	65,4
Kolonbia	4.356	54,1	45,9
Bolivia	3.216	61,8	38,2
Aljeria	3.125	29,4	70,6
Peru	2.271	51,4	48,6
Brasil	1.867	68,2	31,8
Dominikar E.	1.396	55,1	44,9
Ukraina	1.236	58,8	41,2
Guztira, atzerritar bizt.	70.931	45,6	54,4

*Iturria: Enfoques 7. zk., 2010<sup>51</sup>*

<sup>51</sup> *Enfoques* Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren Buletina da (gaztelaniaz, OPINA Observatorio Permanente de la Inmigración en Navarra), Nafarroako Gobernuko Immigrazioaren Arretarako Bulegokoa.

### 3. Banaketa, lurraldean zehar

Biztanleria lurraldean zehar nola dagoen banatuta erakustea funtsezkoa da fenomeno honen azterketetan, gai askok eskualde- edo herri-mailan lortzen baitute benetako esanahia eta garrantzia. Gure Foru Erkidegoan immigrazioa fenomeno hiritarra da neurri handi batean; izan ere, atzerritar biztanleen erdia baino gehiago (% 52) 10.000 biztanle baino gehiago dituzten Nafarroako bost udalerrietan biltzen da (Iruñea, Tuter, Barañain, Burlata eta Lizarra). Dena den, fenomeno horrek Nafarroako hegoaldeko eremuan duen eragina da bereziki nabarmentzekoa.

Ondorengo taulan, Tuteran eta Erriberagoitin atzerritarrek pisu handia dutela ikus daiteke biztanleria osoaren ondoan. Iruñeak eta eskualdeak Nafarroako guztizkoaren antzeko portzentajea du; Pirinioetako eremuan, berriz, atzerritarren proportzioa ez da % 5era iristen, guztizkoarekin alderatuta.

4. Taula. Atzerritarren proportzioa biztanleria osoarekiko, Nafarroako zonaldeetan. 2009. urtea.

	<b>Biztanleria osoa</b>	<b>Atzerritarren bizt. osoa</b>	<b>% atzerritarrak</b>
Tuterako eremua	88.090	13.910	15,8
Erriberagoiti	59.169	8.143	13,8
Iruñea eta eskualdea	340.875	38.370	11,3
Erdialdeko eremua	32.891	2.870	8,7
Lizarra	37.804	3.098	8,2
Ipar-mendebala	56.782	3.540	6,2
Pirinioak	14.967	696	4,7
Nafarroa, guztira	630.578	70.627	11,2

*Iturria. EIN. Biztanleen Udal Errolda. Behin betiko datuak: 09/01/01*

Aipatzekoa da Nafarroan, Foru Erkidegoaren Administrazioaren pean, babes hartu duten Bidaiderik gabeko Adingabeen talde txiki baten presentzia ere. Zazpi gazte dira, eta gobernu kanpoko erakundeek kudeatutako hiru zentrotan banatuta daude: Nuevo Futuro, Xilema eta Sin Fronteras. Bidaiderik gabeko Adingabeen talde hori oso txikia da, beste autonomia-erkidego batzuetako kasuarekin alderatzen badugu; esate baterako,

EAEEn 3.000 baino gehiago igaro dira azken urteotan adingabeak babesteko zentroetatik.<sup>52</sup>

#### 4. Enplegua

Immigranteek erantzun diote eskulanaren beharra zuen lan-merkatuari, eta gehienez bertako biztanleek betetzen ez zituzten eta ekonomia-ziklo kementsu batean sortutako lanpostu jakinak bete dituzte.

Migratzaileen soldata ez da bertako biztanleen soldataren parekoa. Desberdintasun horren arrazoa, neurri handi batean, atzerritarrek betetzen dituzten lanpostuen ezaugarri espezifikoak dira. Beraz, egokiagoa litzateke lan-merkatuan den lanbide-bereizketaz hitz egitea, eta ez antzeko postuetarako atzerritarren eta bertakoen arteko soldata-diskriminazioaz. Administrazio-erregulartasuneko egoera da nabarmendu beharreko alderdi garrantzitsu bat, eragina baitu soldata-diskriminazio erreal baten eta lan-baldintzen gainean (ordutegiak, oporrak, ordu osagarriak, kotizazioak, etab.). 2009. urteko CCOOren txostenaren arabera, une hartan 16.380 pertsona ari ziren lanean etxeko lanetan Nafarroan; eta haietatik 4.316 soilik ziren Etxeko Langileen Erregimen Bereziaren kide. Horrek adierazten du gainerakoak inolako babesik gabe zeudela. Txosten horren beraren arabera, % 60,6 atzerritarra zen, eta horien artean latinoamerikarrak gehiengoa (% 51,6). % 3,3 besterik ez zen gizonezkoa; beraz, nabarmen feminizatutako eta etnizatutako sektorea dela erakusten du horrek.

Ondorengo taulan ikus dezakegu immigranteen banaketa sektore ezberdinetan. Bi data horiek alderatuta, krisiaren eragina suma daiteke banaketa horretan. Eraikuntzaren sektoreari egin zion kalterik handiena krisiak; hain zuzen, hamabi puntuan jaitsi zen sektore horretan lan egiten zuten immigranteen ehunekoak (2008an % 28,8 izatetik 2010ean % 16,7 izatera). Zerbitzuetan lan egiten zutenen ehunekoak, berriz, sei puntuan egin zuen gora. Industrian eta etxeko lanetan aritzen ziren etorkinen ehunekoak ere gora egin zuela ikusten da; sektore horietan hasi da lanean lehen eraikuntzan aritzen zen populazioaren zati bat.

---

<sup>52</sup> Datuak hemendik jaso dira: *Bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrek Nafarroako Foru Komunitatean*. 2008ko ekaina. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea.

5. Taula. Immigranteen banaketa, jarduera-sektoreka. 2008 eta 2010 urteak.

	<b>2008</b>	<b>2010</b>
Zerbitzuak	% 36,2	% 42,8
Eraikuntza	% 28,8	% 16,7
Etxeko lanak	% 15,7	% 18,4
Industria	% 12,5	% 15,6
Nekazaritza	% 5,5	% 3,7
Besteak	% 0,3	% 2,8

*Iturria: Enfoques 9. zk., 2010eko uztaila*

## 5. Ekonomia-krisiaren eragina

Immigranteak gogor ari dira jasaten krisiaren ondorioak; izan ere, krisi hori ez da soilik ekonomia- edo finantza-krisia, baizik eta krisi egiturazkoa, etikoa eta «zibilizazioari dagokiona» ere bada, Noel Aguirrek<sup>53</sup> zioen moduan. Jakinik immigranteek betetzen dituztela bertako biztanleek azken aukera gisara utzitako lanpostuak, lan-baldintzek eta langabezia-baldintzek zuzenean eragingo dute populazio horren bizitzeko eta harremanak izateko moduetan, eta ezegonkortasun-egoeran eta baztertzeko arrisku bizian jarriko ditu.

Immigranteen % 36,1ak enplegua galdu du: gehiago izan dira gizonak (% 42,9) emakumeak baino (% 30,2). Krisiak ez die eragin modu berean guztiei; sexuaren araberako diferentziak nabariak dira. Langabezia-ehunekorik altuena maskulinizatutako jardueretan (eraikuntzan, bereziki) gertatu da, eta, beraz, emakume immigranteak ari dira krisiaren eragina arintzen. Adibidez, etxeko lanetan —arlotan kontuan izan behar da kontratazioaren irregulartasuna— ez dirudi beste jarduera batzuetan jasaten ari diren eraginik pairatu dutenik. Azaldu beharreko beste kontu bat lan-baldintzak okertzearena da. Nafarroan Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrek elkarrizketatutako pertsonen % 53,9k uste du baldintza horiek okerragoak direla aurreko urteetakoak baino. Sarrera ekonomikoetan izandako murrizketa nabarmenak areagotu egin ditu zorrak eta itzuli ahal izateko baliabide-aukerak (hala aipatzen du % 31,6ak), edo baita epe motzera planifikatuta zegoen familia berrelkartzeko aukera ere. Enplegua galtzeak eragin dion biztanleria horrek zailtasun handiagoak izango ditu gizarteratzeko, enplegua baita iritsierako gizartean sartzeko elementu nagusietako bat (*Enfoques 9. zk.:* 2010).

<sup>53</sup> Boliviako Hezkuntza Ministerioko Heziketa Alternatiboa eta Berezia Saileko ministrordea, 2010eko uztailaren 28an NUPen emandako hitzaldian, UNESCO Katedrak antolaturiko udako ikastaroen barnean.

Immigranteen osasuna «ona» edo «oso ona» da, oro har (% 65). Immigranteek hautemandako osasun-egoeran, ordea, jaitsiera nabarmena gertatu da. Beren osasun-egoera «on»tzat edo «oso on»tzat hartzen duten pertsonen ehunekoa ia % 23 jaitsi da 2008tik, eta osasun-egoera «txarra edo oso txarra» dutela uste dutenena % 5 hazi da bi urtean.

Hipotekak igotzearen eta enplegua galtzearen ondorioz, hamar etorkinetatik batek galdu egin du krisiaren aurretik erositako etxebizitza. Horrek ere atzerapausoa eragin du migrazio-prozesuetan eta gizarte-integrazioan.

Migratzaileen gizarteratzeari ere eragiten dio, murriztu egiten baitu jolas-jarduerak gauzatzea edo haietan parte hartzea. Jarduera horiek garrantzitsuak dira elkartasun-estrategiak eta elkarrekiko babesa eraikitza bideratutako harreman-eremuak sortzeko, eta lagungarriak dira jendea «ondo sentiarazteko» gizarte-harremanak antolatzeke; orain, ordea, kaltetuak dira.

## **6. Paperik gabeko egoeran diren atzerritarrak**

Egoera horretan da dokumentazio-erregulartasunik ez duen pertsona bat, eskatutako legezko baldintzak bete gabe muga igarotzeagatik edo, legez sartu arren, gero onartutako egonaldia gainditzeagatik, edo lan-kontraturik ez izatearen kausaz baimenik ez berritzeagatik.

Egonaldia edo mugako pasabidea, Estatu hartzailearen legeriak ezarritako mekanismoak alde batera utzi dituztenen egoera, eskuarki, zehazgabeak diren edo ñabardura negatiboak dituzten adierazpen bidez izendatzen da; hala nola, legez kanpoko immigrazioa, ezkutukoa, dokumentatu gabea, legez kontrakoa, baimendu gabea edo «paperik gabea».

Nafarroaren kasuan, 2002an bi immigrante zeuden legez kanpoko egoeran dokumentu-erregulartasuna zuen biztanle bakoitzeko; eta antzekoa zen egoera gainerako autonomia-erkidegoetan. 2005ean gauzatu zen ohiz kanpoko azken erregularizazio-prozesua (Estatuan ordura arte izandako handiena), 2393/2004 Araudiaren bidez. Erregularizazio hori gauzatzeko baldintzak izan ziren legez kanpoko egoeran zen etorkinak sei hilabeteko egonaldia betea izatea Araudia aplikatu aurretik, eta bere enplegatzaileak sinatutako lan-kontratu bat izatea, gutxienez sei hilabeteko iraupenekoa; tratamendu espezifikoa zegoen nekazaritzan, eraikuntzan eta ostalaritzan ari ziren langileentzat. Bizileku- eta lan-baimena lortzeko, kontratuaren alta eman behar zen Gizarte Segurantzian eta, horren ondoren, urtebeteko bizileku-baimena ematen zen, beren lan-kontratuan xedatutako epea gorabehera. Erregularizazio-prozesu horrek bide eman zuen Nafarroak aurretik zuen irregulartasun-poltsa nabarmen murrizteko.

Gaur egun, arauzko bizilekua lortzeko biderik zabalduenak ohiko bidea edo enpleguaren eskaintzarena dira; jatorrizko herrialdetik bideratzen da, eta errotze bidez lortzen da iritsierako herrialdean, legez kanpoko egoeran hiru urte igaro ondoren. Nafarroan diren immigranteen erdiak baino gehiagok azken aukera horren bidez lortu dituzte paperak.

Familia berrelkartzea izan da bizileku-baimena (ez lanarena) lortzeko beste bideetako bat. Egun, bide horretatik lortu du bizileku-baimena % 16,6ak.

Baina irregulartasun-tasa altua garai guztietako migrazio-ereduen aspaldiko ezaugarria izan da. Ez da arautzen eskaera egiten duen pertsona oro, eta beti uzten da ehuneko nabarmen bat irregulartasun-egoeran.

Paterek ekarritako immigrazioak sortzen duela irregulartasuna, hori da talde imaginarioak zabalduetako ideia; baina Europarrak dira, EBtik kanpoko pertsonen irregulartasuna indizerik altuena erakusten dutenak. Bigarren lekua boliviarrak eta brasildarrek betetzen dute, eta horiek gainerako oso gaineratik daude paperik gabeko egoerari dagokionez (gutxi gorabehera, hirutik bi), 2005eko erregularizazioaren ondoren iristeagatik.

Nafarroako errolda-datuen eta bizileku-baimenen arteko diferentziak bizileku-baimenik gabe egon litezkeen Erkidegoz kanpoko biztanleriaren kopuru bat erakusten digu; kopuru hori 8.800 izatera iritsi zen 2009ko urtarrilaren 1ean. Osasun-txartel Indibidualetik (OTI) jasotako datuak ere fidagarriak dira<sup>54</sup>, txartel hori bai arauzko etorkinek bai arauz kanpokoek baitaukate.

## 7. Zerbitzu publikoen eta erakunde sozialen sarea

Politika sozialek eremu bereziki sentiberak eratzen dituzte gure demokrazien ikusmolde estrategikoarentzat. Nafarroan, 90eko hamarkadaz geroztik, osasun-laguntzarako eskubideen zabaltze- eta unibertsalizatze-prozesu bat gertatu zen; eta, 2000. urtearen erdialdetik aurrera, lortu zen Foru Erkidegoaren lurraldearen barnean osasun-laguntza publikoa Nafarroan bizi ziren herritar guztiengana zabaltzea, beren administrazio-egoera kontuan hartu gabe.

Bestalde, iritsierako gizarteak migrazioarekin zerikusia duten askotariko instituzio, erakunde eta organizazioak sortu ditu urteotan zehar. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, sindikatuak eta GKEak dira zerbitzu horietako batzuk, eta immigranteek erabiliko dituzte, duten informazioaren eta dituzten beharren arabera. Hamar etorkinetatik gutxienez bederatzik aipatzen dute, besteak beste, UGT, Caritas, ANAFE-CITE, Gurutze Gorria, Gaztelan, CORE eta SOS arrazakeria ezagutzen dutela,

<sup>54</sup> Maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legearen onarpenak honela adierazten du: «Foru Erkidegoko biztanle guztiengana iritsiko da laguntza, beren egoera legezkoa edo administratiboa kontuan hartu gabe».



Nafarroako Gobernuaren ikerketen arabera. Erakunde horietara hurbiltzeko funtsezko helburuak dira beste zerbitzu eta baliabideen informazioa eta aholku-eskaera. Zerbitzu horietara jotzen duten pertsonen enplegua bilatzea, lan- eta bizileku-baimenei buruzko informazioa, dokumentuen kudeaketa edo zerbitzuei buruzko informazioa eskatzen dute.

Nafarroako Gobernuak hitzarmena egin du Gurutze Gorriarekin, immigranteak hartzeko, gizarteratzeko eta lanean sartzeko harrera-egoitza ezberdinetan. Era berean, erakunde horri babesa ematen diote Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Immigrazio eta Emigrazio Saileko Estatuko Idazkaritzak, Enpleguaren Nafarroako Zerbitzuak, Gizarte Ongizatearen Nafarroako Institutuak eta Immigrazioaren Arretarako Bulegoak.

Foru Erkidegoak immigranteek eskuratu ditzaketen eskubide eta zerbitzuei buruzko oinarrizko informazioa duen materiala landu du; baina informazio hori ez da beti iristen behar dutenen eskuetara.

Azkenaldian gizarte-zerbitzuen eskaera gehiago izan dira, eta baita arazo pertsonalen edo familia-arazoen inguruko laguntza-eskaera gehiago ere; horrek adierazten du areagotu egin dela gizarte-bazterketaren arriskua.

Gizarte-zerbitzuak jasotzeko eta Oinarrizko Errentaren tramiteak egiteko edozein biztanlek parte har dezake, bere administrazio-egoera kontuan izan gabe. Honela adierazten du Miguel Laparrak:

Nafarroak barne-irizpideak aplikatzen ditu legez kanpoko pertsonen Oinarrizko Errentarako sarbidea izan dezaten. Baldintza ekonomikoaz gainera, bi urtez Nafarroan erroldatua izatea da baldintza nagusia; erroldatuta sei hilabete daramatzaten paperik gabekoek ere izan dezakete sarbidea, salbuespenezko klausula baten bidez, hiru hilabete zehar, eta beste hiru hilabete ere luzatzeko aukera izanda (Laparra, 2004: 63).

Nafarroak gizarte-baliabide zabalak izan ditu eta, alde horretatik, esan daiteke ez dela diskriminaziorik izan etorkineekiko; gaur egun, ordea, badira zenbait murrizketaren zantzuak, eta, banaketa bidezkoa izan dadin, zerikusi handia izango dute baliabide erabilgarriak ahultzeak, edo banaketarako edo esleipenerako erabilitako irizpideek. Izan ere, diskurtso politikoan, gizarte-zerbitzuen gaiari dagokionez —Paco Rodak baieztatzen duen gisara—, norbanakoak bere patuaren jabe izan behar du; eta jabe izatea lortzen ez duenari bazterketaren edo autobazterketaren errua egozten saiatzen dira, eta erantzule egiten; ondorioz:

Alde batetik, desegituraketa sozial, ekonomiko eta lanekoaren prozesuak naturalizatu egiten dira. Hau da, neoliberalismoak kudeatu beharreko dinamika erantsi gisara hartzen du biztanleria —bereziki, ezegonkortasun-prozesuak eta bazterketa endemikoa gehien jasaten duen hura—, bazterketa, pobrezia edo

gaitasunak mugatzearen aipatutako prozesuak naturalizatzearen eta saihestu ezinaren ikuspuntutik (Roda, 2010).

Rodak beste pertsona batzuekin batera, lan egoera kontuan hartu gabeko, Oinarrizko Errentaren inguruko proposamenak egiten ditu, zeinek analizatuak eta eztabaidatuak izatea merezi duten. Merkatu finantzieroen kontrolak lagun lezake horren finantziaketan edo ongizate-estatuaren birmoldaketa soila ere aski izango litzateke. Borondatea besterik ez da falta.



Iruñean, 50 pertsona baino gehiago kalean bizi dira, eta atarrietan eta kutzazainetan egiten dute lo. Udalak badu etxerik gabeko pertsonak hartzeko zentro bat. 2011eko martxoan inauguratu zen zentro hori Trinitariosen dago; harrera-zentro bat eta gauerako aldi baterako ostatua da, etxerik ez dutenentzat edo lortu ezin dutenentzat eta oinarrizko behar horiek betetzeko baliabiderik ez duten pertsonentzat. Orain arte egindako jarduerak hiru programa desberdinetan biltzen ditu: Caparrosoko txaletean zegoen «A cubierto» zentroa, eta Caritasekin hitzartutako zentroak, San Fermingo eta Isabetelgo aterpetxeetan. Martínez de Lizarrondoren ikerketen arabera, Ekialdeko Europako eta Magrebeko biztanleek erabiltzen dituzte gehienbat. Beharbada, laguntza-sare nahikorik gabe iristen diren taldeak direlako izango da; izan ere, Latinoamerikatik datorrenak gizarte-sare gehiago izaten ditu, eta babes handiagoa aurkitzen du bere komunitatearen barnean (Martínez de Lizarrondo, 2009).

Etxebizitza bat lortzea da gizarte-arazo orokorretako bat, eta are gehiago etorkinen kasuan, haien lan-baldintzak eta baldintza ekonomikoak direla-eta. Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako (BOE) sarbidea, printzipioz, etxebizitzaren babes publikorako 8/2004 Foru Legeak bermatzen du; bertako biztanleriak du lehentasuna eta etorkinakak sartzea baztertu egiten du. Erroldatzeko erabilitako mekanismoak lehentasuna ematen die Nafarroan zazpi urte baino gehiagoan etenik gabe bizi direnei. Beste kontzeptu batzuen bidez egindako puntuazioaren baturak indargabetu egiten ditu beste behar batzuk eta, ondorioz, etorkinak kanporatu egiten dira *de facto*. Paperik gabeko pertsona batek etxebizitza publikorako zozketan parte hartzeko aukera izan lezake erroldatuta bi urte betez gero; praktikan, ordea, diru-sarreraren justifikaziorik ez badu ez du aukera hori izango, legez ez baitu ez lan-kontraturik ez aurrezki-libretarik izango. Atzeritarrei emandako BOE portzentajea, 2001-2010 denbora-tartean, guztizkoaren % 6,5 izan zen, eta erositakoak % 5,5 (*Enfoques* 12, 2011); datu hori ez dagokio beste leku batzuetatik etorritako biztanleen ehunekoari.

Zenbaitetan, iritzi publikoan, jarrera negatiboa sortzen da immigranteekin banatutako gizarte-baliabideengatik. «Immigrazioak gastu sozialean duen eragina imaginario sozialak uste duena baino txikiagoa da» (*Enfoques* 12, 2011). Hain zuzen ere, etorkinek eurek ematen eta eskaintzen dizkiete zerbitzuak, askotan, bertako biztanleen artean mendekotasuna daukaten pertsoneri.

Uste da, herrialdera duela gutxi iritsi izanagatik, immigranteek bertako biztanleek baino eskubide gutxiago dituztela; eta, ondorioz, ez da egoki ikusten haiek gizarte-baliabide berdinekin indarrak neurtzea (Martínez de Lizarrondo, 2009: 24).

Ez da begiesten legez kanpoko egoeran dauden pertsonen EINEko prestakuntza-ikastaroetan parte hartzerik. Sindikatuek eta CORE Fundazioa<sup>55</sup> dira zenbait ikastaro eskaintzen dizkietenak paperik gabeko biztanleei.

Modu horretan EBn modu iraunkorrean finkatzea erabaki duen immigrazioak erronka berriak planteatzen ditu, migratzaile langileen eta haien familien integrazioarekin zerikusia dutenak; horien artean nabarmentzen dira, lan-eskubide, eskubide ekonomiko eta sozialez gainera, Erkidegoaz kanpoko etorkinek politikan parte hartzea eta, oro har, Europako herritartasunaren edukiaren parte diren eskubideak eskuratzea (hala nola, zirkulaziorako eta kokatzeko askatasuna, EBko lurralde osoan zehar).

---

<sup>55</sup> CORE Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, egoitza Nafarroan duena, eta immigranteei laguntzen die integrazio-programen bidez. Enpresek eta enpresaburu partikularrek sostengatzen dute, nagusiki, ekimen hori.

## 8. Hezkuntza

2009-2010 ikasturterako Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak eskainitako datuen arabera, Foru Erkidegoan atzerritarren seme-alaba diren ikasleen ehunekoa, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasle guztien gainean, % 10,5a zen; Estatu-mailako batez bestekoa baino ia puntu bat altuagoa (% 9,6). Aipatzekoa da nolabaiteko baliokidetasuna dagoela oro har biztanleria atzerritarren portzentajearen eta atzerritar jatorria duen ikasleriaren artean; eta jatorri atzerritarrekoa diot, asko baitira hemen jaioak eta, beraz, atzerritartzat hartu behar ez liratekeenak, OPINAREN<sup>56</sup> txostenak hala eman arren (*Enfoques* 12, 2011).

Txosten horrek berak ikasleen jatorriari buruz diotenaren arabera, erdia baino zertxobait gehiago Latinoamerikatik dator (% 56); haren azpitik agertzen da Afrika (% 20) eta EB (% 19). Herrialdekako ikasleen jatorriari dagokionez, Ekuador da buru 3.220 ikaslerekin, ondoren Maroko 1.629rekin, Kolonia 1.078rekin eta Bulgaria 699rekin.

2009/2010 ikasturtean, % 59 lehen hezkuntzako zikloetan matrikulatua zegoen, % 28,1 DBHn, % 3,2 Batxilergoan, % 4 Lanbide Heziketan, eta % 0,7 Hezkuntza Berezian. Ikastetxearen titulartasunaren arabera, % 79,8 ikastetxe publikoetan dago, eta gainerakoak ikastetxe hitzarmenduetan.

Hizkuntza-ereduaren aukeraketari dagokionez, 2009/2010 ikasturtean, % 83,7k irakaskuntza soil-soilik gaztelaniazkoa aukeratu zuen, G ereduaren bidez; % 10,9 A ereduaren matrikulatu zen (euskara ikasgaia izanda); % 4ak eredu eleaniztunen alde egin zuen (British eta TIL)<sup>57</sup> eta, azkenik, % 1,6a D ereduaren matrikulatu zen (soilik euskaraz) (*Enfoques* 12, 2011). Horrek agerian jartzen du hizkuntza-eredua aukeratzekoan alde handia dagoela immigranteak eta bertako biztanleak alderatuz gero; bertako biztanleen kasuan, hauek dira datuak: % 45,01 G ereduaren, % 15,07 A ereduaren, eta % 22,04 D ereduaren. Horrek eztabaida egitera garamatza, etorkizunean seguraski izango ditugun gizarte-kohesioa arazoaren inguruan; izan ere, Mario Zapatak idatzi zuen gisara:

Jakina den bezala, hizkuntza, alde komunikatibotik haratago, edo alde komunikatiboarekin batera, jendartearen kohesio-elementu garrantzitsuenetarikoa ere bada (Zapata, 2006: 53).

Autore horrek integratzaileko politikak gauzatu beharra azaltzen du atzerritar deituriko edo jatorri atzerritarreko biztanleria horrekin; izan ere, kasu bakoitzean behar jakin batzuk eta askotariko ezaugarri espezifikoak dituzte; eta autoreak jarraibideak ematen

<sup>56</sup> Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra.

<sup>57</sup> TIL da «Hizkuntzen Tratamendu Integratuaren» akronimoa, gaztelaniaz. Duela gutxi sortutako eredu da, eta gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz ematen da.

ditu bai harrera-protokoloetan bai kultura-aniztasunaren eta kulturarteko hezkuntzaren kudeaketan lan egiteko, bazterketa-elementu izan daitezkeenak saihestuz, eta beti euskara eta gainerako hizkuntzak aitortzetik abiatuz.

Bestalde, ikusten da atzerritar jatorriko ikasleria ez dela bidezko moduan banatzen ikastetxe publikoetan: Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-politikek espazio-segregazioa eragin dute. Hogei ikastetxetan % 25ak jatorri hori duela ikus dezakegu, beste hogeitan % 40ak, eta zortzi ikastetxetan, berriz, % 80ak baino gehiagok. Datu horiek administrazioaren erantzukizun eza erakusten dute, eta hori horrela izatea ahalbidetzen edo sustatzen dute, gizarte-integrazioa zailduz eta balizko gatazken erdigune izanez. Era berean, kudeaketaren erantzukizuna ikastetxe horietako Zuzendaritzaren eta irakasleen esku uzten da, beren heziketa-lana gauzatzeko nahikoa babesik eman gabe.

## NIKARAGUARI BURUZKO HURBILPEN BAT

Nikaragua Erdialdeko Amerikako herrialdea da, 130.668 km<sup>2</sup>-ko hedadura du eta, egun, 5.751.000 biztanle ditu. Historian zehar, emigrazio-herrialdea izan da eta, egun, biztanleria osoaren % 22,64 bizi da bere lurraldetik kanpo. Nikaraguako gizon-emakumeek sakon errotuta dute beren herrialdea, hiria, herria eta baita auzoa ere. Oro har, nikaraguarrak turista, ikasle edo merkatari gisara ateratzen ziren beren herrialdetik, baina, ia beti, itzuli egiten ziren beren herrialdera. Fenomeno naturalek eta egoeraren arabera eragindako gertakari bortitzek nahasi egin zuten jokabide hori, hala nola, 1972ko lurrikarak, laurogeiko hamarkadako gerrak eta XX. mendearen azken urteetan bizkortu zen ekonomia-krisiak; milaka nikaraguar behartu zituen horrek beren herrialdea, beren hiria, beren herria, beren auzoa, beren familia eta beren lagunak uztera.

Gertutasunagatik eta familien arteko loturengatik, Costa Rica izan da norako pribilegiatuenetakoa eta garrantzitsuenetakoa, kopuruari dagokionez. Bere migrazio-dinamika aldatu egin da formaz eta neurritz, baina loturak iraun egin du bi herrialdeen historian zehar.

1975 eta 1979 urteen artean, Askapenerako gerra zela-eta jende asko atera zen herrialdetik. 1979 eta 1980 urteen artean, aldiz, Fronte Sandinistaren iraultza-garaipenetik eta Somoza kanporatu zutenetik aurrera, biztanleria horren zati handi bat itzuli egin zen Nikaraguara. Urte gutxiren buruan, «contra»<sup>58</sup> deiturikoen gerrarekin beste migrazio-fluxu bat hasi zen, prozesu iraultzailearen norabidea arbuiatzeak eta gatazka armatuaren biolentziak eraginda, eta horrek egoeraren noranzkoa aldatu zuen. Handik aurrera, Estatu Batuek bete zuten lehen postua nikaraguarrak hartzen. Aldi horrek ezaugarri izan zuen faktore ekonomikoek eragindako emigratortik faktore politikoek eta ideologikoek eragindako emigratorako aldaketa, gatazka militar altuko oinarria zuenerakoa, hain zuzen.

Nikaraguan 1990ean izandako hauteskundeen ondoren, Gobernu Sandinista erori eta liberalen garaipenarekin, faktore politiko-ideologikoek eragindako emigratioa ezaugarri izan zuen aldia itxi zen. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, migratzaile ugari itzuli zen Costa Ricatik eta Estatu Batuetatik; esperantza jarria zuten erregimen-aldaketan, bake-prozesuan eta herrialdearen egoera politiko berriaren garapenerako promesetan.

Milaka nikaraguar itzuli ziren epe labur hori igaro ondoren, bakea lortu arren egoera ekonomikoak ez zuela hobera egiten ikustean, 1993an beste emigratio-aldi bat abiatu zen. Berrito ere Costa Rica zen norako nagusia, Nikaraguak baino baldintza ekonomiko eta sozial askoz hobeak baitzituen. Dr. Luis Rosero Bixby (2004) Costa

<sup>58</sup> «Contra» deiturikoak, kontrairaultzaileak edo «askatasunaren aldeko borrokalariak», Etxe Zuriko terminologiaren arabera; Estatu Batuek finantzatzen eta zuzentzen zituzten.

Ricako demografoak adierazten duenez, migrazio-fluxu berri hori enplegu publikotik, armadatik edo nekazaritzatik lekualdatutako norbanakoez elikatu zuten. Zati handi batek aldi baterako dinamikak erakusten zituen (3 eta 11 hilabeteren artean), edo erdi aldi baterakoak (urtebete edo bi urte). Nagusiki nekazari-eremuetako gizon-emakumeak joan ziren, oinarrizko ikasketak zituztenak. Migratzaile horiek mota guztietako lanak egin zituzten Costa Ricako nekazari-eremuetan eta hirietan. Gaur egun, Costa Rican 800.000 nikaraguar inguru daudela jotzen da; haietako batzuk sartuz eta ateraz dabilta uzta-garaiaren arabera.

Laurogeiko hamarkadan, iraultza-prozesuak erakarrira, herrialde askotako jendea iritsi zen Nikaraguara, eta zuzenean Gobernuaren erakundeetan edo erakunde pribatuetan elkarlanean hasi ziren, Internazionalista deitu zitzaizkien, eta haiekin lan egin zuten elkar harturik.

Nikaragua ahularen aurka, handituz zihoan yanquiar agresibitateak, euskal internazionalismoaren alarma guztiak piztu zituen. Baliteke erasotutako bi herrialdeen arteko elkarulertzeak sutzea argizaria. (...) Iraultzaren urteurreneko egun handian ohitura zen Uztailaren 19ko plazan ikurrinez apaindutako ikuspena agertzea. (...) Topaketa haiek konplizitate xarmangarriak ehotu zituzten (Valencia, 2011: 55).



Aldi hori amaitu zenean, gehienek utzi egin zuten herrialdea. Aldi berean, beren postu politiko eta administratiboak galdu zituzten funtzionario sandinistek ere, nazioarteko pertsona eta erakundeekin sortutako harreman guztiez baliatuz, beren GKEak sortu

zituzten, atzerriko funtsetan babes hartuz. Horrela sortu ziren nazioarteko laguntza biltzera bideratutako erakundeak. Jende militante, borrokalari, buruzagi eta ezkerreko profil politikoarekin edo joera sozialistekin identifikatutako horrek bide eman zien teknokrata izaerako bitartekarie; horiek bihurtu ziren proiektuen kudeatzaile, eta beren gain hartu zituzten estatu neoliberalak alde batera utzitako funtzioak. Enpresa kapitalistenekin pareka daitezkeen funtzionamenduak hartu zituzten, kanpoko agentziak inposatzen ari ziren kriterioen eta eskakizunen aurrean.

Nikaraguan sandinistek gobernu-boterea galdu ondoren zegoen giroa izugarritzko ziurgabetasunekoa zen. Proiektu kolektibo eta sozial batean sinetsi, gobernuaren babesa eta laguntza izan, eta gogo handiz (askotan beren bizitza arriskuan jarriz gatazka armatuan) lan egin zuten militante sandinistak, babesik gabe sentitu ziren ondo-ondoko garaietan. Gobernu berriak bazterrean uzten zituela sentitu zuen biztanleriak bere baitan, eta bakoitzak bere irtenbideak bilatu zituen; utzi egin zioten baldintzarik gabe lan egin zuten partidu harengan konfiantza izateari. Aldi berean, nazioartean, Berlingo Harresia erori zen, eta SESB eta sozialisten eremua desegin egin ziren; zeinekin Nikaraguak harreman estua izan zituen. Horren guztiaren ondorioz, sistema politiko-sozial berri baterako aukeraren ilusioari eusten zion jende orok ate hori itxi egin zela sentitu zuen, gidatzen zituen argia itzali egin zela, eta nahasmenduz beteriko aro batean sartzen zirela. Ekialdeko herrialde horietan hartu eta prestatu zituzten ikasle eta profesionalak itzuli egin ziren; jakiturik gobernu berriak ez zituela balioetsitzen haien tituluak.

Horren guztiaren ondorioz, herrialde txiki horretan GKE ugari sortu ziren. Erakunde berri horiek arrazoi soilki pertsonalen ondorioz sortu ziren, funtsak bilatzuz bizirauteko eta horretatik bizitzeko. Ez ziren sortu komunitateen arazoak konpontzeko, baizik eta lan bat eta soldata bat izateko. Horren ondorioz, beste herrialde askotan bezala, gizarte-mugimendu asko GKE bihurtu ziren.

Sistema kapitalistak periferiako gizarteetan eragin duen krisiaren ondorioz, Nikaragua pobretutako nazio bat da; funtsean nekazaritzako produktoen esportatzaile den menpeko ekonomia bat dauka, lau produktu nagusi hauetan oinarritzen dena: kafea, kotoia, kanabera-azukrea eta haragia; eta prezioen nazioarteko gorabeheren menpe daude produktu horiek. Botere-harremanen jardueran, kultura autoritario batera lotua dago, bizitzaren hainbat alderditan: politikoan, ekonomikoan eta ideologikoan. Egiturazko doitze-programek, laurogeita hamarreko hamarkadan eta milurteko berriaren lehen urteetan molde neoliberalerako politika ekonomikoek bideratzeak, txirotasun handiagoa sortu dute, enplegua motel sortzeagatik, lan-merkatuaren ezegonkortasunagatik eta, oro har, biztanleriaren erosteko ahalmena galtzeagatik; gizon-emakumeek beren oinarritzko beharrak asetzeko mugatzaile bihurtuz. Urte hauetako gobernuak abantailatu egin dituzte atzerriarekiko merkataritza-harremanak, kontsumo nazionalerako baliabide naturalak baliatzeko barne-merkatu bat eratzearen aurka.

XX. mendearen azken urteak «bartzertze-aro»tzat har daitezke; horrenbestez, argi geratzen da «merkatu libreak», neurri handi batean lehentasun politikoak, sozialak eta ekonomikoak zehazten dituenak, ezin duela mundu guztia barnean



hartu, merkatua gutxiengo baten onurarako aritzen baita. Langabezia orokortu egin da, bizi-baldintzak ezegonkortu, Estatuaren laguntza-sistema eraitsi, eta pobrezia bizkor hazten ari da (Montenegro, 2000: 215).

1990-2006 urteen artean nagusi zen sistema neoliberalak ez zion batere mesederik egin biztanleriari. Osasunaren eta hezkuntzaren oinarrizko zerbitzuak pribatizatzeak gehiengoa are gehiago txirotzea ekarri zuen. Merkataritza Libreko Tratatuak (gaztelaniaz, TLC) aukera ireki zien industriei, baina prezioak negoziatzeko desabantailan ziren. Garapen-eredu horrek areagotu egin zituen gutxi batzuen eta besteen arteko diferentzia ekonomikoak. Alderdi batzuei zegokienez, ordea, zerbait positiboa hauteman daiteke; izan ere, testuinguru globalizataileak eta komunikabideak hedatzeak —hala nola, Internet edo telefonia— munduko beste alde batzuk gehiago ezagutzeko aukera eman dute, informatuago egotekoa, beste jende batekin eta beste garapen-eredu batzuekin harremanak izatekoa eta, batez ere, geografikoki urrun dauden familiakoengana hurbiltzekoa.

Herrialdeko egitura sozioekonomikoari dagokionez, Garapenaren Informazioko Institutu Nazionalaren (gaztelaniaz, INIDE) txostenen arabera, 2005ean Nikaraguan pobrezia orokorra % 48,3 zen; hau da, 2,5 milioi pertsona behartsuak ziren, eta horietatik % 17,2 muturreko pobrezian zeuden. Alegia, % 17,2 hori hilean 14,8 dolarrekin bizi zen, eta gainerako % 31,1 hilean 27 dolarrekin (596,2 C\$). Biztanleria osoaren % 44 nekazari-eremuan zegoen. Muturreko pertsona pobreen % 73 nekazaritzan ari zen; hori zen herrialdean enplegu gehien sortzen zuena, enplegu osoaren % 30a, hain zuzen.

Muturreko pobrezia-egoeran den biztanleriaren oinarrizko zerbitzuek estaldura-maila oso baxuak aurkezten dituzte: muturreko pobrezian diren etxeen laurdenak (% 26,5) hoditeria bidez lortzen du edateko ura; gainerako hiru laurdenek (% 73,5) iturri askotatik lortzen dute, hala nola putzu publiko edo pribatuetatik, errekatik, haitzarteetatik edo beste etxebizitza batetik. Maila horretako % 1,2k du, ozta-ozta, komuna beren etxebizitzan; % 72,5ek letrina bat du, eta % 26,3k ez du inolako osasun-zerbitzurik. Muturreko etxebizitza pobreen heren batek (% 32,3) soilik du energia elektrikoaren sare-zerbitzua; gainerako % 67,7ak ez du zerbitzu hori, eta beste argiteria mota batekin egin behar izaten du argi (kriseiluak, kandelak edo, zenbait kasutan, *ocotea*<sup>59</sup>) (INIDE, 2005).

Iraultzaren erorketak eta laurogeita hamarreko hamarkadan gertatutako aldaketak gerratik bakerako trantsizioa adierazi zuen; erortzear zen ekonomia baten tartean, gatazka ekonomiko, politiko eta ideologiko gatazka zorrotzen aro batean, gainera ekonomia estatista batetik merkatu librerako igarobide laster batean gertatu zen trantsizio hori. Horrek guztiak amaiera eman zion Nikaraguan politikaren aro heroikoari eta eraldaketaren mitoan irudikatutako amets publikoari. Aldaketen hamarkada baten ondotik, Estatuaren eraistek,

---

<sup>59</sup> Piñu adarra

ekonomiaren desarautzeak, politikarien ospe-galerak eta gizartearen desintegrazioak, krisi politikoa eragin dute (Montenegro, 2000: 221).

2006an FSLN (Nazio Askapenerako Fronte Sandinista) berriro ere estatu-boterera itzuli zenean, Nikaraguan aurkezten den ekonomia-eredua ALBAko (Alternatiba Bolivarianoa Ameriketarako) herrialdeetako eredua da; Venezuelak, Kubak eta Boliviak bultzatutako integrazio-proiektua da eta Nikaragua 2007ko urtarrilaren 11tik aurrera (Daniel Ortegak Gobernuko presidentetza hartu eta handik gutxira) partaide egin zen. ALBA proiektua lankidetzan, elkartasunean eta herrialde kideen osagarritasunean oinarritzen da, eta kapitalismoaren alternatiba den garapen-eredua du. Oraaindik finkatu gabeko proiektua, erreferente moduan gobernua duena eta ez Estatua.

2006an gizon-emakumeen kanpo-migrazioei buruzko datuek adierazten dute ehun emakume emigrantetik berrogeita hamaikak Costa Rica hartu zuela helmuga-herrialde, hogeita bik Erdialdeko Amerika, hamabostek beste herrialde batzuk, eta hamaikak Estatu Batuak. Gizonen kasuan, emigratu zuten ehunetik berrogeita hemeretzi Costa Ricara joan ziren, hamasei gainerako Erdialdeko Amerikara, hamalau Estatu Batuetara, eta bederatzi beste herrialde batzuetara. Beraz, aurrez aipatu den bezala, biztanleria osoaren % 22,64 osatzen dute horiek guztiek (INIDE, 2005).

## 1. Kafea Nikaraguan

Kafea garrantzi handiko oinarrizko produktutzat hartzen da munduko ekonomiarentzat. 2001ean nazioarteko «kafearen krisia» hasi zenera arte, kafea zen merkatuan baliorik handiena zuen bigarren produktua petrolioaren ondoren. Ale hori munduan zehar hirurogeita hamar herrialdetan baino gehiagotan ekoizten da; horietatik berrogeita bost Kafearen Nazioarteko Erakundeko (gaztelaniaz, OIC) kide dira eta, oro har, kafearen munduko ekoizpenaren % 97 ordezkutzen dute.

Datu horietatik abiatuta, ez da zaila ondorioztatzea nazio askoren ekonomia, neurri handiagoan edo txikiagoan, kafea ekoizteko eta esportatzeko duten gaitasunean oinarritzen dela. Enpresa transnasionalek kontrolatzen dituzte, ordea, zikloaren fase errentagarrienak: prezioak finkatzea, industria-prozesamendua eta banaketa. Herrialde esportatzaileek, berriz, Brasilek izan ezik, ekoizpenean, oinarrizko tratamenduan eta *ale gorriaren* (kafearen) salmentan soilik parte hartzen dute. Nikaragua ez da salbuespena.

Berrogeita hamarreko hamarkadan, kafea eskala handitan lantzen hasi ziren Nikaraguan; 1950 eta 1970 urteen artean esportazio-produkturik garrantzitsuena izan zen. Gerra zela eta, ekoizpenak zertxobait behera egin zuen laurogeiko hamarkadan; baina, artean, urteko 210.000 hektarea ekoizten zituzten. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, herrialdean gehien landutako hedadura izaten jarraitzen zuen. 1994an lortu ziren preziorik altuenak, 165,51 dolar kintala (45,45 kilo), hain zuzen.

1999an nazioarteko prezioa 145 dolarrera jaitsi zen, 2000n 94,58 dolarrera, eta 2001ean 58,86ra amildu zen, neurri batean, Vietnameko gainekoizpen baten ondorioz. 2003az geroztik prezioak errekuperatzen hasi ziren; 65,24 dolarrera iritsi ziren eta, handik aurrera, goranzko joera izan du; kafe kintala, batez beste, 79,53 dolar zen 2004an, 111,38 dolar 2005ean, 112,30 dolar 2006an, 121,83 dolar 2007an, eta 137,03 dolarrera iritsi zen 2008an; Kafearen Nazioarteko Erakundearen berrien arabera, ordea, ez zen iritsi, maximo historikoetara (*La Prensa*, 2010).

Milurteko berriaren lehen urteetako krisi horrek hondamen lazgarria eragin zuen Nikaraguako nekazari-eremuan; eta beste sektoreei ere eragin zien, hala nola industriari eta merkataritzari; bitartean, petrolioaren prezioek gorantz jarraitzen zuten. Hori izan zen Nikaraguako migrazioaren arrazoi garrantzitsuetako bat.

## 2. Kapitalismoa eta globalizazioa

Berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera, Gerra Hotzaren erdi-erdian, «amerikar» bizitza-ereduaren eragina lortu beharreko garapen-eredu gisa txertatu zen, helburu gisa klase ertaineko familien zati batentzat. Modernoa (amerikartua) ez zen herrialde oro, tradizionaltzat (ez amerikartutzat) eta, beraz, atzeratutzat hartzea ekarri zuen horrek.

Amerikartasun-ezaugarri estandarizatutako nazioartekotzea elementu komuna da Hirugarren Mundu deituriko herrialdeetako, eta batez ere Latinoamerikako herrialdeetako biztanleen garapenean eta eguneroko bizitzan. Coca Cola, McDonalds eta *made in USA* pelikulekin hazi diren belaunaldiak miresmenez begiratzen dute herrialde hartarantz. Helburua iparraldera iristea da. Hara iristea helburu da, bere horretan. Hobetzeko leku posible bakarretakoa da. Globalizazioa integratzen eta bereizten den prozesu bat da. Amartya Sen-en hitzetan:

Globalizazioak asko du eskaintzeko, baina, defendatzen badugu ere, haren kontra egiten dutenek agertutako galdera askoren zilegitasuna ere ikusi behar genuke, kontraesanen erori gabe. Galdera horiek iradokitzen dituzten kezka etiko eta gizatiarrek, ordea, akordio nazionalak eta mundu-mailakoak, egokiak diren serioski balioestea eskatzen dute (Sen, 2008).

Azken urteotan, kapitalismoaren bilakaerak eta ekonomien globalizazioranzko joerak bultzatu dituzte migrazio-fluxuak, eta gero eta zabalagoa eta urrunagoa den etorkizun batean bilatu dituzte bizitza-aukerak. Aukera gehiago dituen arlo hori teknologiaren bilakaera kualitatiboki guztiz azkarraren hainbat eremutan oinarritzen da; hala nola, informatikan, komunikazioan eta garraioan, zeinak bereiztearen kostu ekonomikoak eta psikoafektiboak murriztu baititu; eta baita nagusiki migrazioarako informazioa eta loturak errazten dituzten migratzaile aitzindarien gizarte-sareetan ere. Errealitate horren

eta ekonomia-krisi serio eta errepikarien esparruan sortu dira, Nikaraguako kasuan, egungo emigrazioarako baldintza aproposak.

Gaur egun, munduko ekonomia-sistemaren bilakaera ekonomiko gorabeheratsuaren ondorioz, migrazio-korrante sendoak sortu dira herrialdearen barnealdera eta kanpoaldera, garatzerik lortzen ez duen ekonomia baten jabe diren Nikaragua eta antzeko herrialdeetan; herrialde horiek ez dute gaitasunik lan-merkatuan sartu nahi duen eskulana hartzeko, eta biztanle ugari bizi dira muturreko pobrezia-mailan. Joan den mendeko migrazio-fluxuen kontrara, ordea, gaur egungo migratzaileek ez dute harrera onik herrialde hartzaileetan, lanean sartzea eta gizarteratzea erraztuz; alderantziz, diskriminatu eta esplotatu egiten dituzte, eta haietako gehienek legez kanpoko egoeraz baliatzen dira (Agurto, 2003).

Migrazio-prozesu horrek baditu nabarmentzea merezi duten ezaugarri bereizgarriak, herrialdean aurrez izandako emigrazioaren aldean. Nikaraguatik laurogeita hamarrek hamarkadan irten zen migratzaile-bolumenik handiena, eta, bereziki, 1995 eta 2000 urteen artean. Ekonomia Soziala Planifikatzeko Kontseilu Nazionalak, emigrazioari buruz egindako berariazko ikerketa batean, biltzen du laurogeiko hamarkadan kanpoan erroldatutako nikaraguarrak biztanleriaren ehuneko 3,14 soilik zirela. 2000n ehuneko hori 12,4 zen. 2002an herrialdeko biztanleriaren % 16,5 zen eta, gaur egun, gutxienez % 22,64<sup>60</sup>. Zalantzarik gabe, Amerika osoko ehunekorik altuenetakoa da. Migrazio-bideari behar ekonomikoengatik, beren bizitza-kalitatea eta beren familia goratzeko estrategia modura, edo beste aukera batzuk bilatzeagatik ekin dioten pertsonak dira.

Emigrazioaren norakoari dagokionez, nabarmentzekoa da gaur egungo askotarikotasuna. Gizon-emakumeek antzeko joera agertzen dute helburu-herrialdea aukeratzeko; aitzitik, azken lau urteetako joerari erreparatuta, kopuru esanguratsu bat ageri da. Egia da Costa Ricaranzko emigrazioak indartsua izaten jarraitzen duela, baina gainerako Erdialdeko Amerikan ere migrazio-txoko berriak agertu dira, bereziki Guatemalan; emakumeak dira herrialde horretara gehien joan direnak. Espainiako estatua da azken urteotako beste helburu-herrialdeetako bat.

Hirugarren lekuan, migratzaile gehienak gazteak direla aipatu behar da. Laugarrenean, emakumeen parte-hartzea asko areagotu dela. 1995etik aurrera, nabarmen bizkortu da emakumeen mugimendua; guztizkoaren % 52 atera zen herrialdetik aldi hartan. Orduetik aurrera, ez da eten goranzko joera hori. Horrek faktore askorekin du zerikusia: emakume langileen nazioarteko eskaera bat egotea —hala nola, Costa Ricaren eta Espainiako estatuaren kasuan— eta familiek arriskuak beren gain hartzeko prestasun handiagoa izatea —emakumeen rol berrien eskutik dator hori—. Bosgarren lekuan, Nikaraguako emigrazio garaikideak zerikusi handia dauka familiako ekonomia-estrategia batekin. Batetik, emigrazioak familiako kide bat baino gehiago

<sup>60</sup> Migrazioarako Nazioarteko Erakundeari (OIM) dagokion Migrazioaren Zuzendaritzako Erdialdeko Amerikako Batzordearen (OCAM) datuak.

lotzen ditu eta, bestetik, banakako erabakiak ere badiren arren, oso garrantzitsua da familiaren onspena eta babesa, termino ekonomikoetan eta ekonomiaz kanpokoetan.

Aipatzekoa da, baita ere, kanpora migratzen dutenak ez direla behartsuenak; diru-sarrera jakin bat, lan-esperientzia eta kalifikazioa dituen jendeak migratzen du. Beraz, bizirauteko estrategia bat baino gehiago, emigrazioa beste aukera batzuen bila mugitzeko familia-estrategia da. Aldi berean, biztanleria mugiarazten duten harreman-sareak sortzen dira; izan ere, emigratutako familiaratekoak baldintzak sortzen dituzte geroago iritsiko diren beste batzuk hartzeko.

Begien bistakoa da, teknologia hobekuntzei esker, nazioarteko testuinguruak baldintza egokiak sortu dituela migrazioarentzat. Prozesu horri lagundu diote, baita ere, jatorri- eta helmuga-herrialdeen arteko harremana errazten duten komunitate transnazionalen presentziak sendotutako migrazio-sareek, nazioarteko merkatuetako zokoetan den lan-eskaerak, globalizazioak moldatutako kultura-alderdiek eta, aurreko migrazio-prozesuen ondorioz, bizitza-imaginarioak eta gizarte-mugikortasuna definitzen dutenek.

Bere ezaugarri eta aktoreetatik haratago, migrazio hori bereziki garrantzitsua da, ez soilik eragindako familia eta komunitateei dagokienez, baizik baita nazio-mailan ere, mugitutako biztanle kopuru handiagatik eta baita hartutako jende talde handiagatik ere; horiek herrialdearen ekonomian eragin dute, baina ez dute lortu garapen iraunkor batean antolatzerik. Nikaraguar horiek beren familiak mantentzen dituzte, hilerok bidaltzen dietenarekin. Costa Ricatik Nikaraguara emigrante batek hilean bidaltzen duen batez bestekoa 50 dolar dira, batzuetan gutxiago, baina nahikoa izaten da Nikaraguan utzi zuen familiaren oinarritzko biziraupena bermatzeko; Estatu Batuetara emigratutakoek hilerok bidalitakoak, berriz, bikoiztu edo hirukoiztu egiten du Costa Ricako horien kopurua.

Nazioarte-mailan migrazioen gaia gero eta tamaina handiagoko enplegu-iturria dela ikusi da. Nikaraguan, esaterako, lan-emigrazioa enplegua lortzeko funtsezko iturri bilakatu da; emakume gazteen emigrazioa nagusitzen da, gehienetan amak direnak — hamarretik zortzi seme-alabadunak dira, eta hamarretik sei senarradunak—. Lehen indar handiagoa zuen gizonen nazioarteko emigrazioak eta emakumeen landatik hirirakoak. Orain, emakumeek kopuru handitan lan-arrazoiengatik emigratzen dute, batez ere Costa Ricara; izan ere, azken zazpi urteotan lan-merkatu bat ireki da etxeko lanetan, eta emakume gehienak lan mota hori egitera joaten dira, batzuetan turismo-arloan lan egitera ere, gora baitoa han.

Bestalde, prestatutako giza kapitalak ere ihes egiten du; herrialdeari kostatu zaiona kostatu eta gero, bere jakitea Nikaraguaren garapen sozioekonomikoari laguntzeko eskaini beharrean, kanpoko beste herrialde batzuei ematen die bere laguntza.

Nikaraguak «lankidetzak» izeneko harremana du Espainiako estatuarekin, —azken batean, harreman neokoloniala da ordea—; Espainiak lehentasunezko hitzarmen

ekonomikoak ditu Erdialdeko Amerikako herrialde horrekin. Unión Fenosa, energiaren banaketan; Barceló Corporación, hotelen katearekin; Iberdrola edo Telefónica, horiek dira herrialde hartan ari diren enpresetako batzuen eredu.

### 3. Nikaraguako emakumearen egoera

Azken hamarkadan aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren mundu-mailan eta herrialde-mailan, batez ere politika-bizikidetzaren eremuan; iraganeko eta oraineko krisiari leku egin zioten egiturazko arazoietako asko, ordea, indarrean dira gaur egun ere. Nikaraguan gora ari da pobrezia, oro har, eta emakumeen pobretzea bereziki, goraka doa.

Mundu-mailako eta nazio-mailako testuinguruari buruzko datuek genero-berdintasuna eta emakumeen nagusitzea sustatzeko erronka jarri digute mahai gainean, krisi gogor baten erdian.

Nikaraguako kultura markatua dago historikoki eta sozialki. Izan ere, urteetan zehar, gauza bat dela edo bestea dela, esan daiteke familia-ekonomiari emakumeak eusten diola. Managuako datuek erakusten dute etxeen % 49k emakume bat duela familiako buru. Nazio-mailan, 2006an, etxeen % 36,7k emakume bat zuen buru. Emakumea da, ondorioz, arduradun bakarra familiaren mantenu ekonomikoarena, seme-alaben haziera eta heziketarena, eta etxeko lanak egitearena; Nikaragua guztian gertatzen den errealitatea da, baina, bereziki, hiri inguruetan. Nekazaritza-eremuetan, gizonetzkoek gutxiago uzten dute etxea, lurreko lanak mugatu egiten baitu haien mugikortasuna eta, horrela, gehiagok betetzen dute familiako buru funtzioa.<sup>61</sup>

Familia nuklearraren ereduak aldeztutako idealen kontrara, familian ekonomia-biziraupenaren aldeko borroka eta harreman guztiz ezegonkorrak nagusitzen dira. Arlo sozialean, gizonak harreman asko dituzte eta seme-alaba asko izaten dituzte; pobrezia-maila eta diru-sarrera baxuak kontuan hartuta, ordea, nekez estal ditzakete familia baten beharrak, eta horrek iraunarazten du aitatasun arduragabearen fenomeno. Gizonak espero dute emazteak seme-alaba asko «izango» dizkiotela, eta, ondorioz, sexurako eta mugitzeko askatasun osoa gordetzen dute. Bikotearen abandonua motibo nabarmena da hainbat etxetan emakumeak buru izateko (Montenegro, 2000: 40).

Familia-eredu horren arazoak sakonkiago aztertu beharko lirateke; errealitatea da, ordea, gizona lan bila badabil eta lanik ez badu aurkitzen, edo huts egiten badu bizirauteko duen azpienpleguan, etsia hartzen duela eta alkoholetan ahazten dituela bere nahigabeak, etxean batere erantzukizunik hartzeko gaitasunik gabe. Gizonak, aita eta

<sup>61</sup> Nicaragua en Cifras. Nikaraguako Banku Zentrala, 2009.

bikote rolean, diru-sarrerarik ekartzeko gaitasunik ez duela, zilegitasuna galtzen du bere paperean eta seme-alabentzat erreferentziazko eredu izateko. Bere baitan eta familiaren aurrean balioa galdua, ekonomia-arloan sartzen saiatzen da, aukerarik izan ez arren.

Emakumea bihurtzen da orduan familiaren zutabe. Berak bermatzen du seme-alaben biziraupen fisikoa, identitateaz eta afektuaz gainera. Txikitatik, errealitate honi aurre egiteko hezten dira neskatok: seme-alabengan aurkituko dute beren bizitzaren zentzua, «gizonarengan ez baitago fidatzerik» (milaka aldiz entzun dut esaldi hori emakumeen arteko elkarrizketetan), nahiz eta beti duten egoera aldatzeko esperantza. Sofía Montenegrok egindako ikerketaren arabera, berriemaileen % 44k adierazi zuen beren bikote-harreman egonkorrek bi urtetik laura iraun zutela; % 38ak, berriz, bost urtetik hamar urtera iraun zutela, bai izatezko bikoteetan bai ezkonduetan.

Horrek agerian jartzen du bikotea zerbait mugatua eta ezegonkorra dela, eta, egiazki, «bizi guztirako bikote» idealetik urrundu egiten dela (Montenegro, 2000: 193).

Hiriko emakumeak egindako lan mota aztertzen badugu, haietako ehuneko altu bat azpienplegatuta dagoela ikusiko dugu, eta beste ehuneko bat etxeko lanetan aritzen dela. Emakumeen % 57 merkataritzan aritzen da (nagusiki, saltzaile ibiltariak eta dendariak edo «vivandera» deritzenak). Ekonomikoki aktiboak diren emakume horietako askok janaria, arropa eta barazkiak saltzen dituzte etxean, kalean, ostatu txiki batean edo merkatuan; edo familiaren bateko arropa garbitu eta lisatzen dute. Egiazki, emakumeak gehienez ez du lan egiten familiara diru-sarrera bat ekartzearen bakarrik, baizik berak mantentzen du ekonomikoki etxea.

Hiriko eta landako etxebizitzaren gaineko jabetza eta baita lurraren gainekoa ere, desberdintasun-arazo handia da gizon-emakumeen artean; izan ere, titulartasuna askoz baxuagoa da emakumeengan, gizonezkoengan baino. Ikerketen arabera, 2006an lurraren % 76 gizonen eskuetan zegoen, eta jabetza-titulua ezinbestekoa izaten da kredituak eta laguntza teknikoak lortzeko. Murriztapen horiek eragotzi egiten dute emakumeak subjektu ekonomiko oso bihurtu ahal izatea, haien gaitasunak indartzea, eta pobrezia, bazterketa sozialaren eta garapenerako aukera faltaren zirkuluarekin etetea.<sup>62</sup>

Azken garaiotan nabarmen murriztu da jaiotza-tasa, batez ere hiri inguruetan; 2000n milatik hogeita zortzi izatetik 2008an milatik hogeita hiru izatera igaro ziren. Biztanleriaren urteko hazkundera abiadura galtzen ari da. Biztanleriaren hazkunde-tasa % 3,5 izan zen 1970 eta 1995 urteen artean; % 1,7, 1995 eta 2005 urteen artean; eta % 1,3 2008an. Murriztuz doa, modu nabarmenean, ugalkortasun-maila. Emakumeen seme-alaba kopurua % 2,7 da. Baina kontuan hartzekoa da emakume asko oso goiz iristen direla ama izatera, baita nerabezaroan ere.<sup>63</sup> Gizarte Ekintzarako Ministerioaren Biztanleria Politikaren dokumentuaren arabera (1996), Nikaraguak du ugalkortasunik

<sup>62</sup> Nicaragua en Cifras. Nikaraguako Banku Zentrala, 2009.

<sup>63</sup> 2005eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda.

gazteena Erdialdeko Amerikan: 15 eta 19 urte arteko nerabeak, batez beste milako 158 jaiotzarekin, 1990ean.

Nerabeen haurdunaldien fenomenoak emakumeen nortasunaren arazoari eta nia eraikitzeko beharrari lotua dago. Emakume guztiek sexualitatearen bidez lortzen dute nortasuna; baina horrek ez du nahitaz berehalako haurdunaldia adierazten, nahiz eta hori tradiziozko emakume nortasunaren parte izan, pertsonalki autoerrealizatzeko bide gisa (gizon baten emazte izan / seme-alaba baten ama izan). Ez badago beste bizitza-proiekturik hori osatuko edo lehiatuko duenik, edo horren ordezkari izan daitekeenik (ikasketak, lanbidea, lana, karrera, estatus propioa), gauzatzeko beharra goizago izaten da, eta horren emaitza da nerabegaroko haurdunaldiaren fenomenoak. Klasea, egoera sozioekonomikoa eta ikasketak funtsezko faktoreak dira autoerrealizaziorako aukerak ekartzeko, eta, ondorioz, sexu-harremanen hasiera eta haurdunaldia berandutzea dakarte. Sektorerik behartsuenetako neska gazteentzat, autoerrealizatzeko beste aukerarik ezean, niaren errealizazio gisa bilatzen da haurdunaldia, estatus berri bat lortzera iritsiz: ama. Espero dute estatus berri horrek babes ematea familiako tratu txarren aurrean, edo, heldutasunaren sinbolo denez, kontroletik eta mendekotasunetik askatuko dituela; baina itxaropen faltua izan ohi da hori (Montenegro, 2000: 200).

Egoera horretan, Nikaraguako emakumeen ehuneko handi batek emigratzea erabakitzen du, beren gain hartuz enplegua eta diru-sarrera bilatzea, neurri handi batean, beren eguneroko bizitzako familia-beharrak konpontzeko.

#### **4. Nikaraguarrek Espainiako estatuan**

Espainiako estatua, Costa Ricaren eta Estatu Batuen ondoren, norako pribilegiatua da, gaur egun, beste herrialde batera emigratu nahi duten nikaraguarrentzat, nagusiki lan bila, beren egoera ekonomikoa hobetzeko edo beste aukera batzuk bilatzeko. Estatuko nikaraguarren komunitatea ia bikoiztu egin da bost urtean. Lehen, nikaraguarrek turismoa zela-eta edo goi-mailako ikasketak egitera bidaiatzen zuten Espainiako estatua; azken urteotan, ordea, lana bilatzeak ordezkatu zituen arrazoi horiek, eta Nikaraguako immigranteak nabarmen areagotu ziren.

Hirurogeiko hamarkadan, Nikaraguako pertsona batzuk Espainiako estatuan finkatu ziren, Somozaren erregimena zela-eta. Ondoren, beste sektore bat iritsi zen, laurogeiko hamarkadan Nikaraguan egondako Espainiako estatuko borondatezko lankideekin eta brigadetako kideekin bikotea osatu zuten jendea, hain zuzen. Beste talde bat da laurogeiko hamarkadan Ekialdeko Europako herrialdeetan ikasi eta gero hemen kokatzea erabaki zutenena. Azkenik, «iritsi berriak» daude, aurrez Costa Rican edo Estatu Batuetan bizi izan direnak; eta, azken-azkenik, zuzenean Nikaragutatik datozenak.



Migrazio-fenomenoaren hazkunde hori azaltzen du erabakietan eragiten duten gizarte- eta familia-sareen funtzionamenduak; izan ere, hasieran ez du jende askok migratzen, baina azkar biderkatzen eta errazten dira baldintzak beste nikaraguar batzuk informa daitezen eta norako honetara irits daitezen.

2000. urtean 1.789 nikaraguar zeuden erregistratuta. 2005ean 3.369 erroldatu zenbatu ziren; 2006an 5.359 izatera iritsi ziren, Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) zifra ofizialen arabera. Espainian den Nikaraguako kontsul nagusiak, Róger Quant Pallavicini-k, EINren zifra ofizial berak darabiltza; baina azpierregristo bat badelakoan dago, asko «paperik gabe» edo bizileku-txartela edo -baimena indarrean izan gabe baitaude; eta, ondorioz, Espainiako estatuan gaur egun 60.000 nikaraguar bizi direla kalkulatu da, erregistratuta edo gabe.<sup>64</sup> Biztanleria horren % 66 emakumea da. Horren arrazoia da emakumeek gizonen baino azkarrago topatzea lana; eta baita haietako askok familia aurrera ateratzeko erantzukizuna beren gain izatea ere. Emakume horien artean, % 55ak etxeko langileen Erregimen Berezian kotizatzen dute; eta emakume askok etxeko langile gisara parte hartzen dutela erakusten du horrek.

2006ra arte Espainiako estatuan izandako ekonomiaren hazkundeak bertako biztanleei kalifikazio edo ordainsari handiagoko jardueretan lan egiteko aukera hobeak eskaintzen zizkien. Egoera horrek gutxiago ordaindutako jardueretako lan-eskaintza murriztea eragin zuen; ase gabeko eskaera hori latinoamerikarrek bete zezaketen, beren herrialdeetako lan-merkatuek ez baitzuten enplegu duin nahikorik sortzen, eta emigratzera bultzatzen baitzituzten.

Nikaraguar batek Espainiako estatuan legez lan egin ahal izateko, Nikaraguan egon beharko du eta lan-eskaintza bat izan. Espainiako estatuko enplegatzaileak baimena eskatu beharko du, Espainiako bulegoetan eskatzen den dokumentazioarekin. Baimen hori emanda, nikaraguarrak hilabete izango du Nikaraguako Kotsuletxean bisa eskatzeko; Espainiara iristean, bizileku-txartela eskatuko du urtebeterako, bere lan-jarduerari ekingo dio, eta Gizarte Segurantzaz izena emango du. Espainiako estatuan diren nikaraguar gehienek, ordea, legez kanpo lan egingo dute. Guztiek ez dute aurrez lan-eskaintzarik; etxeko lanetarako, adibidez, nahiago izaten da aurrez pertsona ezagutzea. Ondorioz, turista gisa bidaiatzen dute eta hiru hilabetean hala egoten dira; lana lortu eta epe hori igarotzean, legez kanpo geratzen dira; egoera hori ez da, ordea, erraz aldatzen; izan ere, Nikaraguako espainiar kotsuletxean soilik legez tatu daitezke edo, bertan errotzeko beharrezkoak diren hiru urteak igaro ondoren, lan-kontratu baten bidez. Egoera horren eraginez, Migrazioako ofizialak zurrinak izan ohi dira aireportura iristen diren nikaraguarrekin. «Turista» gisa bidaiatzen duen nikaraguarra susmagarria izan ohi da eta, beraz, «nahiko arrazoi» bada erbestertzeko; maiztasunez gertatuko delariki.

<sup>64</sup> Nikaraguako Enbaxadak emandako datua. 2010/07/06.

## 5. Nikaraguarrek Nafarroan

Nafarroan berrehun bat nikaraguar ditugu; haietatik % 77 emakumezkoa da eta % 23 gizonezkoa. % 7 bikotearekin iritsi zen edo familia berrelkartu dute. Beraz, gehiengoak bakarka egin du migrazioarako plangintza. % 96k seme-alaba bat, bi, hiru edo lau ditu, baina % 5ek soilik ekarri ditu hona bere ondorengoak; izan ere, beren legez kanpoko egoerak zaildu egiten du edo ezinezko bihurtzen du familia berrelkartzea. Biztanleria nahiko berria da, oro har, autonomia-erkidego honetan. 2005eko ohiz kanpoko erregularizazioaren ondoren iritsi ziren; beraz, errotzeari esker erregularizatu da nikaraguarren % 95.

Batzuk landatik datoz eta ohituta daude nekazaritzako eta abeltzaintzako lanetara; baina gehienak hirietatik etortzen dira. Maila akademikoari dagokionez, % 24k lehen mailako ikasketak ditu, % 65ek bigarren mailakoak eta % 9k unibertsitate-mailakoak. Hemen etxeko lanetan eta zaintzan ari da % 88, nekazaritzan % 3, ostalaritzan % 3, eraberritze-lanetan % 4, eta kualifikatutako lanetan % 2; bada unibertsitate-ikasleren bat ere.

Gehienak Iruñean edo Iruñerrian bizi dira; beste batzuk Lizarran, Tafallan, Garesen eta Lekunberrin.

## EMAITZEN ANALISIA ETA AURKIKUNTZAK

Atal honek berriemaileek kontatu dituzten bizipenen artetik aukeratutako lekukotasunak biltzen ditu; bizitzaren kontaketa, egituratutako eta erdi-egituratutako elkarrizketak (grabatuak izan direnak), eta ikergai den biztanleriaren arteko eztabaidataldeetan eta talde-bileretan jasotako iritziak erabili dira horretarako. Nikaraguako biztanleriarekin moduren batean erlacionatutako beste immigrante batzuen zenbait testigantza ere bildu ditut; izan ere, taldeak etengabeko interakzioa du beste immigrante talde batzuekin. Era berean, immigrante horiekin harremana duten bertako pertsona batzuen iritzi gutxi batzuk ere sartu ditut.

Kontakizunak transkribatzerakoan, mantendu egin dut nikaraguarren hitz egiteko modu berezia, esamolde eta esapide propioekin. Horrek berak adierazten digu immigranteak ze une berezi igarotzen duen iritsierako gizartearekin interakzioa izateko prozesuan. Beren esapide asko desagertuz joango dira, bertako biztanleek ez dituztela ulertzen hautematen badute; beste batzuk iraun egingo dute, edo aurrean duten solaskidearen arabera erabiliko dituzte.

Berriemaileek beren esperientziak kontatzerakoan une unkiarriak berpiztu dituzte, entzulearekin partekatzean harreman estu, eraginkor eta iraunkorra sortuz. Ikertuen jatorriko gizartearen lekuko ezagutza oso garrantzizkoa izan da elkarrizketak bideratzerakoan. Esaera eta ekintza xumeen ulertzeak, beraien bizipenak, tokiak eta jendeak ezagutzeak elkararteko giro ezin hobea sortzen du, larruazala pasa eta azpiko sakontasunean erraz barneratuz.

Berriemaileen benetako izenak mantendu ditut, haien oniritzia jaso ondoren; ohoretzat hartu bai dute noizbait irakurri ahal izango duten ikerketa batean agertzeko aukera izatea.

Bildutako informazioaren azterketa eta interpretazioa, behaketa parte-hartzailearen eta abiapuntu izan den marko teorikoaren bidez egindako gogoetan oinarritzen da. Modu horretan, azterketaren bidez garatutako argudioen oinarri dira lekukotasunak. Emaitzak bederatzi azpiataletan banatu ditut; batetik, migrazio-prozesuaren hurrenez hurrengo etapen arabera ordenatuta, eta, bestetik, bizipenarekin erlacionaturiko gaien arabera, kontuan harturik metodologian zerrendatutako analisi-unitateak. Izenburuak adierazten duen gisara, gai nagusienetarikoa botere-harremanena da; gai hori gainerako item guztietan sartzen da, zeharkakoa da nolabait deskribatzen eta aztertzen ari garen gizarte-sare guztiarekiko. Aldi berean, azpiatal bakoitza hainbat azpigitulutan banatzen da, segidan datorren edukiari aipamen eginez.

Etnografiatik abiatuta, begirada ez-etnozentriko bat osatzen saiatu naiz, gure gizarteetako erreprodukzio-prozesuak eta gizarte-aldaketa ulertu ahal izateko. Mikrogizarte bat aztertzen saiatu naiz, harreman politiko-ekonomikoen eta historikoen markoaren testuinguruan kokatuta, existitzen den ekonomismoa gainditzen saiatzeko.

Makroa eta mikroarekin jokatu dut, egitura politiko, ekonomiko eta historikoen artean den harremana, eta subjektuen ekintza aztertuz. Emic ikuspuntua etic ikuspuntuarekin bateratzen saiatu naiz, «gu» «beste»ekin. Ez naiz saiatu «bestea» ezagutzen, baizik «beste»arekin izandako harremanak ezagutzen. Ez naiz saiatu «bestea» biktima bihurtzen, baizik eta desberdintasunak eta gizarte-bereizkuntzarako kategorien eraikuntza agerian jartzen (hala nola, generoa, klasea, atzerritartasuna, etnia edo kultura, zeinak harreman poskolonialetan kokatzen baitira globalizazioaren garaiotan).

## 1. Migrazio-prozesua

Migrazioa eragiten duten faktoreen artean, egiturazko baldintzek, egoera pertsonalek, senideek edo helburu sozialek osatzen duten konbinazioa dago. Horri gehitu behar zaizkio gizarte- edo familia-mailako gatazkak edo arazoak, eta kontra dituzten lan-baldintzak ere. Horren guztiaren ondorioz, pertsona estututa eta itota sentitzen da bere inguruan, eta beste leku batean probatzeko erabakia hartzen du. Beharrezkoa da ikusmolde biktimistak alde batera uztea eta arazoaren konplexutasunari aurre egitea. Kontuan izan behar da immigranteak ahalegin handia ari direla egiten jatorriko gizartean arazoak gainditzeko eta beren etorkizuna zabaltzeko proiektuak garatzen; honela adierazten du Torrabadellak:

Migrazioa... ez da hobetzeko estrategia bat soilik; galdutako duintasuna berreskuratzeko estrategia da, pobrezia-gatik galdutakoa, haien kasuan duintasun eza eta lotsa gisara bizi dutena (Torrabadella, 2001: 111, *in* Juliano, 2006: 204).

Izan ere, askatasun ekonomiko ezak, muturreko pobrezia moduan, babesik gabeko biktima bilaka dezake pertsona beste askatasun mota batzuk bortxatzearen aurrean — hala nola, askatasun sozial eza—; era berean, askatasun sozialaren edo politikoaren faltak ere susta dezake askatasun ekonomiko eza.

### 1.1 Emigratzeko erabakia

Migrazio-proiektua jatorriko herrialdean sortutako aldaketari loturiko elementua da, eta migrazio-prozesu guztian zehar eratzen ari da; tartean dira abiatzean dituzten asmo eta itzaropenen eta iritsierako gizartean aurkitzen duten egoeraren arteko etengabeko talkak.

Nafarroako immigrazioak bere erabakiaren lehen arrazoi gisa jatorriko herrialdeko egoera ekonomikoa dakar, eta haren barruan bere familiarrena. Bere herrialdetik ateratzera bultzatu zuten faktoreak adierazterakoan, immigranteen % 88,8k argudiatu du bizitza-maila eta -kalitatea hobetzea izan zela. Urteotan zehar,

garrantzitsua izan da faktore hori immigrazioaren mugiarazle gisa, talde guztietan. % 11,5ek miseriatik alde egitea zela bere helburua adierazi du, eta % 20,3k<sup>65</sup>, berriz, familia berrelkartzea izan zela emigratzera bultzatu zuten faktorea. Faktore garrantzitsutzat agertzen da aukera eta alternatiba pertsonalak edo familiarak bilatzea ere, eta baita autonomia eta askatasun handiagoa izatea ere familiaren eta gizartearen kontroletik kanpo. Kontuan izan behar da gutxieneko aukera ekonomikoak badituenak emigratzen duela, eta migrazio-prozesurako eta iritsierako gizartean egokitzeko beharrezko gaitasunak dituenak; hain zuzen, ez du emigratzen herrialde bakoitzeko biztanleriarik behartsuenak edo pobretuenak.

Ikerketa honen helburu diren gizon-emakume gehienen migrazio-esperientzia 2000 eta 2011 urteen artean igaro zen. Beren herrialdetik atera izana bat dator sistema neoliberalak inposatzeak eskatutako pribatizazio aroarekin eta herrialdeen eta pertsonen arteko distantziak moztu dituzten komunikabideen globalizazioarekin, familia-, nazio-, eta nazioarte-mailan beste mota bateko harremanak erraztuz. Pertsona horiek Nikaraguako migrazio-eredu historikoetan gertatutako aldaketaren parte dira; eta ordura arte bezala nagusiki Erdialdeko Amerikako herrialdeetara edo Estatu Batuetara joan beharrean, Europa alderako bideak irekitzen hasi ziren. Pertsona horietako batzuek aurrez beste migrazio-esperientzia bat bizi izan zuten Erdialdeko Amerikako beste herrialde batean; beste batzuek, ia guztiek, senideak eta lagunak dituzte Erdialdeko Amerikan edo beste herrialderen batean. Zenbait autorek deitu dioten gisara, *emigrazioaren kultura* da. Ezaguna, ohikoa, estrategia eta baliabide posibleen sailean sartuta dagoena, eta gizarte-ingurunean oso presente dagoen praktika bat. Kultura guztien antzera, nola erabakiak hartzea hala helburu-herrialdean edo jatorrikoan gerta daitezkeen arazoak konpontzea ahalbidetzen duten baliabideak eta taktikak barne hartzen ditu.

*Alejandro:* Mi esposa se fue a Estados Unidos en 1996 porque nos habíamos endeudado en el negocio del tabaco y entre los dos decidimos que ella se iría para salir adelante. Yo estaba trabajando en la Embajada de Estados Unidos en aquel tiempo, de vigilante y le saqué el visado. A los pocos días de irse ella, me echaron del trabajo. Hice de padre y madre de los tres hijos. Ella mandaba dinero y pudimos pagar la deuda. A los dos años decidió hacer su vida allá. De ahí vino la separación. Lo pasé muy mal porque no me lo esperaba y decidí venirme a Europa, me decían que no me fuera a Estados Unidos sin visado porque era muy riesgoso. Primero fui a Suiza donde vive una hermana, pero me sentía desconcertado, la vida era diferente, el clima era duro, el idioma... a los dos meses y medio me vine a Pamplona donde tenía una conocida de los tiempos de la Revolución Sandinista.

Lekukotasun horrek datu asko ematen dizkigu, baina, oraingoz, migraziorako arazoietan jarriko dugu arreta. Migrazio-fenomenoek askotariko arazoiei erantzuten dietela esan dezakegu. Era askotakoak dira sakontasun horretako erabakiak

<sup>65</sup> Immigrazioa Nafarroan 2008 inkesta. NUP. 100. or.

baldintzatzen dituzten alderdiak. Emigratzea erabakitze hutsak, arrazoi desberdinei erantzuteaz gainera, lortu nahi diren helburu jakin batzuk daramatza berekin. Helburu bat jarraitzen da, eta horrek eratuko du emigrazioak taldearekiko, kolektiboarekiko, eta betiko eremuarekiko edo, beste hitz batzuetan esanda, «leku antropologiko»arekiko sorturiko etete sinbolikoa justifikatuko (legitimatuko) duen argumentazio-oinarria; M. Augé-ren hitzetan, «leku antropologiko» hori da biztanleen nortasuna, harremanak eta historia inskribatzen diren lurraldea.

Erabaki politikoak eta ekonomikoak jada ez dituztela bere herrialdeko erakundeek hartzen ikusten dutenean, eta desiratutako eta irudikatutako komunitate hori norantz doan ez jakitean, honako hau galdetzen du García Canclini:

Baliabide estrategikoak desnazionalizatzearen aurrean, presidentek eta parlamentuek kanpoko botereekiko duten mendekotasunaren aurrean, eta sistema judizialarekiko eta komunikabideekiko sinesmena galtzean, harritu egin behar al dugu herritarrek kulturaren etorkizunaren aurreko eszeptizismo erradikala ondorioztatzen dutelako? (García Canclini: 2004: 172).

Nikaraguak «lankidetzazko» harremana du Espainiako estatuarekin, lehentasunezko itun ekonomikoak izanik; errealitatean, ordea, harreman neokoloniala da. Unión Fenosa, energiaren banaketan; Barceló Corporación, hotelen katearekin; Iberdrola edo Telefónica, horiek dira herrialde hartan ari diren enpresetako batzuen eredu. Honela dio Boris Diop senegaldar idazleak: «Miseriaren aurkako borrokak eragotzi egiten du estatuek nahiko kreditu eskaintzea kulturari. Sortutako hutsune multinazionalak betetzen dute». (Diop, 2007: 217)

*Marlon:* En Nicaragua todo está privatizado, la telefonía está privatizada, la tienen los españoles, la energía la tienen los españoles. Los impuestos cada vez son más altos, la energía también. No tenemos nada que pertenezca a Nicaragua.

Herrialde industrializatuek ihes egiten dute gaur egun Hegoaldeko herrialde askok aurkezten duten pobrezia-egoeraren aurrean duten erantzukizunetik. Fenomenoen arteko harremana eta arrazoiak estaltzen dituzte, eta baita herrialde horiek duten mendekotasun- eta/edo neokolonialismo-egoera ere. Komunikabideek imaginarioak sortzen dituzte, barne-gatazkak, beren gobernuen kudeatzeko gaitasunik eza edo gobernarien ustelkeria dela esanez pobrezia horren sortzaile; eta naturalizazio-eragiketara etengabeak ekartzen dituzte, erantzukizun sozialak eta historikoak saihestuz.

Egoerek behartutako migrazioez hitz egin liteke, beraz: milioika pertsonak alde egitea erabakitzen dute, eta beren gertuko errealitatea, pertsonala eta familiarra aldatzen saiatzen dira, nazio politiken edo nazioarteko kontrako borrokak sortzen duen ezintasun-sentimenduaren aurrean.

*Bayardo:* Ahora liberalismo y sandinismo están de la mano. Se reparten el gobierno y las cosas no cambian. Es por eso que la gente emigra porque no ve futuro allá.

*Miguel:* Durante los 16 años los liberales han privatizado todo menos el agua que se ha salvado con la llegada al gobierno de los sandinistas de nuevo, se ha declarado patrimonio de la humanidad y con apoyo de Venezuela se ha mantenido y se ha mejorado el servicio, se acabaron los recortes y ya llegaba diario el agua a las casas.

Lagunen eta familiakoen lekukotasunen bidez, emigrazioa mito bihurtzen da, eta kezka pertsonal, sozial eta ekonomikoei konponbidea ematen dien magiazko aukeratzat eratzen da imaginario kolektiboan. Datu horietatik abiatuta, bi baldintza hartzen dira modu objektiboan: batetik, beren herrialdean irauten dutenena, eta, bestetik, (ustez) emigratutako beren aberkideek lortzen dutena. Bertako gizartean etorkizun birtual bat osatzen da, maletak egiteko neurria hartzen duen edonorentzat bideragarria dena.

*Fátima:* A los doce años me fui a Costa Rica, donde un hermano. Mi madre estaba en Estados Unidos. Me casé con un costarricense y tuve una hija y un hijo. Vivíamos bien, él era administrador de una mueblería y yo algunas temporadas trabajé de camarera. El quería comprar una casa y allá era difícil, el salario te da solo para vivir. Entonces le entró esa ambición y se vino para acá. Dos años más tarde decidí venirme yo para reunirme con él y volver a reiniciar nuestras vidas, y otro motivo era el sueño de todo el mundo que es tener su casa y yo decía que si los dos estábamos aquí lograríamos nuestras metas los dos juntos.

*Magali:* Trabajaba en una maquila, en una empresa china, en la Zona Franca de Los Brasiles, Managua, pero se ganaba muy poco. Teníamos dos hijos, mi compañero no tenía trabajo. El estuvo un tiempo en Belice pero regresó y teníamos que sacar adelante a los hijos. Para que ellos puedan vivir un poco mejor de lo que nosotros pudimos vivir. Nosotros no queremos que ellos pasen lo que nosotros ya hemos pasado.

Zona frankoak dira multinazionalen Hegoaldeko herrialdeetan ezarri dituzten instalazioak. Hiriko emakumeentzat enplegu-iturri garrantzitsua dira, nahiz eta betetako postuek PEaren (Nikaraguako Biztanleria Ekonomikoki Aktiboa) % 3,7 soilik osatzen duten. Emakume askorentzat, bereziki gazteentzat, aukera profesional bakarra *maquila* deiturikoetan operadore gisa hastea da; gehienez, ehungintzan eta arropa-lantegietan.

Zona franko horietako industria-parkeak oinarritzko baldintza garrantzitsuak dituzten lekuetan finkatzen dira (aireportuetatik gertu eta eskulan ugari dagoen lekuan, ahal bada emakumezkoa); beraz, merkataritza eta sektore informala zerbitzuak pilatzen diren guneak osatzen dituzte.

2008. urtean, Taiwango, Estatu Batuetako eta Hego Koreako 121 enpresa ari ziren guztira Nikaraguan, Zona Frankoetako erregimen bereziaren pean. Gehienak jantzigintzaren eta osagarrien sektorekoak direlarik, eta nagusiki Estatu Batuetara esportatzen dute.

Ekoizpen-goraldia hamasei urte baino gehiagokoa izan ondoren, gaur egun, ehungintza orain arteko egoerarik okerrean da. Guztira, 2006tik 2009ra hogeita hamabi enpresek utzi dute jarduera herrialdean, eta 34.736 enplegu galdu dituzte. Nikaraguan ehungintzako enpresetarako eskaerak modu hain drastikoan murrizte hori munduko ekonomia-krisiaren eta kapitalismoan gertatzen ari diren aldaketen ondorio da; mundu-mailako ekoizpen-kateak sortu dira, lan-indarra eta eskulan merkea Hegoaldeko herrialdeetan bilatzen dutenak, industrializatutako herrialdeetara esportatzeko; ekoizpen-aparatuak eraitsi dituzte eta langabezia ugari sortu dute.

Pertsona orok halako botere baten jabe izan nahi du eta gizarte-rol bat izan. Baina pertsona horiek hautematen dute ez dutela boterarik beren bizitzari buruz erabakitzeke ere, edo beste batzuek erabakitzen dutela beren bizitzari buruz. Ondorioz, zapaltzen dituen eta aukerarik ematen ez dien leku horretatik alde egitea erabakitzen dute, beste leku batzuetan bilatu asmoz. Bizitzen ari direna onartzen ez dutelako eta ahal den moduan bizirauten jarraitzeari uko egiten diotelako joaten dira. Uko egite horri iritsierako herrialdean ere eutsi beharko diote, ezer ez baitute erraza izango.

*Marcela:* Tomé la decisión de emigrar por salir de casa, porque me mantenía un poco agobiada, yo iba viendo que mis años iban pasando (tiene 33 años) y que no hacía nada, no tenía trabajo y me preguntaba qué sería de mí en un futuro, entonces tomé la decisión de venirme. Al terminar la carrera trabajé dos meses dando clases en un colegio privado pero el salario era muy bajo y lo dejé. También tomé la decisión porque quería libertad, salir, ver, conocer otras cosas, los problemas familiares te agobian. Varias hermanas se fueron a Costa Rica y eran independientes y yo quería eso, ser independiente, no estar pidiendo permiso a mi madre todo el tiempo con mi edad.

Komunikabideak alde guztietara iritsi diren mundu globalizatu honetan, jendeak ikusten du badirela beste mundu posible batzuk; itxaropenak sortzen ditu, badaiki zer nahi duen edo, batez ere, zer ez duen nahi; eta bere etorkizunaren jabe izan nahi du, bere bizitzari buruz erabaki, ametsak gauzatu, aske sentitu. Eskubideak izateko eskubidearen kontzientzia, bizitza duina izatearena, bizitza-estiloa aukeratzeko eskubidea, azken finean, giza eskubideek kontuan hartzen ez dituzten eskubide subjektibo horiek nahi dituzte. Jatorriko herrialdetik ateratzera bultzatzen dituzte, bizi-baldintza hobetuz, besteak beste, baliabide-erreserbak, demokrazia ezak, edo gehienek bizitzak hobetzeko demokraziaren gaitasun ezak, ekonomiaren geldialdiak, hondatze sozialak edo kultura-mendekotasunak, gero eta sakonagoak diren munduko desberdintasunek eta, batez ere, horretaz guztiaz gero eta gehiago jabetzeak.

Modernotasunak eta globalizazioak zabaldu egin dute munduko biztanleriaren ikuspegia, askotarikotu egin dira gauzak ikusteko eta ulertzeko moduak eta guztia plangintzatzeko eta antolatzekeak, gizakiak bere bizitza antolatzeke aukera eta askatasuna sentitu ditu. Bizitza-planak egiten ditugu; jada ez digute hori aurreko belaunaldiak edo kolektiboek inposatzen, baizik eta gure modura egiteke aukera dugu.



«Iraganak garrantzia galdu du eta etorkizunak hartu du haren lekua» diosku Iziar Basterretxeak (Basterretxea, 2009: 66).

Mendebaldeak orokortu ezin daitekeen garapen-eredu bat sortu du, «iraunkorra ez den eredu bat» adierazten du Alfonso Dubois-ek.<sup>66</sup> Metaketak ezin du mugagabea izan, eta ezta bere baitako helburu bat ere; aberastasunaren garrantziak harekin egin ditzakegun gauzetan egon behar du. Ongizatea izango delarik garapenaren erreferentzia, Duboisek «etorkizun desiragarri eta posible» gisa definitzen duen garapenarena. Garapen-eredu horrek izugarri areagotu ditu herrialde batzuen eta besteen arteko distantziak XX. mendean zehar; desberdintasunak inoiz baino handiagoak dira. Alfabetatzeak eta komunikabideetara iritsi ahal izateak, berriz, gaitasun batzuk garatu dituzte, eta, ondorioz, jendea gai sentitzen da edozein lekutan egokitzeko.

Amartya Sen-ek askatasun gisa hitz egiten du garapenaz; garapena hartzen du pertsonak gozaten dituzten askatasun errealak zabaltzeko prozesutzat, eta garapena askatasunen areagotzea erakutsiko duten adierazleekin neurtzearen alde egiten du. Bi alderdi gehitzen ditu Sen-ek garapena askatasuntzat ematen duen definizio horretan: askatasuna bitarteko eta helburu gisa. Askatasuna da, harentzat, garapenaren helburu nagusia. Ez du defendatu nahi askatasuna areagotzea «zerbait gehiago» lortzeko, baizik eta beharrezkoa da askatasuna askatasunagatik areagotzea, bere horretan. Askatasuna bitarteko gisa hautemateari dagokionez, Sen-ek baieztatzen du askatasuna, garapenaren azken helburu izateaz gainera, garapena lortzeko tresna bikaina izan daitekeela. Askatasunak garapenean duen funtzio instrumentalaz ari da:

Askatasunaren funtzio instrumentala dagokio eskubide eta aukera mota ezberdinek oro har gizakiaren askatasuna zabaltzen eta, beraz, garapena sustatzen laguntzeko duten moduari. (...) Askatasuna instrumentu gisa hartzearen eraginkortasuna askatasun mota ezberdinak elkarrekin harremanetan egote horretan eta askatasun mota batek beste batzuk areagotzen ezin hobeto laguntze horretan datza (Sen, 2000: 56).

Gogoan dut emakume nekazari bat, alfabetatu gabea, Plácida, Nikaraguako Yaliko Las Colinas asentamenduan. Bost seme-alabaren ama zen eta, 1986 inguruan senarra espetxeratu ziotenean Kontrairaultzari laguntzeagatik, zera zioen, ordura arte senarrari lotuta egon eta orain beste aukera-mundu bat aurkitzean: «Ez dakit orain zoriotsuago naizen, baina askeago naiz, eta hori gustuko dut, indarra ematen dit». Hau da, Sen-ek zioen moduan, garapena neurtzeko norbanakoen askatasunak areagotzea hartu behar da adierazletzat.

Garapena askatasun gisa hautemateak badu beste alderdi berritzaile bat ere: subjektuak garapen-prozesuen «eragile» direla, eta ez «pairatzaile». Sen-ek honela definitzen du eragilea: «(...) aldaketak gauzatzen eta eragiten dituen pertsona da; haren lorpenak balio eta helburu propioen arabera epaitu daitezke, ebaluatzen ditugun edo ez

---

<sup>66</sup> Nazioarteko Ekonomia eta Garapenaren Ekonomia ikasgaiko irakasle da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). 2010eko uztailearen 28an Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA/NUP) emandako hitzaldia, Unesco katedrak antolatutako Udako Ikastaroetan.

alde batera utzita» (Sen, 2000:35). Hau da, norbanakoa ez da hartu behar laguntza jasotzen duen izaki pasibotzat, baizik eta garapena eta justizia soziala sortzen eta aldatzen duen motortzat.

Seme-alabek prestakuntza akademiko edo profesional ona lortzeko aukera izateak adierazten du ondorengo belaunaldiari transferitu behar zaizkiola bere izatearen kontrola, etorkizunari buruz pentsatzea, eta etorkizunaz jabetzea, orainaldiko eta etorkizuneko ate asko itxi egiten direla dirudien herrialdeetan.

*Mercedes:* Me vine por la necesidad de tener mejores condiciones con los hijos, para que pudieran estudiar, ya que el salario de profesora, que era de unos 100 dólares no ajustaba para los gastos, no cubre ni la canasta básica, así está cualquier trabajo y el padre de ellos tampoco colaboraba económicamente. En mi país somos muy pobres, me endeudé porque hice de fiadora a una compañera maestra y como ella no pudo pagar y se fue tuve que asumir yo y con costo llegaba para la comida, con eso ya me desesperé, tenía muchos problemas. Un hermano que estaba en Estados Unidos me ayudaba, pero eso no lo puedes mantener por mucho tiempo, él tiene otras necesidades.

Emigratzeko erabakiak lortu beharreko helburu batzuk dakartza berekin, norbanakoaren maila sozialeko eta psikologikoko arrazoi edo motibazio askori erantzuteaz gainera. Beren herrialdetik kanpora bultzatzen dituzten presio-faktoreen artean dira aukera ekonomiko mugatuak izatea eta hezkuntzarako sarrera mugatua izatea ere. Hezkuntzarako, osasun-sistamarako eta beste gizarte-programa batzuetarako sarbidea dagoen herrialde batzuek erakartzen dituzte; bizitza-maila altuagoa da herrialde horietan, segurtasuna eta bakea, eta giza eskubideak errespetatzeko berme ustez handiagoa, eta horiek elementu erakargarriak dira immigranteentzat. Emigratzera bultzatzen duten beste faktore batzuen artean elkartzeko dira horrela egoera pertsonalak, familiarenak, eta xede ekonomiko eta sozialak.

*Fátima C.:* Yo me vine quizás por cumplir sueños, porque aquí se gana más que allá, por ser joven y tener curiosidades. Esa curiosidad te lleva a ponerte metas y trabajar, aunque nunca haya hecho un trabajo lo aprendes.

Ongizateak hainbat dimentsio ditu: norbanakoarena, familiarena, eta taldearena edo soziala. Norbanakoaren ongizatea prozesu zabalago baten barnean gauzatzen da. Ideia ez dator kanpotik eta ez die irizpide zehatzei erantzuten. Emigratzea erabakitzekeo arrazoi oinarrian daude itxaropenak, etsipena, etorkizunaren jabe izateko nahia, bizitzari buruz hautatzeko aukera, emaitza eta prozesu gisa ulertuta.

Sen, garapena definitzeko, pertsonak eraldatzeko duten gaitasunean oinarritzen da, alegia, ondasunak nahi duten bizitza egiteko beharrezko jotzen duten horretan, bilakatzeko duten gaitasunean. Harentzat garapena askatasunean oinarritzen da, horrek aukera ematen baitie norbanakoei bizi nahi duten moduan bizitzeko gaitasunak areagotzea, eta hori da, Senen arabera, garapen handiagoa lortzearen helburu.

Norbanakoak bere helburuak lortzeko dituen aukera errealetan arreta jartzea bada helburua, kontuan hartu beharko lirateke, ez soilik pertsonak dituzten oinarritzko ondasunak, baizik eta ezaugarri pertsonal adierazgarriak, oinarritzko ondasun horiek pertsonak bere helburuak lortzeko duen gaitasun *bihurtzea* zehazten dutenak (Sen, 2000: 99).

Norbanakoaren gaitasun horiek sistema ekonomiko, politiko eta sozialen mende daude. Norbanakoek beren etorkizuna eratzen aktiboki parte hartzen duten izaki gisa ikusi behar dute beren burua, eta ez hartzaile pasibo huts gisa. Norbanakoa eragile bihurtzeak, eta ez garapen-prozesuen pairatzaile, konpromiso handiagoa eskatzen du haiekin; baina, aldi berean, politikak marrazten dituzten lehentasunak eta balioak aukeratzeko askatasun-maila handiagoa ziurtatzen du.

*Teresa:* Trabajaba en un colegio como secretaria, mi marido no trabajaba, nunca trabajó. Vivíamos con mi suegra. Yo mantenía a mis tres hijos y a él. Él me decía que renunciara al trabajo que quería que estuviera en casa. Renuncié. Dije, si él quiere que me quede en la casa es porque él va a ser responsable, pero no. No se responsabilizó y nos fuimos endeudando porque yo pedía prestado a la gente y me daban porque siempre había devuelto, pero ahora no. Me dio una depresión, me volvía loca, no salía de la casa, vivía debajo de la cama y cuando tocaban la puerta ya creía que venía alguien a cobrarme de tantas deudas que tenía, pero bueno, hasta que me dijo una compañera de la escuela, Blanquita: - No hay otra, tienes que irte, yo no sé si a Costa Rica o a otra parte, pero vos así no podés estar. Ella me compró el boleto de avión y me vine.

Eredu patriarkalek erantzunik —ez materialik ez emozionalik— ematen ez diotenean babesgabetasun-egoerari, bikote-harremanetako gatazkei eta horrek dakartzan botere-tentsioei, migrazioa da sozialki zilegitutako aukera bat. Aginte patriarkalaren oinarria ahuldu egiten da horrela, baina ez da desagertzen, egokitu egiten da.

Latinoamerikarako eta Cariberako Ekonomia Batzordearen (gaztelaniaz, CEPAL<sup>67</sup>) txostenaren arabera, Nikaraguan tasa kezkarrietara iritsi da aitatasun arduragabea, eta hori pobrezia sortzen nabarmen eragiten duen alderditzat hartzen da. Txosten horren arabera, haurren % 25a amarekin bakarrik bizi da; % 3a aitarekin bakarrik; eta % 10a gurasoetariko inorekin ere ez. Guztira, 15 urtetik beherako haurren % 35 ez dela gurasoekin bizi esan nahi du horrek. Hiriguneetan kopuru horiek % 41era iristen dira. Beste hitz batzuetan esanda, Nikaraguako hirietan bost umetik bi ez dira beren gurasoekin bizi (CEPAL, 2001).

Ohikoa da pertsonen hau esaten entzutea: «Ez dut nire aita ezagutzen; amak berak bakarrik hazi nau» edo «Aita ez da gurekin bizi, eta ez digu batere laguntzarik ematen». Aitatasun arduragabea —aitak ezer edo ia ezer ez duenean jakin nahi seme-alaben mantenuaz, hazieraz eta heziketaz— askotan jokaera

<sup>67</sup> CEPAL, gaztelera: Comisión Económica Para América Latina y Caribe

bidegabetzat hartzen da; baina, aldi berean, naturalizat, «gizonak horrelakoak baitira». Egiazki, aitatasuna —arduratsua izan edo ez— ikasten dugun zerbait da, ohituren, heziketaren eta legeen bidez eraikitako zerbait (*Puntos de Encuentro*, 2011).

Gizarte osoa, haurtzarotik hasita, gogor ari da ordaintzen gizonezkoek sexu-, ugalketa- eta aitatasun-portaeran izan duten arduragabetasuna. Egoera horren ondorioak biztanleriak bizi dituen osasun-, heziketa-, eta segurtasunik ezaren arazoetan adarkatzen dira. Kultura patriarkala nagusitzen da, eta bertan gizon helduak mendekotasun-harremanak ezartzen ditu emakume, gazte eta haurrengan. Balio matxistak belaunaldiz belaunaldi helarazten dira. Kultura arloan, aita izateak ez du gizonezkoen genero-identitatea definitzen, baiezatu soilik egiten du; ama izateak ordea, bai, definitzen du emakume izatea. Aitatasuna ez da hartzen gizonak gizartean duten erantzukizun nagusizat; amatasuna, ordea, hala da emakumeentzat.

*Teresa:* Yo pensé que estarían más unidos con su padre al faltar yo, que él haría de padre y madre, cosa que no lo hizo, a mi hija la trató tan mal...

CEPALen txostenaren arabera beti ere, adingabeen haziera eta etxeko lanak emakumeei esleitzen zaizkie kulturalki. Gizarteak ez du zigortzen aitaren arduragabekeria amarena bezain zorrozki. Arlo sozioekonomikoan ere, oztopoak ugari dira. Pobrezia eta gizonezkoen zati handi baten marjinalitatea, bereziki nekazari heldu eta gazteena, jarrera arduratsuak eta heziketa-ekintzak iritsi ezin diren hesi bihurtzen dira. Nikaraguako gizonezko askok dituzten arazo sozioekonomikoek kontra egiten diete sexu- eta aita-portaera arduratsu bat hartuarazteko heziketa-ahaleginei. Gizonezkoek nekez onartzen dute aitatasuna fidagarritasun ekonomikorik ez badute. Hornitzeko baliabide ekonomikoaren gabeziaren aurrean, gizonezko askok uste dute ez dutela eskaintzeko ezer eta, ondorioz, saihestu egiten dute erabat seme-alabekiko duten erantzukizuna eta lotura.

Bikotea hauskorra da, eta gizonak askotan emakume bat baino gehiago izaten ditu; bat emazte nagusia izaten da, eta gainerakoek senartzat hartzen dute edo «nire seme-alaben aita», askotan esan ohi duten gisara. Era berean, ohikoa da aita desberdina duten anai-arrebak izatea ere. «Izatezko bikote» edo adostutako loturak dira, sozialki onartzen direnak (batez ere tartean seme-alabak badira) baina ezkontza-kontratu bidez legezkatzen ez direnak.

Laneko ezegonkortasunak edo enplegu ezak eraginda, gizonak ez ditu bere gain hartzen zuzenbidezko ezkontza batek sortzen dituen betebeharrak. Konpromiso ekonomikoaren gabezia horrek berekin dakar konpromiso afektibo baxua ere, eta horrek bide ematen dio lotura errazago eteteko.

*Ana:* Mi padre al igual que el padre de mis hijos fueron siempre irresponsables con los hijos. Mi madre se tenía que hacer cargo de todo, de los ocho hermanos

que éramos. Yo dije me caso y así vivo mejor, pero que va, fue lo mismo que con mi padre. Yo estuve peor, porque ya vinieron los hijos, cinco en total, tenía que trabajar más duro yo, porque la pareja no era como yo pensaba. Lo que mi madre sufrió sufrió yo.

Ezkontza-ezegonkortasunaren ondorioz edo zuzenean familia desagitearen ondorioz, familian antolatzekeo modu matriarkala agertzen da, eta emakumea izango da familiako osagairik egonkorrena eta garrantzitsuena. Emakumeak bideratzen eta administratzen du etxea, bera arduratzen da diru-sarrerak kontrolatzeaz eta berea da seme-alaben erantzukizuna. Lanera doanean, alabetako batek hartzen du etxeko ama-papera, edo amonak edo amaginarrebak egiten du hori. Askotan, seme-alabak behartuta daude etxeko ekonomiaren alde lan egitera. Horrela lanean jardun duten neska-mutikoen kopuru handi bat topatuko dugu.

*Ana:* A la edad de ocho años ya me pusieron a trabajar, mi madre me dijo: -de aquí en adelante te vistas y te calzas sola, yo te ayudaré pero tienes que aprender porque el día que yo no esté eso te servirá-. Mi madre era hornadora de pan, de rosquillas, de todo en ese tiempo, yo le aprendí mucho a ella. Me mandaba entregar a las tiendas a mí. Con las ganancias yo me tenía que administrar para mis gastos. La comida sí ponía mi madre. Iba a la escuela por la noche, de seis a nueve, llegué hasta cuarto grado, no pude pasar a más, trabajábamos mucho, desde las tres de la mañana y no nos quedaba tiempo de ir más.

*Adolfo:* De pequeño andaba vendiendo en la calle “La Prensa” y soñaba que algún día iba a escribir en ese periódico, cosa que así ocurrió.

Aipagarria da laurogeiko hamarkadan euskaldunek Erdialdeko Amerikan izan zuten presentzia. Euskal Herriko jendeak Latinoamerikaren eta bereziki Erdialdeko Amerikaren askapenaren aldeko herri-mugimenduekin izandako elkartasunaren ondorioz, jende askok parte hartu zuen elkartasun brigadetan Nikaraguan, El Salvadorren eta Guatemalan. M. Luisak, adibidez, urte askoan jarraian parte hartu zuen Nikaraguako herriaren eta gobernuaren aldeko nazioarteko brigadetan. Antonio Duplá historialariak honela dio bere ikerketan, euskaldunek Amerikan izan zuten presentziaz:

1979an parte-hartze garrantzitsua izan zen Fronte Sandinistak abian jarritako alfabetatze-kanpaina masiboetan. Borondatezko lankide horietako gehienek epe motzean lan egin zuten lan jakinetan; hala nola, eskolak eraikitzen, kafea biltzen, irakaskuntzan, osasun-kanpainenetan, eta abarretan (Duplá, 1992: 142).

*Lenin:* Yo llegué a Iruña en 1989. En el 85 había conocido a M<sup>o</sup> Luisa, la que es mi esposa, allá en Nicaragua. Ella había llegado como brigadista. En vista de que ella iba a salir más perjudicada si dejaba el trabajo aquí, porque era funcionaria, decidimos que yo me viniera aquí.

*Miguel:* Mi padre llegó en 1985 en una Brigada a construir una escuela en Los Chiles de Río San Juan. Le gustó y se quedó. Se quedó y no regresó nunca hasta el 2006. Colaboró en la lucha armada con el FSLN y después trabajó como agricultor, pescador o capataz de una piscifactoría.

Baina jende batek denbora luzeagoan iraun zuen, lan desberdinetan, eta zenbaitek bere bizitza han egitea erabaki zuen, gizarte berri bat eraikitzeke ilusioan erabat integratuta. Aurreko garai batzuen aldean, eragilea ez zen izan aberastasun-egarria, amestutako urrea, ezta ekonomikoki eta politikoki zaila zen errealitate batetik ihes egitea ere. Eta han ez zituzten hartu immigrante ekonomikotzat, baizik eta beren prozesu politikoak eta sozialak babestera zihoazen internazionalistatzat.

1979 eta 1990 urteen artean, gobernua Fronte Sandinistaren eskuetan zela, herrialde komunistek bekak eskaini zizkieten Nikaraguako ikasleei, eta haiek hainbat diziplinatan prestatu ziren erronka Iraultzaileari aurre egiteko. Aldi hori amaitu eta boterea Estatu Batuek babestutako gobernu liberalen eskuetan geratu zenean, herrialdetik kanpo zeuden ikasleek estatuaren administrazioan enplegua izateko aukerak ixten ikusi zituzten, eta, ondorioz, bakarka aurre egin behar izan zioten bizitzari. Horixe izan zen Ukrainan geratzea erabaki zuen Silvioren kasua. Berlingo Harresia erori zenean eta Sobietar Batasuna desagitearekin batera, 1991n Ukrainak independentzia lortu zuen. Hor hasi zen merkatu-ekonomia bateranzko igarotze-aldia, eta atzeraldi ekonomiko gogorra izan zen.

*Silvio:* Estuve 16 años en la llamada URSS, fui seleccionado por el gobierno Sandinista para estudiar en un país Comunista. Llegué a Ucrania y a los dos años me casé con una de allá y tuvimos dos hijas. Estudié electricidad. En las vacaciones, junto con otros compañeros, iba a Suecia, pasando por Finlandia a trabajar, vendiendo vodka, caviar, cigarrillos. Luego me puse a trabajar en una empresa eléctrica como ingeniero y el salario nos retenían hasta tres, cinco meses. Y cada mes que pasaba se nos acumulaban los gastos de la comunidad, de luz... se nos acumulaban las deudas y no teníamos salida. La empresa nos pagaba la luz o el agua, así. Entonces decidí salir. Para irme a Nicaragua, otro país que estaba con un nivel muy bajo y con toda la familia tampoco lo veía fácil. Desde 1995 comencé a venir algunas temporadas, por tres meses, a trabajar en Cataluña, En Barcelona tenía conocidos, uno que había estudiado conmigo en la Unión Soviética, se casó con una española, él era nica costarricense y a través de él conseguimos un trabajo en Santa Bárbara, Tarragona, en montaje de coches. En 1999 decidí ya quedarme.

Miguel, 24 urteko gaztea, 22 urterekin iritsi zen lehen aldiz bere aitaren lurraldera, Iruñera. Ama nikaraguarra du, eta han bizi izan ziren etortzea erabaki zuten arte, zailtasun ekonomikoek eta bere auzoan bizi zuten egoera ezegonkor eta arriskutsuak eraginda; auzoan gaizkile taldeak eratu ziren, kalean egon beste zereginik ez zuten gazte taldeak, Estatu Batuetan sortu eta Erdialdeko Amerika guztira hedatu ziren mugimenduak imitatu zituzten taldeak, hain zuzen.

*Miguel:* Tomamos la decisión de venir porque el lugar donde vivíamos se había vuelto un poco peligroso, para mí y mis hermanos. Estábamos en El Viejo, una comunidad de Chinandega, en uno de los barrios más peligrosos. Al saber la gente que mi padre no era de ahí llamábamos más la atención, me asaltaron tres veces y sentías mucha inseguridad. Otras incidencias, los problemas económicos y ya nos decidimos a venir toda la familia.

Nikaraguan talde horiek laurogeita hamarreko hamarkadan agertu ziren, kontrairaultzaren aurkako gerra amaitu eta gerraondo bete-betean. Dennis Rodgers-ek aztertu zuen herrialde horretako talde-fenomeno hori; herrialde horretan egindako ikerketa baten harira, azken hogeitaz taldeek izandako bilakaera aztertu eta mutil gazteak taldeetan biltzera eraman zituen bi arrazoi aipatu zituen:

Lehenik, 1990ean gobernuak aldatzeak balio-gutxitu egin zuen gizarte-maila, aurreko urteetan oso altua izan zena, bai nazio-subiranotasuna defendatzen zuten soldaduak izan zirelako bai armada aurkarian «askatasunaren aldeko borrokalari» izan zirelako. Talde horietako batean integratzea gizartearen aurrean berresteko modu bat zen, zeinak gauek goizera haietaz «ahaztea» erabaki zuela baitzirudien. Bigarrenik, taldean berreskuratu egiten zituzten gerrako esperientzia batzuk, ia modu menpetasun batean barneratu zituztenak. Guztiz markatu zituen eguneroko heriotza-arriskuak eta muturreko egoera dramatikoak aurre egiteko askatutako adrenalinak. Eta ez soilik arriskuak. Soldadu edo gerrillari gisa bizi izandako laguntasunak eta elkartasunak ere arrastoak utzi zizkien. Emozio horiek guztiak bizkor hasi ziren urritzen gerraondoko Nikaraguan, gero eta polarizatuagoa eta txirotuagoa zen hartan (Rodgers, 2004).

Miguelen bere analisia egiten du fenomenoari buruz, eta honela kontatzen du:

*Miguel:* Me empezaron a salir pandillas, jóvenes, como yo, que no sabían qué hacer, o no tenían más oportunidades, se iban a las esquinas a hablar con los amigos y... Todo es una moda, una moda que viene de un país desarrollado, empezaron a formarse en Nueva York, los salvadoreños y hondureños que vivían allá empezaron a formar sus grupitos. Estados Unidos los regresó para El Salvador y Honduras y ya la moda se extendió. Se extendió la moda de robarle al vecino, o al que pasaba por ahí, como a mí me pasó. Se da por la situación económica, al no tener a dónde ir los chavales, que están sin hacer nada, a consumir el vicio y a joder. Yo tengo mi idea de que cuando estaba el frente sandinista estaba el servicio militar y como ibas joven te ponían un poco de disciplina, pero al terminar la guerra y la mili. Los padres no se preocuparon suficiente por ellos, no les inculcaron valores adecuados y la falta de disciplina llevó a esto.

Nikaraguak, oraintsuko historian, gizaki eta material galera handiak jasan ditu, ez soilik gerren eta gatazka armatuen ondorioz, baizik baita hondamendi natural, lurrikara, lehorte, uholde, urakan, sumendien erupzio, itsasikara eta ekaitz tropikalen eraginez ere. Azken garaietan izandako hondamendirik handiena Mitch urakanak eragin zuen, 1998ko azaroan; Nikaragua eta Erdialdeko Ameikaren zati handi bat suntsituz.

Oro har, ondorioek biztanleriaren ehuneko hogeia eragin zioten, eta nazio-lurraldeko ehuneko hirurogeia. Errekek, lakuek eta urmaelek gainezka egin eta luiziek suntsitu egin zituzten errepideak, bideak, zubiak eta etxebizitza ugari. Elektrizitate-zerbitzuak eta urarenak kalte handiak jasan zituzten, eta galera handiak izan ziren, besteak beste, sesamo, soja, kafe, azukre-kanabera, tabako eta bananaren laborantzan.

*Efrain:* Yo trabajaba en el campo, teníamos finca con ganado y cafetales, nos iba bien hasta que pasó lo del huracán Mitch, que asoló Nicaragua, perdimos mucho, debastó corrales, casas, ganado y de todo. Entonces nos fuimos a Muy Muy, compramos otra finca, invertimos en una cosa y otra, empecé a sembrar hortalizas, tomates, pero no me fue bien, luego compré un bus pero pronto empezó a tener problemas de mecánica, lo vendí pero no terminaron de cancelarme, cuando me di cuenta estaba enjaranado<sup>68</sup>.

*Bayardo:* Estuve trabajando en una bananera y luego en una finca de ajonjolí, era planillero. Tenía buen empleo, pero con el Micht, 500 manzanas, un 90% fue arrasado y la empresa cerró. Me quedé sin trabajo, estuve yendo a Costa Rica, igual que mi padre, por temporadas a trabajar, pero me iba endeudando y decidimos salir.

Beste garai batzuetan multinazionalen esku zeuden banana- eta kotoi-eremuek industrializatutako ondasunak jaso zituzten lehengaien truke, beti ere balantza multinazionalen aldera desorekatuta zela; gaur egun, ordea, ez dira beharrezko esportazioaren merkatuan. Beste garai batean beren herrialdean erabilitako eskulan hori gaur egun Iparraldeko herrialdeetan eskatzen da.

## 1.2 Laguntza-sareak iritsierako lekuan

Sare sozialak eraikitzearen dinamika funtsezkoa da, batez ere, bidaia antolatzeke unean, erabakiak hartzerakoan eta iritsierako gizartera egokitzeko prozesuan; baina, oro har, migrazio-ibilbide osoan zehar. Gizarte hartzaile iristeak eta bertan finkatzeak berekin dakar, gehienez, gizarte-sareak eta sare pertsonalak sortzea. Gizarte-sare horiek garrantzia esanguratsua izan dezakete elkartasun-estrategiak elkarrekiko laguntza eraikitzerakoan. Lehen mailan daude familia-loturak eta nazionalitate berekoekin egindako lagun-sareak; horretaz gainera, ordea, aurretik kontaktua izandako beste

---

<sup>68</sup> zorpetuta



herrialde batzuetako jendearekin izandako harremanen bidez eratutako sareetara ere zabaltzen dira. Aipaturiko arrazoen artean daude harreman pertsonal horiek; horiek ematen dbai diete, hain zuzen, eskulan-eskaeraren inguruko informazioa irteera bila dabilzan horiei. Gizarte-loturak dira, beraz, Nafarroan finkatzeko zutabe nagusiak, immigranteek berek aipatzen duten gisara.

*Mercedes:* Escogí este lugar, primero por el idioma y en segundo lugar porque mi hija había conocido un cura catalán en unos encuentros de la iglesia, luego se siguieron comunicando y ella le contó de mis deseos de emigrar. A través de mi hija él me ayudó, me abrió las puertas, me hizo una carta de invitación para poder yo entrar aquí.

*Efraín:* Cuando estábamos en Pancasan, cuando la Revolución llegó un chico español allá, un chavalito de 22 años que estuvo en la alfabetización, se llama Antonio Marín, se hizo amigo de mi padre, lo acogió en su casa, vivió allá en la casa y el quedó con amistad con nosotros, nos escribía y nos escribía, luego regresó a Nicaragua en el 2005. Entonces yo le conté mi situación y las ganas de irme. El me dijo que me iba a conseguir una oferta de trabajo con unos amigos. A los 8 meses me llegó la carta, me llegó la oferta, y empecé a dar las vueltas. Como él tenía amistades en la embajada, me llamaron a la embajada, empecé a hacer papeles y a los dos meses llegué para acá.

*Carla:* Yo tengo una tía política que está en Málaga desde 1999. Yo tenía la idea de irme a Estados Unidos, porque tengo una hermana allá que ya está con papeles, pero como era peligroso irse para allá y mi hermana me decía que no me fuera sin documentos, que para irse mojada es muy peligroso y por el niño me decía que no era buena idea, miré que la posición más acertada era venirme para España. Esa tía mía me abrió las puertas, me dijo que me viniera, que me iba a poder ayudar.

Gehienak, gure komunitatean bizi diren hamar immigrantetik bederatz, beren herrialdetik zuzenean iritsi dira Espainiako estatura eta, zehazki, Nafarroara. Egoerarik onenean daude aurrez iritsitako familiakoek edo lagunek hartu dituztenak; izan ere, horrek ohikoa baino giro gertukoagoa eskaintzen die, lotura afektiboak erabat eten gabe, berehala etxe bila edo lan bila hasteko presiorik gabe, eta, gainera, inguruan mugitzen badakien baten laguntzarekin. Mugikortasunaren logikak, beraz, berekin dakar gizarte-sare horiek eraikitzea eta finkatzea; izan ere, horien bidez kokatzeko laguntza eskainiko zaie iritsi berriei, eta hori izango da bide nagusia iritsierako herrialdeko egoerari buruz, eta batez ere lan-merkatuan dagoen egoerari buruz informazioa zabaltzeko. Bestalde, gertukoenekin edo ahaideekin partekatzen dira, baita ere, inimizio-errituen saila osatzen duten: batetik bestera mugitzen ikastea, informazioa interpretatzen ikastea, poliziarekin topo egitea saihestea edo enplegua bilatzea.

Beste sareak dira hemengo jendearekin dituzten kontaktuak edo hemengo adiskideak. Horrek erakusten digu aurrez bazirela loturak herrialde bidaltzailearen eta herrialde hartzailearen artean. Lotura erlijiozko edo ideologikoak kasu honetan, gertuko

edo ez hain gertuko iragan bateko jardunbide edo esku-hartzetik eratorriak, eta eragina izan eta lotura sendoak sortu dituztenak errealitate desberdinen artean.

### 1.3 Banatzearen kostu afektiboak

Migrazio-prozesuak aldaketa ugari dakartza, eta horietako batzuk galeratzat hartzen dira, bai geratzen direnen bai joaten direnen aldetik. Joaten denak atzean uzten ditu familiakoak, lagunak, gizarte-ingurunea, ohiturak, lurraldea, klima, paisaia, elikadura eta sentimenduei oso erroturik dauden beste kultura-elementu batzuk. Alde horretatik, berekin dakar malgutasun handia garatzea eta nahiko egonkortasun eta indar izatea, erronka berriei aurre egiteko eta lotura berriak ezartzeko.

*Flor:* Tengo cuatro hijos y allá está muy difícil la cosa. Mi esposo pidió visa para Estados Unidos pero se la denegaron entonces salí yo. La situación allá es muy difícil. Fue una decisión muy dura, dejar a los cuatro hijos, pero por el futuro de ellos te sacrificas. Ahora los cuatro están estudiando. Al venirme aquí ya es un poco más fácil para ellos, económicamente, pero para mí es duro estar sin ellos.

*Sergio:* Carla, mi esposa vino primero que yo, ella me llamaba, pero yo sentía que estaba tan largo... Ahora que ya estás aquí esto no te parece, pero cuando estás allá se te hace todo tan lejano... Ahora yo siento a mi familia cerca desde aquí, porque me comunico con ellos, se donde están, pero cuando no conoces el sitio donde está la otra persona se te hace todo como más difícil. Aunque no quiero ni pensar que estoy en otro continente porque si no me ahuevo.

*Mercedes:* Cuando llegué el Padre Emilio, quien había conocido a mi hija allá, me acogió muy bien, me emocioné, lloré mucho de alegría, de tristeza, fue un paso muy grande para mí, una decisión enorme, que yo todavía no me lo creo, el haber dejado a mis hijos, es cierto que ya no estaban pequeños (se emociona, le salen lágrimas) pero es muy duro tomar esas decisiones, dejar los hijos tan lejos... estar separados de ellos.

Jatorrizko herrialdea ez da desagertzen, ez da galtzen; iraun egiten du, egunen batean itzultzeko ideia hor dago. Espazio-denborako galera bat da. Haustura bat gertatzen da bai banako-mailan, bai talde-mailan, bai gizarte-mailan, berezkoa zaien eremuarekin, nortasuna, harremanak eta biztanleen historia eratzen den lurraldearekin. Haustura horrek arriskuak dakartza; horiei aurre egiten die joaten den pertsonak, eta horiek eragiten dute geratzen denarengan. Familia eta inguruarekiko banaketa fisikoa gertatzen da. Kanpoan egondako aldi horretan aldaketa ugari gertatzen dira, bai jatorriko herrialdean bai immigrantarengan berarengan. Bestalde, migrazioak hainbesteko aldaketa eragiten du, zeren nortasuna agerian jartzeaz gainera arriskuan ere jartzen

baitu. Objektu ugari galtzen dira, eta horren barnean esanguratsuenak eta baliotsuenak, ohiturak, zenbaitetan lanbidea, eta gizarte-maila eta maila ekonomikoa.

#### 1.4 Europan sartzea

«Europa Gotortu»an sartzeak —ustez giza eskubideak errespetatzen eta legeak betetzen diren eremua; inguratzen duen muga behin igarota, pertsonak babestuta daudela uste den kontinentea—, praktikan, harresi asko ditu, hemen kontatzen diren esperientzia askotan ikus daitekeen moduan. Europa hori EB osatzearekin eratu zen 90eko hamarkadatik aurrera; eta hainbat hitzarmen eta zuzentarauren bidez, migrazio-kudeaketarako eremuak proposatu ditu, eskubideak lortzeko aldea egonik. Fluxuen kudeaketa hori merkatuaren eta ekonomiaren beharrak kontuan izanda ezarri da, ez ordea gizakien beharrak. Honelakoa izan zen Leninen eta Carlaren iritsierako esperientzia urrezko Mendebaldera:

*Lenin:* Llegué en 1988 al aeropuerto de Madrid. No me dejaron pasar, me pusieron muchos obstáculos, yo traía una carta de invitación de M<sup>a</sup> Luisa, pero me deportaron, porque no traía suficiente dinero. Yo les dije que me iba a quedar con mi novia, en su casa, dijeron que eso no servía. M<sup>a</sup> Luisa habló con la policía, le permitieron verme, estar un poco conmigo, hasta la hora de embarcar pero me regresaron. No me dejaban salir de la sala. Había más gente, de Ecuador, de Colombia, de México, todos para regresar, de Nicaragua no había nadie más. M<sup>a</sup> Luisa protestó ante la policía de cómo nos tenían ahí sin comer ni nada y entonces nos trajeron unos tiques y nos mandaron a comer. Sino ahí estábamos en aquellos bancos tirados sin nada. Nos embarcaron en un vuelo que iba para Costa Rica. M<sup>a</sup> Luisa se tuvo que regresar a Pamplona, sin mí, fue un golpe muy fuerte.

*Carla:* Me vine primero en el 2001, una semana después de lo de las torres gemelas y no me dejaron entrar. Fue frustrante y decepcionante para mí, porque la situación que estábamos viviendo en mi país era muy lamentable. Yo ya tenía un niño, ya había dejado de estudiar, mi mamá no me podía mantener como antes, teníamos que costear todo nosotros, era muy difícil. Los trabajos no son nada estables y si te pagan es una tontera. Yo esperé un tiempo y decidí intentarlo de nuevo en el 2007. Esa vez no tuve ningún problema, llegué a Málaga, donde mi tía pero las cosas no fueron como pensaba. A una le abren muchas puertas y muchas ilusiones, te dicen, te cuentan de todo, pero cuando uno está en la realidad, ya es otra cosa. Yo me decepcioné mucho con muchas cosas que intentaron hacer conmigo. Cuando yo decido venirme me mandan una carta de invitación para que no tuviera ningún problema de entrar. No me hizo falta porque no me pidieron nada, solo si traía dinero y yo traía dinero porque Sergio empeñó su casa y así yo me pude venir. Esta señora me dijo que había

pagado la reservación del hotel para 15 días y que yo le tenía que pagar. Yo le pedí el recibo de esa reservación, que supuestamente valía 600 euros, pero ella nunca me mostró ese recibo. Yo investigué por mi cuenta. Yo nunca estuve en ese hotel, porque la hija de esa tía me recogió y me llevó a su casa. Dilaté 15 días en ponerme a trabajar, yo traía dinero y me costeé todos los gastos de esos días.

*Miguel:* Tuvimos problemas en Costa Rica, porque mi madre iba a visitar a dos hijas suyas que viven allá. En el aeropuerto nos exigieron que tuviéramos el vuelo de regreso a Costa Rica y también a Nicaragua y como habíamos comprado solo el de venida no nos dejaron abordar al avión. Perdimos el viaje, tuvimos que comprar de nuevo otros pasajes de avión, esta vez de ida y vuelta y a los dos días ya estábamos aquí.

*Yoka:* La mamá de Carol, mi compañera, estuvo detenida como 22 días en París. 1200 euros tuvieron que pagar a un abogado para que la sacara. La retuvieron porque traía poco dinero en mano. Había otros chicos de Nicaragua en el mismo vuelo, cuando vieron el montón de latinos, los iban apartando a un lado, a un lado, así y les dijeron que pasaran a una sala, que venían como veinte. Dice que la llevaron a la Cruz Roja, que está pegado al aeropuerto. Que había gente de todos los países allá, como unos cincuenta. Con un montón de idiomas ahí en esa sala. En la Cruz Roja dice que un señor les aconsejó que dijeran que no se querían ir. Unas tres se resistieron, dijeron que no se querían ir, empezaron a apelar, los demás dijeron que ya no tenían dinero para pagar abogados. Carol le envió el dinero inmediatamente por la Western Union pero no le dejaban recoger. Parece que es un negocio. Como a los 15 días apareció el abogado, fue con ella a recoger el dinero y se lo quedó.

Beste batzuek ez zuten zailtasun gehiegirik izan; izan ere, zenbait alditan atzerritarrek sartzeko edo onartzeko politikak nahiko malguak izaten dira; beste batzuetan, ordea, blindatu egiten dira. Irizpideak aldatuz doaz eta, beraz, beharrezkoa da herrialde bakoitzeko eta une bakoitzeko modalitateak ezagutzea; eta beti dago, ezarritako baldintzak bete arren, itzultzera behartua izateko arriskua.

*Mercedes:* Vine haciendo escala en Holanda y Portugal, y desde ahí en tren, porque me dijeron que había menos controles. Yo no tuve problemas para entrar, pero otra gente nica que venía conmigo la retuvieron en Holanda y las retornaron a Nicaragua. Lo mismo le pasó hace poco a la prima de Silvio, que la retornaron de Londres, junto a todo un grupo de nicaragüenses.

Estatuak eta EBk migrazio-fluxuak kontrolatzeko egiten duten ahaleginak ikuspegi trafikista eta utilitarista finkatu du nazioarteko migrazioei dagokienez; ikuspegi horrek kontrolatu gabeko migrazio oro kriminalizatu egiten du, eta Europako estatuek fluxu horiek kontrolatu ditzaketen eta hala egin behar duten ideia indartzen du, beren interesen arabera; eta soilik kostu ekonomiko baxuenean eskulana erakarri nahi duen lan-merkatuaren baitan dago, mugak ixteko politikak legezkotuz.

*Efrain:* Llegué aquí el 15 de junio del 2006 aquí. No tuve ningún problema en la entrada, yo venía con visa y oferta de trabajo. Llegué a Estella, donde Antonio Marín, él es de Murillo del Fruto. Me quedé un mes en su casa, porque el jefe de la empresa no estaba, parece que andaba fuera, de vacaciones y tuve que esperar. Luego me trajeron a Pamplona, ellos mismos me buscaron un piso donde quedarme, con un chico de aquí.

Mugetako kontrolak sendotzera bideratutako neurri murriztaileek eragin kaltegarriak dituzte, eta beren herrialdetik ateratzea erabakitzen dutenen beharren kontura aberasten diren migrazio-sareen onurak areagotzen dituzte. Migrazioak modu askotara gertatzen dira, eta legezketasunaren muga dabilzan askotariko sareen helburu dira; sare horiek bide mota asko eskaintzen dituzte pertsonak sarrera-sistema zorrotzak dituzten herrialdeetara sartzeko.

*Mirta:* Tuve algunos problemas a la llegada en el aeropuerto. Resulta que en Nicaragua había una agencia de viaje que te vendía el boleto y a la vez la carta de invitación que aquí se pedía a la entrada. Pero era un fraude. Eso no te servía. Veníamos cinco en la misma situación y nos retuvieron por dos horas, discutimos y discutimos y al final nos dejaron entrar.

Migrazio-mugikortasunari jartzen zaizkion oztopo guztiak lur ongarritia dira «mafia» sareentzat, edo gizakiak trafikatu egoeraz baliatzen saiatzen diren pertsonentzat. Gutxi prestatutako kayuko edo paterekin mugak igarotzeak edo mugako beste sare batzuek eragiten duten sarraskira iritsi gabe, nazioko eta nazioarteko erakundeen era guztietako irregulartasunak topatzen ditugu.

Migrazio-kate eta -sareen artikulazioak eta dinamikak jatorriko eta iritsierako lekuak lotu dituzten harreman sozial eta ekonomikoen sare konplexu bat sortu du, eta izaera transnazonala eman die borroka desorekatu baten barnean garatutako beren migrazio-proiektuei; borroka horietan migratzaileak, ezin konta ahala estrategia erabilia, mundu-mailako gizarte-bazterketa edo -marjinazioaren oinarriaren gainean eraikitako nagusitasun-ordena iraultzen saiatzen dira.

*Teresa:* En el aeropuerto enseñó la documentación y el policía me señaló: -coja para aquella habitación y ahí espere. Desde las siete de la mañana que llegué a Madrid hasta las tres de la tarde estuve encerrada en esa habitación. Hasta que me pasaron con los de inmigración, un señor todo calvo me dice:

-¡Otra latina! me tienen hasta los cojones los latinos, ¡siéntate! Quiero que me digas la verdad, porque hasta el pelo he perdido, es que yo no los aguanto. ¡Ay que vengo de turista! De turista con 500 dólares, aquí a España... ¿Tú traes dinero?

-No no traigo- le contesto.

-¿No traes dinero?

-Lo único que me acompaña son los 100 dólares que me dio mi marido.

Cuando él revisa mi documentación, no traía el boleto de regreso. Cuando en Costa Rica me revisaron se quedaron con el boleto de regreso. Le dije que revisara porque era electrónico y ahí estaría.

-¿A qué vienes a España?- me dice.

-A trabajar- le contesto, como con miedo.

-No te escuché- me dice.

-Vengo a trabajar, yo no vengo de turista

-¡Cojones, cojones los que tienes tú chica!

-De todos modos ya me tienes aquí- le digo. Yo vengo a trabajar. Si tienes la voluntad de dejarme pasar...

-Y ¿a dónde vas? Me dice.

-Voy a Pamplona.

Xiomara ya me había dado la dirección de su piso, el teléfono, el DNI de Favio Castellón, su compañero y todo, yo ya me lo había aprendido, le conté, le dije que iba a trabajarles a ellos, que me estaban esperando. Me dice:

-Coge tus papeles y que te selle tu documentación. Te vas antes de que me arrepienta, pero trabaja dignamente, no me quiero dar cuenta de que has hecho algo.

-Gracias le digo- y me fui.

Yo les rezaba a todos los santos del cielo. Llego a la ventanilla y le digo:

-Dice el chico de allá que me selles la documentación.

-Pero joder, si habíamos quedado que nadie iba a pasar hoy.

-Tú séllame- le digo- y ya está- Ahí yo ya me sentía fuerte, ya había pasado la barrera. Me selló.

Hor erakusten da mugen iragazkortasuna, eta nola mugatzen duen poliziak sarrera edo bazterrera uztea, bere irizpideen arabera, ausaz, eta une horretan duen aldartearen arabera; horiek boterearen mekanismo izaten jarraitzen dute.

## 2. Identitate kulturantzuna

Jatorriko herrialdearekin eta bere gizarte-ingurune guztiarekin eteteak probatu egiten du emigratzaileak iritsierako lekuan egokitzeko duen gaitasuna. Familia-, lan-, politika-, eta gizarte-ingurune batean integratutako pertsonak izatetik, ekonomikoki eta politikoki baztertutako gizarte-egitura batean produkzio-subjektu izatera igarotzen dira. Immigranteek, estigmatizatutako nortasun baten jabe direnek beren jatorri nazional edo etnikoagatik, kultura eta/edo egoera kidetasunagatik gertueneko duten gizarte-talde batengan bilatzen dute laguntza. Beren herrimina ulertzen dutenen artean hartzen dute babesa, jatorriko lekua oroitzuz eta idealizatuz; aldi berean, erro berriak sortzen dituzte, esperientzia berriak eraikitzeko eta sendotzeko bide emango dieten sare berriak.

### 2.1 Iritsiera-lekuko erreferente historikoak

Iritsierako herrialdeari buruzko hautematea estuki lotua dago iritsi aurreko itxaropenei eta bertan izandako esperientziari. Immigranteen beharrak eta eskaerak asetzen badira, errazago onartuko dituzte zailtasunak eta ziurgabetasunak.

Iritsierak aurretiko ideiekiko aurrez aurrekoa dakar, irudi utopikoen eta egoera erreal eta espezifikoen emaitza; azken horiek definitzen dute eguneroko bizitza konkretuaren eremua. Latinoamerikarrentzat, oro har, eta nikaraguarrentzat, bereziki, Espainiako estatua gertukoa da, azken bostehun urtean gorde diren lotura kolonial eta poskolonialengatik. Espainia Inperial hori komunikabideen, ebanjelizazioaren eta hezkuntza formalaren bidez eraiki da; Espainiako estatuan sortutako eskolako testuliburu ugari izan dituztelarik.

Lotura horiek 80ko hamarkadan, Nikaraguako Iraultza Sandinistaren garaian, sendotu ziren; garai hartan, brigadetako eta borondatezko lankide asko iritsi ziren Nikaraguara, eta bertako jendearekin harremana izan zuten. Gerora, GKEak ugaritzearen ondorioz, sendotu egin ziren harreman horiek; menpekotasun-loturei eusten zieten horrela, garapen-prozesuen izenean, modernizazio- eta globalizazio-eredu jakinekin, baina gizarte-desberdintasunak areagotzea eraginez.

*Darío:* Estuve casi siete años en el programa de Educación de Adultos. Era un programa financiado por la Cooperación Española coordinado con el Ministerio de Educación quien otorgaba los certificados de estudio. En el 2006 con el cambio de gobierno la cooperación se retiró.

Kooperazioaren zati batek erreferentetzat gobernua hartzen du eta ez Estatua, edozein aldaketa politikoen aurrean ahultasuna nabarmenduz. Behin behineko proiektuak,

jarraipenarik ziurtatu gabe, itxaropenak sortuz, arrazoi ezberdinengatik zapuztuak izango direnak.

Kontuan hartzeko modukoa izan zen 80ko hamarkadan Nikaraguako iraultza sandinistaren prozesuan nazioarteak izan zuen presentzia. Euskaldunok eta beste herrialde askotatik joandakoek Parte hartu genuen urte haietan gauzatu zen prozesu politiko eta sozialean. Aldi berean, sentsibilizazio-lan handia egin zen komunikabideetan Erdialdeko Amerikako herrialde txiki honi protagonismo nagusia emanez. Joan-etorriko elkartasun-jarduerak ugaritu egin ziren Euskal Herriko herri eta hirietan. Horri esker, Nikaragua ezagutu zen hemen; bere historia, bere musika, bere jendearengana hurbildu zen, behintzat, herritarren zati bat. Jende horren jarrerak eta ideologiak adiskidetasun- eta elkartasun-harremanak sortzea eragin zuen. Nahiz eta Nikaraguan aldaketa politiko sendoak eta iraunkorrak izateko itxaropenak zapuztuak izan, gizarte-babes bat sortu zuten; eta horrek erraztu egin du haien eta gure arteko lotura, gaur egun, hemen, Nikaraguako gizon-emakumeen bereziki, eta Erdialdeko Amerikakoen oro har, bisita jasotzean. Elkar onartzeak enpatia sortu du, eta horrek lagundu egin dio Nikaraguako migrazioari beste talde etniko batzuk baino errazago integratzen, egoera eta jende ezezaguna eta/edo —iragan historiko kolonial bategatik— prestigiorik gabearen aurrean ezartzen diren muga horiek hautsiz.

*Sergio:* Cuando digo que soy nicaragüense en general siento que me reciben bien, yo estoy orgulloso de ello, somos gente responsable, muy responsables en nuestros trabajos siempre que nos traten bien. Casi todo el mundo aquí conoce Nicaragua, hasta uno que iba bien tomado una vez cuando le digo que soy de Nicaragua me empieza a tararear la canción Nicaragua Nicaragüita, se la saben esta canción. Y ¿qué tal Daniel Ortega? Y conocen tanto...y yo digo cómo conocerán tanto, si somos un país pequeño y tan lejos...

*Silvio:* Cuando digo que soy nicaragüense, por lo general la gente me mira bien. Quizás porque nunca hemos tenido problemas los que estamos, no hay una mala imagen de los nicaragüenses de momento. Sabemos que por uno pagan todos y tenemos que cuidar eso. Quizás por la trayectoria que hemos tenido, por la revolución que hicimos. Porque estuvo aquí uno de nuestros artistas, Carlos Mejía Godoy y es conocido por la canción Nicaragua Nicaragüita que casi todo el mundo lo conoce y lo asocia con algo positivo. Ha sido un ejemplo y está vivo. Te vas a cualquier lugar, a Lekunberri, Estella, donde sea y la gente ha oído hablar de la revolución Sandinista, de Daniel Ortega, mucha gente sabe lo que pasó en Nicaragua, saben dónde está. Te encuentras con gente que ha estado allá. Un día yo iba por la calle con una camiseta de Carlos Fonseca<sup>69</sup> y uno me comenzó a hablar, a preguntar sobre Nicaragua y hoy somos amigos. Es Fermintxo de Berriozar.

*Fátima C.:* Quieren conocer Nicaragua, hay un conocido que me dice en cuanto me ve, Nicaragua sandinista, viva Daniel Ortega, es muy divertido. A veces los

<sup>69</sup> Nazio Askapenerako Fronte Sandinistaren sortzaileetako bat.



españoles saben bastante más de Nicaragua que los latinos. Los españoles son más curiosos, aunque sea por internet, pero te sacan cosas, y los latinos te preguntan: -y ¿dónde queda eso? También me he encontrado con gente que ha estado allá.

*Magali:* La gente de aquí conoce bastante de Nicaragua, en seguida te dicen capital Managua, y saben mucho, del gobierno, de los lagos, de las playas, a la gente de aquí les gusta leer mucho.

## 2.2 Emigratzen duenaren herrimina

Herrialde batera iritsi aurretik beste herrialde bat uzten da, eta pertsona baten sentimenduak ez dira inoiz sinpleak uzten duen lurrarekiko. Badira irauten duten loturak: hizkuntza, erlijioa, musika, lagunak, festak, elikadura eta egunerokotasunaren zati diren hainbat eta hainbat xehetasun. Egokitzeko eta integratzeko prozesuan, agerian geratzen dira pertsonak izaten dituen gorabeherak hartzen duen berriaren eta atzean utzitakoaren aurrean. Askotan, bidaian atera aurretik, emigranteak idealizatu egiten du (edo egiten diote) norako berria. Baina iristen denean, guztia ez da irudikatu zuen bezalakoa. Maiz, bizi-baldintza zailtan izaten da, lana aurkitzeko zailtasunak izaten ditu, legezatzeko arazoak, etxebizitza-arazoak, hizkuntzarenak, kanpoko presioa, egokitzeko zailtasunak, gaitzespena eta baztertzea. Horrek guztiak zaildu egiten du egoera berria onartzea eta bere jatorriko herrialdearekiko distantzian integratzea. Baina guztia nahi izan bezala eta amestu bezala izan balitz ere, utzitako lekua eta denbora gorputzean geratzen dira idatzita. Ahaztea eta oroitzea —diosku Marc Augé-k— lorezainaren lana egitea da, belar batzuk kentzea beste batzuk gehiago haz daitezen, hautatzea, kimatzea. Oroitzapenak moldatu egiten dira, itsasoak itsasertza moldatzen duen bezala (Augé, 1998: 23).

*Ana:* Añoro el clima, el tipo de casas, nos cuesta adaptarnos a este tipo de casa, estar tan encerrados, no tener relación con los vecinos. Extraño mucho a la familia, extraño las comidas, aunque cocinemos en casa a nuestra manera pero no hay de todo lo que hay allá. La chaya, el quequisque, la malanga... La manera de cocinar es diferente pero uno se acostumbra se adapta.

*Marcela:* Lo que más echo en falta son las costumbres, las fiestas, estar con la gente, porque aquí estás encerrada entre cuatro paredes, extraño la familia, aunque tengas tus problemas pero es lo más cercano que tienes, extraño el país en general, mi casa, porque las casas de aquí son tan diferentes... las de allá son mejores, más amplias, con patio...

*Flor:* Lo primero es el clima que es muy helado, luego extrañas la familia, lloras todos los días, te acostumbras en parte a los ritmos de la vida de aquí pero siempre estás pendiente de tus hijos.

*Alejandro:* Con el vecindario es muy distinto de nuestro país, allá estamos comunicándonos continuamente, aquí no, solo te saludas y nada más. Casi todos los días añoro mi país, la gente, las amistades, los vecinos, las comidas como los elotes, la uirila, el atol, los frijoles camaue, la música, que la pones a todo volumen y nadie te dice nada. Extraño siempre mi país, uno siente la nostalgia de su tierra.

Familiaren etxebizitza gela batera murrizteak, edo norbanakoaren nortasuna galtze hori onartzeak egokitze-prozesu bat eskatzen du. Zenbat eta mingarriagoa izan oraina, orduan eta leku gehiago izango du herriminak, oroitzapenak. Prozesu horretan, askok beren «berdinak» bilatzen dituzte, eta jatorriko herrialdeko bizitza modua errepikatuzera jotzen dute; distantzia areagotuko du horrek, baina tentsioak arintzen eta egokitze-prozesua eramangarriago bihurtzen lagunduko du.

Ikerketa honetan parte hartu duten pertsona askok beren jatorriko herrialdearen nostalgia eta hemengo etxebizitzaren desabantailak aipatu dituzte; badirudi, ordea, gazteenak erakarri egiten dituztela inguru honetako hiri eta eraikuntzen egituren abantailek. Hemengo etxebizitza batean bizitzea, batetik, auzokoengandik isolatze gisa hartzen da; bestetik, tentsioak eragiten dituen bizitegi-pilaketa gisa; eta, aldiz, beste pertsona batzuentzat (gazteenentzat) positiboki balioesten den intimitate handiagoa dakar. Anonimotasuna, gizarte modernoaren ezaugarri dena eta bere kideen gaineko talde-kontrola murrizten duena, kontuan hartzeko osagaia da, bere kontraesan guztiekin.

*Miguel:* La privacidad de las casas de aquí me gusta, allá todo el vecindario sabe todo de ti, mientras que aquí en eso es más tranquilo, nadie se mete contigo. Vivir en un piso, en un tercero se te hace un poco raro, porque allá estás acostumbrado a vivir abajo, al ras del suelo, pero también me gusta.

*Silvio:* La nostalgia de dejar a tu tierra y tus seres queridos, ya con el tiempo hacés tu familia. Cuando yo regresé a Nicaragua después de 12 años, me agarraba una desesperación... que yo me acuerdo que iba en el bus y no podía contenerme las lágrimas, te da un impresión tan grande y... cuando me venía también, al mes me vine y estaba que me quería quedar. Todos quieren estar contigo, los amigos, los familiares y te venís con una nostalgia muy grande. No hay tiempo para estar con todos, para hacer todo lo que quieres hacer, para comer de todo aquello que te gusta.

*Carla:* Ahora mi hijo está estudiando y está bien pero muchas veces nos dice que nos extraña. Al principio le llamábamos una vez al mes, porque no teníamos condiciones para llamarle tan seguido, teníamos muchos gastos, debíamos mucho dinero, ahora las deudas ya se han ido pagando y ya le podemos llamar con frecuencia, pero el otro día me dolió porque me dijo que ya se estaba acostumbrando a que estuviéramos largo, que no me preocupara que ya se estaba adaptando.

*Fátima C.:* Extrañas muchas cosas, muchos detalles. Por ejemplo me gustaría andar con una sombrilla en el verano, pero no me atrevo, porque me van a mirar... ¡no sabes cómo extraño eso!

Jatorriko herrialdera joan ezin den aldian (paperik ez izateagatik) —han utzi dituzte seme-alabak, bikotea edo familiako besteak— aberria goratu egiten da eta eguneroko bizitzaren alderdi askoren mira egiten da, idealizatuz eta errelitatetik urrunduz. Aldi hori igarotzen denean eta migratzailea inguru berrira egokitzen hasten denean, bi herrialdeak izango dira haren afektuaren, leialtasunaren eta nortasunaren parte. Haietako bakoitzak eskaintzen dituen abantailez gozatuko du, pertsona transnazional bilakatuz; baina, horretarako, gutxieneko baldintza ekonomikoak izan behar dira.

*Fátima:* Todas las noches lloro, es un calvario, me siento sola, me acuerdo de mis hijos, desearía poder coger un autobús y largarme. Yo creo que si mi país estuviera a cuatro o cinco horas ya me hubiera ido, pero solo de pensar que hay que pasar 12 horas de avión y buscarme mil euros para el viaje e irme sin nada... Es demasiado caro el boleto. Allá no lo podemos pagar, estando aquí sí puedes, pero allá no. A veces me agarra soñar que estoy en mi país, pero en el mismo sueño me pregunto: y ahora ¿cómo me voy a regresar para España? Y qué hago aquí en Nicaragua, y quién me va a dar para el boleto... me despierto asustado y me doy cuenta que estoy aquí, ya me da risa. A la vez le doy gracias a dios y le digo que si me ha dejado estar aquí es por algo, pero en el sueño me inspira tristeza.

Oroitzapena ezin da bereizi unean den egoeratik; izan ere, memoriak beti sartzen ditu orainaldiko elementuak. Bestalde, oroitzapen bat gogoratzen den aldiro, oroitzapen horrek orainaren iragazkitik igaro behar du, eta gogoratze aldi bakoitzean orainak ekarritako aldaketak, balioespenak eta ñabardura berriak sartuko dira. Oroitzea orainean inskribatuta dagoen jarduera bat da, orainaldiko beste une bat da. Baina orainean duten dentsitatea eta trinkotasuna atzoko segidakoen emaitza da, esanahiarena, afektuarena, eta laguntzen dion guztiarena.

*Lenin:* Yo viajo todos los años a Nicaragua. De allá me traigo la alegría que tenemos, la unidad de la familia, de los amigos. No me gusta traer comida o cosas, porque creo que en el fondo no es saludable. Porque eso se acaba y te quedas con la morriña, con la añoranza, estar pegado a lo de allá y eso no te ayuda a estar bien aquí. Yo prefiero aprovechar allá bien y ya. Creo que te tienes que alimentar de la cultura de donde uno vive, ir probando todo, para que te vaya gustando y no estar pensando en la comida de allá. De música sí, me traigo todo lo que puedo, porque la música alimenta el alma, el espíritu y lo mantiene a uno vital. Siempre que puedo la pongo, los sábados mientras vas haciendo las cosas de la casa... cuando tengo tiempo para estar escuchando...

Mendeetan zehar eraiki den oro ulertzea, memoria, sinboloak, erakundeak, hizkuntza, artelanak, lotuta (edo gabe) senti dezakeen oro. Zenbat eta gehiago hauteman etorkin batek bere jatorriko kultura errespetatzen dela, orduan eta gehiago irekiko da iritsierako

herrialdeko kulturarantz. Eta zenbat eta gehiago xurgatu edo ezagutu bizi den herrialdeko kultura, orduan eta gehiago blaituko da bere kulturaz. Baina, horretarako, beharrezkoa da kulturarteko eremuak sortzea. Jendea balioetsita sentitzen bada, ondasun horiek aitortuta sentitzen baditu, ireki egingo da gainerako ondasunetara ere.

### 2.3 Identitatea berreraikitzea

Identitatea ez da jaiotzaz definitzen, ez da ez egonkorra ez homogenea; bizitzaren joanean aldatu egiten da. Identitatea ez zaigu betirako ematen, baizik eta eraiki eta eraldatu egiten da gure izatean barrena. Guregan guztiongan ondasun ugari bat egiten dute. Gure ondasunetako bakoitzak pertsona askorekin elkartzen gaitu; aldiz, zenbat eta gehiago izan kontuan hartzen ditugun ondasunak, orduan eta konplexuago agertuko da identitatea. Gizaki guztiok, salbuespenik gabe, identitate konposatua dugu; bata bestearen gainean jarritz edo elkarrekin nahasiz joan diren ondasun ugari ditugu. Inor ez da gauza bakar bat. Gizarte- eta kultura-harreman askotarikoen emaitza gara, eta zenbaitetan gatazkatsuak izan ohi dira horiek. Gauzak eta pertsonak etengabe aldatzen ari gara, banako- eta gizarte-mailako eraikuntzaren prozesu dinamiko baten baitan gaude. Migrazio-prozesuak baldintzatu egiten du identitatearen birdefinizioa eta berreraikuntza, gizarte-ingurune berriarekin harremanetan jartzen denetik. Norbanakoaren eta taldearen egokitzeko gaitasuna probatzen du.

*Ruth:* Yo he cambiado mucho. Soy otra persona. En todo. No soy ni por el forro lo que era allá. Físicamente, espiritualmente, moralmente. Eso me pasó con Fernando. Estuve 15 años con él. Tú puedes cambiar y yo no ¿por qué? porque soy mujer y tú porque eres un machista, cuando él ya vio eso. Ahora voy primero a por mí, pienso en mí y antes era él, él y él. Ahora soy yo y mis hijos. Acepto lo bueno y lo malo de mí como persona. Yo era muy inocente. Él no me dejaba ver nada, no me dejaba ver lo de fuera, solo para él y para él. Yo no era capaz de ir a tomar una taza de café con una amiga, porque él me hacía ver como que esta amiga era una puta. Pero si el puto y el desgraciado era él. Entonces, claro, él no quería que yo viera, que los ojos se me abrieran. Al año de estar aquí, darle vuelta a Pamplona, agarrar aire fresco y jarranca por favor! Fue una libertad como mujer, como persona, como que liberé muchas cosas que tenía dentro de mí. Mira, cuando vienes aquí es otro mundo, otra sociedad, otro ambiente. Tu cuerpo, tu mente, ya te pide otra cosa. Aquí tienes la libertad. Tu personalidad te la vas haciendo.

*Teresa:* Esta experiencia me ha cambiado totalmente, mi manera de pensar, el día a día de aquí te va cambiando, vas viendo la vida con otra perspectiva.

*Fátima:* Muchas cosas he descubierto aquí, de mí misma, cosas íntimas, con mi pareja, de la relación... Me doy cuenta que yo tenía una venda en mis ojos, yo

decía que era imprescindible tener un hombre y con ese miedo de que si mi esposo se iba... que quién les va a dar de comer a mis hijos, quien va a traer la sal para la casa... Yo aquí me he venido a dar cuenta de muchas cosas, de que nosotras las mujeres valemos mucho, de que somos primero madre, segundo madre y tercero madre, primero mujer, segundo mujer, tercero mujer, un hombre no es lo más imprescindible, podemos seguir sin el hombre. De eso me he dado cuenta y le doy gracias a dios que me ha traído a este país. Mi fuerza de voluntad es grande.

Ingurune jakin bateko gizarteratzean eraikitako emakumearen identitate hori, zeinari bere buruaren irudi bat eskaini baitzaio, portaera jakin bateko rola esleitu baitzaio, gizonaren arabera pentsatzera eta «bigarren sexu» gisa (hau da, bigarren mailako sexu gisa) sentitzera ohituarazi baita, non gizonak aginte handiagoa izango baitu eta emakumea ama eta emazte rola betetzeaz kezkatuta agertu beharko baita, identitate hori emakume desberdin izateko ereduak hauteman daitezkeen ingurune batean berreraikitzen da. Pertsonak eremu desberdinetan izaten ditu harremanak, bizipen pertsonalak eta sozialak pilatzen ditu, eta horrek eragin egiten du bere jarrera, balio eta sinesmenak berreraikitzean; pertsona jabetzen da gizarteak ezarritako eta onartutako arauak ez direla beti egokienak, horiek gainditu beharra dagoela, eta norberarentzat eta gizartearentzat irudi berri bat eraiki beharra dagoela; eta hori guztia gertatzen denean, ez dago atzera bueltarik. Hau da, aldaketa bat gertatu da, eraberritze bat.

Emakume askok erabakitzen dute, ohartuki edo ohartu gabe, ezarri zaizkien rola berriz hartzea, eta, pixkanaka eta ahalegin handia eginez, haiekiko eta haiek gizartean duten lekuarekiko ikusmolde tradizionalak deseraikitzen hasten dira. Modu horretan, beren aldaketaren aktore bihurtzen dira. (Castillo, 2005: 9)

Identitate generiko edo sozialean gauzatutako aldaketa edo berregokitzapen horien alderdi eragilea, krisi-uneak dira; une horietan, pertsonak bere biografia pertsonala berriz ebaluatu, balioetsi eta adierazten du, sozialki identifikatzen duen historia kolektiboarekin alderatuz.

Deseraikitzeke ahalegin horretan, emakumeak egunero aurre egiten die kultura-eredu patriarkal-matxistei; hori nagusiki gizonengandik jasotzen dute, eta diskriminazioa, mendekotasuna eta marjinazioa jasaten dute. Emakumea gutxiesten duten balio kulturalak eguneroko bizitzan errotzen, egokitzen eta negoziatzen dira; baina hautsi edo deseraiki ere egin daitezke (Castillo, 2005: 13).

Era berean, ezarritako genero-identitate hori deseraikitzen den beste une batzuk sor daitezke emakumeak bere eskubideei buruz gehiago dakienean, bere gaitasunak ezagutzen dituenean, bere eragin-esparruak zabaltzen dituenean, baliabide materialak eskuratzera iristen denean, edo beste gizarte-eragile batzuekin trukatzeko dituenean.

*Flor:* Me siento más libre, porque tengo mi salario, soy independiente. Y en mi país no. Al salir de tu país ya ves muchas cosas, que los hombres y las mujeres somos por igual. Que no vas a cambiar de repente a los demás pero que tu si has

cambiado. Me dicen que yo mucho he cambiado, antes era muy sumisa, ahora yo impongo, porque yo estoy trabajando, sacrificándome y yo soy la que gano. Me dicen: hasta la voz te ha cambiado la manera de expresarte, tenés más fuerza.

*Guadalupe:* Hay aspectos muy positivos en esta experiencia: se te abre la mente, conoces otras maneras de vivir, de comportarse, te haces más fuerte. Cara a los hombres también tienes otro poder ahora. El qué dirán en tu país es muy importante, hay una presión social. Aquí te liberas de eso, eres más libre. A mí me llamó la atención al encontrarme con mi hermana, que vino tiempo después que mí, me decía que había cambiado tanto, que era otra persona, porque aquí voy a bailar, me divierto, salgo, me visto de otra manera, me cuido más. -Estás más alegre- me dice.

Genero-identitatea pertsonen arteko harremanek markatzen edo bideratzen dute eta, ondorioz, identitate hori botere-harremanen bidez eratzen da, ezinbestean, beste gizarte-identitate batzuen aurrean. Besteekiko harremanean balioak, sinboloak eta rolak trukutzen dira, eta horiek identifikatu beharreko alderdiak eraikitzen eta berreraikitzen dituzte. Eguneroko bizitzako esperientziak estuki lotuta daude komunitateko gertakariei eta talde-esperientziei, eta horiek gauzatuz doaz historian zehar, jaietan, tradizioetan, elezaharretan, ipuinetan, monumentuetan, abestietan eta kultura-ezagutzan biltzen diren beste elementu batzuetan.

Modu berean, gizarte-identitatea etengabe mugitzen ari da, eta harremanen bidez eratzen da. Identitatea alda daiteke edo esanahi berriak har ditzake, baldintza historikoen, esperientzia pertsonalaren, testuinguruaren edo pertsonen betetzen duten lekuaren arabera, harreman ekonomiko, politiko, sozial eta sinbolikoen sare baten baitan.

*Miguel:* Yo he cambiado, me he vuelto más mayor en mi edad mental, en mi forma de pensar, mucho más que antes, conocer nuevas formas de vivir, de relacionarse.

*Alejandro:* El haber conocido otros lugares, te enriquece mucho, otras gentes, otras costumbres. Conoces muchas lenguas. Siempre intento aprender unas pocas palabras de los diferentes idiomas: del euskera, del ruso, del bambara, del árabe...

Identitatearen nozioak nork bere buruaz hautematen duenari egiten dio erreferentzia, baina ezin da bereizi alteritatetik, «beste»aren ideiatik; ondorioz, nahitaez, «ni»ak ingurunearekin duen harremanera garamatza, «bitarteko» harremanera. Ni hori ondasun askorekin eratu da, pertsona desberdinengan inoiz berdinak ez diren eta bizitzan zehar aldatuz eta hierarkizatuz doazen elementuak elkartuz. Migratzailearen erreferente indibidualak eta sozialak aldatu egiten dira.

*Miguel:* Yo no siento que sea de ningún sitio. -Tú eres hippie- me dijo uno cuando le dije eso. -Eso lo dicen los hippies- Soy nacido en Nicaragua, mi madre

es de Nicaragua, mi padre de Navarra. No me siento ni de allá ni de acá, Nicaragua es bella, aquí también, pero no soy nacionalista, es como... no me siento atado. Eso está pasando mucho ahora pasando con la migración, la gente vive así cambiando de país y no les importa, si se está dando esto, algún nombre llevará, no me pego a los recuerdos, no son muy nostálgico.

Pertsona bakoitzak egokitze eta akulturazio fasea une batean izaten du. Identitatearen eraikuntzan eta berreraikuntzan eragiten duten askotariko esperientziak izaten ditu norbanako bakoitzak. Faktore askok dute zerikusia horretan: adinak, gizarte-mailak, autoestimua, bizitasun familiarak eta pertsonalak, lagunak, inguruneak, erakundeak, eta ezin konta ahala hautemate objektibok eta subjektibok. Oro har, esan daiteke migrazio-esperientziak pertsonalitatea eta jarrera-malgutasuna indartu egiten duela.

Prozesu horretan eragiten dute gizarte-mailak, etniak, erlijioak, nazioak eta antzeko kategoriek; baita «beste»arekin finkatzen den harreman motak ere. Identitate berria apurka berreraikitzen da; bakoitzak moduren batean birsortzeko aukera du, desiragarritzat hautematen duenarekin eta ahal duen horrekin. Castles-ek iradokitzen digun moduan, gerta daiteke kontzientzia transnazionala migratzailearen oraineko eta etorkizuneko modu nagusi bilakatzea (Castles, 2002 *in* Hawkins, 2008).

*Marcela:* Ahora me siento más independiente que antes pero todavía no del todo, porque siento que soy un poco dependiente de mis hermanas. Primero vino Yadira, luego Gioconda, ahora ha venido otra. No me siento todavía muy libre. Todavía tengo como temor de mis hermanas. Yo les he apoyado a ellas, igual que me apoyaron a mí para venirme.

*Moha:* A mí no me gusta estar con los de mi país, yo huyo de ellos. Me vine aquí para cambiar de vida y si estoy siempre con ellos es como estar allá. De vez en cuando sí puedo estar. Eso sí la música, la comida, la religión... a eso nunca voy a renunciar.

Zenbait aldendu egiten da bere aberkideengandik, bizitza berria eraiki nahi duelako, aurreko bizitza mingarria izan zitzaielako alderdiren batean. Eta zenbait aldendu egiten da, iritsierako gizartean bere taldeak duen leku aurkakoa ikusita, kamuflatuz, ilea tindatuz; nahiago dute bertakoekin harremanak izatea, iritsierako gizartearen jokabide-edo balioespen-jarraibideak kanpoaldean bere egitea, hemen edo han bere familiaren edo herrikideen aurrean garaile gisa agertzea, harrokeri kontsumismozalearen bidez eta estetika, janzkera, markak eta, oro har, itxura zainduz; hain zuzen, prestigio handiagoa duen identitate berri baten itxurak, funtzio psikologiko garrantzitsua betez.

Iritsierako lekuan kokatuta dauden immigranteen komunitate gero eta zabalagoaren existentziak, batez ere jatorri berekoak badira, lagundu egiten die iritsi berriei integratzen. Inguruan mugitzen ikastea, polizia-kontrolak saihestea, enplegua bilatzen laguntzea, etxebizitzan hartzea eta babes emozionala dira familia- edo adiskide-sareek haiek aurrez egondako egoera berean daudenei eskaintzen dizkieten jarduerarik

garrantzitsuenak. Horretaz gainera, erakunderen batek babes mota hori bermatzen badu, hasiera orok izan ohi dituen zailtasunak gorabehera, eramangarriagoa izango da bizitza berri baten hasiera. Gizarte-sareak garrantzitsuak dira. Zenbaitek gizarte-dimentsio hori erabili nahi ez badu ere edo horrekin gizarte-estigmatizazioa saihestu nahi badu ere, gehienek positiboki balioesten dute horiek egotea; eta Nikaraguaren kasuan, herrialde txikia eta talde txikia izaki, beren artean sentitzen duten kultura- eta afektu-gertutasun hori nabarmena da, eta gizarte-kohesio garrantzitsua lortzen da horren bidez.

## 2.4 Asoziazionismoa

Azken urteotan, nazionalitatean, etnian edo interes-taldeetan oinarritutako immigrante-elkarte asko sendotu dira. Biztanle gehiago dituztenek erakunde aniztasun eta antolatzeke eta parte hartzeke maila gehiago dituzte. Ez da hori Nafarroan kokatuta dauden nikaraguarren taldearen kasua; gutxi izan arren eta beren barnean izan daitezkeen iritzi-desadostasunak gorabehera, egokitze-prozesu horretan iritsierako gizartean izango dituzten lehentasunezko beharrak kontuan izanik elkartzen dira. Kideen artean oso presente egon daitezkeen oraintsuko gatazka armatua eta liskar ideologikoak gorabehera, hainbat zailtasun partekatzeak eta migrazio-politiken eraginez egoera ezegonkorrean egoteak interes komunari eta inguruan sentitutako gizarte-presiotik ihes egin eta birsortzeko espazio bat izateko nahiari lehentasuna ematea eragiten du. Modu horretan, sendotu egiten dira elkartasun-loturak jatorriko herrialdearekin eta kultura-identitatearen zentzua.

*Silvio:* Con la gente de Nicaragua, yo como tenía tiempo de no ir a Nicaragua... ansiaba estar con gente del mismo país. Estando fuera yo pensaba siempre que un nicaragüense era muy especial. Y me siento bien, intentamos reunirnos, comer juntos, hacer nuestras comidas y es alegre. Una parte somos los que nos reunimos, un 40 % de los que estamos, los otros como que no tienen mayor interés, vienen alguna vez pero no siempre. Los que viven en los pueblos tampoco es fácil que vengan, pero siempre estamos en contacto. Hemos formado ASNINA Asociación Nicaragüense de Navarra, con el apoyo de una de aquí que estuvo en Nicaragua mucho tiempo. Yo he sido el que he impulsado eso más que todo y la gente lo valora mucho, acude, participa en todo lo que preparamos, nos sentimos bien. Es un apoyo moral importante.

*Alejandro:* Con la gente de Nicaragua, a través de la asociación se van haciendo más relación. Llegamos a reuniones y actividades que organizamos. Hemos acogido a la gente que llega. Nos apoyamos unos con otros. Apoyo moral, tener confianza, aunque venimos a conocernos aquí, pero nos juntamos. Nivel de integración: entre nicaragüenses, en la asociación estoy bien, pero a nivel de Navarra no. No tengo mucha relación con la gente de aquí. Las fiestas interculturales en las que he estado están bien, ese intercambio de culturas, viene



a enriquecer a enseñar algo. Pero se quedan en el panorama físico con música, danza, la comida que nos gusta pero no hay una relación realmente. Sí me han gustado las reuniones de asociaciones, ahí sí tienes la oportunidad de exponer tus ideas y de escuchar a otras gentes y los veo positivos, pero las otras actividades se quedan solo en lo festivo. No hay un interés de conocerse.

*Efrain:* Conocía primero a Roger Acevedo él es entrenador de béisbol en el club Amaya y ya lleva varios años viniendo por temporadas a ese trabajo. Empezamos a ir a las reuniones de la asociación ASNINA. Ya hicimos toda una cadena y ahora ya sabemos en cuanto alguien sale de Nicaragua y viene para acá. Si no se da cuenta uno es otro. Entre nosotros nos ayudamos en lo que podamos, a buscar trabajo o casa. Cuando fui en el 2007 a Nicaragua, hubo una chica que quiso venir y yo la apoyé en todo lo que pude para que se instalara aquí, y ella está bien agradecida de eso. A mí me parece que la asociación sirve de gran apoyo a la gente que viene llegando, el juntarse, el platicar, nos sentimos más unidos, eso te da fuerza. Para mí en ese sentido fue horrible el primer año, sin conocer a nadie, aunque tuviera buenos amigos de aquí, pero siempre hechas en falta la empatía con los tuyos. Las culturas son diferentes y la gente de aquí no te entiende, no te siente y tú no les sientes. Entre nosotros es fácil entenderse en las formas de preparar los alimentos. Con la asociación, te reúnes, te ves y te sientes con más confianza.

Elkarte horretako jarduera nagusia oroitzapenezko gertaerak gauzatzea da; horiek izango dituzte aitzakia eta erreferentzia, beren jatorriko herrialdean berezia den egun batean elkarrekin egoteko, eta jarduera bereziak egingo dituzte. Dantzaldiak, bazkariak, musika edo poesiari lotutako kultura-adierazpenak egingo dituzte; eta horrek beren arteko loturak eta harremana duten biztanleekikoak sendotzeko balioko du. Erakunde bat sortu dute ingurune berrira egokitze prozesuan dituzten erronkei modu antolatuan aurre egin ahal izateko. Prestakuntza-ikastaroak, hitzaldiak edo dokumental- eta film-emanaldiak ere antolatzen dituzte, eta horien ondoren debateak izaten dira, taldeko kideei interesatzen zaizkien gai jakinen inguruan. Fátimak eta Nelsonek beren iritzia adierazi digute horri buruz:

*Fátima:* Me gusta participar en la asociación que tenemos, estar unidos... Es muy triste estar en otro país y no tener a nadie del tuyo. A mí me agrada, porque nos sentimos como en familia, aunque todos tengamos nuestras diferencias pero cuando se realizan actividades yo me siento en esos ratitos como que estoy en mi país, cuando se termina, uno se despierta y la realidad es que estamos aquí, pero vieras que yo me siento contenta, me alegra porque a pesar de que somos inmigrantes en España, nos ayuda juntarnos.

*Nelson:* Es bueno tener acercamiento a las asociaciones, conoces más gente, te sientes más acompañado. Aquí he conocido otros compatriotas y me siento bien. Siempre que he podido he participado. En Nicaragua también participaba en los eventos, me gustaba, esa es mi ideología, para conocer gente, para estar juntos.

Komunitatea eraikuntza sinboliko bat da eta, jatorriko herrialdetik kanpora gaudenean, janaria identifikazio-sinbolo indartsua da. Sinbologia hori malgua eta zabala da eta, beraz, guztiak identifikatzeko eta moduren batean berdintzeko balio du; modu horretan, talde bereko kide direla sentitzen dute. Janaria erreferentzia bihurtzen da bai identitateari dagokionez, bai partekatutako ezagutzari dagokionez.

*Ana:* Yo empecé a colaborar con la asociación en la preparación de comidas y así y me sentí muy bien con la gente, es un apoyo en cualquier caso, siempre que he podido he participado y colaborado en cocinar o lo que haga falta. También participé en el curso de computación que se organizó en Pamplona, pero ahora como estoy en Estella...

*Flor:* Con otras chicas latinas nos ponemos a conversar, lo primero de nuestras familias, de nuestras nostalgias.

Migrazio-prozesuan beharrezko bihurtzen da oasi bat sortzea, egoera berean daudenengandik edateko, eta zailtasun berak igaro izateagatik ulertzen direnen artean pozak eta tristurak partekatzeko. Une batzuetan, jendea hitz egiteko eta gertakariak edo emozioak komentatzeko elkartzen da; hitz egiteko uneak dira, elkartuta egotekoak, eguneroko bizitzako ezinegonak partekatzekoak. Hori, bere horretan, sistema kultural bateko zati den gizarte-jarduera bat da. Honela baieztatzen du Gloria Ciria-k:

Elkarrekin harremanetan jartzearen eta elkarri laguntzearen oinarrian, partaide izatearen eta betebeharren kontzepzio kulturala dago, denek partekatzen dutena. Parte-hartze soziokultural hori arrazoi sinboliko eta afektuzkoek bideratzen dute, arrazozkotasan instrumentalek baino gehiago, eta horrek berretsi egiten du talde imaginarioa (Ciria, 2007: 210).

ASNINAK sendotu egin du bere antolakuntza-egitura; ikusgaitasuna eta aitorpena lortzen joan da eremu publikoan, dantza-taldeak hainbat ekintzatan parte-hartzearen bidez; hala nola, Nafarroako Gobernuak antolatutakoetan (Nazioen Jaialdian), Berriozarko eta Lekunberriko udalek antolatutakoetan, edo «Munduko arrozak» ekimenean; azken horren bidez, Iruñeko Alde Zaharreko Zurriburu kolektiboak bizikidetzat sustatu eta eremu publikoak bete nahi ditu. Garrantzi handikoa da, migrazio-esperientzian eremu publiko jakin batzuk erabiltzea, eta baita norbanakoak edo taldeak lortzen duen rol nagusia ere; kultura-ulermenterako puntu adierazgarriak dira horiek. Florren eta Fátimaren kontakizunean hauteman daiteke hori; «Malinche» dantza-taldeko kide dira biak, eta haientzat oso motibagarria izan da hainbat ekimenetan parte hartzea; autoestimua igotzen lagundu diote horrek, eta nikaraguar taldeari prestigioa eman; modu horretan, erreferentzia bat eskaini diote identitate pertsonalaren eta kulturalaren arabera.

*Flor:* En la Asociación el verte con la gente de tu país siempre es una alegría. Yo participo, en las actividades con danza, esto nos sirve de diversión, de apoyo.

*Fátima:* El poder participar en las danzas en nuestras actividades para mí ha sido motivador. Yo en mi país no había participado así en público, ni en la escuela, yo era muy penosa y la verdad es que ha sido algo que aquí he venido a descubrir, porque uno puede. Además sales en el periódico y eso te da alegría.



Badira jarduera mota horri buruzko ahots kritikoak ere; izan ere, instituzioek sustatzen eta diruz laguntzen dituztenez, baliabide gutxirekin bada ere, elkarteek iristen zaizkien euro gutxi horiei begira xahutzen dute beren denbora eta itxaropena; hori eragozpena izan ohi da bertako erakundeekin elkartasun-loturak sortzeko.

Immigrazioa oso ageriko bihurtu denetik European, erakunde guztiz laboral eta ekonomiko gisa ikusten dugu. Horretaz gainera, bertako gobernuek finantzaturako folklore-jarduera sail bat egiten da, eta sekulako kultura-aukera horretatik zati txiki batzuk besterik ez dira erakusten (Ortíz, 2008: 43).

Kultura-aniztasuna, kulturartekotasuna, multikulturalismoa, interkulturalismoa, asimilazioa edo integrazioa, besteak beste, gaur egun arlo askotan erabiltzen diren kontzeptuak dira. Nestor García Canclini argentinar antropologoak postmodernitatearen eta kulturaren gaia ikertu du; termino horietan sakondu eta adierazi du mundu kulturantzun batetik —kultura ezberdinetako etnia edo taldeak alboan jartzea, hiri edo nazio batean— kulturarteko beste mundu globalizatu batera igaro garela. Gehitzen du ikusmolde kulturantzunen pean onartu egiten dela kulturen askotarikotasuna, beren arteko diferentzia nabarmenduz eta errespetuzko politika erlatibistak proposatuz. Politika

horiek, askotan, segregazioa sendotzen dute; kulturartekotasunak, berriz, arindu egiten ditu norgehiagoka eta elkarri lotzea, hori gertatzen baita taldeak harremanak eta trukeak izaten dituztenean. García Canclini-k honako hau aipatzen du:

Bi terminoek gizartekoa dena ekoizteko bi modu dakartzate: kultura-aniztasunak heterogeneoa onartzea esan nahi du; kulturartekotasunak, berriz, diferenteak direna direla esan nahi du negoziazio-harremanetan, gatazketan eta elkarrenganako maileguetan (García Canclini, 2004: 15).

Multikulturalismoa kultura-aniztasunari heltzeko doktrina jakin bati dagokio; hain zuzen, pluraltasunari, aniztasunari, eta diskriminaziorik ezean, bestearen onarpenean eta berdintasun-printzipioan oinarrituriko ereduari.

Rosa Cobok multikulturalismoa aztertzen du «Multikulturalismoa eta feminismoa» artikuluan, eta adierazten du horren alderdirik interesgarriena bere alderdi kritikoa dela; hain zuzen, estatuen eta kultura nagusien politika asimilatzaileek beren gizartean bertan zenbait gizarte-talderengan eragiten duten ezinegonaren adierazpen direla; eta honela adierazten du:

Multikulturalismoak, kultura, azpikultura edo gizarte-talde bakoitzaren berezitasun eta diferentziekiko errespetua azpimarratzean, gizarte bakoitzean gehiengoaren kulturak inposatzen duen uniformetasuna kritikatzin amaitzen du. Multikulturalismoa gutxieneen kulturaren edo immigrante taldeen erresistentziazko erreakzioa da, kultura nagusiaren aurrean beren identitatea galtzeko beldurraren ondorioz. Politika kulturantzunak errotik baztertzen dute gehiengoaren kulturak inposatu nahi duen asimilazionismoa (Cobo, 2002: 13-14).

Politika kulturantzunak kultura-ezaugarriak azpimarratzen dituzte, pertsonaren izaera baldintzatzen duen zigilu aldaezintzat hartzen baitute kultura. Talde bateko kide guztiak homogeneo bihurtzen dituzte, eta aldatzen zaila den pentsaera bat egotzen die gainera guztiei.

Kultura ez dago *kausa* gisa ulertzerik; gehiago da testuinguru horietako egoera jakinetatik eratortzen den *produktu* bat (Criado, 2001: 386).

Identitatea jatorriko kulturari loturik agertzen da, baina badakigu izaera aldagarria duela, identitate-prozesuak modu berezian sortzen direla gizarte-testuinguru bakoitzean, eta egoerak aldatzen diren neurrian eraldatzen direla horiek ere.

Festa, alaitasuna eta barrea Noel Aguirrek<sup>70</sup> (Nafarroako Unibertsitate Publikoko udako ikastaroen barruan) aipatzen zuen «ondo bizitze» horren barruan daude. Haren

<sup>70</sup> «Gizartearen eta komunitatearen boterea, Ondo Bizitzea eraikitzekeo prozesuan; garapenerako paradigma alternatiboa». 2010eko uztailaren 28an Iruñean emandako hitzaldia, UNESCO katedrak

esanetan, ondo bizitzeko baldintzak honako hauek dira: 1. Ondasun materialak izatea eta gozatzea, hala nola etxebizitza, baina metatze-helbururik gabe, baizik babesteko helburuarekin. 2. Gauzatze afektibo, subjektibo, intelektual eta espiritual. Festaren, aisiaren eta afektibitatearen bidez jendea pozik sentitu behar du; ez da ondo bizitzerik egongo bakoitzaren nortasuna ez bada onartzen eta errespetatzen. 3. Harmonia naturarekin, eta orekan bizitzea inguratzen gaituen guztiarekin. Kosmozentrismoa aitortuko da, eta ez androzentrismoa. Ez da natura kanpoan geratzen den garapen iraunkor bat, baizik eta ni natura naiz. Ez da gizakiaren garapena; kosmosaren garapena da. 4. Komunitatea, bizikidetzaz gizakiekin; ez dago ondo bizitzerik gainerakoak gaizki badaude.



Hori da Noel Aguirreren proposamena; proposamen filosofikoa da, garapenean oinarritutako teoria eta praktikei kontrajarria, baina beste kultura batzuetatik datorren eta beste iturri batzuetatik edan duen jende askok sentitutako proposamena.

*Sergio:* Las actividades que se han programado en ASNINA, las valoro muy positivamente, fiestas donde nos encontramos con nuestra gente y otras gentes amigas. Tenemos algunas dificultades para asistir a las reuniones, estamos con el deseo de venir de Estella, pero a veces no tenemos ni para el pasaje. Son reuniones de calidad. A mí me gusta participar, compartir un rato. Entre nicas, aclaramos siempre las cosas, nos decimos de frente lo que tengamos que decirnos. Y si algo está pasando intentamos aclarar cuanto antes para que eso no llegue más largo. O si va de boca a boca puede tergiversarse. La relación con los nicas está bien. Muy bien. Me he sentido protegido. La asociación se preocupa para que la gente siempre esté unida. Siempre es saludable que alguien te llame y se preocupe por ti o de que puedas llamar a alguien y te escuche, de que se preocupen de que vengas a las reuniones, de que sientas que valés, eso es bueno. Y aunque sea peleando te levantan la autoestima. Luego otra cosa que los nicaragüenses somos unidos, no diferenciamos por zonas. Entre los ecuatorianos dicen, que este es de la costa, este serrano... Los bolivianos también, que si es cambia.... Los nicas no, no diferenciamos, somos nicas y punto.

---

antolatuta. Noel Aguirre Boliviako Hezkuntza Ministerioko Heziketa Alternatiboa eta Berezia arloko ministrordea da.

Biltzeko eremu horietan immigranteak bizikide dira, bizirauteari buruzko informazioa trukatzeko dute, eta baita eguneroko bizitzaren alderdi batzuk ere; modu horretan, informazio-trukean islatzen diren praktika eta interakzioen bidez eratzen den talde berezi baten zati sentitzea lortzen dute:

Hil ala biziko garrantzia duten sinboloak eta ideiak, eta, muga igarotzeko kostua eta arriskua dela eta, mugitzeko zorrozki mugatuta sentitzen diren immigranteentzat alternatiba funtzioa betetzen dutenak (Ciria, 2007: 210).

Elkarte horren bilakaeran faktore erabakiorra izan da bere sorrera eta finkatzea sustatzeko gai den lider baten existentzia. Sortzaileak bertako pertsona baten laguntza bilatu zuen; pertsona hori urte batzuetan Nikaraguan bizi izan zen eta, beraz, herri hori ezagutzen eta maitatzen zuen. Eta sortzaileak aurre egin die finantziario apur bat lortzeko erakundeek eskatzen dituzten burokrazia guztiei. Lider hori erreferentziazko pertsona da taldeko kideentzat eta iristen ari direnentzat; kezkatu egiten da bakoitzaren egoera pertsonalaz. Jarduerak antolatzekeo ardura hartzen du, beste pertsona batzuen esku utziz zenbait funtzio. Honela adierazten du Silvio Ortizek:

*Silvio:* Yo soy el fundador de ASNINA. Fui el segundo nicaragüense en Pamplona. Cuando estábamos aquí con Lenin nos sentíamos un poco solos. Y yo como tenía tantos años de no estar en Nicaragua pues me hacían falta las personas nicaragüenses y siempre nos preguntábamos porqué los nicaragüenses no venían aquí y se iban pa otros lados. Y cuando miramos que había unos veinte, yo oí hablar de las asociaciones y Conchi de la Cruz Roja me dijo que sería bueno formar una asociación. Lenin no se animó pero yo lo que quería es relacionarme con los nicaragüenses, ya que tenía ya 12 años de no ir a Nicaragua. Fui en el 2000 pero antes llevaba 12 años sin ir. Yo al nicaragüense lo admiraba, lo añoraba, no lo comparaba con otros latinos. Tal vez por el tiempo que tenía de no ir. Quería platicar con ellos, sentir cerca. Así para no andar aislados y para que Navarra reconozca a Nicaragua, para que nos conozcan, formamos la asociación. Es una manera de dar a conocer a mucha gente. Que conozca no solo a Carlos Mejía Godoy y sus canciones sino a mucha gente y fue una de las intenciones para formar la asociación. Ahora que lo tenemos como se dice cuando estás en el macho hay que jinetearlo. Mi idea es como en las demás asociaciones, de Colombia, de Chile, que van dando a conocer su país. Vamos yendo adelante. Creo que los objetivos de la asociación no se han cumplido en su totalidad, quizás en un 50 %. La gente se ve contenta, lo valoran, nos sentimos bien hablando de nuestras cosas de nuestras tradiciones, de nuestros cuechos<sup>71</sup>, estar siempre en ese bullicio como en el de Nicaragua. La gente se emociona, nos reunimos cada mes o cada dos meses, pero a la gente se le ve con ganas de volverse a juntar, hacer una fiesta, estar juntos, contar chiles, reírse, bailar...

---

<sup>71</sup> esamesak

Elkarrekin egote horrek, egunerokotasuna, gatazkak eta erakundeen estaldura ondasunei eta zerbitzuei dagokienez (dirulaguntzak eta arreta-programak biztanleriaren talde desberdinei), leku bakoitzean elkartzeko aurreikuspena errazten du eta baita hori egiteko konfiantza, hirian edo herrian «bakarrik ez zaudela» jakitea, eta leku hori solasaldiekin, barrekin, eztabaidekin, haserrealdiekin eta eguneroko partekatzearekin betetzen dela jakitea ere. Harremanek markatzen dituzten lekuak direlarik.

Immigranteak, aurre egin behar dieten diskriminazio- eta esplotazio-baldintzen biktima pasibo izatetik urruti, identitate-zentzua sendotzen saiatzen dira beren kideen artean, eta erakundea indartuz erantzuten dute. Erakundeak babesten dituela sentitzen dute. Esate baterako, poliziaren aurrean edo kanporatzeko izapideen kasuan:

*Carol:* Cuando a Ivania y a mí nos detuvieron la Asociación hizo una carta de denuncia de malos tratos ante el Colegio de Abogados y nos atendió y nos amparó. El saber que no estás sola en esos momentos fue muy importante para nosotras. Te da mucha fuerza que alguien te escuche y te entienda y que haga algo por ti.

*Mercedes:* El hecho de estar sin tu familia, te achanta, estás desamparada, te deja sin fuerza para enfrentarte a veces, las amistades son el gran apoyo, la asociación también. Haber tenido un primer contacto a la hora de la llegada es fundamental para empezar.

Aipatzekoa da, baita ere, elkarteko kideen artean duen eragin positiboa elkartea bera publikoki onartua izateak, eta hari protagonismoa emateak erakundeen edo gobernu kanpoko erakundeen eta kulturartekoen jardueretan. Parte hartzen dutenek elkartearen babesarekin egiten dute eta elkartekoak izateagatik, eta hori atsegin dute, modu objektiboan. Hori elkarteko liderrari edo presidenteari zor zaio neurri handi batean, hark kudeatzen baititu egin beharreko mugimenduak, kultura-bitartekarien babesarekin.

Era berean, bada elkartean parte hartu nahi ez duenik ere, ihes egin nahi duelako talde-harremanean eta -jardueran sor daitezkeen gatazketatik. Fátima Calerok honela dio:

*Fátima C.:* No he ido a las actividades de la Asociación Nicaragüense, como que no quiero para evitar chismorreos, conozco a algunos nicas y voy a su casa, pero me gusta la tranquilidad.

Gatazkak ezin saihestuzkoak eta beharrezkoak dira bizikidetzaren mota guztietan. Gatazkek eramaten gaituzte (geure burua) zalantzan jartzera, adi egotera, mugitzera, erronka berriei aurre egitera. Modu horretan, esan daiteke etnizitatean oinarrituriko autoidentifikazioa sendotzen, ez murrizten, ari dela migrazioa. Identitate berri hori osagai garrantzitsua da elkarrekin osatzerakoan. Elkarrekin aitortzen funtzio garrantzitsua betetzen dute, harrotasunez betetzen dute zerbaitez edo norbaitez balia daitekeela jakitera iristen den hori.

*Mercedes:* El calor de la gente de tu país viene bien, pero también entre nuestra gente hay ingratitud, hay muchas cosas que no son buenas, egoísmos, en vez de tener esa unión por estar tan lejos de nuestro país, pero no hay mucha sinceridad, mucha hipocresía, no somos solidarias. Pero la labor de la asociación la valoro muy positivamente, es un apoyo muy bueno, que nos sirve para unirnos, para darnos a conocer.

Edo Leninen kasua. Hogei urte pasatxo igaro ondoren Iruñean, eta urteetan zehar Iruñeko lehen nikaraguarra eta bakarra izan ondoren, beste gizarte-harremanen zirkulu bat osatu zuen. Urtero bidaiatzen du Nikaraguara, eta bere herrimina asetzen du horrela; hala ere, gero eta gehiago joaten da elkartearen jardueretara familiakoekin eta adiskideekin batera.

*Lenin:* Yo empecé a relacionarme con los nicaragüenses de aquí de Pamplona, el año pasado, al inicio no tuve mucho interés en la asociación, aunque sí me daba cuenta que se estaba organizando. A Silvio (el presidente) lo conozco desde hace unos ocho años, hemos trabajado juntos en la construcción. El año pasado comencé a acudir a las celebraciones de la asociación. Ahora me parece positiva y necesaria, es un punto de encuentro para la gente que estamos aquí es fundamental para como somos los nicaragüenses, te juntas, te empapas, te cargas las pilas entre la gente para contrarrestar el que no estás en tu país. Porque lo hechas en falta, y eso te marca, creo que es muy importante el papel de la asociación.

Herritartasun osoaz gozatzen ez duen Erkidegoaz kanpoko biztanleriak, eskubide zibil eta sozialetara jo badezake ere, ezingo du beti horiez baliatu. Eta une horretan funtsezko garrantzia hartzen du asoziazionismoak; izan ere, antolakuntza mota desberdinen bidez, etorkinak proiektu kolektiboetan parte har dezake eta babestua senti daiteke bere ibilbidean; eta gizarte-ongizateari eska diezazkioke bere ekarpena ikusia eta aitortua izateko espazioak, berdintasun handiagoko harremanak exijituz, bidezkoagoak, eta baita eguneroko arlo guztietatik marjinalitatea eta ezegonkortasuna desagertzeko ere. Modu horretan, asoziazionismoak eta antolatzen diren jarduerak zerbait berriz osatzea ahalbidetzen dute, beren jatorriko herrialdeko harremanen unibertso bat, migratzeagatik hautsi zena; pertsona orok izan nahi baitu boterearen subjektu eta hartu nahi baitu bere gain gizarte-rol nagusi bat.

## **2.5 Multikulturalismoa, parte-hartzea eta integrazioa**

Multikulturalismoaren atzean arrazismo berriaren arrastoak ezkututzen dira, arrazarik gabeko arrazismoarenak, eta baztertzearen erretorika bat; izan ere, Edward Said-ek dioskun moduan, «lerro paraleloek ez dute inoiz topo egiten» (Said, 1993: 234). Bestearen ondoan egon gaitzke, baina mendekotasun-harreman baten azpian. Egungo



arriskueteriko bat da arraza-bereizkuntzan oinarrituriko baztertze-printzipioa — zientziak dagoeneko baztertu duen kategoria— kultura-identitatearen printzipioak ordezkatzea. Horrek behartzen gaitu oso kontuan hartzera proposamen kulturantzunen atzean marratzen diren helburuak. Gerta daiteke proposamen horiek komunitateen arteko harremanaren alde ezer ez egitea; edo, alderantziz, diferente izateko eskubidea baieztatu dezakete, diferentzia eta diferentziaren balioa sustatu dezakete, eta diferentzia horiek gurtu ditzakete, modu folklorikoan, kontsumismozalean edo nabarmendu nahian. Era berean, «beste»en ohiturak eta balioak higuinarriztat eta eskandaluzkotzat hartu ohi dituzte, eta ukatu egiten die gizatasun osoa beren protagonistei. Beste batzuetan etnozentrismoa sendotzen dute. Komunean ez dugu horretara desbideratu ohi dute gure arreta, zubiak eraiki eta nazio-mugak, etnikoak eta erlijiozkoak gaindituko dituzten komunikazioak finkatu beharrean. Asko hitz egiten da diferentzia-eskubideaz, baina oso gutxi antzekotasunerako eskubideaz. Multikulturalismoaz hitz egiterakoan, honela baieztatzen du Carmen Gregoriok:

(...) multikulturalismoa zalantzan jartzen dute, kultura desberdinak barne hartzen dituen neoliberalismoaren ideologia den neurrian —kultura benetako, aldaezin, ondo-ondoko, eta testuinguru historiko eta egiturazkotik erauzitakoa-, eta botere-harremanak eta existitzen diren segmentazioak —klaseari, generoari, atzeritartasunari edo arrazari dagozkienak— nahita ahazten dituelako, aldeztu duen itxurazko berdintasun baten pean (Gregorio, 2002: 29).

Ideologia nabarmen arrazistek jarrera intolerantea izan dute beti, bai arrazakeri biologikoaren eredu klasikoari leial izanda, bai kultura-diferentzietan oinarritutako modalitate berrien pean. Beste jarrera, tolerantea, egin dute bere erakundeek, komunikabideek eta politikoki zuzena den hizkuntza batean behar bezala hezitako gizarte-gehiengoek. Jarrera hori, azkenean, ulertzearen bertuteak eta aurrez alderatutako «beste» batengana irekitzea goratzen duena, mugimendu eta erakunde antiarrazista gehienek oinarri diskurtsiboan kokatu da.

Antiarrazakeri ongile eta sentimental horrek zera esan nahi du: xenofobiaren kontrako gala mediatiko itzelak, hiperaktibotasun salatzailea —zeinak ustez agerian uzten duen arrazismo horren beraren erretorika estigmatizatzailea erreproduzitu ohi baitu—, diskriminazioaren aurkako borroka profesionalizatzea, multikulturalismoaren zaleen klubak ugaritzea, eta abar. Arrazakeriaren logikak ez du beste ezer esan beharrik, eta okerrean da legitimatu eta bermatu egiten duela haren eraginkortasuna (Delgado, 2007: 203).

Multikulturalismoak ondo-ondoko kolektibitateen mendean jartzen ditu norbanakoak. Giovanni Sartori<sup>72</sup> haren aurka jartzen da «banandu egiten duelako, eta oldarkorra eta intolerantea delako». Aniztasun kulturala «egite»ra behartu edo areagotu nahi duen bertsioaz ari zaigu. Muturreko ikuspegi horretan, diferentzia eta banantzea pribilegiatu egiten dira, eta alde batera uzten dira antzekotasuna eta bizikidetzak.

<sup>72</sup> Zientzia politikoetako ikertzailea. Liburu asko idatzi ditu; besteak beste: *La sociedad multiétnica. Pluralismo, multiculturalismo y extranjeros*.

Migratzaileen komunitate bat beste komunitate batek «beregianatu» egiten du, haren kultura-berezitasunei uko egiten badie; «integratu» egiten du, berezitasun horiek mantentzen baditu, baina komunitate hartzailearen berezitasunak onartuz; eta «bereizi» egiten du, baldin eta bi komunitateek, migratzaileak eta hartzaileak, beren kultura-berezitasunak mantentzen badituzte, eta ezinbestean areagotzen doan elkarrekiko mesfidantza agertzen badute.

Eredu asimilatzailearen ustez, beste kultura-testuinguru batetik iritsi berri denak gizarte hartzailearen eskakizun arauemailetara egokitu behar du; diferentzia azpimarratzeaz gainera, desberdintasuna nabarmentzen du. Egoera horretan, segregazioa ez da nahita gertatzen, baizik eta kultura- eta klase-bereizkuntzaren ondorio da.

Integratuztat har dezakegun ereduari dagokionez, etnien arteko harremanek nolakoak izan behar luketen azaltzen duen eredu ideal bat da, kulturarte harremanen eredu erreal bat baino gehiago. Idealki, «bestea» ulertzean eta ezagutzean oinarritzen da, hura dagoen balizko estereotipo estigmatizatutik ateratzeko. Migratzailea historia eta kultura baten eramailea da, egunerokoa adierazten diren eta gizarte hartzaileko herritarrekin koexistitzeko eta aberasteko gai diren kode batzuen eramailea. Kode horiek, ordea, ez dira aldaezinak, baizik eta berreraiki egiten dira, etengabeko interakzio dinamiko baten bidez. Beraz, etnien arteko harremanak testuinguru dialektiko batean azaldu behar dira, elkarrenganako interferentzia dagoen testuinguru batean.

*Mayra:*<sup>73</sup> Mi padre lleva 10 años de camionero en la misma empresa en Pamplona, con la gente que se relaciona en su trabajo dice que ha aprendido a manejarse perfectamente dentro de esta sociedad y de esta cultura que difiere mucho de aquella realidad que él dejó en su país. Los compañeros de las carreteras españolas le llaman cariñosamente “Navarro”.

Gizarte garaikideetan, erronkarik garrantzitsuenetakoa kulturalki eta etnikoki berezitateko pertsonak eta/edo taldeak integratzea da, eta baita taldeen arteko bizikidetzaren eta kohesioaren ere.

Gutxiengo etnikoen «kultura-ikasketek» berekin dakarte zein direla uste duten haiek, zer egiten ari direla uste duten, eta zer helbururekin egiten dutela uste duten haien ikuspuntua jasotzea. Jatorriko lurraldea uzten denean eta norbanako edo talde bat beste leku batera lekualdatzen denean agertzen den lehenengo hausturak, abian jarri eta iristera bultzatzeaz gainera, eraldaketa txiki batzuk eragiten ditu. Kontraste handien garaia da, itxaropenak eta lehenengo errealitateak balantzan jartzeko garaia, pertsonalki, kulturalki eta sozialki testuinguru berrietan birkokatze garaia; azken finean, mira eta desira sentitu izan arren, «arrotza» duten leku batekin lehen harremana izateko garaia.

Zygmunt Baumanek (2006) ohartarazten digu nork bere kultura- eta etnia-identitatea izateko duen eskubideak —mundu global batean galtzeko beldurrak eraginda, eta baita ordurako han zeudenek baztertzeko dutela sentitzen duen talde baten

<sup>73</sup> Ekuadortarra eta NUPeko ikaslea. Etnografiari buruz idatzi du, klaseko lan batean. 2010eko abendua.

bizirauteko logika bategatik ere— talka egiten duela, nabarmen, Mendebaldeko herrialdeetako diskurtsoetan defendatzen diren integrazio-politikekin, horrela bere baitan ixten delarik.

Ez da hartu behar kultura-aniztasun sinple baten lagungarri den ikusmoldetzat, eta ezta kultura-diferentzien balioespena joera asimilatzailearen kontrako erreakzio gisa nabarmentzen duen ikusmoldetzat ere. Jarrera horrek kulturabakartasun paradoxiko bat defendatzen du oraindik ere; hau da, bakartutako eta ondo-ondoko —eta, ondorioz, elkarrekin elkarriketarik izan gabeko eta aberastu gabeko—kulturabakarrei buruzko kulturaren eta gizartearen ikuspegi bat. Gizarte-mailan, loturarik gabeko multikulturalismo hori komunitate-ghetto bihurtzen da, kultura-tradizio bakoitzaren goraiamenean, ondasun berezi horiek defendatzeko elkarte itxien ugaritzean, bereizketa eta bazterketan. Kasu horietan guztietan, begien bistakoa da kultura jakin batzuen biziraupen estatikoaren alde egin nahi dela borroka, beren jatorriko herrialdean edo gutxi-asko iragan hurbil batean ziren gisara mantentzeko. Horrela, saihestu egiten da integrazio soziokultural osasungarri baten edo egiaz elkar aberastekoa den prozesua.

*Angélica:*<sup>74</sup> A mí no me interesa que me integren, a mí hay cosas que no me gustan de aquí y no las voy a hacer más, igual que hay otras que me gustan. Si integrarme es perderme yo no quiero eso.

*Franss:* La integración que se da en la gente que viene de fuera es más fácil y más rápida que lo que dice la gente, los políticos o las buenas intencionadas ONG, esas personas que crean asociaciones a favor del emigrante y tantas cosas. Yo creo que la gente, los políticos, la gente de buena voluntad tendrían que andar más en la calle y ver que esa unión, esa relación ya se ha dado y que ha sido muy productiva para parte y parte. Y no que la integración tiene que darse por las esferas altas o medias, ese término de emigrante ese membrete ha utilizado mucha gente para sus fines personales. Yo pienso que la gente a donde va, tiene que ir con una posición bastante digna, de igualdad, con una posición de respeto, de aprender y de enseñar cosas, todo el mundo tiene algo que aprender y enseñar. (...) A mí nadie me puede obligar, imponer a integrarme a ciertos aspectos que yo no considero de mi acervo personal, yo estoy completamente integrado según mi manera ver y de pensar. Desde ese momento he podido y he sentido la necesidad de escoger a mis amistades. He rechazado muchas cosas porque no están a nivel de mi comprensión, no están a mi modo de ser personal. No me siento obligado a integrarme. No quiero integrarme a lo que yo no quiero integrarme o aprender algo que yo no quiero aprender y sí me siento en la obligación allá donde quiero integrarme y aprender cosas que yo quiero aprender. Hay mucha gente con la que yo me he integrado y hay otras cosas en las que yo no me voy a integrar jamás. Porque yo no estoy de acuerdo. No forman parte de mi forma de ver el mundo.

<sup>74</sup> Mexikarra, eta NUPeko ikaslea. Immigrazioari eta arrazismoari buruzko debatea. Zabaldi, 2011ko martxoa.

Integratzeak adierazten du norbait edo zerbait osotasun baten zati izatera igarotzea. Osotasun hori falta diren zatiekin osatzea. Matematikan, infinitu batugaien batura da. Ez dakar uniformetasunik berekin; aitorpena dakar. Nortasuna desagerrarazi gabe egin behar da, bereizkeriaren oinarriak murriztuz. Alde desberdinen arteko harremana eta elkar ulertzeko ahalegina eskatzen du.

Jatorrizko lekuko balioak eta iritsierako lekuan daudenak bat ez etortzeak erresistentziak eragiten ditu, eta horrek negoziazioak eta kudeatzen beti errazak ez diren gatazkak dakartza berekin. Migratzailea historia eta kultura baten eramailea da, egunerokoan adierazten diren eta gizarte hartzaileko herritarrekin koexistitzeko eta aberasteko gai diren kode batzuen eramailea. Kode horiek, ordea, ez dira aldaezinak, baizik eta berreraiki egiten dira, etengabeko interakzio dinamiko baten bidez. Agustín Basave-k argudiatzen du integrazioaren aldeko diskurtsoaren atzean ezkututzen dela kultura nagusia inposatzeko ahalegina ere:

«Integratu» aditza eta harengandik eratorritako hitzak madarikatu bihurtu dira, kulturak suntsitzea ekartzen baitute gogora, kultura nazionalaren mesedetan. Ahaztu egin da badirela uniformetasunik ez dakarten integratzeko moduak, eta, gehiago menderatzaile bat dagoenean ere, gauza daitezkeela, ez soilik gutxiengoaren identitateak desagertzea eragin gabe, baizik baita diskriminazioaren oinarriak murriztuz ere (Basave, 2010).<sup>75</sup>

Kulturartekotasuna asimilazio kontzeptuaren aurkakoa da. Hori gizarte kulturabakarra litzateke; hau da, gutxienean taldeen jatorrizko kultura-erroak desagertu egingo lirateke.

Gizarte batean, integrazioak ez du homogeen bihurtzerik eskatzen, ez praktikei dagokienez, ez sinesmenei dagokienez. Baldintza bakarra elkar errespetatzea da. Integratzeko zailtasunik bada, ez dira kultura-formatatik etorriko, baizik eta ekonomia-eta gizarte-baldintzetatik.

*Lenin:* Los ecuatoriano, bolivianos, tienen sus propios bares, comedores, a donde van y no se mezclan con la gente de aquí, tienen sus centros de diversión y ellos están ahí. Yo no voy, porque detesto los guetos. Yo creo que hay que integrarse en la sociedad donde se vive, hay que conocer y dar a conocer, mezclarse. Entonces yo no me relaciono apenas con gente de otros países porque no voy a esos bares, discotecas...

Yo me siento muy bien aquí, integrado, integrado... No sé hasta qué punto, creo que sí, pero uno no sabe... Estar bien integrado es conocer bien todo, y eso cuesta mucho tiempo. Pero yo hago amistades pronto. Lo que me choca de aquí es tanto fútbol, como que es el único problema, que el interés de la gente esté en eso. Yo tengo otros pensamientos, preocupaciones y me choca tanto de los vascos, los catalanes, como de los españoles, como eso también está globalizado... Tú empiezas a hablar de los problemas y te dicen: -Ah sí... pero

<sup>75</sup> Agustín Basave. «Globalizazioa eta kultura-aniztasuna». Tupen emandako hitzaldia, UNESCO katedrak antolatutako udako ikastaroan, 2010eko uztailearen 27an.

no te siguen, pero si comentas algo del futbol se arman unas conversaciones.... Se interesan, se acaloran... Eso me sigue chocando todavía.

Leninek urte asko daramatza Iruñean, 1989tik dago bertan. Ez da inoiz etorkin sentitu; izan ere, hemengo batekin ezkondu zen, eta artean hasteko zegoen Espainiako estatuz kanpoko immigrazioa. Ez zegoen nikaraguarrik, eta, beraz, integratu beharra zeukan.

Jatorriko herrialdearekin harreman estua duen jendeak identitate jakin bat garatzen du, erabat nazio batek definitzen ez duena, nazioz haraindiko bere bizitzako egoerek baizik. Migrazio-prozesu horrek anbiguotasunak eta anbivalentziak barne hartzen ditu, eta baita aukera berriak ere antzinako migrazio modu kolonial/inperialari dagokionez; migrazio modu hori haien eta gure arteko dikotomian oinarritutako banantze-idea zurrunen gainean oinarritzen zen.

Immigranteek egiten duten lan-jarduera motak eta haren baldintzek, gabezia ekonomikoak edo administrazio-irregularitasunek zaildu egiten dute edo eginezin bihurtzen dute loturak finkatzea. Komunitatearen eremu askotatik baztertu egiten dituzte, eskuarki, zeinak funtzio hori betetzen eta lotura berriak errazten baitituzte.

*Mercedes:* Aprendí mucho con ella. Aprendí que aquí se vive de otra manera. Me encariñé mucho de esa señora a la que cuidé, pero trabajo es trabajo, no me daban horas de descanso, ni días. Estaba las 24 horas del día con ella. Ella era muy buena, me trató muy bien, tenía muchas amigas que la visitaban, desde el principio me integró a todo, me dio mi lugar, me integraba a sus conversaciones. (...) Las diferencias culturales son una barrera, tenemos costumbres diferentes, el trato, la forma de hablar, nosotros allí somos más bulliciosos, aquí es todo más ordenado, más puntuales. A mí me costó adaptarme a la puntualidad. Se cumplen las normas. Se respeta lo público. También tengo que decir que a una le exigen todo eso, que sea puntual pero luego mis empleadores por ejemplo no cumplen con los horarios de salida, yo les he reclamado alguna vez, pero me dan una mala respuesta y siguen con las mismas, como son ellos los que tienen más poder... Ellos te exigen que tú aprendas sus palabras, sus formas, sus costumbres, pero no tienen ningún interés en aprender de ti, ni una palabra, ni de tu forma de cocinar... alguna vez me preguntan por mis hijos, pero muy poco.

Iritsierako gizarteak kolektibitate oso bat identifikatzen du jatorriko lekuko etiketaren arabera; migratzailea erabat jabetzen da etiketatze-prozesu horretaz, estereotipo nagusiez eta komunikabide jakin batzuek jatorri-eremu handien arabera orokortzeko duten joeraz. Esleitzen zaien identitate hori modu pasiboan onartzetik urrun, jarrera kritikoa dute eta baztertu egiten dituzte etiketa mota horiek. Generikoena «immigrante» behartsuaren, arriskutsuaren eta arazoak sortzen dituenaren sinonimo da. Murrizkeria horren aurrean espezifikotasuna aldarrikatzen dute, antzekotasunen edo erreferentzia komunen gainetik.

*Efrain:* Cuando te dicen: -¿Vos sos ecuatoriano?- Y ya sentís que tiene una carga negativa, por el gesto, el tono, entendiendo que es como una persona

maleducada, yo lo he oído muchas veces en la calle: -Si es que son ecuatorianos-incluyendo a todos los latinos. Y aquí somos de montón de países diferentes. En el colegio donde trabajo en mantenimiento, al principio los estudiantes y los profesores, me decían: -¿eres ecuatoriano? -no, yo soy nicaragüense- y entonces el trato era diferente, cambiaban el tono, el trato, la mirada...

Egungo gure gizartean, immigrantearen identitatea, batez ere, identitate hondatua, mingarria eta estigmatizatua da. Estigma da identitate sozial birtualaren eta errealdaren arteko desadostasunaren adibide bat, eta harengandik ondorio garrantzitsu eta iraunkorrak eratortzen dira norbanakoa gizarte-ingurunera egokitzeari dagokionez. Honela baieztatzen du Goffman-ek:

(...) ezaguna edo agerikoa bada, desadostasun horrek kalte egiten dio identitate sozialari; gizartetik eta bere buruarengandik bakartzen du, eta, ondorioz, izenik gabeko pertsona izatera igarotzen da, bere baitan onartzen ez duen mundu baten aurrean (Goffman, 1993: 31).

*Silvio:* Esa palabra de inmigrante la veo con un poco de pena, como un poco despreciado, bajo. Sales de tu país porque está en un sistema económico demasiado caído o que no puedes sacar cabeza y por eso tú has emigrado. En mi país el que emigra puede hacerlo por muchos motivos, uno porque tiene problemas de lo que sea o por la economía. Aquí lo de inmigrante lo siento... no es que no valgamos nada porque somos tan capaces como los de aquí. Un doctor de allá es como un doctor de aquí. En sí la palabra como que te discrimina. Inmigrante es como que no tenés ni voz ni voto, y eso te discrimina mucho, o sea andás en la calle como un animal con la cola metida en el culo, entonces andamos así casi todos y la gente de aquí se siente como superior, he visto los que son puros puros españoles, no tanto los vascos, y cómo quedan viendo al inmigrante, se conocen como aquellos antiguos españoles conquistadores, los mirás paseando aquí y miran de reojo al inmigrante y yo digo cómo llegarían ellos a nuestros países. Cuando llegaron miles a Latinoamérica y fueron bien recibidos y hasta la fecha llega un español allá y es bien venido. Cuando te clavan la mirada ellos, que te la clavan muy bien con aquel desprecio. La palabra inmigrante te discrimina, te deja como sin derecho. Y eso lo siente cualquiera aunque sonrías porque te toca sonreír, porque tenemos hijos, tenemos familia y tenemos que salir adelante. Todos los inmigrantes estamos siempre con esa moral caída, porque no es nuestro país y así nos hacen ver.

«Lurren arteko mugak muga moralak dira» esaten du Xabier Aierdik (Aierdi, 2007). Gu besteen aurrean jartzeko eraikitzen dituzten mugak. Irudikatutako komunitateak dira, ustez ezaugarri jakin batzuk partekatzen dituzten artean eraikitzen direnak; eta alde batera uzten dira horretarako eskakizunak betetzen ez dituztenak.

Immigrantea politikoki eta kulturalki onartzea, langile gisa haren eskubideak onartzea bertako pertsonen baldintza berdinetan, baldintza beharrezkoa izango da

diferentzien aurrean desberdintasunik ez sortzeko; izan ere, esplotazio ekonomikotik eratorritako diferentziak kultura-diferentzia gisa naturalizatuko baitira.

### **3. Tentsio pertsonala**

Migrazioa itxuraz aukera pertsonala bada ere, kontuan izan behar da garrantzitsuena ez dela joatea edo etortzea, baizik eta bizitzea eta nork bere lekua eraikitzea. Dena den, migratzeko arrazoiak askotarikoak izaten direnez, horiek baldintza izaten dira espazio berrira egokitzeko garaian. Emigrazioak bere gain hartzen ditu zailtasunak eta egokitu egiten da toki berrira, edo bestela bere taldean ixteko aukera egiten du, kultura-interakzio osorik gabeko giza nahasketa sendorik lortu gabe. Emigrazioa azaldu daiteke gizarte-osagaia barnean hartzen duen eredu konplexu batetik. Leku berrira egokitzeak, eta ilusioak barreiatu egiten direla eta itxaropenak ez direla betetzen ikusteak modu askotara eragiten du migratzen duen pertsonaren eguneroko bizitzan. Zama handi bihurtzen dira balio-gutxitze sentimendua, merkantilizazioarena, emandako urratsak esan nahi duen guztiaz jabetzea, eta bere ereite-lanen emaitzak apur bat ikusten hasteko igaro beharko duen denbora. Bertako biztanleen errespetua irabaztea prozesu luze eta gogorra da.

Teresa del Valleren ustez, garrantzitsua da tentsioa ikertzea ezaugarri dinamikoak eta kontrajarriak aurkitzeko bide ematen duen aldaketa ulertzeko. Tentsio mota asko zerrendatzen ditu. Horietako bat tentsio negatiboa da, irteera-aukerarik gabeko gatazkatzat hautematen dena. Beste bat tentsio kritikoa litzateke, aurkeztutako arazoengatik inguruko balioespen desberdinak gauzatzeko ahalbidetzen duena. Sormenezko tentsioak, berriz, kontrajarritako indarrak aztertzea erraztuko luke, irteera positiboak eskainiz tartean diren aldeentzat, eta aldaketak eraginez. Autoreak dio tentsioa bai banako-mailan bai gizarte-mailan probatzen dela, eta gogoetarako bide gisa birdefinitu beharra dagoela, ez zerbait negatibo gisa (del Valle, 2005).

Harremanak, askotan, norbanakoaren eta gizartearen arteko tentsio-egoerek markatzen dituzte, askatasun pertsonalaren eta gainerakoekin partekatutako bizitzaren artekoak. Arlo politikoa norbanakoaren edo taldearen ekimena murrizten saiatzen da; gizakiak, ordea, gobernu edo domeinu mota ororen kontrolik gabeko zirikituak bilatzen ditu.

#### **3.1 Ilusioa/desilusioa**

Migrazioak arriskuen eta aukeren kontrapuntu konplexu bat dakar berekin, bai pertsonentzat bai garatzeko itxaropenentzat. Kontraste horien adibide bat da migrazioak irteerak eskaintzen dituela langabeziaren aurrean eta lan-hobekuntzarako aukerarik

ezaren aurrean; baina giza eta gizarte-kapitalaren galera dakar jatorriko herrialdearentzat, herrientzat eta familientzat. Modu berean, ikus daiteke migrazio-proiektu asko hobekuntza pertsonalerako forma bilakatzen direla; baina, aldi berean, migratzaile langile askok esplotatuak izateko eta gehiegikeriak jasateko arrisku handia izaten dutela ohar gaitezke, beren lan-baldintzak negoziatzeko botere gutxi dutelako eta enplegatzaile eta gobernu askok ez dituztelako ezarritako lan-arauak errespetatzen, eta are gutxiago legez kanpoko egoeran baldin badaude. Ia jasanezin bihurtzen da, errealitatean, harremanetarako lehen-mailako sareak eta afektuak haustea, nahiz eta aurretik arriskua balioetsi.

*Magali:* A los pocos días me enfermé, me entró como aflicción de haber dejado los niños allá y vivía llorando y llorando, me enfermé y me llevaron al hospital, me ingresaron unos tres días. El médico dijo que tenía que tranquilizarme, que los niños se habían quedado pero que yo tenía que hacer la vida aquí y seguir adelante. Me costó mucho. Así pasé tres meses y ya ahí me puse a trabajar, puse un anuncio en el diario de Navarra y me llamaron. Aún a los dos años casi todos los días lloraba, luego ya me fui calmando. El hecho de estar sin papeles y que no podía ir a verles me agobiaba tanto...

*Marlon:* Soñaba con venir a España. Había salido por Centroamérica y Belice, pero no había viajado en avión, no conocía ningún país europeo, había conocido sí a mucha gente de aquí allá. Tenía deseos de venir, me hubiera gustado que fuera de turista, pero como eso no podía ser me vine a trabajar. Pero ha sido una desilusión porque venimos sólo a trabajar, ha sido por nuestra decisión por nuestro gusto, pero por necesidad. Sigo soñando que voy para España, como que todavía no he llegado. Como que todavía estoy todo allá, por la tierra en que has nacido, el clima, tu padre, tu madre, la tranquilidad que tienes allá, aquí me canso mucho.

Ikerketa honetan parte hartu duten pertsonen bizi duten egoeraren diagnostiko zehatz bat egiteko edo etiketatzeko asmorik gabe, Ulisesen Sindrome deritzonaz arituko naiz; immigrantearen sindrome izenarekin ere ezagutzen da, edo «migrazio-duelu» ere deitu izan diote beste batzuek. Iritsierako lekuko egokitze-prozesuarekin lotzen den estresa du ezaugarri sindrome horrek. Herrimina, bakardadea, adiskideak izateko zailtasuna, porrot egin izanaren barne-sentimendua —lanik ez izateagatik edo gustukoak ez diren eta diru-sarrera gutxi ematen dituen lana izateagatik; horrek zaildu egiten baitu itxaropenei aurre egitea—, paperik gabe eta eremu publikoetan mugitzeko beldurrez egotea, etengabeko ziurgabetasuna, kontrol-mekanismoak eta gutxitze-mekanismoak; horiei guztiei egin behar die aurre XXI. mendeko «heroiak».

Ez dira gutxietsi behar immigrazioaren alderdi psikoafektiboak eta horiek buru-osasunean dituzten eraginak. Horietako asko deserrotzetik eratortzen dira, afektu-, familia-, talde-, kultura-loturak etetik, ingurune berrian loturak eta harremanak berriz osatzeko beharretik, eta ez soilik eguneroko biziraupenak dakartzan zailtasunetatik. Immigrantearentzat eragozpen gogorrenetakoa da



familiarengandik, ezkontidearengandik, seme-alabengandik, guraso eta anai-arrebengandik banantzea; eta zalantzan jarrarazten dio emigratzeko erabakian emandakoak orekatzen ote dituen ekintza horrek ekar ditzakeen oinazeak eta sufrimenduak. Tristura eta depresioa, bakardadea, horiek dira maizenik pairatzen dituzten nahasmendu afektiboak (Ramírez, 2007: 457).

Bestalde, beste leku batzuk ezagutzeko nahia aipatu behar da; plazerragatik, jakiteko eta ikusteko irrikagatik mugitu den jendearen bidez ezagutu dituzten leku horiek ezagutzekoa. Eta aukera horietarako betoa jartzen zaio Hirugarren Mundu deiturikoan jaiotakoari; baina oztopo horien aurka egiten du, emigrazioaren bidez lor dezakeen lurralde-mugikortasunean aukera bilatzen duenak. Errebeldia nazioarteko bidegabekeriaren aurrean, ondasunen banaketa bidegabearen aurrean. Etorkizunerako aukerarik eza baztertzea. Aukera-eskubidea izateko beharra, hainbeste ate ixten ikusi dituzten leku hartan. Aukeratzeko askatasuna bilatzea, aurrean duen orainari eta etorkizunari aurka eginez, eta bere inguruneak goratzen duen arriskua bere eginez.

Errebeldia horiek garesti ordaintzen dira; emigratzaileak aurre egin beharko dio bere jatorriko herrialdeko ezaugarrien desberdinak dituen ingurune bati; eta errealtate horri ezingo dio ihes egin, turistak egiten duen gisa berean. Arauak, sinesmenak, rolak, balioak, jarrerak, lan-erritmoak, aurre egin beharreko bizimodu desberdinak, sortu den bitzita-proiekturako esfortzuaren eta motibazioaren bidez onartzen den ikastaldia, sortu diren itzaropenak; itzaropen horiekiko, zenbaitetan, erresistentzia izaten dute, beren ezaugarriak galtzea eskatzen baitu, eta askotan gizarte- eta lanbide-estatusa galtzea baitakar. Esperientziak fase asko izaten ditu, eta faktore askoren baitan dago positiboa izatea ala ez izatea. Hala nola, izaten dituzten harremanen baitan, ekonomiara iristeko ahalmenaren baitan, diskriminazioei eta gutxiespenei aurre egiteko indarraren eta autoestimua baitan, laguntza-sareen baitan, eta hainbat elementuren baitan.

*Fátima:* Fue duro vivir en una habitación al principio, aunque nosotros no teníamos casa y yo los últimos tiempos viví en Nicaragua con mi madre, pero las casas allá también en la ciudad son amplias, como un chalet de aquí, con un patio grande, con árboles, plantas... mucho espacio para todo y aquí me sentía como encerrada, como que no hay aire. Aquí las casas son unas sobre de otras. Allá sacas las sillas a la puerta te pones a platicar con los vecinos, vecinas y son muchas las diferencias, pero bueno uno tiene que acostumbrarse y adaptarse al país donde está. He ido haciendo amigas de mi país, son como mi familia aquí, estar junto a gente de tu país es como un apoyo moral, porque estar solo es duro.

*Sergio:* Yo jamás estuve allá metido en una habitación como aquí. En Estella me he sentido como en una cárcel. Allá las casas son casas, amplias, con tus árboles, tu terrenito alrededor y aquí te vienes a meter en una cárcel. Yo eso lo he vivido muy mal. Eso no es calidad de vida.

*Yuri:* Aquí se vive para trabajar, mientras que allá trabajamos para vivir. No me traiga a mi hijo aquí. No me gusta para vivir.

Kultura-talkatzat jo denak bere barnean hartzen ditu deserosotasun, nahasmendu eta besterentze sentimenduak. Ez da gauza bera etxetik, herritik edo herrialdetik ateratzen diren lehen aldia izatea, eta aurrez herrialdean edo eskualdean migrazio-esperientzia bat izandakoak izatea; azken horien kasuan, kontrasteak ez dira hain nabarmenak. Ziurgabetasun emozional handia bizi dezakete, tristura- eta etsipen-sentimenduekin, aldaketak dakarren galera ulertzeko moduaren arabera. Antsietate-aldia, komunikatzeko zailtasunekin, ingurune berri batean bizitzen ikastea ezinezko irudikatuz.

*Carelia:* Vine en el 2004 por primera vez porque mi padre estaba aquí y me envió un contrato de trabajo. Me quedé un mes. Me asusté, todo era nuevo para mí, a pesar del apoyo de mi padre y de su familia, no conocí nada, no me atreví a salir de casa. Fue un cambio muy brusco, me asusté y me fui. Pero me arrepentí en seguida. Quise volver pero entonces no tuve el apoyo de mi padre, quien se enojó conmigo y me tuve que buscar para el pasaje, lo que me costó tres años.

### 3.2 Egokitzapena

Harreman berrietara egokitzea, bestea ulertzea, bestearen lekuan jartzea... badirudi hori guztia iritsi denaren beharra eta betebeharra dela soilik; baita ingurune berriko arauak eta jokaerak ikastea ere, harreman-kode berriak deszifratzea. Hizkuntza bera hitz egin arren, ñabardura desberdinak agertzen dira; eta ñabardura horiek arlo emozionala ukitzen dute. Horiek gogortasunez erabiltzen dira, eragiten dituzten ondorioak kontuan hartu gabe; edo, ondorio horiek kontuan hartuta, erabili egiten dira, kasu horretan etorkina gutxiesteko:

*Fátima:* Al inicio me parecía que toda la gente era enojada, por la forma de hablar que utilizan mucho el imperativo, la veía como mal educada. Nosotros tenemos unas formas más suaves, como más respetuosas. Luego ya me acostumbré. A mí que me digan “esta” me resulta grosero, porque en mi país es una ofensa. Yo me he quedado asustada con eso aquí en Pamplona. Yo le digo al patrón que en mi país ni a un perro se le dice así, que yo tengo un nombre, entonces me pide disculpas pero lo sigue haciendo.

Familiakoen oroitzapena dakarren herrimina eta emozio-nahasmendua saihestezinak dira, aldi igarokor gisa hartzen bada ere. Eta aldi hori espero baino gehiago luzatzen bada, mingarriegia gertatzen da. Eta horrek bere proiektuari, eta horrenbestez seme-alabenari, uko egitea dakarrenean, askoz mingarriagoa da hori bere osotasunean onartzea. Gerta daiteke, prozesuaren amaieran, emigratu duen pertsonak aurrerapen sozial, ekonomiko, kultural eta baita psikologiko garrantzitsuak ere lortu izana; baina ez da ahaztu behar prozesuaren hasierak pertsonalitatea berregituratzea eskatzen duela, aldaketara egokitu ahal izateko.

*Carla:* Emocionalmente yo no me siento nada bien aquí, primero porque estoy largo de él y eso me duele mucho, porque nunca me había desprendido tanto tiempo del niño. Segundo porque cuando yo regrese a Nicaragua ya no van a haber algunas personas de mi familia, murió una tía y también una prima y nosotros somos una familia muy unida, muy pequeña pero muy unida (le salen lágrimas). Esto me ha afectado mucho, pero quien me da fuerzas para seguir aquí es mi hijo y por él hago esto y muchas cosas más. Yo antes pensaba en seguir con los estudios y terminar mi carrera, y sobrevivir de otra manera, pero ahora ya no, las cosas ya no marchan igual, mi prioridad es el niño nada más. He renunciado a mis sueños, todo gira alrededor de él y sin él.

Iritsierako lekuko lehenengo esperientziek jarrerak markatzen dituzte, eta defentsa-mekanismoak sorrarazten, jarrera diskriminatzaileetatik babesteko. Dirudenez, akulturazio-prozesu bat gertatzen da, kultura berriko balioak, estiloak eta praktikak hartuz; mugitzen diren testuinguruaren baitan egoten dira; eta aniztasunarekiko sentsibilitatea, malgutasuna eta jarrera guztiz moldagarria erakusten dituzte.

*Yarince:* Tengo 20 años, mi madre es de Cintruénigo y yo nací en Nicaragua. Había venido muchas veces aquí de vacaciones con mi madre, pero cuando vine a quedarme llegué sólo al aeropuerto. Cuando me vieron la cara me hicieron a un lado, pero yo saqué el DNI de aquí y les dije que era español. Me pidieron disculpas y me dejaron pasar.

Bere itxura fisikoagatik gutxietsia sentitu zenez, dokumentu batek eskaintzen dituen abantailak ikasi zituen; ordutik aurrera, espainiar gisa identifikatu zen eta, askotan, janzkera, hizkuntza eta kontsumoa areagotu zituen, bere ingurunean integratua sentitzeko. Egokitzeak zinenari eta zenuenari uko egitea esan nahi du; diskriminazioa saihesteko baldintza bat da. Oztantasuna barneratzen eta onartzen da bereizkeriaren aurrean, menpekotasuna ugalduz bertako gizarteak onar ditzan. Modu horretan, botere-harreman bat ezartzen dute alde desberdinen artean, eta norabide bakarrean behartutako akulturazioa bultzatzen dute.

Nerabeak dituzten familietan, belaunaldien arteko gatazka-iturri izan ohi da familiako heziketaren eta gizartearen arteko diferentziak markatzen duena. Kasu horietan, zigor fisikoak eta mehatxuak izan ohi dira diziplina-metodo, eta horiei aurre egin behar izaten diete gazteek. Gurasoak seme-alabak ez dituztela kontrolatzen sentitzen hasten dira, beren etxeetan ere agintea galtzen dutela; eta horrek antsietatea, segurtasunik eza, inpotentzia eta, erantzun gisa, oldarkortasuna eragiten dizkie. Pertsona helduek gazteenganako jelsia- eta mesfidantza-arazoak izatea ere gerta daiteke; alfabetatu gabeko pertsonak, jakintzaren bidez agintea hartu duten seme-alaben aurrean, elkarren artean tentsioak sortuz.

*Downia:* Mi madre me castiga con no dejarme ir a clases de música, con no dejarme estudiar para los exámenes y mandarme limpiar sobre limpio. No me dejan ir a las excursiones del instituto o a los campamentos porque no se fían de

las relaciones con los chicos o tienen miedo de que fume o beba. Y mi madre me pega sí y mucho. Mi venganza es estudiar más y sacar buenas notas.

*Carla:* Es cierto que la educación aquí es más avanzada, mi hijo tendría muchas ventajas que en mi país no tiene, pero también hay mucha corrupción, mucha corrupción en los niños. Hay muchas cosas que a mí no me agradan. En mi país se respeta la decisión de un mayor, los pequeños no le gritan ni a su padre ni a su madre, ni les falta al respeto, aquí la mayoría de los niños gritan mucho, chillan mucho, les da igual quien esté delante, faltan al respeto. Si lo trajera y yo tengo que estar trabajando estaría muy descuidado, y al estar en este ambiente captaría muchas cosas con las que yo no estoy de acuerdo, que no me van a gustar y también que yo no puedo castigarle, porque aquí las leyes son diferentes.

Dolores Julianok honela baieztatu du «Eskola, eta urrutitik etorri diren neskatoak» artikuluan:

Hirugarren Mundutik datozen neskatoen kasuan guztia ez dela oztopo ikus daiteke; badirudi haietariko askok nahiko adimen-baliabide eta gizarte-trebetasun dituztela, beren alde dituzten elementuetatik onura ateratzeko, eta kontra dituztenetatik arriskuak txikiagotzeko (Juliano, 2006).

Ikasle asko jabetzen dira beren gurasoen nahiez, eta haien nekeak balio izan dezan arrakasta izan behar dutela sentitzen dute.

### 3.3 Aurreikusitako planak eta epeak

Gehienek behin-behineko eta aldi baterako arotzat planifikatu dute emigrazioa; mundua ezagutzeko eta dirua egiteko bitartekotzat; etxe bat erosteko, seme-alabei laguntzeko, amesten zuten hura azkarrago lortzeko bidetzat; etxebizitza bat, segurtasuna eta babeseremango zuen eremu propio bat, eta etorkizunera proiektatuko zena. Etxe bat da esanahiz beteriko babesaren oinarritzko erreferentzia-puntua; izan ere, denboraren joanean babesleku bat ziurtatzearekin batera, izaera sinboliko argia du. Tokiko soldatekin kostu handiegikoa den etxe hori.

*Yuri:* Yo me pasaré unos años aquí para hacerme mi casa y luego me regreso. No voy a traerme a mi hijo.

*Leticia:* Yo he venido a trabajar. Quiero tener mi casa para vivir con mi hija. No quiero vivir con un poco de gente, aunque sean tu familia.

*Nelson:* Si esto se mejora un poco regresaré a mi país dentro de unos cuatro años, si no mejora y no consigo ahorrar algo de dinero no me puedo regresar con las manos vacías, a qué voy a ir. Si tengo algo, puedo poner un negocio. Podría

seguir trabajando de taxista o comprar una ruta de autobús o algo relacionado con el mercado. Me gustaría tener trabajo y dar trabajo también.

*Flor:* Ahora pienso que en cuanto tenga los papeles me iré pero no sé si podré regresar porque otra vez dejar a mis hijos... se me hace demasiado duro. No sé. Me dan ganas de llorar cuando los veo por Internet. Pero más duro sería estar allá y no poder darles de comer.

Beste helburuetariko bat erreprodukzio materialaren eremuari dagokio: negozio propioa edo lan-prestakuntza hobe bat; horrek burujabetasuna adierazten du bizibideari dagokionez, eta aurreko beharrak estaltzen bermatzen laguntzen du. Migrazioak hori lortzeko aukera zabaltzen du, baina, aldi berean, hori lortzeko prezio bat ordaindu beharra dago.

*Flor:* Estoy ahorrando para comprarme una casita y quiero hacerlo cuando me vaya porque a nadie puedes encargarle eso porque tienes que hacer las escrituras allá y es mejor hacerlo tú misma. Si me sobra para poner algún pequeño negocio bien sino me tendré que regresar para ahorrar otro poquito, pero eso se me hace duro, solo pensar en volver a dejar a mis hijos no se si me voy a atrever.

*Yoca:* Mis planes, a largo plazo es ahorrar bastante e irme a hacer algo allá, tengo muchos planes, no sé, me gustaría poner una panadería, no sé, quizás unos cinco años tendría que pasar aquí.

*Efrain:* Tengo allá dos hijas y dos hijos de 15, 14, 8 y 5 años. Las hijas me dicen que me quede un poco más, que haga un poco más de dinero, que ellas dos están bien con mi hermana, claro que a veces se afligen, pero en general están muy contentas, están en un colegio de pago y son buenas estudiantes. Los niños están con mi papá y mi mamá, les quieren mucho, mi padre es padre para ellos, a mi ni me conoce casi el pequeño, a él le dicen papa o papacito, él tiene 70 años, les tiene cariño y no puede apartarse de ellos, y si yo los traigo para aquí, le voy a dejar con un gran vacío a él, destrozado. Cuando yo me vine, me decía cuándo te vas a regresar, que aquí te necesitamos, que aquí nos haces falta.

Faktore ekonomikoak, ordea, ez gaitu nahasi behar eta ez dizkigu beste faktore batzuk estali behar. Batzuek ez daukate planik finkatuta, soilik bizitzaren norabidea aldatu nahi izatea, beren jatorriko herrialdeko aukerekin ez konformatzeagatik. Beste batzuek seme-alabak ekarri nahi dituzte, eta hemen kokatu. Beste batzuek bi munduen artean bizi nahi dute.

*Sergio:* No quiero traer mis hijos para acá. Soy patriota y me agarra el mal de patria. Soy pendejo en ese sentido. A mis hijos los traería quizás a pasear, pero a estar aquí a vivir no. No quiero que sean objeto de crítica o de racismo. Mi plan es estar un tiempo aquí y regresarme. Lo que me interesa es trabajar allá, mi mamá tiene una finca de 46 manzanas y yo quería comprar un tractor, sembrar arroz, y meter un ganado, eso es lo que yo quiero.

*Marcela:* no tengo planes concretos. Yo me siento bien aquí y ahora y el mañana ya se verá. Yo estoy abierta a todo.

Asko idatzi da immigranteek beren jatorriko herrialdera egiten dituzten bidalketei buruz. Migrazioaren helburuetako bat beren pobretutako herrialdeetan aurre egiten dieten arazo ekonomikoak konpontzea denez, bidalketa horiek, noski, eragin zuzena dute, ez soilik familiengan, baizik baita oro har herrialdean ere; diru-sarrerek % 12,3ko ekarpena egiten diete Nikaraguako barne-produktu gordinei (CEPAL, 2009). Eragin positiboak eta negatiboak aurki ditzazkegu, lehentasuna zein baliori ematen diogun ikusiz. Argi dago ez direla nazioko eta nazioarteko politiken konponbidea, eta «garapen bidean diren» herrialdeen menpekotasunak hazi eta larriagotu egiten direla; eta, askotan, baita familia-menpekotasunak ere. Emakume etorkinen funtzioa erabakigarria da, eta baita haiek bidalketen kudeaketan duten lekua ere. Nabarmentzekoa da emakume askok beren seme-alaben onerako egiten duten sakrifizio handia; haien heziketa eta osasun-baldintzak sustatzen dituztelarik.

*Teresa:* Tuve mucha suerte, a la semana de llegar ya estaba trabajando de interna con una pareja con siete hijos. Me apoyaron muchísimo y pude pagar en menos de tres meses todo lo que debía. Ese fue un error que cometí, el gran fallo de mi vida, la gente allá pensó que yo aquí conseguía dinero fácil. La Blanquita, que me había comprado el pasaje empezó a pedirme intereses de lo que me prestó, mis hermanos también y se han enfadado porque no les mando. Mi marido empezó a reclamarme que le mandara el dinero a él y no a los hijos, empecé a hacerlo. Pero mis hijos tenían que andar pidiéndole y no les daba, les decía que no le mandaba, pasaron seis meses a duras penas, enfrentándose con él. Entonces mi suegra me dice que le mande a ella, que ella sí les va a dar a mis hijos. Pero no lo hice y empecé a mandarle a mi hija y ¡ni quiera dios...! tampoco acerté, porque entonces se pusieron en contra de ella, mi suegra, y me marido. Pasó el tiempo, le dije a mi hija que iba a ahorrar para comprar una casita y que se fueran los tres hermanos allá. A los tres años de estar aquí Caterin me dice que vendían una casita cerca de la universidad por 14.000 dólares. Le comento a mi jefa. Ella me dice que me presta y que me compre la casita ya. Así en diciembre compramos la casita y ellos viven los tres solos. Están muy bien.

Etorkin garaile baten eredu da bera, denbora gutxian bere erabakiaren helmugara iristea lortu duena. Bizitzaren joanean, kezka eta helburu berriak garatzen joango dira. Modu horretan, migrazioak epe motzerako iraupenaren arazoa gaintitzen laguntzen du; baina, epe ertainera eta luzera, herrialdearentzat ondorio negatiboak ere izan ditzake. Nikaraguan, CEPALen ikerketa batek (CEPAL, 2006) balioetsi zuen 2006an bidalketen ondoriozko diru kopurua 700 milioi dolarreko zenbatekora iritsi zela urte horretan. 2009an 990 milioira, 1989an soilik 60 milioi izan zirelarik. Bidalketa horiek, ordea, ez dira beti positiboak izaten herrialdearen garapenerako, bere eskulanik onenek alde egiten baitiote langabeziari konponbiderik ematen ez dien bitartean. Emigratzen dutenak bidalketen bidezko estrategien maila makroan sartzen dira, eta atzerriko diru-sarreren

iturri garrantzitsua osatzen dute gobernuentzat; langabeziaren eta kanpo-zorraren aringarri bihurtzen dira, eta gizarte-errebolten aringarri ere bai.

Dokumenturik gabe lan egitea bi aldeek bere gain hartu beharreko arriskua da. Enplegataile batzuek uko egiten diote horri, eta beste batzuk, berriz, arriskatu egiten dira, eta onura handiak ateratzen dituzte. Kasu horietan, garrantzitsua da bitartekarien funtzioa; izan daitezkeen eraginen informazioa ematen diete eta «paperik gabeko»en eskubideen alde aritzen dira. Aipatzekoa da ekonomiari egiten dioten ekarpena ere, horrelakorik aitortzen ez bazaie ere.

*Ruth:* Yo estoy trabajando en la cafetería Manterola desde que me vine aquí. A los quince días ya estaba ahí, hasta hoy que ya han pasado cinco años. Mikel es el jefe y se ha portado de maravilla. En seguida quiso hacerme fija, tuve que decirle que no tenía documentos. Entonces él se apuró, dijo que no podía tenerme así, el abogado de Cáritas Rafael, majísimo, me dijo que él iría a hablar.

### 3.4 Balio-gabetze soziala eta laborala

CCOOren txostenaren arabera (2009), etxeko lanetan aritzen diren pertsonen % 84k aurrez horretan inoiz aritu ez izana baieztatu du; emakume guztiak, ordea, lanbide horretarako prestatuta daudela jotzen da, emakume izate hutsak profil egoki bilakatzen baititu etxeko zaintza eta lanetarako. Latinoamerikako emakumeak aukeratzea ere kultura-ezaugarrietan oinarritzen diren elementuek adoretzen dute, lan mota horietarako onartzeko prozesuak errazten baitituzte. Latinoamerikarrek, Espainiako estatuarekin izandako lotura historikoengatik, egokiagotzat jotzen diren ezaugarriak dituzte, hizkuntza bera hitz egiten baitute eta nagusiki kristauak baitira.

*Mercedes:* He aprendido a cocinar, con Tania, una muchacha de Bulgaria que estaba en mi anterior trabajo cuando yo llegué y a la que sustituí, ella me enseñó mucho amablemente. En una semana me puso al corriente de las costumbres, yo le agradezco mucho a ella que a pesar de no hablar mucho el español, supo enseñarme mucho. También he aprendido a saber ser paciente, tolerante, a escuchar. He aprendido de las enfermedades que esta gente mayor tiene. Por ejemplo, ella está con alzheimer y eso estresa tanto a su marido como a mí.

*Marcela:* Yo no había trabajado nunca en una casa, pero todo se aprende.

Marcela Kimikan lizentziatua da, ezkongabea, eta inoiz ez du etxeko lanen ardurarik izan. Kualifikazio-mailak ez du azaltzen pertsona horiek lan-baldintza okerreneko enpleguetan lanean aritzea, zenbait lan-sektoretatik kanpo egotea, gizarte-desabantaila batzuegatik baztertuta, non bazterketa patu gisa aurkezten baita. Ez dago korrelaziorik ikasketa-mailaren eta lanbidearen artean. Esate baterako, etxeko langileen % 53,1ek

bigarren hezkuntza edo goi-mailakoa du.<sup>76</sup> Etorkin askok nekez aurkitzen dute lana haiek prestatu diren espezializazioan; zailtasunak dituzte beren kualifikazioa onar dezaten. Modu horretan aurkitzen ditugu emozionalki frustratutako pertsonak, duten kualifikazioa baino maila baxuagoko lanetan harrapatuta sentitzen direlako, eta eguneroko lan batetik espero daitekeen bizigarririk, erronkarik edo pozarik jasotzen ez dutelako. Ikus daitekeenez, gutxiago kualifikatutako pertsonak errazago egokitzen dira eta errazago egiten dute aurrera, urteetan zehar egoera hori onartzen ez dutenek baino.

*Guadalupe:* Siento como que no valgo nada aquí, no tengo un reconocimiento. Yo trabajaba con las mujeres, con los adultos, aconsejando qué hacer con los discapacitados, para mí era un trabajo más relajante. Me iba por todas las comunidades. Aquí estoy encerrada, interna, cuidando de una anciana. Yo he sentido que he perdido mucho.

Pertsona bat edozein arlotan bere handitasuna adierazteko gaitasunik gabe uzteraino murrizten bada, bere giza duintasunari eraso egingo zaio, beste errealitate batean egiteko gai den hura adieraztea eragotziko zaio, eta, ondorioz, alde batera utzi beharko ditu bere antzinako jakintzak. Arlo ekonomikoak orekatu dezake frustrazio hori, baina, eskuarki, itxarondako urte asko igarotzen dira egoera ekonomikoa konpontzera iritsi arte, baldin eta emigratzeko erabakiaren zutabeetako bat izan baldin bazen. Aldi baterakoa izateak goian mantendu dezake autoestimua, eta baita esperientziak dakartzan beste alderdi positibo batzuk ere.

#### **4 Jokabide arrazistak**

Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, ikerketa jakin baterako elkarrizketatutako pertsonen ia % 40ak tratu desberdina sentitu du etorkina izateagatik. Diskriminazio-prozesu horiek, betiere Immigrazioaren Arretarako Bulegoaren txostenaren arabera, gizarte zibilean gertatzen dira (lana, establezimendu publikoak, kalea) erakunde publikoak bitarteko diren testuinguruetan baino gehiago (administrazioa, osasuna, hezkuntza); azken horietan tratamendu berdintasunezkoagoa aplikatzen dela dirudi.

##### **4.1 Hautemandako diskriminazioa**

OPINAK 2010ean egindako inkestan eta Nafarroako Immigrazioa 2008 Inkestan galdetutako alderdietakoren batean tratu desberdina jaso izana adierazten duen pertsona kopuruaren artean, tratu bereizgarri gehien lan-arloan hauteman da (% 30,6), establezimendu publikoetan (% 21), kalean (% 20,1), harreman anonimoetan eta

---

<sup>76</sup> *Leku bidezko bat etxeko enpleguarentzat eta bertako langileentzat.* UN-INTRA Nazio Batuen Ikerketarako eta Gaiuntzarako Nazioarteko Institutuak koordinatutako proposamen-orria, emakumeen sustapenerako. 2008: 13.



etxebizitzaren arloan (% 18,6). Alde positiboari dagokionez, nabarmentzekoa da osasun publikoaren arloa, diskriminazio gutxiago jaso dela adierazi baitute.<sup>77</sup>

*Carelia:* El sistema de salud me parece un lujo. He ido un par de veces a urgencias. Ya nos gustaría tener esto en mi país... Me parece lo mejor de aquí, yo considero que la gente no sabe lo que tiene. Me llega al alma cuando empiezan a protestar.

*Bayardo:* En el hospital ha sido una asistencia muy buena, de calidad. Si esto me hubiera pasado allá hubiera sido mucho más duro, aquí hay mejores condiciones y yo estoy contento, aunque me falte un pie.

Bayardok hanka bat galdu zuen lan-istripu batean. Ospitalean egun asko igaro zituen, eta asko ibili behar izan zuen osasun-langileen artean. Asko estimatzen du han jaso zuen arreta, zerbitzu horietatik igaro diren beste batzueen antzera. Normalagoa da zailtasunak harreman anonimoetan sortzea, kalean esate baterako, eta ez gertuko harremanetan, auzoan eta/edo erakunde publiko batek zuzendutakoetan.

Nafarroako SOS Arrazakeriaren Salaketei buruzko Urteroko Txostenak ez dirudi bat datozenik Immigrazioaren Arretarako Bulegokoekin; izan ere, lehenengoek polizia-gorputzen jarduera desagokiei dagozkien salaketa ugari jasotzen dituzte: Polizia Nazionalarenak, Foru Poliziarenak eta Udaltzaingoenak. Eta horrek agerian uzten du giza eskubideen errespetuan huts egiten duten instituzio-praktika eta printzipio demokratikoen hondatzea.

GKE horrek Monasterio Iratxe kalean Iruñeko udal-poliziaren saileko segurtasun-kamerek grabatutako eraso baten irudiak zabaldu zituen; gertaerak 2009ko irailaren 12an goizaldera gertatu ziren (Kaosenlared, 2010). Bideoak argi erakusten zuen polizia-agenteei ematen zizkieten bultzadak, buruarekin paretaren kontra joz, eta baita masailekoak, ostikadak eta bihurritzeak ere; eskuburdinak jarrita zituen bitartean. Ondoren, osasun-etxera eraman zuten, eta parte medikoa egin zioten jasandako erasoengatik.

*Carol:* Cuando nos detuvieron a Ivania y a mí en la estación de autobuses y nos llevaron al Calabozo, uno de los policías nos trató pésimo, amenazando, gritando... Hasta el abogado fue testigo de ello y le llamó la atención. Se negó a darme el bolso donde tenía unas pastillas que tenía que tomar. A Ivania la llevaron esposada al Centro de Salud porque empezó a sangrar por la nariz.

*Magali:* La policía me paró un día que estaba en la parada de la Villavesa, me pidieron la documentación y como acabo de conseguir los papeles, no hubo problema, sólo a mí me pidieron en la parada, estaba yo sola de extranjera.

SOS Arrazakeriak Iruñeko «puntu bero» deritzenak adierazten ditu, polizia-agenteei hor gelditzen baitituzte immigranteak paperak eskatzeko. Honako hauek dira leku

<sup>77</sup> Nafarroako Immigrazioa 2008 Inkesta, NUP, 34. or., eta *Enfoques*, 9. zk. 2010eko uztaila.

horiek: autobus-geltokia, autobus publikoen aterpeak, Landabengo azoka txikia, Corte Inglésaren eta beste merkataritza-gune batzuen inguruak, Gaztelu plaza, immigranteak askotan egoten diren parkeak eta kirol-jokalekuak, baita latinoamerikar asko joaten diren tabernak eta diskotekak ere. Horregatik, legez kanpo dagoen biztanleak saihestu egiten ditu neurri handi batean eta ahal duen moduan eremu horiek.

Era berean, *MUGAK* aldizkariaren azterketek eta zenbait komunikabidek informazioari ematen dioten tratamendua ikusteak agerian uzten dute administrazio eta erakunde publikoak bereiztatzaileak direla etorkinekin, jarrera arrazistak elikatuz biztanleriaren artean eguneroko bizitzan; eta hori islatzen da, gero, gizartean egindako inkestetan.

*Alan:* Íbamos Franss y yo tranquilamente en la noche por la Bajada Javier cuando de frente venían varios hombres de paisano. Sacaron la placa de policía. Yo les dije haber si era de verdad o de película, nos empujaron al Kebab, nos pidieron documentación con un trato pésimo. Yo no me callé. También les dije cuatro cosas.

Etniagatiko edo jatorriagatiko bereizkeri kasu argia da hori, dokumentazioa eskatzeagatik, bere fisionomiak argi uzten baitu jatorria. Ez zen, dokumentazioa eskatzeko beste arrazoirik. «Hori da gaur egungo arrazismoaren oinarritzko ekintza — dio Manuel Delgadok—: “diferente”tzat hartutako zenbait pertsonari oharkabean igarotzeko aukera ukatzea, azalpenik ez emateko eskubidea kentzea, gainerakook ezkutuan gorde dezakeguna erakustera behartzea» (Delgado, 2002). Aldi berean, Daniel Wagman gizarte-ikertzaileak ere honela nabarmentzen du:

Espainiako legeriak adierazten du «arrazoi»ren bat egon behar duela polizia batek pertsona bat geldiarazteko eta identifikazioa eskatzeko. Konstituzio Auzitegiak adierazi du poliziak eskubidea duela pertsona bat geldiarazteko, nahiz eta ez izan delitu bat egin duenaren froga argirik, baldin eta ekintza hori «jarduera kriminalari aurre hartzeko eta hura ikertzeko esparruan» egiten bada. Modu horretan, identifikazioa susmo simple batean oinarrituta gauza daiteke, baina «ezin du logikarik gabea, zentzugabea edo arbitrarioa izan» (Wagman, 2007).

Delgadok defendatu egiten du anonimorako eta indiferentziarako eskubidea eremu publikoetan, herritartasun demokratikoaren printzipioaren baldintza gisa.

Gizalegea arrotzak elkartze horretan datza; saihesteak, indeferentziak, anonimatoak eta aire zabalean erakutsitako beste babes-pelikula batzuek elkartzen dituzte, eta, aldi berean, estalpean, kamuflatuta, ezkutatuta eta ikusezin. Eremu publikoa espazio hedatu gisa bizi da, hau da, distantziak agintzen duen eremu sozial gisa (Delgado 1999: 46).

Batzuei aitortutako eta beste batzuei ukatutako herritartasun hori dago jokoan. Batzuei formalki aitortzen bazaie ere, praktikan bortxatu egiten da herritartasun hori. Poliziaren

jarduera horiek, erakundeen eta administrazioaren politika horiek, eta etorkinenganako diskurtso politiko alarmista eta diskriminaziozko horiek jarrera arrazistak eragiten dituzte bertako biztanle zibilengan. Bertako biztanle horiek geroago iritsi zirenek baino eskubide gehiago dituztela uste dute; etorkinek, berriz, barneratu eta onartu egiten dute berizkeriak sortzen duen beldurraren aurreko otzantasun-jarrera. Ondorioz, bertakoek bestea azpikotzat «onartzen» dute, menpekotzat errespetatzen dutelarik.

*Carla:* En la calle cuando uno anda, hay personas que te miran de manera despreciativa, pero a mí me da igual, yo no le pongo mente a eso.

Begiradak; keinuak; banantzen, bereizten, hierarkizatzen eta anonimato-eskubidea — Delgadok aipatzen zuen bezala— bortxatzen duten ahots-tonuak; historiaz, ideologiaz edo ezjakintasunez beteta daudenak, senegaldarra den Diallok zioen gisara, Frantzia bititu ondoren, hangoekin alderatuz hemengo jendea oraindik ez dela ohitu «bestea» «normaltasun»ez ikustera. Horri dagokionez, honela dio Jesús Azconak:

Immigrazioa, gaur egun, markatutako jendearen immigrazioa da; aurpegira begiratu gabe, begitarterik ikusi gabe, desberdinak direla dakitelako; nondik datozen dakitelako, zer izan diren eta zer diren dakitenen artean bizitzera datozelako. Etorkinek ere badakite hori, baita lankide izango duten jendearen begirada —zaputza izaten baita beti— ikusi gabe ere (Azcona, 2002: 34).

*Silvio:* No toda la gente es lo mismo, hay gente muy buena y gente que hay que desearle mucho, que hay que serle más claro que el agua. Hay gente de aquí que te mira un poco mal y hay gente que son muy buenas, bien culta, que ven las necesidades del emigrante, que ven que somos personas como ellos y entonces sienten, hay otras personas que no. Lo mirás en la calle, cuando chocás con ellos, en las tiendas, en los mercados, es que a veces... yo he oído decir: -Estos emigrantes, estos sudaquí. En una empresa en que trabajaba había uno que se llamaba Luis y decía todo serio: “Estos sudaquí los empaquetaría y los mandaría todos”. A veces parecía de bromas pero cuando se enfadaba se enfadaba feo también. No son todos, algunos son los que te chocan. A veces la gente de frente te pone una cara y por detrás otra. A mí no me han hecho mucho, pero algunos cuentan, algunos africanos directamente, pero comentarios hay muchos de esos. Pero en general Navarra la veo de momento bien, muy pacífica.

Diskotekek eta aisialdirako eremu pribatuek mugatu egiten dute sartzeko eskubidea; edo jende mota aukeratzen dute musikaren, lana egiten duten pertsonen, sarrerako prezioen edo sarreran jartzen dituzten segurtasun-zaintzaileen bidez. Talde jakin batzuei murrizketak edo mugak jarriz gertatzen den bereizkeri informala. Liskar, istilu edo gorabehera ugari gertatzen dira lokal horien barruan edo kanpoan, askotan alkoholak lagunduta. Arrazakeria-adierazpenak eta indarkeriazko portaera desagokiak gertatzen dira; eta ez dituzte salatzen, kaltetutako batzuek dioten gisara, «ez duelako ezertarako balio»; ez dira leku horietara gehiago itzultzen, eta «gure klaseari dagozkion» beste leku batzuk aukeratzen dituzte, Natachak adierazi zuen moduan; Silvioren neskalaguna da bera, nikaraguarrekin zihoan Ukrainako emakume bat.

*Silvio:* En el Marengo a veces te trataban a patadas y mucha gente no entraba. Un día fuimos con unos rusos y no nos dejaron entrar por ir con zapatillas. Nos fuimos a casa, nos cambiamos de calzado y regresamos, ni aun así nos dejaron entrar. Se creen que porque son porteros son la ley, no tienen flexibilidad para algunos. Y lo que dicen hay que cumplir. En el Subsuelo de la plaza del castillo también hemos tenido alguna incidencia con porteros que parecen de aquí, ponen una excusa u otra pero no te dejan entrar por ser latino.

Jatorri-zonalde handien arteko diferentziak bilatzen saiatzen bagara, oro har, afrikarrak diskriminatuago daudela ikusiko dugu. Iparraldeko Afrikatik datorren biztanlea buru da lan-arloko, administrazio publikoko (polizia eta funtzionarioak), lokal publikoetako, eta komertzioetako berizkeri jarreretako datuetan. Saharaz hegoaldeko jendeak izaten ditu diskriminaziozko arazorik handienak eskolan eta kalean. Etxebizitzari eta auzokoekiko bizikidetzari dagokozkien gaietan soilik gainditzen dituzte afrikarrak Latinoamerikatik etorritako jendeak. Horien artean, boliviarrak izaten dituzte zailtasunik handienak; ziur asko, etorri berrienak direlako izango da, eta aurkezten duen irregulartasun-egoeragatik (2008an paperik gabe zegoen % 65a).

*Alejandro:* Actitudes racistas sí he presenciado. Hacia mí no. Una vez en el autobús con una pareja de negros, discusión, insultos, llamaron a la policía y estos tuvieron una actitud fea. También he visto malos tratos con otra gente de la policía al pedir papeles.

*Leticia:* Llamé a un anuncio de oferta de trabajo para empleada de hogar. Lo primero me preguntó de dónde era y a continuación si era blanca. Yo le contesté que era morena. Y me dijo: -¿pero eres negra negra?- Le contesté si le importaba el color o el trabajo que iba a realizar.

*Moha:* No cualquiera alquila el piso a extranjeros, tienes que ir a través de conocidos y aún así sabes que no todo el mundo está dispuesto a dejarte entrar en su casa.

Mikel Aranburuk, Bartzelonako auzo bateko harremani buruzko bere ikerketa-lanean, deskribatzen du bertako berriemailerik pobreenek adierazpen deskalifikatzaileak erabiltzen zituztela beren auzo etorkineekiko, baina arazo handirik gabe izaten zituztela harremanak haiekin. Erdi-mailako klaseko auzotarrek, berriz, politikoki modu zuzenean erantzuten zituzten inkestak, baina ez zuten harremanik izaten etorkinekin, beren seme-alabak auzotik aldendutako ikastetxe pribatuetara edo kontzertatuetara eramaten zituztelarik (Aranburu, 2002).

Antzeko zerbait gertatzen da etxebizitzaren alokairuarekin ere. Etxebizitza zainduago duten erdi-mailako klaseak ez dute etxebizitzarik alokatu nahi, beren mailakoak ez diren etorkinek beren jabetzako hormen artean egin dezaketzen hondatzeagatik. Politikoki diskurtso zuzena izango dute, tolerantzia eta ez-arrazista; maila baxuagoko jendea, ordea, etorkinekin aurreiritzi gehiago edo gutxiagorekin, baina

nahastu egingo da eta izango ditu trukeak eta harremanak kanpotarrekin, nahiz eta ez izan gatazkarik gabekoak harremanarik.

Immigrazioarekiko jarrerei buruz Frantzia egindako ikerketek adierazten dute HLM inguruetatik (baliabide ekonomiko baxuko biztanleak dituzten lo-auzoetatik) gertuko auzoetan edo immigrante dentsitate handia denetatik gertu bizi den jendea ezkorragoa dela auzo horien barruan bizi direnak baino eta immigranteekin egunero ibiltzen direnak baino (Sabatier eta Berry, 1996, *in* Bourhis eta Leyens, 1996: 234). Nafarroan ere, ez dirudi harremanik dagoenik eremu bateko immigranteen proportzioaren eta pertsona horiek sentitutako diskriminazio-sentimenduaren artean. Horren adibide da Nafarroako iparraldea buru izatea adierazitako diskriminazioari dagozkien datuetan, atzerritar gutxien bizi den eremuetariko bat izanik. Kontrakoa da Tuterako kasua: atzerritarren proportziorik handiena barne hartzen du, eta adierazitako diskriminazio ehunekorik baxuenak agertzen ditu. Hori guztia, 2008ko NUPen inkestaren arabera.

*Lenin:* Yo en mi persona o hacia mi persona nunca he sentido actitudes racistas. Pero sí he visto en la zona de la Rivera por ejemplo que alguna gente con los ecuatorianos, que cuando ellos comenzaron a venir en el 2004 o así, o cuando ya fueron llegando más, eran conocidos como “los ponis”, porque eran chiquititos, contra ellos sí que he visto algo. Con los árabes también, siempre está en boca de esta gente “el puto moro”. Se llevan bien pero están marginados, se les habla porque en el trabajo te tienes que comunicar mínimamente, pero luego no hay eso de –vamos a echar un café- que es lo normal con otros, o vamos a almorzar, unos dicen que son ellos los que se marginan, que se apartan a la hora de comer. No sé realmente quién pone los obstáculos, pero no hay una fluidez en las relaciones, siempre hay como una desconfianza.

Gazte ikasleei dagokienez, Nafarroako Herriaren Defendatzaileak, Francisco Javier Enérizek, honako hau egiaztatu zuen 2011ko otsailean egindako parlamentuko agerraldi batean, NUPEk egindako ikerketa baten ondorioak azaltzerakoan: «ez dute bilatzen beren taldean atzerritarrak integratzerik», «ez dute inizatibarik hartzen integrazioa bilatzeko», eta nabarmendu zuen bai bertako nerabeek bai immigranteek uste dutela «gizartean ezkutuko xenofobia bat badela» eta «konfiantzarik eza» Foru Erkidegoko pertsona atzerritarrenganako (*Diario Navarra*, 2011).

*Luis:* Yo estoy haciendo un máster de informática en la UPNA. En la clase estoy muy bien. Con el profesorado todo excelente, con los compañeros también, para trabajos de grupo, las discusiones todo muy bien. Pero fuera de ahí es difícil relacionarse con la gente. Llevo ya bastantes meses aquí y no hay manera de hacer amistades, no te integran. Nadie me ha invitado a su casa, a salir una noche...

*Mireya:*<sup>78</sup> Hay mucha gente que te trata mal, es un problema de actitud de falta de respeto.

Miguelek 24 urte ditu, eta bi urte daramatza Iruñean, gurasoekin eta anai-arrebekin; bere aita Iruñekoa da. Honela adierazten du:

*Miguel:* La gente es reservada aquí, cerrada, poca gente conozco que sea abierta de aquí, con gente de otros países es diferente, pero aquí son muy cerrados. Mis primos y familiares también. Lo más duro que me ha resultado es relacionarme con la gente de acá, cuesta la relación. En las discotecas. Con las chicas todavía es más difícil.

Eskolak eta institutuak dira bizi garen gizartearen beste isla bat; horietan ere ohikoak dira ikasleen jarrera arrazistak, fisionomiagatik edo ohitura ezberdinengatik. Esate baterako, Aritz, jatorriz Nepalekoa den haur adoptatu bat, kexu zen zenbaitetan iseka egiten ziotelako bere azalaren kolore «marroia» zela eta. Douniak, berriz, kontatzen du askotan sartu diotela txorixoa karpetan eta motxilan, musulmana izanik txerrikirik jan ezin duelako.

*Dounia:* Unos chicos de mi clase cuando iba por el camino del instituto, desde cierta distancia me llamaron “puta mora, ponte la burca”, y otras groserías. Yo seguí caminando y no les hice caso. Pero al día siguiente me encuentro a uno de ellos que iba por la calle con sus padres y le digo: -¿Qué me dijiste ayer? ¡Dímelo de nuevo! -Se quedó cortado claro. Yo les conté a sus padres y él no lo negó.

Bi kulturen artean edo bi koderen artean egoteak, eta diferentea izateak sendotasuna eta argitasuna eskatzen ditu. Bi mundutako kide zarela sentitzeak eta onartzeak osotasuna eskatzen du, baztertua eta estigmatizatua izan ez zaitez. Torontoko (Kanada) Unibertsitateko Elizabeth Coelho irakasleak, kultura-aniztasunari buruz eskoletan ikerketa asko egin dituenak, immigranteen seme-alabek honako ezaugarri hauek garatzen dituztela dio, besteak beste: aukerak bilatzeko irudimena, erabakiak hartzeko inizatiba, arriskuak beren gain hartzeko borondatea, malgutasuna, ziurgabetasuna jasateko trebetasuna, eta gogor lan egiteko gaitasuna.<sup>79</sup> Beraz, beharrezkoa da haiek dituzten ezaugarriak aitortzea eta balioestea.

Larunbat gau batean Donibane auzoko Beer Station tabernaren aurrean ikusi nuen gertaera bat aipatu nahi nuke.<sup>80</sup> Neska-mutil talde bat oihuka ari zen, beste batzuei begira: «-¡Estos hijo putas sudacas, que se vayan a su país! ¡sudacas de mierda!».

Era berean, Inok<sup>81</sup> esandakoa ere aipatu nahi nuke: «-Nire biloba Ikastolara joaten da, eskola publikoa latinoamerikako immigranteez, beltzez eta marokoz betea baitago».

<sup>78</sup> Ekuadortarra, NUPeko ikaslea. Immigrazioari buruzko debatea. Zabaldi, Iruñea, 2011ko martxoa.

<sup>79</sup> E. Coelho. Hitzaldia: *Irakaskuntza kulturantzatasuna*. 2011ko apirila, UPV/EHUko Psikologia Fakultatea. Donostia.

<sup>80</sup> Larunbata, 2009ko irailaren 5a.

Aurrez aipatu dudan gisara, ikastetxe publikoetan pilatzen dira atzerritar jastorriko ikasleak; eta bertakok, berriz, hainbeste etorkinen seme-alaba ez dauden eskoletara joaten dira. Aldi berean, ikastetxe kontzertatuek ez dituzte erakartzen guraso immigranteak dituzten seme-alabak, arrazoi ekonomikoak eta hizkuntzazkoak direla-eta.

Kirola gizarteratzeko eta elkartzeko elementutzat hartzen da, eta badirudi ez dela diskriminaziorik. Kirol-politiken erakunde arduradunek susmoa dute kirolak, bere adierazpen orotan, gizarteratzea sustatzen duela; egiatan, ordea, arrazagatiko diskriminazio modu bilaka daiteke; izan ere, gaur egungo sistema lehiakorren filosofiarekin bat etorritik, helburua irabaztea da, eta, askotan, gizarteratzearekin eta parte-hartzearekin bat ez datozen aukeraketa- eta bazterketa-prozesuak sustatzen dira. «Arazorik handiena arrazakeri instituzionala eta instituzionalizatutakoa existitzea da; non, kirolaren antolaketak eta kudeaketak baztertze-egoera horri forma ematen laguntzen dion» (Durán, 2006).

Hainbat erakundek behin eta berriz protesta egin ondoren, kirol-erakundeek arrazismoaren aurkako borroka-prozesu bati ekin diote. Horretarako sortu zen, esate baterako, Kiroleko Arrazakeriaren eta Indarkeriaren Behatokia 2004an eta Arrazakeriaren aurkako Protokoloa; sentsibilizazio-kanpainak gauzatu dituzte eta 6.000 eurora arteko isunak ezarri dizkiete jarrera arrazistak izan dituzten zaleei. Baina «tolerantzia zero» deritzona serio hartzeko, urrutirago joan behar da; eta marko legegile bat sortu behar da, bai prebentzioa sustatzeko eta bai zale sutsu iraintzaileei eta hori onartzen duten klubei isun handiagoak jartzeko.

Asko dago egiteko, oraindik ere, arlo horretan: oro har, biztanleak gehiago sentsibilizatu behar dira; baina klubek, zuzendaritzek eta komunikabideek ere erantzukizun handiagoa hartu behar dute. Izan ere, kirol-kazetariak gizarte-erantzukizun izugarria daukate gizarteari, eta bereziki gazteenei, kirol-informazioa helarazteko, eragin izugarria baitu horrek. Askotan, ordea, informazio mota horrek *sentsazionalismo gehiegi* jartzen du agerian, eta nabarmen uzten du gertaeren *erabilera komertziala*; horrek eragin guztiz negatiboa du, portaera negatibo horiek orokortzearen alde egiten baitu, sortzen duen eragin mimetikoagatik.

*Estefany:*<sup>82</sup> Uno de mi país que es negro, juega en los partidos del barrio y cantidad de veces le gritan ¡Puto negro! ¡Véte a tu país! Como ahí no les van a poner multas...

Moha Hego Afrikan egin zen Munduko Futbol Txapelketa ikusten ari zen telebistan, 2010eko uztailaren 18an. Ingalaterra eta Aljeria ari ziren jokoan. 7 kateko aurkezleak honela esan zuen: «Aljeriar gizagaixoek Ingalaterrari egin behar diote aurre». Moha haserretu egin zen, eta honela zioen: «-Aljeriarrek oin pobregoa al dituzte ba? Aljeria

<sup>81</sup> Bertako berriemailea.

<sup>82</sup> Kolonbiarra, NUPen irakasle-ikasketak egiten ari dena; eskolako iruzkina.

Ingalaterra baino behartsuagoa ote da ba? Eta nongo petrolio erabiltzen ote dute ba horiek?».».

Etxeko zerbitzuak, askotan, ia esklabotasun-baldintzetan gauzatzen dira: hainbat emakumek ez dute askatasunik, mugatua dute pribatutasun-eskubidea, eta, askotan, nagusien hitzezko biolentziaren, biolentzia fisikoaren eta sexu-indarkeriaren biktima izaten dira.

*Ana:* Yo no he tenido problemas con la gente pero otras muchas me comentan cosas, algunas porque les han mezquinado la comida. A una amiga le limitaban mucho la comida y tenía que comprarse ella. Otras se quejan de que no les dejan que las llamen por móvil ni de día ni de noche, otras de que no les dan un rato de libertad.

*Carol:* No nos ven como personas. La gente es racista, se creen que somos analfabetas, sin cultura, que no tenemos cerebro, abusan en todo, en horas, en pagas, te despiden de un día para otro, protestan porque gastas mucha agua bañándote...

Justifikazio «huts»ek estaltzen dituzte jarrera arrazistak; horietako asko talde-imaginarioak eratzen ditu, eta beste asko zenbait komunikabideren diskurtsoek.

*Raquel:*<sup>83</sup> Antes de subir al autobús la pareja le dice a su chica: -Ojalá no te toque al lado de uno de esos negros porque para aguantar durante cinco horas el olor que desprenden...

Marisolek, bertako berriemaile batek, adineko bere amak izandako istripua kontatzerakoan honela adierazten zuen: -Beltz bat gidari zuen auto batek jota edo ukituta erori zen kalean, eta emakumea gaizki esaka batean ari zen: «Ez dakit beltz horiek zergatik ez doazen beren herrialdera. Zer egiten dute hemen?...»

*Mercedes:* Aquí ustedes ponen sus horarios y hacen valer sus derechos. Ustedes ponen unas condiciones porque se pueden dar el lujo de hacerlo. Pero nosotras tenemos otras necesidades y nos tenemos que acomodar a lo que hay. Pero quienes contratan inmigrantes dicen: -Yo contrato a esta inmigrante la tengo más horas y por menos dinero, pero nosotras no hemos venido a quitarles los trabajos, hemos venido a hacerles los trabajos que ustedes no quieren hacer. Tontas no somos, sabemos lo que hay pero nos tenemos que acomodar a lo que hay.

Gaur egun etxeko langile diren emakumeak, bakarrik iritsi ziren Espainiako estatura, eta legez sartu ziren, turista moduan; «paperik gabe» geratu ziren legezko beren egonaldia iraungi zenean, eta ezkutuko ekonomian aurkitu zuten lana, zaintza-lanetarako eskulan

<sup>83</sup> Raquel Ayerak esandakoa, Etnografiako lanean, NUPeko Irakasle Graduan: «Relaciones de viajantes en un autobús». 2010eko maiatza.



asko behar baitzen. Espainian turista modura sartu izan ez balira, inork ez zien egingo familia-etxe batean lan egiteko izendun eskaintzarik, inoiz ez baitzituzten ezagutuko.

Konfiantzarik ezak eragina du biztanleria kulturantzunaren egunerokotasunean eta bizikidetzan. Jarrera hori ezjakintasunak eragiten du, ezagutza ezak edo harremanetarako gabeziak, jendearen artean dabilzan topikoek edo zenbait komunikabidek zabaltzen dituzten diskurtsoen eraginak. Diskurtso horiek immigrazioa delinkuentziarekin lotzen dute, eta jatorriko herrialdean dituzten gizarte-arazoak nabarmentzen dituzte.

*Maite:* Nire semeari txirrindula lapurtu zioten. Berehala hasi ziren esaten inguruan bizi diren gazte marrokiarrak izango zirela. Beste batek esan zuen ez zuela uste kanpotarrak kontu handiz ibili behar dutelako gauza horiekin, kanporatzeko arrazoi bat izan zitekeelako. Eta noski, poliziarengana jo gabe hurrengo egunean aurkitu genuen eta jakin genuen auzoko, hemngo gazte batzuk izan zirela.

*Moha:* En un bar del Casco Viejo, una chica comienza: -¿Me falta el bolso!- Me mira a mí y dice gritando: -¿Me lo has cogido tú? -Yo lo contesto: -¿Tengo yo cara de ladrón? Tú crees que tengo necesidad de tu bolso de mierda, cuando manejo miles de euros cada día...

Jarrera arrazista horiek min egiten diote jasaten dituenari, gehiegi errepikatzen dira, eta «gu»re eta «beste»en artean eraikitzen ari diren distantzia mentalak adierazten dituzte.

#### 4.2 Diferentziatik desberdintasunera

Irainak, gutxiespenak, murrizkeriak, zuzentasunik gabeko formak eta asimetriak; kulturala da horiei dagokien oinarritzko osagaia, baina osagai ekonomikoa ere lagun dute. Kultura homogeen bihurtzeko joera, diferentzia ukatzea; non erantzun arrazistak agertzen diren. Sousa Santos-ek bereizi egiten ditu desberdintasun-sistemak eta bazterketa-sistemak. Desberdintasuna fenomeno sozioekonomikoa dela dio; bazterketa, berriz, kultura- eta gizarte-fenomenoa batez ere, zibilizazio-fenomeno bat.

Desberdintasun-sisteman, kide izatea menpeko integrazioaren bidez gauzatzen da; bazterketa-sisteman, berriz, kide izatea bazterketaren bidez gauzatzen da. Desberdintasunak gizarteratzeko hierarkia-sistema bat dakar berekin; azpian dagoena barruan dago, eta ezinbestekoa da haren presentzia. Bazterketak, berriz, bazterketa-printzipioa nagusi den sistema hierarkiko bat aurreikusten du: baztertua izandako moduaren arabera izaten da bat kide; azpian dagoena kanpoan dago (Sousa Santos, 1998: 125).

*Eugeni:* Mis sobrinos y hasta mis hijas a Dario no le nombran por su nombre, sino que le llaman frijolito, sudaca, chiquilicuate... eso a mí me molesta, imagínate a él.

Nancy Fraser-ek, birbanatzeaz eta aitopenaz ari dela<sup>84</sup>, birbanatze ekonomikorik gabe ez dagoela aitopenik dio, eta erabakigarria dela kulturaren eta ekonomiaren arteko bereizketa zalantzan jartzea; bidegabekeriak sortzeko, bi arloek elkarrekin jarduten dutela ulertu behar dugu. Sousa Santosek honela baieztatzen du:

Nagusitasunaren kontrako globalizazioak oreka tenkatua eta dinamikoa erabiltzea eskatzen du diferentziaren eta berdintasunaren artean, identitatearen eta elkartasunaren artean, autonomiaren eta lankidetzaren artean, aitopenaren eta birbanatzearen artean. Diferentziak gure kokapena menderatzen edo murrizten duen bakoitzean, berdinak izateko eskubidea dugula onartu behar dugu; eta diferenteak izateko eskubidea dugula, berdintasunak ezaugarri gabetzen edo uniforme bihurtzen gaituenean (Sousa Santos, 1998: 154).

Berdintasunari/aniztasunari buruzko eztabaida gai nagusia da gaur egun. Izan ere, desberdintasunek eta bazterketek bidegabekeria-sare asko eragiten dituzte; eta sare horietan korapilatzen dira klaseari, generoari, adinari, etniari, nazionalitateari edo erlijioari dagozkion kategoriak. Testuinguruaren arabera da kategoria horietako bat edo gehiago nagusitzea.

*Moha:* En el aparcamiento de la plaza de toros uno me dijo: -¿por qué tú trabajas aquí? Este trabajo debería ser para la gente de aquí no para extranjeros.

*Goizane:*<sup>85</sup> Bai, hainbeste kanpotar eta gero etxekoentzat lanik ez. Diru gutxiagorengatik egiten dute lana eta gu lanik gabe gelditzen gara.

Ohikoa da gure inguruan «etxekoak lehenengo»aren ideia, eta/edo lanaren jabetzaren ideia, edo emakumeen jabetza. Horretaz gainera, haiek soldata baxuagoak onartzeak, oro har, soldatak jaistearen eragiten duela diote. Merkataritzan eskaintzaren eta eskariaren legea aldarrikatzen den gizarte honetan, lan-kontuak ez dira parametro berdinetan neurtzen.

Immigranteak askotan izaten dira aurreiritzien eta diskriminazioen objektu, bereziki, ekonomia-atzeraldietan. Gezurrezko mito askoren artean, honako hauek entzuten ditugu: «lana kentzen digute», «soldatak jaitsarazten dituzte, diru gutxiagoren truk lan egiteko prest baitaude», «babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituzte», «gizarte-zerbitzuez baliatzen dira», «lanik egin gabe bizi nahi dute». Gizarte-zamatzat hartzen dira. Iritzi publiko hori informazio desegoki eta okerretan oinarritzen da, naziokoen ustezko lehentasun eta nahietan. Jende asko ez da jabetzen etorkinak

<sup>84</sup> Nancy Fraser (1997). *Iustitia Interrupta Reflexiones críticas desde la posición "postsocialista"*, Siglo de Hombres Editores, Bogotá, 6. or.

<sup>85</sup> Paz de Ziganda Ikastolako irakasle gazte bat. 2011ko otsailaren 7a.

herrialdearen hazkunderari eta garapenari laguntzen diola eta enpresa-politiken esana egiten duela.

*Magali:* Una vez en una villavesa<sup>86</sup>, un chico venía hablando en voz alta, porque habíamos tres extranjeras y decía: -estos putos inmigrantes que nos vienen a quitarnos el trabajo. No le dijimos nada. Otro día en la iglesia en el momento de darnos la paz, una señora no quiso darme la mano, me miró con una mirada fuerte y se volteó. Ahí uno echa de ver muchas cosas. La nuera de la abuela que cuida también a veces se pone a hablar mal de las extranjeras, no de mí, pero yo me doy por aludida, de las ecuatorianas se expresa de una manera que hace daño. Ella dice que le dan más trabajo a la gente inmigrante que a los mismos españoles, que en esas empresas de cuidado de personas mayores prefieren a las inmigrantes.

Delgadok adierazten duen gisara, immigrantea kopurutan gehiegizkoa izan ohi da, eta, ondorioz, soberan dagoela eta kanporatu beharreko soberakina dela jotzen da. Robertok<sup>87</sup> honela dio seriooki, San Fermin jaietan beltz bat inguratzen zaionean Iruñeko kaleetan, betaurrekoak saltzera: «-Inbaditzen ari zaizkigu».

Gizarte-sisteman mugarik baxuenak eta zaugarrienak betetzen dituzte kalez kaleko saltzaile horiek; batzuetan onartu eta beste batzuetan zapaldu egiten dituzte; ez dute ezertarako baimenik ez eskubiderik; eta kalean zenbait objektuekin manta jartzen ausartzen dira, jendetza ibiltariaren babesean, marjinazio-eremuaren barnean edo handik gertu.

### 4.3 Bikotea konbentzionala ez denean

Nabarmentzeko gaia da senar-emazte mixtoena ere. Nafarroako Estatistika Institutuaren 2011ko otsaileko datuen arabera, % 14 igo dira ezkontide bat atzerritarra den elkarketak, eta guztizkoaren % 16 osatzen dute. Arrazoi asko daude hazkundera hain nabarmena izateko; nagusietakoa da azken hamarkadetan Nafarroa immigrazioaren komunitate hartzaile bilakatu izana. Mugimendu askoko garaiak bizi ditugu. Leku askotako jendearekin dugu harremana. Izan ere, batetik, turista gisa, lan-arrazoiengatik edo ikasketengatik bidaiatzen dugu beste herrialde batzuetara; bestetik, arrazoi berdinegatik beste herrialde batzuetako jendea dator gurera. Eta hainbat arlotan ditugun kontaktuen ondorioz, bikote izaten amaitzen duten harreman afektiboak sortzen dira. Bestalde, normala denez, % 12,2a atzerritarra eta nagusiki 25 eta 40 urte artekoa den biztanleen artean, eremu berean bizi diren kulturen arteko harremanak sortzen dira, eta areagotu egiten dira kulturarteko familiak.

<sup>86</sup> Hiri barruko garraioaren bertako konpainiaren izena.

<sup>87</sup> Erdi-mailako klaseko bertako berriemailea.

Asko hitz egiten da intereseko ezkontzei buruz (*ezkontza zuri* ere esaten diete); baina badakigu leku eta gizarte-maila guztietan izan direla intereseko ezkontzak edo hitzartutako ezkontzak; eta maitasun bidezko ezkontza bizikidetzan modu bat da, beste modalitate batzuen artean. Zintzotasunik gabea litzateke paperak arautzeko helburuarekin ezkontzea delitutzat hartzea. Bikotearen artean adostuta egiten bada, beste edozein kontraturen gisakoa izango da.



Ikertutako biztanleen artean, bikote mixto ugari ditugu; eta gutxi batzuk paperak azkarrago lortzeko finkatutakoak direla kontura gaitzke. Gizarte honek immigranteei inposatzen dizkien administrazio-arazoak konpontzeko nahiari erantzuten dio horrek. Eta «maitasunagatik» elkartu ez diren bikoteen devaluazioaren pean, badira elkarri on egiten dioten bikote-harreman atseginak eta iraunkorrak ere.

*Carelia:* Alguna vez me han preguntado si estoy casada y les digo que sí. Luego me preguntan en qué trabaja mi marido y cuando les digo que está jubilado dicen ¿sí? ¿Tendrá dinero? Y les digo sí mucho, pero como me aburro en casa aquí estoy trabajando. Tienes que oír lo típico, que si te has metido con un hombre mayor es porque tiene dinero o porque no tienes papeles. ¿Y qué pasa si no es así? Ese pensamiento de: -ésta de fuera que viene buscando dinero o papeles, y eso te molesta una y otra vez, tener que dar explicaciones. Yo puedo dar explicaciones a quien considere que tengo que dar pero no a cualquiera, me ha tocado gente así, que piensa que porque soy de fuera... La gente pensaba que cuando tuviera los papeles yo lo dejaría, pero llevamos cuatro años juntos y estamos muy bien. Mi marido es el único con quien puedo contar, es un apoyo muy importante, apoyo moral, cuando estoy nerviosa por algo y él me dice no te preocupes, todo irá bien, para mí es agradable.

«Immigranteek lana kentzen digute, baita emakumeak ere kentzen dizkigute». Txantxetan edo serio, baina lagunarteko afarrietan, tertulietan eta eguneroko elkarriketetan entzuten diren hitzak dira.

*Mercedes:* Una señora me dijo: -Ustedes han venido a quitarnos los maridos-. Yo le contesté: -¿Qué? ¿Qué me dice? Y añade: -Yo tengo cincuenta y cuatro años y nunca me casé. Tuve una chica boliviana y en pocos meses ya se casó con un español y tenía tres hijos, y yo no nunca me casé. Yo le decía que todavía se podía casar, que para eso no había edad, pero ella ya lo tenía descartado. Otra me dijo otro día: -Aquí las inmigrantes nos vienen a quitar los maridos.

Nafarroako biztanleriaren zati batek, gaur egun, beste herrialde batzuetako jendearekin harremanak izateaz gainera, tradiziozko bikote moduarekin hautsi eta adin eta erlijio ezberdinetako bikoteak aurkitu ditu. Garai batean bikotea aurkitzeko zailtasun handiagoak zituzten gizon-emakumeek aukera berriak topatu dituzte gaur egun aniztasun horretan, beren behar afektibo, ekonomiko, sexual edo intelektualak asetzeko. Beste batzuk, ordea, ingurune tradizionaletan sartuta geratu dira, aldaketarako asmorik gabe, baina gizarte kontserbatzaileak ezarritako mugetatik ateratzen dena kritikatzera ausartuz.

#### 4.4 Tolerantzia

Ikertu ditudan nikaraguarren beste zati batek adierazi du ez duela jarrera arrazistarik jasan, eta Nafarroa leku lasaia dela nabarmendu dute, beren jatorriko herrialdearekin alderatuta; gertaera arrazistak badiren eta entzuten diren arren, beren inguruan ez dituztela bizi izan adierazi dute.

*Bayardo:* Nunca he tenido problemas de relación aquí, ni he discutido, ni me he peleado con nadie, ni con la policía nunca me pidió papeles. Racismo hay en todas partes, hasta en mi país. Pero es algo ilógico, porque todos somos seres humanos y todos somos inmigrantes, hay muchos españoles que están fuera. Yo estoy aquí porque me gusta y porque hay una mejor vida y puede haber más posibilidades para mis hijos. Sí he visto algunos casos en otras gentes, en la tele, eso es una enfermedad, es gente que no está bien. En Estella no ha habido casos así de racismo.

*Efrain:* A mí me decían cuando me venía que los españoles eran muy racistas, pero yo en esta parte de Navarra o País Vasco yo no he sentido eso. A veces es también cómo te comportes tú. Decimos: -son racistas- pero a veces somos nosotros mismos los racistas y eso hace que los demás nos vean diferentes. Por ejemplo la gente de Ecuador poca relación tiene con la gente de aquí. Yo por lo menos me he relacionado mejor con la gente de Pamplona que con la ecuatoriana. Para mí que sean rumanos, dominicanos, africanos o españoles es lo

mismo. Yo no he sentido nada de racismo. Como no llegué solo sino a través de uno de aquí, él me introdujo entre sus amistades y siempre me he sentido muy bien. Cuando voy a Murillo del Fruto ya todo el mundo me conoce y me quiere. Nos vamos de bares, de copas y me siento como si fuera del pueblo. En Burlada lo mismo, conozco mucha gente de aquí y nunca he sentido nada raro. Salgo en las noches, voy a bailar a veces y nunca he tenido ni presenciado ningún problema.

2009ko ekainaren 5ean Berriozarko Kulturen arteko Emakumeen Elkarteak antolatutako «Zatoz senegaldar kultura ezagutzera» kulturarteko topaketan, honela azaldu zuen Barak: «Jarrera arrazisten aurrean gu tolerantetara; jasan egiten dugu, isildu egiten gara, erantzunez gero liskar okerragoetan sartzen baikara. Arrazakeria ezjakintasuna da; beldurra da, pribilegioak galtzearen beldurra; senegaldarrak jende baketsua gara, ez dugu maite borroka egitea».

Eremu horiek gogoeta egitera bultzatzen gaituzte, kezka desberdinak partekatuz. Horietan jarrera positiboak aurki ditzazkegu, gure gizartean ere bai baitira. Carmenek, adibidez, topaketa horietan parte hartu zuen emakume batek, honela deritzo: «Immigrazioak freskotasuna ekarri digu, irekitzea, aberasten gaituzten ideia eta egoteko modu berriak».

RAE hiztegian tolerantzia begiratu, eta definizio hau aurkituko dugu: 1. «Sufritu, pazientzia izan»; 2. «Zilegi ez den zerbait onartu, espreski baietsi gabe»; 4. «Gainerakoek ideiak, sinesmenak edo jarduerak errespetatu...». Delgado honela argitzen du auzi hori:

Tolerantziak, funtsean, esan nahi du egin behar ez litzatekeen gauza bat —edo legezkoa ez litzatekeena— onartu egiten dela; izan ere, lortzen diren onurak handiagoak direla uste da nahi ez diren ondorioak baino. Funtsean, tolerantziak nagusitasunezko ikuspuntu bat dakar ondorioz. Jasateko edo tolerantzeko gaitasuna eta eskubidea duela uste duen batek gauzatzen du despotismo eta gutxiespen gorenko ekintza hori: bestea tolerantzia (Delgado, 2002b).<sup>88</sup>

«Bestea» «jasangarri»aren eta «onargarri»aren eremuan badago, ez da posible komunikaziorik. Kontua ez da bestea ulertzea, baizik eta bestearekin ulertzea; eta hori desberdina da. Diferentziak errespetatzea eta desberdintasunak zuzentzea. Ezagutza handiagoaren bilaketa demokratikoak elkarrengana gerturatuz eta elkarrekin aberastera bideratu behar gaitu, ulertzen ez den hura ere onartzera, kulturarteko herriartasun bat garatzearen alde.

Slavo Zizek filosofoak adierazi zuen kulturantzun liberalak tolerantzia egiten duela «bestea», «beste» erreal bat ez bada —erritu lilugarriak dituen bestea, folklorizatutako bestea, kontsumoaren emaitza gisa—; baina beste errealari aurre egin behar badio —erauzketarenari, emakumeak ezkututzen dituenari— beste horrek bere berariazotasuna

<sup>88</sup> 2001eko ekainaren 8an Kataluniako Parlamentuaren Jauregian esandako hitzak.

bizi eta erakusten duen moduan, amaitu egiten da tolerantzia. «Mendebaldeak distantziara jarduten du tolerantzia, birtualki. Elkartasuna agertzen diegu Afrikan dauden afrikarrei, ez gure auzoan daudenei» (Zizek, 2010). Eta eransten du tolerantzea izan beharrak zerikusia duela besteak «bere» espazioa gordetzeko duen eskakizun intolerantearekin; eta, beharbada, beharrezkoa izango dela gaur egun intolerantzia-dosi on batez hornitzea, desadostasuna elikatzen duen pasio politiko hori pizteko helburuarekin soilik bada ere.

#### 4.5 Immigranteen arteko arrazismoa

Jarrera arrazistak ez dituzte, soilik, bertako biztanleek; taldearen beraren edo iritsierako taldeen baitan ere izaten dira, eta baita geografia-eremu berean bizikide den jendearen artean ere, elkarrenganako arbuio gisa. Eskuarki, desabantailaren bat duenak sufritzen du gehien jarrera horiekin, ekonomikoki, sozialki eta lanari dagokionez menpeko egoera batean egoteagatik; izan ere, gaur egungo arrazakeria ez da arrazakeria biologikoa, kulturala eta, batez ere, ekonomikoa baizik. Diferentziarekiko beldurretik desberdintasunarekiko beldurrera igaro gara; izan ere, desberdintasunak defentsa-jarrerak edo jarrera oldarkorrak eragingo ditu bidegabekeriaren aurrean.

*Aleida:* Entre nicaragüenses he encontrado solidaridad pero también insolidaridad. Cuando no tienes trabajo y por tanto no tienes dinero se muestra lo peor de cada uno. Mis compañeras de piso, que fueron mis alumnas allá en Nicaragua me echan de casa porque no puedo pagar la habitación. Eso no es que sea racismo pero...

*Hugo:* Yo vivía con unos paisanos indios o unos considerados más indios que yo que debo ser mestizo. Cuando llegó otro de mi país me dijo: -Tú ¿por qué vives con estos indios?-

*Marlon:* La relación con compañeros de trabajo es regular. Yo estuve en Belice y en todas partes es igual, cuando la gente ya tiene los papeles tratan de humillar al que está en situación irregular, se creen con más poder que hasta los propios españoles, tratan de machacarte todo el tiempo porque tienen la capacidad de hacerlo tanto en lo laboral como en lo psicológico.

Hemen agertzen dira Foucaultek aipatzen zituen botere-egiturak edo askotariko elementuen sare anizkuna. Boterea maila guztietan jardutea; menderatua denak mendean hartzen du bestea ere, harreman-segida horretan. Immigranteak duen estatus administratiboa desadostasunerako arrazoi da. Nazioarteko eta nazioko errepresio-kateek —gaur egungoek eta historikoek; hemengoek eta hangoek— behin eta berriz ikaratu duten baten ezaugarriak azaltzen ditu Marlonek. Hurrengo kasuan, berriz,

erresistentziarako gaitasun handiagoa edo babes-estrategia sendoagoa hauteman dezakegu.

*Flor:* A veces ves que algunas por el hecho de tener papeles como que se quieren colocar más arriba, pero yo no les pongo mente, porque es gente ignorante diría yo. Nadie es más que uno.

*Sergio:* Compartimos casa en Estella con cuatro bolivianos y un chileno. La relación con ellos es mala. Ellos tienen su cultura y nosotros la nuestra. Yo hasta ahora vengo conociendo esa cultura, son bien criticones, son cerrados. Ellos son los que tienen la razón siempre...El chileno sí es más abierto, siempre hablamos con él.

## 5. Botere-harremanak

### 5.1 Mugak

Espainiako estatuan, Atzerritarren Legeak babesten ditu botere-harremanak. Lege hori betearazteko, hainbat kontrol-gailu erabiltzen dira, eta marko teorikoaren atalean aztertu ditugu, Michael Foucault-ek egindako ikerketetan oinarrituta; segurtasun-indarrek erabiltzen dituzte, hain zuzen, kontrol-gailu horiek. Atxiloketak eta kanporatze-espeditenteak egiten dira, besteak beste (kasu hauetan ikus dezakegun gisara), immigranteak ikaratzeko edo beldurtzeko. Kanporatze-espeditente horiek, ordea, ez dira gauzatzen ez kasu hauetan, ez nikaraguarrei ezarri zaizkien beste batzuetan ere. Baina mugak —antzinan geografia-mugak zirenak— barneratzeko balio dute; muga horiek ikusezin bihurtu dira gaur egun, baina gorpuztu dira, pertsona otzanak sortzeko helburuarekin; gertaera egokitu den lekuan eta inguruan eragiten dute, legez kanpoko egoeran lanean eta bizitzen urteak daramatzaten pertsona haiengan guztiengan. Mekanismo horiei poliziaren jarrera iraingarriek laguntzen diete, zenbait kasutan.

*Ivania:* Nos detuvieron a Carol y a mí en el aparcamiento de la estación de autobuses el 18 de febrero de 2010. Yo estaba acompañada de mi pareja. Primero nos pidieron la documentación y como yo no lo tenía ahí mi compañero tuvo que ir a buscarla a casa, en la espera uno de los oficiales me increpaba diciendo que mi compañero ya no iba a regresar, que nos iban a llevar detenidas y que no iba a saber dónde encontrarnos y otras cosas con tono amenazante. Al rato regresó mi compañero con el pasaporte y nos trasladaron a las dos a las dependencias policiales de extranjería. De allá una vez hecho el trámite de la retención nos llevaron al Calabozo de la Calle Chinchilla y es ahí que el mismo policía de antes continuó dirigiéndose a nosotras de una forma grosera y pésima. Nos quitaron los bolsos. Al rato Carol pidió que le dejaran tomar una medicina que llevaba en su bolso y que debía tomar por prescripción facultativa con cierta periodicidad, a lo que el policía presente se negó. Después el mismo policía me



dijo que me iba a cachear, yo respondí que a mí ningún hombre tenía por qué cachearme, por lo que hizo llegar a una mujer policía. Después debido al estado nervioso comencé a sangrar por la nariz y me llevaron esposada al servicio de urgencias del Solchaga. Tuvimos que pasar la noche en dependencias policiales. En un comienzo no nos dieron ninguna cobija ni colchón. Más tarde, al mostrar el frío y a petición del abogado que vio la situación y reclamó, nos dieron unas cobijas sucias y de mal olor. Pasamos la noche ahí y al día siguiente, Carol de nuevo pidió que le trajeran por favor el bolso, el abogado de oficio que estaba de guardia en el turno de extranjería en ese momento, Eusebio Gimena Ramos, fue testigo del tono de voz y las formas que utilizó el mismo policía del día anterior que de nuevo llegó en su turno correspondiente. Este abogado llamó la atención por nuestros derechos. Luego se nos notificó el Inicio de Expediente de Expulsión Preferente y después de 24 horas nos dejaron en libertad. La asociación hizo una carta de reclamación ante el Colegio de Abogados por este maltrato.

*Marlon:* Me detuvieron el 19 de julio de 2010 en Puente La Reina, cuando iba a trabajar a las nueve de la mañana. Fue la Guardia Civil. Yo les dije que me faltaba poco para los tres años de arraigo y que me dejaran pero no fue así. Me llevaron a las oficinas de migración en la calle Pascual Madoz, donde me tramitaron Expediente de Expulsión. De ahí a la comisaría de policía Nacional de la calle Chinchilla. Me tuvieron ahí hasta la noche que fue cuando llegó el abogado Jesús Prados Heras, también habían llegado mi pareja y el presidente de la asociación y otros nicaragüenses a preguntar por mi situación y se quedaron allá esperando a que saliera. Después de esto yo me sentía triste, al día siguiente no tenía ganas de ir a trabajar, además tenía que ir a hablar de nuevo con el abogado y el jefe venga a llamar para que fuera a la obra y a exigir que me presentara, casi amenazando también.

Kasu horretan, ikusten da gertaera horrek ahuldu eta eragin egiten duela atxilotutakoaren gogo-aldarte; ez du, gainera, empresaburuaren inolako aitortzarik jasotzen. Nagusiak beldurra izan dezake paperik gabeko langileak izateagatik; baina, horretaz baliatzen da, finkatutako soldatak baino baxuagoak ordainduz, eta gizarte-segurantzarik eta oporrik ordaindu gabe.

Beste modalitate hertsagarri bat aberriratzeak dira. Modu askotara agertzen dira horiek. Portuetan eta aireportuetan arrazoi ezberdinengatik sartzeari galaraziz gauzatzen da itzulera. Arrazoi horietako bat dirua izan daiteke; beste batzuetan, gonbidapen bat eskatzen dute, eta hori egiten duenak egonaldia justifikatu behar du eta horren erantzukizuna hartu behar du zentzu guztietan; herrialde batzuei sartzeko bisa eskatzen zaie, beste batzuei ez. Baina eskatutako baldintza guztiak betetzeak ere ez du bermatzen sarrera. Zoriz, pertsona batzuk aberriratu egin ditzakete, eta beste batzuei pasatzen uzten diete. Behin eta berriz saiatzen direnekin topatuko gara, lortu edo ez.

*Silvio:* 1996 yo me venía como con 50 dólares en el bolsillo, era marzo creo, cuando empiezan las ferias, en la aduana me pidieron dinero y como no podía mostrar me han devuelto, me regresaron, me denegaron la entrada. Los amigos llegaron a dejarme un dinero para que lo presentara pero el policía me decía que tenía que traerlo de allá y me tuve que volver. A los 15 días presté dinero a mi suegro, me vine y pasé. Ya pasando el aeropuerto, encuentro el mismo policía, me dice: -¡Ah si este es mi amigo! ¿Traes dinero?- Le digo: -Sí-. Y le mostré 900 dólares. Entonces tenía que dejarme. Yo ya venía con todo el reglamento y con el billete cerrado para 15 días. Me tenía que dejar pasar. Me cogió el pasaporte, me selló pero me puso: El portador de este pasaporte tiene permiso de tal fecha a tal fecha. Pero ya pasé. Me fui a Tarragona y con la empresa de ahí estuve como cuatro meses. Al regresarme para atrás, cuando ya me iba me volví a ver con el mismo señor, se me quedó mirando y yo le dije, ahora ya me puedes regresar para atrás, ya me voy. Me dejó pasar.

*Magali:* Una hermana se vino pero la regresaron de París, no la dejaron pasar, la devolvieron del aeropuerto. Ella venía para Pamplona pero no la dejaron pasar.

*Lenin:* En Madrid en el aeropuerto no me dejaron pasar, me pusieron muchos obstáculos, yo traía una carta de invitación de M<sup>a</sup> Luisa, otra carta de donde estaba trabajando, pero me deportan, porque no traía suficiente dinero. Yo les dije que me iba a quedar con mi novia, en su casa, dijeron que eso no servía. M<sup>a</sup> Luisa habló con la policía, le permitieron verme, estar un poco conmigo, hasta la hora de embarcar pero me regresaron.

*Carla:* Me vine primero en septiembre del 2001, una semana después de lo de las Torres Gemelas y no me dejaron entrar, me pidieron una serie de documentos que yo no tenía en ese momento. Fue frustrante y decepcionante para mí, porque la situación que estábamos viviendo en mi país era muy lamentable. La segunda vez no tuve ningún problema.

*César:* En el aeropuerto de Madrid nos meten en una habitación a unos 30 latinos de diferentes nacionalidades, nos quitan el pasaporte, nos llevan a extranjería, nos retienen varias horas. Nos empiezan a decir que tenemos que tener un contrato de trabajo. Que no podemos entrar así. Llega luego un hombre malencarado y comienza a repartir los pasaportes y al terminar pregunta ¿a quién le falta? Yo levanto la mano. Me dice: -Veníte para acá- Me saca de ahí y me dice: -Aquí está tu pasaporte, andate, seguí tu rumbo. Yo traía una carta de invitación de la que era alcaldesa de Lasarte-Oria Ana Urchueguia<sup>89</sup>, pero el hombre me dice: -Decíle a esa señora que aquí esa carta no sirve de nada, lo único que te sirve es una carta firmada por mí. Vete-. Así es como entré,

---

<sup>89</sup> Lasarte-Oriako PSEko alkate-ohia; gaur egun Eusko Jaurlaritzak Txilen eta Perun duen ordezkaria da. 2011ko otsailean salatu zuten, Nikaraguako Somoto herrian (Lasarte-Oria senidetuta dago herri horrekin) milioi bat metro karratu inguruko lursail bat eskuratu zuelako, Lasarte-Oriako Udalak lankidetzara bideratutako diruekin (Nagore, 2011).

mientras los otros 29 los regresaban a sus países. Fui el único que entró. Perdí el avión para San Sebastián. En Iberia me solucionaron y me dieron el boleto para la mañana siguiente. Pasé la noche en el aeropuerto y a las 7 de la mañana salí para San Sebastián. Cuando llego, lo primero llamo a mi hermano a Nicaragua, para decirle que ya había pasado.

Horretaz oroitzean, malkoak ateratzen zaizkio Cesarri; hunkitu egiten da. Oraindik gorputzean du une haietan bizitako tentsioa. Guztia gorputzean dago. Eta kontatzen jarraitu du:

*César:* El aeropuerto de San Sebastián estaba llenísimo, yo estaba esperando sentado cuando veo que uno viene hacia mí directamente, mirándome, yo aún desconfié de él, dije: -¿qué querrá este cabrón? Pensé que podía ser policía. Y me dice: -¿Tú eres César, el hijo de Lupe, la rosquillera de Somoto? – sí soy yo-le digo-. Y ahí me relajé.

## 5.2 Eta muga gehiago

Behin muga geografikoa igarota, barneko mugak finkatzen hasten dira; muga horiek gorputzean txertatzen dira, langilea koldartzeko edo ikaratzeko helburu bera duten mekanismoen bidez. Azaleratu egiten dira kultura nagusiaren eta norberarenaren kontrol sinbolikoan oinarritutako pentsamenduak, beldurrak eta mesfidantzak. Pentsamendu zentzugabe bihurtzen diren aurreiritziak dira; hitz batean, emozioak. Paperak lortzeko eta legeztatzeko oinazealdia hasten da. Urteak igaro ditzakete egoera horretan, betiere, errotzeagatik bizilekua eskatu ahal izateko lan-kontratu bat egin diezaiokeen enpresabururen baten borondate onaren lepotik. Etorrinek ia hitzez hitz ezagutzen dute Atzeritarren Legea; inoiz irakurri ez badute ere, hark berekin dakartzan eragin guztiak ezagutzen dituzte.

*Fátima C.:* Me he preocupado por las leyes sobre inmigración, leo todo lo que se refiera a esto, lo de arraigo, todo lo que sea de los papeles, qué dice Zapatero, o Rajoy. He ido a Cáritas para enterarme, he hablado con la asistente social, he ido también a la UGT, me han ayudado a preparar la solicitud de residencia. También hablo con otras compañeras sobre esto.

*Fátima:* Me produce mucho estrés el estar irregular, es como no poder volar, es como una paloma que le han cortado las alas y no puede volar y este trabajo también produce mucho estrés, es como que estamos en una cárcel, tenemos que cumplir reglas, órdenes del patrón. Hay un abuso en el número de horas, laborar muchas horas y pagar poco. A mí me gustaría hacer cursos, pero no podemos porque no tenemos papeles, el privilegio está para las personas que tienen documentación. Tampoco podemos acceder a otro tipo de trabajo. A mí me gustaría trabajar de ayudante de cocina o de camarera.

*Marlon:* No quiero salir de Pamplona, viajar supone arriesgarse a que te pidan papeles, hay que evitar detenciones, mi hijo de 13 años está en Mallorca pero yo no he ido allá en estos tres años, porque subirte a un avión sabemos los riesgos que tiene a nivel de documentos. Tampoco me atrevo a traer a mi hijo aquí, ni siquiera de vacaciones, porque piden una serie de condiciones, que tengas una habitación propia, que no lo dejes en casa solo... y yo no puedo garantizar eso. En estos tres años no he tenido vacaciones y no puedo exigir hasta tener los documentos.

Barneko mugak gorpuztuta zituen berriemaile hori atxilotu egin zuten, adierazpen horiek egin eta handik gutxira; ez aireportuan, ez autobusean, baizik eta errepedean, lanera zihoala eta kanporatze-espeditatea ireki zioten.

Lurralde- eta geografia-mugek ezarri dituzten mugak politiko, irudizko eta sinboliko bihurtu dira gaur egun; eta askotariko kontrol- eta menderatze-mekanismoen bidez gorpuztu eta barneratu dira. Globalizazioak desegin egin ditu salgaiei jarritako mugak; orain, ordea, pertsonen, haien desireri eta haien proiektuei jartzen zaizkie mugak. Harresiak eraikitzen dituzte, oraindik ere, irudizko paradisuetara sartzen ez uzteko; ondasunak modu bidezkoan banatzea oztopatzen duten barneko mugak eraikitzen dituzte. Indarkeriazko markak dira, justiziaren mugak.

*Fátima C.:* Con la policía nunca he tenido nada, siempre hemos evitado salir por las noches ir a las discotecas, sí hemos ido de vez en cuando pero más a fiestas de amigos, a casas.

*Fátima:* No salgo mucho por temor a la policía, no vaya a ser que por andar en la calle me agarren y me quiten el pasaporte y tantas cosas que me vienen a la mente, por el hecho de ser inmigrante... las desventajas de perder mucho... Yo le tengo mucho temor a la policía, más que todo de noche y más vale prevenir. Por eso no me gusta salir más que todo de noche.

*Carla:* Había cámaras por todo la casa en donde estaba trabajando. Había en la cocina, en el garaje... en el cuarto donde yo dormía creo que no había, sería el único lugar. Yo no me había dado cuenta pero me lo dijo otra muchacha que trabajó allá, me fijé y claro, ahí estaban.

Kontrol-gizartea da, zelatatze mekanismoak, gure kaleetan dauden kamerak, gure erakundeetan, hipermerkatuetan eta era guztietako dendetan, etxe-sarreretan eta baita etxe barruetan ere. Etxeko lanetan, zeinetan konfiantza eta afektua harremanetarako zutabe izanik, horraino sartzen dira; eta pribatutasuna inbaditzen dute, beldurra gorpuztean sartzeko; banakotasunari egindako gurtza da, boterea bidegabeki daukanak erabilitako arma, bestea geldiarazteko, gutxitzeko. Somoza diktadurak beldurra gorpuztean sartuta utzi zuen herrialde batetik datoz pertsona horiek; kontrako ahots guztiak isilarazteko eta herria azpian hartzeko erabili zen beldur hori. Sentimendu hori uxatu egin zen errebeldia eta ausardia garai motz batean zehar (iraultza sandinista);

berriz, ordea, kontrol-mekanismo berdinarekin baitan sartu dituzte, orainoan itsasoz bestalde.

*Carol:* Te dejan una lista de actividades a realizar por escrito, como que no se fían de lo hablado, pero eso no, contrato por escrito no quieren, o no quieren empadronarte en su casa. La asesora de la Cruz Roja habló sobre esto con mi jefa y ahí sí me empadronaron.

*Magali:* En estos tres años trabajados no he tenido vacaciones porque como estaba sin papeles, me decían que no tenía derecho a vacaciones. Y eso me dijeron hasta ahora que regresé de mis vacaciones en Nicaragua y antes habíamos acordado que sí que serían pagadas mis vacaciones. Entonces me enojé. Estuve en la UGT para enterarme de mis derechos de empleada, porque no me reconocían o no me pagaban lo que me habían dicho de las pagas extras completas, ni de las vacaciones. De ahí les llamaron a la casa donde trabajo y les dijeron que tenían que reconocermis derechos. Yo a la vez le dije que me iba porque no habían cumplido con lo acordado y me quedé en mi casa, pero me llamaron y me dijeron que ya me iban a pagar y que regresara y volví.

Alde batetik, aitortzen da immigranteen beharra, lanari dagokionez; beste alde batetik, ordea, bizi-baldintzak zaildu egiten dizkiete, eta haiek beste pertsona guztien baldintza berdinetan lan egin dezaten eta bertakoen pareko egoeran bizi daitezten oztopatzen dute.

Lan-kontratu bat lortzeko lan-baimena izan behar da eta, horretarako, beharrezkoa da bizileku-baimena, batak bestea zailtzen edo ezinezko bihurtzen duenerako. Izan ere, bizileku-baimena lortzeko lan-kontratu bat aurkeztu behar da, eta/edo hainbat urtean lanean aritu direla frogatu behar dute, legez kanpo, noski.

Hori da ekonomia murgilduan lan egiteko, edo sistema honek nolabait suspertzen eta sustatzen duen egoera; pertsona multzo bat edukitzea beti hor nolabait irregulartasunean, pertsona horietaz baliatzeko eta oso funtzionala zaielako gaur egungo enpresaburuei eta sistema ekonomikoari (...); nolabait, linbo legal batean zaude, hau da, ez daukazu segurtasun legalik; eta, jendea paperak eskatzen ari denean, segurtasun juridikoa eskatzen ari da (Aierdi: 2011).<sup>90</sup>

Errotzeagatik bizileku-baimena lortu ondoren, urtebetera berritu egin behar da; ondoren, bi urtera; eta, azkenik, bizileku iraunkorrerako baimena iritsiko zaio etorkinari, baldin eta Espainiako estatuan bost urtean jarraian bizi izan bada, eta lan-kontratu bat indarrean badu. Horrek ez du esan nahi, oraindik, betirako izango denik; lanean ari dela frogatzen jarraitu beharko du, lan-kontratu baten bidez. Urteetan zehar luzatzen den segurtasunik gabeko egoera horrek larritasun handia eragiten du; haien bizitzako helburu garrantzitsuena izatera iristen da, eta eguneroko zereginean etengabe amore eman behar izaten dute botere-jardueren aurrean.

<sup>90</sup> Xabier Aierdi, "Ilargipean", Euskadi Irratia. 2011-05-19.

Nazionalitatea modu desberdinean eskatu ahal izango da, jatorriaren arabera. Latinoamerikarrek bi urtean segidan bizi ondoren eskatu ahal izango dute; afrikarrek, berriz, hamar urte beharko dituzte, bizileku mota bera izan arren.

### 5.3 Menderatze-estrategiak

Ezegokortasuna da Atzerritarren Legeak lortu nahi duen helburua, edo bai behintzat haren ondorioa. Ezegonkortasun horretara bultzatzen dute immigrantea, ez soilik boterearen estamentuek, baizik baita maila guztietan erabiltzen diren botere eta harreman horiek ere; Foucaultek (1975) esan zuen moduan, botere-estrategia horiek autopertzepzioa eta autonomia murrizteko erabiltzen dira, maneiatzeko eta menpean hartzeko helburuarekin, eta erraz manipula daitekeen beldurtutako langile-masa bat sortzen dute modu horretan. Errotzeagatiko bizileku-baimenera jotzen denean, horrek berekin darama urteetan zehar legea bortxatu izana, horrek berekin dakartzan umiliazioei aurre egin izana eta, beraz, herritartasun formal hori eskuratzea merezi izatea; modu informalean eskura dezake ordurako herritartasun hori, erabili baititu osasun-zerbitzuak, garraioa, kontsumoa, eremu publikoak eta gizarte-laguntzak ere, nahiz eta larderiazko tratua jasan behar izan.

*Carla:* A veces siento que te hacen a un lado porque no tienes unos documentos de aquí, mientras que otra gente se aprovecha de eso y no te pagan lo que deberían pagar a quien tenga papeles, no respetan tus horas libres, tu día libre, o los días festivos que si lo trabajás te tendrían que pagar el doble, pero no lo hacen, mucha gente no lo hace, conmigo se portan bien pero yo sé de otros casos que es así como te digo. Y muchas personas se callan porque no pueden reclamar por no tener papeles. El hecho de no poder pagar seguridad social no significa que te tengan que pagar menos, si al fin y al cabo uno hace el mismo trabajo que quienes tengan. Y si uno pudiera pagar seguridad social sin tener papeles... yo lo hubiera pagado. Pero no te dejan.

*Alejandro:* Algunos meses he cobrado algo de las prestaciones sociales, ya que al no tener contrato de trabajo y un horario laboral muy reducido la trabajadora social me gestionó, pero ahora al necesitar el contrato para gestionar la residencia ya lo he perdido.

*Ana:* Yo me siento contenta de estar aquí, pero me sentiría mejor si tuviera papeles, porque así viajaría, volvería y así no tendría problemas de movimiento. Con papeles se pueden tener más oportunidades para ir a otros trabajos que no solo sea de cuidar abuelos, quizás en una fábrica, en un bar, en un restaurante, en un hotel. A mí ya me ha salido algún trabajo así pero como no tengo papeles no me lo dan. Ese es el problema. No cotizamos a la seguridad social y eso no es bueno.

Albertok, bertako berriemaile batek, kontatu du beste kasu hau:

*Alberto:* Gure ama zaintzen duen boliviarrak emakumeak sei urte behar izan dituzte paperak lortzeko. Sei urte seme-alabak ikustera joaterik izan gabe, Skype bidez hitz eginez. Hori bai bidegabekeria! Lan eta lan, eta inork ez dio lan-kontraturik egin; eta horixe behar zuen dokumentazioa lortzeko. Beti adineko jendea zaintzen aritu dela dio, eta paperak izapidetzeko unea zen aldiro, adineko hori hil egiten omen zen, eta etxe hartatik alde egin behar. -“Berriz ere hasi egin behar, konfiantza hartzen duzu, estimua hartzen dizute... eta berriro kalean ikusten duzu zure burua paperak egin aurretik-”. Orain hunkituta dago; aste guztian ez duela lorik egin dio; izan ere, utzi zituenean baino sei urte gehiago dituzten seme-alabekin elkartuko da».

*Nelson:* Estuve en una granja de cerdos en Orcoyen unos 7 meses. Ahí hostigamos un poco al jefe para que nos hiciera un contrato y así acceder a los papeles, porque ya íbamos teniendo los tres años de estancia aquí y por arraigo uno puede tramitar. Pero a él le convenía más que estuviéramos sin papeles, por lo que no tenía que pagar la seguridad social, yo sé que es caro, pero hasta ahora yo no he podido cotizar. El dijo que no quería hacernos contrato, que había mucha gente sin papeles en la calle y que a él le salían mejor. Así es como nos sacó a otro muchacho boliviano y a mí, por lo demás estábamos bien allá.

Irregularitasuna bere baitan begietsitako legaltasunaren eraikuntza da; enpresaburuen klaseak onura gehiago lortzeko mekanismo gisa funtzionatzen du; hierarkiari eusten dio ekonomia kapitalista sostengatzen den gizarte-maila bakoitzean, eta eskura du eskulana, egoera ezegonkorrean. Immigranteak jabetzen dira legeek, enpresaburuek darabilten diskriminazioa errazteaz gainera, eratu eta zigortu egingo dituztela, beren desberdintasunezko egoera arautzen dutenean; eta bazterreko sektoreetara eta ia «behin-behineko egoera iraunkor» batera zokoratuko dituztela.

Hainbat gailuren bidez gorpuztu den beldurrak —hegoak bilduz, nor bera baitaratuz, bideak estutuz, ametsak kuzkurtuz...— beste botere-mekanismo baten moduan jarduten du. Beldur horren mugak agerian geratzen dira inposatutako eta autoinposatutako burdin-hesietatik eta kontrol eta autokontrol horietatik kanpora ateratzen denean, iritsierako —eta harrerakoa izatera iristen ez den— gizarte horretara egokitzeke. Hori da Silvioren hitzetan hauteman daitekeena:

*Silvio:* Cuando mirás aquí muchos desprecios te entra la nostalgia, mirás que estas rodando sin poder hacer nada. Mucha gente está guardando un rencor grande o se ha ido con ese rencor grande, que mucha gente de aquí no se da cuenta. Eso se va creando, se va acumulando y cuando pasa un determinado tiempo unos 30, 40 años, va a haber un porcentaje de gente que le va a tener un rencor grande, desprecio. Porque no es lo mismo un latino que regrese a su país y lo hayan despreciado. Si un español llega allá esa persona que estuvo aquí lo va a despreciar porque se va a acordar de lo que le hicieron sentir aquí. Me parece a mí que así es. Te digo porque a mí me han comentado muchos. Ves

injusticias, la mayoría de las veces te callas, pero son cosas que se van acumulando. Cuando regresé a mi país después de 12 años yo me sentía uno más de ellos, con poder, no me sentía que era de Europa, sino como puro nicaragüense, sentías que podías reclamar tus derechos. Aquí no tenemos derecho a nada. Pero al fin y al cabo ves que allá no hacés nada, que todo lo tenés aquí y si te quedás te regresás a lo que había antes. Entonces es aquí donde medio medio puedes sobrevivir.

Prestigio gutxiagoko edo gehiagoko lan-jardueretarako eskulan selektiboa eskatzen duen lan-merkatu oso segmentatu baten aurrean gaude. Ekonomia-krisiak eragindako aurkako egoera horretan, etorkineei lan-baldintza hondatutakoek eragiten diete; izan ere, atzeritartasunak bereiziki zaugarri bihurtzen ditu, eta egoera hori areagotu egiten da haien egoeraren irregulartasun izaera eransten denean. Ingurune horretan gauzatzen dira, beraz, modurik sendoenean, diskriminaziozko jarduerak.

*Mercedes:* A través de otra amiga, Tere, me salió trabajo con una familia del Opus Dei. Ahí estuve tres meses, era una familia muy acomodada, de muy buenos principios religiosos, pero de nada servían sus principios y su religión, porque fue una familia que me trató muy mal. Era un chalet de cuatro pisos, seis niños, con un bebé de 7 meses. Un día pregunté cuando era mi hora de descanso y me dijeron que no había hora de descanso y dejé este trabajo porque no era un trato digno. Eran muy exigentes. Conocían mucho de dios, pero no eran buenos. Eran muy preparados, él era ingeniero de Iberdrola y ella médica de la clínica universitaria. Me fui sintiendo muy mal. Era una explotación, se puede decir. Eran las once o doce de la noche y yo todavía en pie. Renuncié después de una discusión con la señora. Con las personas más preparadas, con las personas más instruidas, que han estado más cerca de dios, son las personas que más mal me han tratado. Y las personas de menos nivel me han tratado muy bien. Los abuelos de Esquíroz, que eran de pueblo, que eran humildes, que no tenían mucho dinero, me acogieron, me dieron lo que pudieron y me trataron muy bien.

Esplotazioaz hitz egin dezakegu, aldeetako batek soil-soilik bere interes partikularrei begiratzen dienean, eta beste aldean zapaltzen duen harreman bat mantentzen duenean. Pertsona esplotatua erabilgarria da esplotatzailearentzat, harentzat lan egiten baitu eta, beraz, esplotatzaileak onura ateratzen du horretatik; bikote bat osatzen dute, desorekatua eta ekaiztsua bada ere. Horregatik, Mercedesek, beste zerbait aurkitu orduko, ihes egin du. Baina historia errepikatu egiten da; urtebete geroago, bizileku-baimena izapidetzeko denbora gutxi falta zitzaionean, eta horretarako beharrezko zuen lan-kontratua egingo ziotela agindu ondoren, bazter utzi zuten bere lana, gizarte-segurantza ordaindu nahi ez izategatik.

Etorkinen aurrean jarrera ezberdinak dituzten tipologiak aurkituko ditugu; hori aldagai askoren baitan dago: ideologia, nagusikeria, esperientzia, tolerantzia, etnozentrismoa, ontasuna, umiltasuna, elkartasuna, edo bakoitzaren kultura-eskarmenuen baitan diren beste balio batzuk. Ez dugu ikerketa oso zehatzik Nafarroan



joera politikoaren eta jarrera xenofoboen arteko harremana zein den azaltzeko; baina beste leku batzuetan egindako ikerketek erakusten digute, oro har, ezkeraren aldeko agertzen diren pertsonak arretatsuagoak direla immigranteekiko (Sabatier eta Berry, 1996, *in* Bourhis eta Leyens, 1996: 234).

*Lenin:* Luego de los navarros ese afán, ese egoísmo tan grande que tienen, de que si pueden explotarte te explotan, no por experiencia propia sino por otra gente que conozco, por ejemplo alguien tiene una huerta y quiere ir a recoger almendra u otros productos, contrata inmigrantes, se aprovecha de que no tengan papeles, hay una seria explotación sobre todo en la Rivera, son unos caínes, malos, malos, malos, oportunistas, explotadores y no es que sean ricachones.

*Mercedes:* Yo no he negociado antes de entrar las condiciones porque tenía temor, sobre todo por la experiencia de mi anterior trabajo, que me quedé un poco encogida. Me da temor. Un día el abuelo me dijo: -Mira Mercedes, mira lo que sale en el diario, que hay trabajadoras a montones, que hay filas ¿has visto? – Ah sí don Antonio, yo sí he visto ¿usted hasta ahora se da cuenta? Ahí estaba yo en esa fila. En otras palabras me estaba diciendo: -Si no te acomodas al trabajo, hay más, hay una fila esperando-. Mariate, una amiga de aquí, siempre me dice: -Tú tienes que hacerte valer en tus derechos-. Yo le digo: -Sí claro, usted dice eso porque usted es de aquí, pero yo no puedo. Tal vez puedo pero no me siento con esa fuerza, con ese valor. Porque ya tuve la experiencia de por haber dicho algo, prácticamente me echaron. Entonces ahora me da miedo hablar.

Otzantasuna da langile etorkinengan gehien estimatzen den ezaugarrietako bat. Horretan laguntzen dute haien lan-behar larriak eta egoera administratiboak dakarkien zaugarritasunak. Paperik gabeko egoeran den bati egin dakiokeen onik preziatuena da paperak eskatu ahal izateko kontratu bat sinatzea. Baina menpekotasun-itxaropenen eskaeraren aurrean oldartzen direnak eta eskatzeko jarrera hartzen dutenak kaleratu egiten dituzte, «zuhurtzirik eza»gatik. Beren egoera administratiboa dela eta, enplegatzaileek badakite etorkinek ezin dutela inolako presiorik egin.

*Carol:* No denuncias porque es tu palabra contra la suya y ellos tienen más poder, a ti no te van a hacer caso y por ir a la policía puedes tener más problemas al estar sin papeles.

Beldurrak zaildu egiten die emakume langileei beren eskubideen bortxaketak salatzea, eta, ondorioz, betikotu egiten dira jarduera horiek. Testuinguru defizitario batean, lan ezegonkor eta behin-behinekoen bidez bizirauten dute, eta horrek ere zaildu egiten die eremu horretako gizarte-zerbitzuak eskuratzea; horrela osatuko dira gizarteratzeko eskaintzen zaizkien aukerak edo ezintasunak. Egungo lan-merkatu ez oso dinamiko horretan lan-mundua gutxi kualifikatutako lanpostuetara mugatzen da; eta horietan, kontratatzen dutenen edo lan-indarra eskatzen dutenen borondate onaren edo ez hain onaren baitako baldintzak onartu behar izaten dituzte.

Gurasoek seme-alaben heziketan aktiboki esku-hartzea ikusten da mundu akademikoan arrakasta izateko faktore nagusietarikotzat. Gurasoek irakasleekin duten harremanak lankidetzeta eta elkar-ulertze handia eskatzen du. Hori dela eta, beharrezkoa da bi edo hiru aldean artean komunikazio arina egotea (irakasleak-ikasleak-gurasoak). Irakasleak ez baldin badaude egoki prestatuta kultura-aniztasuna kudeatzeko, heziketalanaz gainera, beste zailtasun batzuk ere izango dituzte; elkarrizketaren bidez konpondu ahal izango dituzte oztopo horiek. Eskolan, neska-mutikoek hainbat balio jasoko dituzte, eta balio horiek, zenbaitetan, talka egingo dute etxekoekin. Balio eta sinesmen horiek sakonean errotutakoak dira, identitatea osatzen dute, eta eguneroko harremanean *besteekin aurrez aurre* ipiniko dira.

*Ruth:* Una vez Yarol, mi hijo con 9 años, al poco de llegar, se puso a llorar que no quería ir a la escuela y me contó que la profesora le había pegado con el libro en la cara. Nosotros nunca les hemos pegado y el estaba bien resentido. Entonces yo fui a quejarme a la directora. Ella me dijo que no había que creerles todo a los niños. Yo le dije que yo conocía a mi hijo y si venía a quejarme era porque sabía que era verdad. Luego fui a hablar con la profesora, le dije que lo castigara, que me dijera si en algo había faltado pero que no tenía porque pegarle. Ella me dijo: -No sé de qué te alarmas, porque aquí hay muchos extranjeros que llevan marcada la espalda de los golpes que les pegan con el cinturón. –Yo le contesté que serían otros pero que el mío no, que le revisara si quería delante de mí y que ya vería que era cierto lo que le decía. La mujer se disculpó. Yo sé que muchos van sin desayunar y dañados física y psicológicamente pero eso no le da derecho a ella que se aproveche. Nunca más se ha repetido, no hemos vuelto a tener ningún problema más. Yo le dije que éramos extranjeros y que habíamos venido aquí a trabajar pero no a aguantar malos tratos.

Gure eskoletan aurretik ere bazen aniztasuna; baina, gaur egun, mundua eskolara datorkigula sentitu dugu bat-batean.

Gurasoek parte hartu behar dute eskolako jardueretan, eta seme-alaben hezitzailekidetzat hartu behar dituzte; eskola, berriz, gizartearekin elkartzen dituen zubi bat izan daiteke, bertan osagarriak izango dira kultura-integrazioa, ekonomia-integrazioa eta gizarte-integrazioa. Integrazioa, ordea, ez da soilik eskolaren esku utzi behar; guztien ardua izan behar du: immigranteena eta bertakoena.

Marko teorikoan aipatu den gisara, Foucaulten teoriak botere-harremanak eta botere-jarduerak aztertzeraz eraman gaituzte; norabide bakarreko boterea da hori, hierarkian sostengatzen dena, eta estrategia bat da helburu batzuk lortzeko.

*Sergio:* Carla, mi esposa estaba en Málaga. Cuando llegué al aeropuerto ni un alma esperándome. Le llamo a Carla, que estaba interna y resulta que la jefa no le había dado permiso para que fuera a buscarme. No la pude ver hasta el fin de semana, y estando ahí mismo, en la misma ciudad, después de tantos meses sin vernos.

Nortasun-agirietan ere hierarkizazio bat gertatzen da, eta gizarte-hierarkizazio nazionalaren eta nazioartekoaren isla da aldi berean. Bizileku-txartelak lortzeak eskubide eta aukera desberdinak ematen dituzte. Eskala horretan, gaur egun herritartasunari edo herritar eskubideei loturik den nazionalitatea dugu. Baina nazionalitate desberdinek ere herrialde batzuek eta besteek nazioartean duten pisua adierazten digute.

*Lenin:* Yo voy todos los años a Nicaragua con M<sup>a</sup> Luisa, mi esposa. Nosotros nos quedábamos siempre en Costa Rica a visitar a mi hermano. Pero cuando llegabas al aeropuerto siempre había problemas, porque cuando gana la Violeta en Nicaragua, no sé lo que pasó que emigró mucha gente a Costa Rica, y estos comenzaron a poner muchas pegas para la entrada. Yo no me había planteado lo de la nacionalidad de aquí, pero entonces decidí que mejor sacaba la nacionalidad española. Metí la solicitud y así ya no tuve problemas de aeropuerto, porque el pasaporte español vale más que el mío en mi propio país.

Gaur egungo lan-merkatuaren logikak subjektu kontsumitzaileak sortzen ditu. Denbora ez ezik, beste guztia eros daitekeela dirudi: laguntza emozionala eta psikologikoa, sexua, babesa, eguneroko beharretarako arreta, aisialdia, komunikazioa eta beste.

Panoptikoa gizarte ekoizleari aplikatu zitzaion eta aplikatzen zaio, zelaketaren bitartez, gorputz diziplinatuak sortuz; sinoptikoaren bidez, berriz, kontsumo-gizartea garatu nahi da. Kontrol-gailu horrek, zeinetan gutxi batzuek zuzendutako espektakulu bat aurkezten baitiete banakotutako masei, kontsumoa sustatzea eta berehalako plazerra eskaintzea du helburu. Modu horretan, diziplina gogorra jasan behar izan dutenek alde egiteko aukera ikusiko dute, ahalegin handi baten ordaina jasotzeko aukera, kontsumoak eskaintzen duen berehalako plazerraren besoetan.

*Mirentxu:*<sup>91</sup> Nosotros que estábamos luchando contra el consumismo, resulta que ahora en el Corte Inglés te encuentras a una gran cantidad de latinos y latinas que buscan las mejores marcas de todo.

Boterearen makineria, beste behin ere gorputzaren gain jarduten duen makineria. Moda eta itxura erabiltzen dituzte hainbat eta hainbat frustrazio eta zailtasun ezkutatzeko; eta gainerakoen aurrean berdin gisa agertzeko, desberdintasunei aurre eginez, eta pobreziagatik, injustiziagatik eta diskriminazioagatik galdutako duintasuna berreskuratu nahian. Seinale hori mehatxu lehiakor eta desleialtzat hautematen du bertako biztanleriak. Baina immigranteak Corte Inglés-ean ikusten dituen adiskide horrek ez daki Caritaseko, Gurutze Gorriko eta Emausko Piltzarkerietan jasotako arropa jantzen dutenik edo Corte Ingleseko poltsetan eramaten dutenik. Ez daki, ez baita leku horietara joaten.

---

<sup>91</sup> Bertako berriemailea.

*Santiago:*<sup>92</sup> Ahora te encuentras con los albañiles y los peones de obra que visten igual o mejor que tu, que visten de marca. En la calle, en los bares, no los puedes distinguir.

Klaseen gizarteak nostalgiaz begiraten dio bere pribilegioak galtzeari, hori itxurako maila batean soilik izan arren. Desberdintasuna naturalizat onartzeari uko egiten diotenekin lehiatu beharra minez eta antsietatez bizi dute. Kontsumitzaile horiek, dirudunen klaseak bezala ikusarazi egin nahi dute beren burua, antolatutako espektakulu batean aritu, botere-harremanak barneratuz, bere eginez, eta boterea erabiliz bakoitzari onartzen dioten eremuan. Kontrol-gizarte da, non batzuk besteak kontrolatzen saiatzen diren; non norbait izateko, ikusiak izatea garrantzizkoa den; non plazerra, itxura horretan datzan.

Autoestimuantzat oso garrantzitsu bilakatzen da bestearen begiradari —eta, bereziki, itxurak, janzkeraren ñabardura batek edo gorpuzkerak sortutako kategoria moral bat ezartzen dion aurreiritziari— erakusten zaion itxura hori agertzea. Gizartalde batean egon ahal izateko, beharrezko dira arropen, kosmetikoetan, aparatuetan edo jarduera fisikoetan eragiten duten modaren aldaketak. Bestea, daukan horregatik balioesten da, erakusten duen horregatik; azaleko hori goraiatuz.

*Fernando:*<sup>93</sup> Las latinas es que se destapan tan fácil... Ayer con el frío que hacía una chavala iba con minifalda y un escote terrible, mostrando parte de sus pechos. Yo le llamé la atención y le dije que así no puede ir a clase.

Zergatik egin zuen hori galdetu nion, eta mutilek ez diotela begirik kentzen erantzun zidan. Mutilei errieta egiteko orduan esan nion, eta haiek hezteko. Ez direla harrizkoak erantzun zidan, eta are gutxiago adin horretan. Foucault etorri zait burura:

Lantokian, eskolan, armadan, benetako mikro-oinaze bat nagusitzen da, denborari (atzerapenak, absentziak, zeregina etetea), jarduerari (arreta falta, ohartasun falta, ardura falta), izateko moduari (adeitasunik eza, desobedientzia), gorputzari (jarrera «desegokiak», keinu lotsagabeak, zikinkeria) eta sexualitateari dagokionez (zuhurtasunik eza, lizunkeria). Zigor gisa erabiltzen da, baita ere, prozedura zorrotz multzo bat: zigor fisiko arina, gabetze txikiak eta umiliazio arinak (Foucault, 1976: 2294).

Eta pentsatu dut: batzuk gehiegi estaltzen direlako (musulmanak), beste batzuek gehiegi erakusten dutelako, baina araua beti gurea da, neurria beti gurea. Horri asimilazio-politika deritzo. Komunitate bat edo pertsona bat beste batek «asimilatzen» du, haren berezitasunei uko egiten dienean; «integratu» egiten da, berezitasun horiei eusten dienean, baina hartzen duen komunitatearen berezitasunak ere onartzen dituen; eta «bereizi» egiten dute, bi komunitateetako inork, ez migratzaileak ez hartzaileak, ez dituztenean beren kultura-berezitasunak gordetzen, eta nahitaez areagotzen doan

<sup>92</sup> Arkitektoa.

<sup>93</sup> Iruñeko institutu bateko zuzendaria. 2011ko otsaila.

elkarrenganako mesfidantza agertzen dutenean. Ez dut zalantzan jartzen Fernandoren borondate ona eta elkarrizterako duen gaitasuna; baina, edonola ere, inposatu egiten dio kanpotik datorrenari, emakumeari, gizonen begiradarengatik. Hezkuntza-sistema horrek ikasleak homogeen bihurtu nahi ditu diziplinaren bidez, gorputzen bidez; sistema asimilatzailea izaten jarraitzen du, berdintasun kontzeptuarekin estalita bada ere.

*Rosana:* Oso matxistak dira, eboluzionatu gabe daude. Gu duela 50 urte bezala eta, ikasi egin behar dute, aldatu egin behar dute.<sup>94</sup>

Kultura guztiak zentzu berean garatzen diren edo garatu beharra duten ideia dago txertatuta adierazpen horretan; eta baita eraldatzeko beharra, eta iritsierako gizartearen balioak barneratu beharra ere, ahalik eta azkarren. Era berean, etxean guztia hobea dela uste da, Mendebaldeko eredia dela jarraitu beharrekoa, gutxiagotzat eta atzeratutzat hartutako kultura horren kaltetan. Honela adierazten du Dolores Julianok:

Aukera pertsonalei eta sexualitateari dagokionez, garai eta gizarte (Mendebaldeko) bereziki tolerantan bizi garen uste orokortu bat badago; eta, ondorioz, haren baitan adierazten diren aurreiritziak, zenbaitetan biolentziazkoak, garai zapaltzaileagoetatik bizirik iraundakoak edo banakoen patologien adierazpenak direla pentsatzera jotzen da (Juliano, 2006: 11).

#### **5.4 Immigrazioaren funtzio ekonomikoa: demokraziaren erabilerak eta erabilerarik ezak**

Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik 2007. urtera arte, Mendebaldeko biztanleek (eta, bereziki, Espainiako estatuko biztanle gehienek) «oparotasun» amets atsegin batez gozatu zuten. Benetakoa eta amaiezina zirudien ametsa zen. Bankuek inoiz ez bezain erraz mailegatu zieten dirua biztanleei. Kontsumoa modu ikusgarrian hazi zen. Bigarren etxebizitza, auto berriak, etxetik urruneko oporraldiak edo etxeko kontsumoa ziren «garapen»aren eta «oparotasun»aren termometro. Immigrante iritsi berriek erraz topatzen zuten lana; bertako biztanleek baino soldata baxuagoak zituzten, paperik gabe eta esplotazio-baldintzetan zeudelako; baina zoriotsu, krisiaz hitzegiten hasi aurretik, aspalditik horrelako egoeran zeuden jatorriko herrialdeetatik emandako jauzia zela eta. Gogor lan egiteko prest zeuden, beren gaztetasunagatik eta beren familiakoei dirua bidaltzeagatik. Inor ez zen jabetzen, testuinguru neoliberalaren barnean, ekonomia-egituraren mailarik baxuenekoak zirela.

*Lenin:* Yo sé de un pueblo de Huelva que era de lo más normal y cuando empezó a llegar gente a la cosecha de la fresa de repente ha crecido en la economía, han construido en pocos años unos palacetes... y supuestamente los sin papeles no pueden trabajar, pero eso está lleno de indocumentados, el gobierno sabe que esa gente está trabajando y enriqueciendo a unos pocos, pero

<sup>94</sup> Lehen Hezkuntzako irakaslea. 2011ko ekaina.

ellos lo tapan para que se aprovechen de toda esta gente, de mano de obra barata. Para empezar les llaman ilegales. Yo no considero que una persona sea ilegal por no tener papeles. Podrá estar con documentación o sin documentación de ese lugar pero para mí nadie es ilegal. Inventan la ilegalidad para aprovecharse de esa gente. En Sanfermines andaba la policía detrás de los globeros, de los que vendían globos, quitándoles los materiales, metiéndolos en las furgonetas, y regalándoles a los críos que iban pasando, y son gente que andan ganándose la vida de esa manera. No pueden trabajar. Si les siguen bloqueando y no pueden trabajar y luego hablan de integración. La ley dice que tienen que estar tres años para que regularicen sus papeles pero en esos tres años ¿qué haces? No pueden impedirles trabajar dignamente. Ellos saben que están aquí. Pero les interesa más que anden trabajando a escondidas porque están mal pagados, están enriqueciendo la economía del país, han enriquecido todos estos años, y la gente se queda sin protección de seguridad social, sin cotizar para poder cobrar desempleo o jubilación, sin derecho a nada. Ganando salarios que no son dignos.

Ohiko ezaugarria da ezarrirako «ordena» pasiboki onartzea. Legez kanpoko egoeran daudenek normaltasunez onartzen dute gizarte-segurantzarik ez izatea, horretan hutsune handiak dituzten herrialdeetatik baitatoz; eta legezko egoeran daudenek ere kexarik gabe onartzen dute legeriak diskriminatzea, eta herritartasun oso bat eskuratzerik ez izatea. Modu horretan, nekez hitz egin liteke integrazioaz.

Lanbide askotan zaurgarritasuna da errepikatzen den ezaugarria; eta, hala aukeratuta edo beste aukerarik ez dutelako, bizibidea ateratzeko kalez kale saltzera jotzen duten horiek daude bazterketaren ertzetan. Landabengo merkatu txikian, *manteroek* (top manta) edo CD saltzaileek desagertu egin behar izan dute, jendearen zalapartak babesten zituzten arren, poliziak egindako presioarengatik. Gutxi batzuk saiatuko dira trukerako espazio txikiei eusten, tabernaz taberna ibiliz; eta beste batzuek Iruñeko San Ferminetara edo beste herri batzuetako jaietara joko dute, horietan saihestu baitezakete oraindik «ordena»ren polizia-agenteen jazarpena.



## 5.5 Generoa eta zaintzak, emakumeen eskualdatzea

Zaintzak, denboran zehar, emakumeen ardura izan dira, etxekoandreena, edo beste etxe batzuetako emakumeena, beste klase batzuetakoena; eta, gaur egun, beste herrialde batzuetako emakumeen ardura dira. Zaintza horiek ez dira lantzat hartzen, baina, haiek gabe, munduak ez luke funtzionatuko. Bizitza zaintzen dute, heriotza, umorea eta umore txarra, ongizatea. *Besteen* menpe dauden emakumeak dira eta, hierarkian *beste* horiek baino beherago daudenak, generoagatik, klaseagatik eta etniagatik. «Hori guztia gertatzen da, nagusi den gizarte-antolaketan zaintzea gutxiago izatea delako» (Lagarde, 2003: 3). Ezikusiak dira, gutxietsiak; eta beren denbora guztia eskaini behar izaten diete nagusitasuna sustatzen dutenei.

*Zaintzea*, gaur egun, aditzik beharrezkoena da neoliberalismo patriarkalaren eta globalizazio bidegabearen aurrean. Egungo gizarteek, ordea, iraganeko askok bezala, zaintza zatitu egiten dute, eta berezkotzat hartzera bultzatzen dute, zenbait gizarte-antolabideren bitartez: generoa, klasea, etnia, nazioa eta eskualdea/tokikoa (Lagarde, 2003: 1).

Etxea da, oraindik ere, ordaindu gabeko lanaren bidez, zaintza-beharrak gauzatzen diren leku nagusia; baina zaintzak merkaturatzea eta antzeko fenomenoak identifikatzeak ez du esan nahi zaintza horiek gizarte-erreproduktzioarako ardatz nagusi gisa duten funtzioa galdu dutenik. Laguntza mota intentsibo hori ematen duten zaintzaile gehienak emakumeak dira gaur egun ere, eta zaintzen duten pertsonaren etxe berean bizi dira, familia berekoak edo familiarik kanpokoak izan arren.

*Fátima*: En esta casa cuido de un señor mayor que es grosero, de mal humor, que fue militar, estuvo de militar en Marruecos y se casó con una de allá, que fue profesora de universidad aquí en Pamplona hasta jubilarse, ella tiene 70 años y el marido 84, es un cascarrabias, no le gusta que le lleven la contraria. Su señora dice que nunca hay que contradecirle, que siempre hay que decirle que sí a todo aunque no nos guste, porque si no se pone odioso. Estoy bien por una parte pero sufro cantidad, me callo y me callo y aguanto por mis hijos, pero todas las noches lloro y lloro. Por una parte estoy bien porque tengo trabajo pero cuesta. Yo le pido a dios que me de paciencia, pero ganas me dan de salir corriendo por el carácter que tiene el viejito, es pésimo. ¡Pero ni modo! ¿Qué le queda a uno? Hay que seguir luchando. Ella es bastante buena, digo yo, pero es muy desconfiada. El salario es poco, lo considero yo, porque estoy 22 horas, seis días a la semana, solo salgo el fin de semana y un par de horas al día. Me pagan 800 euros. Para mí es muy poco.

*Juanita*: Trabajo en Allo, cerca de Estella, interna, cuidando a un viejito que vive solo. Llevo ya más de dos años con él. El es buena gente, tranquilo, respetuoso. A la gente le dice que le ha tocado la lotería conmigo, que está muy contento, se apellida Sarasola. Pero su hija, que es la que se preocupa por él es

pinche<sup>95</sup> y mala. Siempre le está racaneando la comida, diciéndole que gasta mucho, que ya no le ajusta con trescientos euros al mes, que cómo anda comprando melón si está carísimo, y así diciendo para que yo le oiga y tenga cuidado con lo que yo como también. Empecé hace un año con molestias en los ovarios, me dieron cita para el hospital pero no pude ir porque la hija del señor me dijo que no podía dejarle a su padre solo y que ella no podía quedarse. Pero con el tiempo voy teniendo más dolor y he vuelto al médico buscando esta vez quien se quedara con él un rato. En el hospital me dijeron porqué no había acudido cuando me citaron la otra vez y yo les conté que mi jefa se negó a darme permiso. Resulta que ella es enfermera y trabaja en ese hospital, el médico habló con ella y entonces ella vino a regañarme que porqué yo ando diciendo al médico que trabajo con su padre, y así un poco de cosas. La cosa es que me dicen que tengo un quiste de 12 cm, que yo ya notaba el bulto y que me tienen que operar dentro de dos semanas. Y con esto la jefa me hace otro problema.

Gaur egun asko hitz egiten da eskubideez, baina non dira zaintzaile horien eskubideak? Hain zuzen, errespetuz hartuak izateko eskubidea, gehiegikerien edo gehiegizko eskaera desegokien aurrean «ez esateko» eskubidea. Erdiesklabotasunera urbiltzen diren lan-baldintza ezegonkorak dira. Oinarrizko baldintzak urratzen dituzten egoerak. Legeek eta atzerriko administrazio-jarduerak, genero-gaiekiko sentiberatasun urria dutenek, eragin dute eta «antolatu» (edo desantolatu) dute emakume migratzaileen lan-ibilbidea eta haien familia-bizitza eta bizitza pertsonala; zaugarritasun goreneko egoeretan kokatu dituzte, zuzenki diskriminatzailetzat har daitezkeen neurriak aplikatzearen ondorioz. Etxeko langileek oinarrizko lan-eskubideak eta gizarte-babesa eskuratzea eragozten dieten legezko oztopo-sare bati egiten diote aurre. Legezko oztopo horiek ezegonkortasun larriko egoerak sortzeko elkar indartzen duten bi arau elkarrekin aplikatzearen ondorio dira: Atzerritarren Legea, eta etxeko langileen lan-harremana arautzen duen araudia. 1424/85 Errege Dekretuak Erregimen Berezi bat ezarri du etxeko enpleguarentzat; erregimen hori Erregimen Orokorraren oso azpitik geratzen da, eta horrek desberdintasun izugarria eragiten du langileen artean. Modu horretan, etxeko enpleguak zaintza-lanen gutxiespena eta ikusezintasuna adierazten du; ez du gizarte-eskubiderik sortzen, eta ez du negoziazio kolektiborako mekanismorik ere. Kultura-asimilazioa lortu nahi duen gizarte hau, ordea, ez da agertzen eskubideak asimilatzearen alde.

*Carla:* Era mi primer trabajo, estaba interna y no salía más que el domingo. Pasó que a mí se me había caído la calza de un diente, y le dije a ella que tenía que ir al dentista porque el fin de semana estaba todo cerrado, nadie atendía, lo mismo primero me dijo que sí pero pasaron 15 días y nada, y yo estaba con mucho dolor y ella no quiso dejarme. Entonces yo dije pues me voy, me agarro el día y si me quiere correr que me corra. El señor se molestó mucho, me llamó y me dijo de todo. Me dijo que quien se encargaba de correr era él y que me corría, y segundo que el que se encargaba de echarme del país era él, me trató de lo peor, con unas

---

<sup>95</sup> xuhurra.



palabrotas bien feas, me dolió, no le contesté, solo le dije la verdad y así me quedé sin trabajo. Además el me estuvo pagando una miseria comparando con lo que ganaban otras en otras casas. Y era mucho el trabajo que yo tenía y él lo sabía muy bien.

Oinarrizkoa da gizarte-sareen, adiskideen eta egoera horietan laguntza bilatzearen garrantzia, ez ikaratzeko, zailtasunei aurre egiteko eta guztia ez dela onargarria erakusteko. Garrantzitsua da emakumeen arteko elkartasuna ere, hainbeste gutxiespeni aurre egiteko.

*Fátima:* Tengo amistad con la de la de la panadería, me pregunta cómo se portan en el trabajo y le cuento. Ahí me descargo un poco, ella me dice: -No aguantes, no estamos para aguantar- pero yo le digo que así es pero que somos emigrantes y que no nos queda de otra que aguantar. -Yo chica-, me dice, -te digo que no hay que aguantar, porque todos somos seres humanos y todos tenemos que ser tratados por igual. El hecho de que seas un inmigrante no quiere decir que te vayan a tratar mal. No, no, no, no, no te dejes montar- dice. Yo ya le he dicho a mi jefa que nos tenemos que respetar, que nos necesitamos mutuamente, ella de mí y yo de su dinero.

*Margarita:* Estoy trabajando en Larraga, con un matrimonio mayor, ella está con alzheimer. Ayer me insultó en la calle, me dijo que era una ladrona y una cabrona. Lo que hay que aguantar por conseguir unos euros, pero para eso estamos aquí.

*Carla:* Luego tuvimos otra muy mala experiencia. Estábamos juntos mi esposo y yo. Ahí eran 6 niños, todos eran tiernitos, estábamos en una finca muy aislados, por Sorauren, no podíamos salir más que cuando nos sacaban a hacer la compra, porque nosotros teníamos casa aparte en la finca y teníamos que pagar nuestra comida y los gastos de la casa. Yo ya tenía un poco de experiencia y fui con más precaución, no era como la primera vez que yo me confíe tanto, yo ya tenía miedo de cómo hacer las cosas. De inicio yo no le agradé a la señora, yo le vi en su semblante, que nada, pero con él muy bien, desde el primer momento fue agradable, También nos pagaban 650 euros a cada uno. Pero yo hacía de todo. Mi relación con ella fue pésima, la de Sergio con él fue mejor. No le agradé a ella, no todos somos moneditas de oro para agradarle a todo el mundo. Salimos muy mal de esa casa, fue muy estresante. Ellos también tenían una vida muy estresante, corrían para todos los lados. Ella era muy prepotente y muy odiosa. Pensaba que se merecía todo y no es así. Me gritaba muchas veces sin embargo yo nunca le falté al respeto. Yo creo que en esa casa también había cámaras, sí había cámaras. Porque ahora sí las puedo identificar. A mí me daba igual eso. Yo hacía lo que tenía que hacer. Pero son muy desconfiados y no sé porqué. Yo también tengo ahora más desconfianza hacia las personas. Yo me he llevado decepciones cuando me acerco a la gente y eso me afecta mucho, (le brotan las lágrimas cuando lo cuenta). Estuvimos unos seis meses. Nosotros salimos de ahí

afectados, afectados del estómago. Me tardé unos tres meses en volver a trabajar, porque me fresqueé un poco, ya que estaba cansada y muy dolida, pensaba que todas las personas eran así, me hice un mal-mal concepto de los españoles, pero como decidí seguir quedándome aquí tenía que enfrentarme de nuevo y trabajar.

Emakume horrek, geroztik, ugaltze-aparatuko minbizi-ebakuntza bati aurre egin behar izan dio; hala ere, ospitalean egondako egun horiek salbu, ez dio utzi lan egiteari, paperik gabe dagoenez ez baitu inolako lan-eskubiderik. Betebeharrak bai, eskubiderik ez; horiek dira nagusi den herritartasun horren ondorioak.

Gizon batzuek inoiz ez zuten usteko beren jatorriko herrialdean etxez etxe adinekoen zaintza-lanetan aritu beharko zutenik; onartu egin dute ordea, bertako biztanleek —prestigiorik gabeko lanak direlako, edo horren erantzukizuna familiak eta batez ere emakumeak hartu behar duela uste izan dutelako— errefusatutako lan horiek egitea. Onartu egin dute zaintza-lan horiek egitea, gizonezkoen lan gisa ikusi direnak (esate baterako, eraikuntza) urritu diren eta beharra estu hartu den garaiotan, nahiz eta lehen beren asmo eta helburuetatik urrun egon horrelakorik.

*Alejandro:* Yo a gusto me iría a trabajar interno, pero a los hombres no nos quieren así. Cuido de dos viejitos, pero por horas, sobre todo para levantarlo de la cama, sacarlo a pasear y moverlo, porque hace falta fuerza para eso y en eso estamos mejor los hombres.

*Yoka:* Me quedé haciéndole las vacaciones a Alejandro con los dos viejitos. Los primeros días los sentía difíciles, como nunca había hecho eso, lo sentía difícil, pero después ya me asocié a la causa y ya parece que marchaba todo bien. Los dos se portaron super bien, yo también con ellos. Los sacaba a pasear, los llevaba a misa, así. Luego me fui a cuidar a otro señor al hospital. Dice que había sido jugador del Osasuna, Pello Egaña. Cuatro meses estuve con él en el hospital, de 7 de la mañana hasta las cinco de la tarde. De domingo a domingo. Estaba paralizado, apenas abría los ojos. (...) Luego estuve haciéndole las vacaciones a Manfredo, cuidando dos señores también. Uno que se llama Jesús Ibáñez, que fue alcalde de Cordovilla. Después le hice las vacaciones a Leonel, cuidando a otro señor en la clínica San Miguel, luego en San Juan de Dios.

Gizonezko hauek ez dute izan zailtasun handirik jarduera horietara egokitzeko, eta ondo sentitzen dira. Premiazko beharrak eraginda eskura etorritakoa onartzeko prest diren etorkinek lan hori onartzeko urratsa egin dute, nahiz eta alde handia dagoen emakume kideek egiten duten lanarekin alderatuta. Gizonak menpekotasun-egoeran dauden beste gizon batzuei laguntzera mugatzen dira, betiere adinekoekin aritzeko behar den baldintza fisiko positiboa dutelako (indarra) eta haiek zaintzeko hainbeste samurtasun ez dela behar jotzen delako; emakumeek, ordea, etxeko lan guztien erantzukizuna hartzen dute aldi berean, eta hala eskatzen zaie ere.

Biztanle horiek, beraz, gizarte-maila baxuko lan-zokoak betetzen dituzte, kategoriatan banatzen den lan-merkatuaren hutsuneak. Beste herrialde batetik iritsitako

maila baxuagokoari dagokio, gaur egun, horiek onartzea; ez dute, beraz, bertako biztanleekin lehiatzen, eta ez da horretatik gatazkarik sortzen; alderantziz, familien barnean gerta litezkeen gatazkak saihesten dituzte, menpekotasuna duten pertsonen zaintzaren erantzukizuna bi sexuen artean banatu beharra saiestuz.

Historikoki, erlijio-kongregazioek garrantzi handia izan dute zaintza-lanetan; batetik, menpeko pertsonentzako erietxeak sortu dituzte, eta, bestetik, bitarteko izan dira biztanleek eskatutakoaren eta langileen eskaintzaren artean. Gizarte zibila beste ardatz batzuen inguruan eraikitzen hasi zenean, GKEak garrantzia hartzen hasi ziren gizarte-egoera ahulean ziren biztanleekin egiteko lanean; eta haien zutabeetako bat zaintza-lanen eta garbitasun-lanen sektorean sartzea izan zen. Bi erakunde horiek —batetik Elizak bere parrokien bidez, eta bestetik GKE-ek—, lan-bitartekari izateaz gainera, zaintza-lanei eta etxeko trebetasunei loturiko prestakuntza-ikastaroak eskaintzen dituzte. Haietako batzuek prestakuntza espezifikoa ere eskaintzen dute; hala nola, erizaintzako edo geriatriako laguntzaile lanetarako prestakuntza. Oro har, ez dira tartean sartzen soldadak edo lan-baldintzak finkatzerakoan (nahiz eta aholkuak ematen dituzten). Nafarroan hainbat erakunde ditugu: Gurutze Gorria, Caritas, CORE Fundazioa, Gaztelan Fundazioa, Nafarroako Emakume Aurrerakoiak Fundazioa, Etxeko zerbitzuetarako Maria Sortzez Garbiaren Serorak, eta lan mota horiek kudeatzen dituzten beste hainbat erakunde.

## 5.6 Genero-indarkeria

Genero-indarkeria hainbeste gaitzesten den garaiotan, hainbat eta hainbat emakumek jasaten duten bortxakeria eta sexu-gehiegikeria edo -jazarpena agerian jarri eta salatu den garaiotan, gehiegikeria horien aurrean ahula da sexu-industrian edo etxeko lanetan legez kanpo lanean ari diren emakumeen sektorea. Babesik ez dutelako eta kanporatzeko espediente bat ireki diezaiekutelako (beren lanetik lehenik, eta herrialdetik ondoren), isilik geratzea erabakitzen dute, eta beste egoera batean jasan ezingo lituzketen egoerak jasaten dituzte. Autoestimuan arrasto emozional handiak eta zauri sakonak uzten ditu babesik gabeko eta balio-gutxitutako testuinguru batean sortutako genero-indarkeria horrek.

*Maryuri:* Hace poco le trabajé a un señor de 85 años por tres días, sustituyendo a una ecuatoriana. ¿Vieras qué viejo más verde! Todo el tiempo te hablaba de sexo, cuando le tenía que cambiar de pañal o cada vez que me acercaba para algo me echaba la mano a los pechos, a la nalga o al sexo. Al bañarlo se tocaba su pene y me decía: -Toca, toca, ya no funciona, con todo lo que he gozado y ya no sirve-. Y así un poco de groserías. Me contó que la otra muchacha, la ecuatoriana se había emborrachado un día y que él le manoseó por todo. Luego lo hablé con la ecuatoriana y me dijo que era cierto. Yo le dije que lo denunciara y me respondió: -Cómo voy a denunciarlo si estoy sin papeles, no puedes hacer

más que callar o defenderte como puedas. – El viejo se llama Andrés, es de aquí de Estella, él fue guardia civil.

Sexu-osasuna kaltetu daiteke etxeko enpleguan. Sistema androzentrikoak gizonei leku boteretsua ematen die emakumeekiko. Eta etxeko eremuan, intimitatearen eta konfiantzaren eremua izaki, ohikoa da modu horretako gehiegikeriak gertatzea. Errealitate horrek sexu-erasoak jasateko arriskuan jartzen ditu emakume langileak. Adibidez, Euskadin egindako ikerketa batek adierazten zuen etxeko zerbitzuetan aritzen ziren emakume immigrante langileen % 53k sexu-erasoa jasan zuela (Carrizo, 2007). Diskriminazio-egoera bihurtzen diren botere-harremanak dira, eta gizarte-zigorrik izaten ez dutenez, zaildu egiten dute emakume langile horien integrazio-prozesua. «Berdintasun-plan»ez hitz egiten den gizarte honetan, oihartzun hori ez da gizarte-eremu guztietara iristen. Kontrol-gizarte honetan ez da kontuan hartzen lan-baldintza jakin batzuek —harreman pribatuen eta etxeko enplegatuak orbantzen dituzten legeen anparoan— laneko diskriminazioa sustatzen dutela.

*Ana:* El viejito estaba contento conmigo. Al principio no salía porque no conocía a nadie, a pesar de que habíamos hablado que tendría dos horas libres cada día y el sábado la tarde también, pero cuando ya empecé a conocer y salir al hombre ya no le gustó y algún día empezó a decirme cosas, que si yo iba a estar con hombres y así con mal tono. Yo me le paré y le dije que no me hablara así, que yo era libre y mis horas libres iba a salir a estar con mis amistades, pero que él no tenía derecho a hablarme así. El siguió discutiendo algo y yo le dije que yo ya me sabía mis derechos, que yo había ido a la Cruz Roja y a Cáritas y que yo defendería mis derechos. Lo hablamos. Él sabía que eran mis horas libres. Se acostumbró. Y ya nunca más me ofendió. Yo sentía que se ponía celoso cuando yo salía o llegaba un poquito tarde, pero no tuvimos más problemas.

*Sergio:* Carla, mi esposa, puso un número de teléfono en el periódico, como otras, para buscar trabajo y les citan para algún lugar, o les dicen vulgaridades, o les invitan a otras cosas. A Carla le llamó uno y le dijo que había encontrado su cartera. Ella le dijo: yo no he perdido ninguna cartera. Y le hizo propuestas sexuales.

*Carol:* El viejo me empezó a tocar la nalga o los pechos, quería manosearme, yo me le paré pero me dijo que las latinas éramos unas putas de todos modos.

*Mercedes:* A veces he ido a bailar al Punta Cana, al Marengo, me siento bien, a mi me gusta pasármelo bien, divertirme. Algunos hombres mayores de aquí se te acercan pero solo quieren aprovecharse, se creen que por ser latinas ya nos vamos a ir a la cama rápidamente y se confunden. Yo por lo menos con mis años ya vengo de vuelta, buscas una amistad, estar con alguien, platicar, tomar algo pero yo no tengo necesidad de irme a la cama rápidamente. Me encanta bailar y divertirme.

Jende baten imaginarioan immigrazioa edo latinoamerikako emakumea prostituzioarekin edo sexu-lanarekin lotzen da. Moral patriarkal bikoitza da, hura sostengatzen duen misoginia, emakumeak eta batez ere emakume indiarrak beren mendera dauden objektutzat hartzen dituen matxismoa, behe mailako izakitzat, beren burua euro gutxian saltzen duten salgaitzat.

Androzentrismoak ez du mugarik. Gizonezkoek uko egiten diote genero-pribilegioak galtzeari eta, migratzaile izateagatik desabantaila-egoeran egon arren, dauden lekuan eta daudenekin beren nagusitasuna mantentzen saiatzen dira. Jarrera matxista horietara ohituta dauden emakumeek berek laguntzen dute jarrera horiek mantentzen eta, aldi berean, beren taldea babesten dute, osagai afektiboan eta beharretan oinarrituta. Horrela adierazten dio Blancak bere ilobaren «emazte»ari (nafarrari):

*Blanca:* Si tú estás enamorada de Norwin te tendrás que adaptar a nuestra cultura.

Hark badaki ingurune jakin batera egokitzeko mekanismo bat dela kultura, ez dela mugiezina, alda daitekeela, ez dela estatikoa; baina, kasu horretan, emakumeak aldatu behar du bere ustez. Botere- eta negoziazio-jarduera baten aurrean gaude, eta harremanean tentsio handia eragiten du horrek. Talde baten aurrean menpekotasun-estatusa baliogabetzeko nahia dago, eta, aldi berean, mantendu eta onartu egiten da emakumearen gaineko nagusitasuna.

Identitateak osagai afektiboa du, eta baita taldean partekatzen diren atxikimendu-sentimenduak ere. Bestearen eta besteen aurreko kontrakotasun-izaerak definitzen du funtsean; eta bestea diferentetzat eta, kasu horretan, desberdintzat eraikitzen du.

*Ivania:* Me casé con un hombre, por papeles sí, aunque también algo me gustaba de él. Al poco de casarnos él empezó a prohibirme a ir a las actividades de la asociación, a participar en los ensayos de las danzas, luego empezó a pegarme, yo también le cachimbeaba<sup>96</sup>, me defendía. Otras veces me dejaba encerrada en casa, sin llaves, sin celular. Lo he denunciado y le han puesto orden de alejamiento. Yo me he ido a vivir a casa de Sandra, una dominicana amiga, pero él me llama, me dice que vuelva, llega a casa de Sandra. No sé cómo salir de esta.

Urruntzeko agindua bortxatu egin zen behin eta berriz, eta emakumeak onartu egin zuen behin eta berriz. Mehatxuengatik, xantaiengatik, beharregatik, menpekotasunengatik, afektuengatik... erorketak, berrerorketak eta berriz hasteak. Baliogabetutako emakumea, gutxietsia mekanismo anitzen bidez, botererik gabeai. Gorputzaren gaineko botererik gabea. Bere ezintasuna adierazi zuen emakumea, bere mina agertu zuena, modu egokian edo desegokian gizarte-zerbitzuen eta adiskideen laguntza izan zuena. 2011ko uztailaren 11n hil zen, bat-bateko pneumonia batek jota.

---

<sup>96</sup> jo egiten nuen.

Intereseko ezkontzak, iruzurrezko ezkontzak edo ezkontza zuriak dira; ez dute familia bat osatzeko asmorik, eta Atzerritarren Legearen onurak bilatzen dituzte, ezkontza-erakundearen legeak bortxatuz. Zirrikitu horietatik sartzen dira, gizarte-ongizatea bilatzeko.

Arratoiak eta labezomorroak bezala, «irekiguneak zukutuz» sartzen dira etorkinak, kontainerretan edo kamioneta baten azpian makurtuta (edo baita hegazkin baten lurreratze-treanean ere), elektrifikatutako hesi hirukoitzak gaindituz, 700 kilometroko harresietan pitzadurak bilatuz, armaden osasun-kordioa eta radarrak gaindituz. (...) Immigranteak *parasitoen antzera* sartzen dira, eta gure erreakzio eta metafora guztiak otzan egokitzen dira antzekotasun performatibo horretara, hasieratik baldarki «harrera»ko deituriko gizarteetatik banantzen dituen horretara (Alba, 2006: 357).

## 5.7 Paperen ametsa eta errealitatea

Hurrengo kasu honetan hauteman daiteke paperak lortzeko ahalegin izugarria egiten, «merezimenduak» egiten eta «ondo portatzen» urteak igaro dituen jendearen frustrazioa. Jende horrek paperik gabekoa izateari uzteko ideia zuen buruan, erregularizatzea lortutakoan beren amesgaiztoa amaituko zen esperantzan; baina helmugara iristean haiek amestutako ezer ez dagoela konturatuko dira, beren egoera ez dela aldatu. Hau da, arauzko baimenak ordenan edukitzeak ez die lanerako bermerik ekarriko. Hasieran paperik gabeko egoerarekin lotzen zen lan-ezgonkortasuna, baina paperak izateak ez ditu lan-baldintzak aldatuko, ezta lanerako sarbidea ere.

*Alejandro:* Ahora que tengo documentos pago la seguridad social y el salario se me queda en muy poco. Hasta ahora no había tenido derecho a nada. Ahora parece que sí, pero la situación laboral no me ha cambiado nada. Sigo cuidando del viejito, porque no me sale nada más. Eso sí, estoy haciendo un curso de geriatría en el INEM, a mí me hubiera gustado hacer de fontanería, pero no ha podido ser.

Adreiluaren krisiak eragin latza izan du etorkin maskulinoengan, kualifikazio apalagoko postuak betetzea eragin baitzuen; orain, ordea, birziklatzera behartu ditu egoerak, beren burua eskaera handiagoko arloetarako prestatzera, eta, ondorioz, haien esperientzia ezagutza gisa aitortzen eta balioesten hasi dira.

Beste batzuentzat, berriz, paperak izatea lasaitasuna da; lan-arloan ez bada ere arlo animikoan eragina du, eta pertsona gisa segurtasuna eta aitorpena ematen die, ezkutatu beharrik ez izatea, ezerengatik lotsatu beharrik ez izatea, edozein jardueratan parte hartzeko azalpenik eman beharrik ez izatea. Gizarte honetan, saltokietan eta leku eta jarduera askotarako sarreran eskatzen dute nortasun-agiria, eta paperik ez izatea eragozpena da egunerokotasunerako.

*Ruth:* El hecho de tener los papeles me ha cambiado la vida, porque en primer lugar andas libre, tu mente, tu cuerpo, tu corazón, como que ya no le debes nada a nadie, andas sin temor de nada. Tienes otros beneficios teniendo los papeles, como la Seguridad Social, o que tengas tu dinero en el banco libremente, que te den un préstamo, con los hijos también, vas a la academia y te piden documentos, sabes que no te lo van a negar, pero tienes que andar dando explicaciones, te sientes impotente. Los comentarios de que la policía va de paisano y te pide documentos, siempre estás con la desconfianza, siempre pensando ¿en qué momento, en qué momento? Nunca me pidieron, pero siempre estás con la psicosis. Oyes muchos comentarios.

Aurre egitea eta eskubideak defendatzea posible da paperen babesa eta herritartasun-aitorpen bat baldin badago; baina hori ukatzeak jendea beldurrazi egiten du, gutxiago dela sentiarazi, murriztua dela, geldiarazia, oharkabean igarotzen ahalegintzen da, gatazka posibleetatik ihes egiten, beldurra gorpuzten.

*Silvio:* Si es con la policía una vez al lado de mí casa agarraron a un chico que venía un poco ebrio, lo esposaron y lo tiraron al suelo y yo tuve que meterme y decirles que no era un perro, que era una persona que no lo trataran así. Me dijeron que tenía que ir a declarar. Yo les dije que sí, que iba a ir a declarar pero que iba a ir a denunciar. Entonces me han pedido mis documentos y se los he dado. Les dije que lo soltaran y que lo trataran como persona. Entonces se han enojado y me dicen que quien soy yo. Y yo les dije que era una persona como ellos, les dije que los iba a denunciar y pasó tiempo ni me llamaron a declarar ni nada.

*Alejandro:* Me gustaría traerme a mis hijos ahora que tengo papeles pero lo de la reagrupación familiar no está nada fácil. Necesitas acreditar medios económicos que no llegas con estos trabajos que tenemos y lo que pagan. Tener una vivienda adecuada y no sé cuantas cosas más. Es probable que tenga que esperar a tener la nacionalidad.

Atzerritarren Legearen azken araudiak gogortu egiten ditu familia berrelkartzeko baldintzak: kaudimen ekonomikoa, lanbidearteko gutxieneko soldataren gainetik dauden diru-sarrerak, lan-itxaropen errealak eta pilaketarik gabeko etxebizitza bat izatea, azken finean, migrazio-proiektuak positiboki funtzionatu duela egiaztatzea.

## 5.8 Immigrante-kategoria

Diskurtso politikoek eta sozialek darabilten gizarte-eraikuntza bat da inmigrante kontzeptua, baldintza ekonomiko, politiko, sozial eta kulturek desberdintzen duten pertsona hura kategorizatzeke. Kategoría hori bigarren eta hirugarren mailako belaunaldientzat gordetzea, edo ezartzen dieten atzerritartasun iraunkorra, bazterketa bultzatzen duen bereizkuntza-mekanismo edo -jarrera bat da.

*Nelson:* La palabra inmigrante es un poco dura, es muy fea. En todo el mundo habemos inmigrantes y ha habido. Yo digo que es un poco dura esa palabra que encontraron en el vocabulario, yo creo que es más adecuado el de extranjero. Sientes que hay un maltrato hacia la inmigración, aquí y en otros lados, pero en Nicaragua a todo el mundo lo hemos apreciado y lo hemos tratado como iguales. Yo personalmente no he sentido ninguna discriminación pero cuando oyes hablar en la tele o en los periódicos como que se te contrae el corazón. Hemos tenido casos de maltrato por parte de la policía a unas compañeras de la asociación y eso te influye. Eso es injusto porque todo el mundo emigra para otro lado para vivir mejor o para que sus hijos vivan mejor. Si uno estuviera bien en su país nadie saliera. Pero como los países son tan egoístas... los políticos son tan egoístas, no les importa maltratar al pueblo. Perdemos mucho prestigio es demasiado tiempo ¡si estás trabajando!

*Marlon:* El hecho de que te traten como inmigrante se siente feo, como que no tienes libertad, estás disminuido, estás con temor de que te pase algo. Te hacen sentirte inmigrante, como que no tienes valor ninguno, que no tienes derechos. Así es en otros lugares también, en Estados Unidos pueden estar hasta 10 años sin papeles. Lo tienes que ver como que es algo pasajero y aguantar, nos educaron para aguantar el sufrimiento. La situación laboral es de explotación fuerte. Nos obliga a trabajar también los sábados, aunque cuando hablamos de las condiciones nos dijo que no, pero con el mismo salario nos hace trabajar la mayoría de los sábados, sino vamos se enoja. La última vez que me quejé me mandó a descansar dos semanas, o sea, me dejó sin trabajar, y sin pagar. Trabajamos en rehabilitación de casas. El, sabemos que recibe 20 € por hora trabajada de las subvenciones, mientras a nosotros nos paga 5 € la hora y sin seguridad social ni vacaciones.

*Alejandro:* Con ese calificativo de inmigrante yo me siento un poco mal, frustrado. Migrante es todo aquel que sale de un país a otro, incluso de una ciudad a otra. Pero aquí es una palabra tan grande que la utilizan los gobernantes, los ciudadanos, algunos lo equiparan a invasión. Te hacen sentir frustración porque se creen que hemos venido a llevarnos lo que ellos tienen o a quitarles lo que ellos tienen. Mucha gente así piensa. Y te hacen sentir, aunque no te lo digan personalmente, pero hablan de una manera general pero es para que tú les oigas. Yo les he escuchado muchas veces: -Estos vienen a quitarnos nuestro trabajo, antes había mucho trabajo, ahora no hay. Antes yo tenía trabajo, ahora no hay. Es porque están aquí los inmigrantes y nos han quitado el trabajo-. Te hacen sentir extraño.



Realmente estamos haciendo trabajos que la gente de aquí no quiere. Nosotros venimos aquí a luchar por nuestras familias y nos metemos en lo que haya. En la pobreza todo es malo, queremos una educación mejor para nuestros hijos, una mejor salud, medicinas.

Todos los días oyes la palabra inmigración en cualquier medio, hablan los gobiernos, hablan los políticos, habla el pueblo. Hablan como si fuera un problema, como algo que crea problemas. Y yo creo que somos la solución para muchos problemas que hay aquí. Yo cuido un viejito que su familia no lo puede cuidar. La inmigración ha levantado la economía. Muchos países europeos se han levantado así con la inmigración pero no se reconoce. En Nicaragua hubo mucha gente en los años 80 de todas partes del mundo y nunca se les llamaba inmigrante, ni extranjeros. Eran colaboradores, eran trabajadores, eran internacionales. Y no es que todos fueran más ricos que uno.

*Ana:* Yo no me he sentido como inmigrante, porque me he sentido familiarizada. Cuando oigo en las noticias es cuando me pongo como nerviosa, ya voy a ajustar tres años, siempre esperando para tramitar los papeles y como que me digan que no, eso me pone nerviosa. Mi mayor ilusión ahora es conseguir los papeles, para irme a mi país a ver a mi familia y regresar de nuevo a trabajar aquí.

*Fátima:* Esa palabra de inmigrante en veces cuando lo ves en el periódico, lo oyes, suena muy duro, pero en realidad aquí todos somos inmigrantes, como dice la biblia todos somos extranjeros en la tierra, pero es una palabra muy dura para uno, como que viene la discriminación. Hay gente en veces que lo discriminan a uno. En las tiendas cuando voltean a mirarte, te quedan viendo, como diciendo qué va a comprar esta chica y tal vez tengo más dinero que ella aunque ande mal vestida. Pero no queda otra, le toca a una y... gente de aquí también hay muy buena, aunque haya otros que te discriminan, pero hay de todo. Apenas salgo, tampoco he ido a otras ciudades, por temor a la policía, no vaya a ser que por andar en la calle me agarre y me quite el pasaporte y tantas cosas que me vienen a la mente, por el hecho de ser inmigrante... las desventajas de perder mucho... Yo le tengo mucho temor a la policía, más que todo de noche y más vale prevenir. Por eso no me gusta salir más que todo de noche. Cuando estoy en mi trabajo en las noches leo la Biblia, no tengo derecho a sentarme en el salón con ellos y no tengo tele en mi habitación. Siempre estoy en la cocina o en la habitación.

Honek erakusten digu pertsonalki inmigrante irudiarekin identifikatzeko duten zailtasuna. Pertsonalki urrundu egiten dira definizio horretatik. Pertsona borrokatzailetzat, eta bizitzan beste aukera batzuk bilatzen dituzten pertsonatzat hartzen dute beren burua. Gizarte-egoera gertatu eta inposatu zaien zerbait gisa hautematen dute, baina ez dator bat haiek benetan zer diren uste duten horrekin. Inork ez du besteen aurrean inmigrante gisa agertu nahi; inork ez du kategoria hori bizi guztirako izan nahi; gutxiago eta mugatuta sentitzen baitira. Sozialki eta ekonomikoki gizarte hartzaileari

ematen dioten hori bertako biztanleek ez aitortzeak erresumina eragiten du. Gizarte-ekoizle rola ez da agerian jartzen; ez dute gizarte-sarean beharrezko diren subjektuen benetako aitortzarik jasotzen. Eta horrek seriozki zailtzen du gizarte hartzaileak izan beharreko erantzukizun-sentimendua.

*Bayardo:* Inmigración es algo general, como algo natural, todos inmigramos a cualquier lado, habemos de todo en todo el mundo, antes también pero ahora más la gente se mueve. Lo que pasa que hay gente que no le gusta la inmigración y no sé si es porque no han viajado, porque no les gusta viajar. Aunque vayas de turista pero ir a otro país significa que no sabes cómo te van a recibir. La gente que toma no ya como inmigración sino como racismo, ven con malos ojos al inmigrante. Todos tenemos derecho a cambiar la vida, a cambiar de ambiente, sino te va bien en un lugar prueba en otro, a mí no me importa que me digan inmigrante porque sé que lo soy. Yo no tengo una experiencia negativa de ello.

Gehienentzat inmigrante kategorizazio horrek konnotazio negatiboak badakartza ere, eta diskriminazio motaren bat dakarrelako deseroso sentitzen badira ere, bada termino horrekin izendatzea axolarik ez zaion jendea ere. Miguel 24 urteko gazte bat da, eta iritsi berria bere aitaren lurrera. Inoiz ez da aurrez hemen bizi izandu, baina bera herri honen zati sentitu da moduren batean, eta beste batzuek lortu ezin dituzten zenbait eskubidez jabetzea lortu du. Botere dosi horretatik errexago zaio kategori hori onartzea.

*Miguel:* Yo soy inmigrante, me siento inmigrante, me gusta, no la siento mal. Si va acompañado por alguna palabrota me sentiría mal, pero así sin más me gusta, es una nueva forma, que ya es frecuente, que la gente ya vivirá así, viajando, viviendo en sitios diferentes, es algo que tiene ciertas ventajas, vas conociendo culturas, sacando lo bueno de ello. Me resulta positivo.

Miguelentzat migrazioak ez du hainbesteko arriskurik ekarri, ezta hainbesteko diskriminaziorik ere, oraindik paperak arauz ez baditu ere. Baina besteek duten baino segurtasun eta babes handiago batetik abiatu da bera.

*Franss:* La gente tiene derecho a vivir donde quiera y a irse pero... Lo de la emigración no sé cómo se trate en otros países, es para crear ciertas categorías que no existen. (...) No darle importancia a esa palabra de emigración porque lo que hace en realidad es entorpecer la integración de la gente y crear categorías que no existen.

## 5.9 Garapen pertsonala oztopatzea

Bizileku-txartela berritzeko beharrezkoa da lan-kontratu bat aurkeztea. Horregatik, erregularizatuta egon zen jendea legez kanpoko bilakatu da langabeziak gogor astindu duen garaiotan, paperak berritzeko unean kontraturik izan ez badu. Eta etxeko enplegua kudeatzen duen Erregimen Berezian kotizatzeke edo idatziz kontratu bat izateko nahitaezkotasunik ez dagoenez, enpresaburuen borondate onaren menpe agertzen dira.

*Efrain:* Mi esposa llegó por reagrupamiento familiar y su residencia no permitía trabajar pero igual se puso a trabajar, mas tarde ya pudo cambiar el permiso de residencia y ya puede trabajar legalmente. Pero la señora a la que le trabaja no le hace contrato, no paga la Seguridad Social, debería pero no lo hace. Y no va a poder renovar su tarjeta si no tiene Seguridad Social, entonces tenemos que resolver eso.

Titulu akademikoak eta prestakuntzakoak homologatzeko edo baliozkotzeko zailtasunak eta ezintasunak eragotzi egiten dute paper dunek eta paper gabeek beren prestakuntzari eta gaitasunei dagokien lanpostu bat izatea; kualifikatu gabeko lanetara eta, beraz, ezegonkorragoetara mugatu behar izaten dute. Erkidegoz kanpoko biztanleen politika murriztaileei erantzuten die horrek; lan-merkatuan modu bereizi batean sartzeko murrizketak dira, eskulan merkea sortu eta mantentzen dutenak, eta gizarteratzea eragozten dute. Lan-merkatua banatu egiten da, biztanleria aktiboa konpartimendu berezietan egituratzen da, prestigio gehiagoren edo gutxiagoren arabera, eta/edo enpleguen kalitatearen eta lan-baldintzen arabera. Oro har, balio-gutxitze profesionala gertatzen da eta, beraz, baita soziala ere, jatorriko herrialdean zeukatenari dagokionez. Egiten dituzten lan asko dagokien heziketa-mailaren azpitik geratzen dira. Ez zaie aitortzen ez lortutako titulaziorik, ez lanbide-kualifikaziorik, ez egiaztatutako esperientziarik ere.

*Nelson:* No he podido homologar mi carnet de manejar de Nicaragua aquí. Allá era un profesional del volante y aquí no me reconocen y eso le hace sentir mal a uno. Teniendo tantos años de experiencia y venir aquí como si fuera un novato... a hacer un examen de nuevo... es muy agobiante también. No te dejan desempeñar tu carrera. Volver a sacar aquí el carnet de conducir es muy carísimo, hay que pasar la teórica y pagar demasiado, y uno anda que no le llega para comer.

*Marcela:* Nuestros títulos de nada sirven aquí. No les interesan tus capacidades, solo tu trabajo.

*Silvio:* Sobre la convalidación de estudios, es un tema que me duele. Yo metí los papeles en el 2003 y me han dado las convalidaciones en el 2007. No sé si es una discriminación o es así como están las reglas. Yo tengo un diploma que es del Este. Son países que yo creo que tienen un nivel de estudios más alta que la de España, en cuestiones de técnica no son más bajas que aquí, pero te bajan de una licenciatura a un técnico industrial, a un técnico diplomado. No sé porqué hacen eso, porque es la Unión Europea, no he llegado a ver el porqué. Si viene

un bachiller de Latinoamérica lo bajarán como si fuera a primaria y si viene un ingeniero, lo pasan a bachillerato, por ahí lo bajarán. A mí me han bajado de licenciado en ingeniería a técnico industrial. Me han bajado demasiado. No sé si es discriminación, se creen que por ser Unión Europea son más. Y un técnico de aquí o de allá puede hacer la misma función. Un médico allá hace la misma función, un licenciado hace la misma función, somos humanos y tenemos la misma capacidad.

Foucaultek esan zuen gisara, boterea ez da edukitzen, jardun egiten da; pertsonen arteko harremanen ezaugarri bat da. Bakardadean ez dago boteririk; menderatze-harremanean dago boterea.

Faltan botatzen da haien iragandako esperientzia aitortzea; haien lan-esperientzia eta prestakuntza akademikoa; haiek iraganean lortutako trebetasunak. Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren artean haustura bat gertatzen da. Prestakuntza espezializatu gutxiagorekin datorrenak, beraz, ez du hainbesteko minik hartuko.

## 6 Dimentsio soziala

Botere politikoek, administratiboek eta informatiboek gizartearen imaginarioan migrazio-politiken alde edo kontra eraiki eta bultzatutako estereotipoek biztanleriaren pentsamenduan eta jarreretan eragiten dute. Gizarte-desberdintasunetan erreparatu gabe kultura-ezberdintasunak agerian jartzeak bazterketa, diskriminazioa eta politika etnozentrikoak justifikatzeko bide ematen dute, horiek itxura demokratikoa izanda ere.

### 6.1. Erakundeen diskurtsoak

Inork ez du eztabaidan jartzen komunikabideek iritzia sortzeko garaian duten garrantzia; haiek aukeratzen dituzte gaurkotasuna duten gaiak, eta haiek zokoratzen gainerakoak. Horrela, errealitatearen ikuspegi zatitu eta osatugabeari mesede egiten diote. Komunikabideek, maiz, immigrazioa gaizkileekin, pobreziarekin eta arazoekin lotzen laguntzen dute, informazioari eman ohi dioten trataeragatik. Komunikabideei arretaz begiratu gero, immigranteak gutxitan ikusiko ditugu beren bizipenei, egunerokotasunari, zailtasunei eta sentimenduei buruz mintzatzen. Eta emakumezko immigrantei buruz hitz eginez gero, askotan, biktima gisa jarriko dira agerian.

*Lenin:* Presentan la inmigración como un problema. Los gobiernos y los medios no le dan a entender a la gente la situación en la que se encuentran, que la población se va envejeciendo y para la seguridad social, para las pensiones, hace falta gente trabajadora y que cotice. Esa información no se analiza, no llega a la población tal como debería, sino que ellos mismos se aprovechan de la

inmigración pero no informan adecuadamente y la gente se crea la idea de que no tiene vivienda porque se lo dan antes al inmigrante, no tiene trabajo porque ellos nos quitan y eso es falso.

Beste kultura eta herriei buruz dugun irudia sortzerakoan, eragina izan dute haiekin izandako harreman historikoek eta komunikabideek helarazi duten ikuspegiak. Horrela, gure jarreretan eragin handia du gertaera historikoetan oinarritutako eurozentrismoak. Desberdintasun ekonomikoek eta mendekotasun politikoek Mendebaldekoa ez dena biktima, azpigaratu, ezjakin, atzeratu eta ez aurrera ez atzera geratutako gisa irudikatzen garamatzate; beren antzinako kulturak eta gaurko ekonomietako protagonismoak ahazten ditugu, eta balioa kentzen diegu aldaketarako prozesu politikoaren praktikei.

Aurtengo NUPeko udako ikastaroetan, «Europa, harrera-herrialdea: immigrazio-politika bat Europarentzat» izeneko ikastaroan, izenburutik beretik aldebakarreko kontu batekin hasten gara (Europarentzat). Hizlarietako<sup>97</sup> batek, kultura-aniztasunari buruz hitz egitean, behin baino gehiagotan aipatu zituen bere diskurtsoan «talka» eta «gatazka». Honela esan zuen: «Ezkontza, islamean ez da sakramentu bat<sup>98</sup>, kontratu juridiko bat da». Etengabe haietaz eta gutaz hitz egin zuen, aparteko bi mundu bagina bezala. Bere eta beste batzuen diskurtsoetan, *integrazione* hitza esanahiez hustu zuten eta *asimilazio* gisa kontzeptualizatuta erabili zuten. Estatuko Immigrazio eta Emigrazio idazkariak honako hau adierazi zuen: «Marokoarrak gugandik 35 €-ra daude EasyJet-ekin». Ondoko lagunak, Beatrizek, belarrira: «Eta 5.000ra kayukoan» esaten zidan bitartean. Mezu ekonomizista eta lan-merkatuan soilik oinarritutakoa. Horrela gizarteko diskurtsoak, errealitate jakin baten ezagutza alde batera utzita existitzen dira; eta errealitatea bera baino garrantzitsuago bihurtzeraino iristen dira.

Nafarroako egoera soziolinguistikoa ez da ezagutzen, eta erakundeek ere ez diete ezagutzera ematen inmigrauei. Ez lehen eta ez orain ez dago bertako aniztasunaren aitorpenik.

*Silvio*: Nosotros en Latinoamérica conocemos España casi como a nuestro país, porque en la escuela teníamos libros editados en España, estudiábamos historia de España, geografía española. Lo que no sabíamos que aquí había catalanes, vascos o gallegos. Eso no. España era una sola España. Pizarro, Cortés, todo eso, Cristóbal Colon... No sabíamos que había diferentes idiomas ni nada. Ahora que estás aquí lo ves.

Administrazioek, zuzenean edo zeharka, atzerritarren seme-alabek D ereduan matrikulatzea oztopatzen dute. Ez zaie informaziorik ematen, edo ez zaie proposatzen eta motibatzen hizkuntza-eredu hori aukera dezaten. Aldi berean, ez da deus egiten atzerritar jatorria duten ikasleak zenbait eskola eta institutu publikotan pilatzea saihesteko; ghetizaziorako eta estigmatizaziorako arriskua eragiten da horrela.

<sup>97</sup> Aurora Hernández.

<sup>98</sup> Jainkoak gure arimetan egiten dituen zazpi zeinu sentikorretako bakoitza, barruan eta espirituan eragina dutenak. RAEren definizioaren arabera.

Bitartean, eskola eta institutu horietako kalitatea nabarmen ari del jaisten entzungo da, eta bertako biztanleek aitzakia gisa erabiliko dute bestelako ezaugarriak dituzten ikastetxeak aukeratzeko. Beraz, beste behin, immigrazioa gatazkarekin edo arazoekin lotzeko ideia ereiten da, eta integrazioa oztopatu eta bazterketa eragiten da. Integraziorako aldagai garrantzitsua da hizkuntza eta, gaztelania ikastea integraziorako beharrezkoa den gisara, euskara ikastea ere presente eduki behar den elementua da, nafar biztanleen zati garrantzitsu bat hizkuntza horretan sozializatzen baita.

*Dounia:* A mí me matricularon en el modelo D pero cuando fui a la escuela de San Jorge me dijeron que no estaba matriculada en euskara. Mi padre fue al Departamento de Educación y resulta que al ver que era hija de marroquíes me pasaron al otro modelo, porque dijeron que pensaban que nos habíamos confundido.

Hezkuntza Sailak ematen duen informazioak hutsune larriak ditu. Asko kexu dira jasotzen duten informazio-urritasunaz, batez ere, lur honetara iritsi eta aurreneko urteetan.

Hizkuntzak berebiziko garrantzia dauka edozein sozializazio-prozesutan, eta, oro har, integraziorako lehen mailako faktoretzat jo ohi da hizkuntza (Zapata, 2006: 69).

Horregatik, beharrezkoa litzateke immigranteei D eredua proposatzea, bertara erakartzea, gure inguruan dagoen eta kontuan hartu behar den errealitate bat delako. Bestetik, integrazioak kontaktuan dauden bi aldeen edo gehiagoren arteko lana izan behar du eta, horregatik, beharrezkoa da, bertako kultura edo kulturak zaintzeaz gainera, etorkinen seme-alabek dakartzaten kulturak ere zaintzea. Ildo horretan, garrantzitsua izango da gure eskoletan dauden ikasleen hizkuntzak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea ere; hala nola, ikastetxe bakoitzeko curriculumean ekintzak planifikatzerakoan, kontuan hartzea talde bakoitzaren beharrak eta nahiak.

Bertako biztanleen kezka, egonezin, errezelo eta iritzi txarren iturria da ikastetxe batzuetan jatorri atzerritarreko ikasleen metatze izugarria egotea. Ikasgela edo eskola batean immigranteen seme edo alaba kopuru handia dagoenean, arazo gisa ikusten da, eta hautemate hori eskola-komunitatean zabaltzen da (gurasoak, irakasleak, ikasleak), eta hala sentiarazten zaie atzerriko familiei. Larritasun hori irakaskuntzaren kalitate-jaitsierarekin lotzen da, kanpotik datozenek maila akademiko baxuagoa dakartela uste izaten baita.

Portaerak, batzuenak eta besteenak, oro har, aldagai kultural, sozial, pertsonal, psikologiko eta ekonomikoen ondorio dira. Talde baten jarrerak aldatzeko, edo errotik aterata, barneratuta eta naturalizatuta dauden aldaketa-prozesuetan eragiteko, beharrezkoak dira hausnarketa konplexuak eta irakasleen prestakuntza, premiekin bat datozen inbertsioekin batera.

Komunikabide batzuek iritzi publikoa osatzen laguntzen dute; etorkinei buruz ari direnean eskandaluzko adibideak bakarrik aipatzen dituztelako eta hizkera alarmista erabiltzen dutelako.

*Guadalupe:* La palabra inmigrante la siento como fea, como que significa peligroso. Pero yo digo, si no todas las personas somos así. Emigramos por la misma necesidad, venimos a trabajar y no a robar. Pero en la calle no se oye. Yo siento cuando hablan en la tele, como que hablan como un problema y yo digo ¿por qué?

*Carelia:* Alguna vez me han hecho sentirme inmigrante y eso no me gusta. A mí no me hubiera gustado salir de mi país si no hubiera sido por necesidad. Cuando leo en los anuncios: “Se necesita camarera española” te sientes mal porque te están discriminando sin conocerte. Porque las de aquí ¿valen más que las que llegamos de fuera? Eso no debería ser así.

Etorkinek ekonomian funtzio garrantzitsua baldin badute kontsumitzaile, zerga-ordaintzaile eta ekoizle gisa, zergatik sortu uste desitxuratu horiek, irudi nahasi horiek, gizartearen historian batere berriak ez diren gizarte-egoerei buruz?

Indarkeria matxistari edo genero-indarkeriari buruzko informazioaz ari garenean, erasotzaileak atzerritarrak badira, jatorria azpimarratzen da eta gehiengoak immigrantea izatearen ideia sortzen da. Oroitzen naiz familia-bazkari batean Iñakik ideia hori indartzen zuela; baina Berdintasunerako Ministerioak 2009an zabaldutako datuek erakusten dute indarkeria horren hildako emakumezko biktimen % 64,3k jatorri atzerritarra zuela eta, erasotzaileei dagokienez, % 57,1 zela bertakoa.<sup>99</sup>

2010eko abuztuaren 1ean, goizeko 9etako programa batean, atentzioa eman zidan Euskadi Irratiak ramadanaren gaiak aritzeko erabili zuen diskurtso asimilatzaileak. Iritzi-emaile baten arabera, musulmanek integratu egin behar dute eta, garai horretan ere, hemen bezala, lan egin behar dute. Erljiozaletasuna esparru pribatura mugatu behar dela zioen eta, hau idazten dudana bitartean, Aste Santuko prozesioa ikusten dut leihotik; jakina, *besteei* eskatzen zaien esparru pribatura mugatu gabe. Erljiozaletasuna ekintza kulturala da, beraz, taldekoa eta soziala, herri guztiek publikoki adierazi dutena. Zergatik aniztasunarekiko beldur hori?

Radio Cero, 2010eko uztailaren 24ko «Te doy mi palabra» programa: kaleko saltzaileei buruz ari dira; Espainiako estatuko kaleetan 3.000 «mantero» omen dabilta. Delitua dela, CD eta DVD piratak kalean hiru euroan saltzea legez kanpoko dela. Jarduera horren aldeko eta aurkako hainbat iritzi eman dituzte. Jarraian, iragarkiak datoz, eta «American shopping» produktuen berri eman dute, «soilik 45 euro» balio dutenak. Bizitzaren kongruentziarik eza.

---

<sup>99</sup> Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren aldizkariaren edizio berezia. 2011ko apirila. Baina txosten horrek dio erasotzaileen % 42,9 atzerritarra dela.

2010eko azaroaren 22an, La Cuatro-ko «Callejeros Viajeros» programa: kazetariak Nikaraguan zehar egin duten bidaiaren irudiak erakusten dituzte eta herrialdeari buruzko informazio partziala ematen dute. Honako gai hauei buruzko irudiak eta iritziak azpimarra daitezke: homosexualitatea, prostituzioa, transexualitatea, zinema pornoa, kokaina-trafikoa, lapurretei buruz hitz egiten da, sendatzaileek egindako erlijio-aipamenei buruz, pobrezia eta miseriaren irudiak... Informazio eza den informazioa, testuingurutik kanpo dagoena, azalekoa, gutxiespenezkoa, analisirik gabea, nagusikeriazko ideologiaz betetako begiradak, errealitatearen irudi desitxuratua sortzea helburu dutenak.

Adibide txikiak dira, bilatzera joan gabe ere edozein egunetan gure komunikabideetan aurkitzen ditugunak. Immigrazioa aipatzeko normalean erabiltzen diren diskurtsoak aztertu ondoren, oso hezigarria da diskurtso horiek migrazio-fenomenoari ekarri ahal dizkioten ondorioetan erreparatzea. Hitzak dira errealitatea ulertzeko ditugun tresnak, gertatzen ari dena azaltzeko erabiltzen ditugunak. Hitzek mundua sortzen dute eta, batez ere, berau ulertzeko modua baldintzatzen dute. Immigrazioaren munduarentzat eta immigrazioa arautzen duten legeentzat ere balio du horrek. Legeek ere mundua modu zehatz batean itxuratu nahi dute, diskriminazioa bultzatuz tokikoen eta etorkinen artean; jarrera arrazista edo xenofoboak bultzatzen dituzte etorkin edo etorkinen ondorengo izan diren pertsona askorengan ere, dagoeneko beren burua antzerriartzat ez dutenengan.

Munduan zehar egunero ibiltzen den informazioen % 80a lau agentziaren eskutik dator (AP eta UPI estatubatuarrak, France Presse, eta Reuter ingelesa). (...) Hego Euskal Herrian egunero irakurtzen den prentsaren erdia, modu batera edo bestera, BBVri loturik dago. Telebista-kate pribatuetan ere, banketxeen eta Europako enpresa-multimedien kapitalen presentzia handia da, erdia baino handiagoa. Eta antzera gertatzen da argitalpengintzan, publizitategintzan, eta gainerako sektoreetan ere (Amezaga, 1998).

Inperialismoa eta neokolonialismoa ez dira metatze- eta jabetza-ekintzak bakarrik. Biek dute oinarria ideologia harrigarrietan; besteak beste, uste osoa izatea lurralde eta herri batzuek menderatuak izateko «beharra» dutela eta hori eskatzen dutela. Egia eraikitze horretan, beren helburuetarako hiztegi egokidun diskurtsoa erabiltzen dute; adibidez: indigenak, behe-mailakoak, mendeko arraza, mendeko herria, atzeratua, ez-garatu, terrorista, fundamentalista, erregimena, diktadura... Edo soilik kolonizatutako herrien gatazkari eta txirotasunari buruzko irudiak erakusten dituzte, baina gutxitan beren aberastasun kulturalari, ekoizpenari, lehengaiei edo balioei dagokiena. Ez dituzte desberdintasunen eta gatazken arrazoiak aztertzen, eta ez dute hitz egiten gatazka horien arduradunetz edo menpekotasunaren ibilbide historikoaz.

*Sergio:* No leo periódicos o revistas, solo los de propaganda que dejan en los buzones. Solo conozco el Diario Navarra, porque he mirado en algún bar, nada más. No me gusta el fútbol, ni lo veo, ni lo comento, no sigo nada de nada. En



Nicaragua no es un deporte habitual. Aquí todo es fútbol, te lo pueden meter a la fuerza. No me motivan los temas que aparecen en los medios.

*Silvio:* El otro día vi en “Callejeros Viajeros” un reportaje sobre Nicaragua. Es vergonzoso, es para denunciar. Solo hablaban de las miserias, de la prostitución, de la homosexualidad. Como si eso fuera lo más importante de allá.<sup>100</sup>

Topikoz betetako programa, desinformazioa helburu duen informazio partziala. «Informatzeko» eta adierazteko pribilegioa dutenen kopurua gutxitu egiten da. Hezitza eta prestakuntzara bideratua egon izan balitz oso onuragarria izan zitekeen teknologia eduki eta denborapasa bihurtzen da; irudien eta ideien kontsumoa, kultura eta ideologia nagusiaren zerbitzura. Eduardo Galeanok adierazten duen bezala:

Komunikabide menderatzaileek ikuskizun iragankor gisa aurkezten dute gaurkotasuna, errealitatetik at dagoena, memoriaz hutsa; desberdintasunak sakonago bihurtzen laguntzen digute. Txirotasunak oraindik ere pena sortzen du, baina gero eta haserre gutxiago; txiroak zoriaren ondorio edo halabeharraren fruitu diren ideia zabaltzen da. Duela hogeita urte, txirotasuna injustiziaren ondorio gisa hautematen zen, baina orain «eraginkortasun ezak merezi duen zigorra da» edo «gauzen ordena naturalaren adierazpen bat». (...) Lazgarrikeria horiek, zorigaitz horiek, beste mundu batetik heldu dira, infernutik, eta kontsumo-gizartearen paradisu-izaera azpimarratu besterik ez dute egiten. (Galeano, 2009).

## 6.2. Demokrazia hautematea

Herritartasuna aitortu ez eta legez kanpoko egoera bizi arren, nahiko berme da batzuentzat lana eta gizarte-zerbitzu batzuetarako sarrera edukitzea, beren egoera immigrazioaren bidez hobetu egin dela pentsatzen dutelako. Egonaldiaren lehen urte horietan, zati handi batek ez darama gaizki hauteskundeetara eta antzeko zenbait eskubide politikotara sarbiderik ez izatea, ez baitira motibatuak sentitzen hemengo politikan parte hartzeko. Balioesten dutena da elkartean parte hartzea eta elkarte horrek hemengo ekintza publikoetan parte hartzea.

2011ko maiatzeko hauteskundeetan parte hartzeko, alde biko akordioa zuten kanpoko herrialdeetako pertsonak aurreinskripzioa egin behar zuten. Etorकिन zati batek bozka-eskubidea erabili ahal izan zuen lehen aldiz. Eskubide hori erabili zezaketenei posta bidez gutuna bidali zitzairen arren, izen-emateen kopurua baxua izan zen (Nafarroan % 10,3). Politikan parte hartzeko interesik ez izatetzat har daitekeen horrek irakurketa asko izan ditzake. Bat izan daiteke aurretik eskatutako betebeharre dagokiena; bestea, hautesle izan zitekeenari iritsitako informazio urria; eta, azkenik,

---

<sup>100</sup> Callejeros Viajeros. La Cuatro.

esan behar da datuek immigranteen integrazio-maila erakuts dezaketela edo, beste modu batera esanda, helburu berberak dituen talde bateko kide izatea sentitzea.

Aurrez aztertu diren gutxiespen mekanismoak baliatu ondoren, ez da erraza gizarteko eta politikako alderdi batzuetan bazterketa sufritu duten pertsonak guztiontzako etorkizun bateko parte sentiaraztea.

*Silvio:* Aunque ya tengo nacionalidad de aquí, no me considero un español, me siento un inmigrante y en política creo que no me tengo que meter porque este no es mi país y para eso lo tendría que hacer en mi país. Lo que hago es observar. Y si murmuro pues murmuro. Pero aunque tenga nacionalidad de aquí no me siento con aquel poder para dar mi opinión o decir no estás haciendo lo correcto porque me pueden decir algo. Yo ya he oído comentarios de que si vas a dar una opinión la des en tu país. Y he oído decir a otros emigrantes también que les han dicho que si no te gusta te tenés que irte a tu país. Y si no quieres cumplir las costumbres de ellos pues te tenés que ir a tu país. A hacer lo que quieras pero en tu país. Yo lo veo un poco lógico. Hay gente que no le gusta que le mandés en su casa. Yo lo miro normal. No del todo, pero... Entonces busco la manera de no opinar en nada. La política de ellos es de ellos. Si tengo que dar un voto pues la daré, por el que más me guste. No me siento con aquel coraje. Yo siento que tengo una tierra y que en mi tierra mandaré yo. Yo no me siento navarro, yo me siento emigrante.

*Marcela:* Yo me siento igual a todo el mundo, no tengo todos los derechos como una persona de aquí, pero no por eso me siento menos, es una etapa, cuando oigo lo de inmigrante, yo no le paro bola, a mi no me molesta, no me molesto, no le pongo mucha importancia.

Marcelak artean paperak ez zituenean adierazi zuenak Saskia Sassen-en hausnarketara narama. Haren esanetan:

Agiririk gabeko etorkinak, epe luzeko biztanleak, formalki herritartzat hartutakoen eguneroko ohitura berberetan integratuta daude. Neurri batean, horrek kontratu sozial informal bat sortzen du agiririk gabeko immigranteen eta komunitatearen artean (Sassen, 2003: 90).

Eta hori nahikoa da, gutxienez, hasiera batean; bazterketa-mekanismoek emaitzak eman dituzten eta kezka nagusiak estatus juridikoari eta lan-integrazioari buruzkoak diren hasierako garaian. Politika edo herritartasun-eskubidea bigarren lekuan gelditzen dira, immigrantea desberdintasun-egoeran dagoen langiletzat hartzen duen herrialdean, bertakoen aukera berberak ez dituen lekuan. Giza kapitala garatzea eta berreskuratzea izango da aurrera egiteko lehen baldintza, behin eta berriz aupatutako immigranteen gizarteratzerantz.

Herritartasunak aldaketa ugari bizitu ditu historian zehar, hain zuzen, neurri handiagoan edo txikiagoan, garai bakoitzeko ezaugarrietan txertatua dagoelako. Batez ere, desarautze- eta pribatizazio-politikengatik Estatuaren autoritatearen atzerakada orokortua bizi dugun garaiotan. Gizakien immigrazioak edo mugikortasunak, bai jatorriko herrialdeetan bai iritsierakoetan, zalantzan jarri dituzte herritarren estatusa onartzeko garaian erabili beharreko irizpideak. Jatorrizko herrialdeetik kanpo bizi diren eta lan egiten duten pertsonen kopurua handitzen denean, zentzua galtzen du oinarritzko eskubideak lurraldeari edo odolari lotuak egoteak; horregatik, premiazkoa da Estatuak behartzea eskubide gehiago ematera immigrante erregularrei (eta baita paperik gabekoei ere), nahiz eta ez izan estatu-nazio horretako herritarrak.

Herritartasunak eta horrek dakartzan eskubideek balio integratzaile garbia dute (eta barnean hartzeko eta baztertzeko prozesuetarako balio dute); baina balio *sinbolikoa* ere badute, eta horregatik eragiten dute etorkinak definitzeko garaian; izan subjektu desiratu edo ez desiratu, merezidun edo ez-merezidun, errespetu eta duintasun berbera zor zaiona, edo menpean hartuak izateko hautagaia (Zanfrini, 2004: 141).

Nazioetako testuinguru bakoitzean emandako erantzunek politika asimilatzaile edota segregazionistak erabiltzera eraman dituzte gehiengo etnikoak. Hori gertaera kontraesankorra da sistema demokratikoa aldarrikatzen duten Iparraldeko herrialde deritzenengan; bereziki, aldi baterako immigrazioa izango zela sinetsi nahi izan zena behin betiko bihurtu denean, eta «atzerritar» belaunaldi berriak sortu dituenen, bigarren eta hirugarren belaunaldiko etorkinak, jaio eta bizi diren herria besterik ez dutenak. Asimilazioa inkoherentea da transnazionalismoaren errealitatearekin eta desberdintasunerako eta mugikortasunerako eskubidearen aldarriarekin.

Oraingoz herritartasunak estatu-nazioari estu lotuta jarraitzen badu ere, ahots asko entzuten dira esanez hori zaharkitua dagoela, eta mundu-mailan sortu diren aldaketen aurrean ez duela zentzurik gauzak modu berean izaten jarraitzeak; horregatik, proposamen ugari ari dira kontuan hartzen Mendebaldeko demokrazietan. Horietako bat litzateke transnazionala izatearen eredu, globalizazioaren dinamiketatik abiatzen dena eta migratzaileek gizartearen ongizatean (bai jatorrikoan eta baita iritsierakoan ere) parte hartzen dutela kontuan hartzen duena. Eredu horrek herritartasun bikoitza eta eskubideak, politikoak barne, edukitzearen alde egiten du; eta, horrela, langileek bi herrialdeetako gizarte-ongizateei egiten dieten ekarpena aitortzen dute.

Badaude bestelako ereduak ere: postnazionala izatea, adibidez, giza eskubide unibertsalen doktrinan oinarritua; edo europar herritartasunarena, nazionala ordezkatu beharrik gabe eskubide osagarriak gehitzen dizkiena Europako Erkidegoko biztanleei. Era berean sortu dira eskubide etniko edo eskubide desberdinduen aldeko ahotsak, herritartasun kategoria berri bat definitzen dutenak, eskubide kolektiboena, eskubide zibil, sozial eta politikoen hedatutako banakoen eskubideen aurka.

Gainera, badago herritartasunaren dimentsio parte-hartzaile bat ere, gizarte zibilak protagonizatzen duen antolakuntza eta mobilizazio formek irudikatzen dutena. Parte-hartze gisa ulertzen da biztanleek erabakiak hartzeko garaian duten inplikazioa. Mendebaldeko demokrazia esanguratsuenek, ordea, tokiko mailan demokrazia parte-hartzailekun politikak garatu ditzakete, non herritartasunak gizarteko eguneroko bizitzaren kudeaketan rol aktiboa jokatzen baitu.

*Guadalupe:* Ahora que van a ser elecciones en Nicaragua hubiera estado de coordinadora municipal, pero me vine y lo perdí. Cuando vuelva quizás ya no sea lo mismo, no van a sentir lo mismo hacia mí. Ellos dicen que los dejé. He perdido la participación ciudadana de allá y aquí no tengo derecho a nada, soy irregular. Aquí me parece que hay poca participación de la mujer en la política, no tienen cargos de dirección. Allá tuvimos una presidenta de la República, tenemos muchas mujeres alcaldesas. Aquí a mí me parece que hay menos democracia, allá participás mucho, hablás mucho. Aquí no, parece que les da temor decir de qué partido son, allá no, yo soy sandinista y lo digo donde sea, sin temor, he notado que aquí la gente se calla mucho en la política. Nosotros perdimos el miedo.

Guadalupek hautemandakoaren arabera, bere herrialdean emakumeen parte-hartzea handiagoa izan arren, datu estatistikoek ez dute hori berresten. Baliteke hori horrela bizitzea, hemen berak eta bere ingurukoek arlo politikoan sartzeko aukerarik ez izateagatik.

Nikaraguan, nahiz eta emakumeek Somozaren diktaduraren aurkako borrokan eginkizun garrantzitsua gauzatu eta sandinisten iraultzan aktiboki parte hartu, generoaren auziak ez zuen lehentasunik izan demokraziaren hasieretan. Azken hogeita hamar urteotan, hezkuntza-arloan izandako garapena onuragarria izan da emakumeentzat; gaur egun, analfabetismo-tasa baxuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Hezkuntza-abantailak ez doaz bat laneratzearekin, ordea, eta hala denetan, gizonen baino baldintza eskasagoetan izaten da. Emakumeen parte-hartze politikoa gehitzen joan den arren, gaur egungo parlamentuan duen ordezkari-tasa % 18,5ekoa da. Boterearen erabileran egon beharreko parekotasunak leku garrantzitsua du eztabaidetan, baina asko falta da errealitate bihurtzeko.

*Lenin:* Verdaderamente yo no siento que haya democracia en el pleno sentido de la palabra. Todo va como programado, no hay participación, es una democracia representativa, en que das tu voto y ya nada más. Hay mucho encontronazo, persecución a gente que piensa de otra manera. Cómo se puede acusar a otros gobiernos, por ejemplo a Cuba, de que no puede salir la gente. Aquí también estás perseguido y como la gente aquí no está preparada políticamente, creen lo que dicen. Yo creo que en Nicaragua hay más libertad de alguna manera, no hay tanta manipulación, hay más politización.

Aquí he participado y participo en manifestaciones por los perseguidos, represaliados políticos, en mítines, en algunas conferencias. Me ha tocado de

cerca vivir el tema de las cárceles, hasta dónde llega la crueldad de los políticos de acusar a gente y hoy en día sigue habiendo gente presa que no tienen nada demostrado de lo que se les acusa, mas que tienen distinto pensamiento, aquí se detiene a la gente porque supuestamente está pensando hacer algo. Fíjate hasta dónde llega... Ahí está la falta de derecho de los ciudadanos.

Tengo ya derecho a voto, participo en las elecciones. Yo veo que hay mucha gente que no tiene criterio a la hora de votar, gente que no se preocupa de a quién va a votar, no hay una cultura política, la gente se deja llevar por lo que oye, no se ponen a analizar nada. Yo intento hablar algo de política y los que me responden son las personas mayores, los de 60, 70, son los únicos, porque son los que han pasado aquí una situación dura, la posguerra, la dictadura... con ellos medio-medio puedes hablar, pero con la juventud nada. Sí hay unos círculos con una conciencia política y les preocupa la situación política de aquí, pero te sales de ahí y ya nada.

Leninek eta Guadalupek Nikaraguako borroka politikoan modu aktiboan hartu zuten parte 80ko eta 90eko hamarkadetan. Herria, hein handi batean, iraultza-prozesuaren barnean egon zen, ez bazen sandinisten aldean, kontrairaultzan; jendea politizatu egin zen. Herri-erakundearen parte-hartze zabala egon zen maila eta egitura askotan, eta kemenez eta ilusioz erantzun zioten Sandinisten Nazio Askapenerako Frontearen deia. Herria bere historiaren jabe sentitu zen, eta inperialismo kapitalistari aurka egin izanaz harro. Ilusio hori zapuztu egin zen, ordea, gobernu sandinistak hauteskondeak galdu zituztenez. Ondorengo belaunaldiek, gobernu liberalekin jaio edo hezitakoek, ez zuten aukerarik izan garai hartan bizi izandako parte-hartze sozial eta politikoa intentsitate harekin bizitzeko eta, beraz, hemen ere ez dute faltan botatzen parte-hartze politiko-soziala.

*Miguel:* La democracia como en Estados Unidos que te dicen que es el país de las libertades y es el país más conservador, mucho más que los musulmanes creo. Te van con el cuento de que vives en democracia y en libertad y te lo crees. Te crees todo lo que te dicen. Aquí es una monarquía, Nicaragua es una república. El sistema está para el beneficio de unos pocos, yo creo que hay menos libertad y menos democracia que en Nicaragua, hay más control de todo, a ver si la gente soporta eso, que vaya a más, mirando a las hipotecas, ¿ese es el modelo de libertad? ¿El modelo de democracia? Es el modelo gringo. Igual que pasa ahora en los árabes con las revueltas<sup>101</sup> puede suceder aquí también.

---

<sup>101</sup> Tunisian 2011ko urtarrilean hasitako herri-mugimenduei erreferentzia. Egipto, Libia, Yemen, Siria eta beste herrialde batzuetara zabaldu ziren, eta lehendakariaren botere-galera ekarri zuten; Ben Alífrena Tunisian eta Mubarakena Egipton. Eta Libian OTANen esku-hartze militarren hasiera ekarri zuen. Matxinadek eragina izan zuten Mediterraneoren beste aldean: M15 mugimendua, «haserretuak», «demokrazia erreala orain», 2011ko maiatzaren 15ean Madrilen hasi zena, Espainiako estatuko hiri askotara zabaldu zen, eta plazak okupatu zituzten gazteek eta ez hain gazteek, gau eta egun, herriaren erabaki politikoetan benetako parte-hartzea egotea eskatzeko.

Kanpotik etorri diren pertsonen demokraziari buruz duten hautemateak datu bitxiak adierazten dizkigu, demokraziak ikuspegi desberdinak dituen eraikuntza izaten jarraitzen baitu. Ideologia kolonialistak «beste»aren ideia sortu du gure imaginarioan, «beste herria»rena, «Hirugarren Mundu» behe-mailakoa, gutxitua, ezaugarri txar guztiak dituen; eta garrantzitsu izaten jarraitzen du «beste»ek kanpotik nola ikusten gaituzten konturatzeak. European ia ezbaian ere jartzen ez den monarkia, Amerikan edo beste kontinente batzuetan, ipuinekin edo fikzioarekin lotutako zerbait besterik ez dena. Gogoan dut 1985ean Nikaraguako mendietan nekazari batek galdetu zidala hemen errege-erreginak kaleetan beren koroekin ibiltzen ote ziren.

Askatasunak izugarritzko balioa hartu duen garaiotan, erabakiak hartzeko gaitasuna edota aukera funtsezkoa denean, askatasunaren murrizketekin egiten dugu topo, ziurtasunaren izenean; edozein motatako kontrola justifikatzen da ziurtasun horren onerako. Gero ta gehiago ziurtasunik ezean bihurtzen den ziurtasuna. Ziurtasun gabezia erreala edo eragindakoa, beldurraren bidez barneratzen den ziurtasun eza.

Azken hiru urteotan nagusi izan den emozio-aztarnarik egotekotan, hori beldurra da. Beldurra eta ezintasuna. Beldurra eta erresumina. Baina beti beldurra. Krisia beldurraren garaia da: lana galtzeari, lanik ez aurkitzeari, kaleratua izateari, etxebizitza ez berritzeari, lapurtua izateari, besteei, zehaztugabeko edo ezin aitortuzko mehatxuei, ia guztiari (*Observatorio Metropolitano*, 2011: 107).

### 6.3. Eremu publikoak

Gizarte oro konplexua da, anitza, zehazgabea, kontraesankorra, elkarrekiko menpekotasunak dituen, gatazka gehiago edo gutxiago dituen; dena da mugikorra eta aldakorra. «Gizarte hiritar guztia heterogeneotasun orokortuak baldintzatzen du, eta horrek kalidoskopio ikaragarri bihurtzen du hiriko bizitza» (Delgado, 2002). Berdintasunean eta errespetuan oinarritutako elkarbizitza bilatzen dugu, baina bidean zailtasun handiak eta txikiak topatzen ditugu, egunero gainditu beharrekoak. Iruñean eta Nafarroako herrietan ez daude elkarbizitzarako arazo larriak, bizileku ziurtzat dituzte baten nahiz bestearen auzokide diren etorkinek; batez ere, kontuan hartzen badugu, Nikaraguaren kasuan bezala, askotan ziurtasun eza handiagoa den lekuetatik datozela.

*Silvio*: Navarra es un departamento bien sano, las personas aquí son bien llevadas con los emigrantes. Las calles son seguras a cualquier hora, de día y de noche. Tengo una hija adolescente de 16 y no tengo ninguna preocupación en ese sentido de que le vaya a pasar algo malo. Yo llevo tiempo aquí, he caminado a cualquier hora y en cualquier lugar y no he visto nada raro nunca. A mi esposa tampoco nunca le ha pasado nada. Te sientes seguro, tranquilo siempre, no hay conflictos. A veces me siento en los parques un rato, como no voy a los bares, mejor me quedo sentado ahí. Mi esposa también se siente bien tranquila aquí, dice que la gente es buena en el trabajo, ella está contenta.

*Fátima C.:* Yo nunca he visto ni oído ningún desprecio a gente de otros países. En la calle, en los buses, en las tiendas, en los bares, en todas partes el trato es cordial, nunca he visto ningún pleito. Ni hacia mí ni hacia los demás. Esta ciudad es segura, tranquila, yo puedo andar sola en la noche.

*Mercedes:* En Pamplona me sentí tan acogida... recién llegada si preguntaba por algún lugar hasta me acompañaban.

*Helen:* El ambiente en la calle es muy distinto, aquí es más tranquilo, más seguro, hay más orden. Allá es más inseguro.

Egia da ez dela guztiz horrela, salbuespenak eta zailtasunak daudela, jarrera arrazistak, aurretik aztertu dugun bezala, eta kalea ez dela askatasun osoa duen eremu bat. Kamerak, polizia, zaintza- eta kontrol-sistemak, ziurtasun gehiago bermatzeko tresnak izatearekin batera, herritarren adierazpenak mugatzeko ere badira; lekuak, denborak eta gorputzak normalizatzeko. Edozein ekintza publikorako baimenak behar izateak, eta agintariei edozein ekintza edo adierazpen, txikia izan arren, komunikatu beharrak bat-batekotasuna eta sormena gutxitzen du, eta gorputza beldurrarazten du. Saskya Sassenek honela idatzi zuen:

Hiriaren eremua nazioarena baino eremu zehatzagoa da politikarentzat. Hiriak aukera zabala eskaintzen die ekintza politiko, betekizun, adierazpen, kultura- eta identitate-politikei; politika horietako asko kaleetan ikus daitezke etengabe. Herritarren politikaren zati handi bat jendeak egiten du, baliabide instituzional handiek baino gehiago. Kaleko politikak egiten du posible subjektu politiko mota berriak sortzea, sistema politiko formaletik pasatzeko beharrik izan gabe (Sasen, 2003: 39).

Sassenek baimenduak ez diren baina aitortuak diren herriei buruz hitz egiten digu, legez kanpoko egoeran dauden etorkinak aipagai hartuz, komunitatean harreman estuak eraikitzen dituzten eta ekintza zibikoetan parte hartzen duten etorkinak, hain zuzen. Pentsalariaren arabera, eguneroko ekintza horiek aitorten sail bat errealitate bihurtzen dute, gutxienez alde batekoa, izaki sozialak diren heinean; nolabait, herritarren ekintzak. Adibidez, «Malinche» dantza-taldea dugu, Nikaraguako Elkartearen parte dena; bertako parte-hartzaile guztiak eta bazkide gehienak legez kanpoko egoeran dauden arren, bi urtez jarraian Nafarroako Gobernuaren gonbidapena jaso du kultura-ekintzetan parte hartzeko.

*Fátima:* El poder participar en las danzas en nuestras actividades o en la que organiza el Gobierno de Navarra en el Garrayre, o el “día de los arroces” para mí ha sido motivador. Primero me siento nerviosa, pienso que todo va a salir mal, pero cuando te has dado cuenta ya se ha terminado y te aplauden. Queremos agradecer un poco con nuestra cultura. Dar a conocerla.

Aitorten hori bilatzen dute, beraz; hor daudela aitortzea, garrantzitsuak izatea, partekatzen dugun leku horren gizarte-dinamikan parte hartzea, inposatzen zaien

ikusezintasun horrekin haustea, baztertuak izan diren eremu publikoa aldarrikatzea. Balio sinboliko garrantzitsua duten papurrak dira. Badago ekintza kulturantzunekin kritikoa denik. Delgadok honela galdetzen du:

Zer dira «aniztasunaren festak» edo «tolerantziaren asteak», ez bada zoo etnikoen sail bat, non publiko handiak inguratu eta giza etnoaniztasuna osatzen duten espezimenak ukitu ere egin baititzake (Delgado, 2003).

Horrelakoa izan zen Nafarroako Gobernuak 2009ko abenduaren 3an antolatu zuen Nazioen Jaialdia. Bertan, parte-hartzaileen jatorriko herrietako irudi exotikoak agertu ziren, baina ez zitzairen hitza eman. 2010eko ekintza berean aldaketa nabaria egon zen; eduki hezitzaileagoa izan zuen, parte-hartzaileagoa izan zen, eta iruditik haratagoko protagonismo handiagoa eman zitzairen.

Batzuk ikusgarritasuna bilatzen duten bitartean, besteek nahiago dute anonimotasuna, nahiago dute begiradatik gorde, begirada galdetzaitetik, konfiantzarik gabeko begiradatik. Etengabe norberaren identitateaz argibideak ematen ibili beharrak, egiten edo egiten ez denaz azalpenak eman beharrak, konfiantza ezaren begiradapean egon beharrak, benetako gizarteratzea oztopatzen du.

Nihad bera baino helduagoa den Iruñeko emakume batekin ezkondu dago, eta kexu da bezeroen eta lankideen etengabeko galdeketez:

*Nihar:* Nongoa zara? nola etorri zinen? Zergatik? norekin bizi zara? zure emaztea zu baino helduagoa edo gazteagoa da? zertan egiten du lan emazteak?...

Antzera Moha ere:

*Moha:* Aldiro galdetzen didate nongoa naizen; zer axola zaie? Niretzat ez da eroso; zergatik identifikatu behar dut edozeinen aurrean? Frantzia bizi izan nintzen, eta han ez zen horrela. Inor ohartu gabe ibiltzen zara, inor ez da zurekin sartzen. Nabaritu egiten da galdera jakinmin hutsez egiten den edo konfiantza ezagatik den.

Batzuek beren lehengo hiriko etxeak, kaleak eta auzoak etsipenez oroitzen dituzte; beste batzuk, berriz, gustora daude hiri berriko urbanizazio motarekin:

*Miguel:* La privacidad de las casas de aquí me gusta, allá todo el vecindario sabe todo de ti, mientras que aquí en eso es más tranquilo, nadie se mete contigo.

Kultura-aniztasunak historian aurrekaririk izan ez duen aniztasun erlijiosoak ekarri du gure hiri eta herrietara. Aniztasuna praktiketan, sinesmenetan, jarreretan, emozioetan eta erlijio kontzeptupean iritsi da gure kaleetara eta kultu-lekuetara. Unibertsaltasunaz edo partikularitasunaz hausnarketa egitea beharrezkoa da elkarbizitza harmonikoa lortzeko. Sinboloak ikusgarri izango dira, eta orain gutxi arte Nafarroako gizartean nagusi izan den erlijioak bakarrik egin zitzaizkeen adierazpen publikoen eremuak hartzen saiatuko dira, aitortuak izateko eta gaur egungo errealitatean eragiteko. Sinboloek kideen arteko



partaidetza-zentzua sortzen dute; errituek, festek, bazkaria, musika eta sinesmenak partekatzeak talde-sinboloak izan daitezke komunitatearentzat, eta etxea, familia, aberria, historia eta antzeko kontzeptuak materializatzen dituzte.

*Silvio:* Una de las celebraciones más populares para los nicaragienses es La Purísima o Gritería, que se conmemora el 8 de diciembre que con el grito de: - ¡Quién causa tanta alegría?- y la respuesta: -¡La Concepción de María!- comienzan a cantar y recitar diversas oraciones frente a los altares que previamente se han colocado en las puertas de las casas. Luego se reparten cajetas, frutas, golosinas y pequeños regalos.

Aquí en Pamplona ya llevamos varios años juntándonos para recordar esa fiesta que como aquí la navidad está llena de sentimiento y nostalgia. Comenzamos en Zabaldi<sup>102</sup> pero luego nos dijeron que para actividades religiosas no prestaban el local, por lo que hemos tenido que buscar otros sitios.

Hemengo herritarren ulermen faltarekin egiten dugu topo; hainbat herriren ohituretan errotutako ekintza kulturek duten garrantzi sinbolikoa ezagutzen ez dutenez, ateak ixten dizkiete kulturartekotasun posibleei eta identitate anitzen aitortzei.

## 7. Transnazionalismoa

Globalizazio ekonomikoak eta telekomunikazioek deslurraldetutako eta mugaz haraindiko sareen menpe dagoen biztanleria mugiarazten lagundu dute. Informazioaren teknologiek erraztu egiten dituzte askotariko loturak, komunikazio anitzak, lankidetzak, elkartasunak, eta aldameneko laguntzak edo horizontalak; beste garai batzuetan pentsaezinak ziren mugaz gaindiko harremanak dira.

Hemen eta han bizitzearen fenomenoak, transnazionalismo deritzonak, bi aldean arteko loturak mantentzea eta batek eta besteak ekar diezazkiokeen aukerez baliatzea erabakitzen duen gero eta biztanle gehiago hartzen du. Transnazionalismotzat ulertzen dut migratzaileek beren jatorriko gizarteak iritsierakoarekin lotzeko erabiltzen dituzten gizarte-harremanak eratzeke eta sostengatzeko prozesua; modu horretan, kide izatearen hautemate kulturean oinarrituriko komunitatearen ideia eraikitzen dute. Migratzaile horiek lotura eta harreman estuak mantentzen eta garatzen dituzte jatorriko herrialdean geratu ziren migratzaileekin, bai ekonomikoki bai afektiboki; eta,aldi berean, gizarte-taldeak eratzen dituzte iritsierako gizartean beren nazionalitate bereko edo hurbileko jendearekin, hainbat eremutan elkarren babesa izateko. Modu horretan sortzen da «gizarte-eremu transnazionala» deritzona.

---

<sup>102</sup> Askotariko mugimenduei eta GKE internazionalistei dagokien Iruñeko lokala; «Elkartasun Etxea» izena du.

*César:* Mi objetivo es que me salgan mis documentos, estar legal aquí, si puedo buscar algo mejor aquí, pero tampoco renunciar a mi país. Con lo que he ahorrado ya he montado allá en Somoto, una farmacia veterinaria y si me va bien me quedo allá, pero no quiero perder la posibilidad de trabajar aquí, tener mi tarjeta. Porque aquello es muy inestable y nunca se sabe. Ahora estoy arto de ver esas vacas, yo ya quiero despejarme, que me salgan los documentos e irme allá a Nicaragua a divertirme un poco, a pasarla bien, aquí no hago más que trabajar.



Kontrako baldintzei aurre egin behar izaten diete askotan, eta, horretarako, harremanak eta sareak eraikitzen dituzte, eta loturak finkatzen dituzte, ingurune berrira egokitzeko eta han bizirauteko estrategiak ezagutzeko; ingurune horretan lan-segmentazioa jasaten dutelarik, besteak beste.

Garapen-prozesuetan nolabaiteko lotura historiko espezifikokoak dituzten gizarteetan gertatzen da, batez ere, migrazioa. Transnazionalismoak bere baitan darama joan-etorriko mugimenduaren ideia, bi gizarteetan eta kultura askotan egotea ahalbidetzen duena. Egunerokoa aldi berean bi aldeetan bizi duen jendea da, leku bateko edo besteko lan-aukerez, aukera ekonomikoez, politikoez, sozialez eta afektiboez baliatzen den jendea. Ez dute integrazio osorik aurkitzen iritsierako gizarteetan, ez baitute jatorriarekin eten, ez baitiote uko egin beren identitateari; komunikabideek lagundutako berrantolaketa bat eta jarraitutasun bat gertatzen da, noranzko biko pertsonen, ideien, jardueren eta ideologiaren jariakortasun bat. Nazio-mugak gaintitzen dituzten harremanak eraikitzen dira, gizarte-ekimeneko hainbat eremutan. Diferentzia eta guzti onartuak izatea espero dute, eskubide eta betebeharrak berdinak dituzten pertsona gisa aitortuak

izatea; eta identitateak interakzioaren oinarria osatzea espero dute, identitate-harrotasuna indartuz eta beren ezagutzak dauden komunitaterako portaera erabilgarri bilakatzuz.

*Flor:* En el tiempo libre chateo con mis hijos, cada día me comunico y estoy al tanto de todo.

*Magali:* Llamo por teléfono a Nicaragua día por medio, para hablar con mis hijos y mi madre.

*Mercedes:* Les llamo continuamente a mis hijos, en la semana tres o cuatro veces, ahí se me va mucho dinero, aunque te acojas a ofertas pero siempre resulta caro. Hasta que tenga papeles tendrá que ser así, luego veremos.

*Fátima:* Mi hija está loca que quiere verme, que ya está esperando a diciembre para que llegue. Está estudiando bien, tranquila, bien atendida. No me gustaría traerla aquí. Ella ya tiene planes para estudiar allá, no tiene problemas, está bien con su tía y sus primas. Yo me iré cuando pueda. Mi idea sería trabajar unos meses, temporadas aquí y estar otros meses allá con mi hija.

*Emma:* Estuve varios años trabajando seis meses en Atlanta (Estados Unidos) y luego me quedaba otros seis meses en Nicaragua, pero se me complicó la situación familiar y luego me tuve que quedar en mi país.

*Modu:* Vivo entre Senegal, Francia y Navarra, incluso voy a Alemania o Inglaterra. Unas temporadas allá, otras aquí.

Nomadismo berria da; beren herrialdeak ere behartzen dituelako joaten dira, ez soilik gai ekonomikoengatik. Urte batzuk kanpoan igaro ondoren, dagoeneko bat ez da bera. Komunitate transnazional horiek, jarduera publiko instituzionalizatuak eskatzeaz gainera, elkartasunaren eta justiziaren zentzua garatzea eskatzen dute, ingurune kulturantzun praktiko batean. Nahi dutenak integratzeko bide emango duen demokraziaren praktika eta herritarren parte-hartzea.

Jatorriko gizartearekin elkartasun-loturak mantentzen direnez, identitate-erreferente bat eduki beharra dago; horretarako, iritsierako gizartean, sinbolikoki gizarte-talde edo komunitate bat eratuko da, identitate pertsonala haren gainean sostengatuko baita. Eredu edo komunitate transnazional horien barruan berreraikiko du migratzaileak bere identitatea, bai pertsonala, bai politikoa, bai nazionala. Bere gain hartzen du kide-izate anizkuna, aldi berean bi kultura eta bi gizarteetako kide izatea; izan ere, bi horiei lotuta igarotzen da bere bizitza, ingurunearekin negoziatuz eta etengabe egokituz. Jendeak egitura sinbolikoz betetzen du komunitatea, beren identitatearen erreferentzia-puntu izan dadin, bakarrik ez daudela eta babesa eta boterea ematen dien talde baten sostengua dutela erakusteko.

*Silvio:* El haber vivido entre las tres culturas, nicaragüense, Ucraniana y la de aquí me enriquece mucho, aunque la más culta es la rusa. Yo aprendí mucho de

ese respeto hacia la mujer, de ese valorarla. Era un respeto mutuo entre hombres y mujeres. Allá la gente en el bus va leyendo, aquí no, aquí van hablando. Nicaragua tiene que aprender muchísimo, es un país que le falta mucha preparación. Aquí hay bastante cultura pero como nosotros andamos como andamos nunca vamos a un teatro, o a otras actividades. Te adaptas al lugar donde está y a las circunstancias. Si estás aquí te amoldas aunque no te gusten mucho ciertas cosas. La cultura de Nicaragua es más abierta, más charlatána. Mucho aprendés con esta mezcla de culturas.

Gizarte-eraginei dagokienez, asko hitz egin da familiaren desegituraketaz eta immigranteen seme-alaba gaztetxoek eta gazteek izaten dituzten gatazka larriez. Ikerketa batzuek objektibotasun handiagoa eskatzen dute gai horiek aztertzeko. Hipotesi gisa, planteatzen dute migrazioak areagotu egin dituela tokiko arazoak eta familiarenak, nerabeen portaera, senar-emazteen arteko fideltasunik eza, bikote arteko hausturak eta familia-desegituraketa, bere erantzukizunetik haratago. Migrazioari esleitutako arazo asko, ordea, askoz lehenagotik han izango zirela ohartarazten dute; emakumeei eta, nagusiki, amei inposatzen zaizkien rolen estereotipoekin eta imaginarioekin dute zerikusia. Ondorioz, eztabaida gehiago eragiten du emakume migratzailearen ausentziak gizonarenak baino. Baina egia da komunikatzeko aukera desberdinak eskaintzen dituzten teknologia horien bidez lotura afektiboak mantentzen dituztela distantziara; pobretu egiten diete bizitza pertsonala eta emozionala, baina inoiz ez bezala harremanak izateko aukerak ematen dizkiete, nahiz eta, batzuetan, lehenago bere-bereak zituzten emozio- eta gorputz-baliabiderik gabe gelditzen diren. Transnazionalitatearen aukera, etxe transnazionalena eta harreman transnazionalena zabaldu egin da; izan ere, lehen, beren etxeetatik kanpora denboraldi luzeak igarotzen zituzten gizonezkoek lotzen zitzaizkienak, soil-soilik.

*Aleida:* Antes estuve un año aquí pero me regresé porque mi hijo con 16 años se estaba echando a perder, comenzó a andar vagando, dejó los estudios y yo sentía que le hacía falta. (El padre está en los Estados Unidos). Por eso me regresé, estuve dos años allá. Ahora veo que está mejor, ya vive con una muchacha y afectivamente yo ya no le hago tanta falta, así que de nuevo he venido para acá para ayudarles a mis tres hijos económicamente.

Nabarmenezkoa da, baita ere, immigrante guztiak ez direla transnazionalak; izan ere, urteak igaro ahala, batzuk herrialde berrian finkatzen dira bizitza-proiektu berri batekin. Nafarroak, ordea, urte gutxi daramatza Espainiako estatutik kanpoko migratzaileak hartzen, joera horiek baiesteko; eta are gehiago prozesu historiko aldakorrek direla kontuan hartuta.

*Mercedes:* No tengo pensado regresar a mi país a quedarme, ahora no tengo trabajo allá y si continuara de profesora serían las mismas condiciones de antes y eso ya lo conozco. Por ahora pienso seguir luchando aquí, seguir preparándome en algo de enfermería o geriatría quizás, para trabajar en una residencia por

ejemplo. Quisiera traerme a mis hijos para que estudien aquí y tengan un futuro mejor.

## 8.Esperientziaren balioespena

Migrazioaren auziak aldaketa eta aniztasun soziokulturalarekin lotzen gaitu, zuzenean. Iritsierako gizarteak eta bertako biztanleek kultura berrien ezaugarriak hartzen dituzte pixkanaka, etorkinekin izandako etxeko, laneko, merkataritzako edo erlijiozko harremanen eraginez. Eguneroko eremuetan fisionomia berriak ikusten dira; giza paiasai aldatu egiten da; fisiko modu berrien begirada, janzkera, hizkuntza ezezagunetan diren kaleko errotuluak, hizkuntza desberdinak entzutea, musika, elikadura-eredu desberdinak, gisatuak usainak, jatetxe etnikoak, tokiko gastronomiari gehitu zaizkion Doner Kebabs-ak, eremu publikoen erabilerak, plazak, parkeak, eta jatorri ezberdineko jendez betetzen diren kiroldegiak. Nazio aniztasuna erakusten dute bankuetan, osasun-etxeetan eta ospitaleetako pasilloetan egindako itxaronaldiek.



Felik, bertako berriemaile batek, kontatu dit Virgen del Camino Ospitalean lan egiten duela, ama berrien sarrerako informazioan, bisitak kontrolatzen. Eta:

*Feli:* Latinoamerikar horiek gezurtiak eta bazter-nahasleak dira; edozein aitzakia bilatzen dute sartu ahal izateko. Gainera, beste herrialdeetako hainbeste jende dagoenez, beste hizkuntza batzuk ere ikasi beharra dago.<sup>103</sup>

Berak tonu gutxiesgarrian eta gogoz kontra kontatu du, baina nik tentsio gisa interpretatu dut. Tentsio hori positiboa izan daiteke, interakzioa dagoelako gertatzen baita, elkarriketa, negoziazioa; eta mugiaraztera eramaten gaituena, harreman modu berriak aurkituaraziz, eta harreman horrek eskatzen dituen hizkuntzak edo beste batzuk ikasgaraziz.

Bestalde, Eugenik, ile-apaintzaile enpresaburu batek, honela adierazi du<sup>104</sup>:

*Eugeni:* Hiru langile ditut ile-apaindegian; bat nikaraguarra da. Azken hori gizatiarragoa da, sentiberagoa, malguagoa. Zer lan egin behar den konturatzen da, ez du hanka egiten, erantzun egiten du betebeharraren aurrean. Besteek segituan aipatzen dizkirate eskubideak; beren buruan soilik pentsatzen dute, baja gehiago hartzen dituzte, kalte zeini egiten dioten kontuan hartu gabe; arauari erantzuten diete soil-soilik; eta ez itzazu hortik atera, giroa arrarotu egingo baita, geratu, eta ez da jariakortasunik egongo.

Horri dagokionez, E. Durkheimen teorietan bilatu dut erantzuna; elkartasunaz, gizarte-balioaz eta bi gizarte motez hitz egin zuen hark. Gizarte tradizionala eta gizarte modernoak deituko diegu.

Gizarte tradizionalan, elkartasuna sortzen da talde-kontzientzietatik, berdintasun-baldintzetan gizarte-talde batekin identifikatuz; gizarte horretan pertsonak komunitatearen ideia eta gauzak batera izatearena dute, eta horrek gizarte-konpromiso sendoa eragiten du; gizarte horretan ez dago hierarkizaziorik, espezializaziorik edo lan-banaketarik. Gizarte modernoan, berriz, talde-kontzientzia ahulagoa da; elkartasuna laneko gizarte-banaketak eragindako diferentzietatik sortuko da, beharagatik, eta pasioen lekua interesak hartuko du. Durkheimek anomiaz hitz egiten digu, gizarte-elkartasunaren gabezia gisa ulertuta; izan ere, etengabeko modernizazioak eragindako desorekak ez ditu arautuko organoen arteko harremanak. Bereziki, gizarte-kontratuan aurkitu du Durkheimek anomia-faktore bat, ez baitu ordenarik bermatzen.

Gizarte modernoetan gertatzen ari diren aldaketak eta eraldaketak ulertu nahi ditut horren bidez; araua gurtzen dute, normatizazioa, eskubidea —baina norbanakoaren eskubidea—, taldeari begiratu gabe; zelula independenteak bagina bezala jokatzen dute, gure ekintzek dituzten eraginetan erreparatu gabe, guztiaren artean harremana dagoela eta jarrera batek hurrengoan eragiten duela konturatu gabe. Modernotasunak etorkizunera begiratzen du, itxaropenak sortzen ditu, bizi-proiektua etenik gabe berritzeko beharra, ez lotzekoa, erantzukizunik ez hartzekoa, iraganari eta tradizioari uko egiten dio, eta identitatearen nolabaiteko krisia sortzen du.

<sup>103</sup> 2011ko martxoan.

<sup>104</sup> 2011ko otsaila.

Gertareren beste irakurketa bat ere egin dezakegu: botere gutxien duen pertsona umilagoa da, eta prest dago atsegin emateko eta behar duen lekua eta aitortpena bilatzeko merezimenduak irabazteko. Bestalde, pentsa dezakegu talde-kontzientziarik gabe botereaz jabetzeak boterea gaizki erabiltzera eraman gaitzakeela, alegia, botereaz gehiegi baliatzera.

## 8.1 Bertako biztanleekiko interakzioa

Berriemaile batzuek, zenbaitetan, aurre egin behar izan diote hainbat zailtasuni, eta haienganako jarrera negatiboen biktima izan dira une jakin batzuetan; gehienek, ordea, bertako biztanleekin harreman onak dituztela adierazi dute.

*Flor:* La relación con toda la gente de aquí es correcta, en tiendas, autobuses, vecinos... tampoco llegas a tener una amistad pero yo no he sentido ninguna discriminación de nada. En el trabajo tampoco, ellos comen en la cocina, a veces se sirven, otras veces les servimos, a veces nos ponemos con la abuela en el salón a ver la tele, no hay ninguna discriminación. Tampoco invades esa privacidad cuando están en familia, te retiras y ya, con respeto siempre.

*Fátima C.:* La relación con la gente con quienes he trabajado ha sido gente muy buena, me han tratado muy bien, son muy abiertos, les encanta saber cosas de la cultura, te aceptan, hay un calor humano. Estuve casi dos años con una abuela, tuvo una caída, fue decayendo emocionalmente y la metieron en una residencia de Oblatas. Es vasca, de Mugiro creo. Ella me contaba que se vino a Pamplona sin saber castellano, de cocinera. (...) Con Cáritas muy bien, siempre te dan ánimos, te ayudan en lo que pueden, no te cierran las puertas nunca. En la UGT también, me han dicho que prepare la solicitud, me han ayudado a rellenar y preparar lo necesario, ellos mismos me han pedido la cita para extranjería, Ainara una chica muy amable. Con la asistente social de Irurzun, Edurne, muy bien es muy maja.

*Lenin:* Aquí veo que hay mucha estabilidad en la pareja en la familia. Hay armonía, dentro de lo que cabe. Hay sus problemas, está la violencia machista de quienes matan a sus parejas, en estos últimos diez años hay muchos casos. Esto muchas veces se quiere achacar a los inmigrantes, pero no es así, hay más porcentaje de nacionales que de extranjeros.. (...) La libertad de movimiento, la seguridad, aunque allá también te mueves pero hay más riesgos, sobre todo para los jóvenes. (...) La amistad que haces con la gente, aquí es duradera, es sincera.

*Guadalupe:* Me gusta de las personas que son personas rectas, que no andan por detrás cuchicheando, te dicen las cosas a la cara. Nosotros como que no somos

tan sinceros, aunque sentimos pero no lo decimos a la cara. Me gustan las fiestas de aquí, la gente es muy respetuosa, muy correcta, sin pleitos como allá.

*Efrain:* Yo tengo muchos amigos vascos aquí. Los vascos son muy amistosos con los nicaragüenses. Hay muchos que ya han estado en Nicaragua, otros que se quieren ir. Aquí hay mucha gente que conoce algo de Nicaragua. Tengo unos amigos que son de Javier, los dueños del hotel, me invitaron hace poco a comer allá, me enseñaron el castillo, me contaron toda la historia, ahí conocí otra persona que había estado en Nicaragua.

Eguneroko bizitzan oinarrizkoak diren gizarte-sareak garrantzitsuak dira integrazio- eta segregazio-prozesuetan. Jatorriko loturak galtzearen eta lekualdatzearekin sortzen diren beharren ondorioz, hasierako harremanak beren aurretik immigratu zuten pertsonekin izaten dituzte. Baldintza ekonomikoen ezegonkortasunak indartutako «atzerritartasunak» zaildu egiten du beren erreferentzia-taldetik kanpo aisialdiko jardueretan parte hartzea. Horri erantsi behar zaizkio beste jarduera batzuetarako tarte gutxi uzten dieten batez bestetik gorako lanaldiak izatea eta ezegonkortasuna. 2011ko OPINAREN ikerketak nabarmentzen du aztertutako etorkinen % 71,5ak baieztatu duela, krisiaren ondorioak nabaritzen hasi zirenetik, gizarte-jarduera gutxiago egin dituela; eta horrek zaildu egiten du bertako jendearekin harremanak izatea (*Enfoques* 12, 2011).

*Nelson:* Aquí hay mucha gente que conoce bastante de Nicaragua. Cuando estoy viendo el fútbol en los bares y la gente te habla. Muchas veces soy el único latino que está ahí y me preguntan de dónde soy. Y cuando les digo que soy de Nicaragua veo que conocen a nuestro presidente Daniel Ortega, la bandera roja y negra del frente sandinista. Me preguntan por la situación, por la política, conversamos.

Kultura-ohituretan dituzten diferentziek eta iritsierako gizartearen zurruntasunak eragiten dute tratatu soilki formala izatea hasiera batean finkatutako harremanetan. Lan-munduan edo auzotarrekin izaten dituzte bertako jendearekin harremanak; lan-munduko harremanak, gainera, ez dira simetrikoak izaten eta, ondorioz, ez da gizarte-loturarik sortzen kasurik gehienetan.


*Miguel:* Lo más duro que me ha resultado es relacionarme con la gente de acá, la mayoría son un poco cerradas y cuesta la relación, no así con gente de otros países. Con las chicas todavía es más difícil. Yo voy a las discotecas latinas, ahí es más fácil relacionarte con las chicas latinas, no con las que llevan más de 10 años aquí porque esas ya son como las de aquí. Las chicas de acá que van a las discotecas latinas son las que están más abiertas a conocer y relacionarse con gente de allá. Van porque les agrada la gente latina, porque les gusta hablar con ellos, quieren conocerles. En discotecas como Mugi, que es música más tecno y hay poca gente latina hasta con los chicos es difícil relacionarte.

*César:* Trabajo para Miguel María Arrarás en Lekunberri. Pasó dos años como desconfiado conmigo pero ahora es al revés. El me ha dado a conocer ante los



demás ganaderos y me siento muy bien con ellos. Luego en los bares me relaciono bastante con gente adulta, con gente que también emigró y me dicen: - yo te entiendo, yo sé que es duro, porque yo también estuve en Francia y no es fácil,-. Ese tipo de personas es con quien me relaciono, que son abiertas, que ya nos conocen. También con jóvenes de nuestro país.

Migrazio-prozesu horiek iragan oso gertuko batean bizi izan zituzten gure lurreko beste batzuek. Esperientzia horrek aldatu egin zituen, eta «bestearengana» irekiarazi zituen. DEA<sup>105</sup> lortzeko itzulitako emigranteei buruz egindako ikerketan azaldu nuen gisara, positiboki balioetsitako migrazio-esperientzia bat izan dutenek ez dute zailtasunik kultura eta nazionalitate ezberdinetako jendearekin gizarte-harremanak izateko, berdintasunezko maila batean, eta kultura nagusitasuna baieztatzen duten nagusikeria eta ezaugarri etnozentratarik gabe; eta «beste»aren ekarpenekin gozaten eta aberasten jarraitzen dute. Izan ere, Balandier-ek (1993) azaldu zuen gisara, «beste» hori ez zen aurkitu konkista-baldintzetan, beste garai batzuetan bezala, eta ez zegoen, beraz, menpekotasun- eta ukazio-harremanei lotuta.



Faktore askok eragiten dute harreman eta jarrera horiek errazten eta arintzen: bakoitzaren pertsonalitateak, gizarte-trebetasunek, esperientziak, autoestimua, topatzeko guneak, igarotako denborak, eta abarrek. Begi-bistakoa da, azken lekukotasun horrek erakusten digunez, pertsona bakoitzaren ezaugarri bereziek modu nabarmenean eragiten dutela. Baina ez dirudi arrazoizkoa banakoen berezitasun horien esku uzteak integrazioa eta gizarte-kohesioa, eta are gutxiago atzerritarrari erantzukizun handiagoa esleitzeak. Jarrera irekia dutenek, zeinengan bizitzaren ikuspegi baikorra eta positiboa nagusitzen baita, elkarrekiko erlazioak bilatuko dituzte, gainerako berezitasunak

<sup>105</sup> Ikasketa aurreratuen ziurtagiri-diploma (gaztelaniaz, DEA).

estimatzeko. Bestalde, Goffman-ek (1993) adierazi zituen zein diren aurrez aurreko harremanak inguratzen dituzten zailtasunak eta eragozpenak, pertsonetako bat sozialki estigmatizatutako maila bati dagokionean. Bestea diferentetzat eta mendekotzat hartzen bada, harremana baldintzatua izango da. Goffman-ek ohartarazten du estigma batek markatzen dituen banakoak eta markatzaileak elkar saihesten ahalegindu daitezkeela — biek egin beharko baitute esfortzua egokitzeko—, baina exijentzia handiagoa erortzen dela estigmatizatuaren gainean. Estigmatizatzen duenaren epaiarekiko eta zentsurarekiko beldurrak konfiantzarik eza eta uzurtasuna eragiten ditu; baita estigmatizatu duten horren etsaitasuna ere, estigmatizazioa markatzen duenaren ezjakintasunean eta jarrera itxian oinarritzen baldin bada.

Dena dela, harreman-sareak beren aberrikideen inguruan pilatu ohi dira. Haiekin partekatzen dituzte, nagusiki, etxebizitza eta informazioa; eta lana bilatzen ere laguntzen diete. Haiek igarotako behar eta egoera antzekoetatik pasatzen dira. Gero, beste nazionalitate batzuetako jendea ezagutzen dute; haiekin amankomunean bai dituzte migrazioak eragindako eta iritsierako gizarteak emandako ezaugarriak eta arazoak.

*Fátima:* El fin de semana, voy a un piso donde hay más chicas Nicaragüenses, ese es mi oxígeno, es lo que me da vida para seguir toda la semana, porque estar encerrada toda la semana es una casa que...

## 8.2 Zerbitzu publiko eta gizarte-zerbitzuetarako sarbidea eta haien erabilera

Balio handia hartzen du iritsierako herrialdeko osasun-sare publikoko osasun-zerbitzuak askoz hobeak direla frogatzeak; eta baita osasun-profesionalek emandako tratua askoz hobe dela frogatzeak ere. Etorrinek, oro har, gazteak dira, osasun ona izan ohi dute eta behar larria dutenean soilik erabiltzen dituzte osasun-zerbitzuak. *Enfoques* aldizkariak jasotako datuen arabera, immigranteek bertako biztanleek baino gutxiago erabiltzen dituzte osasun-baliabideak. (Hala ere ez da hori bertakoen ustea). Gainera, legez kanpoko egoeran dagoenak eta etxeko enplegatuek, laneko bajarik hartu ezin dutenez, ahalik eta gehien estutzen dute laneko erantzukizuna; eta, gainera, enplegatzaileek ere ahalik eta gehien eskatzen diete (*Enfoques* 12, 2011).

*Mercedes:* Mi sueño quizás fue el de irme a Estados Unidos, porque la mayoría de nicaragüenses se van para allá. Otros muchos a Costa Rica, pero ninguno de los dos tiene mejores condiciones para los inmigrantes que los de aquí. Aquí tenemos compañeras que a pesar de estar sin papeles han tenido que ser hospitalizadas, operadas, incluso con tratamientos de quimioterapia y sin ningún coste, eso no lo puedes encontrar en aquellos dos países.

*Marcela:* La atención médica es muy buena, yo me siento muy bien, en mi país tengo que pagar todo.

*Magali:* la medicina de aquí es muy buena. Hay mucha diferencia de atención a nuestro país. Hay mucho control.

*Fátima C.:* Al centro de salud he ido unas tres veces, mi médico de cabecera Javier Oreja es muy majo, pasa consulta en Lekunberri, he ido a la ginecóloga para revisión general, que me ha atendido muy bien, pero casi no me he enfermado.

*Juanita:* Me van a operar el viernes del quiste ovárico y la jefa me dice que el lunes tengo que ir a trabajar, que ella no puede estar pagando dos salarios, que si tiene que coger otra persona me va a descontar de mi salario y que quién sabe cuánto le va a costar por horas o por unos pocos días otra empleada. Yo le he dicho que haré lo que me diga el médico.

Legez kanpoko egoeran diren pertsonen lan-egoerak bide ematen die enplegatzaileen gehiegikeriei; haien «borondate ona»ren baitan daude, eta behar larrian dagoenak erabili beharreko balioespen etikoaren eta negoziatzeko gaitasunaren baitan.

Dokumenturik gabeko immigranteen presentziak, nahiz eta baimenduta ez egon, eskubideak sortzen ditu. Lana lortzeak (ezegonkorra bada ere), hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak, oinarrizko errentak edo beste gizarte-zerbitzu batzuk eskuratzeak eta baita errotzeak ere —gaur egun dokumentatu gabeko immigranteek erregularizatzeko duten bide bakarretakoa baita—, eskubide formalez haratago, herritarren dimentsio psikologikoak sortzen ari dira. Honela adierazi zuen Saskia Sassen-ek:

Egitan, gero eta nabarmenagoa da herritartasun nozioa baldintza legezko eta formal gisa hartzetik herritartasuna proiektu arau-emaile edo xede gisa hartzera dagoen eta handiagotzen ari den tentsioa. Herritar guztiei bermatutako berdintasun formala gutxitan oinarritzen da oinarrizko berdintasun baterako beharrea, termino sozial eta politikoetan. Hitz batean esanda, egungo baldintzek sendotu egin dituzte legezko kodeen definizio formaletik haratago doazen eskubideak eta xedeak baieztatzeak (Sassen, 2003: 95).

EINeko ikastaro profesionalean sartzeari ere, behin arauzko egoeran egonda, balio handia ematen zaio. Mendebaldeko gizarteek ongizateari eta gizarte-babesari dagozkien alderdietan lortutakoa benetan hautematen eta balioesten da, immigranteak datozen gizarteetako egoerarekin alderatuz gero.

*Nelson:* Lo único bueno que he tenido hasta ahora han sido los cursos que he recibido. Esto lo valoro muy positivamente porque eso es imposible en mi país, allá el que no paga no puede estudiar, mientras que aquí tiene oportunidad todo el mundo. Ya que no he podido cumplir mis objetivos económicos, por lo menos si me preparo en algo ya siento que he aprovechado el tiempo.

Zerbitzu publikoko laguntzei izaera pribatuko edo erdi-pribatuko beste zerbitzu batzuk erantsi behar zaizkio, eta, behar den kasuan, horietara ere jo daiteke. Hori da, esate

baterako, Nafarroako Elikagaien Bankua; izaera sozialeko eta karitatezko fundazio bat dena. Fabrikatzaileen, banatzaileen eta saltokien dohainak dira han jasotako elikagaiak. Elikagai horiek guztiak Karitatezko entitateen, parrokiaren, erlijio-erakundearen, immigranteen elkarten eta beste talde batzuen bidez banatzen dira doan, aldi berean, eta laguntzen dieten pertsona kopuruaren arabera. Funtzionamendu-gastuak Gizarte Ongizateko Institutuak, udalek, kutxek eta borondatezko langileek finantzatzen dituzte. Krisiaren eraginez, elikagaien eskaerak nabarmen egin du gora. Fundazio horri gehitu behar zaio Europar Batasuneko Laguntza Plana ere, zeinak hainbat produktu banatzen baititu aurreko horrekin koordinatuta.

*Guadalupe:* A través de la Asociación nos distribuyen ciertos alimentos, los cuales hay que ir a recogerlos a Pamplona, como yo no puedo ir siempre mando a alguien y me traen algunos productos que siempre vienen bien en esta situación en la que tienes gente desempleada a tu alrededor continuamente o gente recién llegada.

Nabarmentzekoa da elkarte humanitario edo karitatezkoek, ekonomia-krisiaren eraginez, amore hartu dutela baliabiderik gabe daudenei laguntzeko. Gurutze Gorriak, Caritasek, hainbat parrokiak, kongregazio ezberdinetako mojek edo «Paris 365» Jantoki Solidarioak beharrik handiena dutenen eskaerari erantzuten diote.



«Paris 365» Jantoki Solidarioa «Gizakia Herritar» Fundazioak sortu zuen 2009an. Elikadura oinarrizko eskubidea delakoan oinarritzen da proiektu hori. Borondatezko langileekin funtzionatzen du. Laguntza ematera eskaini diren erakunde,

enpresa eta partikularren bidez finantzatzen da. Elkartzeko eta gizarteratzeko leku ere izan nahi du proiektu horrek; bizipenak partekatzeko leku bat, arriskuan diren biztanleei babesia eta berotasuna emango zaien leku bat. Fundazio horren arabera, 40.000 pertsona inguru bizi dira pobrezian Nafarroan, eta 15.000 pertsona baino gehiago muturreko pobrezia-egoeran (*Paris 365*, 2009). Giza eskubide bat da urteko egun guztietan jan ahal izatea, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera. Janaria partekatzea justizia- eta elkartasun-ekintza bat da. «Etorkin» aholkularitzaren zerbitzuarekin ere kontaktzen du, kontsulta juridikoetarako, gizarte-errotzeagatiko erregularizazioetarako, oinarrizko errentak eskatzeko, familiak berrelkartzeko eta beste hainbat kasutarako.

Aldi baterako ostatu emateari dagokionez, Nafarroak eskaintza handia du. Caritasek eta Iruñeko Udalak zerbitzuak eskaintzen dizkiete askotariko arrazoiengatik babesik gabe dauden pertsoneri. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu horiek ahalmena dute aterperik gabeko pertsonak Harrera Zentrora bidaltzeko; neguan, kaleko hezitzaileak baztertutako egoeran dauden pertsona horien bila ibiltzen dira, eta aterpea eskaintzen diete. Erriberrik izan zuen harrera-zentro bat 2006ra arte; Afrika Etxea GKEak kudeatzen zuena, eta paperik gabeko etorkin asko hartu zituen.

*Alejandro:* Dormí varias noches en mis primeros tiempos en un centro de acogida. Por lo menos no te quedas en la calle. Luego ya vas tejiendo tus redes y no es necesario.

Erlijio-pluralismoa da kultura-aniztasunak gure hiri eta herrietara ekarri duen beste elementu bat. Nafarroan orain dela hamarkada askotatik izan dira gutxien adierazpen desberdinak; eta migrazio-fluxuen eraginak sustatu eta ugaritu egin du aniztasun hori. Erlijioak funtzio sozializatzailea du kultura askotarikoen eta/edo pertsona- eta talde-identitateengan, eta, beraz, nabarmentzekoa da gizarteratze-prozesuetan duen garrantzia.

Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren Buletinaren txostenaren arabera, 30.000 pertsona inguruk erlijio nagusia ez den beste erlijio batzuk jarraitzen dituzte Foru Erkidego honetan, zeinetan, sekularizazio-prozesuen eragina izan arren, tradiziozko unibertso sinboliko kristau katoliko bat nagusitzen baita (*Enfoques* 12, 2011).

Kredo-aniztasunari erreparatuz, lehenengo postuan erlijio islamikoa praktikatzen duten eta herrialde askotatik datozen 15.000 pertsona inguru nabarmendu behar dira. Ondoren, komunitate ortodoxoa legoke; nagusiki Ekialdeko Europatik etorritako 4.000 pertsona baino gehiago direnak, eliza desberdinak biltzen dituelarik (eliza ortodoxo ukrainarra, ortodoxo errusiarra, ortodoxo bulgariarra, greziarra eta errumaniarra). Beste plano batean komunitate ebanjelikoa dago (elkarte-espektro askotarikoak dituzte: pentekostalak, karismatikoak eta beste), 4.000 bat pertsona inguru dituena, hori ere. Eta jarraian, Jehovaren lekukoak, budistak, Jesukristoren Azken Eguretako Santuen Eliza, Bahá'í Fedea, Zientziologiaren Eliza, eta beste hainbat mugimendu espiritual berri.

Migrazio-testuinguru horretan, gurtza-eremuak harrera-lekutzat hartzen dira, edo jatorriaren atzerriratzea gutxiagotzen duten harremanetarako gizarte-eremutzat. Kasu askotan, aitopen horiek gizarte-laguntza eskaintzen dute finkatze-aldian, laguntza materiala ematen diete (arropa, elikagaiak...) eta baita ekonomikoa ere pertsona behartsuei, garrantzi handiko gizarteratze-eremu dira, eta baita gizarte berrian gizarteratzeko eragile ere.

*Alejandro:* Colaboro con la iglesia San Miguel, ordenando los materiales que reparten, también he ido a alguna procesión a llevar los santos, ellos te aportan ropa o comida y sientes un apoyo.

*Yoka:* En Semana Santa estuvimos en la procesión llevando las cruces, todos los que cargábamos éramos latinos, también había algún ruso. Luego nos invitaron a un pincho y un vino. Ahora como ya me conocen voy a la iglesia S. Miguel a buscar ropa usada y siempre me tratan muy bien.

*Flor:* En un inicio algún cura me ayudó, incluso me dio algo de dinero.

*Tere:* Yo encontré mi trabajo a través de la Iglesia San Miguel.

*Sergio:* José Luis de la parroquia San Miguel en Pamplona en un inicio nos apoyó con algunos víveres. En Estella una monja que se llama Helen fue la que le buscó trabajo a Carla. La buscan quienes quieren empleadas y quienes quieren empleo. Una palabra de ella es mejor que una carta de recomendación.

*César:* Concha Erraztio, una monja que se ocupa de buscar trabajo a quienes andamos por ahí fue la que me encontró este trabajo de Lekunberri, ella vela por el cumplimiento de los derechos de nosotros los inmigrantes. Les dice en las entrevistas a los empleadores que uno tiene los mismos derechos que los españoles, las medias pagas, las vacaciones...

Azpimarratzekoa da, beraz, erlijio-erakunde horiek egiten duten harrera-lana migrazio-prozesuaren hasieran zailtasun ugari izaten dituzten biztanleekin; gizarteratzeko faktore garrantzitsu bilakatzen dira, baina, aldi berean, ongintzako egiturekiko menpekotasun-loturak sortzen dituzte. Izan ere, inpotentzia gero eta handiagoa izaten dute errealitateari aurre egiteko, eta horrek prozesu kolonialetatik eta postkolonialetatik zekarten pasibotasun eta biktimismo gero eta handiagoa eramango ditu.

Erljio-talde bakoitzaren barnean askotariko joerak ditugu. Haien arteko bizikidetzak elkarrenganako errespetua eskatzen du. Kredo bakoitzean txertatua dago «bestearen konbertsioa» lortzeko predikatzearen edo ebanjelizatzearen ideia. Bakoitza egia absolutuaren jabe dela uste izateak talka egiten du irekitzearen ideiekin, eta, ondorioz, beharrezkoa da aniztasunarekiko errespetua azpimarratzea.

*Teresa:* Mis jefes son del Opus, al principio iba con ellos a la iglesia, a misa y así, pero yo le dije a ella que yo creía en dios pero que yo no adoraba a santos hechos aquí en la tierra como el Escrivá de Balaguer, yo no puedo. Yo le digo:

usted con sus ideas y yo con las mías, yo no voy a cambiarle a usted ni usted a mí. Yo aprendo de usted, mis ideales están aquí, los reformo pero no cambio mi forma de ser. Entonces le dije que no me hablara de eso, que yo la respetaba y que ella me respetara. Ahora voy en algunos momentos especiales como ayer a la procesión de semana santa porque nos llamó Mariate y fuimos con ella.

*Fátima C.:* Alguna vez he ido a un culto evangélico, por hacerle un favor a una amiga que le pedían que llevara a otra y yo fui y me sentí bien, cantando, tocando instrumentos, había bastantes jóvenes. Lo más chistoso que me ha pasado aquí es ir a una iglesia y que rezaban en euskera y yo no entendía nada. Fue en Aldaz. Solo había señoras mayores.

Biltzeko eremu horiek gizarte-kohesiorako funtzioa betetzen dute, eta jatorri ezberdineko pertsonen arteko zubiak eraikitzen laguntzen dute, sareak beste interakzio-eremu batzuetara hedatuz.

*Fátima:* Soy evangélica, voy a la iglesia en San Juan. Llegan ecuatorianos, dominicanos, brasileños, españoles, no he ido mucho, pero me he sentido bien cuando he ido.

*Silvio:* Soy católico de educación y lo respeto pero no voy mucho a la iglesia, a los curas les tengo como un poco de desconfianza, no me gustan las formas, no me atrae. Soy creyente pero no practicante. Mi esposa es de la iglesia ortodoxa.

Beste gizarte-eremu batzuetan gertatzen den antzera, gurtza-lekuetan ohikoa da nazionalitate desberdinetako jendea bateratzea. Erljiozko praktika eta etniarteko bizikidetzak horiek kulturarteko harremanak sustatzen dituzte, diferentziak eta alderdi komunak elkarri aitortzeari eta ulertzeari lotuta.

### **8.3 Euskararengana hurbiltzea**

Migrazio-prozesuaren elementu bat da jatorriko lekura itzultzeko intentzioa. Jatorriko herrialdetik atera aurretik, prozesuaren lehen fasean, ia inork ez du adierazten iritsierako lekuan geratzeko asmorik. Gehienek denboraldi baterako ibilbidetzat hartu dute, bai beste esperientzia batzuk izateko, mundua ezagutzeko, beste aukera batzuk izateko, edo helburu ekonomikoengatik; baina guztiek dute, amankomunean, beren asmoen aldi baterako izaera hori. Beste batzuek ez dute ezer planifikatzen; eramaten uzten dira, eta etorkizuna bere kasara eraikiko da. Errealitate historikoak erakusten du hasierako asmoak eraldatu egiten direla, eta aldi baterako izaera hori luzatu egiten dela; dena dela, telekomunikazioen garapenak faktore berriak sartzen ditu egungo errealitatean, eta ez dakigu globalizazioak zer eragin izango dituen migrazioan.

Itzuleraren mitoak zerikusi handia du iritsierako herrialdeko hizkuntzarekiko motibazioarekin; eta gure egoeran, euskara ez baita ofiziala Foru Erkidegoaren zati handi batean, etorkinek ez dute euskara ikasteko beharrik sentitzen, eta ezta iritsierako herrialdean erabat integratzeko beharrik ere.

*Silvio:* Yo no sabía antes de venir que aquí había diferentes idiomas. No he aprendido más que alguna palabra del euskera, no me he puesto a estudiar pero algún día lo haré.

*Flor:* Cuando vine aquí yo pensaba que aquí solo se hablaba el español, luego vas oyendo en el bus y dices y esto qué es. Y te dicen que es el euskera, y a mí me gusta, quisiera saber qué hablan, me gusta escucharlo, me gustaría aprenderlo.

*Nelson:* Me llamaron la atención las palabras en euskera, yo no sabía que aquí hubiera otro idioma.

*Mercedes:* Del euskera no sabía ni que existía. Me gustaría aprender algunas palabras.

*Magali:* Aquí me di cuenta que en el País Vasco se habla otro idioma, pero no conozco nada.

*Lenin:* No he aprendido más que algunas palabras de euskera, pero me gusta, quizás algún día.

Egon dira saiakera txikiak euskara immigranteengana gerturatzeko, baina, oro har, Nafarroan ez dago etorkinek alfabetatzeko euskaltegiek bideratutako lanik.

Foru Erkidego honetan, Espainiako estatuz kanpotik iritsitako immigrante oso gutxi aukeratu dute D hizkuntza-eredua beren seme-alabak eskolatzeko. % 1,6a soilik dago matrikulatuta eredu horretan; eta hori ez dator bat bertako biztanleen ehunekoarekin, zeina % 22,04 izan baitzen 2009/2010 ikasturtean (*Enfoques* 12, 2011). Horrek zailtasunak dakartza gizarte-kohesiorako, eta orainean eta etorkizunean arlo guztietan integratzeko.

Nafarroako nikaraguarrek ia ez dute seme-alabarik eskolatzeko adinean; beraz, egoera hori ezin daiteke beha, oraingoz.

Egoera oso bestelakoa da Nafarroako iparraldean, nagusiki euskaldunak diren herrietan; herri horietan, euskaldundu egin ziren Espainiako estatutik 60ko eta 70eko hamarkadetan industrializazio-prozesuaren ondorioz etorritako immigranteak, eta baita haien seme-alabak ere. Honela adierazten du Aitor Etxarrik, Nafarroa Bai-ko foru-legebiltzarkide leitzarrak:

Garai hartan gertatu zen kultura-aniztasuna segituan kulturartekotasun bilakatu zen; eta etorkinen seme-alabek Leitzako kultura, ohiturak, hizkuntza... hartu zituzten beste edozein leitzarren antzera. Seme-alaba horiek beste edozein



leitzarren pareko izatera igaro ziren, beren gurasoen nondik norakoa galdu gabe (Etxarri, 2010).<sup>106</sup>

Eta honela dio Sakanako beste pertsona batek: «Herrietan etorkinenganako hurbiltasun handiagoa dago; hirian ghettoak egiten ari dira, eta ez dago harreman handirik, baina herrietan errazagoa da. Gure herrietako jendearen mentalitatea asko aldatu da».<sup>107</sup>

#### 8.4 Itxaropenak betetzea

Itxaropenak bete diren aztertzean, saihestu behar izan dituzten zailtasunak gorabehera, balantzea positiboa dela kasu gehienetan antzeman daiteke; baina kontuan hartu behar da prozesua amaitu gabe dagoela, esperientzien hasieran besterik ez gaudela, ziur aski. Gogo-aldarte orokorrari dagokionez, emozio positiboak gailendu egiten zaizkie negatiboek. Emoziorik ohikoenak lasaitasuna, poztasuna eta harrotasuna dira. Kontuan hartu behar dugu gehienak egoera estresagarrietan eta itota sentitzen zirela jatorriko herrialdean, etorkizunerako itxaropen ezagatik; ondorioz, aldaketa ona da funtsean.

*César:* He conseguido mis objetivos, para poder vivir hay que sufrir, mi padre me dice: -Tú estás en una escuela ahorita, en la escuela de la vida, te estás formando, te estás haciendo un hombre de valores, porque esa vida que estás llevando te está haciendo madurar bastante-.

Hunkitu egin da hori kontatzean; eta honako hau gehitu du, malko artean:

El venirme aquí no ha sido malo, ha sido una experiencia bonita. En el tiempo que he estado aquí he puesto una farmacia veterinaria allá en Nicaragua, lo atiende mi hermano, si él me la roba que me la robe, él me pagó el pasaje.

*Magali:* Mi experiencia aquí la valoro como buena, aquí soy feliz, aunque me hacen falta los niños, pero con Manuel estoy muy bien, trabajando los dos, somos como más iguales. Me gusta la forma de vivir. Uno trabaja pero aquí tenemos todo, vivimos bien. Estoy contenta de haber venido, se siente con más fuerza uno, vamos ahorrando dinero para hacer la casa allá. Estamos comprando ganado. El padre de Manuel los cuida. La relación entre hombres y mujeres me gusta mucho, porque salen juntos, en nuestro país no salimos tanto juntos, cada uno anda por su lado muchas veces. Luego los hombres te tratan con mucho respeto. Aquí Manuel se ha acostumbrado a salir conmigo, allá se iba y me dejaba en casa. Aquí vamos juntos. Me gusta más la forma de aquí, ya nos hemos acostumbrado a las formas de aquí. Económicamente andamos bien, porque los dos, hemos estado trabajando todo el tiempo y gastamos uno y el otro

<sup>106</sup> NUPeko «Kultura-aniztasuna...» ikasgaiko etnografia-lana.

<sup>107</sup> Bertako berriemailea. 2009ko irailaren 18a.

podemos ahorrar, así hemos podido comprar un terreno allá en Nagarote y ya hemos empezado a construir la casa (y me enseña los planos). Tenemos la idea de continuar por ahora aquí, pero hay que ver como continua el tema laboral, si se resuelve lo de la crisis, si seguimos aquí nos traeremos a los hijos y sino pues nos regresaríamos allá. Aquí no hay mucha seguridad, todo es temporal, por ahora no pensamos traerlos, hasta que Manuel tenga la residencia por lo menos.

*Teresa:* Aunque me dolió en el alma pero yo no me he arrepentido de haber venido. Siento que he hecho muchísimo, he encontrado gente tan buena que me ha ayudado, donde voy trato de agradecer siempre. Este país me ha dado la oportunidad de superarme. Si no me hubieran dejado entrar no hubiera hecho nada. A mí me ha gustado muchísimo esta experiencia. Leí en alguna parte que si uno no sale de su país sólo conoce la primera página de sus libro. Uno tiene que salir, conocer otro país, otros lugares e ir llenando cada página de tu libro. Esta experiencia me ha cambiado totalmente, mi manera de pensar, el día a día de aquí te va cambiando, vas viendo la vida con otra perspectiva. He aprendido a quererme. Yo me siento cada día más joven y esta experiencia me ha cambiado, ahora me valoro mucho más.

Eztabaida-taldeetan eta elkarrizketetan pertsona batzuek nabarmentzen zuten gisan, indar handia ematen die hainbeste zailtasun gainditu izanaren eta aurrekoa baino egoera hobean egotearen harrotasunak; eta adierazi dute migrazio-esperientziak aldatu egin dituztela, sendotu egin dituztela, eta bizitza ulertarazi diela.

*Carelia:* Esta experiencia me ha hecho crecer como persona, me ha hecho sentirme útil, útil con mi vida, que tengo un trabajo, que puedo disponer de un dinero, que voy ahorrando, que le envío dinero a mi madre y a mi hermano. Desde que estoy aquí no he dejado de enviar dinero. Allá ves pasar la vida. Te levantas, haces todos los días lo mismo, sin hacer nada, se van pasando los años.

*Mercedes:* A pesar de las dificultades yo valoro positiva la experiencia y la estancia aquí. En estos procesos de cambio toca sufrir un poco pero ya le vas dando la vuelta. Son barreras que tenemos que cruzar.

*Flor:* Yo estoy agradecida a este país porque no todos los países te acogen. Tratan de ayudarte cuando ven que eres un inmigrante. Nosotros somos los que a veces hacemos cosas como que estuviéramos en nuestro país y quizás molesten a los de aquí, a mí nunca me ha molestado la policía, ni nadie. En todos los sitios donde he entrado he estado tranquila, claro que si tu no respetás, como hace alguna gente latina que anda alborotando, invadiendo y todas esas cosas, cualquiera se molesta. Yo llevo tres años aquí y estoy agradecida. A veces he oído gritar: -estos putos españoles y no sé qué...- Yo no, yo agradezco que me hayan aceptado aquí, te integras aquí a esta vida, te dan la tarjeta sanitaria, tienes un salario. En Nicaragua trabajas durísimo y el salario es una miseria. Para nosotros el trabajo no es muy pesado aquí, te cansas claro, normal, pero estas

bien. Yo a cualquiera diré que te reciben bien, que si tú te portas bien los demás también. Pero a pesar de eso yo no les aconsejo a mis hermanas o conocidas que se vengán porque es duro estar lejos de tus hijos. El clima es muy duro. No estás acostumbrado a eso. Estar lejos de la familia. No he tenido vacaciones en los tres años, aunque sí me pagan las vacaciones y las pagas extras.

Migrazio-esperientziak dibertsifikatze soziokultural berri bateko askotariko prozesuen emergentzia dakar berekin. Emakumeek adierazten dute aldaketa handiak nabaritu izana beren pertsonalitatean eta jarduera positibo asko pilatu izana. Nahiz eta emakume horietako askok debaluazio profesionala jasan behar izan duten, generoari dagozkion gizarteratze-prozesuaren berezitasunek, kasu honetan, erraztu egiten dute egokigarritasuna. Harremanak izateko eta berezko harremanak finkatzeko «trebakuntza», gertuko tratu pertsonal ez hain oldarkorra, zaintzen alderdiak duen ahalmena, jatorriko herrialdean utzi dituztenenganako erantzukizuna, beren emozioak gizarteratzea; azken finean, kasu honetan, beren alde jokatzeko duen besteen beharrak artatzen daukaten esperientziak, eta haienganako sentsibilitate handiak.

Immigrazioak emakumearen aurpegia du, gero eta gehiago. Orain dela hamarkada batzuetara arte, migrazio-fenomenoa jarduera maskulinoa izan bazen nagusiki; gaur egun, errealitate hori aldatu egin da. Emakume horietako gehienek beren herrialdean utzi dituzte seme-alabak, eta beren herrialdeak ukatzen dizkien aukeren bila bidaiatu dute, beren seme-alabentzat etorkizun hobea bat desio baitute.

Gainera, jatorri edo nazionalitate jakin batek, pobretzat edo azpigaratutzat hartzen denak, etikeka jartzen die automatikoki emakumei, eta desabantaila-egoeran kokatzen ditu; horrek eramaten ditu kualifikatu gabeko lanetara edo prestigio gutxiagokoetara. Modu horretan, emakume etorkinaren, Europako Erkidegokoa ez denaren eta, batez ere, paperik gabe dagoenaren lana jarduera eta betebeharrak batzuetan pilatzen da; hala nola, enplegu informaletan eta arautu gabekoetan.

*Mercedes:* Me siento bastante bien en esta familia, ya llevo un año con ellos, aunque hay sus dificultades. Ellos habían tenido empleadas de aquí, tenían dos con unos horarios estipulados por la ley, con sus días festivos. A ellos les salía mejor económicamente mi servicio. Al entrar yo a trabajar como soy una inmigrante y no tengo papeles, me contratan por menor salario y por más horas. Mientras las otras estaban de lunes a viernes a mí me tienen de lunes a domingo.

*Carla:* Estoy trabajando en Eus, un pueblo cerca de Estella, cuidando a gente mayor. No tengo ni un día libre. No me importa mucho, porque Sergio está sin trabajo ahora, si él trabajara podría dejar alguno pero... estando como estamos tengo que trabajar. A eso vine aquí a trabajar y no a otra cosa. Mi niño tiene su colegio, lo que necesita, cosa que antes no le podíamos dar tan fácilmente.

Immigrazioa areagotzea estuki lotua egon zen bai Espainiako estatuko ekonomian gertatutako aldaketa sakonei, bai haiek jatorriko herrialdean duten babesgabetasun-

egoerari. Hemen, 90eko hamarkadaz geroztik, enplegu-tasa azkar hazi zen, eta etorkinak sartu ziren lanpostu horietako askotan; gehienez, gutxien ordaindutakoak, babesik gutxienekoak eta ezegonkorrenak ziren. Bertako emakumea gero eta gehiago hasi zen (ordaindutako) lanean, eta horrek arriskuan jarri zuen tradizioz emakumeak egin izan zuen etxeko lana. Emakumea lan-merkatuara sartzeak, ordea, ez zuen gizonaren lan-ohiturarik aldatu, eta etxeko lanak eta haurrak eta adinekoak zaintzearen ardura ez zen generoz aldatu; izan ere, gehienez, emakume etorkinen eskuetara pasa zelarik.

Emakume immigranteen lana iturri garrantzitsua da onura ekonomikoak lortzeko familientzat, enpresentzat eta Estatuentzat. Talde horien gainean egindako presioa ez da soilik erresistentzia txikiagoa egiten dutelako —historikoki menpekotasun- eta esplotazio-egoeran egon dira, ertzetan—, baizik baita gaur egun helmuga-herrialdeetan diren merkaturatze-politiken ondorioz ere.

*Eugeni:* Tener un empleado sin papeles, para mí es algo favorable, el no tener que pagar la seguridad social te baja mucho los costos. Él hace un papel importante por su flexibilidad de horarios. Ambos nos beneficiamos de esta situación.

Lan-merkatuaren egungo antolaketak tokiko lan-indarrak alde batera utzitako sektore zehatzetan kokatzen ditu etorkinak, jarduera horiek gero eta desarautuagoak eta ezegonkorragoak baitira; eremu jakin batzuetan lan egiteko baimena murriztu egiten zaie, eta sektore horiek dira, hain zuzen, lan-merkatuaren erreformak gehien eragin dietenak.

Migrazio-prozesuaz egiten den ebaluazioa aldatu egingo da, segun eta zer alderdiri gagozkion. Balioespen positiboa nagusitzen bada ere, askotan, izandako kostua eta izan dituen eraginak balioesten dira.

*Nelson:* Yo no le aconsejaría a mis amistades, a mis familiares que se vinieran, que emigraran, porque no es nada fácil la vida aquí, les diría que se vinieran a pasear, a conocer los sanfermines... pero a trabajar no. A las mujeres sí, porque el trabajo para ellas está mejor.

Iritzi hori izan arren, Nelson bere aurretik eta bere ondoren emigratu duten familiakoez inguratuta dago. Gehienak emakumeak dira, eta lanean ari dira. Berak izan ditu zailtasunik handienak lan egonkor bati eusteko.

*Fátima:* No lo volvería a hacer. Por parte del dinero no lo haría porque trabajando uno puede salir adelante, y en lo personal, el sufrimiento que me ha producido... No volvería a venir a España. La experiencia sirve y por ese lado podría volver a hacer, pero por el sufrimiento, por los hijos, es muy duro. El tipo de trabajo te afecta, no el trabajo en sí pero sí la relación con los patrones, el convivir las 24 horas, estar en las peleas de ellos y que luego se descarguen contigo... A uno le perjudican moralmente, la poca valoración o la valoración

negativa, que si esto lo has hecho mal... es un maltrato continuo. (...) Mi sueño a veces pienso de que es traerme a mis hijos aquí, pero no sé, también me da miedo, uno como inmigrante puede ser rechazado y aguanta pero que mis hijos sientan ese rechazo. Me pongo a pensar en traerlos y ponerlos en una escuela aquí, pero pienso en lo que pueden sufrir, entonces hay algo que me impide seguir soñando eso. He oído a muchas madres que han traído a sus hijos y que han sufrido mucho para adaptarse, entonces ese es el miedo.

Migrazioak berekin dakartzan zailtasun guztiak gorabehera, emakumeak nabarmen nagusitzen dira. Elkarrekin egin ditugun lantegietan, pozik agertu dira ausartak eta indartsuak izan direlako, eta estutzen duten bitarteko batzuetatik atera direlako. Askeago sentitzen eta autoestimua igotzen laguntzen die beren jatorriko herrialdetik urrun egoteak, anonimatoak edo eremu berrietan hautemandako ezaxolak, beste erreferentzia-puntu batzuk izateak, eta beste harreman eta bizikidetzak modu batzuek. Gainera, hango inguruko enbriatzaile positiboa sentitzen dute, dirua bidaltzen baitiete, eta berek hartutako erantzukizunei eutsi egiten baitiete. Itzulerari ere badiote beldurra, oraindik horrelakorik pentsatu ez badute ere. Batzuen helburua seme-alabak ekartzea da ahal bezain laster; beste batzuek, berriz, bi munduen artean bizitzea pentsatu izan dute, denboraldika. Eta beste batzuek epe luzeragora itzultzeaz hitz egiten dute.

*Flor:* Al regreso con mi marido yo no sé cómo será, yo le digo por teléfono que también tiene que cambiar que aquí hay mayor igualdad entre hombres y mujeres, que los hombres ayudan en casa, que trabajan iguales, que cuidan de los hijos por igual, yo creo que ya lo está viendo él. Antes él nunca hacía nada, ni la ropa, nada nada. Yo le digo: -ahora usted me tiene que ayudar, yo estoy aquí haciendo de hombre y de mujer, así le voy metiendo poco a poco para que cuando llegue no sea una bomba.

Ordaindutako lan-indarra emakumetza faktore positiboa da, emakumeen autonomia areagotu badezake; ez du, ordea, sexuen arteko berdintasunik bermatzen. Faktore askok oztopatzen dute, oraindik ere, berdintasun hori: bai etxeko lanen banaketan dagoen asimetriak, bai lan-merkatuan legeria berezituak eta diskriminaziozko jarrerak irauteak. Beste kontu bat da gizonek eskaera horri erantzutea, horrek tentsioak eragitea, edo nola bideratuko diren tentsio horiek ikuskatzea.

Nikaraguako egoera ekonomikoa deitoragarria dela eta izan dela hartu behar dugu kontuan, ezer baino lehen; biztanleen % 22,64ak emigratu egin duela; eta, ondorioz, beren herrialdetik kanpora izandako esperientziaz poztasuna agertu dute elkarriketatuko pertsonen lekukotasunek, hemen izandako zailtasunak zailtasun, hobekuntza ekonomikoa azkar nabaritu baitute, batez ere emakumeek.

Ez da gauza bera gertatzen egoera hain muturrekoa ez den herrialdeetatik datozen pertsonen kasuan —historia gutxi-asko berria eta nazioartean pisu handiagoa duten herrialdeak dira—; horrelako kasu bat azaldu digu Nihad-ek:

*Nihad:* En Iraq teníamos un buen nivel de vida, es cierto que teníamos problemas políticos pero teníamos trabajo y estábamos bien. Ahora un hermano está en Bélgica, otro en Indonesia, yo estuve en Siria y ahora aquí. En otros países de Europa como en Alemania, Holanda, Inglaterra... hay mejores condiciones de vida, aquí falta mucho.

Hemengo baldintzak arbuiatuz bizi da. Bere begirada, bere erreferentzia-puntua, bere ilusioa neurri handiko aurrerapena da. Itxurari balio handia ematen dio; etxe on bat, auto on bat, arropa ona, beste herrialde batzuetan igarotako oporrak (hori erakusten duten argazki askorekin)... horrek guztiak orekatzen du bere ingurunearekin hautsi izanaren ondoeza eta beste batera egokitu behar izatea.

## 9. Itzulera

Amaitzeko, hitz egin dezagun itzuleraren gaiaz; izan ere, hori da, bide-erakusle izateaz gainera, hasierako nahiak eta proiektuak zehazten diren puntua; eta, askotan, horrek mantentzen du jatorriko herrialdean jarritako helburu baten mesedetan sakrifikatzeko motibazioa. Denboraren joanak eta ibilbideko esperientziek egokitu egingo dituzte edo norabidez aldarazi, zenbaitetan, helburu horiek.

*Alejandro:* La experiencia la valoro muy positivamente, he aprendido mucho, me he adaptado bastante. Yo tenía un objetivo al venir, ahorrar un poco de dinero y hacer algo en mi país. Mi situación económica no es favorable todavía aquí y no me puedo quedar allá. He tenido la vida un poco desordenada. He sido informal, he vivido con algunas chicas y eso me ha llevado tiempo. Yo quiero tener una pareja y estabilizarme, pero no ha llegado. Todavía me quedaré algunos años más. La esperanza es de que esta situación de crisis de aquí se supere. Los hijos quieren venir aquí pero mientras no tenga una estabilidad no puedo hacer planes de traerlos.

*Efrain:* He resuelto todos los problemas de allá, las deudas que tenía las he cancelado, he construido una casa en la finca, he comprado ganado. Mi hermano administra la finca, desde que éramos jovencitos trabajábamos juntos, éramos socios, nos llevamos muy bien. Nunca tuvimos problemas. Tengo allá dos hijas y dos hijos de 15, 14, 8 y 5 años. Las hijas me dicen que me quede un poco más, que haga un poco más de dinero, que ellas dos están bien con mi hermana, Los dos varoncitos están en la finca con mi mamá y mi papá. Cuando yo me vine, mi niño menor tenía 8 meses, cuando regresé de nuevo tenía un año y medio, por lo que él no me conoce prácticamente. Mi idea es estar tal vez unos dos años más, recuperarme un poco, y regresarme a Nicaragua. A ver si saco la nacionalidad para que me facilite quizás si alguna hija se quiere venir o lo que sea.

*Fátima C.:* Mi situación económica aquí ha mejorado. Mis expectativas se van cumpliendo, la experiencia ha sido muy positiva, yo estoy muy contenta de estar aquí, lo que nos ha molestado es no tener papeles todavía y no poder viajar a nuestro país. Cuando sea mayor tendré muchas cosas que contar. Hay que aprovechar la juventud para trabajar en diferentes cosas, tener curiosidad, enriquecerse con las cosas positivas que te aporta para tu desarrollo humano. Claro que todo es muy personal. Nosotras hablábamos mucho de España, teníamos algún abuelo que era de España, el apellido Marín dicen que viene de ahí. Yo volvería a emigrar, yo me siento bien. No tengo nada definido pero mi idea o lo que me gustaría hacer sería pasar 6 meses aquí y otros 6 meses allá.

*Flor:* Yo me imagino dentro de unos años en Nicaragua con mi casita, con mis hijos, con una pulpería pequeña tal vez. No me planteo para nada traerme mis hijos para acá, no tengo condiciones tampoco, estoy sola, no puedes dejar a los hijos solos, tengo que trabajar, eso no es vida. No puedo quedarme eternamente aquí, porque mis padres también están mayores. Tengo varios hermanos en Costa Rica. Mi familia me apoya pero también me dice que me vaya, que me necesitan. Los pequeños me dicen mami yo no te conozco... Antes de irme lo tengo que pensar bien porque no sé si regreso.

Jatorriko herrialdearekin lotura oso sendoak dituzte; gehienek han dituzte seme-alabak. Izan ere, kontuan hartu behar dugu, batetik, immigrazio hori berri samarra dela eta legez kanpoko egonaldia gutxienez hiru urtean luzatzen dela; eta, bestetik, guztiek ez dute seme-alabak ekartzeko helburu hori, baizik eta aldi baterako gisa ikusten dute beren plana, eta begirada han jarria dute, itzultzeko asmo osoarekin. Han utzi zituztenekin eguneroko harremana dute batzuek, edo behintzat asterokoa; oso gertuko segimena egiten diote egunez egunekoari, eta beren familia mantentzen dute hemendik, bai ekonomikoki bai afektiboki.

Migrazioaren helburua ekonomikoa denean, itzulerako ideia gertuago ikusten da; denboraren joanarekin eta behin lortu ondoren, ordea, beste helburu batzuk sortzen zaizkie; beste batzuek ez dituzte lortu aurreikusitako helburuak; eta, ondorioz, batzuek eta besteek atzeratu egiten dute itzulera.

*Carelia:* Yo no quiero ir a Nicaragua a vivir. Aquí se está mejor, es un mundo distinto. Quisiera traer a mi madre, pero está difícil lo del reagrupamiento familiar ahora.

Askotan, kualifikazioa eta gizarte-maila balioz gutxitzea dakar immigrazioak, beren herrialdean zutenarekin alderatuta; hemen irauten badute, beraz, beste elementu batzuk balioesten dituztelako edo emigratzaile garaile gisa itzuli nahi dutelako da; segurtasuna eta autonomia dituzte helburu nagusi. Etorkizunaren gaineko kontrol handiagoa, bizitza material seguruagoa lortzea berentzat eta beretarrentzat; berehalako beharrak aseta eta aukeratzeko askatasun handiagoa nahirik.

*Teresa:* Quiero regresar a mi país. Pero primero quiero lograr la nacionalidad española, porque uno nunca sabe. Quiero volver a mi país, vivir en mi país, cuidar a mi madre y a mi padre y estar al lado de mis hijos. Quiero ir a Nicaragua en Agosto de 2012. En diciembre terminaré de pagar mi casa y saldré de todas las deudas. Por eso trabajo extras también los fines de semana, todo lo que pueda.

*César:* Yo estando allá en Nicaragua tenía la libertad de irme para donde yo quisiera, pero no tenía condiciones económicas. Hoy aquí tengo las condiciones económicas pero no tengo aquella libertad. Yo le digo a mi papa: -Aquí estamos como dice la canción: “De qué me sirve el dinero, si estoy como prisionero dentro de esta gran nación, cuando me acuerdo hasta lloro, aunque la jaula sea de oro, nunca deja de ser prisión”. He conseguido en gran parte mis metas. Por eso quiero regresar. Pero antes tengo que conseguir los papeles.

Paperek amets ugari zailtzen dizkiete, baina, aldi berean, aitzakia izan daitezke jarraitzeko erabakia zalantzan ez jartzeko. Ia guztiek azpimarratzen dituzte esperientziaren alde positiboak, eta, beraz, proiektuaren zikloa itxi arte jarraitu nahi dutela pentsa dezakegu. Norberaren edo familiaren proiektuetarako aurreztu nahi dute, lan-ibilbide egonkor bat ziurtatzeko, lortzen ari direna galtzeko arriskuak arrastxikiagotuz. Familiarentzat babes handiagoa bilatu nahi dute, etorkizunera begira jarri, jatorriko herrialdeak eskaintzen dituen edo eskaintzen ez dituen baliabideen menpe ez geratzeko itxaropenarekin, etorkizunaren jabe eginez eta begirada jatorriko herrialdean jarrita.

*Guadalupe:* Mi objetivo era estar un año y regresarme, pero no ha sido así, pero sí he resuelto mi situación económica. Mis planes son muy grandes, yo quiero regresarme, yo tengo los principios allá, tengo mi tierra, mi casa, tengo que sacar adelante a mis hijos, si me enamoro de nuevo vivir juntos, trabajar juntos. Soy una mujer joven y tengo que seguir adelante. No sé si podré trabajar en lo mismo, no lo sé. Quisiera comprarme un camión, para poner a trabajar a uno de los hijos. Le dije a mi yerno que está en Estados Unidos que me apoyara, allá son más baratos y se puede comprar y llevar a Nicaragua, él viaja cada seis meses. El no tener papeles me agobia porque no puedo ir a mi país, tengo que esperar, tampoco te hacen contrato de trabajo, hay que esperar, tener calma.

*Fátima:* Hasta ahora no he podido ahorrar nada. He terminado de pagar a mi madre, y le mando para mis hijos, pero ahora ya creo que estoy en condiciones de poder ahorrar. Por lo que mi marido estuvo casi un año sin trabajo, yo no pude ahorrar nada. (...) Mi meta es irme a Nicaragua el otro año, si consigo regularizar los papeles. Muchas cosas he descubierto aquí, de mí misma, cosas íntimas, con mi pareja, de la relación... Me doy cuenta que yo tenía una venda en mis ojos, yo decía que era imprescindible tener un hombre y con ese miedo de que si mi esposo se iba... que quién les va a dar de comer a mis hijos, quien va a traer la sal para la casa... Yo aquí me he venido a dar cuenta de muchas



cosas, de que nosotras las mujeres valemos mucho, de que somos primero madre, segundo madre y tercero madre, primero mujer, segundo mujer, tercero mujer, un hombre no es lo más imprescindible, podemos seguir sin el hombre. De eso me he dado cuenta y le doy gracias a dios que me ha traído a este país. Mi fuerza de voluntad es grande.

Itzulera kokapen hobea lortzeari lotuta dago. Kontrakoa porrot-sentimenduari aurre egin behar izatea litzateke. Bere asmoei aurre egiteaz gainera, datorren taldearen exigentziei ere aurre egitea. Arazoak konpontzeko migrazioa aukeratzeak haustura bat dakar bertan geratzea aukeratzen dutenekiko; baina azken horiek joan zenaren ahalegina balioetsiko dute, batez ere parametro ekonomikoetan. Ez da oharkabean igaroko gainerakoen begiraden aurrean; arriskatu zenaren ahaleginetik onuraren bat ateratzea espero duten familiakoek eta adiskideek seinalatuko dute arrakasta edo porrota, inbidia edo gorazarrea. Horregatik, jatorriko herrialdera egiten dituzten bisitetan botere-zeinuak eraman behar dituzte (itxura ona, arropa, apaingarriak, aparatuak, opariak eta gastuen arrandia), aldaketaren zantzuak, ondo doakion itxura. Material ukigaietan neur daitekeen garaipenak soilik bihur dezake errebeldia- eta bereizkuntza-ekintza meritu. Alderantziz, zailtasunek zapalduta itzultzen dena isekarako eta zigorrerako arrazoi izango da. Arriskuak eta zailtasunak dakartza emigrazioa aukeratzeak, taldetik eta ingurunearen segurtasunetik bereizteak, ezezagunarekin ausartzeak, nabarmentzeak.

*Silvio:* Una compañera se acogió a las ayudas para el retorno voluntario. Yadira, ya que se encontraba con problemas familiares allá y no contaba con recursos suficientes para regresar. La condición es que no puede regresar para acá en cinco años. Luego yo sé que lo intentó pero la regresaron del aeropuerto.

Nafarroako Gobernuak laguntzak ematen dizkio Gurutze Gorriari, zaurgarritasun-egoeran diren pertsonak jatorriko herrialdera itzultzea kudeatzeko eta diruz laguntzeko.

## IV. ATALA

---

### AZKEN GOGOETA

Orri hauetan zehar, nikaraguarren taldeak Nafarroan kokatu denean, emigrazio-prozesuan bizi duen egoera aztertzen saiatu naiz. Agerian utzi nahi izan dut espazio eta denbora jakin batean bizikide garen jendearen arteko harremanen eraikuntza, zeinak loturik baitaude politika nagusiekin eta nazioarteko lotura historikoekin. Aipatzekoa da, ikertu den taldearen migrazio-esperientzia, oro har, balantze positiboa badu ere, ez dagoela gatazka eta bidegabekieretatik libre. Emaitzak ez dira judizio kategorikoak, baizik eta zenbait pertsonak ibilbidea zer baldintzatan egin dutenaren inguruko hausnarketak dira; pertsona horiek, hain zuzen, mugatuak dituzte beren asmoak beste leku batzuetan jaio izanagatik, eta, horretaz gainera, gizarte berrian integrazio-/bazterketa-prozesuei aurre egin behar izaten diete. Egungo ziurgabetasunak eta abiadura handian gertatzen ari diren aldaketek gure inguruan gertatzen ari dena ulertu nahi izatera garamatzate, baina nekez ezar daiteke egia absoluturik.

Migrazioa konstante bat da gizadiaren historian. Beste herri askoren antzera, euskaldunon herria ere emigrantea izan da garai batzuetan; eta, gaur egun, gertakari horien erakusgarri bizidunak topa ditzakegu planetako leku askotan. Antzekotasunak aurkitu ditugu prozesu haien eta gaur egungoen artean, baina baita desberdintasunak ere. Mugitzeko arrazoi pertsonalak bat etor badaitezke ere, norabideak, moduak eta prozesuak desberdinak dira kualitatiboki antzinako migrazioetatik.

Aztertu dudan lehen gaia izan da zein diren jendea emigratzera bultzatzen duten kausak eta arrazoiak. Bizitzaren kontaketen azterketa egin, eta zera ondorioztatu dut: jatorriko herrialdea —kasu honetan, Nikaragua da; baina beste herrialde asko ere izan litezke— Estatu Batuetako inperialismoaren politika neolibelaren menpe dago; politika horiek inposatzeak nazioarteko desoreka ekonomiko handia eragin du, eta horrek biztanleak jatorriko herrialdetik aterarazi ditu, beren herrialdean betoa jarria duten aukeren bila. Planetaren luze-zabalean gertatzen ari diren gerra militarrek, ekonomikoek, politikoek edo/eta sozialek, okupazioek eta esku-hartzeek jende asko lekuz aldatzea eragiten dute; jende hori baztertu egiten dute edo haietaz baliatzen dira, horrela, indarrean jarraitzen du globalizazio neoliberalaren kate luzeak. Hau dio Xabier Aierdik:

Askotan, migrazio-prozesua norberak gauzatzen duen arren, baldintzapena ez da norberarena izaten; ez da bidaia autodeterminatu eta baldintzatu bat baizik (Aierdi, 2011).<sup>108</sup>

---

<sup>108</sup> Xabier Aierdi, «Ilargipean», Euskadi Irradia, 2011-05-19.

Ez diete erantzuten herrialde jakin baten egoera zehatz batzuei ere, baizik eta batzuek besteen gain duten nagusitasunean oinarritutako nazioarteko harreman asimetrikoen arrazoi historiko eta egiturazkoei. Era berean, lekukotasunetan agerian geratzen den gisara, herrialde igorleko eta hartzaileko jendeak aurrez dituzten loturek sortzen dituzte mugimenduaren norabidetasuna errazten duten sareak. Leku batera edo bestera lekualdatzen laguntzen duten arrazoi gutxi-asko pertsonal askotarikoak ditugu, familia-esperientziak edo tokikoak, eta helburu partikularrak eta desberdinak; baina guztiek izendatzaile komuna dute: bizi-baldintza hobekak bilatzea berentzat eta familiakoentzat, eta jatorriko herrialdean itxuraz debeku jarri dieten aukerak bilatzea. Izan ere, pertsona askorentzat jaio ziren eta hazi ziren lekua ez da leku bideragarria edo desiragarria proiektu helduagoak eta handinahiagoak garatzeko; eta lekuz aldatzea gutxi gorabehera denboraldi baterako konponbidea da; modu horretan, uko egiten diete jatorriko herrialdeetako eraldaketan ondorioz sortutako borroka kolektiboei, eta banakako irtenbideak bilatzen dituzte.

Prozesu iraultzaile bat eten zen herrialde batean, non botere kolektiboa zapuztu egin baitzen, non borrokari eta bizitzari zentzua ematen zioten ideal handiek eta arrazoi gorenek ez baitute dagoeneko kulturaren funtsa osatzen, non politika helburu metahistoriko bat betetzeko instrumentutzat hartu baitzen, zeina hegemonia neoliberalaren mundu batean krisian sartu baita, non modernotasunean inposatutako harreman soziokulturalek zaildu egiten baitituzte norbanakotasuna eta autoerrealizazioa garatzeko baldintzak, non iraultza elektronikoa eta globalizazio ekonomikoa inposatzen baitira desarautze ekonomikoko programak inposatuz; hori guztia gauzatzen den herrialdean, atzeratze-prozesu bat gertatu da, herritarrei ez diete utzi erantzukizunik hartzen eta, ondorioz, norbanakoaren desegitea areagotzen duen desegite sozial bat gauzatu da. Modu horretan, banakotasuna galtzearen ondorioz indibidualismoa goretsi da. Gizartea eraldatzeko ilusio kolektiboak hautsita, non jada ez baitirudi —behintzat epe motzean— bizitza-baldintzak funtsean alda daitezkeenik —eta horrek itxaropenak zapuztea dakar bere inguru naturalean—, non anomalia-, bidegabekeria- eta kaos-irudipena nagusitzen baita errealitatearekiko ikusmoldean, begiradak beste leku batzuetara bideratuz.

Komunikabide desberdinak zabaltzeak, mugikortasunerako aukerak irekitzeaz gainera —espazio- eta denbora-hesiak minimizatuz—, lorgarritzat jotzen dituzten itxaropen eta xede berriak sortzen ditu, jatorriko herrialdean lorturiko prestakuntza akademiko gutxienekoari esker; zerek erraztu egiten duen edozein ingurutara egokitzea, nahiz eta kostu pertsonal handiak eragin.

Horrela hasten da pertsona askoren bidaldia; nork bere proiektuak izan arren, mugez haraindi eraikitako gizarte-sare batean du oinarria bidaldi horrek, jatorriko lekuko espazio- eta gizarte-mugetatik haratago. Bide horietatik iristen da aukera berrietarako informazio zehatza; estrategia berriak eta bizitza-plan osagarriak gauza daitezkeen urrutiko lurren ezagutza gerturatzen da modu horretan. Aukerak zabaldu egiten dira, ateak ireki, eta balioetsi beharreko aukerak sortzen dira. Komunikabideen

eta garraioaren kostuak murrizteak eta azkartasunak laburtu egiten dute leku eta gizarte askotarikoen arteko distantzia sinbolikoa.

Beste garai eta talde batzuetan zapaldua izan zen nomadismo tradizionala beste kategoria bateko nomadismo bilakatu da, eta transnazionalismo edo deslurraldatze deitu zaio. Izaera positiboa du orain, eta, askotan, nazioarteko politikek sustatzen dute; batetik bestera ibiltzea dute jokabide-arau, eta aukeraren, zoriaren eta arriskuaren printzipioetan sostengatzen da kategoria hori. Nahiak eta itxaropenak elkartzen diren eszenatoki bakar bihurtzen dute planeta; antzeko helmugak bilatzea sustatzen dute; eta oinarritzko erreferentzia-puntuak aldaketa, modernotasuna eta kontsumoa dituen bizitza modu transnazional bat inposatzen dute. Langile-klasearen berrantolamenduaren arabera eskatzen da edo mugatzen da mugikortasun hori, sistema kapitalistak ahalik eta onura gehien lortzen jarrai dezan. Nazioarteko eredu ekonomikoa inposatzearen ondorioz, pertsona batzuk kanporatu egin dituzte beren jatorriko gizartetik; eredu ekonomiko horrek beste herrialde baten ongizateari laguntzen dioten herrialdeen eta pertsonen garapena eragozten du, beren herrialdearekiko duten erantzukizunari garrantzirik kendu gabe.

Modu horretan iritsi gara hipotesiaren gunera: batetik, emigranteen iritsiera helmuga-lekura, eta, bestetik, gizarte-asimetria, zeina kultura-nagusitasunak eta abian diren eta gure artean bizitzen eta lanean geratzen dena inguratzen duten botere-mekanismoek irautearen ondorioz gauzatzen baita. Botere horrek harreman mota guztietan du eragina, eta askotariko elementu-sarea osatzen du. Honela azaldu zuen Jesús Azconak:

Kolonialismoak immigranteen jatorriko herrialdeetan hasi zuen lanak jarraitu egiten du iritsierako gizartearen, diziplinaren bidez, menpean hartutako gorputzen bidez, eta bizitza bere osotasunean inbadituz.<sup>109</sup>

Migrazio-politiken kudeaketa era egokian diziplinatutako langile-klasea sortzera bideratu da, biztanle horientzat kontrol-, bereizkuntza-, kategorizazio- eta debaluazio-gailu askotarikoen bidez. Immigranteen helburuak estutzen eta gizakiaren askatasuna mugatzen duten mekanismo diskriminatzaileak dira, besteak beste, zaintzarako sistema politikoak, mugetako kontrola edo «deskontrola», atxilotzeak eta kanporatzeak, eskubiderik gabe lanik ezegonkorrenak betetzera xedatutako legez kanpoko egoeran diren pertsona talde ugari bat egotea, desberdintasunak legitimatuz, Atzerritarren Legea, burokrazia bizileku-baimena lortzeko baldintza ugari eskatzean, Etxeko Langileen Erregimen Berezia, zeinaren bidez gobernatzen baita etekin ugari sartuta dauden etxeko lana. Mugitzeko askatasuna, aukeratzeko askatasuna eta segurtasuna larriki murrizten dira etorkinaren gan, eta haren eguneroko bizitzari eragiten diote; salbuespenezko eta ohiz kanpoko izateak, arrastoa uzten duten bitartean haien bizitzetan; haien ongizatea borondate onaren baitan dago, eta ez eskubidearen baitan. Migrazio-legeek areagotu egiten dute ezegonkortasun-egoera, eta mafien eta enplegatzaileen gehiegikerien menpe uzten dituzte.

<sup>109</sup> UPV/EHU, doktoregoko eskolak, 2002ko otsaila.

Erakunde desberdinen eta komunikabide batzuen boterearen erabilerak diskriminaziozko testuinguru bat sortzen du, immigranteenganako jarrera arrazistak bultzatuz eta sentimendu negatiboak sustatuz. Modu horretan, kolonizazioak lehenik, neokolonizazioak ondoren, eta immigrazioak jarraian, mekanismo desberdinen bidez boterea erabiltzea legezkatzen duen gizarte baten onarpena lortu dute; mekanismo horiek beren teknologien bidez hornitzen dira, gero eta orokorragoak dira, eta mendekotasun modu gero eta globalagoak dituzte.

Immigrazioa, legezkatasuna eta legezkatasunik eza langileriaren zati bat eskubiderik gabe uzteko eraikitako kontzeptuak dira. Biztanleri horren gainean sostengatzen da ekonomia informala zati handi bat. Paperik gabeko pertsonen irudia kriminalizatu egiten den arren, sektore publiko eta pribatuaren interesek bat egiten dute hainbat eta hainbat pertsona diskriminaziozko eta babesik gabeko egoera horretan mantentzeko.

Mende honen hasieran, Espainiako estatuko hainbat herritan legez kanpoko egoeran zeuden biztanleek egindako borrokek zalantzan jarri zuten herritartasun-eskubideen eta nazionalitatearen arteko bereizetasuna; beren errealitatea eraldatzeko gai ziren subjektu politiko bihurtu ziren, eta Europako Erkidegoa hertsatu zuten immigranteen jatorriko herrialdeekin dituzten mendekotasun-harremanak eten zitzaizkien.

Legez kanpoko egoeran dauden biztanle horietako asko etxeko zerbitzuen sektorean ari da lanean. Behinola bertako emakumeen esku zeuden zaintzak beste leku batzuetatik datozen emakumeen eskuetara igaro dira gaur egun; izan ere, gizonak ez dute beren pribilegiarik galdu nahi eta uko egiten bai diote beren bikoteekin eguneroko erantzukizunak partekatzeari, zeinek giza bizitzaren iraunkortasunerako ezinbestekoak diren.

Aldi berean, migrazioaren jatorriko gizarteetan aldaketa handiak gertatu dira familia-antolaketa dagokionez. Kasurik gehienetan, familia-nukleo bereko beste emakume batzuek ordezkatzeko dituzte joan zirenen amak zaintza-lanetan; nahiz eta ama hauek, urrutira ere beren gain hartzen duten familia-erantzukizuna, orain beste modu batera: «telefono bidezko amak» izanez. Jatorriko lurrian geratu diren amonek eta haurrek produkzio-laneko karga handiagoa izaten dute, lehen emakume migratzaileek egiten zituzten lanak hartu behar izaten baitituzte beren gain; gizonak, bien bitartean, ez dute etxeko lanen eta familiako ongizate emozionalaren gaineko ardurarik hartzen, ez dira jada hornitzaile ekonomikoak ere eta, hala eta guztiz ere, beren lanaren balioa areagotzen ikusten ez duten beste emakume batzuen ordaindu gabeko lana irabazia dutela uste dute.

Bestalde, gizarte hartzailean mantendu egin dira eta baita areagotu ere klase, etnia eta genero arteko bereizkuntzak. Nazioarte-mailan, handiagotu dira «zentro»aren eta «periferia»ren arteko desberdintasun ekonomikoak. Modu horretan, emakumeen migrazioak, periferiako eremuetatik datozenak etxeko zerbitzuetan lan egiteko, zentroko erdi-mailako eta goi-mailako klaseetako emakumei ekartzen diete onura; eta bere

horretan mantentzen ditu klase-privilegioak eta gizonezkoei dagozkienak, azken horien erantzukizuna ez baita areagotu etxeko lanetan. Beraz, migrazio-fluxuek harremanetan jartzen dituzte bi gizarte berezituaren generoari, klaseari eta etniari dagozkien desberdintasun-sistemak, kapitalen, ondasunen, baliabideen, informazioaren eta ideologiaren bidez, sistema horiek harreman dinamikoaren eta aldakorren multzotzat hartzen dituztelarik. Genero-sistemari eusten dioten egitura ideologikoak egonkor agertzen dira eta, etxeko taldeen barruan harreman ekonomikoak aldatu arren, oro har, genero-harremanetan ez da berdintasun handiagorik gertatzen. Beraz, aldaketa-prozesuak estuki lotuta daude emigratzailearengan elkartzen diren bi munduetako harreman ekonomiko, politiko eta ideologikoekin; eta harreman horiek komunitate transnasionalean indarrean den genero-desberdintasunari dagokion desberdintasun-sistemaren indargarri edo ahulgarri gisa jokatu dute.

Etxeko lanetik aparte, bertako biztanleek ez dituzte egin nahi zenbait lan, lanpostu batzuei ezarritako estatusari loturiko gizarte-auzi bat dela eta. Prestigiorik gabeko lanez ari gara, egoera txarrean dauden pertsonak betetzera etorri diren lan-zokoez, lanaren bidez onarpen jakin bat lortzen den mundu honetan, lana identitatearen ia funtsezko zatia den mundu honetan; eta gizarte harremanak lanaren bidez finkatzen diren une hauetan. Gizarte-harreman horietan botere-harremanak dira nagusi, non bakoitzak bere funtzioa betetzen duen, non guztiok garen erantzule jarrera arrazistak (edo ez-arrazistak) gauzatzeagatik edo ez gauzatzeagatik. Boterea gure eskuetatik igarotzen da, hark indarrez hartzen gaitu, ukitu egiten gaitu, eta botere-harreman horien bidez jarduten eta parte hartzen dugu, «bai egiten uzteko bai desegiteko».

Modu horretan, azterketaren beste arlo batean sartu gara: identitatearen auzian. Orainaren bila eta etorkizun hobe baterako aukeren bila emigratzeko erabakia hartu denean, errealitate partikularra aldaezina dela onartzen ez denean, errealitate hori aldatu egin nahi da eta, errealitatea aldatuz, norbera ere aldatu egiten da. Identitatea ez da estatikoa, bilaketa bat da, etengabe prozesuan den zerbait eta gainerakoei estuki lotua dagoena, harremanen bidez eraikitzen dena, beste pertsonetikiko interakzioan.

Paperik gabe egotearen egoerak estutasuna, ezegonkortasuna eta estresa eragiten ditu. «Ez dut paperik eta, beraz, ez naiz ezer» edo «ez naiz existitzen». Ondorioz, behatu ahal izan daiteke, talderen batean parte hartzeko nahiak, batez ere, aitoren bat jasotzeko beharra adierazten zuela, identitateari eta autoestimuari eusteko nahia. Eguneroko bizitzan, paperik gabeko jendearen kezka nagusia da oharkabean igarotzea, eta horrek kendu egiten dizkio oreka psikikoa lortzeko hain beharrezkoak diren sari nartzizista guztiak. Kasu horretan, identitatea galtzea norberaren buruarekiko atzera-egite baten bidez elika daiteke, eta herritarren gero eta ukazio handiago batean amai dezake. Honela adierazi zuen Moricek: «Itxialdia da mugikortasuna etengabe baldartzearen emaitza».

Esperientziak eta migrazio-prozesuak, zalantzarik gabe, arrasto garrantzitsua uzten du identitate pertsonalean; hala adierazi dute berriemaileek ere. Nabarmenezkoak dira emakumeengan gertatzen diren aldaketa positiboak. Libreago, ez hain mugatuta eta

autoestimua handiagoarekin sentitzen dira beste bizimodu batzuk ezagutzean, kaudimen ekonomiko bat izatean, hazi ziren gizartetik eta familiarengandik urruti bizitzean, edo era guztietako zailtasunei aurre egiteko gai izatean. Hori horrela da, nahiz eta profesionalki eta gizartean gutxietsita sentitu, edo gizarte-maila baxuko lanak egin behar izan, aurrez aipatu dudan moduan. Horrek ez du esan nahi iritsierako gizarterako migrazio-esperientziak soilik ekarri duenik aldaketa. Jatorriko herrialdean enplegua ezegonkortzeak, kasu honetan, gizonezkoek familia-erantzukizun gutxiago hartzea eragin du; alkohol-gehiegikerian bilatu dute babesa haiek, depresioan erori dira edo emakumeen aurkako biolentzia areagotu dute; eta, ondorioz, emakumeek hartu dute beren gain familiaren mantenua edozein kostutan, eta gizarteak «duintasungabe»tzat jo dituen lan haiek ere onartu egin dituzte, beste aukerarik ezean. Aldi berean, ideologia feminista «zehaztugabe» bat —horrela izendatu zuen Liliana Suárezek (Suárez, 2004)— nazioartean zabaltzeak balioa eta boterea ematen dio sexuen arteko berdintasunaren imaginarioa gehitzen duen emakumeari. Modu horretan, migrazio-prozesuak eta jatorriko herrialdeko genero-eraldaketak elkarri gainjarrita ageri dira. Aurre egiten dieten arazoei erantzunik ematen ez dieten eredu androzentrikoekiko erresistentzia-estrategiak dira.

Zaila da eraldaketa emantzipatzaileak aurkitzea emakume migratzaile horiei iritsierako gizartean esleitutako lan-eremuetan. Zaintza-, zerbitzu- eta garbitasun-eskaera bat betetzen dute emakume horiek; latinoamerikar emakumearen samurtasun, sentsualitate eta otzantasunaren gaineko estereotipo kolonial eta arrazistekin elikatzen direlarik, eta betikotu egiten dituzte gizarte hartzailearen zaintzen gaineko sexu-banaketa, eta Estatuak menpeko pertsonenganako erantzukizuna eta generozuzentasunaren bermatzea bere gain ez hartzea. Etxeko zerbitzuek bideratzen dituzte Nikaraguako emakumeen erregularizazio ia guztiak; paperak lortu ondoren ere ez da erraza beste enplegu mota bat eskuratzea, tituluak ofizialki onartzeko zailtasunak direla eta; ondorioz, urteetan egoten dira Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezian, eta ez zaie aitortzen Erregimen Orokorra kudeatzen dituen pertsonen gizarte-zerbitzurik. Hala eta guztiz ere, autonomia finkatu egiten dutela, erabakitzeko gaitasuna sendotu, eta autoestimua areagotu egiten dutela ikus daiteke. Betiere aurreko egorarekin alderatuz irabazten atera direlako.

Esan daiteke emakumeak eta gizarte-maila baxuak hobeto hornituta daudela gizonak eta erdi-mailako klasea baino, migrazioak dakartzan bizi-baldintza gogorrei aurre egiteko. Erdi-mailako klase baxuak nolabaiteko neurosian erortzen dira, zenbait lanek haientzat adierazten duen prestigio ezari eta umiliazioari aurre egin behar dietelako; eta horrek zaildu egiten ditu beste batzuk jabetzen eta zoriontsuago egiten dituzten aurrerapen ekonomikoak; izan ere, gizarte-klase desberdinetako kideek baliabide emozional desberdinak eskura ditzakete. Bertako biztanleei barrena jaten dien krisiaren aurreko beldurra ez da modu berean gauzatzen etorkinengan, haiek ekonomia-krisia dagoeneko endemikoa den lekuetatik baitatoz eta tolerantzia handiagoa baitute ziurgabetasunaren aurrean. Pertsonak ziurgabetasuna arazo partekatu gisa hartzen duten

neurrian eta konfiantza- eta lankidetzaren sareak garatzen dituzten neurrian, estrategia desberdinak bilatzeko bide ematen dieten ziurtasun-esparru bat sortzen dute.

Datorrenaren identitatea eraldatzen ari den bitartean, iritsierako gizartea ere behartua sentitzen da aldaketa-prozesu horren aurrean; nahiz eta «bestea», desberdintzat hartzen duen, diferentetzat ikusteaz gain. Izan ere, harreman desberdinak eta asimetrikoak ditugulako herrialde desberdinekin; gertaera historikoek gure pentsamenduak markatzen dituztelako; menpekotasun- eta kolonizazio-harremanak ez direlako amaitutako prozesuak. «Beste»en irudia asmatua, irudikatua eta sortua izan da haiek aurrez aurre eduki gabe, ezagutzearen beharrik gabe. Eta orain «gu»re artean daudenean, guztiak kategoriatan beraren barnean sartzen ditugu, immigrante kategoriatan barnean, edozein dela beraien identitate partikularra, edozein direla beraien ezaugarri anitzak.

Egia da, baita ere, «bestea» niaren isla dela; besteak definitzean geuk ari garela definitzen. Pentsamendu dualean kontrako kategoriatan sortu ditugu, eta gizarte-asimetriak naturalizatu. Iparra/Hegoa, Mendebala/Ekia, zentroa/periferia, gizona/emakumea edo gu/besteak termino hierarkizatu bihurtu dira, begirada eurozentriko eta androzentriko batekin; eta hori bera erakusten dute ikerketa honetan jasotako askotariko lekukotasunek.

Bizi garen mundu honen ezaugarrietariko bat kultura-aniztasuna da eta, harreman simetrikoen testuinguru batean, kultura-identitateen zatiketa izan daiteke ondorioetako bat epe motzean edo ertainean. Globalizazioaren marko horrek aurrekaririk gabeko aberastasunak sortzen ditu; baina banaketa desberdina izaten da, portaera-jarraibideak uniforme bihurtzen dira (ideiei, moralari, janzkerari, kontsumoari edo denboraren erabilerrari dagokionez), eta, aldi berean, kultura-diferentzien aurreko erresistentziak sortu eta aldarrikapenak aktibatzen ditu. Horrela sortzen da jatorri etniko edo nazionalen asoziazionismoa, eta immigrante-identitatea eraikitzeari erantzuten dio gizarte hartzaileetan, edo/eta identitate nazionalari edo kulturalari. Elkarrekin horiek tokiko erakundeek babesten dituzte, eta horiek ekimen kolektiboak murrizten saiatzen dira, zeinak ihes-balbula bihurtzen baitira, tentsioa igurtziteko eta sortzen diren arazoaren aurreko balioespena eta irteera-aukerak bilatzeko. Horietan bilatzen dituzte gauzatze afektuzkoa, subjektiboa eta espirituala, baita identitatearen aitortzea ere, eta nola ez talde-kohesioa botere-faktore gisa. Aitortzea lortzeko ezagutua izan behar da lehenik; beraz, elkarrekin saiatzen dira beren jakituria eta beren aukera kultural eta intelektual zabala ezagutzera ematen bertako biztanleriari, zeinak kontsumo folklorikoa edo logika merkantilista bilatzen baitu etnozentrismoak irentsita.

Atzerritarren Legearen azken araudiak autonomia-erkidegoak eta udalak bultzatzen ditu txostenak idaztera, errotze bidezko beren egoera arautu nahi duten atzerritarren «integrazteko ahalegina» egiazta dezaten, integrazioa etortzen den jendearentzat bakarrik balitz bezala, aldebakarreko erroka balitz bezala. Guztiaren zati gara, zati horiek esku-hartze handiagorekin edo txikiagoarekin elkartzen diren mosaiko bat; bakoitzak, ordea, paper bat du mosaiko horretan.



Multikulturalitatea edo kultura-aniztasuna gertaera bat da; kulturartekotasuna, ordea, iruzur bat besterik ez da, kultura anitz garraiatzen dituzten horien egoteak sortzen dituen arazo guztiei gozagarria ipiniko lioken elementua, etorkinak edo gutxietsitako taldeak osotuko luteklarik. Immigrazioaren arloko kulturarteko asmoak, gaur egun arte, auzi teorikoa dira gertaera konkretu bat baino gehiago. Kulturartekotasunarentzat beharrezkoa da negoziazioa, erlazioa eta «beste» ezagutzeko nahia; ez da koexistentzia arrunt bat, baizik eta bizikidetzat bat islatzen saiatzen da, elkarrizketa bat, alde bakoitzaren aitortzea beren ekarpen eta guzti. Integrazioa ez da posible inposizioaren bidez, eta bateraezina da diskriminazioarekin eta bazterkeriarekin. Partaide direnen ulertzeko ahalegina eskatzen du. Ez dakar gutxienean identitateak berdintzerik ez desagertzerik. Diskurtsoek kultura moldeen gainean jartzen dute gatazken indarra; berdintasunerako aukera, baldintza ekonomikoek eta sozialek zailtzen duten bitartean. Integrazioa ez da posible eskubideetan eta betebeharretan berdintasunik ez baldin bada.

Nikaraguako immigranteen taldeak lan-merkatuko eta gizarte-mailako segmentu baxuenekoak betetzen ditu; eta ez soilik bertakoekin alderatuz, baizik baita ere etorkinen beste talde bantzuei dagokienez, azkenetarikoak izan direlako iritsieran. Hauengandik azken lekua beteko dutela espero da. Gizarte-desberdintasunak sortzen eta birsortzen dituen diskriminazioa da.

Honekin lotzen dut aztertutako beste alderdi bat: marko juridikoa. Giza eskubideek hain gizatiar izateari uzten diotenean eta «beste»ei dagokienez hain unibertsal izatera iristen ez direnean, eta Mendebaldeko herrialde demokratikoek aipatzen duten herritartasuna, nazionalak diren mugatzen denean nazioarteko hainbeste joan-etorri izaten diren mundu honetan, horrek guztiak eragina du etorkinen izateko eta egoteko moduan. Doktorego-tesi honetan bildu ditudan lekukotasunek agerian uzten dituzte migrazio-politikatik eratorritako eragin makurrak, eta integrazioa eragotziz gizarte-kanporatzeari eta -baztertzeari bide ematen dieten praktikak. Bertakoaren eta etorkinaren artean desberdintasun-arauak ezartzen dituen banatze-lerroak eta ondorio sinboliko eta legezkoak eragina du beren baitan bazterketa sentitzen dutenen askatasunean eta ongizatean, bazterkeria beren gorputzan sentitzen dutelarik.

Immigrante-egoera alde txarretik eta ezegonkortasunak mugatuta bizi dute eremu eta arlo askotan: juridikoan, lan-munduan, etxean, familian eta arlo emozionalean. Immigranteak gizartean txertatzea balaztatua izango da erakunde aldetik jartzen diren oztupoekin edo gutxienez errazten dituztenekin. Nola hitz egin dezakete integrazioaz, pertsona guztiek arlo guztietan eskubide- eta aukera-berdintasuna izatearen eta pertsona oro herritar osotzat hartzearen premisatik abiatu gabe? Desberdintasunak murrizten ez badira eta eskubide politikoak eta sozialak aitortzen ez badira, ezingo dugu gizarte-kohesioaz hitz egin.

Giza eskubide unibertsalekin talka egiten du jaiotza-irizpideetara mugatzen dituzten herritarren eskubideen ezaugarri den eskusibotasunak, zeinak Mendebaldeak aldarrikatzen dituen printzipio demokratikoei iruzur egiten baitie. Atzerritarrek % 12,2 osatzen duten Nafarroako komunitatean eta antzekoetan, pentsatzekoa da zentzurik ba

ote duen herritartasunaren eta nazionalitatearen arteko loturari eusteak; lehenengoa bigarrenaren mendeko izan ohi da, eta bertan bizi diren, lan egiten duten, zergak ordaintzen dituzten eta bertako zerbitzu publikoak erabiltzen dituzten pertsonen talde esanguratsu bat parte-hartze politikotik baztertua dakar ondorio gisa. Nabarmentzekoak dira, beraz, biztanleen zati baten gaineko marjinazioa eta bazterketa nagusi dituen —eta haien gainean kontrola eta boterea aplikatzen dituen— egungo demokraziaren gabeziak. Immigranteari ukatu egiten zaio gertaera politikoan esku-hartzeko ahalmena. Bere egoeran, erabat murrizten dira askatasuna eta segurtasuna, eta horrek eguneroko bizitzari eragiten dio, ondoeza areagotzen du eta gizarte-kohesioa eragozten du.

Ikertu eta aztertu dudana beste alderdi batek zerikusia du, aurrerakoitzat baiesten den estalki baten pean, norberaren identitatearen eta besterenaren ezaugarriak aldaezintzat eta eztabaiaezintzat hartzen dituen eta segregazioa naturalizatzen duen diskurtso batekin. Kulturalismoak arrazismoaren eremua betetzen du. Mendebaldeko nagusitasunaren eta mendebaldartu gabekoaren atzerapenaren mitoak babes hartzen du «besteak» testuingurutik ateraz eta arbasoen kultura-praktiketan zaharkitutakotzat erakutsiz; ziurgabetasuna, mesfidantza eta beldurra sorraraziz diferentziaren aurrean, taldeen arteko harremanak oztopatzen dituelarik, pertsona migratzaileen gizartekoitasuna tratatuz.

Joan den mendearan azken urteetako eta mende honen hasierako garapen ekonomikoarentzat erabilgarria eta beharrezkoa izan den immigrazioaren diskurtsoak, gaur egun hain premiazko ez dirudienak, leku egin dio haiek sobera diren ideiare, «lana kentzen diguten» ideiare eta «gure gizarte-zerbitzuen kontura bizi diren» ideiare. Desberdintasuna legezkatzen duen gizarte baten onarpena, naturalizazioa eta arrazismo utilitarista da. Aukera-desberdintasuna eta eskubide-desberdintasuna, betebeharren berdintasunaren alde egiten bada ere.

Prozesuaren beste ondorioetako bat immigrantearien marjinazio soziokulturala da. Haren bizitza zirkulu baten jiran gauzatzen da maiz, inguruan, hemen eta han gertatzen denaz ezer jakin gabe. Jatorriko lekuarekiko distantziak bakartzen du, eta iritsierako lekuan uko sistematikoa jasotzen du subjektu gisa. Komunikabideek informazio gutxi biltzen dute zuzenean immigranteei sentitzen dutenaz, haien herrialdeetako egoeraz edo bien arteko loturaz, eta etengabeko bazterketa horrek motibaziorik gabe uzten ditu immigranteeak. Horixe da integrazioa atzeratzearen beste arrazoietako bat. Jatorriko herrialdean eraldaketa politiko-sozialen eta ekonomikoen alde izandako borroka kolektiboa alde batera utzi ondoren, eta iritsierako herrialdean berei dagozkien erabakietan parte hartzea eragozten zaienez, gizarte-konpromisoak alde batera utzita bizitza erabakitzen dute, beren etorkizuna kontrolatzeko abiatutako borrokan jarriz indarrak.

Gizarteratzen laguntzen duten bideen ahuleziak eta urritasunak indartu egiten dute etorkinaren autonomia eza. Erakundeek beren gain hartu gabeko funtzioak, eta GKE-en eta ongintzako egituren esku utzitakoak, halabeharrezkotzat har daitezkeen mendekotasun-loturak sortzen ditu. Bizitzako baldintza materialen eta bizikidetzaren

ezeگونkortasunak norberaren segurtasun gabeziatik sortutako beldurrak eragiten ditu. Beldur horiek ekintzarako gaitasunaren mendekotasunari mesede egiten dioten erlijiozko estamentuetan babesa bilatzea eta haiei men egitea eragiten dute, eta norberaren ekimena pixkanaka alde batera uztea sustatzen dute. Gizarteak tarte gutxi uzten die hobetzeko estrategiak bilatzeko; saiakeraren baliorik eza gauzatzeak, berriz, daukatentari helduarazi eta oldartu gabe poztuarazi egiten ditu; eta, modu horretan, migrazio-prozesuari ekin zioten indarra eraisten diete. Iritsierako gizarteak biztanle horientzat gorde dituen lan-zokoak betetzeko diziplina-mekanismoak dira, eta mantendu egiten dira, gainera, prozesu kolonial eta neokolonialtean sortutako interbentzio-loturak.

Erakundeen jarduerak eta diskurtsoak, migrazioa egungo gizartean «arazo»tzat eraikitzearen erantzule direnek, errealitatearen kontrako ikusmolde bat zabaldu dute, arrazoi ekonomiko, politiko, kultural eta ideologikoak direla-eta, eta desberdintasuna naturalizat legezkatu dute; beste leku batzuetatik iristen direnen indarra, aldiz, xurgatu egin dute, eta aurrez aipatu ditugun mekanismoen bidez gorpuztu dituzte beldurra, araua eta diziplina; betebeharreran homogeen bihurtu dituzte immigranteak, baina ez eskubideetan, eta, ondorioz, beren buruaren eta gainerakoen aurrean balioa galduta ageri da etorkina.

Kapitalaren zerbitzura eta boteretsu gutxi batzuek kontrolatuta dauden komunikabide eta informazio-agentzia gehienek indartu egiten dituzte diskurtso horiek kultura-diferentziak azpimarratuz; eta ezkutatu egiten dituzte diferentzia ekonomikoak eta horren arrazoiak. Immigrantearen irudia «beste» gisa zabaltzen dute beti, eta legezketasunik ezarekin, delinkuentziarekin, matxismoarekin, fundamentalismoarekin, pobreziarekin edo miseriarekin lotzen dute, desiragarriak ez diren alderdi beldurgarri horiekin, eta horrek zaildu egiten du, zinez, kulturarteko harreman bat. Isilean gordetzen dituzte immigranteekin egiten diren gehiegikeriak, eta balio nagusiekin bat ez datozen ezaugarriak nabarmentzen dituzte.

Ikusmolde sedentario bati dagozkion emigrante eta immigrante kontzeptuek bide ematen diote ikuspegi transnacionalari, eta bi errealitateen artean bizi direnen eta migratzaile bihurtzen direnen egoera jaso nahi dute. Hemengoaren eta hangoaren artean garatzen dituzte beren bizitzak, jatorriko herrialdearen eta helmugakoaren artean; beren bizimoduak, adierazpenak, jabetza-sentimenduak eta kultura-identitateak aldatu egiten dituzte, niaren parte izatera igarotzen dira erreferentzia-puntu berriak, eta balio-sistemari eragiten diote. Nikaraguar askoren helburua eta nahia, behintzat epe ertainera, migrazio transnacional hori bateratu ahal izateko aukera da. Iraupen luzeko bizileku-txartela duten pertsonak edo espainiar nazionalitatea dutenek bizimodu hori izan dezakete: uneotan leku bakoitzak eskaintzen dituen gauza onei etekina atera eta beren bizimoduak orekatzeko. Hemengoa eta hangoa, gu eta besteak, pertsona horiengan elkartzen dira, globalizazioak distantziak laburtzen dituen garaiotan. Pertsona horiek bi mundutakoak dira, edo, hobeto esanda, mundu bakarrekoak.

## ARGUMENTUAREN LABURBILTZEA

Ikerketa honetan, gaur egungo gairik zirrargarrienetako bati heltzen saiatu naiz, zenbaitetan alderdi lazgarriak ere badituen arren. Eraikitzen ari garen gizarte berriaz ari naiz. Errealitate bat aztertu dut, ez fenomeno bat —immigrazioaren fenomenoa—; gizarte kulturantzun edo kulturarteko berri baten eraikuntza ikertu dut, gizarte aldakor batena. Aldakorra izateagatik, ziurtasun handirik ez, baizik zalantza eta galdera asko dakartzan errealitate bat irakurtzen, miatzen, aurkitzen, ulertzen eta interpretatzen saiatu naiz. Osatu gabeko proiektu bat da, eraikitzen ari dena, egoera mutante eta kontresankor bat. Herritartasun berri bat eraikitzea bilatzen du.

Nafarroan eta Euskal Herrian migrazioa ez da ezer berria; migratzaile izatea garai guztietan izan den egoera bat da. Milaka euskaldunek beste herrialde batzuetara emigratu zuten gisa berean —eta gaur ere hala egiten dute, titulu hori jasotzen ez badute ere—, herrialde haietako beste pertsona asko iritsi dira eta ari dira iristen gure artean eta gurekin Euskal Herrian bizitzera. Mota eta izaera askotako migrazioen emaitza gara. Eta hori aitortzeak gaur egungo immigrazioarekiko jarrera positiboa izaten lagun diezaiguke.

Lekualdatzea ezinbestekoa da desoreka ekonomiko, politiko eta sozial handiko planeta honetan; ondorioz, beharrezkoa da lekualdatze hori horretara jotzen dutenen segurtasuna eta duintasuna, eta baita herrialde hartzaileen osotasun etikoa eta demokratikoa ere, babesten den egoeran gauzatzea. Saihestu egin behar da immigranteak delinkuentetzat hartzea eta tratatzea; saihestu egin behar da Atzerritarren Legea inposatzeak bultzatzen dituen mafiak eta poliziaren migrazio-politika zapaltzaileak egon daitezen. Diskurtsoak, praktikak eta laguntzak pertsonen «atzerritartasun iraunkorra» desegitera bideratu behar dira; pertsona horiek, demokratikotzat estimatzen diren gizarteetan indarrean diren gizarte-kontratuetatik kanporatu egiten baitira, nazionalitate, genero edo klase arrazoiak direla medio. Ezin da migrazioa kriminalizatu; prozesu horretarako duen eskubidea babestu egin behar da.

Beharrezkoa da ditugun aurreiritziak gainditu eta etorkinaren irudi positibo bat bultzatzea, benetan haiek gizarteratzea sustatu nahi bada, eta bigarren-mailakotzat, ez-herritartzat edo arrotzatzat jotzen dituzten praktika eta diskurtso umiliagarriak ezeztatu nahi badira. Gaiaren benetako hedaduraren eta epe luzerako duen garrantziaren kontzientzia eraiki. Migrazioa konstantetzat hartu behar dugu gizadiaren historian; jatorriko herrialdeen eta helmugako arteko, eta bi lekuetako jendearen arteko lotura historikoak eta orainaldikoak ikusarazi behar ditugu; migratu duten pertsonen ekarpena, egoera eta balioak azaldu; arlo guztien aniztasun elementu abesgarritzat hartu; elkartzeko, ezagutzeko eta elkar errespetatzeko espazioak erraztu, susmo txarrak balio gabetzeko; horiek guztiak integrazioarako ezinbesteko baldintza dira, kulturartekotasun errealerako baldintza, non erabakiak demokratikoki hartzen diren, inplikaturako aldean parte-hartzearekin. Horrek elkarrenganako errespetuan, eta ez tolerantzian, oinarrituriko integrazio erreala ahalbidetuko du. Gizarte kulturantzuna

errealitate bat da dagoeneko; guztion esku dago kulturarteko izatera irits dadin eta demokrazia errealean oinarritu dadin lortzea. Immigranteari begiratzen zaion anomalia modutik legezketasunera eta zuzentasunera igaro behar dugu; horiek ez dute bertakoaren ondare soilik izan behar. Mendekotasunetik autonomiara eta erabakitzeke eta aukeratzeko askatasunera igaro behar dugu, immigrazioa mundu-mailako sistemaren ezaugarri propiotzat eta gainerako ezaugarrien mendekotzat hartuz, eta mugitzeko eskubidea erantsiz. Lurralde-finkatzeen izaera iragankorra aitortzeak gaur egungo pertsonen ibiltari-izaera legezketzea irudikatzea ahalbidetuko digu agian, eta migrazio postmodernoen mugek finkatutako lurralde- eta kultura-mugak eraistea.

Iritsierako gizarteari dagokio integrazioaren dimentsio instrumentalean esku hartzen duten faktoreak arautzea. Immigrantea produkzio-egituran modu arruntean sartzea erraztu behar du, enplegataileen gehiegikeriak saihestuko dituzten beharrezko baliabideak erabiliz, legezko baliabideak berrantolatuz, eta hautemate publikoa zainduz. Ezin dugu gizarteratzeaz hitz egin, ez badago eskubide- eta betebeharrak berdintasunik.

Migratzaileak gizarteratzeko saihestezina da honako hauei aurre egitea: lanbide-segregazioa; legez kanpoko egoeran diren biztanle askoren egoera; baldintza berdinetan etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunak; hezkuntzaren kudeaketa, bertako errealitatearekin bat datorren banaketaren bidez, ikastetxeka eta hizkuntza-ereduka; eta etorkinei dagozkien arazoei buruzko erabakietan parte hartzea ahalbidetzea.

Gizarte berria eratzeak berdinen arteko elkarriketa eta negoziazioa eskatzen ditu. Ez da integrazioerik egongo, ez kulturartekotasunik, gizarte hartzailea ez badago prest beste kultura batzuetako balioak onartzeko. Integrazio hori errealitate bihurtu behar da eremu pluralista baten barruan. Gizarte-gorputza inoiz ez da homogeneoa, baina horrek ez du oztopo izan behar askatasunak garatzeko. Etorkinen integrazioak agerian jartzen du konpondu gabeko arazo soziologikoa: gizarte modernoetan diferentziak integratzea; eta, ondorioz, ahaleginek hara begirakoak izan behar dute.

Desberdintasunak demokrazian onartezinak eta haren kontrakoak dira. Beharrezkoa da prozesu demokratikoetan sakontzea, justizia sozialari eta berdintasunari dagozkion balioak lotzea, eta gizarte-bizitza berrantolatzea eragiten dugun dimentsio guztietan. Herritartasun nozioa berreraiki beharra dugu, kontuan hartuz ezagutzen dugun demokraziaren parte diren askotariko bazterketak eta marjinazioak; herritartasunaren identitatea birmoldatu beharra daukagu, eredu politiko desberdin baten baitan. Herritartasuna besteeganako kidetasun-adierazpen gisa ulertu behar dugu, eta ez soilik legezko identitate gisa. Konstituzioak demokrazia bere funtsezko printzipiotzat aldarrikatzen duen estatu honetan, ezinbestekoa da herritartasunaren eta nazionalitatearen arteko lotura gainditzea, eta bizilekuari edo erroldatzeri loturiko herritartasun kontzeptu berri bat proposatzea —eta ez jaiolekuari loturikoa, zeina halabeharrezko gertaera bat baita; ezta lan-baimen bat lortzeari ere, egoeraren araberrakoa baita—. Gizarte-eskubideak banatzeko eta berrantolatzeko mekanismoek gainditu egin beharko dute Europako marko nazionala eta kontinentala, alde biko harremanak dituzten herrialde guztiak bertan sartzeko berdintasun-esparru baten baitan.

Eta estatuaren aparatuek herritartasuna legez aitortzeaz haratago, beharrezkoa da kide izateari zentzua ematen dioten praktika sozialetara iristea. Herritartasuna estrategia politikotzat berraztertu behar dugu, kide izan nahi den sistema horren berlanketan parte hartzeko. Era berean, garapenak eta demokraziak ongizate- eta askatasun-prozesu batekin bat egingo duten herritartasun soziala eraiki behar da. Generorik, etniarik eta klaserik gabeko herritartasuna. Ez da ahaztu behar herritartasuna giza ekintzaren emaitza dela; gogoeta filosofikoan eta iritzi publikoan naturalizatzeraz jotzen den eredu politiko bat. Herritartasun kontzeptuak herrira edo hirira garamatza, non harremanak eguneroko interakzioetan gauzatzen baitira, uniformetasun beharrik gabe. Hiria aberastu egiten da gizarte-sare bereizgarriak izatearekin, eta etorkizunera proiektatzeko duen gaitasun eta bizitasunagatik legezkatzen da. Hiria, konplexutzat eta etorkizunera bideratutakotzat hartuta, non pertsona iritsi berriak erraz sar baitaitezke.

Gizarte bidezkoagoa eta demokratikoagoa bistaratzea, herritar guztiak modu bidezkoan tratatzeko gai izango dena. «Pribilegioak hura partekatzen ez dutenak ikusteko gaitasunik eza elikatzen du» zioen Chandra Talpade-k (Talpade, 2008: 425). Ezinbestekoa da boterearen mekanismoez jabetzea eta boterearen jarduera identifikatzea, boterearen erabilera eta gehiegikeria eraldatzeko lanean sartzeko. Baliabide ekonomiko eta teknologikoez armatua dagoen Mendebaldeko gizarte honek, beste leku batzuetatik iritsitako biztanleak menpean hartzen dituenak, bereizkuntzarik gabeko gogorkeriaz, mugaz arat lekualdatzen direnean, kapitalismo postkolonialak beren jatorriko eta/edo iritsierako herrialdeetan sortu dituen gatazka eta tentsioetatik ihesi, bere erantzukizuna aitortu behar du eta bere egungo politikaren ondorioak leuntzen saiatu. Matxismoa kalterakoa bada gizonentzat, arrazismoa ere hala da era guztietako gizarteentzat, demokraziaren gabezia erakusten baitu. Ondorioz, ez soilik pertsonak, gizarte osoa ere patologikoa da, baldin eta integraziorako alternatiba zehatzik eskaintzen ez badu. Pertsonak ezin dute beren burua gauzatu, gizartekoitasuna eta askatasuna oztopatzen dituen edo onartzen ez dituen gizarte-ordena baten esparruan.

Lanari dagokion sexu-banaketak mundu-mailako dimentsioak hartzen ditu, zaintzen gizarte-berrantolaketa premiazkoago bihurtzen da egunetik egunera. Egungo ekonomia-krisiak lotura argiak aurkezten ditu genero-harremanekin, garapenarekin, lan-ezgonkortasunarekin, klasearekin, etniarekin eta pobrezia feminizatzearekin. Zaintzak edozein sistema sozial eta ekonomikoren oinarri ikusezina dira, eta, Iparraldean, laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, emakume immigranteek gauzatzen dituzte neurri handi batean, diskriminaziozko baldintzetan. Beharrezkoa da, beraz, REEH indargabetzea, eta etxeko enplegua Erregimen Orokorrean sartzera, lehenengo lan-ordutik alta ziurtatuz.

Horrek aukera ematen digu, edozein krisi motaren garaiotan ere, kapitalaren aurrean berraztertzeke, ez soilik lanerako eskubidearen aldarrikapena, baizik baita zaintzarako eskubidearena ere. Amaia Pérezek azaltzen duen moduan, beharrezkoa da alderdi askotako eskubide bat elkartzera: bizitzan zehar behar ditugun zaintzak jasotzeko eskubidea (egoera bakoitzaren arabera, mota eta intentsitate desberdinekoak), dohainik ez zaintzeko eskubidea, baldintza onetan zaintzeko eskubidea, eta, merkatuan zaintzen

dugunean, lan-baldintza bidezkoetarako eskubidea (Pérez Orozco, 2009). Baldintza-berdintasunean banatu behar da enplegua, birbanatu behar dira lan guztiak, sexuari, etniari edo adinari dagokion bereizkeriarik gabe. Beharrezkoa da zaintza sozialki berrantolatzea, zaintzaren politika ekonomiko eta sozial bat. Sistema ekonomiko eta sozialaren funtzionamenduaren oinarrian dago zaintzaren beharra banatzeko, ulertzeko eta kudeatzeko modua.

Martha Zapatak honako hau adierazten du: «askotariko proposamenek planteatzen dute, ez soilik generoen ordena patriarkala eraldatzea, baizik baita mendekotasun maskulinoaren oinarrian dauden bizitzako ekoizpen- eta erreproduktio-harremanak eraldatzea ere» (Zapata, 2005). Emakumeek ez dute zaintzaile-identitate horrekin jarraitu behar. Zaintza sozializatu beharra dago, eta kolektiboago bihurtu. Beharrezkoa da zaintzarekin harremanetan diren gorputz generizatuak, sexualizatuak, arrazializatuak, etnizatuak eta deslurraldetuak eraikitzen dituzten prozesu politiko eta historikoetan sakontzea. Etxeko zerbitzuen sektorean, lana botere-jardueretan kokatutako ekoizpen historikotzat hartetik abiatzen bagara, begien bistakotzat eta naturalizatutzat erakusten zaigunaren azpian dagoen hierarkizaziora iritsiko gara: emakumeek eta emakume immigranteek betetzen dutela gaur egun. Orain dela urte asko ez dela, nekazaritza-sektoreko neskatok arduratu ziren etxeko zerbitzuez edo neskametzaz; batez ere barneko sisteman eta hiriguneetan, gaur egun beste gizarte-talde batek, hain zuzen emakume immigranteek, hartzen dute beren gain paper hori; harreman-egiturak, berriz, aldatu gabe dirauen bitartean. Zaintzen mundu-mailako katea, eutsiezina den gizon-emakumeen arteko desberdintasun-sistema batean oinarritzen da. Epe luzera sistema hondatuko duten proposamen irudimentsu eta ausartak pentsatu beharko dira. Beharrezkoa da, beraz, muga fisikoak, politikoak, sozialak eta ekonomikoak irekitzearen alde egiteaz gainera, migrazioetan eta generizazioan zerikusia duten gizarte-taldeek eta pertsonen gogoak irekitzearen alde egitea.

Lan- eta gizarte-eskubideen gaineko erasoei modu eraginkorrean erantzuteko gaitasunik ezak —askotariko debaluazio- eta menderatze-mekanismoen bidez gorputzutako beldurrean finkatua dagoenak, bai iritsierako bai jatorriko gizartean—, eta gerra militar eta ekonomiko bidezko gizarte-desegituratzeak, ezintasuna eta indibidualizazioa barneratu izanak, desberdintasunak naturalizatu ditu, eta diferentziak hierarkizatu.

Immigranteek bizi duten gizarte-ziurgabetasuneko egoerak barrena jaten dio norbanakoaren eta taldearen identitateari; eta, ondorioz, beldurrak murriztea da proposatzen den erronka, horretara bultzatzen duten mekanismoak hautemanez. Horren kontzientzia hartu behar da bakarka eta taldeka, ezagutzak partekatuz eta bizitza kulturalaren eta sozialaren elementuen esanahia interpretatuz. Pertsonak ziurgabetasun hori partekatutako arazotzat hartzen duten neurrian, eta konfiantzazko eta lankidetzazko sareak garatzen dituzten neurrian, ziurtasunen gutxieneko esparru bat sortzen dute

zailtasunei aurre egiteko, eta mendekotasunak eta ezintasunak ez gorpuzteko. Testuinguru horretan hartzen du garrantzia etorkinen asoziazionismoak.

Elkarte horiek beren kideen jatorriaz baliatzen dira; izan ere, jatorriko herrialdearen bereizgarriak diren elementu komun batzuk partekatzen dituzte, hizkuntzaren, kulturaren, ohituren, eta bizi dituzten, bizitu zituzten eta jaioterrian dauzkaten familiek igarotzen dituzten baldintza soziopolitikoaren bidez. Elkarte horiek mundu soziorabolean eta/edo politikoan ukatzen zaien protagonismoa bilatzen dute; protagonismo hori beharrezkoa da gizarte bateko kide izan nahi duen gizaki ororentzat, berari dagozkion erabakietan parte hartuz. Baina iritsierako gizartean diren beste gizarte-, kultura-, hiri-, auzo-, politika-, sindikatu- eta protesta-erakundeetan guztiz sartzera jotzen ez badute —nahiz eta beren elkarteak mantendu—, ghetto bihurtzeko arriskua dute. Beste elkarte batzuekin sarean lan egin behar dute; ekintza mota oro koordinatuko, optimizatuko eta sustatuko dituzten eta hiritartasun oso baten alde borroka egingo duten plataformak sortuz. Zalantzarik gabe, etorkinek duten erronka da herritar-konpromiso handiagoa hartzea beren interesen alde egiteko, eta gainerako hiri-espazioetan askoz gehiago parte hartzeko; horretan saiatu dira, orain dela oso gutxira arte, etorkinen babeserako erakundeak; gaur egun, ordea, immigranteek hartu behar dute hori beren gain, gero eta gehiago. Horrek immigrazioa eraldatzeko gaitasunen ekarpena egitea ahalbidetuko du, eta baita etorkinak hiriko eremu politiko, sozial eta instituzional adierazgarrietan sartzera ere.

Bestalde, bertako biztanleriak —zeinak, aldi berean, immigranteen aldeko elkarte ugari baititu— etorkinekin, lan egiteko betebeharra du, eta ez haien alde; beste leku batzuetatik iritsitakoaren protagonismoa balioztatuz eta sustatuz; aukeraberdintasunean, etorkinak kokatzearen eta kulturarteko topaketaren alde eginez; eta gizarte-, ekonomia-, eta politika-eskaerak bideratuz. Elkar ezagutzeko, baieztapen- eta topaketa-espazioak bultzatzeko betebeharra dugo, gizarte-aurreiritziak gainditzeko ezinbestekoa baita hori. Migrazio-errealitatearen arloan, Silveirak adierazten duen gisara, bizikidetzaz hitz egiteko abiapuntua elkar aitortzeko harremanak finkatzea litzateke... Eta horretarako, ezinbestekoa da, diskurtso moral eta kultural orotatik haratago, baldintza juridiko-politikoak existitzea, biztanle horien zati bat, kasu honetan Erkidegoaz kanpoko immigranteak, ez daitezen pertsona-eza gisa tratatu edozein egoeratan (Silveira, 2000: 34).

Globalizazioak ikusarazten duen mundu-mailako interdependentziak, gizartearen arteko loturak distantziarako komunikabideen berehalakotasunaren eta garraio-bideen azkartasunaren bidez, eta pertsonen eta ideien fluxu transnacionalek nazioarteko eskubidean logika berriak sortzera eraman behar gaituzte. Interdependentzia ekonomikoa justiziaren eremuan aitortu eta ezarri behar da. Pertsonen mugikortasuna areagotzen denean, beharrezko bilakatzen da nazioarteko gizarte zibilaren jardura gobernatzea. Lege jakin batzuei lotuta dauden pertsonak haien lanketa politikoen subjektu ere izan beharko dute. Herrialde batek onartzen badu agiririk gabeko pertsonak lan egin dezaten, kontsumi dezaten eta lurralde horretan bizi daitezen, ezin ditu utzi



pertsona horiek legez kanpo, elkartasunaren, borondate onaren edo biztanleen beste zati baten esplotazioaren esku. Inperioetan bat askea izaten da eta gainerakoek obeditu egiten dute; demokrazietan guztiek izan behar dute askeak. Onartzen dut sartzea ukatzeko eskubidea, baldin eta jatorriko eta helmugako herrialdeetako bi aldetako harremanak berdintasun-harremanetan oinarritzen baldin badira, autonomia eta negoziatzeko gaitasunerako tartea izanik, eta ez lotura postkolonialetatik eratorritako inposaketetatik. Benhabibek adierazten duen gisara, «giza komunitateen arteko interakzioak iraunkorrak dira, eta ez dira salbuespen gizadiaren historian» (Benhabib, 2005: 62). Mugak agertzeak eta haiek blindatzeak dira pertsonen mugikortasuna oztopatu eta hondatu egiten dutenak; eta hori berria eta naturaren aurkakoa da, oraingo modernotasunaren emaitza bat.

Kapitalismoak eta globalizazio ekonomikoak desberdintasun handiak sortu dituzte munduko eskualde askotan eta gizarte-talde askorengan, aurrekaririk gabeko aberastasunak pilatuz eta aurrekaririk gabeko txirotasunak sortuz. Zentroak eta periferiak eratu dituzte, eta aberastasunaren banaketan polarizazio handi bat eragin dute, batzuk integratuz eta beste batzuk kanporatuz. Biztanleen zati handi bati aukeren mundu zabal bat ireki zaio; biztanleen beste zati bat, berriz, ezegonkortasunera eta marjinaziora baztertu da. Bi aldeak daude, ordea, gizarte-ekoizpeneko sistema beraren barruan sartuta; baina funtzio desberdinak dituzte sistema horretan. Oparotasunaren onuretatik baztertu egiten dituzte hainbat talde; baina beharrezkoak dira sistemarentzat, eta ezegonkortasun-mailak ahultasuna eragiten du negoziatorako gaitasunean.

Paradoxa honekin egiten dugu topo, beraz: globalizazioak mugak eraisten ditu ideia, merkantzi eta pertsona batzuentzat; harresiz inguratzen ditu, ordea, muga horiek berak beste mota bateko lekualdatze edo mugikortasunen aurrean. (Harresiz inguratzeak, ordea, ez du esan nahi ixtea, baizik eta, aurrez aztertu dugunez, botere-mekanismo gisara erabiltzea). Kontraesan horiek ziurgabetasuna, segurtasunik eza eta ezegonkortasuna eragiten dute, eta gatazkak sortzen dituzte lurraldeen artean eta gizarte-maila asimetriko desberdinen artean. «Kontraesan horiek aldaketarako motor izan daitezke, gizarte-eragileek eta ekintza politikoak protagonismoa hartzen badute beste norabide bat emateko egungo prozesuei» (Maquieira, 2006: 38).

Kultura-aniztasuna, leku eta garai guztietako fenomeno sozial historiko bat, modernotasunak nabariago bilakatzen du, eta immigrazioak ikusgaiago; ideia kulturantzunek globalizazio neoliberalak, merkataritzako balio eta errealitateetatik abiatuta —baliabide tekniko, finantzario eta informaziozkoetan oinarrituta—, defendatzen duen uniformetasunaren kontra egiten dute. Eta hemen topo egiten dugu ideologia neoliberalaren beste paradoxa batekin: batetik, kulturen eta gizartearen homogeneizatzea bilatzen da; bestetik, ordea, kultura-diferentziak azpimarratzen dira, testuinguru historiko eta ekonomikoetatik bereizita dauden funts aldaezintzat hartuta, eta diferentziak —errealitatean, desberdintasunen oinarri direnak— betikotzearen alde egiten du. Ondorioz, nabarmen geratzen da diferentzien errespetuan oinarrituriko

kulturarteko politika batzuen beharra; eta, horretarako, eskubide-berdintasunean oinarritutako herritartasun zabal bat eraiki behar da.

Kulturartekotasunaren bidez, lankidetzaren eremu bat ireki nahi da, identitateak errespetatzen dituen gizadiaren eremu batean amaitzeko. Identitatea etengabeko prozesuan dago, «beste»ekin izandako interakzioen bidez eraikitzen da; eta, ondorioz, badakigu kulturartekotasunak aldaketa garrantzitsuak ekarriko dituela etorkinen gizarte hartzaile, kultura nagusiak iraganen eta lekurik ezkutuenetan egin zuen gisa berean. Erronka elkarrenganako aitortzan dago, eta boterearen bidezko banaketa harreman demokratikoetan; eta harreman horietan guztiok izan behar ditugu gaitasun berdinak herritar eskubideak gauzatzeko, botererik gabeko gorputzik izan gabe. Aurrez esan dudana bezala, teoria politikoko gai nagusiak bateratzen (eta eratortzen) diren sintesia da herritartasuna: demokrazia, parte-hartzea, identitatea, askatasuna, berdintasuna eta ongizatea. Honela adierazi zuen Santiago Albak: «Emantzipazio orok iraultzailea izan behar du ekonomiari dagokionez, kontserbatzailea antropologiari dagokionez, eta erreformista instituzio-mailan» (Alba, 2010).

Baina errealitatea ez da egonkorra, eta urrunduz doazen praktikak eta agertzen ari direnak batzuek gizarte-aldaketetarako oinarria finkatzen du, nahiz eta aldaketa horiek ez izan automatikoak. Komunikabideen demokratizazio erreala eskatzeak funtsezkoa izan behar du, eta baita haietara iristea ere. Gizarte-sektore eta subjektu guztiek aktiboki parte hartu behar dute informazioaren lanketa-prozesuan; ez dugu hartzaile edo kontsumitzaile huts izatera mugatu behar. Bide hori murriztuta egongo da, herritar guztiok komunikabide horiek nola erabili nahi ditugun erabakitzeke dugun eskubidea abian jartzen ez badugu; egoera itzulipurdikatzeko lortzen ez badugu, galdu egingo dugu teknologiak azken garaiotan lortu ahal izan duen baliabiderik baliotsuena: kudeaketa publikoa indartzea, guztion ongia bermatzeko.

Demokraziak berekin dakar erabakiak hartzeko guztion parte-hartzea eta erantzunkidetasuna; gure egin-beharra da eskubide horiek konkistatzeko lan egitea, gaur egun ditugun baldintzekin demokrazia nola eralda dezakegun pentsatzea. Herritar izateak guztiok duin bihurtzen gaituzten eta berdintzat biltzen gaituzten eskubide eta betebeharrak sail bat erabiltzea esan nahi badu, orduan, herritar izateak gure etorkizunaren eta guztien etorkizunaren erantzule izatera behartzen gaitu. Askatasunak erantzukizuna eta konpromisoa ditu berekin ekintza herritarrean.

Biztanleen sektore batek dituen zailtasunak erakutsi nahi izan ditut eta, aldi berean, zailtasun horiek gainditzean eta mugez gaindi hegan egitean azaltzen duten harrotasuna; esperientziaren positibotasuna, bizitza ematen duten eta hazten gaituzten tirabirak. Amartya Senek aipatu zituen gaitasunen eta askatasunaren garapena. Baina, horretaz gainera, gu gauden mundu honi buruz ere gogoeta egin nahi izan dut, eta «beste»aren aurrean —edo, gauza bera dena, geure buruen aurrean— jarrera serio eta arduratsu bat erakusteko ditugun aukerez. Ez dut ziurtasunik ez egia absoluturik; bai, ordea, eztabaidarako eta kritikarako zalantza asko; egia da neure baitan txertatua dagoen, neure emozioen bidez adierazten den eta nire konpromisoan oinarritzen den

bizipen batetik abiatu naizela. Eta uste dut immigrazioa egiturazko aldaketa baterako faktore bat dela, gizarte bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta duinagoa eraikitzeko aukera bat.

Desiragarria litzateke beste talde batzuekin ere ikerketa egitea, batez ere, kulturalki «urrunago» dauden taldeekin; hala nola, arabiarak, Saharaz hegoaldekoak, asiarrak, eta baita Ekialdeko Europakoak eta Erkidegoko beste batzuk ere. Era berean, gizarte hartzailean sartuta denbora gehiago daramaten taldeak; izan ere, nikaraguar biztanleria oso berria baita, eta ikerketa iritsierako lehen urteetara zuzendu dut nagusiki. Etorkizunean aztertu beharreko beste gai bat izango da transnazionalitatea alternatiba bat ote den migratzaileentzat, eta/edo praktika horrek tartean diren herrialdeetan dituen eraginak. Bestalde, etorkizuneko erronka handi bat izango da iritsierako gizartean garatzen joango diren gizarteratzeko ereduak. Aukera asko zerrendatu litezke, hala nola: asimilazioa, integrazioa, bereizketa eta marjinazioa; eta horiek guztiak kultura-aniztasuneko edo kulturarteko prozesuetan kokatuko lirateke. Ikerketa honetan jasotzen ez den alderdi bat da, eta kontuan hartzea merezi lukeena, eskolatutako ikasleena, batez ere Bigarren Hezkuntzan. Hemen ez diot heldu gai horri, ikertu dudako populazioak ez baitu oraindik horrelako ezaugarriarik; eta gai horrek bere espezifikotasunean ikertzea merezi luke. Azkenik, euskaldun biztanleriaren barnean zer gertatzen den modu espezifikokoagoan edo modu konparatiboan ikertzeko beharra azpimarratu nahi nuke, kontuan hartuta hizkuntza- eta identitate-egoeran bizi den segurtasunik eza eta diskriminazioa.

Chandra Talpade aipatuz amaitu nahi dut, hemen azaldu nahi izan dudako prozesua oso ondo eratzten duten hitzak baitira hauek: «Mugak ez daude zinez finkatuta; beharrezkoa da gure gogo mugitzeko prest izatea, kapitala dagoen gisa berean, haren urratsen arrastoa jarraitzeko eta etorkizun alternatiboak irudikatu ahal izateko helburuarekin» (Talpade, 2008: 458); eta Edwar Saiden beste esaldi batekin: «Kulturak oso modu emankorrean koexistitzen dira eta eragiten diote elkarri; haien artean borroka egiten dutenean baino askoz proportzio handiagoan» (Said, 2006:18). Partekatutako komunitatearen eta espazioaren ideia horri, eta bertako biztanleen arteko errespetuzko bizikidetzari egin nahi diete ekarpena orrialde hauek, eta planeta bereko bi errealitate elkartzeko ikerketari eskainitako denbora honek.

## BIBLIOGRAFIA

---

Aierbe, Peio. (2007). “Sin papeles: límites como movimiento, fuerza como agente de cuestionamiento del concepto de ciudadanía” in Suárez-Navaz, Liliana eta beste (Ed.). *Las luchas de los sin papeles y la extensión de la ciudadanía. Perspectivas críticas desde Europa y Estados Unidos*. Traficante de sueños. Madril.

Alba Rico, Santiago. (2001). *La ciudad intangible. Ensayo sobre el final del neolítico*. Hiru. Hondarribia.

\_\_\_\_\_ (2006). “El simulacro y su doble: la amenaza de los cuerpos crudos” in Pérez Sánchez, José Luis (Ed.). *Geografías del desorden. Migración, alteridad y nueva esfera social*. Aragoiko gobernua. 353.-362. or.

Aliende Urtasun, Ana. (2004). *Para comprender las transformaciones sociales en el mundo contemporáneo*. Editorial Verbo Divino. Lizarra.

Amin, Samir. (1999). *El capitalismo en la era de la globalización*, Paidós, Colección Estado y Sociedad, Barcelona.

Amorós, Celia. (1987). “El espacio de los iguales, espacio de las idénticas. Notas sobre poder y principio de individuación” in *Arbor*, azaroa-abendua, 113.-127. or.

Ander-Egg, Ezequiel. (1995). *Técnicas de investigación social*. Lumen. Buenos Aires.

Aranburu, Mikel. (2002). Los otros y nosotros. Imágenes del inmigrante en Ciutat Vella de Barcelona. Heziketa, Zientzia eta Kultura Ministeritza. Madrid.

Appadurai, Arjun. (2007). *El rechazo de las minorías. Ensayo sobre la geografía de la furia*. Editorial Tusquets. Barcelona.

Azcona, Jesús. (2002). “Las barreras de las culturas identitarias: migración y límites sociales”, in Calvo Manuel (Kod.). *Identidades culturales y Derechos Humanos*. Dykinson, Instituto Internacional de Sociología Jurídica de Oñate. 23.-48. or.

\_\_\_\_\_ (2004). *La reinención de la nación de los estados nacionales y la de las naciones sin estados*. EHU Euskal Herriko Unibertsitatea.

Azcona, José Manuel. (1992). *Los paraísos posibles, historia de la emigración vasca a Argentina y Uruguay en el siglo XIX*. Deustoko Unibertsitatea.

Augé, Marc. (1998). *Las formas del olvido*. Gedisa. Barcelona.

- \_\_\_\_\_ (2007). *El oficio de antropólogo*, Barcelona. Gedisa.
- Bairoch, Paul. (1982). *El Tercer Mundo en la encrucijada*. Alianza. Madrid.
- Balandier, George. (1993). “La aprehensión del otro: antropología desde fuera y antropología desde dentro”, in *Revista de Occidente*, 140: 35-42
- Barth, Fredrik (Konp.). (1976). *Los grupos étnicos y sus fronteras*. Fondo de Cultura Económica. México.
- Bartra, Roger. (2008). *Culturas líquidas en la tierra Baldía. El Salvaje europeo*. Katz Editores. Buenos Aires. Argentina.
- Basterretxea, Iziar. (2009). *Kultura kontzeptuaren inguruan*. Deustoko unibertsitatea. Bilbo.
- Bauman, Zigmunt. (2003). *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*. Siglo XXI. Madrid.
- \_\_\_\_\_ (2005). *Vidas desperdiciadas. La modernidad y sus parias*. Ediciones Paidós. Barcelona.
- Benhabib, Seyla. (2005). *Los derechos de los otros. Extranjeros, residentes y ciudadanos*. Editorial Gedisa. Barcelona.
- Bergalli, Roberto (Ed.). (2006). *Flujos migratorios y su (des)control. Puntos de vista interdisciplinares*. Anthropos. Barcelona.
- Berger, John; Morh, Jean. (2002). [1974]. *Un séptimo hombre*. Huerga y Fierro. Madrid.
- Bertaux, Daniel. (2005). *Los relatos de vida: Perspectiva etnológica*. Ediciones Bellaterra. Barcelona.
- Blom, Jan-Petter. (1976). “La diferenciación étnica y cultural”, in Barth, Fredrik (Konp.). *Los grupos étnicos y sus fronteras*. Fondo de Cultura Económica. México. 96. – 110. or.
- Bobes, Velia Cecilia. (2000). “Ciudadanía” in Baca. L.; Bokser, J.; Castañeda, F. et alli, *Léxico de la política*. FLACSO. México DF.
- Boltanski, Luc; Chiapello, Éve. (1999). *El nuevo espíritu del capitalismo*. Ediciones Akal. Madrid.

Bonilla, Marcelo. (2004). "La construcción de la imagen del inmigrante en España", in *Globalización, migración y derechos humanos*. Ediciones Abya Yala. Universidad Andina Simón Bolívar. Quito. Ecuador.

\_\_\_\_\_ (2006). *La construcción político-jurídica del otro en la España y la Cataluña de la globalización*. FLACSO. Ecuador.

Boris Diop, Boubacar. (2007). *Africa más allá del espejo*. Oozebap. Barcelona.

Cabanellas, Guillermo. (1998). *Diccionario Enciclopédico de Derecho Usual*. Editorial Heliasta. Buenos Aires. Argentina.

Calvo, Tomás; Barbolla, Domingo. (2006). *Antropología: Teorías de la cultura, métodos y técnicas*. Editorial @becedario. Badajoz.

Carrasco, Cristina. (1996). "Presente y futuro del trabajo. Apuntes para una discusión no androcéntrica". En Rodríguez, A., Goñi, B.; Maguregi, G. *El futuro del trabajo*. Bakeaz. Bilbo.

Carrasco, Cristina (Ed.). (2001). *Tiempos, trabajos y género*. Publicacions de la Universitat de Barcelona. Barcelona.

Castillo, Beverly y Barrantes, María José. (2005). *Visibilización de la mujer Segoviana. El proceso de construcción – deconstrucción de la identidad de género en mujeres líderes*. ADESO "Las Segovias"/SINSLANI. Estelí. Nicaragua.

Chihu Amparán, Aquiles. (1999). "Nuevos movimientos sociales e identidades colectivas", in *Iztapalapa* 47. México. 59-79

Ciria Valdéz-Gardea, Gloria; Balslev Clausen, Helene. (2007). "Migración y transnacionalismo. Experiencias de inmigrantes en el transporte público de San Diego, California" in *Región y sociedad*/Vol. XIX/ Número especial. Revista de El Colegio de Sonora. México. 199-218

Criado, María Jesús. (2001), *La línea quebrada: Historias de vida de migrantes*. Consejo Económico y Social CES. Colección Estudios. Madrid.

Coelho, Elizabeth. (2006). "Enseñar y aprender en escuelas multiculturales. Una aproximación integrada", in *Cuadernos de educación* 49. Barcelona.

Dalla Costa, Mariarosa. (2009). *Dinero, perlas y flores en la reproducción feminista*. Akal. Madrid.

De Sousa Santos, Boaventura. (1998). *La globalización del derecho. Los nuevos caminos de la regulación y la emancipación*, Universidad Nacional de Colombia - facultad de Derecho, Ciencias Políticas y Sociales Instituto Latinoamericano de Servicios Legales Alternativos (ILSA). Bogotá. Colombia.

\_\_\_\_\_ (2002). “Hacia un concepción multicultural de los derechos humanos”, in *El otro derecho* 28 ILSA Sociales Instituto Latinoamericano de Servicios Legales Alternativos. Bogotá. Colombia.

Del Valle Teresa eta veste. (2002). *Modelos Emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Narcea. Madrid.

Del Valle, Teresa. (2005). “El potencial de la tensión y su aportación a la antropología desde la crítica la feminista: fuentes, procesos y tipologías” in V. MAQUIEIRA eta beste (Ed.) *Democracia, feminismo y universidad en el siglo XXI*, Madrid, Instituto Universitario de Estudios de la Mujer, Universidad Autónoma de Madrid.

Delgado, Manuel. (1999). *El animal público. Hacia una antropología de los espacios urbanos*. Editorial Anagrama. Barcelona.

\_\_\_\_\_ (2007). *Sociedades movedizas. Pasos hacia una antropología de las calles*. Editorial Anagrama. Barcelona.

Douglass, William. (1977). *Oportunidad y éxodo rural en dos aldeas vascas: Echalar y Murelaga*. Colección Auñamendi. Donostia.

\_\_\_\_\_ (1986). *Cultura Vasca y su diáspora*. Teresa del Valle (Kon.). Baroja. Donostia.

\_\_\_\_\_ (1996). *Azúcar amargo: Vida y fortuna de los cortadores de caña italianos y vascos en la Australia tropical*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.

Duplá, Antonio. (1992). *Presencia vasca en América 1492-1992, Una mirada crítica*. Gakoa liburuak. Donostia.

Duran, Ramón, Etxezarreta, Miren y Sáez, Manolo. (2001). *Globalización capitalista: Luchas y resistencias*. Editorial Virus. Barcelona.

Durkheim, Emile. (2001). [1982]. *La división del trabajo social*. Akal. Madrid.

Esteban Galarza, Mari Luz. (2004). *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bellaterra. Barcelona.

Etxeberria, Xabier. (2004). *Las sociedades multiculturales actuales*. Ediciones Mensajero. Bilbo.

Fernández de Larrinoa, Kepa. (1992). *Estatu Batuetako mendebalde urrutiko Euskal jaiak*. Eusko Jaurlaritzako argitalpen nagusia. Gasteiz.

\_\_\_\_\_ (2007). *Dones del lugar*. LERA: Antropólogos sin fronteras. Lamia-Pamiela. Iruña.

Fernández de Larrinoa, Kepa (Ed.). (2000). *La cosecha pendiente. De la intervención económica a la infraestructura cultural y comunitaria en el medio rural*. Los libros de Catarata. UPV Campus de Alava.

Fernández Duran, Ramón. (2001). “*Capitalismo global, resistencias sociales y estrategias del poder*”, in Fernández Duran, Ramón, Etxezarreta, Miren; Sáez, Manolo: *Globalización capitalista. Luchas y resistencias*. Virus. Barcelona.

Foucault, Michel. [1975]. (2009). *Vigilar y Castigar: Nacimiento de la prisión*. Siglo XXI. Madrid.

\_\_\_\_\_ (1981). *Un diálogo sobre el poder y otras conversaciones*. Aukeraketa eta sarrera: Miguel Morrey. Alianza Editorial. Madrid.

\_\_\_\_\_ (2001). *Los anormales*. [1974]. Ediciones Akal. Madrid.

\_\_\_\_\_ (2003). *Hay que defender la sociedad*. Editorial Akal. Madrid.

García Canclini, Néstor. (2002). *Culturas Híbridas. Estrategias para entrar y salir de la modernidad*. Paidós. Barcelona.

\_\_\_\_\_ (2004). *Diferentes, desiguales y desconectados: Mapas de la interculturalidad*. Editorial Gedisa. Barcelona.

García Inda, Andrés. (2003). “El cosmopolitismo y las nuevas fronteras de la ciudadanía”, in *Inmigración y ciudadanía, Perspectivas sociojurídicas*. Martínez de Pisón, José; Giró Joaquín (Koord.). Universidad de la Rioja, Servicio de Publicaciones. Logroño.

Geertz, Clifford. (1992). *La Interpretación de las culturas*. Editorial Gedisa, Barcelona.

Giddens, A.; Hutton, W. (2001). *En el límite: la vida en el capitalismo global*. Criterios Tusquets. Barcelona.

Goffman, Erving. (1993). *Estigma. La identidad deteriorada*. Amorrortu. Buenos Aires. Argentina.



Goody, Jack. (1997). *Representaciones y contradicciones*. Paidós. Barcelona.

Gregorio Gil, C., Maquieira V.; Gutiérrez, E. (2000). “Políticas públicas, género e inmigración” in *También somos ciudadanas*. Pilar Pérez Cantó eta beste (Ed.). Instituto Universidad de estudios de la mujer. Ediciones de la Universidad Autónoma de Madrid.

Gregorio Gil, Carmen. (2009). “Silvia, ¿quizás tenemos que dejar de hablar de género y migraciones? Transitando por el campo de los estudios migratorios” Artikulua.

Guber, Rosana. (2001). *La etnografía, método, campo y reflexividad*. Editorial Norma. Colombia.

Haaland, Gunnar. (1976). “Factores económicos determinantes en los procesos étnicos”, in Barth, Fredrik (Konp.). *Los grupos étnicos y sus fronteras*. Fondo de Cultura Económica. México. 75. – 95. or.

Habermas, Jürgen. (1989). *Identidades nacionales y postnacionales*. Tecnos. Madrid.

\_\_\_\_\_ (1999). *La inclusión del otro. Estudios de teoría política*. Paidós. Barcelona.

Hobsbawm, Eric. (2000). *Historia del siglo XX. 1914-1991*. Plaza Edición. Barcelona.

Huarte, Maite. (2002). “Las mujeres inmigrantes en Navarra”. Argitaragabeko tesia. Iruña.

Huntington, Samuel; Tosaus, José Pedro. (1996). *El choque de civilizaciones y la reconfiguración del orden mundial*. Paidós. Barcelona.

Illouz, Eva. (2007). *Intimidades congeladas. Las emociones en el capitalismo*. Katz editores. Madrid.

Jordán, J.A. (1996). *Propuestas de educación intercultural para profesores*. Ediciones CEAC. Barcelona.

Juliano, Dolores. (2004). *Excluidas y marginales*. Cátedra. Madrid

Kapuscinski, Ryszard. (2006). *Encuentro con el otro*. Editorial Anagrama. Barcelona. 2007. Cracovia, Polonia.

Kymlicka, Will (1996). *Ciudadanía multicultural*. Paidós. Barcelona.

Laparra, Miguel. (2004). “La travesía del desierto de las rentas mínimas en España” in *Documentación Social* 135, 57. – 76. or. Iruña.

Mama, Amina. (2008). “Cuestionando la teoría: género, poder e identidad en el contexto africano” in Suárez-Navaz, Liliana; Hernández Rosalva, Aída (Ed.). *Descolonizando el feminismo. Teorías y prácticas desde los márgenes*. Ediciones Cátedra. Madrid.

Martínez Mauri, Monica; Larrea Killenger, Cristina. (2010). *Antropología social, desarrollo y cooperación internacional*. Editorial UOC. Barcelona.

Martínez de Lizarrondo, Antidio. (2009). “Políticas autonómicas de integración de inmigrantes: la educación”, in *Revista española de Educación Comparada* 15: 251 – 276

Marx, Karl. [1872]. (1983). *El capital*, Libro I. Siglo XXI. Madrid.

Maquieira, Virginia; Gregorio, Carmen; Gutiérrez, Elena. (2004). “Políticas públicas, género e inmigración, in Pérez Cantó, Pilar (Ed.) *También somos ciudadanas*. Universidad Autónoma de Madrid: Instituto Universitario de Estudios de la Mujer. Madrid. 371. -435. or.

Maquieira, Virginia (Ed.). (2006). *Mujeres, globalización y derechos humanos*. Ediciones Cátedra. Madrid.

Marshall, T.H.; Bottomorre, Tom. (1998). *Ciudadanía y clase social*. Alianza. Madrid.

Max-Neef, Manfred eta beste. (1993). *Desarrollo a escala humana. Conceptos, aplicaciones y algunas reflexiones*. Icaria. Barcelona.

Mernissi, Fátima. (1995). *El poder olvidado. Las mujeres ante un islam en cambio*. Icaria. Barcelona.

Mohanty, C. (1988). “Bajo los ojos de occidente: academia feminista y discursos coloniales”, in Suárez-Navaz, Liliana; Hernández, Aída (Ed.). (2008). *Descolonizando el feminismo: Teorías y prácticas desde los márgenes*. Valencia, Cátedra.

Montenegro, Marisela. (2004). “Comunidad y Bienestar Social”, en *Introducción a la Psicología comunitaria*. Editorial UOC. Barcelona.

Montenegro, Sofía. (2000). *La cultura sexual en Nicaragua*. Centro de Investigaciones de la Comunicación, CINCO. Managua. Nicaragua.

Montes del Castillo, Angel. “Antropología social, investigación acción y trabajo social Una reflexión desde la cooperación al desarrollo de los Andes”, in Fernández de Larrinoa, Kepa (Ed.). (2000). *La cosecha pendiente. De la intervención económica a la*

*infraestructura cultural y comunitaria en el medio rural*. Los libros de Catarata. UPV Campus de Alava.

Morice, Alain. (2007). “El difícil reconocimiento de los sin papeles en Francia. Entre tentación individualista y movilización colectiva” in Suárez-Navaz, Liliana; Macià Raquel; Moreno, Ángela (Ed.). *Las luchas de los sin papeles y la extensión de la ciudadanía. Perspectivas críticas desde Europa y Estados Unidos*. Traficantes de sueños. Madrid.

Observatorio Metropolitano. (2011). *La crisis que viene. Algunas notas para afrontar ésta década*. Traficantes de sueños. Madrid.

Pajares, Miguel. (2009). *Inmigración y mercado de trabajo. Informe 2009*. Documentos del Observatorio de la inmigración. Ministerio de Trabajo e Inmigración. Madrid.

Pavez, Amaya. (2010). “La construcción del sujeto social: una articulación de la identidad, la ciudadanía y el género”. Argitaragabeko tesia. Donostia.

Pérez-Agote, A.; Azcona, J.; Gurrutxaga, A. (1997). *Mantener la identidad. Los vascos del río Carabelas*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.

Pérez Cantó, Pilar (Ed.). (2004). *También somos ciudadanas*. Universidad Autónoma de Madrid: Instituto Universitario de Estudios de la Mujer. Madrid.

Pérez Orozco, Amaia. (2009). “Feminismo anticapitalista, esa Escandalosa Cosa y otros palabros” in *Jornadas Feministas Estatales*, Granada 2009. Coordinadora estatal de Organizaciones Feministas. Madrid. 573.-581. or.

Pujadas Muñoz, Juan José. (1992). *El método biográfico: El uso de las historias de vida en ciencias sociales. Cuadernos metodológicos 5*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid.

\_\_\_\_\_ (1993). *Etnicidad: identidad cultural de los pueblos*. Edema. Madrid.

Pujadas, Juan J.; Julie Massal. (2002). “Migraciones ecuatorianas a España: procesos de inserción y claroscuros”, in *Revista Íconos*, 14. FLACSO. Quito. Ecuador.

Ramírez, Eugenia. (2007). *Etnicidad, identidad y migraciones. Teorías, conceptos y experiencias*. CERA. Madrid.

Reygadas, Luis. (2002). *Ensamblando culturas. Diversidad y conflicto en la globalización de la industria*. Gedisa. Barcelona.

Romero, Manuel. (2010). *Migración, fronteras y capitalismo, Un deseo apasionado de trabajo más barato y servicial*. Editorial Cambalache. Oviedo.

Sáez, Manolo: *Globalización capitalista. Luchas y resistencias*. Virus. Barcelona.

Said, Edward W. (1993). *Cultura e imperialismo*. Anagrama. Barcelona.

\_\_\_\_\_ (2006). *Humanismo y crítica democrática*. Debate. Barcelona

Sartorri, Giovanni. (2001). *La sociedad multiétnica*. Taurus. Madrid.

Sassen, Saskia. (2003). *Contrageografías de la globalización*. Traficantes de sueños. Madrid.

Sabatier, Colette; Berry, John. (1996). “Inmigración y aculturación”, in Bourhis, R.; Leyens, J.P. *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos*. Editorial McGraw-Hill. Madrid. 217-239

Sen, Amartya. (2000). *Desarrollo como Libertad*. Editorial Planeta. Madrid.

Silveira, Héctor C. (2000). *Identidades y democracia*. Trotta. Madrid.

Stolcke, Verena. (1992). “El sexo para el género como la raza para la etnicidad”, en *Mientras tanto* 48: 87-113. Barcelona.

Suárez-Navaz, Liliana. (1999). “Hacia una ciudadanía ‘postnacional’”. *Fronteras interiores, integración y normalización*, in Pujadas Muñoz, Marín Díaz, País de Brito (Koord.) *Globalización, fronteras culturales y políticas y ciudadanía*. VIII Congreso de Antropología. Santiago de Compostela. 203.-215. or.

Suárez-Navaz, Liliana. (1999). “La construcción social del fetichismo de los papeles: ley e identidad en la frontera sur de Europa” in Terrades I. (Ed.), *Antropología Jurídica*. Santiago de Compostela, Federación de Asociaciones de Antropología del Estado Español.

Suárez-Navaz, Liliana, Macía, Raquel y Morreno, Ángela (Ed.). (2007). *Las luchas de los sin papeles y la extensión de la ciudadanía. Perspectivas críticas desde Europa y Estados Unidos*. Editorial traficantes de Sueños. Madrid.

Suárez-Navaz, Liliana; Hernández, Aída (Ed.). (2008). *Descolonizando el feminismo. Teorías y prácticas desde los márgenes*. Ediciones Cátedra. Madrid.

Talpade, Chandra. (2008). "De vuelta a "Bajo los ojos de Occidente: la solidaridad feminista a través de las luchas anticapitalistas", in Suárez-Navaz, Liliana, Hernández, Aída (Ed.). *Descolonizando el feminismo. Teorías y prácticas desde los márgenes*. Ediciones Cátedra. Madrid

Torrabadella, L.; Tejero, E.; Lemkow, L. (2001). *Mujeres y lucha cotidiana por el bienestar*. Icaria. Barcelona

Torres, Olimpia; Barahona Milagros. (2004). *Las migraciones de nicaragüenses al exterior: un análisis desde la perspectiva de género*. Fondo de Población de Naciones Unidas. Managua. Nicaragua.

Valencia, Jesús. (2011). *La ternura de los pueblos. Euskal Herria Internazionalista. Txalaparta*. Tafalla. Nafarroa.

Varela, Amarela. (2007). "¿Papeles?, ¡para todos! Diez años de movimiento de migrantes sin papeles en Barcelona. Balance y perspectivas", in Suárez-Navaz, Liliana, Macía, Raquel; Moreno, Ángela (Ed.). *Las luchas de los sin papeles y la extensión de la ciudadanía. Perspectivas críticas desde Europa y Estados Unidos*. Traficante de sueños. Madrid. 215. – 235. or.

ZZ.AA. (2008a). *Frontera Sur. Nuevas políticas de gestión y externalización del control de la inmigración en Europa*. Virus. Barcelona.

ZZ.AA. (2008b). *La igualdad no es una utopía*. Congreso Internacional e interdisciplinar Mundos de Mujeres. Thomson-Aranzadi. Madrid.

Velasco, Honorrio; Díaz de Rada, Ángel. (2006). *La lógica de la investigación etnográfica*. Editorial Trotta. Madrid.

Zabala, Begoña. (2001). "Mujer y Globalización". *Globalización, inmigración y cuestión nacional*. Cuadernos de formación IPES. Bilbo.

\_\_\_\_\_ (2003). "Mujeres inmigrantes en Euskal Herria" en *Herria 2000* Eliza 185.

\_\_\_\_\_ (2008). *Movimiento de mujeres, mujeres en movimiento*. Txalaparta. Tafalla. Nafarroa.

Zanfrini, Laura. (2004). *La convivencia interétnica*. Alianza. Madrid.

Zapata-Barrero, Ricard. (2003). "Inmigración y multiculturalidad: Hacia Un Nuevo Concepto de Ciudadanía" in Martínez de Pisón, J.; Giró, J. (koord.) *Inmigración y*

*Ciudadanía: perspectivas sociojurídicas*. Universidad de la Rioja. Logroño. 113.-128. or.

Zapata Solano, Mario. (2006). *Etorrkinak eta Hizkuntza-ereduak*. Soziologiazko Euskal Kuadernoak 20. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

### **Boletinak**

Enfoques 8, 2010

Enfoques 9, 2010

Enfoques 11, 2011

Enfoques 12, 2011

El Migrante 106, 2011.

SOS Arrazakeria, Estatu espainiarrean arrazakeriari buruzko Urteko txostena 2002

SOS Arrazakeria, Estatu espainiarrean arrazakeriari buruzko Urteko txostena 2006

SOS Arrazakeria, Estatu espainiarrean arrazakeriari buruzko Urteko txostena 2007

SOS Arrazakeria, Estatu espainiarrean arrazakeriari buruzko Urteko txostena 2008

SOS Arrazakeria, Estatu espainiarrean arrazakeriari buruzko Urteko txostena 2009

Informe Técnico realizado por la Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR). 2009.

Declaración Redes Feministas de América Latina y el Caribe, CEPAL, México 2004

### **Aldizkarietan**

Andreu, Jerónimo y Jiménez Lidia. (2010). “Abusos sexuales a inmigrantes: víctimas del oro rojo”. *El País*, 13-06-2010.

Alted Vigil, Alicia. (2010). *Le Monde Diplomatique*. “Le Monde, Atlas de las migraciones, las rutas de la humanidad”. Akal. Fundación Mondiplo.

Cobo, Rosa. (2002b). "Multiculturalismo y feminismo: una contribución al debate", in *Cuadernos del Ateneo de la Laguna* (Tenerife) 12, 13-14.

Delgado, Manuel. (2002). *Otras palabras sobre la inmigración. 18*. Kataluniako Parlamentuan egindako adierazpenak, 2001eko ekainaren 8an.

Fruttero, Anna y Wennerholm, Carolina. (2008). "Migración Nicaragüense: un análisis con perspectiva de género". *Serie Cuadernos de género para Nicaragua 6*. Managua. Nicaragua.

Le Monde Diplomatique. (2010). "Le Monde, Atlas de las migraciones, las rutas de la humanidad". Akal. Fundación Mondiplo.

Majuelos, Paco. (2000). "El Ejido, balance", in *Mugak 11*.

Gualda y Ruíz. (2004). *Migraciones internacionales, 2*, Bol.

Íconos 14. (2002). Quito, FLACSO-Ecuador.

Orrtíz, Hugo. (2008). "Gentenueva" *Lagunberriak. Revista latinoamericana*. BI 3149/08 Depositua.

Suárez-Navaz, Liliana. (2004). "Transformaciones de género en el campo transnacional. El caso de mujeres inmigrantes en España" in *La ventana, Revista de estudios de género 20*. Universidad de Guadalajara. Guadalajara. México. 293-331 orr.

Wagman, Daniel. (2007) "Perfil racial y práctica policial" in *SOS Arrazakeria, Estatu espainiarrean arrazakeriari buruzko Urteko txostena 2007*. 117.-118. or.

## Web orrialdeak

Agurto, Sonia y Guido, Alejandra. (2003). "Las dos caras de las migraciones"  
[http://www.elobservadoreconomico.com/archivo\\_anteriorr/133/brechas.htm](http://www.elobservadoreconomico.com/archivo_anteriorr/133/brechas.htm)  
[Konsulta-eguna: 2010ko apirilaren 11a]

Aierdi, Xabier (2007). Charla en Jornadas de Mundu Bildu en HikaAteneo. Bilbo. 6 de noviembre 2007. <http://vimeo.com/441017>  
[Konsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 20a]

Alba, Santiago. (2006). Entrevista realizada por Yusu Nava  
<http://www.webislam.com/?idt=6018>  
[Konsulta-eguna: 2010ko uztailaren 25a]

Alba, Santiago. (2010). “Imágenes para la solidaridad”. Izquierda anticapitalista-ren udako unibertsitatean egindako elkarrizketa. Girona  
<http://www.askapena.orr.org/askapenaTB/?p=2462>  
 [Kontsulta-eguna: 2011ko uztailaren 5a]

Amezaga, Josu. (1998). “Kulturaz eta kultur politikaz”. *Jakin*, 105 zenb.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin98\\_105/Jakin98\\_105\\_073.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin98_105/Jakin98_105_073.pdf)  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 9a]

Arriagada, Irma. (2009). *La organización social de los cuidados y vulneración de derechos en Chile*. UN-INSTRAW (Instituto Internacional de Investigaciones y Capacitación de las Naciones Unidas para la Promoción de las mujeres). República Dominicana.  
[http://www.uninstraw.org/data/media/documents/publications/cuidados\\_y\\_vul\\_de\\_derechos\\_-\\_chile.pdf](http://www.uninstraw.org/data/media/documents/publications/cuidados_y_vul_de_derechos_-_chile.pdf)  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 17a]

Bermudo, José Manuel. (2001). “Ciudadanía e inmigración” en *Scripta Nova. Revista Electrónica de Geografía y Ciencias Sociales*, V. Bol, 94 zenb. (32). Barcelona, Barcelonako Unibertsitatea. <http://www.ub.es/geocrit/sn-94-32.htm>  
 [Kontsulta-eguna: 2011ko urtarrilaren 18a]

Blanco, Cristina. (2007). “Transnacionalismo. Emergencia y fundamentos de una nueva perspectiva migratoria”.  
<http://www.raco.cat/index.php/papers/article/viewFile/74158/94201>  
 [Kontsulta-eguna: 2011ko uztailaren 20a]

Callejeros Viajeros. La Cuatro. 22 de Noviembre de 2010.  
<http://www.videosonline.co.cc/callejeros-viajeros-nicaragua/>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko azaroaren 30a]

Carrasco, Cristina. (2010). “Tiempos y trabajos desde la experiencia femenina”. ECOS CIP Ecosocial. 09-03-2010. <http://www.rebellion.orr.org/noticia.php?id=101876>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 19a]

Carrizo Fernández, Silvia. (2007). *Manos que mueven el mundo*. Malen EtxeaK egindako ikertketa.  
[http://www.mugak.eu/ef\\_etp\\_files/view/Manos\\_que\\_Mueven\\_el\\_Mundo.\\_Silvia\\_Carrizo.pdf?package\\_id=2392](http://www.mugak.eu/ef_etp_files/view/Manos_que_Mueven_el_Mundo._Silvia_Carrizo.pdf?package_id=2392). [Kontsulta-eguna: 2011ko martxoaren 25a ]

CEPAL. (2001). Comisión Económica para América Latina.  
<http://www.eclac.orr.org/cgi-bin/getProd.asp?xml=/prensa/noticias/comunicados/4/7914/P7914.xml&xsl=/prensa/tpl/p6f.xsl&base=/prensa/tpl/top-bottom.xsl>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 21a]



CEPAL. (2006).

<http://impreso.elnuevodiario.com.ni/2006/03/23/economia/15576>

[Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 21a]

CEPAL. (2009).

<http://archivo.laprensa.com.ni/archivo/2009/abril/25/noticias/economia/323738.shtml>

[Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 21a]

Conferencia Ministerial Europea sobre Integración. (2010).

<http://www.tt.mtas.es/periodico//inmigracion/201004/declaracion.pdf>.

[Kontsulta-eguna: abuztuaren 3a]

Corrbacho, Celestino. (2010). El Confidencial.

<http://www.elconfidencial.com/espana/ayuntamiento-vetara-empadronamiento-inmigrantes-papeles-20100112.html>.

[Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuare 3a]

Delgado, Manuel. (2000). “El discapacitado cultural: Una nueva figura de la exclusión en la escuela”. Barcelona: Instituto Catalán de Antropología.

<http://www.educaweb.com/esp/servicios/monografico/multiculturalidad/opinion 5.asp>

[Kontsulta-eguna: 2010ko maiatzaren 13a]

Delgado, Manuel. (2002). “Anonimato y ciudadanía”. *Mugak* 20

<http://revista.mugak.eu/articulos/show/188>.

[Kontsulta-eguna: 2010ko maiatzaren 13a]

Delgado, Manuel. (2008). “Apropiaciones inapropiadas”.

<http://www.ciutatsocasionals.net/textos/textosprincipalcast/delgado.htm>.

[Kontsulta-eguna: 2010ko maiatzaren 13a]

Diario Navarra, 2011ko otsailaren 13a.

<http://www.diariodenavarra.es/20110223/navarra/eneriz-constata-jovenes-navarros-buscan-integracion-extranjeros-grupo.html?not=2011022313234043&idnot=2011022313234043&dia=20110223&seccion=navarra&seccion2=politica&chnl=10&ph=4>

[Kontsulta-eguna: 2011ko otsailaren 23a]

Duran, J., Jiménez, P. J. (2006). “Fútbol y Racismo: un problema científico y social” en *Revista Internacional de Ciencias del Deporte*. 68-94 orr.

<http://www.cafyd.com/REVISTA/art5n3a06.pdf>

[Kontsulta-eguna: 2010ko otsailaren 12a]

Efe/Madrid. *Visión Mundial*. (2007).

<http://www.padigital.com.pa/archive/05152007/visiont.shtml>

[Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 22a]

Eusko Jaurlaritza (Soziolinguistikazko Inkesta. (2001). *Aztiker*.

<http://aztikerdb.com/dt/index.php?erakus=orrriak&zo=275>

[Kontsulta-eguna: 2010ko martxoaren 2a]

Fanon, Frantz. (1952). De su libro "*Pieles Negras, Máscaras Blancas*", escrito y publicado en Francia en 1952. <http://www.elcorreo.eu.orr/?Frantz-Fanon-1925-1961&lang=fr>. [Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 2a]

Freshuelva. *Revista 12*. (2010). <http://www.freshuelva.es/revistas.php>.

[Kontsulta-eguna: 2010ko abenduaren 18a]

Galeano, Eduardo. (2009).

<http://www.aulahispanica.com/node/273>.

[Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 18a]

García, J. Ignacio y Troncoso, David. (2010). *Actual 49. La inmigración en Andalucía. Un análisis con datos de la Seguridad Social (2007-2008)*. Centro de Estudio Andaluces. Consejería de la Presidencia. Sevilla.

<http://www.centrodeestudiosandaluces.es/index.php?mod=publicaciones&cat=18&id=2526&ida=0&idm>

[Kontsulta-eguna: 2011ko maiatzaren 16a]

Gil Rodríguez, Eva Patricia. (2005). "Simulacro, Sujetividad y Biopolítica; de Foucault a Baudrillard". *Observaciones Filosóficas 1*.

<http://www.observacionesfilosoficas.net/simulacrosubjetividad.html>.

[Kontsulta-eguna: 2011ko maiatzaren 13a]

Gómez Gil, Carlos. (2007). "Asociacionismo de inmigrantes: el reto de avanzar hacia su plena incorporación social." 10 de octubre de 2007. *Pueblos Aldizkaria*. Urriaren 10ª

<http://www.revistapueblos.orr/spip.php?article661>

[Kontsulta: 2010ko abuztuaren 16a]

Gregorio, Carmen. (2009). "Mujeres inmigrantes: Colonizando sus cuerpos mediante fronteras procreativas, étnico-culturales, sexuales y reproductivas" *Viento Sur 104*. 2009ko uztaila.

[http://www.vientosur.info/articulosabiertos/Vs104\\_Gregorio\\_Mujeresinmigrantes.pdf](http://www.vientosur.info/articulosabiertos/Vs104_Gregorio_Mujeresinmigrantes.pdf)

[Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 25a]

Grupo inmigración y sistema penal

[www.inmigrapenal.com](http://www.inmigrapenal.com)

[Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 18a]

Gualda, Estrella y Ruíz, Marta. (2004). “Migración femenina de Europa del Este y Mercado de trabajo agrícola en la provincia de Huelva, España” in *Migraciones Internacionales* 2. Bol. 36-65 orr. México.

<http://redalyc.uaemex.mx/pdf/151/15102402.pdf>

[Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 18a]

Harvey, David. (2007). Entrevista en el diario *El País* suplemento literario “Babelia”, 8 de Septiembre de 2007.

[http://www.elpais.com/articulo/ensayo/espacio/publico/ideal/conflicto/continuo/elpepuculbab/20070908elpbabens\\_5/Tes](http://www.elpais.com/articulo/ensayo/espacio/publico/ideal/conflicto/continuo/elpepuculbab/20070908elpbabens_5/Tes)

[Kontsulta-eguna: 2010ko maiatzaren 18a]

Hawkins, Daniel. (2008). “Fronteras y límites: tansnacionalismo y Estado-nación”. *Boletín de Antropología*, 22. Bol., 39 zenb., 132-158 orr. Antioquiako Unibertsitatea. Colombia.

<http://redalyc.uaemex.mx/pdf/557/55711908006.pdf>

[Kontsulta-eguna: 2011ko uztailaren 1a]

INIDE Instituto Nacional de Información de Desarrollo. “Perfil y características de los pobres en Nicaragua”. (2005).

<http://www.inide.gob.ni/Pobreza/publicacion/Pobrezafinal05.pdf>

[Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 16a]

Informe Técnico realizado por la Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR) en el marco del estudio europeo DEVAS. *Situación de los centros de internamiento para extranjeros en España*. Pau Pérez-Sales ikerketaren zuzendaria. 2009ko abendua.

<http://www.cear.es/informres/Informe-CEAR-situacion-CIE.pdf>

[Kontsulta-eguna: 2011ko maiatzaren 17a]

Juliano, Dolores. (2006). “La escuela y las niñas que han venido de lejos”.

[http://weib.caib.es/Documentacio/jornades/Web\\_I\\_Cong\\_Medit/PDFs/escola2.pdf](http://weib.caib.es/Documentacio/jornades/Web_I_Cong_Medit/PDFs/escola2.pdf)

[Kontsulta-eguna: 2009ko azaroaren 12a]

Kaosnlared.net. (2010).

<http://www.kaosnlared.net/noticia/sos-racismo-nafarroa-ha-difundido-video-muestra-maltrato-objeto-inmigr>

[Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 12a]

La Prensa.com.ni. (2008).

<http://www.laprensa.com.ni/archivo/2008/julio/08/noticias/economia/270430.shtml>

[Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 17a]

- Lagarde, Marcela. (2003). “Mujeres cuidadoras: entre la obligación y la satisfacción”. Sare 2003. Emakunde.  
[http://webs.uvigo.es/pmayobre/textos/marcela\\_lagarde\\_y\\_de\\_los\\_rios/mujeres\\_cuidadoras\\_entre\\_la\\_obligacion\\_y\\_la\\_satisfaccion\\_lagarde.pdf](http://webs.uvigo.es/pmayobre/textos/marcela_lagarde_y_de_los_rios/mujeres_cuidadoras_entre_la_obligacion_y_la_satisfaccion_lagarde.pdf)  
 [Kontsulta-eguna: 2009ko azaroaren 10a]
- Lagarde, Marcela. (2006). “Pacto entre mujeres y sorrorridad”. Madrid.  
[webs.uvigo.es/pmayobre/textos/marcela\\_lagarde\\_y\\_de\\_los\\_rios/sorrorridad](http://webs.uvigo.es/pmayobre/textos/marcela_lagarde_y_de_los_rios/sorrorridad)  
 [Kontsulta-eguna: 2009ko azaroaren 10a]
- Larrinaga, Carlos. (2002).  
[www.juandegaray.org](http://www.juandegaray.org)  
 [Konsulta: 2008ko maiatzaren 2a]
- Larrinaga, Carlos. (2002). “Incidencia de las guerras carlistas en la inmigración vasca hacia la República Argentina”. Buenos Aires-ko Laurak Bat elkartearen emandako hitzaldia 2002ko uztailearen 23an  
[http://www.juandegaray.org.ar/fvajg/docs/Guerras\\_Carlistas\\_y\\_Argentina](http://www.juandegaray.org.ar/fvajg/docs/Guerras_Carlistas_y_Argentina)  
 [Kontsulta-eguna: 2008ko maiatzaren 2a]
- Martínez Escamilla, Margarita. (2009). “Para que el derecho no se detenga a la puerta de los CIEs. Análisis del régimen jurídico del internamiento de extranjeros”. Grupo inmigración y sistema penal.  
[www.inmigrapenal.com](http://www.inmigrapenal.com)  
 [Konsulta: 2010ko maiatzaren 2a]
- Morales, Evo. (2009).  
[http://www.bbc.co.uk/mundo/america\\_latina/2009/09/090914\\_0858\\_morrales\\_madrid\\_pea.shtml](http://www.bbc.co.uk/mundo/america_latina/2009/09/090914_0858_morrales_madrid_pea.shtml) [Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 17a]
- Nafarroako Arartekoaren txosten berezia. (2008). *Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrak Nafarroako Forru Komunitatean*.  
<http://www.defensornavarra.com/index.php/eu/Argitalpenak/Txosten-bereziak/2008/Bidaiderik-gabeko-adingabe-atzerritarrak-Nafarroako-Forru-Komunitatean>  
 [Kontsulta-eguna: 2011ko apirilaren 21a]
- Nagorre, G y Soto A.U. (2011).  
<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2011/02/25/politica/euskadi/urhuegoia-compro-una-de-las-mayorres-fincas-de-nicaragua-a-la-ong-que-tutelaba-desde-lasarte-1>  
 [Kontsulta-eguna: 2011ko maiatzaren 25a ]
- Paris365. (2009).  
<http://paris365.blogspot.com/2009/05/colaborra.html>

[Kontsulta-eguna: 2011ko apirilaren 21a]

Pereira, Victor. (2007). “España como país de tránsito. El caso de la emigración porrtuguesa hacia Francia (1957-1974)”.

[http://www.aemic.orr.org/assets/articulos/162/orriginal/Victorr\\_Pereira\\_-\\_Migraciones\\_y\\_Exilios\\_9\\_-\\_2008.pdf?1283272942](http://www.aemic.orr.org/assets/articulos/162/orriginal/Victorr_Pereira_-_Migraciones_y_Exilios_9_-_2008.pdf?1283272942)

[Kontsulta-eguna: 2010ko apirilaren 21a]

Pérez-Díaz, Víctor. (2011). *Diario Noticias*.

<http://www.noticiasdenavarra.com/2011/03/10/economia/no-solo-hay-crisis-economica-tenemos-sobre-todo-una-crisis-cultural-de-fondo>

[Kontsulta-eguna: 2011ko apirilaren 21a]

Pujadas, Joan J., y Massal Julie. (2002). “Migraciones ecuatorianas a España: procesos de inserción y claroscuros” in *Iconos* 14. Quito, FLACSO-Ecuador. 67-72 orr.

<http://bibliotecavirtual.clacso.orr.org.ar/ar/libros/ecuador/flacso/iconos/ICONOS%2014/ICONOS%2014.pdf>

[Kontsulta-eguna: 2010ko apirilaren 21a]

Puntos de Encuentro. Boletina 51.

<http://www.puntos.orr.org/boletina/contenido.php?CodBole=97&key=1042>

[Kontsulta-eguna: 2011ko apirilaren 24a]

El País: “Abusos sexuales a inmigrantes: víctimas del orro rojo”. 2010-06-13.

[http://www.elpais.com/articulo/reportajes/victimas/orro/rojo/elpepusocdmg/20100613elpepusocdmg\\_4/tes](http://www.elpais.com/articulo/reportajes/victimas/orro/rojo/elpepusocdmg/20100613elpepusocdmg_4/tes)

[Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 13a]

Roda, Paco. (2010). “El discurso neoliberal en los Servicios Sociales”.

<http://www.rebelion.orr.org/noticia.php?id=104972>

[Kontsulta-eguna: 2011ko uztailaren 22an]

Rodgers, Dennis. (2004). “Pandillas: de la violencia social a la violencia económica” in *Envío* 272.

<http://www.envio.orr.org/articulo/2657>

[Kontsulta-eguna: 2011ko apirilaren 18a]

Sen, Amartya. (2008). “Para una ética global”, in *Primero la gente*.

[http://www.bitacorra.com.uy/noticia\\_1448\\_1.html](http://www.bitacorra.com.uy/noticia_1448_1.html)

[Kontsulta-eguna: 2010ko apirilaren 21a]

Senante, Alberto. (2011). “Viaje a los CIE, los ‘guantánamos’ de España.

<http://www.espanol.rfi.fr/europa/20110113-viaje-los-cie-los-guantanamos-de-espana>

[Kontsulta-eguna: 2011ko apirilaren 21an]

- Sereno, Eva. (2010). *Aprendemas.com*. 2010-06-14.  
<http://www.aprendemas.com/Noticias/DetalleNoticia.asp?Noticia=7136>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 2a]
- Sindominio. (2010). “Anotaciones en torno a la crisis”.  
[www.sindominio.net/etcetera](http://www.sindominio.net/etcetera)  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 15a]
- Suarez, Castillo y Albite, Pedro. (2005). “Immigrazioa, naziotasuna, eta herritartasuna”.  
<http://www.soziolinguistika.orr.org/eu/node/3330>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko maiatzaren 5a]
- Touraine, Alain. (1998). “La transformación de las metrópolis” Barcelona.  
<http://www.lafactorriaweb.com/articulos/touraine6.htm#>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 7a]
- Utopía contagiosa. (2008).  
<http://utopiacontagiosa.worrdpress.com/2008/03/03/5440-soldados-del-ejercito-espanol-son-inmigrantes/>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko abuztuaren 3a]
- Valiente Ots, Mauricio. *Rebelión*, 2010-01-21.  
<http://www.rebelion.orr.org/noticia.php?id=99073>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko otsailaren 20a]
- Vargas, Gina. (2007). “Democracia Radical, una propuesta feminista ante el cambio de paradigmas. Articulación Feminista Marco Sur”.  
<http://www.radiotierra.cl/node/270>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko uztailaren 26an]
- Vilar, Juan B. (2006). “Retorno y retornados en las migraciones españolas a Europa en el siglo XX: Su impacto sobre la modernización del país. Una aproximación”.  
<http://revistas.um.es/analeshc/article/view/88641/85751>  
 [Kontsulta-eguna: 2010ko martxoaren 2a]
- Wagner, Heike. (2007). “Maternidad transnacional: discursos, estereotipos y prácticas”.  
<http://homepage.univie.ac.at/heike.wagner/matertransn.pdf>  
 [Kontsulta-eguna: 2011ko apirilaren 27a]
- Zabala, Begoña. (2004). “Mujeres Inmigrantes. Algunas consideraciones desde el feminismo”.  
<http://www.elkarbanatuz.orr.org/mm/File/Bego%C3%B1a%20Zabala.pdf>  
 [Kontsulta-eguna: 2011ko apirilaren 4an]

Zapata Galindo, Martha. (2005). “El Movimiento Feminista en México, de los Grupos Locales de Autoconciencia a las Redes Transnacionales”.

[http://www.globaljusticecenter.org/ponencias2005/zapata\\_esp.htm](http://www.globaljusticecenter.org/ponencias2005/zapata_esp.htm)

[Kontsulta-eguna: 2011ko uztailearen 27a]

Zizek, Slavo. (2010) “Occidente practica una tolerancia virtual” Elkarrizketa 2010ko maiatzan.

[http://www.taringa.net/posts/info/5634868/Zizek\\_-La-tolerancia-virtual-en-Occidente\\_.html](http://www.taringa.net/posts/info/5634868/Zizek_-La-tolerancia-virtual-en-Occidente_.html).

[Kontsulta-eguna: 2011ko ekainaren 9a]

## ERANSKINAK

---

### Berriemaileen Fitxa tekbikoak

#### 1. Aleida

Jaiotza data: 1969

Jaioterria: Condega

Familia: 3 seme

Ikasketa maila: Magisteritza

Elkarrizketa eguna:

Nafarrera iritsitako data: 2008n etorri, urte batera itzuli eta berriro 2011n etorri.

Bere herrialdean egiten zuen lana: Irakaslea

Orain egiten duen lana: Barne neskametza

#### 2. Alejandro Martínez

Jaiotza data: 1958

Jaioterria: Condega

Familia: hiru seme-alaba, hiru biloba

Ikasketa maila: Batxilergoa eta Kontabilitatea

Elkarrizketa eguna: 2009ko urriaren 1ean

Nafarrera iritsitako data: 2005eko uztailaren 18an

Bere herrialdean egiten zuen lana: bulegari eta nekazari

Orain egiten duen lana: adinekoen zainketa, ostatu baten garbiketa

#### 3. Ana Isabel Hernández

Jaiotza data: 1968ko uztailaren 28an

Jaioterria: Somoto

Familia: 5 seme alaba (14 eta 24 urte bitartekoak), 5 biloba

Ikasketa maila: LH

Elkarrizketa eguna: Lizarran, 2010eko otsailaren 1ean

Nafarrera iritsitako data: 2007ko abenduaren 9an

Bere herrialdean egiten zuen lana: Janaria prestatu eta saldu, bere kabuz

Orain egiten duen lana: Barne neskametza

#### 4. Bayardo Antonio Reyes Ramírez

Jaiotza data: 1973ko irailaren 5ean

Jaioterria: Chinandega, Somotillo

Familia: 2 seme, 6 eta 17 urtekoak

Ikasketa maila: Batxilergoa



Elkarrizketa eguna: Lizarran, 2011ko martxoaren 28an  
Nafarrera iritsitako data: 2007ko martxoaren 28an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: Hazienda bateko kapataza, Giza eskubideen batzordean ere.  
Orain egiten duen lana: berreraikuntzan lehen, orain elbarria

## **5. Carelia Ortíz**

Jaiotza data: 1983ko azaroaren 3an  
Jaioterria: Leon  
Familia: andaluz batekin ezkondua  
Ikasketa maila: Batxilergoa  
Elkarrizketa eguna: 2011ko apirilaren 14an  
Nafarrera iritsitako data: 2004ko urriaren 18an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: gauza handirik ez  
Orain egiten duen lana: ostalaritzan

## **6. Carla Vanesa Álvarez Solís**

Jaiotza data: 1974ko abenduaren 15ean  
Jaioterria: Leon  
Familia: seme bat 9 urtekoa  
Ikasketa maila: Ingeniaritza Industrial 4. maila  
Elkarrizketa eguna: Lizarran, 2010eko otsailaren 1ean  
Nafarrera iritsitako data: 2008an, aurretik Malagara 2007ko urriaren 12an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: ikasten  
Orain egiten duen lana: neskame, gau bat bakarrik etxe barruan

## **7. César Augusto Salinas Espinosa**

Jaiotza data: 1983ko maiatzaren 23an  
Jaioterria: Somoto  
Familia: seme-alabarik gabe  
Ikasketa maila: Nekazaritza eta abeltzaintzako Ingeniaritza  
Elkarrizketa eguna: 2011ko apirilaren 26an  
Nafarrera iritsitako data: 2007ko urriaren 4an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: ikasketak bukatu berriak  
Orain egiten duen lana: Lekunberriko granja batean abeltzain

## **8. Efraín Edmundo Ordóñez Vargas**

Jaiotza data: 1970ko irailaren 15ean  
Jaioterria: Matagalpa  
Familia: 4 seme-alaba  
Ikasketa maila: LH  
Elkarrizketa eguna: Burlatan, 2010eko otsailaren 6an  
Nafarrera iritsitako data: 2006ko ekainaren 15ean  
Bere herrialdean egiten zuen lana: nekazaritzan  
Orain egiten duen lana: eskola bateko mantenimenduan

### **9. Fátima del Socorro Madrigal**

Jaiotza data: 1977ko azaroaren 8an  
Jaioterria: Leon  
Familia: 6 eta 10 urteko seme-alabak  
Ikasketa maila: DBH  
Elkarrizketa eguna: 2010eko otsailaren 18an  
Nafarrera iritsitako data: 2008ko maiatzaren 9an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: ostalaritzan  
Orain egiten duen lana: Barne neskametza

### **10. Fátima Calero**

Jaiotza data: 1980eko maiatzaren 8an  
Jaioterria: Ocotlan  
Familia: alaba bat  
Ikasketa maila: Psikologian 1. maila  
Elkarrizketa eguna: 2010eko maiatzaren 4ean  
Nafarrera iritsitako data: 2007ko maiatzaren 2an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: denda batean  
Orain egiten duen lana: neskame

### **11. Flor de M<sup>a</sup> Granera**

Jaiotza data: 1977ko maiatzaren 4an  
Jaioterria: Leon  
Familia: 4 seme-alaba, 5 eta 13urte tartean  
Ikasketa maila: LH  
Elkarrizketa eguna: 2010eko otsailaren 21a  
Nafarrera iritsitako data: 2007ko martxoaren 26an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: etxeoandrea  
Orain egiten duen lana: Barne neskametza

### **12. Guadalupe Ruiz Centeno**

Jaiotza data: 1968ko abenduaren 12an  
Jaioterria: Condega  
Familia: alarguna, 4 seme 20 eta 27 urte tartean  
Ikasketa maila: Magisteritza, lehen sorospinak  
Elkarrizketa eguna: Tafallan, 2011ko apirilaren 16an  
Nafarrera iritsitako data: 2009ko maiatzan  
Bere herrialdean egiten zuen lana: irakasle eta koordinatzaile  
Orain egiten duen lana: Barne neskametza

### **13. Helen Betancourt**

Jaiotza data: 1979ko urriaren 7an  
Jaioterria: Apacentro  
Familia: seme bat 3 urtekoa berarekin hemen  
Ikasketa maila: DBH  
Elkarrizketa eguna: 2010eko martxoaren 17an  
Nafarrera iritsitako data: 2005eko irailan  
Bere herrialdean egiten zuen lana: etxean  
Orain egiten duen lana: neskame

### **14. Lenin Ruiz Salgado**

Jaiotza data: 1960eko martxoaren 11an  
Jaioterria: Jinotepe, Carazo  
Familia: 2 seme-alaba han. Hemengo batekin ezkondua  
Ikasketa maila: DBH  
Elkarrizketa eguna: 2009ko irailaren 16an  
Nafarrera iritsitako data: 1989ko abuztuan  
Bere herrialdean egiten zuen lana: ostalaritzan, inteligentzi zerbitzuetan  
Orain egiten duen lana: eraikuntzan autonomoa

### **15. Magali**

Jaiotza data: 1979ko otsailaren 18an  
Jaioterria: Nagarote  
Familia: 2 seme-alaba, 4 eta 8 urtekoak  
Ikasketa maila: DBH  
Elkarrizketa eguna: 2010ko martxoaren 26an  
Nafarrera iritsitako data: 2006ko urriaren 18an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: Makila batean  
Orain egiten duen lana: neskame

### **16. Marcela Ivania Ortíz Mendoza**

Jaiotza data: 1997an  
 Jaioterria: Leon  
 Familia: umerik gabe  
 Ikasketa maila: Kimikan lizentziatua  
 Elkarrizketa eguna: 2010eko otsailaren 21ean  
 Nafarrera iritsitako data: 2007ko maiatzaren 31an  
 Bere herrialdean egiten zuen lana: irakasle  
 Orain egiten duen lana: neskame

### **17. Marlon Antonio Betancourt Torres**

Jaiotza data: 1974ko maiatzaren 22n  
 Jaioterria: Managua  
 Familia: seme bat  
 Ikasketa maila: LH  
 Elkarrizketa eguna: 2010eko urtarrilaren 31n  
 Nafarrera iritsitako data: 2007ko irailaren 12an  
 Bere herrialdean egiten zuen lana: gauza ezberdinetan, nekazaritzan...  
 Orain egiten duen lana: berreraikuntza

### **18. Mercedes Obando Madrigal**

Jaiotza data: 1965eko abenduaren 4an  
 Jaioterria: Leon  
 Familia: bi seme-alaba  
 Ikasketa maila: Magisteritza  
 Elkarrizketa eguna: 2010ko martxoaren 12an  
 Nafarrera iritsitako data: 2008ko ekainaren 7an  
 Bere herrialdean egiten zuen lana: irakaslea  
 Orain egiten duen lana: neskame

### **19. Miguel Zuasti Ortíz**

Jaiotza data: 1987ko abenduaren 5an  
 Jaioterria: Los Chiles, Río San Juan  
 Familia: aita Iruñakoa, 8 anai-arreba  
 Ikasketa maila: Unibertsitatean 1. maila  
 Elkarrizketa eguna: 2011ko apirilaren 13an  
 Nafarrera iritsitako data: 2009ko apirilaren 29an  
 Bere herrialdean egiten zuen lana: ikasi  
 Orain egiten duen lana: bigilantzia

### **20. Nelson Cristobal Palma**

Jaiotza data: 1972ko abuztuaren 27an  
Jaioterria: Managua  
Familia: seme bat  
Ikasketa maila: LH  
Elkarrizketa eguna: 2010ko martxoaren 12an  
Nafarrera iritsitako data: 2006ko abuztuan  
Bere herrialdean egiten zuen lana: taxi gidaria  
Orain egiten duen lana: ostalaritzan

## **21. Norwin Dario Pallavicini Ríos**

Jaiotza data: 1976ko abenduaren 19an  
Jaioterria: Chinandega  
Familia: umerik ez  
Ikasketa maila: Magisteritza eta Lizentziatura Merkataritzan  
Elkarrizketa eguna: 2011ko uztailaren 27an  
Nafarrera iritsitako data: 2009ko ekainan  
Bere herrialdean egiten zuen lana: Irakaskuntzan  
Orain egiten duen lana: Pelukeria

## **22. Ruth Palma**

Jaiotza data: 1976ko otsailaren 16an  
Jaioterria: Managua  
Familia: bi seme-alaba hemen, orain hemengo batekin elkartua  
Ikasketa maila: Batxilergoa  
Elkarrizketa eguna: 2011ko apirilaren 4an  
Nafarrera iritsitako data: 2007an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: etxean  
Orain egiten duen lana: ostalaritzan

## **23. Sergio Antonio Manzanares González**

Jaiotza data: 1975eko maitzaren 4an  
Jaioterria: Leon  
Familia: 3 seme-alaba  
Ikasketa maila: Eskubide lizentziaturan 2. maila  
Elkarrizketa eguna: 2009ko ekainaren 24an  
Nafarrera iritsitako data: 2008ko otsailan  
Bere herrialdean egiten zuen lana: lantegi batean  
Orain egiten duen lana: langabezian

## **24. Silvio Ortíz García**

Jaiotza data: 1957ko azaroaren 3an  
Jaioterria: Leon  
Familia: hiru alaba, Ukrainiar batekin ezkondua  
Ikasketa maila: Ingeniaritza elektrikoa  
Elkarrizketa eguna: 2009ko ekainaren 16an  
Nafarrera iritsitako data: 1999an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: elektrikari  
Orain egiten duen lana: langabezian

**25. Teresa Margarita Parajón Vargas**

Jaiotza data: 1968ko urriaren 15an  
Jaioterria: Leon  
Familia: 3 seme-alaba, 16 eta 22 urte tartean  
Ikasketa maila: idazkaritza  
Elkarrizketa eguna: 2010eko apirilaren 23an  
Nafarrera iritsitako data: 2007ko azaroaren 3an  
Bere herrialdean egiten zuen lana: idazkaria  
Orain egiten duen lana: Barne neskametza

**26. Yoka: Didier Yacobson Palacios**

Jaiotza data: 1987ko otsailaren 8an  
Jaioterria: Condega  
Familia: umerik ez  
Ikasketa maila: DBH  
Elkarrizketa eguna: 2011ko ekainaren 3an  
Nafarrera iritsitako data: 2009ko urriaren 25ean  
Bere herrialdean egiten zuen lana: gauza ezberdinetan  
Orain egiten duen lana: gizon adintsuen zainketa

**Tailerretan, eztabaida taldeetan eta elkartearen ekintzetan parte hartu dutenetatik aipatuak:**

Margarita, Carol, Maryuri, Yuri, Ivania, Yarinice, Blanca, Luis, Juanita, Leticia, Adolfo, Emma

**Nikaraguarrek ez diren berriemaileak:**

Feli, Alberto, Eugeni, Dounia, Carmen, Iñaki, Bara, Nihad, Franss, Diallo, Modu, Beatriz, Moha, Roberto, Maira, Angélica, Santiago, Alan, Fernando, Mirentxu, Mireya, Estefany, Raquel, Maite, Goizane, Rosana, Fernando, Mikel.

